



SERMOIAK (II)

Juan Mateo Zabala

Iturria: *Sermoiak (II)*, Fray Mateo de Zabala (Luis Villasanteren edizioa).
Euskaltzaindia, 2000.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZabalaSermoiakII.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

1. ATALA



1. KONFESIÑO EDO PENITENZIAKO SAKRAMENTUAREN GANEKO IKAS-BIDE, TA ERAKUS-ALDIAK

(B, 89-90. or.)

Berba-aurrekoa edo sartzaiera

1. Bageunko gure arimeagaz bear dogun ardurea; bagina geure Jaungoikoaganako esker onekoak, beti yagongo geunke bateoan artu genduan grazia, ta ez geunke eukiko bearrik geure arimea garbituteko penitentiako sakramentuagaz. Baia ezaguturik gure Salbagilleak etzala (ez yakala) erraz gure argaltasunari irautea Bautismuan arturiko grazian, imini gura izan eban bere Elexa Santaan bateo ostean eginiko pekatuak parkatuteko modua. Auxe da, bada, Penitentiako Sakramentua, zein eztan beste gauzarik ezipabere Jesukristok bere Elexan ifiniriko Sakramentu bat, parkatuteko bateatu ezkerro eginiko pekatuak, nai direala mortalak, nai benialak. Ain da bearra Penitentiako Sakramentua bautismo osteko pekatu mortalak parkatuteko, zein da Bautismua pekatu orijinala kentzeako; eta alan bateadu ezkerro pekatu mortala egin dabenak, gura badau parkatu dakion, konfesadu bear da, edo bai gitxienez euki bear dau Elexa Ama Santeak aginduten dabenean konfesetako gogo benetakoa, bada borondate au bagarik eztau akto kontrizinozkoak parkatuko; edo obeto esateko eztago akto kontriziño [sic] benetakorik, bear danean konfesetako propositu, ta gogo bagarik.

2. J.K° gure Jauna da Sakramentu onen egille, ipinlle, edo autore, eta leenago ez egoan onango Sakramenturik. Egia da egoala erremedioa pekatuen kontrakoa, edo pekatu mortala parkatuteko modua Penitentiako onaide edo birtutea, esan gura da pekatuen damuaria edo kontriziñoa; baia Jaunaren ontasunak eregi gura izan eban damu edo kontriziño au Sakramentu zaitera, ezarri, eta erazorik damutasun oneri konfesiño, ta absolutziñoa. Iru errazoegaitik egin gura izan eban au gure Salbagilleak. Lelengo, obeto ezagutu gengian, ezin geurez, edo geure indarrez urten ginaiala Demoniñoaren menpetik (eskupetik) ez agindupetik, ezta eldu bere, bere adiskide zaitera; ezipabere au datorkula J K°ren pasiño ta

merezimentuetatik. Bigarrenago, errezago izan lekigi pekatuak urteitea. Sakramentu au imini baño leen pekatu mortala parkatuko bazan, bear zan Kontriziñoa. Au egitea etzan ain erraz gizonaren argaltasun edo astuntasunarentzat. Baia, bein Penitentiako Sakramentua imini ezkerro, asko da atriziñoa, eta au errezago izanik Kontriziñoa baxen, errezago da bere pekatuen parkaziñoa Sakramentu onen bitartez, antxinako kontriziñoagaz baño. Irugarrenago, ziertuago egon gaitezkan parkatu yakuzala pekatuak. Kontriziñoa ezin ikusi leiteke, ezin enzun leiteke, eta alan ez egoan pekatuak parkaturik egozanen igargarririk: ez eban iñok esaten, *parkatu yatzuz pekatuak*; baia Penitentiako Sakramentuan daukagu Konfesiñoa, eta beragaz ateraten doguz kanpora pekatuak, Enzunik gure konfesiñoa, dirausku Konfesoreak: *Nik absolvietan zaitudaz zeure pekatuetatik*; esango baleuskuna legez Jaungoikoak, gizon kadenari esan eutsana: Euki egizu uste oso eta konfianza andi bat: parkatu yatzuz zeure pekatuak.

3. Yakiteko zer egiten daben arimaan Penitentiako Sakramentuak, edo zelangoak direan bere efekteak, leenago yakin bear dogu zer egiten deutsan pekatuak, mortala bada, gizonari. Lenengo kenduten deutso grazia, eta beragaitik eukan edertasun miragarria, baita iminten dau esan ezin leikian baño ezain eta kakazago. Bigarrenago, kenzen deutso eukan Jaungoikoaren semetasuna, eta augaitik zeruko ondasunetara eukan eskueskuea edo deretxoa; eta egiten dau onen orde Demoniñoaren eskupeko ta esklabo, kondenetan dabela orregaitik infernuko su ikaragarrietara. Irugarrenago, kenduten deutzaz ordura (artean) giño egin dituzan obra, ta egite on guztien merzimentuak, ain modutan ze, Elexa Santuan dagoan Santurik andienak, egingo baleu pekatu mortal bat bakarrik, bertatik galduko leukez bere merzimentu guztiak, eta geratuko litzateke ain pobre, ain billox, ain errukigarri, zein da pekatariarik andiena. Iru gatz onek kenduten deutzaz Penitentiako Sakramentuak gizonari, eta euren orde, atsera biurtuten deutzaz pekatuak kenduriko iru onak. Lelengo kenduten deutso ezaintasun bildurgarri guztia, eta emonik galdu eban grazia, biurtuten deutso beragaz naste leen eukan edertasun miragarria. Bigarrenago ateraten dau Demoniñoaren agindutik, eta egiten dau Jaungoikoaren seme, eta emoitien deutso pekatuak kendu eutsan zerurako eskueskune, edo deretxoa. Irugarrenago, biurtuten deutsoz pekatuak kendu eutsazan merzimentu guztiak bat bere faltatzaka. Baia ezin sakramentu onek ekarri leikeguz mesede miragarri onek, bost gauzak lagundu egiten ezipadeutse; eta onek dira: Lenengo, Examina konzienziakoa = Bigarrena, pekatuen damu edo dolorea = Irugarrena, ez geiago pekatuak egiteko propositu edo gogoa = Laugarrena pekatu guztiak konfesetea, edo esatea = Bost-



garrena, konfesoreak aginduten daben penitentzia bete edo egin ta kunplietea. Izanik ain bear eta preminazkoa Penitentiako Sakramentu au bateatu ezkeru pekatu egin dabeenentzako, ze bera bagarik, eztago Salbaziñorik; eta ezin iñor ondo konfesadurik bost gauza oneek bagarik, gura neuskezuez ainbat ondoen azaldu, argitan imini, edo explikadu. Onetarako adierazoko deutsuedaz banaan banaan bakotxa berba-aldi baten.

2. KONZIENZIAKO ESAMINAREN GANEKO BERBA-ALDIA

(B, 90-94. or.)

1. Konfesetako gogo, borondate edo intenziñoa badaukazu, lelengo lelengo egin bear dozun gauzea da, imini al daizun humiltasunik andienagaz Jaungoikoaren aurrean, eta ezagutu, ze zauriturik, ezaindurik, ta gexoturik, baita bere illik zaukazan pekatuak: ze aserratu ta irriturik dagoan Jauna zugaz eurak gaitik, eta aren Majestadea bigundu negar anpulluakaz, eta bere adiskide egiteko gurari bizi bategaz eskatu egiozu biotzetik, emon daizula zeruko argia, bere kontra egin dozuzan pekatu guztiak ezagutu eta burura ekarteko. Ain da bearra mesede au Jaunari eskatutea ze, bere laguntasuna bagarik ezin gomuta giñaikez geure pekatuak bear dana legez. Eskatu ezkeru Jaunari bere grazia ta laguntzea, artu egizu zeure konzienzia ondo aratuteko bear dozun astia, eta etzaitkez arin arinka ibili, zeure betiko salbaziñoa doian zeregin onetan. Yakin gurako dozu ameneko, ea zeinbat denpora bearko dozun zeure konzienzia esaminetako. Ezin au iñok beingoan esan leikezu, onen ganean gauza yakinik eztago-ta. Ezta guztientzat denpora bardina bear. Geiago bear dau urte-beterik urte-betera baxen konfesetan eztanak, ilebeterik ilebetera egiten danak baño; eta geiago onek zortzirik zortzira egiten danak baño. Geiago artu-emon, eta saldu-erosi andietan sarturik dagoanak, egun guztian atxurren soloan dagoanak baño. Geiago ekandu zitai, ordikeria, lapurkeria, aragizko (pekatu) loikerietan okotzeragiño sarturik dagoanak, onango ekandu zitalik edo galgarririk eztaukanak baño; eta alan, bakarrik esan neikezue bakotxak artu bear dabela ondo konzienzia esaminetako bear dan denporea, arrastaka ta estropezuka ibili bagarik.

2. Eta zelango ardurea artu bear da esamina onetan? Irudi edo exenplu bategaz au adietan emongo deutsuet. Urteiten dozu zeure etsetik diru-polsa andi bat zeugaz aldean dozula zerbaist erosteko, zorren bat pagetako, edo beste gauzaren baterako. Elduten zara erri edo etsera; zoaz zeure polsea ataraten; baia aror non topetan zarean bera bagarik. Begiraturen dozu etse atan yoan baiatzu; eta ikusirik ara baño leen galdu yatzula, ze egiten dozu? Biurtuten zara etorri zarean bidetik, bide edo albo guztietara begira, iñondik agiri bada, zeure artean diñozula: non galdu al neikean nik polsea? Urlia lekutan neugaz neunkan, ze antxe atera dot, au edo



beste gauzea pagetako: alan bada andik ona galdu izango dot. Urليا leku-tan yarri nintzan, eta alboan itxi neban yakea; beste leku atan igon bear izan neban lugaban bat, erreten bat igaro bear izan neban, eta zabala zalako, saltu andi bat emon neban. Leku onen baten yausi zatekean. Modo onetantxe biurtuten zara leen ibiliko bidetik, ardura andiagaz begiratuten dozu bidea ta alboak; baia guztiz ardura geiagogaz zabiltz eta arakatuten, edo errejistretan dozuz, non deritxazun galdu dozula zeure polsea. Auxe berau, bada, egin bear dozu konzienzia esaminadu gura dozunean bere. Biurtu zaitex urrango konfesiño ondo eginetik oraingño erabili dozuzan bideetatik. Begiratu egizu alde guztietara, ea agiri bada pekatu-rik; baia ardura andiagaz bategaz begiratu bear dozuz arako lekuak non deritxazun galdu ziñaikeala zeure arimea. Au egin bear dozu astiro, ez arrastaka; bada osterantxean ezin esan ziñaike konzienzia esaminetan dozula. Ezpabere esan egidazu: baziñoaz polsea galdu dozun bide orretatik al daizun arinen, edo karra guztiagaz, esan ziñaike, bide orretan galdu yatzun polsa baten atsean zabiltzala? Ezetz deritxat; ze edozeinek esango leuskizu: Gizona zelan esan txiai galduriko polsien billa zabiltzala bide orretan, ain arinka bazoaz? Polsa ori aurkitu edo topau gura badozu, zoaz geldi geldi alde guztietara begira, iñondik agiri bada; ze osterantxean ezteutsu iñok sinistuko, diru galdua topau gura dozula. Onen beste zuri bere esan leikezu arrastaka, eta arrapataka bazabiltz konzienzia esaminetan.

3. Oraindio bere obeto ta obeto ezagutu daizun, zelan egin bear dozun esamina au, gura deusut, geiago zeaztu, ze modutan egin bear dozun. Eskatu ezkerro Jaunari, onetarako bear dozun grazia ta argia, begiratu dozu, ea zeinbat denpora dan azkenengo konfesadu zineala, baita ateraten dozu kontu zortzi illabete direala. Begiratuten dozu, gero, ea ona izan bazan, ala ez, orduan egin zenduan konfesiñoa; eta deritxazu ez yakala ezer falta izan. Au eginik asten zara amar mandamentuetatik bost Ele-xakoetatik, eta zeure bizi-moduko egin-bearretatik, edo estaduko obligaziñoetatik zortzi illabete oneetan egin dozun bizitzea, eta pekatu-rik egin badozu denpora guzti onetan. Asiko zara bada Jaungoikoaren legeko lenengo mandamentutik; begiratuten dozu zerbeist esan badozu, edo blasfemadu badozu Jaungoiko, edo bere santuen kontra, edo fedeko artikuluen kontra zerbeist sinistu badozu. Ikusirik eztaukazula ezer mandamentu onen kontra, igaroten zara bigarrene-ra. Gogora etorten yatzu, auzi balio andiko bat euki dozula, zeinetan sarri yuramentu artu deusuten, eta zeinetan testigu askok zugaitik eta zure erreguz yuramentu egin dabeen; dakizu sarri-askotan guzurragaz yuramentu egin dozula, sarri-askotan aldatu, gitxitu edo geiagotu dozula; sarriaskotan testiguai eskatu deusa-

zula guzurragaz yuramentu egin daiela; sarri gorroto euki deusazula zeure auziko arerioari; sarri birao egin edo maldiziñoak bota deusazula, eta sarri maldizino oneek ezarri dozuzala zeure seme-alabeen aurrean. Esamina au ezta asko bear dan moduan konfesetako, ze eztozu esaten, edo etzara akusetan, ez zeinbat direan zure yuramentu guzurrezkoak, ez zeinbat direan besteai erasoak, ez zenbait direan gorroto ta maldiziñoak, eta ez zeinbat seme ta etsekoai emoniko xenplu deunga, edo eskandaluak. Ara bada zelan burura ekarri bear dozuzan pekatu orreek.

4. Imini zaitex astiro astiro pensetan zelan asi zan auzi ori, zeuri emon beutsuen, ala zeuk emon bazenduan: errazoerik bazeunkan, ala ez, auzia emoiteko, edo emon eutsuenari yarraituteko; emon bazenduan bengetako gogoagaz, edo besteari zeuntsan gorroto, edo ezinikusiaigaitik. Ze kalteak etorri yakazan besteari, zuk errazoa bagarik emon edo yarraituriko auzi orretarik. Kalte onen kontu aterarik al daizun ondoen, igaro zaitex zeuk eginiko yuramentuetara, eta atera egizu kontu, zeinbat bider egin dozuzan guzurragaz, zeinbat ezdabaidan ta dudeagaz; baita egiagaz izan arren bere, zeinbat bider geiagotu, edo gitxitu zenduan. Irago zaitex gero, testiguak zure erruz egin dituezanetara. Kontu atera egizu, zeinbat bider eskatu deutsezun yuramentu guzurrezko, edo falsoak egin daiezala; zeinbat bider egin dabeen, eta zeinbat bider egin gura izan eztabeen; ze eurak gura ez ebeenean, pekatu erazo ezpazeuntsen bere, zuk zure aldetik egin zenduan pekatu. Ezta ain gatx kontu ateretea zeinbat bider guzurragaz egin dan, eta zeinbat bider besteari erazo yakan. Igaro zaitex gatxago dan esaminara, au da, zeure arerio auzilariari euki deusazun gorroto, eta egin deusazun biraoetara. Asten zara kontu ateretan zeinbat bider gorroto euki deusazun; baia edo auzi onetatik etorri yatzuzan kalteak andiak direalako, edo deritxazulako errazoe bagarik emon yatzuzala auzia, edo zeure jeniñoa urea dalako, pitean pitean euki deusazun gorroto, ta auzia gogora etortzen yatzun guztian ezarten zeuntsan biraoak. Orregaitik ezin kontu ziatz atera ziñaike zeinbat bider gorroto euki deusazun, ez zeinbat birao egin deusazuzan, ez zeinbat bider izan direan semealaba, eta beste etxekoen aurrean. Orduan, bada, egin bear dozuna da, atera kontu zeinbat izango zirean gitxi bat gora beera astean, edo gitxienez egunean. Au bere ezin badozu, ekarri egizu burura zeinbat denpora iraun deusun birao eta maldiziñoak botetako euki dozun ekanduak, ze eratan geien biztu oi zinean zeure arerioaren kontra, zeinbat bider euki zenduzan era edo okasiño orreek, eta zeinbat gorroto euki edo zeinbat birao egin zenduzan bakotxean.



5. Bigarren mandamenturik igaro zaitetz irugarrenera, eta andik lau-
garrenera, eta egizu bakotxean esan deutsudana. Badaukazu ekanduren
bat, edo euki badozu okasiñoren bat, mandamenturen baten kontra peka-
tu egiteko, aintxe geiago geratu bear zara, aintxe ardura andiago bategaz
aratu bear dozuz zeure konzienziako basterrak. Modu onetan ibili ezkeru
Jaungoikoaren legeko amar mandamentuetatik, eta bost Elexakoetatik
igaro zaitetz zeure estadu edo bizi-moduko zereginetara. Orietan ardura
andiago bategaz begiratu bear dau bakotxak egin ezpadau, egin bear
dabena, ze ez egin badau egin bear eztabena; bada errezago ezagututen da
gatx egina, ze egin bear dana ez egitea baño. Ezkondua zara? Begira zelan
egin dozun zeure bizi-moduak aginduten deutsuna. Irakatzu deutsezu
doktrina kristiana zeure seme-alaba ta otseiñai? Ezi dozuz txikitxu zirean-
netik, zeure umeen mukerkeria, okerkeria ta gestokeriak? Egin dozu ale-
gina, aterateko sustraitik, euren ekandu zitelak, burua atera ebenetik? Itxi
deutsezu gura dabeen guztiagaz urteiten negar eztaielako? Zelatu dozuz
nora doazan, nogaz dabiltzazan, ze lagunakaz batzainduten direan, ze
etseetan sartzean direan? Berba baten: Zara zeure umeen Angeru-guar-
dako? Auxe guztiau esaminadu bear dau, konfesadu gura dabean ezkondu,
edo guraso batek. Zara erriko Fiel, edo uriko Alkate? Zelan begiratu dozu
zeure ardurara dagoan erri, edo uriagaitik? Galaazo dozu, deungaro gas-
tadu, edo galde [sic] ezteitez an uri edo erriko errenta, ondasun, eta
diruak? Egin dozu alegina auzotegi guztia bakean bizi daiten? Artu dozuz,
al dozuzan, modu guztiak, kendu eta erbestetuteko eskandalu guztiak?
Kastigadu dozuz gaizkin guztiak, alan zeure seme, aide ta adiskideak, zein
da beste guztiak, bardin bardin guztiak? Modu onetantxe esaminadu bear
dau bakotxak bere konzienzia norberen bizi-moduko bear, eta estaduko
obligaziñoen ganean.

6. Enzun dozu, Kristiñaua, ze modutan ekarri bear dozuzan burura
zure pekatuak, ondo konfesaduko bazara. Sarri ta sarri prediket an da egia
au pulpituetatik; alanbere derixat asko ta asko konfesetan direala donga-
ro, esaminearen faltaz. Au ezagututeko eztaukagu begiratu baxen, konfe-
setan datozenakaz yazoten dana. Iminten dira konfesoaren oñetan,
zeñatuten dira, eta dagoz ixil-ixilik zubil batzuk legetxe; eztakie zer esan,
ez zelan asi konfesetan. Itanduten deutso Konfesoarek: zeinbat denpora
da konfesadu zineala? Eranzuten dau: zortzi, edo amar ilebete, edo urte-
bete. Itanduten deutso Konfesoarek: egin dozu esamina konzienziakoa?
Bertatik diño: bai Jauna. Eta, zeinbat denpora emon dozu esamina-
ginean? Zortzi egun, Jauna. Edonok usteko dau, au enzunda, zortzi egun
emon dituzala gizon onek pekatuak burura ekarten. Baia itandu bekio:

Imita zeinbat denpora emon dozu bakotxean pekatuak gogora ekarten?
Eta eztaki zer eranzun: bakarrik diño: zortzi egun da: gaur konfesetako
asmuak artu nituzala, eta egunez ta gabez, etxean, oean, soloan, basoan ta
edonon egon nas gaur konfesadu bear dodala. Baia esan egidazu, imini
zara zeure bakarrean pensetan, nondik ebili zarean, eta zeinbat pekatu
egin dozuzan mandamentu bakotxaren kontra? Eztozu itaunde oneekaz
beste gauzarik aterako, ezpabere konfesetako artu eban gogoari dei egiten
deutsala konzienziako esaminea; eta geien geien eranzungo deutsuna da:
Aita: guk daukaguzan artuemonak eztira andi-andiak bere. Ain otzik au
esaten dabe ze, bertatik igarten yake, eztabeela denpora apur bat bere
emon esamina-ginean. Goazan aurrera.

7. Dirautso konfesoarek; bein esaminea egin dozun ezkeru, konfesa-
du egizuz, burura ekarri dozuzan pekatuak. Itandu begit berrorrek eran-
zuten dau. Asten da, bada, konfesoare itanduten, eta eldurik birao, arien,
berba loi, ordikeria, edo beste ekanduzko pekatuetara, itanduten deutso;
bota deutsezu zeure seme alaba, emazte, otsein edo ogitukoai biraorik?
Bai, Jauna. Zeinbat bider? Sarri, Jauna. Esan bekio konfesiño ori ez tala
asko; esan dagiala zeinbat direan egin dituzan biraoak. Arpelik egingo dau
alegina Konfesoarek yakiteko zeinbat direan, edo zeinbat bider. Geien
geien eranzungo dabena da, eztira biotzetik izan, intenzino deunga baga-
rik izan dira. Zer dauko zer ikusi bata bestea gaz? Esaizu, zeinbat izan
dieran biraoak, eta gero ikusiko dogu biotzetik izan direan, ala ez. Beste
batzuk eranzuten dabe: izango zirean ogei, edo ogeta amar. Esaten
badeutso konfesoarek, ez tala ori konzienzia esaminetea, eranzuten dau:
ezin bada nik geiago esan nei. Beste batzuk bein esan badagie ogei bider
egin dabeela pekatu bat, guztia da ogei. Ogei yuramentuak, ogei biraoak,
ogei gorrotoa, ogei berba loiak. Konfesiño modu onek pelleburuzkoak
dira, baita bildur izan leiteke onetariko geienak, guztiak ez esatearren, txar-
rrak direala, konzienziako esamina faltaz, ze au egin ezik, gura ta gur'ez
geratu bearko dabe pekatu askok konfesadu bagarik. Egin arren Konfe-
soreak alegina bere itauneakaz, pekatu guztiak argitara aterateko, ezin
ikus leikeana legez zer dagoan an-barruan, biak ibili bearko dabe itsu
mustuan: konfesoarek ezta kusalako, eta ikusi bere egin ezin leikealako, zer
dagoan konzienziaren barruan; konfesetan dana, barriz, ez tabelleko ondo
arakatu bere konzienzia. Orregaitik bada, neure enzula maiteak, gura
badozue neke gitxiagogaz, baita ondo konfesadu, artu egizue astia, eta
alegin guztiagaz aratu zeuen konzienziako baster ta okelu guztiak. Au egi-
ten badozue, eztozue eukiko konfesetara zoazenean, orain daukuzen
arazu edo enbarazurik. Konfesoarek lagunduko deutsue bere itauneakaz,



argitan ifinten zeuen konzienzia, guztiz nastadurik badago bere, kenduko deusue zeuen ganetik, makurturik zaukeezan pekatuen karga pisutsua, biziko zaree mundu onetan poz andian, eta artuko dozue bestean, penitentzia benetakoia egiten dabeenentzako gorderik dagoan gloria. Alan gerta deilla. Amen.

3. [KONZIENZIAKO ESAMINEA]

(J, 13-16. or.)

Scrutemur vias nostras, quaeramus,
et revertamur ad Dominum.
Threnor. c. 3.

Ezagaturik J.K.º gure Jaunak etxakola geure argaltasunari erraz, bautismuan artutako grazian irautea, ifini eban bere Elexa santun bateo ostein eginiko pekatuak parketako modua. Auxe da Penitentiako Sakramentua edo Konfesiño Santua, zein eztan beste gauzarik, ezpabere geurenak bere Elexan imini daben Sakramentu bat, parketako bateatu ezkeroko pekatuak nai direa [sic] mortalak, nai benialak. Ain da bearra Konfesiñoako Sakramentua bautismu osteko pekatu mortalak parkatuteko, zein dan bautismua pekatu orijinala kentzeako; eta alan bateatu ezkeroko pekatu mortala egin dabenak, gura badau parkatu dakion, konfesadu bear da, edo bai gitxienez egin bear dau akto kontriziñozkoa, Elexa Ama Santeak aginduten dabeen konfesetako gogo benetakoak lagunduten deusala ze ain bagarik ezta prestu (ezta gauza) akto kontriziñozko ori ezta gauza. Bost gauzak lagundu bear deutse Konfesiñoari gauza izateko, eta dira: lenengoa esamina konzienziakoa; bigarrena damua; irugarrena ez geiago pekatuak egiteko gogoa edo propositua; laugarrena pekatu mortal guztiak konfesoreari esatea; eta bostgarren Konfesoreak aginduten daben penitentzia egitea, eta kunplietea. Oneek bostok bana banazean azaldu ta iragarriko deusueguz arratsalde batzuetan; gaurko onetan, barriz, lelengotik asi (asiteko) gaitzan esplikaduko deusuet zer dan esamina konzienziakoa.

Da bada. Esamina au, alegina egitea burura ekarteko azkenengo konfesiño ondo eginetik eta ordioragino batek egin dituzan pekatuak. Esan dot azkenengo konfesino ondo eginetik, eta kontu onega Kristiñauak, ze ezta asko orainengo konfesa alditik onerako esamina egitea, leenagoko konfesiño bat edo geiago deungaro eginak badaukaz. Badira K. asko larregi daukeezanak oker egin da Konfesiñoak, edo lotsaz pekatu mortalen bat edo geiago gorde dituezalako, edo egiazko damu bagarik konfesadu direalako. Zer egingo dabee onelangoak oraintsuengo Konfesiñorik ostera egin gura dabeenera arteko esamina eginda? Ez gauz'onik, eta bai sakrilejioak geiagotuteko bideak artu. Onelangoak Konfesiño deungaro egin guztiak barriztau bear dituez, ta orretako egin bear dabe denpora guzti orretako



esaminea. Osterantxean ezin salbadu leitekez. Pekatuak burura ekarte da Konfesoari bere konzienzia agertuteko; akusetako noberen burua, Jgkoaren ordezkariak parkatu dagiezan absoluzioaren bidez (dala medio). Konfesoaria da Kristo-ren lekuan dagoan Jueza. Onek emaiten dau epaia ta sententzia; ta orretarako yakin bear dau zeen ganean emon, ganekoan oker ibiliko da. Araz ostein da arimako osagillea ta Medikua. Medikua bategi garbiro esan bear yakoz gorputzeko gatak ezer estaldu bagarik oker ibili ze dedin. Yakin bear dau noskoa dan gatxa, zarra ala barria, nondi yaio yakon. Alan bada konfesoari bere Medikua dan aldeti yakin bear dau pekatura zarra edo barria dan, antxinatik datorren edo ez; nondik erretan dan, zelango leku edo adiskidek deungeetatik; gatxa dan miñekoa, eskukoa, bularrekoa edo zein lekutakoa, au da berbaz, eskuz, biotzez, edo zegaz pekatu egin dan orretarako, bada, bear da esamina kontuzkoa, gauza esan bear direanak Konfesoari agertuteko. Ain da bear bearra ta premiñazkoa esamina kontuzkoa au ze, batek bere nagitasun andiz itxiten badau esaminaren faltaz pekatu mortalen bat konfesadu bagarik, egingo dau konfesiño okerra; ta esaminako nagitasuna laburra ta txikerra izan bada, izango da pekatu txikerra edo beniala, baia ezta izango deunge konfesiñoa, beste utzeginik ezpadago.

Esamina onek kontuzkoak izan bear dau, ta astiro eginak; ez itoka, aringa ta priesaka eginak. Ardurea emaiten deutsuen gauzetan, zelan gabiltz? Eztira beingoan ta itomendiz egiten, eta bai astiro astiro begirata. Zer egiten eztozue billatuteko diru-boltsa bat, ganaduren bat, edo beste, galdu dozuen balio andiko gauzaren bat? Zeinbat ausi bear eztozue burua auzi bat irabazteko; edo eskuartekoa aurreratuteko? alan bada egin bear dozue esamina egiteko bere: eztago munduan pekatuak baño kalte andiago egiten daben gauzarik; ganeko kalte ta galtzaiera guztiak, onen aldean umekontuak dira; eta orregaitik yakitunak diñoze ze, examinea egiteko imini bear dan ardurea dala, gizon zuur ta begiratu batek balio andiko gauza baten imini daroian ardurea ta kontua langoa. Bada, Jauna, esango deustazue, zeinbat denpora emon bearko dogu esamina-giñan? Eta zuek zer diñozue, zeinbat denpora bear da ullea orraztuteko, alkondara bat garbituteko, edo ari-matasa bat arilduteko? Jauna, ori zelan dan, eta zelan dagoan gauzea. Azpaldian orraztu eztan ulleak, ta guztiz nastiturik dagoanak denpora luzea bear dau orraztuteko; aurrengo egunean orraztu zanak gitxi; olagizon baten obrereak, edo ikazkin batek soñean luzaro erabili daben alkondareak denpora luzea ta ur asko bear dituz zuri egiteko, beste askorena ez ainbeste: eta alan da mataseagaz bere ondo badator laster egiten da; baia nastiturik badago ta kiski-biur asko baditu denpora

geiago bear dau. Baita badira gauza oneek egin bear dituezean artean, modu obeak erakusten dabeenak eta oneek lasterrago egiten dituez, (besteak bañoen). Alantxe da bada esamina egiteko bere; eztago onetan gauza erabakirik, ez guztientzako neurri bardinik. Konfesiño jeneral ta bizitza guztikoak denpora geiago bear dau esamina gintzan, iru edo lau urteko konfesiñoak baño. Gizon iratzarriak, eta buru oneakoak lasterrago ekarriko dituz gogora, buru astun ta txarra dabenak baño. Sarri konfesetan direanak errazago nagitotzar belurik belura doazanak baño. Besteak bardin direala ostein batek obligaziño laburragoak aituz ugazaba edo ugazaba andreak baño: ezkondakoak, ezkonduak baño. Barriz aberats batek guziago nekezaleak baño, tratulari batek atxulariak baño, eta alan bestetan. Leen esana bada, gizon zuur ondo batek ardura andiko gauzean ipiniko leukean kontua, orixe ipini bear dozue zuek bere, examinea egiteko. Baia eztago orretarako pekatuak paperean eskribidu bearrik, batzuetan ondo bada bere; burura datozenak esan egizuek, ta ori da asko; ta examinea ondo egin azkeroko pekatoren batzuk aztuten baiatzuek, ez orregaitik ardurarik artu, ze guztiak parketan dira; eta eztago besterik, gogora yator-tseuzanean, urrengo konfesa aldan esan baño.

Esamina konzienziako au egiten da Jgkoaren legeko amar mandamentuetatik, bost Elexakoetatik, obra misierikordiazoetatik, ta Pekatu kapituletatik. Baia eztozuek mandamentuak andizka igaro bear, ez guztiak erabatera, ta pilloan legez, ezpabere bana banazeen, ta bakotxa berez: mandamentu bat ondo esaminadu artean ez igaro bestera: beste ori ondo esaminaduta zoaze irugarrenera eta alan. Eta mandamentu bakotxean ez bakarrik esaminau bear dozuek gorputzagaz edo gorputzeko alderen bategaz egiten dozuezan pekatu agiriak, kontu daigun eskuagaz, miñagaz, edo alan egiten dozuezanak, baita bere gogoagaz edo pensamentuagaz egiten dozuezanak: esan gura dot burura ekarri bear dozuela ea iñoz onetan edo atan pekatu egiteko asmorik izan dozuen; ea iñoz gauza deungaren bat gogoan dozuela egon bazaren. Gero esaminadu bear dozue zeure ofizioan, karguan, eta bizimoduan egin dozuzan utsak eta pekatuak. Ofizio ta bizimodu bakotxak dituz berezko ta aparteko egin bearrak. Ezkonduak, Ugazabak, Justiziako direanak, tratulariak eta alangoak badituez obligaziño batzuk, besteak ez dituezanak. Azkenean barriz esaminaturik zeuk zeure eskuz egin dozuzan pekatuak, kontua atera bear dozu besteak zure erruz, zuk orretarako bidea emonda egin dituezanena; ea iñori pekatu egiteko agindu edo konsellu emon badeutsazu; ea iñori pekatu egiten irakatsi badeutsazu; ea eragotzi bearrean agintaria, ugazaba edo gorasoa zinealako, eragotzi espadozu, eta olangoak. Liburuan dakienak ondo



egingo leuke, orretarako esku-liburua. Olaetxearen liburua, edo beste alangoren bat artuko baleudee ta bereti esamina ori egin. Baia ez egin neskatxi batek egin ebana, onango liburu bat artuta, bertan egozan pekatu mota guztiak berak eginak legez, konfesoareari esan eutsazan. Esamina au Konfesoarearen oñetara baño leenago egin bear da, bada gatx izango da bertan guztiak beingoan burura etortea, baita bere erraz da guztiz konfesoareari itanduten aitzutea; eta esamina ez egina gaitik pekatu mortalen bat konfesadu bagarik itxiten danean, konfesiño okerra egiten da. Baia alanbere askoren konzienzia ez larregi estututeko esan bear dot pekatu mortalik egin eztabenak estaukela esamina konzienziakoa egin bearrik, ondo bada bere ori egitea.

Eta obeto eta obeto ezagutu dagizun zelan egin bear dozun esamina au, gura deusut geiago zeaztu ze moduetan egin bear dan. Zoaz bada Elexara, edo sartu zaitez etxeko gela baten, edo zoaz beste leku bakar batera, ta eska egiozu Jaunari esamina egiteko bear dozun grazia ta argia. Begiratuko dozu gero ea zeinbat denpora dan azkenengo konfesadu zineala, baita ateraten dozu kontu zortzi illabete dala. Ea bada orduko konfesiñoa ona izan bazan; ona ezpazan, kontua atera bear dozu nosik onakoak direan konfesiño deungaro eginak bitarte orretako esamina egiteko: ona bazan eztaukazu yaramonik zetan egin lenagoko konfesiñoai. Au egin ezkerero asiko zara lenengo lenengo Jaungoikoaren legeko lenengo mandamentutik, ta begiratuko dozu ea zerbait esan badozu Jgkoaren edo Santuen kontra, esaterako ea esan badozu Jgkoak ezta kiala zer darabilen eskuartean, munduko gauzak bear dan legez estarabiltzala; ea Fedeko artikuluren baten kontra ezer sinistu badozu; ea uste izan badozu ezta goala zuretzat parkaziñorik; edo ezin iñolako zerura yoan ziñatekezala ainbeste pekatu egin ezkerokoan; ea amesai, sorginkeriai, aztuen kontuai sinisterik emon badeutsazu, ta mandamentu onetan sartzean direan osterartxeko gauzaak. Ikusirik estaukazula ezer, edo zer daukazun mandamentu onetan igaroten zara bigarregora. Gogora yatortsu auei balio andiko bat euki dozula zeinetan sarri yuramentu artu deusuten, eta zeinetan testigu askok zugaitik ta zure erreguz yuramentu egin dabeen; bakizu sarri-askotan guzurragaz yuramentu egin dozula; sarri askotan zana (baxen) geiago gitxiago edo bestera esan dozula; sarri-askotan testiguai eskatu deusazula zure alde guzurragaz yuramentu egin dagiela; sarri gorroto euki deusazula zure auziko arerioari; sarri birao egin deusazula, eta sarri birao onek zeure seme-alaben aurrean izan direala. Esamina au oraindo ezta asko bear dan moduan konfesetako, ze eztozu esaten, edo etzara akusetan ez zeinbat direan zure yuramentu guzurragazkoak, ez

zeinbat direan besteai erasoak, ez zeinbat direan gorroto ta biraoak, ez zeinbat umeai ta etsekoai emoniko exenplu deungoak. Ara bada zelan burura ekarri bear dozuzan pekatu orreek.

Imini zaitez astiro astiro pensetan zelan asi zan auzi ori, zeuri emon beutsuen, ala zeuk emon bazenduan; errazoerik bazeunkan ala ez, auzia emoiteko edo emon eutsuenari yarraituteko; emon bazenduan bengetako gogoagaz, edo besteari zeuntzan gorroto edo ezinikusiaigaitik. Ze kalteak etorri yakozan besteari zuk errazoe bagarik emoniko edo yarraituriko auzi orretarik. Kalte onen kontu atararik al daizun ondoen, igaro zaitez zeuk eginiko yuramentuetara, eta atera egizu kontu zeinbat bider egin dozun guzurragaz, zeinbat ezda-baidan zengozala ta dudeagaz; baita egia izan arren bere, zan baño geiago edo gitxiago esan zenduan. Igaro zaitez gero testiguak zure erruz egin dituezanetara. Kontu atera egizu zeinbat bider eskatu deutseezun guzurraren ganean yuramentu egiteko; zeinbat bider egin izan dabeen, eta zeinbat bider egin gura izan eztabeen; bada eurak gura ez ebeenean pekatu erazo ezpazeuntsen bere, zeuk zeure aldeti pekatu egin zenduan. Onek alan aterata igaro zaitez esaminetara ea zeure arerio auzilariari gorrotorik euki deusazun, edo biraorik egin deusazun; baia edo auzi onetarik etorri yatsuzan kalteak andiak direalako, edo deritxazulako errazoe bagarik emon yatzuzela auzia, edo zeure jenioa enea dalako ta errai estuak dozuzalako lanzean lanzean euki deusazu gorroto, ta auzia gogora etorten yatzun guztian biraoak egiten zeuntsazan. Orregaitik ezin kontu zeatzik atera ziñaike zeinbat bider gorroto euki deusazun, ez zeinbat birao egin deusazuzan, ez zeinbat bider izan direan seme-alaben, eta beste etxekoen aurrean. Orduan bada egin bear dozuna da, kontu atera zeinbat denporan iraun dabeen orreek, eta zeinbat bider izango zan egunean edo astean edo alan. Au bere ezin badozu asko izango da burura ekartea zeinbat denporan iraun eutsun orreek egiteko ekanduak; ze ezetan geien biztu oi zinean zeure arerioaren kontra, zeinbat bider izan dozuzan era, aldi ta okasino orreek, eta zeinbat gorroto euki, edo zeinbat birao egingo zeuntsan bakotxean.

Bigarren mandamenturik igaro zaitez irugarrenera, eta andik laugarrenera, eta egizu bakotxean esan deusadana. Badaukazu ekanduren bat, edo izan badozu okasiño edo pekatu bideren bat mandamenturen baten kontra pekatu egiteko, aintxe geiago gelditu bear zara, aintxe ardura andi bategaz arakatu bear dozuz zeure konzienziako bazterrak. Modu onetan ibili ezkerero Jgkoaren legeko amar mandamentuetatik eta bost Elexakoe-tatik, igaro zaitez zeure estadu, edo bizimoduko zereginetara. Onetan ardura andiagotez bategaz begiratu bear dau bakotxak egin ezpadau egin



bear dabena, ze ez egin badau bear eztabena, bada errazago da ezagutu-ten egin dan gatxa, ze egin bear dana ez egitea baño. Ezkondua zara? Begira zelan egin dozun zeure bizi-moduak aginduten deusuna. Irakatsi deutsezu doktrina kristiana zeure seme-alabai, ta otseinai? Ezi dozuz txikitxutatik zeure umeen mukerrak, ta okerkeriak? Egin dozu alegina sustaiz ateratako euren ekandu zitelak burua atera dabenenik laster? Itxi deutsezu gura daben guztiagaz urteiten, negar egin eztaien atxakiagaz? Zelatu dozuz nora doazan, nogaz dabiltzazan, ze lagun-modugaz batzaindu-ten direan, zein etxetan sartzean diren? Berba baten zara zeure umeen Aingeru-guardako, ta yagola ona? Auxe guztiau esaminadu bear dau ondo konfesadu gura daben ezkondu edo guraso batek. Zara Erriko Fiel, edo Uriko Alkate? Zelan begiratu dozu zeure ardurara dagoan Erri edo Uriagaitik? Galarazo dozu, deungaro gastadu edo galdu eztaiezan Uriko edo Enriko errenta, ondasun eta diruak? Egin dozu alegina auzotegi guztia bakean bizi daitean? Artu dozuz al dozuzan modu guztiak kendu eta erbestetuteko eskandalu ta pekatu-bide guztiak? Kastigadu dozuz gaizkille guztiak, alan zeure seme, aide ta adiskideak, zein da ganeka guztiak? Modu onetantxe esaminadu bear dau bakotxak bere konzienzia, noberen bizi-modua egin bearren, eta estaduko obligaziñoan ganean.

Enzun dozu, kristiñaua ze modutan ekarri bear dozuzan burura zure pekatuak ondo konfesaduko bazara. Sarri ta sarri prediketetan da pulpituetik egia au; alanbere deretxat asko ta asko konfesetan direala deungaro esaminaren faltaz. Auxe da diño Fr. Luis Granada-ko Beneragarriak, auxe da alde guztietan gure alegin guztiagaz predikatu bear geunkeana, bada asko baño geiago dira engañadurik bizi direanak, begitandurik ondo doazala, ta orretarako oker doaz; ze bat da, edo lotsaz pekatuak konfesadu bagarik itxitea edo esamina ez eginagaitik itxitea; batak eta besteak konfesiño deungea egiten dabe, eta salbaduko badira barriro konfesadu bear dituez konfesiño barri ondo eginen baten. Zetatik dator, ezpabere, urtebetekoak, ilean beingoak baxen pekatu geiago ez konfesetea? Ez bada urtean bein baxen egiten eztireanak obeak direalako, ze alangoak eztira kristiñau on-onak izaiten; eta ganekoan ez litekez egongo ain luzaro konfesetan ta Jauna artuten etorri bagarik. Eztabee gauza dan esaminarik egiten, ta gero eztabee amarrenik bere konfesetan. Eta ezta au deungeen deungeena, ze badira beste asko urte betekoak ez izanagaitik, gauza onetan urtebetekoen lagun direanak: au ezagututeko eztaukagu begiratu baxen konfesetan datozenakaz yazoten danari. Iminten dira Konfesoaren onetan, kurutze-santuarena egiten dabe, eta dagoz ixil ixilik zubil batzuk legetxe: eztakie zer esan, ez konfesetan zelan asi. Itanduten deutse

Konfesoareak: zeinbat denpora da konfesadu zineala? Erantzuten dau zortzi edo amar ilabete, edo urte bete. Itanduten deutse Konfesoareak: egin dozu esamina konzienziakoa? Bertatik diño: Bai, Jauna. Eta, zeinbat denpora emon dozu esaminaginean? Zortzi egun, Jauna. Edozeinek usteko leuke au entzunda zortzi egun emon dituzala gizon onek bere pekatuak burura ekarri ezinik. Baia ez zortzi egun ez eze ezta gitxiago bere, eta bear bada bapere ez. Itandu bekio, ezpabere; eta, zeinbat denpora emon dozu egun bakotxean pekatuak gogora ekarten? Eta eztaki zer erantzun: bakarrik diño: zortzi egun da gaur konfesetako asmua artu nebala, eta gau ta egun, etxean, oean, soloan, basoan, ta alde guztietan egon nas gaur eguta bear nasala. Baia esan egidazu: imini zara zeure bakarrean pensetan, nondik ibili zarean, eta zeinbat pekatu egin dozuzan mandamentu bakotxaren kontra? Eztozu itaunde oneekaz beste aterako ezpabere konfesetako artu eban gogoari dei egiten deutseala konzienziako esamina eta geien geien erantzungo deusuna da: Aita, guk daukaguzan artu-emonak eztira andiandiak bere. Ain otzik au esaten dabee ze, bertatik igarten yake eztabeela denporaren apurrik bere emon esamina ganean. Goazan aurrera.

Dirautso Konfesoareak: bein esamina egin dozun ezkeru, konfesadu egizuz, burura ekarri dozuzan pekatuak. Itandu begit berrorek, erantzuten dau. Asten da bada Konfesoarea itanduten eta eldurik birao, añen, berba loi-nasai, ordikeria, eta beste ekanduzko pekatuetara, itanduten deutso: Bota deutsezu zeure seme-alabai, emazteai, otseinoi edo ogitukoai biraorik? Bai, Jauna. Zeinbat bider? Sarri, Jauna. Esan bekio konfesiño ori eztala asko; esan dagiola zeinbat direan egin dituzan biraoak. Arpelik egingo dau alegina konfesoareak yakiteko zeinbat direan, edo zeinbat bider. Geien geien erantzungo dabena da; eztira biotzetik izan, inteziño deunga bagarik izan dira. Zer dauko zer ikusi batak besteagaz? Esaizu zeinbat izan direan biraoak, eta gero ikusiko dogu biotzetik izan direanez. Beste batzuk erantzun daroe, izango zirean ogei, edo ogeta amar. Esaten badeutso konfesoareak, eztala ori konzienzia esaminetea, erantzuten dau; ezin, bada, nik geiago esan nei. Beste batzu bein esan badagie ogei bider egin dabeela pekatu bat guztia da ogei. Ogei yuramentuak, ogei biraoak, ogei gorrotoak, ogei berba arinak. Konfesiño modu oneek bildur izaitekoak dira, eta onetariko geienak (guztiak ez esatearren) konzienziako esaminaren faltaz txarrak direalakoan antza ba'uke, bada esamina au egin ezik, gura ta gur'ez geratu beariko dira pekatu asko konfesadu bagarik. Egin arren Konfesoareak alegina, bere itauneakaz pekatu guztiak argitara aterateko, ezin ikusi leikeana legez zer dagoan an barruan, biak ibili beariko dabe itsu mustuan: Konfesoareak eztakusalako, eta ikusi bere ezin lei-



kealako zer dagoan konzienziaren barruan; konfesetan dana barriz, ezta-belako ondo aratu konzienziako baster ta okelu guztiak. Zetatik dator, ezpabere, urtebetekoak ilean bein egiten direanak baño pekatu geiago ez konfesetea.

4. ONDO KONFESETAKO BEAR DAN DAMUAREN GANEKO BERBA-ALDIA

(B, 94-99. or.)

1. Konfesiño on bat egiteko bigarren bear dana da damua: au da euki bear dau benetako damuari bat pekatu eginagatik. Modu bitakoa izan leiteke damu au; bata berezkoa, edo mundu onetako gauzaak gaitik-koa, bestea berez-ganetikoa, edo fedeak erakusten deuskuzan gauzaren bategaitik artua. Ezagutu gura badogu, nos daukagun bata eta bestea, eztaukagu begiratu baxen, zegaitik daukagun damu au. Badaukagu damutasun au pekatuak ekarri deuskulako gorputzeko sensunakaz ikusi edo yakin al leian gatxen bat, berezko edo naturala da damu hau; eta ezta duin, ez asko, ondo konfesetako. Kontu egizue artuten dabela Justiziak lapurretan dabilen gizon bat, ifinten dau kartzela baten, erri guztitik zabalduen da lapurreta au, eta damututen yako lapurretan ibilia: baia zegaitik? bere burua kartzela baten eta lotsaari ain andian dakusalako. Damuari au berezkoa da, edo naturala, ze gatx oneek ezagututeko ezta federik bear, eta alan damu au ezta asko ondo konfesetako. Damutasun norberen izaitez ganetikoa dauko batek, damu dabenean pekatu egina, pekatuak ekarri deutzazalako gatxen batzuk, zeintzuk ezin yakin leikezan fede bagarik. Esaterako: leen esan dogun, lapurretan ebillen gizonak, ikusirik bere burua kartzela itsaltsu baten, katea eta grilluz yosirik, ain lotsaari andian asten da begiratu ten, ze leku bildurgarriak izan bear daben infernuak, ze ezainak edo etxura bakoak egon bear daben bere arimeak, galdurik graziaren edertasuna, zelango lotsaaria euki bear daben ain ezain, itsusi ta kakaz egonik Jaungoiko, eta Aingeruen aurrean. Konsideraziño eta gogoetaldi oneekaz artuten dau damutasun andi bat, ez, egin daben lapurreteagaitik kartzela baten dagoalako, ez gizonen begietan ain lotsari andian dagoalako, ezpabere bere arimeari ainbeste gatx ikaragarritzko ekarri deutzazalako. Damu au gure izaitez ganetikoa, edo guk geureanez ezagutu geikeanen gorakoa da; ze arimeari ekarri deutzazan gatx oneek ezin gizonak bereanez, eta fede bagarik ezagutu leiez. Jaungoikoaganik dator damutasun au, eta asko da ondo konfesetako.

2. Oraindiñoakoarren bere gura neuke argiago azaldu, zuritu ta esplikadu nox dagoan damuari bata ta bestea. Onetarako iminiko deutzuet irudi. [sic] txu bat. Bizi da neskatilla gazte ondo yai, azi, ta etxe andiko



bat bere guraso noble, eta bere neba-arrebakaz. Erri guztiak dauko on garbi, moduzko, eta txarkeria baktzat: baia malpekau yausten da gizon-gazte bategaz aragizko pekatuan, eta egonik gizon-gaztea gatx atsitu, ta lotsagarriz usteldurik, erantziten deuto bere gatxa. Egunerik egunera aurrera doa gatxa, baia lotsaz beterik, ezteutso ñori esan gura. Yausten da gexorik, eta dago oe baten erdi ilik, guztia erkundurik, azur utsak ta azala baño eztaukala, eta erdi usteldurik. Zabalduten da erri guztitik ze gatx modu daukan, eta guztiak dakie ze pekatu ta loikerietan ibili dan. Ar-or non dagoan neskatiilla au gatx modu bigaz: gorputzekoagaz, eta arimako-agaz: gorputzekoa ezagututeko ezta federik bear, ze edozeinek ikusi leikez, eta neskatiilleak berak sentietan dituz bere gorputzean, pekatu ak ekarri deutzazan argaltasun, zauri, min eta alak; besteak dira arimakoak. Oonek dira Jaungoikoaren arerio, Demonioaren menpeko eta aginduko izaita, zerua sarraturik eukitea, infernu bateko su betikora kondenaunik egotea, Jaungoikoa aserraturik eukitea, eta beste esan bere ezin leikezan gatxak. Ikusirik bere burua egokera edo estadu onetan, artuten dau gizon-gazteagaz egin zituzan pekatuen damu benetako bat, biotz guztitik deuto gorroto pekatu ari, beti dago negarretan urturik; zizpuru artean, eta atsegin bagarik. Gura dozu yakin neskatiilla onen damuaria zelangoa dan? Bereanezkoa edo naturala, ala norberen izaitez ganetikoa eta Jaungoikoa-ganik datorrena? Begiratu, bada, zegaitik daukan damutasun au, zegaitik direan negar, eta zizpuru oonek. Badira ainbeste min eta gatxagaz oean dagoalako, bere gurasoak aserraturik dagozalako, eukiko eban ezkontza on bat, eukiko eztabelako, eta beste onango gorputzeko gatxak gaitik; damu au berezkoa da, eta baktzak fede bagarik euki leikeana, eta ezta asko penitenziako sakramentua artuteko: alperrik egingo dau Madaleneak baxen negar geiago. Daukan garbai edo damua bada arimako kalteak gaitik, graziaren edertasuna galdu dabelako, Jaungoikoa beragaz aserre dagoalako, edo beste onelango gauzaren bategaitik, gure izaitez ganetikoa da, eta fedeko egietatik datorrena, eta asko (ona) da Sakramentu penitenziakoa egiteko.

3. Modu bitakoa da damuari au; batari deritxo kontriziñoa eta beste-ari Atriziñoa: eta euskera garbiagoan kontriziñoari esan ginaio go On-damua, Atriziñoari barriz Bildur-damua. Kontriziñoa edo On-damua da, eukitea, damutasun benetako bat Jaungoikoa pekatuagaz aserratu dabelako, ez beraganik artu leikean mesederen bategaitik, ez berak kastigadu al leikealako, ezpada bera dana dalako, ain on, ain santu, ain andi, eta ain maitegarri, eta damu onetan eztau begiratuten, ez zerua galdu izana, ez infernua merezidu izana, ezpabere Jaungoikoaren ontasun, anditasun, eta

maitegarritasunera. Atriziñoa da eukitea damuari andi bat egin daben pekatuagaitik beragaz ezaindu dabelako bere arimea, zarratu dabelako zerua, merezidu izan dabelako infernua, eta bildur dalako Jaungoikoak bota leiala ango suetara, egin daben pekatuagaitik. Kontriziñoa dator Jaungoikoari deutzagun amodiotik, Atriziñoa, barriz, beragan daukagun itxarote, edo uste ta esperanzatik. Geienak uste dabe damu bi onetatik edozein dala asko, ondo konfesetako; alanbere alegina egin bear dogu, Kontriziñoak eroateko, bada Kontriziñoak berak bakarrik ta uts-utsik, parkatuten dau pekatu mortala; baia ez Atriziñoak. Orregaitik balilloaz pekatu mortalean dagozan bi konfesetara, bata Kontriziñoagaz, eta beste Atriziñoagaz, eta ilgo balira biak konfesadu baño leen, zerura yoango litzateke kontriziñoa eroiana, eta ez Atriziñoa eroiana.

4. Damutasun au izan bear da pekatu guztiena, bat-pere itxibagarik; osteranean (ganekoan), etxakoz parkatuko, ez arako pekatuak zeintzuen damurik eztaukan ez eze, ezta ganeko pekatuak bere euren damuaria eukiagaitik. Daigun kontu: daukaz gizon batek zortzi pekatu mortal; daroa konfesetara zazpiren damua, baia ez zortzigarrena: bada gizon orreri ez bakarrik etxako parkatuko zortzigarren pekatua; zeinen damurik eztaukan, baia ezta beste zazpirak zeintzuen damua euki daben bere; eta alan urrengo konfesiñoan direanak konfesadu bearko dituz, bardin zein ñorenbere damutasunik euki ezpaleu. Damu au izan bear da biotzekoa, edo benetakoa, eta alan ezta asko kanpotikoa, edo aozkoa bakarrik izaita. Orregaitik ezta asko esatea: Damu dot zeu aserratua, eta ukabilagaz bularra yotea, eta negarretan urturik egotea, zizpuru andiak botetea, biotza gogor badago, pekatuari deutzan afiziñoa eta zaletasuna kentzen ezpada, eta gorroto guztizko bat berari euki ezpadagio. Damuari au euki bear da Konfesoreak absoluziñoa emon baxen leenago, edo gitxienez Konfesoreak absoluziñoa emoiten dabenean, ze orduan euki ezik, ezta arean balio bere konfesiño guztiak, gero damututen baiako bere pekatu egina. Asko bada bere damua euki edo artutea konfesetan danean, edo konfesoreak absolbitan daben artean, txito da pelleburutsua ordurako istea damutasuna artzeia; ze orduan pekatuak buruan eukiteak, zeatz konfeseteak, eta pekatuen bat aitzuteko bildurrak, daroe ardura guztia. Pekatuak konfesadu ezkeroko egiten dau Konfesoreak alegina artu-erazoteko konfesadu danari, esan dituzan pekatuen damua; baia denpora gitxi dalako batetik, eta pekatuen bat itxi ete dabenen bildurragaitik bestetik, ezta errez orduan damu benetako artutea. Orregaitio onen onena da konfesetara baño leen artzea. Denporarik onen onena da esamina konzienziakoa eginda bertatik. Ara zelan.



5. Konzienzia esaminadu ezkerro, zeure pekatuak gogoan dozuzan artean ifini zaitetz Jaungoikoaren aurrean, eta humiltasunik andienagaz eskatu egiozu biotz guztitik, esaminadu dozuzan pekatu guztien damu benetako bati. Guztiz da bearra eskaari au Jaunari egitea: bada izanik damutasun au Jaungoikoak pekatari baten egin leion mesederik andiena, ezin berez euki leike gizonak; ezin bestek emon leio, Jaungoikoak berak baño, eta orregaitik gura badau pekatariak damutasun au euki, Jaunari eskatu bear deutso. Eskabide au eginik begira zaitetz, zelango zaukazan pekatu orrek. Ze erain, eta etxurabako, ze atsitu zagozan, ikatz bat baxen baltzago, Demoniño bat dirudizula, gorputz usteldu bat legez, eta an arrak baterik bestera dabiltezan legez, alantxe dabiltezelala Demoniño-ak zure arimaan bere yaube eginik. Begira ondo zelango kalteak ekarri deutzazuzan zeure buruari pekatu orreekaz; zagoz zerutik erbesteturik, eta infernurako uzentadurik, Jaungoikoa dago ain irritu ta aserre zugaz ze, dauko bere besoa eregita bere justiziako ezpata billoxa dabela, zu zatitu ta infernuetara botateko. Bildurturik guztiori gogoaldi onegaz (begitaziño) eldu zaitetz Jaungoikoaren errukitasunera, yakinik ze, andiak badira bere zure pekatuak, andiagoa dala oraindiño Jaungoikoaren ontasun eta errukia. Au zugaz euki daian artu eikezu ainbeste kalte ekarri deutsuen pekatuen gorroto andi bat, eta itxaron eikezu Jaunagan, parkatuko deutzuzala J.K°.ren bizitza, pasiño ta eriotzeagaitik.

6. Jaungoikoaren Seme onen eriotzea ta pasiñoan alegina egin bear dozu, ezagututeko Jaungoikoaren zureganako amodioaren anditasuna, eta ezauera onegaz exeturik zure biotza bereganako amodioan, damuari andi bat artu bear dozu, bera aserratu dozulako, izanik ain on, eta maitegarria. Yatzi zan zerutik lurrera, zu pekatutik aterarik, bere seme zorioneko egitearren; onetarako bizi izan zan ogeita amar urtean mundu onetan neke, lan eta gatx andien artean; zuri eutsun amodio uts utsagaitik igaro zituzan bere negargarrizko pasiñoan esan bere egin ezin leikezan, zauri, epai, burla ta barreak; artu zituzan bost milla azote eta geiago, euki eban bere burua arantza gogorrezko koroe eskerga bategaz zulaturik, eta azkenean bere bizitza galdu eban, kurutze baten unze gogorakaz yosirik, lotsaririk andienean. Begira ondo noragiño eldu zan Jaungoiko baten zukanako amodioa, esker onekoa izan zengizan zu beragaz. Jaungoikoaren amodio onegaz iziotu bear dozu zeure biotza bereganako amodioan, zagoz seguru ezteutsula Jaunak ukatuko bere laguntasun eta grazia, zeuk zeure alde- tik egiten badozu alegina. Berak bere zeruko su onegaz ene, eta garbituko deutsu zeure biotza; baia bazoaz konfesetara zeure biotza prestadu bagarik, uste dozula ze konfesoreak dirautsunagaz artuko dozula beneta-

ko damuaria, bildur izan zaitetz ezteutsula Jaunak emongo onetarako bear dozun grazia.

7. Gauza guztiz bear bat ementxe esan gura deutsuet, deritxadalako ze, berau ondo ez begiratutearren, konfesiño txar asko egiten direala. Ondo konfesadu gura dabenak, eztau ezetan bere ardura andiagorik imini bear, bere pekatuen damua eukitean baño; bada Trentoko Batzar, edo Konzilioak dirausku ze, Penitenziako Sakramentuaren alderik yakinena, eta parterik bearrena dala damua, eta orregaitik bearrik bearrena. Bera bagarik eztago pekatuen parkaziñoerik; baia yazo leiteke esamina, eta konfesino bagarik parkatutea. Emoiten deutso bateri aldi geisto batek; eztauko nogaz konfesadu, gura leuke baia: egiten dau akto kontrizinoko bat, ilten da onegaz; aror non oneri parkatu yakazan pekatu guztiak, eta salbadu dan. Emoiten deutso beste baten beingoango gatx batek, elduten da Konfesorea, baia eztauko lekurik edo astirik, ez esaminarik egiteko, ez bere pekatu guztiak esateko; esaten dau bat bakar bakarrik, eta absolbitan dau konfesoreak; bada badauko benetako damu zintzoa, guztiak parkatuko yakaz. Baia damuaririk euki ezik, ezin iñondi bere pekatu- rik parkatu leiteke; arpelik izango da esaminarik arduratsuen, eta konfesiñorik zeatzena. Yakizue, bada, bearragoa dala damua esaminea baxen, baita ezauera onegaz artu egizue ardura andiago bat damua eukitean, esamina- ginean baño. Konfesetara yoan baxen leen artuten badozue damua, konfesiñoa bere obeagoa, humillagoa ta negartsuagoa izango da. Gero absol- biziñoa artu ordua eldu daitenean, eztaukazue barriaztu baño damuari au, eta auxe da asko konfesiñoa ona izaiteko.

8. Gura badozue, bada, neure enzula maiteak, ez pelleburuan egon konfesiño dongarik egiteko, egizue alegina, konfesetara yoan baño leena- go, artuteko pekatuen damutasun biotzekoa. Berean dira ezagun konfe- sonarioan, au egiten eztaudeenak... Ifinten dira belaunbiko, egiten dituez arrastaka kako batzuk kurutze orde, eta esanik *Ni Pekataria* arin arinka, iminten dira Konfesoreari begira, ea zer itanduten deutsen. Baia, zelango moduagaz? Zelango otztasunagaz? Edozein konbersaziñotan, edo berbe- tan lagunakaz balegozana legez. Itanduten deutso Konfesoreak: Ba'uka- zu Jaungoikoa ofendidu dozulako damurik? Berpertatik eranzuten dau: Bai, Jauna: baia ezta iñondik bere damuari onen igargarririk. Asten da Konfesorea pekatuak itanduten, eztau berak ezer aurreratuko. Etxako beste gauzarik enzungo, ezpada *bai Jauna* edo *ez Jauna*. Itanduten badeu- tso, zeinbat bider egin dozu pekatu au, edo bestea? Eztaki zer eranzun; eta nosbaist esaten badau zeinbat izan direan, da destaiuan. Amaitu edo akabadurik zelan alan konfesiñoa, abietan da Konfesorea al daian indar



geienagaz, biotz a bigunduten, eta pekatuen damua artu erazoten; baia esan al daian guztia ezta asko zizpurutxu bat bere aterateko, ta erazoteko. Aintxe dago gogorrik, arri bat bailitzan legetxe, batera... bestera begira, estu ta larri, arik eta absolbiziñoa artu artean, luze egiten yakala, an emoiten daben denporea, bere zereginetara yoateko, Nondik ezagutu, eta igarri leiteke, onek benetako damua daukala?

9. Baia onelangoak damutasunik eztaukeenen bildurrik andiena emoiten dabena da, iminten yakoen penitentzia artzeko daukeen atserakuntzea, eta onetarako asmetan dituezan atxakiak. Dakus konfesoreak gizon edo andra aek konfesadu dituezan pekatuak dauken sustraia dagoala pelleburuan, edo arturik daukeen pekatu-bidean, ta okasiñoan. Neskatilla bat pensamentu loi, eta aragizko pekatuetan yausten bada, dala mutil gazteren bategaz adiskidetasuna daukalako, eta au kendu ezik, ezituzala olango pekatuak itxiko. Daki bestearen aserre-aldi, birao, ta ernegak yokotik datorkiozala, eta yokoa itxi ezik, beti pekatu oneetan biziko dala. Agindu beio, bada, batari ezteitela tabernara eldu, besteari itxi daie-la mutil gaztearen adiskidetasuna, yokolariari itxi daiala yoko-lekua, eta ezteitela etse atara bere eldu. (Oneek-gaitik diñodana, diñot beste pekatuen pelleburu, sustrai ta bideak gaitik bere.) !Ze penitentzia astuna! Zelango agindu garratza! Ze atxakiak ez artuteko, ze iskini, ze propositu aozkoak, tabernara yoan arren ezala ordituko, mutil edo neskatilleagaz egon arren, ezala yausiko, yokora yoan arren, ezabela biraorik egingo? Baia ezagaturik konfesoreak au Diabruaren asmua dala, pekataria pekatuan beti eukiteko, ezta absolbidu gura, arik-eta pekatuaren bide eta pelleburuak itxi artio. Orduan dira larriak, orduan esturak, orduan atxakiak, Zetatik dator au? Damu benetakorik ez eukitetik. Balego bear dan garbaia, balitxako pekatuari bear dan gorrotoa, berez eta konfesoreak agindu bere egin bagarik alde egingo leuskioe onango pekatu bide galtzaigarriai; baia eztaukeelako, gura dabe konfesoreak emon deioen, eta itxi dagizan lengo pelleburu ta bide galgarrietan. Baia Konfesorea gogor badago bear dabena legez, zer egiten dau? Absolbiziñoa ukatu ze dagion, emoiten dau berbea itxiko deusala ordurarteko pekatu-bide ta okasiñoari; au da ezala tabernara, edo yoko-lekura yoango, itxiko deusala mutil edo neskatillearen adiskidetasunari; artzean dau onegaz absolbiziñoa, eta doa aserraturik, eta puzka konfesorearen kontra, Nok esango dau benetako damua daukala? Ez iñok.

10. Emetixek dator egunean egunean ikusten dogun askoren negar-garrizko bizimodua. Ordiak konfesadu arren ordi geratuten dira. Lapurrak konfesadu arren lapur geratuten dira, loiak loi, murmulariak mur-

mulari. Datoz konfesetara damurik artuteko ardura bagarik. Eztituez artu gura Konfesoreak emoniko penitentiariak bearren bearrenak; uste dabe, Konfesorea, estu gatx dalako, iminten deusela onango penitentzia astun ta garratzak. Orregaitik deritxe ze, penitentzia au egiteko obligazinorik eztaukeela, gogorregia dalako, eta alan uts-utsik zein absolbiziñoa ukatu deioen, emoiten dabe egingo dabenen baiezkoa. Uste dabe onegaz bein absoluziñoa artu ezkeru, ondo konfesaduta doazala, eta geratuten dira leen baño deungago, eta pekatu geiagogaz. Ar-or zegaitik dakuskun ekan-du zitaletan sarturik dagozanak, konfesadu arren leen legez geratuten direala. Bildurturik ikaragarrizko egokera onegaz, egizue alegina aurrebideaz zeuen pekatuen damua artuteko, emon deizuen konfesiñoak grazia, artu dagizuen bere sari betiko gloria. Amen.



5. DAMUAREN GANEKO DOKTRINEA

(J, 18-21. or.)

Dolor meus in conspectu meo semper,
quoniam iniquitatem meam annuntiabo,
et cogitabo pro peccato meo.
Salmo 37. v.19.

Gaurko arratsalde onetan, N^e. E^a. M^k, berba egin bear deuntsuet Konfesiñorako geien bear dan eta gitxien izan oi dan gauzearen ganean; eta auxe da ondo konfesetako bear dan pekatuen damutasuna. Konfesiño oker asko eta lar bere asko egiten dira pekatuak konfesiñoan oso osoan ez esanagaiti, baia gauzea ondo dakienak dirauskue eze, ogei egiten badi-ra pekatuak lotsaz, edo bildurrez gordea gaiti, berreun badiREALA damu-ezagaiti egiten direan konfesiño deungak. Orregaiti bada kontuz kontuz entzun bear dozue gaurko dotrina au, bada deretxat eze askoren onerako izango dala.

Da damua pekatu egin danaren garbaia, edo pekatuari gorroto biotzekoa artutea aurrerantzean ez ostera egiteko gogoagaz. Damu au artu leiteke edo mundu onetako gauzak gaiti, edo Jgkoak agertu deuskuzan beste munduko gauzak gaiti. Damututen yako baten seigarreneko pekatua egina gatxen bat ezarri deutseelako: edo bere pekatua zabaldu, eta ondua galdurik guztien aotan ebili bearko dabelako. Garbatuten yako yokolariari yokoan egina, diru moltso ederra galdu dabelako. Garbatuten yako lapurrari ostua, Yustiziak atrapau ta presidioetara (yoan) bearko dabelako. Oneek guztiok bada, eta onelangoak dira mundu onetako gauzak gaiti artuten direan damuak, eta ondo konfesetako orreek gauza ez-tira. Konfesiñorako bada bear da beste munduko gauzak gaiti artuten dan damua. Damu au dauko gizonak garbatuten yakanean, pekatuak ekarri deutsalalako kalteren batzuk, zeintzuk fedeak erakutsi ezik, ez leukezan iñondi bere yakingo. Eta damu oneri esaten deutsalagu zerutiko damua ez bakarrik dalako Ygkoak agertu deuskun gauzaren bategaiti, baita bere Jgkoaren grazia eta laguntzea bagarik ezin izan giñaikealako alango damu onik.

Modu bitakoa izan leiteke zerutiko damuari au, batari deritxo Kontriziñoa edo amore damua, eta besteari Atriziñoa edo bildur damua. Kontriziñoa da pekatuari artutea osterantzeko gatx guztiai baño gorroto geia-

gou Jgko txito on eta maitegarriaren ofensea dalako. Damu au dator Jgkogi artuten yakon amodio ta maitetasun garbiti, gure onari bapere begiratu bagarik, ain modutan eze, zerurik ezpalego ondo bizi direnentzat, ezta infernurik bere deungeentzat, orregaiti bere damutuko litxakegungu pekatu egina, eta gogoak artuko gendukezan ez aurrerantzean egiteko Jgko onak merezi dabelako guk bera bere ontasun neurribakoagaiti matite izatea. Atriziñoa da batek pekatuari artuten deutsal gorrototasuna edo infernuko peneen bildurrez, edo pekatuak zeruko gloria galarazoten dabelako, edo Ygkoaren grazia kendu ta arimea ezain ezain egiten dabelako. Damu au dator Jgkoaren bildur santuti.

Au (zuek obeto adietako) obeto aditu (ulertu) dagizuen irudi bat ekarriko deuntsuet. Seme batek bere aserre-aldi itsuan (egur bat) makillea artu ta emoten deutsalagaz Aitari burua ebaten deuto. Artuten dabe preso seme ori, sartuten dabe kartzela ilun ta itzal baten, eta, burdiña galantak ganean ezarririk, antxe itxiten dabe bakar bakarrik. Seme onek, bere sua yoan yakanean, ezagututen dau bere oker egina: emoten deuto negarrari, eta damuren damuz erdibitu bear yako biotza. Damututen baiko semeari bere burua alan dakusalako, presidio batzuk ikusi bearko dituzalako, Aitak seni-parte galarazoko deutsalako, edo berba baten bere buruari yatorkazan kalteak gaiti, ar-or Atriziñoa dirudian damu bat. Garbatuten baiko Seme oni ori egina, bere guraso onari, errai erraietarik maite izan bear eban gurasoari, alango lotsabako eskergetasuna egin deutsalako, bere buruaren kalteai bapere begiratu bagarik, auxe da kontriziñoaren antzeko garbaia.

Kontriziñoa ta Atriziñoa biok dira damu ederrak, eta geienak diño eze euren arteko edozein asko dala ondo konfesetako. Orregaiti bere aleginak egin bear dozuez konfesetara zoazenean Kontriziño osoa eroateko, bada askoz bere ohea da alde bitati. Da ohea bere sustraian, bada Kontriziñoa dator amodioti eta Atriziñoa bildurreti. Da ohea geure arimetara dakarren mesedeagaiti, bada kontriziñoagaz beste bagarik konfesau baño leen parkatuten yakuz geure pekatuak, beti orregaiti konfesau bear badi-ra bere. Atriziñoagaz barriz ez, arik-eta konfesau eta absoluziñoa artu artean. Eta alan pekatu mortala egin daben bik urtengo balebe etseti Ele-xarako konfesetako gogoagaz, batak baleroa Kontriziñozko damua, besteak atriziñoskoa, eta biak konfesau baño leen il, Kontriziñoa eroiana zerurako izango litzateke, Atriziñoa eukana barriz infernurako.

Eta ez egizue uste, askok legez, kontriziñoa dagoala *Neure Jaun Jesu-kristo* ezpanakaz esatean, ukabilagaz bularra yotean eta negar egitean, ez, eztago orretan, ez; eta orreek guztiok egin da bere yazo leiteke, eta asko-



tan yazo bere egiten da, damurik bapere ez izatea; pekatu bateri edo bateri ondo eresten yakolako, eta biotzean oraindo ostatu emoten yakolako. Damua bada dago biotz barruan, biotzeti pekatuari gorroto benetakoa artutean, ez beste bein egiteko gogoak lagunduten deutsal. *Neure Jaun Jesukristo* esatea, bularra yotea, eta orreek izan oi dira damutasuna biotzean sortuteko edo biztuteko, eta negar anpuluak sarri lagundu daroake damuari: baia ain bagarik bere damu ona euki lei... Seme bat gurasoi ilten yakenean amak egin daroaz negar eta ileta andiak, aitari etxako alangorik ikusten amak alagiña min biotzean badauko bere. Orregaitik, Kristiñau onak, pekatuari gorroto deutzazuenak, ez larritu biotza samurtuten ezpaiatzue, eta negarrik ezin egin badozue: zuek biotz barruan gordeta daukazue bekatuen gorrotoa ta benetako damutasuna, zuen bizi-moduan agertuten dana. Zeuek barriz, pekatariak, gaistakerian ondatuta bizi izan zareenok, egizuez aleginak zuen biotz gogorrok austeko, eta orain artean eder eretxi deutzazuen pekatuari gorroto gogorra artuteko.

Eta damu au artu bear da Konfesoareak kurutzea egin baño leenago, edo bai beintzat egiten dagoan artean eta ezta asko arrezkero artuten dana. Baia ondoen ondoen da Konfesoarearen belaunetara baño leen alegina egitea damutasun ori izateko; bada konfesetara ezkerro pekatuak gogora ekarri ezinak, eta zeatz esateko ardureak zer-egin asko emoten dabe, eta artietan artuten ezpada, erraz da guztiz orduan artu bagarik gel-ditutea. Egia da konfesoareak azkanean egiten dabela bere aldeti damua bere oñetan daukanaren biotzean sartutearren; baia bateti orduko aleginak laburrak izan doaz, guztiz bere misioño denporan askoren konfesiño luzeak artu bear direanean; eta besteti barriz Konfesoareak esan ta esan diñarduanen, zetan egoten dira sarri-askotan bere oñetan dagozanak? Ea ezer aztu baiake esatea. Aldirik onen onena damutasun ori artuteko da esamina konzienkiekoa eginda bertati.

Damua ona ta bear dan legezkoa izateko zabaldu bear da pekatu mortal guztietara. Ondo konfesauko danak euki bear dau egin dituzan pekatu mortal guztien damua; eta bat-txu baleuko damurik emoten ezteutsana konfesiño dongea egingo leuke, eta ez litxakio pekatu bapere parkatuko. Esan egidazue gizon batek baleukaz iru zauri edo herida zakon, zeinetariko bakotxak osatu ezik eriotzea ekarriko deutzanak, eta ofizileari dei eginda esango baleutso zauri bi osatuteko, baia irugarrenari ez yaramaiteko, zer esango leuskio ofiziale orrek? Zoroa, esango leuskio, zetarako da bi osatutea? bardin bardin ilgo zara irugarrenegaz, zein da bapere osatuko ezpalitz. Beste orrenbeste da bada pekatuakaz ta pekatuen damuagaz bere. Eta alan konfesetan dan batek baleukez (-ka) iru edo

ogei pekatu mortal, eta baten damurik ez artu, beste ganeko guztien ganean damua izan arren ez leuke gauzonik egingo, elitxakio bapere (koskolik), garaurik bere pekatu parkatuko.

Askok, diño S. Agustin-ek, askok erdizka parka eskatuten deutse Jgkoari. Batek gorroto andia deutso lapurreteari: baia biotzean sartuta dauko urliaganako zaletasun ez garbi garbia. Besteak ezta seigarrenekorik ikusi gura; ezta urruneti bere: baia ezteutso ardurarik tratuan bear ezta legez irabazi arren. Besteak obrakorik ez leuke mundua gaiti egingo: baia baki mosuka, orakadaka, zantarkerietan ebiltan. Oneck dira arako, mutilak ariagaz (firuagaz) kaderati katigu daukan, txoritxua legez. Txoritxu onek libre dauko burua, libre iduna, libre kadera bata, libre egoak, (libre buztana). Abietan da egaz eta lelengo abiaduran esan lei eze eztagoala iñondi bere katigu: baia, zer da orregaiti kaderati loturik bada-gaz; eta mutilak gura dabenean ariti tira eginda bere eskura badakar, beragaz gura dabena egiteko? Ez, diño S. Agustinek, eztaki Jgkoak oso osoan baño pekatuak parketan, edo guztiak, edo bapere ez. Eta, zeinbat eta zeinbat ete dira konfesetara datozenak alango damu labur pekatu guztietara elduten eztanagaz?

Baia asko badira bere niri deritxat eze bitara datozala guztiak, eta onek dira pekatuti mesede artu dabeneak, eta onduteko propositurik eztaukeenak: Lelengo bada geienean damurik eztaoie izaten, egin izan dabene pekatu mesede izan dabeneak, edo izango dabeela uste dabeneak. Pekatuak mundurako kalteak dakazanean laster da gorrotaurik, eta andik ara erraz izaten da Jgkoaren ofensea dalako bere alango pekatuari gorroto artutea; baia okerreko guztia yazoten da pekatu mesedeak yatorkuzanean. Orduan gatx baño gatxago izaten da alango pekatuaren damuaria artutea. Otsein batek egin izango dau ugazabagaz pekatu; pekatu onetarik etorri yako beragaz ezkontutea, eta ugazaba andra izatea. Dakus bere burua uste leikean baño obeto, ondasunen artean, eta etxeko agintari eginik. Zelan artuko deutso onek gorroto onenbeste mesede egin deutzan pekatuari? Tratalari batek batu dituz bere artu-emon txarrak gaz diru galantak, (edo kontrabandoan eginik) edo neurrian ta pisuan gitxiago emonda, edo gauza kaltetuak onakgaz nastauta. Dakus bere burua esku-arteko onagaz eta leen baxen zertxubait geiago dirudila. Zelan bada onek gorroto artuko deutse alango tratu ainbeste mesede egin deutseenai? Beintzat guztiz gatxa da.

Onelan damurik eztaoie izaten geienean ezkontzako esperantzeagaz pekatu egiten dabene neskatiak, ezkontzako usteak aurrera doazan artean. Eta ezkontu ta bere onetariko askok eztaoie ezkontza aurreko



pekatuen damutasunik artuten, eta askotan alangoen ganean itanduten yakeenean erantzun daroa epel epelik: Jauna egin genduan, baia alkar erremediau genduan. Zer da erremediau arren? Pekatu egina egin eta ezta ori garbietan ezkonduagaz; ezpada damu zoliagaz egiten dan konfesiñoagaz. Ai! neure Kristiñauak, negar egitekoa da onen ganean askoren artean yazoten dana. Askok uste dabe eze bein ezkontzako berbea emon ezkerro Jgkoaren aurrerako ezkondata dagozala, eta edozein gauza egina gaiti ezteutse ardura. Guzurra da ori, eta guzurra bere guzur andia. Elexearen aurretiki ezkondu artean ezta ezertxu bere libre, eta ezer egiten bada pekatu izango da bardin zein da ezkontzako berbarik emon ezpalitz.

Eztaroe damurik izaten guraso askok zeintzuk euren umeak ezkondu ditezana amurruagaz, aginduten dituez fiestetara, zelaietara, bigireetara, dantza nastuetara, eta alango mutil-neskatillen arteko batzarreetara. Onelango gurasoak euren umeai pekatu egiteko bideak emoten deutseez, eta alde orretati euren lepo ganean dituez gazteak egiten dituezan eta egin leikeezan pekatuak. Baia etorriko yakela uste dabeen mesedeak itsututen dituz, eta eztituez ezetan artuten onelango pekatu ikaragarriak. Jauna, alan ezpadabiltz ezti ezkonduko. Eta, zer? Ezta beinago Jgkoaren legea? Zori-gogorreko (gaistoko) ezkontza gurea, guraso asko Infernuetara bota dituzana, eta oraindo bere botako dituzana! Etzaituez bada infernuti aterako ume ezkondu orreek. Baia ezta egia alan ezpadabiltz ezkonduko ezti-reala. Obeto ezkondu oi dira eta lagun obeakaz alan eztabiltzazanak.

Eta ara damu gitxiago izango dabe gurasoak, euren umeak urlriagaz edo urlinaigaz ezkontzea egitera etorri daitentzat, edo egin ezkerro galdu ez daitentzat, itxiten deutenak semeari neskatillearen etxera yoaten, edo besteko mutilari euren sartuten: baita izan oi dira onelangoen artean gurasoak gazteak alkarregaz bakartxurik itxiteko, eurak etsetik kanpora, solora, atartera edo bestetara (besteneka) urteten dakienak. Oneek bai gero konfesiñorako damua! Yakina da bada gazteak bakarrik egonda ezti-reala errosarioak esaten egongo. Ai bada ze kontu estua izango daben guraso askok onen ganean Ygkoaren aurrean agertu ditezanean!

Damurik eztaroe konfesiñoetara prest dagozanak irabazi bidebakoak egiteko. Onelangoak dira arako merkatari, dendera eta tratulari atera al daben guztia ateraten dabeenak, begiratu bagarik zer dan lege eroatea; edo tratu okerrak egin, neurrian ta pisuan labur emon, edo adiona ta bastua finagaz, ta txarra onagaz nastauta, iñoen lepoti aberaztuten direanak. Onelangoak dira bere Errietan karguak dituezan asko, bada euren artean izaten dira tranpak egiten dakiezanak, eta gero tranpak estalduteko, kontuak emoteko orduan tranpa barriak. *Neke asko artu dot*, esan daroe, *bes-*

teak bere alan egin oi dabee, au da euren betiko leloa, ta soñua, baia itandu ez alanbere konfessore on baten ea garbiro egin al baleite. Egin da gero izan oi dira kezkek, biozketak ta beldurrak, eta esaten deutse zerbait konfessorari; baia orduan bere milla edergarriz yanzita, konfessorea euren aldeti eukiteko: Eztauke onelangoak damu onik, eta eztabe gauza dan konfesiño onik egingo, arik eta kendu dabeen guztia atzera biurtu artean. Eta Erriko kargudunak gaiti esan dodana, esan bear da Maiordomoak gaiti, eta Kofradietakoak gaiti, alango tranparik egiten badabe eztabela damurik, al dabeela, biurtu artean, eta gatx izaten dabeela damu on artuten.

Damurik bere izan ez oi dabee gauza ostuak, biurtu al legiezala, yau-beari biurtuten ezteutezananak, edo zor egiazkoai, bear dan lege, erantzuten ezteutsenak. Damurik izan ez oi dabe testamentario eta herederu askok, dirua arima fielak baño maiteago dabeela bizi direanak, urte osoetan ilak itxi zituezan zorrek pagau bagarik, eta mezaak atera bagarik, beti luzatu ta beti luzatu arima gaixoen kaltean. Damurik izan ez oi dabe Eskribauak eta beste ofizio askotakoak, legeak aginduten daben baño aloger edo sari geiago eroaten dabeenak. (Eta damurik izan ez oi dabe diruak korrian onenbeste denporako emoten daben asko, aren ganeti ileko edo urteko onenbeste eroaten dabeela). Oneek bada, eta onelangoak geienean eztaroe damu onik izaten, bada batzuei etorteko dakusten mesedeak zoratzen eragiten deutse, eta gatx egiten yake ori galdu bearra; beste batzuei barriz gogor erezten yake baktxari berea emon bearra, aragiturik eta etsekoturik daukeezan ondasunetati.

Alan milla atxakiagaz yoango yakez konfessorari: *Jauna, ezin dot orain; familia mantenidu bear dot; yanzi bear dot; urte txarrak izan doguz; Jgkoak ekarriko ditu beste denpora obaago batzuk eta orduan egingo dot...* Damu-bakoen atxakiak geienean. Baia, neure Kristiñauak, onelangoakgaz eztozue Jgkoa engañauko; ak ondo daki zuen biotzen barri: ak ondo daki nogaiño elduten direan zuen aleginak, eta zer egiten dozuen.



6. ONDO KONFESETAKO BEAR DAN PROPOSITU EDO GOGOAREN GANEKO BERBA-ALDIA

(B, 99-103. or.)

1. Ondo konfesetako bear dan irugarren gauzea da Propositua. Au ezta beste gauzarik, ezpabere artutea bene-benetako gogo, edo borondate irrima eta sendo bat, ez ostera pekatu egiten bihurtuteko. Iru gauza euki bear dituz Proposituak ona izaiteko; izan bear da pekatu guztiena; sendo edo irrima, eta eragilea, edo alde-eragiten deusana pekatariari pekatu guztietatik; eta euren bide eta pelleburu yakinetatik. Lenengo izan bear dau pekatu guztiena; au da, euki bear dau gogo edo propositu sendo bat itxiteko ez pekatu au edo bestea, ezpabere direanak; eta alan ezta asko, pekatu batzuk ganako borondatea istea, gordeetan bada beste batzuk ganakoa. Esaterako: Gizon batek uts egin dau mezea yai-egun baten bere guraz, eta azaz ganetik dauko ekandua bere aragiagaz pekatu egiteko, edo ezpabere ordituteko. Bada onen propositua ona izaiteko, ezta asko artutea gogo bene benetakoa beste-bein mezea yaiegunean ez galduteko, euki bere bear dau borondate oso-oso, pekatu loi, edo ordituteko daukan ekandu zitela goitu, eta kentzeako; osterantxean onen Propositua utsa da, ezta prestu parkatuteko, ez pekatu loa eta ordikeria zeinen Propositurik eztaukan ez eze, baia ezta meza galdua bere, aen propositua euki arren. Ekanduzko pekatuak badago, euretara ez bihurtuteko Proposituan imini bear da ardurarik andiena, gatxago dalako; eurak isteko gogo edo borondate artutea, gitxitan, eta nosik beñean egiten dana ez egiteko baño. Sarri ta sarri dakusgu egia au. Betor konfesetara norbaist pekatu modu bigaz: izan bedi bata noxean bein baxen egiten ezdana, eta zeineganako ekandurik eztaukan: esaterako, mezea edonos ardura-ezagaitik galzea. Izan bedi bestea, zeinen ekandua daukan; kontu egizue: ordituteko edo aragizko pekatuak egiteko. Bada guztiz erraz egingo yako, artutea Propositu sendo ta indar andiko bat, ez geiago mezea erratuteko; barriz, guztiz astun, gatx eta garratz egingo yako tabernea edo aragizko pekatuak itxitea. Agindu bekio ordituteko ekandua daukanari tabernara yoan ez eiteko; ze gatx, ze neketsu, ze aldatz-gora egiten ez yako? Artuko dituz penitentziarik gogorrenak; baia ezin inondik bere ekarri al izango da, tabernea itxitera: zelango atxakiak! zelango agintzaak! Eta bear bada zelango yura-

mentuak, ezta ostera ordituko tabernara yoan arren! Al daian guztia egingo dau Konfesoreak galaazo ze dagion tabernara yoatea.

2. Betor konfesetara mutil neskatillaren bategaz pekatu egiten dabenen bat, ta olgura, erromeria, edo danzan ibiliagaitik pekatuan yausten danen bat; onek badauko beste pekatu ekandubako bat, berpertatik artuko dau, beste bein egin ez eiteko gogo, eta emongo dau berba osoa, ezta la iminiko pekatu atan yausteko pelleburuan; baia agindu bekio itxi daiala neskatilla agaz daukan adiskidetasuna, eztagiala beragaz berba-aldi luzerik euki, ezteitela beragaz bakarrean egon, ezteila yoan erromerietara, danza, ta fiestetara: ze penitentzia astuna! Ze gogor, ze garratza! Eztago inondik bere onda-bide onek itxi erazoteko modurik. Ba'kizue, gero, zegaitik dan ain gatx, ekanduzko pekatuetara ez bihurtuteko propositua eukitea? Ara bada: Zeinbat eta sarriago egin pekatu bat, ainbat eta andi-ago da beraganako etxutasuna; zeinbat eta andi-ago etxutasuna, ainbat eta gozoago; zeinbat eta gozoago ainbat eta gurago; eta zeinbat eta gurago ainbat eta gatxago bera itxitea.

3. Gura dozue oraindio bere obeto ta obeto ezagutu, ze gatx dan, ekandu txarra kentzeko gogo artu edo eukitea? Begira, bada, zer yazoten dan ekandu deungen bat daukanagaz. Sarri ikusten dira gizon eta andra guztiz santu dirudienak; egunean egunean errosarioa errezau, eta mezea enzuten dabee: sarri konfesadu eta komulgadu, beti errezetan, eta al daien guztian Elexara; pekatuen gerizeak berak bildurtuten dituz, ta nosbaist pekatuan yausten badira eztauke bakerik arik-eta konfesadu artean, eta esan leiteke, artez artez doazala zerura. Euki begi onetariko batek ekandu zitai bat; kontu daigun; sartu bedi tratu txarretan, edo saldu-erosi okerretan, atera begi irabazi on bat, zaletu bedi irabazi onetara, aberastu bedi bere lukreriakaz, bein sartu bekioz biotzean deungaro irabaziriko ondasun orreek, bada ikusiko dozue, zelan eztaben pekatutzat bere eukiko daukan irabazi modu oker au. Aurrera daroaz bere debozino, errosario, meza, barau, limosna eta beste egite onak; baia aurrera daroa tratu eta irabazi txarra bere. Esan bekio ezteireala bereak daukazan ondasunak; itxi daiola saldu-erosi bide bako ari; lukreria dala-ta; eztau yaramonik bere egingo, eztau sinistu bere egin gurako, pekatu danik. Zetatik deritxazue datorrela, beste pekatu guztien gorrotoa euki arren, lukreria pekatutzat bere ez eukitea? Artu dabenekandutik. Saldu-erosi oker edo tratu txarrak gaitik diñodana, diñot beste ekandu zitalak gaitik, zelangoak direan: ordikeria, loikeria, murmuraziñoa, biraoa ta maldiziñoa, eta yuramentua. Eta (ta alan), zer balio deusue beste pekatu guztien ganeko propositu irrimena eukiteak, ezpadaukazu guztiena? Zer balio deusue zeure meza, errosario, barau,



konfesiño eta Komuniñoak? Ezer-bere-ez. Ain zaukaz katigu Demoniñoak, zein da bapere bere propositurik ezpazeunko. Txoritxu baten yazoten yakana yazoten yatzu zuri bere. Artzen dau mutil batek txoritxu bat, eta lotuten dau kadera batetik ariagaz. Txontxu onek libre daukaz burua, iduna, kadera bata, egoak; eta esan leike gura daben lekura yoan leitekeala. Baia, zer deutso, buru, idun, gorputz eta egoak libre eukitea gaitik, kadera batetik katigu badago? Arako uste dabenean libreago dagoala, eta nora-gura egaz egingo dabela, eztazau alako kaderan daukan aria, tira egiten deutso mutilak eta dakar eskura, eta egiten dau beragaz gura dabena. Onen beste yazoten da zugaz Demoniñoaren artean; loturik zaukaz gaiskiñak ekandu zitalagaz. Zuk ekandu oneri deutzazun etxuntasunagaz, eztozu ezaututen loturik zagozanik; eta beste pekatuak zeugan eztakutsulako, deritxazu libre zagozala. Zeure deboziño, meza, konfesiño, komuniño ta limosnakaz uste dozu zerura zoazala egaz; baia engañadurik zagoz, Demoniñoak zaukaz loturik, ta katigu ekanduaren firuagaz; eta ezteutso ardurik, zu beste pekatu guztietatik libre egotea gaitik, bakar bategaz bere azpian bazaukaz. Orregaitik gura badozu urten Demoniñoaren atzamarretatik, pekatu guztietara zabaldu bear dozu zeure propositua.

4. Bigarrenko: Propositu edo borondate au izan bear da sendo, irrima eta indartsua, au da prest egon bear da, daukana galtzeako, bear bada, ondasun, diru; ondra, eta bizitzea bera, pekatu osteria biurtu baxen leen. Propositu au euki leiteke, bildur izan arren, ameneko barriro yausiko dala pekatuan. Kontu daigun: Dauko batek bere aragiagaz pekatu egiteko ekandu deungea. Bildurturik infernuan yausteko daukan pelleburuagaz, artuten dau pekatu urteiteko gurari bizi bat. Onetara al daian ondoen prestaurik konfesetan da. Dauka pekatu onetara biurtu ez eiteko gogoa, eta gogo sendo bat; baia ezagaturik, ze luzaro iraun deutzan ekandu zital onek, ze indar andia artu daben, ze gozo egiten izan yakan, ze etxutasun andia sentietan daben bere aragian, bildur da osteria yausi erazoko deutzala bere argaltasunak pekatu onetan. Onek bada, bildur izan arren pekatuan yausiko dala, badauko borondate osoa, alde egiteko alegin guztiagaz, pekatuen bide ta okasinoetatik, eukiko dau Propositu benetakoa. Baia, zer diñot? Bildur au ez bakarrik ez da Proposituaren kontrakoa, ezpada benetakoa bada, berak sendatu ta fuertetuko dau, bada artu erazoko deutzaz pekatuen bide ta pelleburu guztietatik iges egiteko, ardurarik andiena.

Irugarrenko: izan bear da Propositu erazogillea; au da, artu erazo bear dituz pekatuan barriro yausi ez eiteko al dituzan modu guztiak. Auxe da Proposituak bearren daben gauzea, eta zetan ezaututen dan benetako danez; eta yakin gura badozu euki dozun, ala ez, bear dan propositua,

begira zelan bizi zerean konfesadu ezkeru. Zeatz eta ondo kunplietan badozuz Konfesoareak emoniko penitentzia guztiak, ez bakarrik arako pekatuen zorra pagetako eta kitututeko direanak, ezpabere beste barrien barri biurtu ez eiteko lengo pekatuetara, bere direanak bere; baita gogo onegaz itxiten badozuz leen pekatu erazoten eutsuezan bide eta ibilunaak, eta alde egiten badozue pelleburuetatik, zure Propositua ona, eta irrima izan zan. Barriz ezpadozuz zeatz, ta ondo ondo egiten arako pekatuak urrun egiteko direan penitentziak, itxiten ezpadozuz pekatuak bideune, pelleburu ta arri labanak, eta ezpadozu egiten alegin guztia ekandu zitel ori kenzeko, ezaun (agiri) da eztozula euki propositu benetakorik, eta etzareala ondo konfesadu. Arpelik esango dozu Propositu sendoa daukazula, ez beste-bein pekatuak egiteko; arpelik egingo dozuz penitentziarik ikaragarrienak; arpelik emongo dozu egun guztia errezetan; eta arpelik negarretan urtuko zara, ze eztaukazu gogo edo Propositu egiazkorik, ta utsak dira irudi utseko ezaugarri eta salañe naste orreek.

5. Obeto yakin dagizuen nos daukuzen Propositu benetakoa, eta nox ez, gura deutzan imini iruditxu bat. Neskatilla bat dago etse baten otsein, serbietan. Dauko soldata ona, probetxu andiak, eta betiko ondo geratuteko uste andiak, eta esperanza galantak. Artuten dau adiskidetasun loi eta lotsagarri bat ugazaba, edo beste etxekoren bategaz, eta dago denpora luzean itsuturik ikaragarriko pekatu loian. Idigiten dituz nos edo nos bere arimako begiak, eta ikusirik infernu baten yausi aginean dagoala, doa negarretan urturik konfesetara. Orain bada, gura dozue yakin onen propositua sendoa, eta egiazkoa danez? Begira, bada, zer egiten daben. Zeatz eta ondo egiten badituz Konfesoarearen esanak, ta berak emoniko penitentziak, eta onek aginduten deutzalako, urteiten badau etse atatik, gurago dituzala galdu daukazan probetxuak, ondo geratuteko daukan esperanza, eta bear bada artuen daukazan soldatak, pekatu biurtuteko pelleburuan egon baxen, agiri da propositu egiazkoa daukana. Barriz atsera badago etse atarik urteiteko eta aleginak egiten badituz, zein konfesoareak urte erazo dagion; edo, bein urtengo dabenaren baiezkoa Konfesoareari emonik, zein absolbiziñoa ukatu dagion, bertan geratuten bada, soldataak eta probetxuak galdu ez eitearren, geroko ondo geratutearren, edo zer-esango dabeena gaitik, eztauko Propositu benetako edo egiazkorik, eta Konfesiño txarra egiten dau. Oneri ezteutso balio arean esateak etse atan egonagaitik eztaula geiago yausiko pekatuan, eztaula bakarrik egongo, orduragiño pekatu egin dabenagaz, ezteutsala urreratuten bere itxiko, eta artuko dituzala al daizan modu guztiak pekatuan barriz yausi ez eiteko; ze



bertan dagoan artean, pekatuen bideune labanean, eta pelleburuan dago, baita alan dagoan artean ezin esan leike propositu benetakoa daukala.

6. Berberau diñot beste pelleburuak gaitik bere; eta alan tabernaan ordituten danak, ezin esan lei... propositu benetakoa daukala, taberna itxi ezik; yokoan aserratuten danak, birao eta maldiziñoak ezarten dituzanak ezin esan lei... propositu egiazkoa daukala yokoa itxi ezik. Jolas, olgura, erronomia, danza, eta mutil-neskatilla arteko adiskidetasunetan infernuko su zikin eta loian erretan danak, eta berba atsituak esaten dituzanak, ezin esan lei... propositu egiazkoa daukala, pelleburu guzti onetatik alde egin ezik. Beste gauza baten bere agiri da propositu-eza, edo onduteko gogo faltea, eta da, konfesoareak emoniko penitentzia arzeko atserakuntzean. Dakus konfesoareak, konfesetan danak daukala ekandu zitelen bat, edo beragan yausteko pelleburua, erremediau ezik. Kontu daigun: dakus daukala bere buruagaz ukutu edo eskuka loiak egiteko ekandu lotsagarria, edo artu aginean dagoala: deritxo konfesoareari, ekandu au kentzeako, edo artutea galarazoteko bitartekorik, eta erremediorik, indartsuena, eta onen onena dala amabosterik amabostera konfesetea: Aginduten deutso, bada, penitentzia au, Ene! ze garratz! ze astun ta gogor! ze gatx ta gazi egiten yakan penitentzia bigun au! Zelango atxakiak eztituz asmetan? Beste edozein-bere penitentzia, guztiz astunago izan arren bere, errezago egiten yake. Beste batek dauko biraoak, añenak, yuramentu guzurragazkoak botateko ekandua; dakus konfesoareak ekandu au daukana, urterik urtera baxen konfesetan ezatalako, orregaitik aginduten deutso penitentziatzat, illabeterik illabetera konfesetako. Jesus! ze penitentzia astuna! ze konfeso-re gogorra! Ez nauko ain laster oster bere oñetan ikusia. Ze aleginak beste penitentzia bat emon dagion? Oneek eta onelangoak eztauke pekatuta biurtu ez eiteko gogorik: ze baleuke, poz arren ozta artuko leukee, euren arimeen osagilleak emoitzen deutasan, osasungarri ondutekoak.

7. Esan danetik, errez ulertuko dozue, neure enzula maiteak, konfesiño on bat egiteko gauzarik gatxena, baita bere bearren bearrena, dala, pekatuak, guztiz itxiteko gogo; orregaitik bada, onetantxe imini bear dozue ardurarik andiena. Deritxat ainbeste konfesiño deunga egiten badira, geienak gogo onen faltaz direala. Askok eta askok uste dabe ze, bein esaminea egin, pekatuak konfesadu, eta absolbiziñoa artu ezker, eginik dagoala ondo konfesetako bear dan guztia. Dakus konfesoareak, pekatu-rako bidean dagoan batek, eztabela urten gura pelleburutik, eta ukatuten deutso absolbiziñoa. Antxe dira larriak, estukuntzak, eta negarrak, Zelango errekuak, zelango eskaariak, zelango iskintza galantak absoluziño-bagarik bialdu ze daian. Esaten deutso konfesoareak, itxi dagiala lenengo

pekatu-rako bidea, urten dagiala daukan pelleburutik, eta emon dagiala leenaz eta aurretiaz bere proposituaren igargarriak; bada bestelan absolbieten badau, bien arimaak galduko direala. Ezteutsala ezerbere balio absolbiziño arin emonak, leen baxen deungago geratuko dala: ze, pekatuak parkatu eta grazia artu bearrean, beste pekatu ikaragarritzko egingo dabela. Adietan emon dagiala leenago bere Propositua, eginagaz alegina bere ekandu zitala kentzeako, edo gitxienez gitxituteko, itxi dagiola pekatu-rako bideari, urten dagiala bideune txar ta pelleburuetatik, ze, au egin ezik, ezin iñondik bere absolbidu leikeala. Baia au guzti au ezta asko. Gura leuke leengo ekanduan aurrera yoan, pekatu bidean geratu, lengo pelleburuan egon, ta absolbiziñoa artu; eta deungeen deungeena dana, uste dau ze, absolbieten badau konfesoareak parkatuko yakazala guztiak.

8. Gizon itsua, andra sensunbakoa, zetako dozu, zer balio deutsu absolbiziño orrek? Zer aurreratuten dozu bera artuagaz? Pekatuan barrurago sartzea, Demoniñoaren lakioan estuago katigurik geratutea, Jaungoikoaren arerio izaita infernuaren urrago yoatea. Orregaitik ezin konfesoareak mesede andiagorik egin leikezu absolbiziñoa ukatutea baño: eta egin leikezun gatx eta kalterik andiena da absolbiete: bada ukatuten badeutsu, da urten daizun, infernura daroazun bidetik, eta sartu zaitezzen zeruko bide artezetik; baia emonagaz absolbiziñoa, itxiten zaituz zeure betiko kondenaziño bidean, eta txarren dana, sinistu-erazoten deutsu zeruko bidetik zoazala. Itsuturik modu onetan, aurkituten zara infernuko ateetan. Gura badozu bada zure konfesiñoa ona izan dedin, eta konfesoareak absolbidu zagizan, emon egizuz zeure proposituaren igargarriak; urratu egizuz ekandu zitalak, itxi egizuz okasiñoak, urten egizu pelleburuetatik, eta erdu J.K°.ren oñetara; esan egiozuz berari, konfesoareari esanagaz, zeure pekatu guztiak, eta orduantxe geratuko zara pekatuen katea bagarik, eta ibiliko zara bide artezetik, zeinek eroango zaituzten zerura. Alan izan daiteala. Amen.



7. [PROPOSITUA]

(J, 22-25. or.)

Pekaturik mesede artu dabeenetati igaro gaitazan propositurik eztaukeenetara. Damuari, ona izateko, lagundu bear deutso pekaturik ostera ez egiteko gogo eginak: auxe dau bere betiko laguna, eta bera bagarik ezta gauza damu ori. Damututen yakanak zerbait egina, eztau gura alangorik barriro egin, eta aleginak egiten dituz beste bein ez egiteko. Damututen baiatzue edonori artoa epetan emona, iñondi bere aren dirurik artu ezin dozuelako, esan daroazue: *yakin izan baneu bada... Ez, eztauko ain laster nire artrik arturik*. Alan bada damututen yakanak bekatu egina, gura ta gur'ez artuko dau ostera ez egiteko gogo. Gogo oneri esan daroakegu *Propositua*.

Da bada propositua pekatuaz ondo damututa dagoan Kristiñauak artuten daben erabagitasun eta gogo biotzeko sendoa ez geiago pekaturik, beintzat ez mortalik, egiteko, eta alde egiteko pekatuen bide urko-ezagunetati. Ezin izan leiteke damu benetakorik, urrengoan pekaturik ez egiteko gogo bagarik, eta damu egiazkoak beragan sartuta daroa alango asmu ederra. Alanbere beti da txit ona egitea propositu, eta gogo argi apartekoa: baia Kristiñau on, pekatuari gorroto deutseenak, ezтира ларritu bear, gomatau ezin badira, egin ete dituezan alango propositu damuaz ganetikoak. Propositua sarturik badago bere benetako damuan, ezтира orregaiti biok bat. Damuak begiratuten deutse leen egin da dagozan pekatuati, proposituak barriz etorkizunai. Batagaz damu dau pekatu egina, besteagaz gogo ta asmua dauko geiago ez egiteko.

Propositu au euki leiteke bildur izan arren barriro bere pekatuan yausiko dala, badauko batek gogo egina ta osoa bere aleginez pekatuen bideetati alde egiteko. Eta gogo ori zindoa bada, bildurrak berak bizkortuko dau alegin orreek egiteko. Idi-proba baten bosteko bat postura egiten dabena bildur da galduko dabela, baia alanbere beti dauko gogo, irabazteko aleginak egingo dituzala egitako, eta alan egin bere egiten dituz. Egin begiz pekatariak bere aldeti dagozanak, eta Jgkoak lagunduko deutso pekaturik ez egiteko.

Gauza bi bear dituz Proposituak bear dan legezkoak izateko, izan bear dau pekatu guztien ganekoa, eta eragin-gillea. Lelengo pekaturik ez egiteko gogo zabaldu bear da pekatu guztietara; au da artu bear da gogo

sendo eder bat (bein bere) ez egiteko, ez pekatu au edo bestea, ezpada bapere ez egiteko; ezta onenbeste denporan, illa betean urte betean ez egiteko ezpada bein betiko ez egiteko. Eta alan batek baleuko pekatu mortal bakar bat egiteko gogo, beste ganekorik ez egiteko gogorik izan ez arren, ez leuke gauza izango bere propositua. Onelangoak izan oi dira leen aitatu deusuedazan, eta pekaturik mesede etorriko yakela uste dabeenak.

Proposituak bear daben bigarren gauzea da izatea eragin-gillea, esan gura dot propositua benetakoa bada, bera daukanari artu eragingo deutzazala pekatuan ez barriro yausteko modu guztiak. Auxe da proposituak bearren dabena, eta onetan igarten yako, benetakoa izan bada edo ezpada. Pekatari batek gogoz artuten badituz Konfesoareak emoten deutzazan penitenziak, ez bakarrik lengo pekatuen zorrak ateretako direanak, baita bere urrengoan ez yausteko iminten deutzazanak, eta gero zeatz eta ardurara onagaz egiten badituz: alde egiten badau lengo bide txarreetati, lengo lagun deungeetati; eta alegiyak egiten badituz barriro yausi ez egiteko, propositu ederra; propositu galanta eta Jgkoaren begietan asko balio dabena. Baia alan egin bearrean, asten baiako Konfesoareari mukerka; edo baietz esan arren, gero yaramonik egiten ezpadau: badabil lengo bideetati, lengo lagun txarrakaz; orrek eztauko benetako propositurik.

Neskatilla otsein bateri ugazabak edo etseko Semeak emon deutse deungerako bidea. Dirautso Konfesoareak etse orretarik urteteko. Bertati urtetan badau guztiai largata, agiri dau propositu ona daukala. Baia asten baiako Konfesoareari atxakietan, artu gura ezik milla baiakagaz: *Baia, Jauna, zer esango dabe urtea egin bagarik urtetan badot: baia Jauna, etse orretan beste etseetan baño soldata ohea, eta probetxu andiangoak dagoz, eta ni guraso pobreen alabea, ezer eztaukadan bat nas*: edo esan arren Konfesoaren belanetan ondo eginik dagoala, gero bertan, urten bagarik geldituten bada, agiri dau eztaukala gauza dan propositurik. Ordi bateri esaten deutso Konfesoareak, ez tabernan oñik sartuteko, ez hondreetara elduteko, ez lagun ordiakgaz batuteko eta eda-aldi bakotxean, gox baten, arrastegi baten kuartillu batez gora ez edateko. Alan artu, eta alan egiten badau propositu galanta, baia artu gura ezpadau, aurrera badaroaz tabernara bideak, ta lengo moduak, ezta gauza bere propositua. Onetan ezetan baño obeto igarten da, nok eztaukan benetako damu zindorik; eta nok ez propositu egiazkorik, eta orregaiti leku onetarako itxi dodaz leen izentadu neikezan asko.

Lelengo eztauke propositu erazogillerik eta orregaiti eztaroe damu eta propositu osorik eta benetakorik, zetan edo atan pekatu mortala egiteko ekandu txarra daukeenak, ekandu ori galduteko aleginio egiten ezpa-



dabe. Onen artekoak dira arako guraso umeai edo umeen aurrean askotan birao egiten dabeenak, konfesau arren bein bere onduten eztireala. Onen artekoak dira guzurraren ganean lanzean lanzean yuramentu egiten dabeenak, esaten dabeela euren guzurra aurrekoai sinistu eragiteko: *zeinda Jgkoa zeruan dagoan: eneunke zerurik ikusi gura ori alan ezpada*, eta onelangoak. Onen artekoak bere dira yaiegun oso santuetan bear debekau ta eragotzi luzeak, euren maña gaistoz, egin daroezanak, Konfessoreak bein baño geiagotan ez egiteko agindu arren.

Propositu eragin-gille bakoen artean sartu bear dira seigarreneko zikinkeria lotsagarriak, edo euren bakarrean, edo bear bada lagunagaz, egiteko ekandua arturik daukeenak, eta konfesau ta konfesauta bere onduten eztireanak: Euren artean bere pensamentu loiak gogoan erabilita euren barruan erretan egon oi doazanak, kanpoti ezertxu bere egin ez arren, ezta egiteko asmurik izan ez arren. Euren artean bere sartuko dodaz leen adiskidetasun deungea euki ebeen asko; zeintzuk Konfessoreak absolbidu gura izan etzituzalako, itxi beutseen bere euren arteko tratuari, alanbere euren barruan dauke sarturik arkalganako ondo-gura ez garbigarbia. Oneek bada eta onelangoak, dabiltzazanean bein konfesau, eta gero pekatuan laster yausi, beste bein konfesau, ostera laster yausi eta alan, esan oi dan legez pekatuti konfesiñora eta konfesiñoti pekatuta, agiri dabe eztaukela propositu eragingille onik.

Bigarren eztauke propositu eragin-gillerik okasiñoetan, eta bide gais-toetan sartuta dagozanak, alango bideetati urten gura eztabeela. Okasiñoa esaten yako pekatuta garoazan gauzeari, edo pekatu egiteko bideak emoten deuskuzanari. Edozein gauzak pekatutarako bideak emon leikeguz: baia badira gauza batzuk besteen artean euren daukeenak pekatutarako gantz emotea, eta eskuti legez pekatu egitera eroatea. Oneek bada itxi bear dituz pekatu egin gura eztauenak, eta itxi gura eztituezanak eztauke benetako propositurik. Neskatilla batentzat izango da okasiñoa, pekatutarako tenteran daben mutilagaz egotea: izango da edozeinentzat, berba loi nasaiak esaten direan tokian egotea. Bada propositua izango badabe, itxi bear dabe neskatilleak mutil donga orregaz egotea, eta guztiak alango berba loi esaleen artera yoatea.

Asko ta asko dira alde onetati propositurik eztaukeenak: ona emen onetariko batzuk. Lenengo bada datoz lagun txarrakgaz batuteagaiti biraoak eta yuramentu guzurrezkoak egiten dituezanak. Bigarren, tabernara edo ondretara yoan ezker, edo urlia ta ulizeagaz batzandu ezker orditu oi direanak. Irugarren, eurak dakiezan lagun dongak-gaz batzandu ezker lar yokatu ta etsean bear leukeena yokoan ondatuten dabeenak.

Laugarren urligaz batu ezker iñoren kreituko gauza txarrak esan bear ko dituezanak. Oneek guztiok bada itxi bearko dituez lagun txarrak benetako propositua izango badabe.

Eta seigarrenekoan, zeinbat eta zeinbat okasiño eztagoz? Zeinbat arri laban pekatuan yausi eragiteko? Eta zeinbat konfesetan dira alango bideak itxiteko asmu bagarik? Ezagutu dagizuen egia au, nik aitatuko deusuedaz orain onetariko okasiño batzuk. Geientzat dira pekatutarako okasiñoak dantza nastuak, mutil-neskatillak batzan egiten dituezanak, nai plaza agirian egiten direanak, nai zelaietan eta hermita basterretan egiten direanak, nai okeluetan eta zokondoetan egiten direanak. Izan oi dira okasiñoak bigirik, gaubeetako neska-mutilen arteko batzarrak. Izan oi dira gaubeetako errondak, eta oletara batuteak. Izan oi dira karobietako bearrak, neskatillak frakadunai lagundutera yoan ezker. Izan oi dira, beinik bein gazteentzat, fiestetara yoateak, gaubeetako suak, eta berba baten gaztekeria, mutil ta neskatillak, nastean batzanduten direanean, bada alango aldietan izan oi dira, baita ugari, berba loiak, ipuin zikinak, orakadak, bulzadak, mokorkadak eta besteak. Eta, zeinbat eta zeinbat dira alangoai itxiteko gogo bagarik konfesetan direanak? Ai ze proposituak gazte askok konfesiñora daroezanak! Ai zelango konfesiñoak onelango proposituak gaz egiten dituezanak! Oneek guztiok bada, osterantzeko pekatuen ganean propositu izan arren, eztauke propositu osoa ta eragin-gillea, ondo konfesetako asko dana.

Eta, zer esango dot arako konfessore nasaien, eta entzun ta entzun baño besterik egingo ezteutsenen billa dabilzkanak gaiti, ekandu txarren ganean, edo okasiñoaren ganean estutu ze dagezan. Itsu batek beste itsu bat itsuurrekotzat? Modu ona laster yausi eta banatuteko. Eta, zer esango dot arako urte guztian zelan-gura bizi, eta Paskoaz baño konfesetan ezitireanak gaitik? Onen artean bere izan oi dira azerikume asko-yakin batzuk, konfesetara baño leen, amabost baten legez, egon oi direanak pekatuturik egin bagarik, sinistu eragiteko Konfessoreari onduten asi direala. Oneek, pekatu ez egiteko (damurik eta) propositu onik bauke? Euren bizitzeak laster esango dau. Absoluziñoa artu ezker, eta bein txartela esku artean ikusi ezker denpora asko bagarik barriro lengo pekatutara biurtuko dira. Damu ederrak beintzat, eta propositu galantak, Jgkoak begiak ain zuur ezpalituz. Baia ak ondo dakusaz gure biotzak, eta eztoгу a engañauko damu guzurrezkoagaz.

Orain azkanean esan bear deusuet zer egin bear dozuen pekatuen damua izateko. Yakinik egon bear zare orretarako Sto. Tomasek diñoana, Jgkoak geiago egiten dabela pekatariak euren pekatuak parketean, zeru-



lurrak eta gauza guztiak egitean baño. Yakinik egon beartzare bere, damua dala, leen esan deutsuedan legez, konfesiñorako bear dan gauzarik bearrren bearrena. Yakinik egon beartzare oraindo, geuk geureanez ta geureka butan, ezin artu giñaikela bear dan lango damutasunik: Jgkoak berak emon bear deusku, eta ak emon ezik eztogu guk gauz'onik egingo.

Alan bada esamina konzienziakoa egin dozuenik laster, pekatuak gogoan barri barri dozuezan artean, eregiko dozue Jgkoagana zuen biotza, eta al dozuen deboziñorik andienagaz eskatuko deutzazue bere grazia ta laguntasuna, bear dan legezko damu bat zuen biotzetan artuteko. Asiko zare gero begiraturen, zelan imini dozuen pekatuak gaz zuen arimea, ze ezain, ze atsitu, ze bildurgarri. Zelan dagoan Jgkoaren begietan ilik, ikatza baño baltzago, eta Demoniñoak beragan, arrak gorpu atsitan legez dabilatzala, bere yaube eginik. Gogora ekarriko dozue, pekatua dala medio galdu dozuela Zerura-bearra, eta merezi izan dozuela Infernuan erretan betiko egotea, baita asko an ainbeste bagarik egongo direala. Baia Jgko onak etzaituezala galdu gura, eta prest dagoala besoak zabalik zuei parketako, eta zuek bere adiskidetzat artuteko. Orretarako Jgkoaren Semea gizon egintzala, ogeta amairu urtean neke asko ikusi zituzala eta azkenean bost milla ta geiago azote, arantzazko koroi gogorra, eta kurutze baten untzeak gaz yosirik eriotza lotsagarria. Onegaz biztuko dozue parkaziñoaren esperantzea eta artuko dezue alango Jgko ona ofendidu dozuelako damua. Eta ori geiago bizkortuteko, esaizue, al dozuen deboziñorik beroenagaz, bost edo sei bider: *Neure Jaun Jesukristo*

Ejempl. vid. Roncal. Clarin Evangel. t. 2. Dominic. X. desp. de Pentecos. n° 8.

8. AOZKO KONFESIÑOAREN GANEKO BERBA-ALDIA

(B, 103-107. or.)

1. Konfesiño on bat egiteko laugarren bear dan gauzea da pekatu guztiak, batpere itxi bagarik, konfesetea. Konfesiñoa ezta beste gauzarik, ezpabere konfessoreari bere pekatu guztiak esatea baxen, beraganik artzeako euren absolbiziñoa, edo parkaziñoa. Ona izaiteko euki bear dituz lau gauza. Lelengo izan bear da humilia, edo humildea, au da eztira pekatuak esan bear ipuin, edo beste konturen bat esaten dana legez, ezpabere egin dituzan gatx andi eta kalte ikaragarrien parka-eskatuten dabenak legez. Edozeinek daki, badoa norbait beste baten, egin deutzazan, gatx eta kalte andien parka eskatutera, elduten dala lotsaz beterik, eta humildade gutzizko bategaz. Zeinbat eta andiagoa dan personea, zeinbat eta aserreago dagoan beragaz, zeinbat eta andiagok direan egin deutzazan gatx eta kalteak, ainbat eta humillago doa bere aurrera parka eskatuten. Begiratuizu, bada, non dirautzazuzan zeure pekatuak, eta zetarako akusetan zarean, eta auxe bakarrik asko izango da, humildade, bildur santu, eta lotsaz beterik zeure pekatuak konfesetako. Baia yakin bear dozu ze, Jaungoikoaren ordeko dagoala konfessorea, eta alan bere oñetara zoazanean, edo bere oñetan belauniko ifinten zareanean, Jaungoikoaren aurrin iminten zarea-la, berari akusetan zaiakozala, berari dirautsuzala zure pekatuak. Bera dago zugaz guttiz irritu ta aserraturik, beragaz euki dozun lotsabakotasunagaitik; ze, zatitu, zauritu ta il deutzazu bere seme bakar ta maitea. Orre-gaitik zaukaz kondenadurik infernu batera. Konfesetan zareanean, bada, akusetan zatxakaz Jaunari berari, eta dirautsazu zeuk zatitu, birrindu, odolustu, eta il deutzazula bere seme bakar lastana, eta konfesiño au egiten dozu parka-eskatuagaz, ain aserre daukazun Jaungoiko oneri. Zelango humildade, zelango lotsa, zelango bildur santu eta deboziñoagaz esan bear ezteutsazuz bada zeure pekatuak Jaun oneri?

2. Bigarrenge, izan bear da osoa: au da konzienzia zeatz aratu, ta esamina egin ezkeru, konfesadu bear dira, burura ekarri ta gogoan dagozan, pekatu guztiak, bapere itxi bagarik, ziurtuak ziurtu legez, dudazkoak dudazkoak legez; eta alan gomuta yakin dozuzan pekatuetatik, bat bakarrik itxiten badozu lotsa, bildur, edo maliziaz, konfesiño deungea egingo dozu, eta etxatzu pekatuak parkatuko, eta Jaungoikoaren grazia artu bea-



rrean, ikaragarritzko pekatu mortal bat egingo dozu. Orregaitik nosbeist itxi badozu pekatu mortalen bat konfesadu bagarik zeure erruz, edo guraz, gero konfesadu bearko dozuz, ez bakarrik konfesadu etzenduzanak, baita konfesadu dozuzanak bere. Esaterako: lau urtean euki dozu ixilik pekatu bat lotsaz; bada gura badozu parkatu dakizun pekatu ori, ez bakarrik konfesadu bearko dozu ixilik euki dozun... orixe, baita bere lau urte oneetan eginiko guztiak, leenago konfesadu arren bere; baita onezaz ostean egin dozuzan konfesiño, eta artu dozuzan komuniñoak. Baia konfesiño baten edo bestean itxi bazenduan pekatu bat lotsaz, eta gero aitzu baiatzun pekatu au zeure errubagarik, barriro gomuta dozunean pekatu au, eukiko dozu obligaziñoa konfesetako pekatu au, eta orduan edo konfesiño aetan eroan zenduzan pekatu guztiak bere, baia ez geroago eginak. Kontu daigun: Txikitxua zineala egin zenduan aragizko pekatu loi bat, eta konfesetan yoanik, itxi zenduan lotsen lotsaz. Igaro zan denporaren bat konfesetan yoan bagarik, eta aztu yatzun pekatu a. Igaro zirean urte batzuk; eta gero, edo sermoiren bat enzun zendualako, edo konfesoreak egin eutsun itaunde bategaitik, edo beste moduren baten, burura yatorrtzu pekatu a itxi zenduala lotsa edo bildurragaitik. Orain bada, ondo ondo begiratu eta konzienzia arakaturik, ziertu bazagoz etzenduala zeure erruz itxi konfesadu bagarik geroko konfesiñoetan, egin bear dozuna da, barriaztu arako konfesiñoak zeintzuetan zeure erruz edo lotsaz etzenduan konfesadu pekatu loa, eta eztaukazuz zer barrieztadu geroko konfesiñoak. Bardin esamina konzienziakoa egiten dozunean, edo konfesetara zoazanean, aitzuten baiatzu zer edo zer pekatu; eztago gero akordetan danean, zetan barriztadu orduan eginiko konfesiño guztia, asko da esatea azturiko pekatua bakarrik.

3. Konfesiñoa osoa izaiteko, ezta asko esatea egin dan pekatu generoa, edo esatea sarri pekatu egin dabela urlia gauzatan: esango baleu legez: «akusetan nas sarri ostu dodala». Au ezta asko, diñot ostera bere: esan bear dozu zeinbat bider ostu dozun, zeinbat bider aserratu zarean, berba loiak esan, edo beste edozein bere bekatu mortal egin dozun; ezin badozu esan zeinbat bider, esan egizu gitxigora beera; au bere ezin badozu, zeinbat bider egunean, edo astean; eta au bere ezin badozu, euki dozun ekandua, eta zeinbat denporan iraun deutsun. Onezaz ostean, konfesadu bear dozuz, pekatuak daukazan zirkunstanzia eta lagungarriak, berez pekatu direanak. Esaterako: yo dozu Aita? Ezta asko esatea yo *dot gizon bat*; konfesadu bear dozu, yo *neban Aita neurea*. Egin dozu aragizko pekatu bat nebarreba, aide, ezkondu, edo boto kastidadekoa daukanagaz? Bada ezta asko esatea, *egin dot aragizko pekatu bat*; ezipabere esan bear dozu,

zelango modukoagaz egin dozun, personea uzentadu bagarik, osterantxean zure konfesiñoa ezta prestu, osoa etzalako. Konfesadu bere bear dira pekatua andiago egiten dabeen lagungarri, albo edo zirkunstanziak. Kontu egizu: ostu dozuz eun dobloa; bada ondo konfesetako, etzara kontentadu bear esanagaz, *ostu dot gauza grabe bat*; esaizu, *ostu dodaz eun dobloa*, ze emen pekatu barririk ezipadago bere, guztiz da andiagoa, eta ondo da konfesoreak yakitea, zelango pekatua dan, datorkion penitentzia, eta erremedioa iminteko. Konfesadu bear dira bere uste okerragaz eginiko pekatuak. Kontu daigun: uste zenduan astegun baten yaieguna zala, eta zure nagitasunagaitik etzenduan meza entzun: gero barriz, yakin zendun etzala yaieguna; au bere konfesadu bear dozu, ze ezipazan bere pekatu astegun atan meza ez enzutea, zuk uste zenduan yaieguna zala, eta uste oker onegaz, egin zenduan bein-danik-bein pekatu mortala. Bardin da pekatu beniala baxen eztan gauzaren bat egiten badozu, baderitxazu pekatu mortala dala.

4. Konfesoreak itanduten badeutsu, leenagoko konfesiñoetan euki bazenduan, orain konfesadu dozun, lezko pekatuak; zeinbat bider yausi zinean; ze pelleburutan egon zinean, leenago euki bazenduan ekandurik, edo beste onango gauzarik, artez artez eranzun bear deutsazu. Esaterako: Dirautsazu konfesoreari, bost edo sei bider euki dozuzala zeure aragian eskuka edo ukutu-aldi loiak. Itanduten deutsu konfesoreak, ea euki badozu leenagoko konfesiñoetan onelango pekatuak; zeinbat denpora dan pekatu au egiten abiau zineala; zeinbat bider yausi oi zinean aste edo il bakotxean, ze penitentzia imini utsuen kunplidu bazenduzan penitentziak; oni guzti oneri, eta beste onango itauneai artez, ezerbere estaldu-bagarik eranzun bear deusezu. Askok eta askok onango gauzarik itanduten yakeanean eranzuten daue, ori-guzti-ori konfesadurik daukat; igaro zan, zetako orain berriztetea? Bai nai. Konfesorea zure arimako medikua da, eta itaunde oneek egiten badeutsuz, da igarteko ze gatx modu daukazun, eta yakiteko zelango osasungarriak, ta erremedioak bear dozuzan, zu pekatuaren gatxetik aterateko: orregaitik gura badozu benetan mediku onek osatu zaizan, esan egiozuz zeatz zeatz buruan daukazuzan pekatu guztiak, bapere itxi bagarik, eta eranzun egiozu artez, egiten deutsuzan itaune edo pregunta guztietara, eta zure konfesiñoa osoa izango da.

5. Irugarrengo, konfesiñoa izan bear da egiazkoa, au da, egia esan bear da, ezer bere ez geitu, ez gitxitu bagarik; bada guzurren bat badiño gauza grabean edo nagusian, leenagoko pekatuak parkatu bearrean beste barri bat egingo dau, pekatu yakinak esan bear dira yakinak legez, eta ezda-baida-koak, ezda-baida-koak legez, guztiak bakotxak beretzat uste



dituzan moduan. Bada yakinik ziurtu, pekatu bat egin dabela, badiño dudana eta bada-ezpadan dagoala, egin daben, ala ez, pekatu mortala egingo dau; eta bardin dudana dagoala egin ete dabenez, egintzat, edo ziertuztat konfesetan badau. Konfesiñoa ezta egiazkoa izango gitxitu edo geiagotuten bada, eta badiño direan baxen gitxiago edo geiago direala, ezta ondo konfesaduko. Kontu daigun. Esamina konzienziakoa egitorduan atera dozu kontu zortzi bider gorroto euki deutzazula lagunari, eta akusetan zara zazpi bider izan dala, etzara ondo konfesetan; eta bardin da badiñozu bedaratzi bider. Askok ta askok onetan uts egin daroe. Uste dabe ez tala ezer, pekatu geiago esatea, diñoela; *obago da geiago imintea, gitxiago baño*: eta alan kontu ateraten badabe lau pekatu egin dituezala, bada ezpada esan daidazan sei direala. Au ezta konfesiño egiazkoa. Beste gauzarik litzateke ezpaleki ziurtu zeinbat direan, eta dudana balego, amar ala amabi direan; orduan esan lei... eta esan bere bear dau amar edo amabi direala. Laugarren konfesiñoa izan bear da tolez, ta atxakia bagea. Izan bear da tolez bakoa; au da argi argi, eta klaru klarutan imini bear deutzazuez konfeseareari zeuen pekatuak, eta euren anditasun guztia ezagutu al dagian moduan, ibili bagarik kontu luze, eta ipuin moduak esaten, sinistu erazoteko Konfeseareari ez tala, dan lango andia euren pekatua. Sinistu egidazue, askoren kontu luze, inguru, eta kontetan dituezan yoan-etorri luzeak, ez tira pekatua estaldu, edo gitxienez txikituteko asmuak baxen. Egin deutzazu iñori biraorik? Euki deutzazu gorrotoak? Konfesadu eikezu, egin dozun biraora, edo izan deutzazun gorrotoa, ibili bagarik atsera ta aurrera kontetan, ari egin deutzazuzan mesedeak, zugaz euki daben esker gaistoa, egin deutzazun txarkeria, eta beste milla ipuin, konfesiñorako bear ez titean. Egia da, esaten dabela: «yazo zan guztia esaten ezpadabe deritxeela, ez titeala ondo konfesetan»: baia ezin au sinistu leioe; gora-beera oneek ez tira beste gauzatarako, ezpabere eurak artzen dituezan asmuak sinistu erazo al baleioe konfeseareari euren pekatua ez tala mortala, edo bada bere, ez ain andia, zein da leenengoan esan leikean, eta alan kontu luze onen sustraia da edo lotsea edo soberbia.

6. Konfesiñoa izan bear da atxakiabagarikoa; au da: etxako besteri ezarri bear norberak eginiko pekatuen errua. Askoren konfesiñoak obeto dirurie, pekatu egin dabena ukatutea, ezen ez pekatuak akusetea edo konfesetea. Edozein bere pekatuak dauke atxakia, eta topetan dabe nori errua ezarri. «Jauna, diño emazteak, biraora asko egin deutzazuzan senarrari: baia, zer egingo dot? Ain da galdua, ain alperra, ain ardura gitxikoa ze, ezteust ezetan bere lagundu gura. Ain da ordia ze, irabazten daben guztia, doa tabernara, eta etsera datorrenean guztia da agirakea, errieltea, eta

ameneko makilladea eta golpea. Nik al daidan guztia, ezta elduten neure umeai yaten emoiteko, eta euren aragi tristeak estalduteko. Onexek geien estututen nau, eta auxegaitik biraorik geienak ezarten deutzazuzan. Nik beste senar modu bat baneuko, eneuke neure bizi guztian biraortxu bat bere botako. Bator onen senarra; etxako oneri bere atxakiarik faltako. «Jauna, diño biraora asko egin dodaz, baia, zer egingo dot? Daukat emazte bat, ain miñ luzekoa, ain irritua, ain jeniño zitalekoa ze, ezteust iñox bere bakean itxiten: beti beti dago oñoten. Tragutxu bat edan badot, guztia da agirakea; puskatxu bat beranduago baño etsera, guztia errebolbietan dau: egin guztian bearrean egon arren, deritxo alperrik nagoala; aora dator-kion guztia esaten deust, arpela, ordia, galdua, ardura-bakoa. Berba astun onekaz ernegarazoten deust; ze osterantxean elitzateke eguño nire aotik biraorik enzungo». Modu onetan edozein-bere pekatu idoroten deust atxakia, eta ez yakoe falta nori ezarri errua. Emazteak senarrari; Senarrak emazteari; Gurasoak umeari; umeak gurasoari; ugazabak otseñari; otseñak ugazabari; eta lagunak lagunari. Izan bedi pekatua borondate oso, guraari bete, eta iñok tentadu bagarik egin; bada orduan bere aurkituko dabe noren erru orduan bere aurkituko dabe noren erru imini, eta besterik ezin badau, esaten dabee *Demoniñoak engañadu ninduan*. Baia atxakia guzti onek utsak diraz; pekatu egiten badogu, geuk gura dogulako egiten dogu, eta geuk gura ezpagendu, ez senar, ez emazte, ez guraso, ez seme, ez lagun, ez ugazaba, ez otsein, ez Demonio, ez infernu guztia elitzatekez asko izango guri pekatu erazoteko. A balekie kristiñauak, ondo begiratuko baleude noen aurrean dagozan konfesea-orduan, nori dirautsezan euren pekatuak, ez litzatekez ibiliko atxakia atsean, ez leuskioe besteri egotziko euren pekatuen errua. Yakin bear dozue, bada, ze Jaungoiko berberaren oñetan zagozela, eta onerixe dirautsuezala zeuen pekatuak. Jaun onek dakusaz zure biotzeko okelurik ezkutuenak, ezin arean ostendu zinaike bere begietatik, eta alan nai argi argi esan, nai atxakiakaz esku-tadu dagizuzala, bardin dakusaz Jaun onek. Zer aurreratuten dozu, bada, gora-bera ta atxakia onekaz? Ezer-bere-ez. Benturaz engañadu zinaike konfesea, sinistu eragin zinaio, ez tala zure pekatua dan baño andia, edo izanik mortala, beniala dala; baia ezin engañadu zinaike guztia dakusan Jaungoikoa. Egin zinaike, emon deizula konfeseareak, ondo konfesaduko bazina emongo leuskezun, absolbiziñoa, eta iminize daizula iminiko leuskezun penitentzia guztia. Baia, zer balio deustu konfesea engañaduagaz aterariko absolbiziño orrek, Jaungoikoak absolbidu ezik? Leen baxen deungago geratuten zara, ze lengo pekatuen ganera beste ikaragarriko sakrilejio bat ezarriko dozu.



7. Ai! neure Kristiñauak, bildur izaiteko da konfesiñora dakaruzuan inguru, eta atxakia oneek, ifinten dozuezala, pekatuen damutasun benetakorik eztaukazuelako eta pekatuetarik urte-iteko gogo edo guraari benetakorik eztaukazuelako. Gexorik bazagoz, eta medikuari deituten badeutsazu, artez artez, eta klaru esaten deutsazu zeure gatx edo gexoaren ganean dakizun guztia, eta inguru bagarik eranzuten deutsazu itanduten deutsun guztira. Gura badozu, bada, arimako osasun emoille konfesoareak osatu zagizan, klaru klaru, ta argiro esan bear deutsazu gexoaren asierea, eta dagizun ganekoa, eta artez artez eranzun bear dozu itanduten deutsun guztira; ze osterantxean ezin egiagaz esan zinaike gura dozula osatu dagizan. Beragana bazatoz da zure arimako geixoa osatu daizun. Onetarako emon bear deutsuz zure gexoari datozkiozan osasungarriak, eta agindu zer egin bear dozun, ez bakarrik osatuteko, baita bere geixo ostein osasuna yasoteko: eta au ezin leiteke zuk klaru klaru agertuten ezpadeutsazuz zure barruko gatx, eta pekatuak ezkutuenak. Au ez eginik, guztiz da erraz okerreko erremedioak emoitea, zeintzuk gatxa kendu bearrean, geiagotu leikezuen. Orregaitik estaldu edo gitxituten badozuz zeure pekatuak, ezin esan zinaike, gura dozula arimako osasuna. Konfesadu egizuz, bada, zeure pekatu guztiak bapere itxi bagarik, lotsa bagarik, inguru bagarik, atsera ta aurre bagarik, atxakia bagarik, ezagaturik Konfesoareak, esan deizun, eta irakatsi deizun zer egin bear dozun, modu onetan parkatu dakizuzan guztiak, eta biurtu etzaitez an oster euretara. Modu onetan izango da ona zure konfesiñoa, kenduko dira ez bakarrik pekatuak, baita pekatuak bide edo pelleburuak bere, biziko zara Jaungoikoaren adiskidetasunean, eta ibilirik zeruko bide artezetik, elduko zara artutera Jaungoikoak benetako penitentzia egiten dabenezako daukan saria. Alan izan deilla. Amen.

9. [AOZKO KONFESIÑOIA]

(J, 26-31. or.)

Si confiteamur peccata nostra, fidelis est
et justus ut remittat nobis peccata nostra,
et emundet nos ab omni iniquitate
(1 Joan. 1,9).

Konfesiño on bat egiteko bear dan laugarren gauzea da pekatu mortal guztiak bapere itxibagarik konfesoareari esatea. Ezta asko pekatuen parkaziñoa Jaungoikoaganik izaiteko pekatu eginen damutasuna, orrez ostein guztiak, al dala, Konfesoareari esan bear yakoz. Alantxe dauko erabagirik gure Elexa Ama Santeak, ta exkomunioa iminirik dauko esaten dabenen kontra edo alango esan bearrik ezta, edo Jesukristok alangorik agindu ez ebala. Aozko konfesiño au ezta beste gauzarik ezpada bakotxak noberen pekatu mortalak Konfesoareari esatea euren parkaziñoa absolutzioaren bidez izaiteko.

Baia esango dau batek batek: gauza gogorra da beintzat besteri batek egin dituan pekatuak esan bearra, eta noberak bere bakarrean egin dituzanak bere. Ez kristiñauak, ezta dirudian gaña gogor, eta alde guztietik begiratuten baiako gauza biguna da, ta ondo biguna. Ea ezpabere, eztaukazue gogora ekarri baxen ea nori esaten yakozan pekatuak, eta zelango onaari ta ondasun andiak yatorkuzan olango pekatuak esaterik. Nori esaten yakoz pekatuak? Ezelanbere, ezelanbere iñori sekula ezin esango deutsan baten. Jaungoikoak eragotzi deusku Konfesoareai konfesiñoan enzuna esatea, baia ain estu ze, ezta bagenki bere erreko (erre egingo) ginduezala esaten ezpadogu, edo pekatutxu benial bat esanda infernuko guztiak andik urtenik zerura yoango leitekezala, ezin orregaiti bere esan giñaike pekatutxu benial ori bere. Eta eztrudi ezpabere Jaungoikoak onen ganean aparteko ardurea ta berezko kontua daukala baño. Konfesoare askori burura egin yake, ta esan dituez milla gauza igaro, baia eguño bere ezta ikusi alangoak bere konfesiñoan enzuna esan dabenerik; eta iñosko alditan gaistoren batek tentazar ezer aitatuten badeutse, aserratu oi yake zoro ta guzti. Gura dozue entzun geiago? Bada ara izan dira munduan Konfesoare Judas bera baño bere okerragoak; izan dira herejia andiak irakatsi ta hereje askoren buru egin direanak eta konfesiñoaren kontra asko esan ta asko eskribidu dabenerik. Baia alan-da guzti bere ezta-



be eguño bere agertu konfesiñoan entzun dabeenik; eta ez bildurrez ez eskupuluz; ezpabere Jgkoak berezko kontu bategaz aztu egiten deusela-ko ezer esatea. Eta, zelango ondasun eta mesedeak etxatorkez konfeso-reari pekatuak esaterik? Beste aldeti utsik ezpadago, Jgkoak parkatuten deuskuz egin doguzan pekatuak, atzera emoten deusku pekatua dala medio galdu genduan grazia, ta bera gure adiskide egiten da, baita gu arik aurrera onak bagara, emongo deusku, eriotzea ezker, bere zeru ederra. Zer? Agertuten etxakaz Medikuari seigarren mandamentuko pekatuetatik datozen gatzak? Bada au egiten bada gorputzeko osasuna izateagaitik, gauza gogorra izango da Konfeso-reari belarrian ixil ixilik esatea, arimako osasuna izaiteko? Ez beintzat, ezta gauza gogorra.

Konfesiñoak ona izaiteko lau gauza bear dituz; izan bear dau humillak, osoak, egiazkoak, eta atxakiabakoak. Lelengo izan bear da humilla, au da, ezтира pekatuak esan bear ipuiñen bat, edo beste konturen bat esaten dana legez, ezpabere biotza yausirik, egin dituzan gatz eta kalte andien parka eskatuten dagoana legez. Edozeinek daki ze, badoa iñor besteri egin deusazan kalte andien parka eskatutera, yoaten dala humil humillik, eta lotsea dariola. Zeinbat eta andiagoa dan kaltea artu daben personea, zeinbat eta aserreago daukan bere kontra, zeinbat eta andiagok direan egin deusazan kalteak, ainbat eta buruzbeerago eldu bear da bere aurrera. Begiratu egizu, bada nori dirautsazuzan zure pekatuak, ta zetarako esaten deusazuzan, eta berau bakarrik asko izango da, lotsaz beterik eta bildur santu bategaz zure pekatuak konfesetako. Bada yakin bear dozu eze, Jaungoikoaren ordeko dagoala Konfeso-rea, eta alan bere oñetara zoazanean, edo bere Metan belauniko iminten zareanean, Jgkoaren aurrean iminten zareala, Jgkoari akusetan zaiakozala, Jgkoari dirautsazuzala zure pekatuak. Bera dago zugaz guztiz irritu ta aserre, beragaz izan dozun lotsa-txarragaitik: bada manatu ta il zeuntzan bere seme bakar maitea. Orregaitik zaukaz infernu batera kondenadurik. Konfesetan zoazanean, bada, akusetan zatxakaz Jaunari berari, eta berberari dirautsazu zeuk zati-tu, birrindu, odolustu, eta il deusazula bere seme-bakar laztana, eta konfesiño au egiten dozu parka eskatuten deusazula ain aserre dozun Jaungoiko oneri. Zelango biotz humillagaz, zelango lotseagaz, zelango bildur santuagaz esan bear ezteusazuz, bada, zeure pekatuak Jaungoiko oneri?

(Bigarrengo) izan bear da osoa; au da konzienzia zeatz aratu ta esamina kontuz egin ezker, konfesadu bear dira, burura ekarri direan, ta gogoan dagozan pekatu mortal guztiak, bapere gorde ta geiagotu ta gitxitu bagarik; yakinak yakinak legez, dudazkoak dudazkotzat, pensamentuzkoak, pensamentuzkotzat, berbazkoak, ta obrazkoak aintzakotzat, eta

guztiak batek beregango uste dabena legez, ta berak beretzat daukazana legez. Eta alan gogoan dozuzan pekatu mortaletarik battxu bakarrik itxiten badozu dala lotsaz, dala bildurrez edo oker egin guraz, konfesiño deungea egingo dozu, ta etxatzu pekatu arean bere parkatuko, eta Jaungoikoaren grazia artu bearrean, ikaragarriko pekatu mortal barri bat egingo dozu. Orregaitik edonos itxi izan badozu pekatu mortalen bat zeure erruz edo zeure guraz konfesadu bagarik, gero konfesadu bearko dozuz ez bakarrik konfesadu etzenduana, baita konfesadu dozuzan bere. Esaterako: lau urtean euki dozu pekatu mortal bat ixilik lotsaz ezin esanda; bada gura badozu parkatu dakizun pekatu ori ez bakarrik konfesadu bearko dozu ixilik euki dozun a, baita bere lau urte oneetan eginiko guztiak, leenago konfesadu arren bere; baita onezaz osteian egin dozuzan konfesiñoak, eta artu dozuzan Komuniñoak. Baia konfesiño baten edo bestean lotsaz itxi bazenduan pekatu bat, eta gero zeure errubagarik aitzu baiatsun pekatu ori, barriro gomuta (gogora) dakizunean pekatua, eukiko dozu obligaziñoa konfesetako pekatu lotsaz gordea, eta pekatu au gogozan zeunkan artetako pekatu guztiak, konfesiñoak ta komuniñoak, baia ez pekatua bururik yoan ezkerokoak. Kontu daigun; umetxutan egin zenduan aragizko pekatu loi bat, eta konfesetara yoanik lotzaarren etzenduan esan. Igaro zan denporaren bat ostera konfesetan yoan bagarik, eta aztu egin yatzun a pekatua. Arik urte batzuk garreanean, edo sermoiren bat entzun zendualako, edo konfeso-reak egin eutsun itaune bategaitik, edo beste modutan burura yatortsu pekatu a lotsaz edo bildurrez konfesadu etzenduala. Orain bada, ondo ondo gauzea begiraturik ta konzienzia araturik ziertu bazagoz etzenduala zeure erruz itxi konfesadu bagarik geroko konfesiñoetan, egin bear dozuna da barriztadu arako konfesiñoak zeintzuetan zeure erruz edo lotsaz etzenduan konfesadu pekatu loa, eta eztaukazu zer barriaztu geroagoko konfesiñoak. Bardin esamina konzienziakoa egitekoan, edo konfesetara zoazanean aitzuten baiatzu pekatuak, eztago gero gogora datorzunean zetan barriztadu orduan eginiko konfesiño guztia, asko da esatea azturiko pekatua bera.

Konfesiñoa osoa izaiteko ezta asko esatea egin dan pekatu generoa, edo pekatu motea; ezta esatea bere sarri pekatu egin dala urlia gauzatan; esango baleu legez: *akusetan nai sarri ostu dodala, askotan eskuka loa egin dodala* ta alan. Au ezta asko diñot ostera bere; esan bear dozu zeinbat bider ostu dozun, zeinbat bider aserratu zarean, zenbat berba-arinasaiak esan dozuzan, edo zeinbat beste edozeinbere pekatu mortal egin dozun. Ezin badozu esan zeinbat bider, esan egizu zeinbat izango zan gitxi gora beera: au bere ezin badozu, esan zeinbat bider astean edo egu-



nean: eta au bere ezin badozu, esan euki dozun ekandua, eta zeinbat denporan iraun deutsun ekandu orrek. Onezaz ostean konfesadu bear dozuz pekatuak daukazan zirkunstantzia ta lagungarriak, berez ta bereanez pekatu direanak. Kontu egizu; Aita yo zenduen? Bada ezta asko esatea; *yo dot gizon bat*; konfesadu bear dozu: *Aita neurea yo neban*. Senideren bategaz deungaro egin dabenak, dala eskuz, dala obraz, agertu bear dau daukan senidetasuna, alan odolekoa, zelan (eraatsia, edo) koñatasuneti edo ezkontzatik yatorkona, laugarren belauneti kanpora ezpadago. Bardin ezkonduagaz, edo boto-kastidatedokodunagaz egin dabenak agertu bear dau zelango moduko lagunagaz egin daben eta lotsaz ixilduten dabenak onelango lagunarririk edo pekatuaren alborik egiten dau konfesiño deungea. Ez da, baia, izentadu bear konfesiñoan pekatu laguna (Konfesadu bere bear dira pekatua andiago egiten dabean lagungarri, albo edo zirkustanziak. Kontu daigun; ostu dozuz eun dobloa, bada ondo konfesetako etzara kontentadu bear esanagaz (ezteutsazu asko eretxi bear esateari) *ostu dot gauza grabe bat*, esaizu: *ostu dodaz eun dobloa*; zegaitik eze emen pekatu barriarik ezpadago bere, andiagoa da askozaz bere pekatua, eta ondo da konfesoreak yakitea zelango pekatua dan, berari datorkion penitentzia ta erremediao emoiteko.) Konfesadu bear dira bere yakitun askoren eretxian pekatu mortala direalakoan egin direan gauzaak, eurak eurenez pekatu ez izan arren. Kontu daigun: uste zenduan astegun baten yaieguna zala, eta uste onetan zure nagitasunez etzenduan mez'entzun. Geroagogarrenean yakin zenduan etzala yaieguna, au bere konfesadu bear dozu; ze ezpazan bere pekatu astegun atan meza ez entzutea, zuk beinik bein uste zenduan yaieguna zala, eta oker uste onegaz entzun etzenduanean, egin zenduan pekatu mortala. Beste ainbeste esan bear da bereanez pekatu beniala baxen ezta gauzaren bat mortala dalakoan egiten badozu; bada zuretza-ko, zure uste txarragaitik mortala da, ta konfesadu bear dozu.

Onezaz ganeti esan bear izaten yakoz Konfesoreari beste gauza batzuk. Lelengo pekatu bidean edo okasiñoren baten sarturik dagoanak esan bear deutso zelan dagoan, eta ori egin ezik, eztau gauza dan konfesiñorik egingo. O, eta zeinbat uts egin doazan onen ganean! Kontu daigun, dagoala bat pekatuko okasiño gaistoan bere etxeko personaren bategaz. Diño beregango konfesetan dagoanak: *nik agertuten badeusat konfesoreari zelan neure etxean daukadan pekatu-laguna obligauko nau edo urteitera, etxetik kanpora lagun ori botatera, ta absolbiduko ez nau ganekoan*. Bildur onegaz estalduten deutso zirkunstantzia esan bearrau. Au da konfesorea gauza astunean engañetea. Bigarrenengo konfesoreari esan bear deutzazu beintzat itanduten badeutsu, leenagoko konfesiñoetan euki bazenduan orain kon-

fesadu dozun lango pekatuak; zeinbat bider yausi zinean; ze pelleburutan egon zinean, leenago euki bazenduan ori egiteko oiturarik, edo ekandurik, edo beste onango gauzaak. Onelangoetara bada, itanduten deutsunean Konfesoreak, artez artez erantzun bear deutzazu. Esaterako: dirautsazu Konfesoreari bost edo sei bider euki dozuzala zeure aragian eskuka edo ukutu aldi loiak. Itanduten deutsu Konfesoreak, ea euki badozu leenagoko konfesiñoetan onelango pekatuak, zeinbat denpora dan pekatu au lenengo egiten abiau zineala; zeinbat bider yausi oi zinean aste bakotxean edo il bakotxean, ze penitentzia modu imini eutsuen, kunplidu ta egin bazenduzan penitentziak; oni guzti oneri eta beste onelango itauneai artez ta garbiro ezer bere estaldu bagarik erantzun bear deutsezu. Askok eta askok onango gauzarik itanduten yakeenean erantzun daroe: *ori guzti ori konfesadurik daukat; igaro zan, zertarako da bada orain barriztetea?* Zertarako? Konfesoreak orrek guztiok zure onerako yakin bear dituzalako. Konfesorea da zure arimako mediku, eta itaunde oneek egiten badeutsuz da igarteko ze gatx modu daukazu, yakiteko gero zelango osasungarriak ta erremedioak bear dozuzan, zure burua pekatuaren gatxetik (gatx azpitik) ateretako. Orregaitik benetan gura badozu mediku onek osatu zagizan, esan eigiozuz zeatz zeatz ta garbiro buruan daukazuzan pekatu guztiak bapere itxi-bagarik, eta erantzun eigiozu artez egiten deutsuzan itaune edo pregunta guztietara, eta zure konfesiñoa osoa izango da. Zer konfesau bear dan ikusi ezkerro, dakusguzan orain onen ganeko utsegiteak.

Batzuk Konfesoreak onelango ekanduen ganean itandu ze dagioen tranpa egiten dabee. Bein ta geiagotan estutu dituz konfesoreak euren buruagaz edo iñogaz eskuka egiteko ekanduen ganean. Zer egin daroe bada? Iges beste Konfesore erraz bategana ta agertu bagarik lengo ekandu gaistoa, ta pekatuaren sustraia, bakarrik konfesetan deutzaz konfesiño aldi atako pekatuak; ta Konfesoreak itanduten ezpadeutse noskoa dabean a ekandua, leenagoko konfesiñoetan izan dabean alako oitura deungarik artuten dabee absoluziñoa, ta doaz pozik, konfesoreari tranpa andi bat sartuta. Au egin daroe askok. Zer aterako dabee, baia, onelango tranposoak alango konfesiñoetati? Zer balioko deutse absoluziño arin orrek? Euren kondenagarri geiagorako. Ona emen beste tranpa, eskuteta, edo pekatuaren estaltze bat larregik egin daroena. Berbea emoitzen deutse konfesoreari osturiko gauzea atsera bere yaubeari emongo deutzela, ta errestituziñoa egingo dabela. Gero nagituten dira, ta urrengo Konfesiñoaldian eztabe aitatuten euren nagitasuna, ta biurtuteko euki dabean atserakuntzea, ta lengo konfesoreak kargurik artu ez dagioen, doaz euren barri ez dakien konfesoreagana. Alan igaro daroez urte osoak konfesiño deun-



gaak egiten osoz konfesetan eztiREALAKO. Konfesetan bere dira deungaro, egia ez agertuaz, tratulari asko, irabazi bidebakoak egin, konzienziak kezkatu, ta itandu gura ezteutseenak gogo onaz Konfessore yakitun bateri dan edo ez garbia ta zuzena euren irabaztea. Enzuten badabee zerbaist prediketetan tratu okerren ganean, itoten dituez biotzeko deadarrak, ta konfesetan dira ezer aitatu bagarik, obligadu ez dagizan Konfessore yakintsuak bide gaistoko irabaziak biurtutera. Onelan konfesadu oi dira diruak prestadu edo ordeaz emon daroezanak, (obligetan dituezala artzallaak artzen dabeena baño zerbaist geiago biurtutera; edo dirua aurretutearren) lotuten dituezala nekazale gaixoak garia ta artoa merke emoiterra, edo bardin ikatzak prezio laburrean eurai saltzera. Oneek dira eurenez logreria txarrik; ze dirua ordeaz emoitearren ezin inok obligau leikee (emona baño geiago biurtutera: ez da bere dirua aurretutearren obligau inor) merkeago emoiterra garia, artoa, ikatza, ez beste gauzarik. Baia pekatu au gitxik sinistu edo ezagutu gura dabee, eta gitxiagok zuzen ta osoz konfesadu, ta lapur onradu ta kastigubako oneek doaz euren diruak emen largauta, Judas diruzalea legez, infernura. Konfesetan bere dira deungaro dirudun aberatsak limosna txito gitxi egiten dabeenak, edo, pobreak bear leukeezanak, alperrik gastaurik, edo gorde gureaz ta zekentasunez. Esatea ez daukala limosna egin bearrik zegaz egin daukanak, Ebanjelioaren kontrako doktrina da, ta Elexa Santeak bere erakuste okerra dalako eragotzita daukana. Aberatsen salbaziñoa da txito gatxa. Eta, zeinbateg konfesau daroez gastu alper larregiak, edo diru-batu gurea, zekentasunetik, edo esku-eutsi-keriatu datorrena?

Adierazo (deutsuedazan) ezkeru zer konfesadu bear dan, eta zelango utsak onen ganean egin doazan, ezer esan bagarik gelditu eztedin, esan bear deusuet zertzuk direan konfesetako premiñarik eztaukagun gauzak. Lelengo lelengo, bada, eztago obligazinorik pekatu arinak edo benialak konfesetako. Baña orretarako yakin bear da ziur ta garbiro pekatu beniala baxen ezala egin dan utsa edo faltea. Bada, zeinbat engañu eztago gauza onetan? Zeinbateg daukeez pekatu benial (edo) arintzat pekatu mortalak, edo astunak direanak? (Barriz, zeinbateg bapere pekatu ez direanak daukeez pekatu ezain ta anditzat (ikaragarritzat, bildurgarri), ta gero lotsaz agertu ezinda, kondenetan dira, sustraian pekatu etzirean gauzakgaitik?) Baia azaldu daigun au puskatxu bat. Edozeinek daki guzurtxu txiker bat esatea, ta alan beste gauza batzuk, pekatu arinak edo benialak bakarrik direala. Itxiko balituz, bada, batek yakinen ganean bere, orrela konfesau bagarik, ez leuke alde onetarik konfesiño gaistorik egingo, beste bide asko dagozalako, konfesiñoaz ostean, onelango pekatuak parketako,

ta pekatu beniala ez dalako bere izaitez inoen kondengarria. Baia, nok esan zeinbat kristiñauk daukeezan pekatu arintzat, Jaungoikoaren aurrean pekatu mortalak direanak? Badira asko pensamentu loiak borondatez gura osoz, ta ezaguera argiz eukiak, arintzat daukeezanak, ezpadauke gauza txarren bat egiteko borondaterik. Badira beste batzuk guraari edo deseoz zantar ta borondatez eukiak, arintzat daukeezanak kanpotik gauza gaistorik egiten ezpadabe. Badira bai, (ta ondo asko direala) zeinzuei esan arren berba (arin-nasai) ezain, zantar, lotsagarri ta arima askoren ondagarriak, begitanduten yaken, ez ebeela asmu deungarik izan, ta barre eragiteko esaten dituezalako edergarriaz konfesau egin daroezanak, edo egin ezta-roezanak pekatu andiak ez balira legez. Badira zeinbat egin arren dantza naastuetan eskuka, ta siñu tentagarriak, edo dantzatik kanpora ibili arren apa-laztanga, ta eskuezarte lujuriosoetan, gauza txikintzat daukeezanak, ta egiten ezpadituez gorputzagaz gauza ezainagoak, pekatu arinak bailiran legez, edo konfesau bagarik largetan dituezanak, edo konfesetan badituez, izan oi da damu bagarik pekatu benialak direalakoan. Jaungoikoak daki gauz'onen ganean zeinbat itsutasun ta ezyakin dagoan. Beste aldeti guraso asko dira umeen azieren txito nagiak ta ardurabakoak, eta, nok konfesadu daroa onelango ardurabakotasuna? Zeinbat irabazi oker egiten ezтира saldu-erosietan, edo tranpak eginik prezioan, neurrian edo pisuan, edo ontzat sarturik gauza txartu ta kaltetuak? Eta alanbere gitxik konfesadu daroaz oneek. Orregaitik bada da conseju guztiz ona Konfessoreari agertutea batek pekatu benialtzat daukazanak bere, bada askotan yazoten da konfesetan danak benialtzat eukazanak, Konfessore yakitunak mortaltzat ezagututea.

Bigarrenago eztago tentaziño utsak konfesetako obligaziñorik, bakotxak argiro darauenean, tentaziñoari lekuri emon ez eutsala; baia orduan bere txito da ona Konfessoreari esatea, bere conseju santuakaz biotza ta indarra artu dagian alango tentaziñoen kontra gogor (tentaziñoari arpegi) egiteko, eta ez eurakgaiti geiegi larrituteko. Alan fedearen kontrako begitaziñoak (eta tentaziñoak) buruak emoiteta ezta ezer norberen guraz (ta ezaguera zoroagaz) ta yakinaren ganean lekuri emoiteten ezpaiake, baia ondo da alanbere konfesetea, eta alan eginagaitik, olango tentaziñoak gitxitu doaz. Baia, ai! Zeinbat egon oi dira alango begitaziño gogaitgarriak konfesau ezinik pekatu andi-ikaragarriak direalakoan, ta alde onetatik egin oi dituez Jgkoak dakizan pekatu eskergeak! Beste ainbeste esan bear da inok emoniko tentaziño ta pekaturako bideak gaiti; lekuri emoten ezpaiake ezтира pekatu ta eztago olangoak konfesau bearrik. Kristiñau onai bere askok ezteutse largetan tentadu bagarik edo berbaz edo eskuz



edo kiñu ta siñu gaistoakaz. Alango orduetan lekurik emoiten ezpauke, ta aletin egiten badira noberaganik alango tentadoreak botetako, eta eurakganik alde egiteko eztago pekatuak ez konfesakizunik. Doa neskatilla bat bere bidean, eta mutilen batek, edo besteren batek egiten deutso zirriren bat, edo bear bada ustekabean (ustebagarik) mosu emoiten deutso. Orduan igesa artuten badau, arpegi iluna erakutsita, edo deungaro esanda, ez dago pekatuak ez konfesakizunik; baia bai, arpegi argia tentadoreari erakusten baiako, (esanagaitik epel epel ta makal makal: *zagaz gel-dirik*.) ta tentadoreari begira egoteari yarraituten badeutso; zegaitik eze, okasiñoan bere borondatez egon gura dabenak, gura dau pekatua. Nok esan zeinbat guzur esan daroezan neskatilla askok onen ganean? Baia gero (astiroago egingo dot) onen ganean. Konfesiñorako bear dan egiaren ganean egin dagidanean. Irugarrengoa batek uste onean pekatu ez talakoan zerbaist egiten badau, edo yakin arren pekatu dala gogoratu bagarik, eztauko pekatuak, ez alan egiaren konfesau bearrrik, yakin arren gero pekatu zala: baia (kontu onegaz) orretarako ezta noberen erruz izan bear ez yakitea. Barau egun baten barauzaroa dala yakin bagarik, edo yakin arren alangorik gogoan eztozula, okelea yaten dozu; bada eztozu orretan pekatuak egiten ori yatean, zuk ori ez yakitean zure errurik ezpadaukazu; baia zure ez yakite ori, zuk itandu-gura-ezetik badator, pekatu izango da ta konfesau bearko dozu. Gauz'onen ganean bere askok uts egin daroa. Askok eta askok egiten dabe euren buruagaz eskuka loiak, (baita ezkotasuna ateratea eta gustua artutea bere), ta gero esaten dabe ez eukela pekatutzat. Beste askok umetxutan neba-arreben artean edo neskato-mutilen artean egin zituezan bear etzirean zantarkeriak; lotsa izan zirean orduan konfesetan, eta oraindokoarren bere eztabe lotsa ori galdu, ta sinistu eragin gura deutse euren buruai etzekiela orduan zer egiten ebeen. Ezkondu askok bere egin oi dituez alkarren artean nasaikeria asko umeak izaiteko eztiarenak, ta gero esaten dabe bestegaz balitz bai baia euren artean ezta la ezer. Baia nik itanduko neuskie onelangoai: esan egidazue iños zuen biotzak orreen ganean ez dituzue usigi? Eztozue iños zuen biotz barruan arantzarik asmatu? Txikitxutan bere alango loikeria egiteko eztienean iñoen begien aurretik ostenduten? Etzare arrezkero beti ibili pekatu bazala etzala kezka ta kezka bildur ta bildur? Zegaitik bada esan ezteutsazu konfesoari? Lotsea da lotsea ori esaten galaraz deusuna, eta lotsa orrek begitan-arazo gura deustu pekatu etzala; baia zuk (orreek esan ezta) eztozu gauza dan konfesiñorik egiten.

Konfesiño ona izateko bear dan irugarren gauzea da egia. Esan gura dot esan bear direala pekatuak norberak beretzat daukan moduan, ezerbe-

re ez geiagotu ez gitxitu ta aldatu bagarik, bada guzurren bat gauza grabe edo astunean esaten bada konfesiño okerra egiten da, ta lengo pekatuak parkatu bearrean beste barri bat egiten da. Alan konfesiño gaistoa egiten dau: bere pekatuak lotsaz edo bildurrez gitxituten dituzanak, edo egin dituzan baxen gitxiago yakinen ganean esaten dituzanak. Bigarrengo, egiten dau Konfesiño gaistoa bere pekatuak ain modutan edertuten dituzanak eze Konfesoarek arintzat aituten, ta ulertuten dituz pekatu mortal andiak direanak. Irugarrengo, konfesiño okerra egiten dau pekatu mortal yakinak, dudazkotzat edo ez dan baidan konfesetan dituzanak edo dudazkoak yakintzat ta ziertuak balira legez. Laugarrengo, konfesiño gaistoa egingo dau pekatu txikiak anditzat konfesetan dituzanak, edo egin dituzan baño pekatu geiago, oker egin guraz, esaten dituzanak. Askok eta askok esan daroe obago dala geiago imintea gitxiago baño. Ez Kristinauak, dana esan bear da, ez geiago ta ez gitxigo, konfesiño ona egingo bada. Baia alanbere esan bear deusuet ze orain artean, alan ondo dalakoan geiago esan badozue, ez orregaitik ardurarik artuteko, bada, alan danean, ezta alde onetatik gaistoa konfesiñoa; baia emetik aurrera ez alangorik egin, ezpadaze esan (egizue) zuek dakizuena, edo izan dala uste dozuena.

Egia onen kontra modu bitara geien uts egin oi da. Lelengoa da kontu luzeak konfesiñoan esaten dituezanena (dituezanen), Konfesoari sinistu eragiteko, ezta, dan lango andia, euren pekatua. Sinistu egidazue askoren kontu luze, inguru, eta irabiotuten dituezan yoan-etorri luzeak, eztiira asmuak baino pekatua estalduteko edo bai gitxienez txikituteko. Egin deusazu iñori biraorik? Euki deusazu gorrotorik? Konfesadu eikezu, bada, euki deusazun gorroto, ta egin deusazun biraoa, ibili bagarik atzera ta aurrera, esan bai esan, zuk ari eginiko mesedeak, beraren zukanako eskerdeungea, egin deusazun txarkeria eta beste ipuin konfesiñorako eztiarenak. Askok esaten dabe ze, yazo zan guztia esaten ezpada dabe, ezteritxela ondo konfesetan direanik (direala). Baliteke au banaka batsuentzako, iñoentzat alan izan bear ezpaleuke bere; baia gora-beera oneek eztiira askorentzako beste gauzarik, ezpada eurak pekatua edertuteko artuten dituezan asmuak, konfesoari sinistu erazo al baleioe euren pekatua ezta mortala, edo bada bere ez lenengoan esan leikean gaña andi; eta alan kontu luze oneen sustraia geienean izan doa edo lotsea edo soberbia (onak eretxi gurea). Egiaren kontrako bigarren utsa izan oi da pekatuen atxakiak imintea, edo besteri norberak eginiko pekatuen errua ezartea. O zeinbategi eta zeinbategi onetan uts egin daroien! Askoren konfesiñoak obeto dirudie (direala) pekatu egin dabela ukatutea, ezen ez pekatuak esatea ta euren buruak salatutea. Edozein bere pekatuak



dauke beti prest atxakia, eta beti topauko dabe nondi andi nori errua ego-tzi. «Jauna, diño emazteak, nik birao asko egin deutzadaz senarrari; baia, zer egingo dot? Ain da galdua, ain arpela, ain ardura gitxikoa ze ezteust ezetanbere lagundu gura. Ain da ordia ze, irabazten daben guztia, tabernara doa, eta etsera datorrenean guztia da agirakea, errieltea, eta ameneko ameneko makilladea ta yoitea. Nik al daidan guztia, ezta ezer umetxu tristeai yaten emoiteko, ta bere aragitsuak estalduteko. Onexek geien estututen nau, eta auxe dala medio biraorik geienak ezarten deutzadaz. Nik beste senar modu bat baneunko, eneunke neure bizian biraotxu bat bere egingo». Betor gero onen senarra, bada etxako oneri bere atxakiarik faltako. «Jauna, diño, nik birao asko egin dodaz; baia, zer egingo dot? Emazte bat baukat nik ain min luzekoa, ain irritua, ain jenio zitalekoa ze, ezteust inox bere bakean itxiten (itxi gura): beti beti mormor deidan oñoten egon bearko dau. Tragutxu bat edan badot (orduko), guztia da deadarra ta agirakea; puskatxu bat beranduago etxera banoa, etxe guztia beera ekarri bearko dau: egun guztian bearrean arren, arpelik nagoala deritxo; aora datorkion guztia esaten deust; arpela, ordia, moskorra, galdua, ardurabakoa. Berba astun oneekaz ernegarazoten deust; ze osterantxean e litzateke neure aotik eguño bere biraorik entzungo». Orain, onetariko zaineri sinistuko deutzagu? Senarrari edo Emazteari? Geienean ez batari ta ez besteari, beintzat oso osoan. Bata ta bestea izango dira errudun ta erru andikoak ta biok etorriko dira konfesonariora guzurra dariela.

Neskatilla batek leku emon izango deutse gisakumeren baten mosu, laztanga ta eskuka zantarrari, ta etorriko da konfesetara bere burua garbitu gura dabela (gurarik): «Jauna, ni bakean nengoan, ez neuntzan nik biderik emon; ez neban nik alango gauzarik gura, eta esaten neuntsan geldi egoteko». Erdu ona, ta, zelango bidez yazo yatzuz gauza orreek? Yoan zinean zeu okasinoa egoan lekura, edo yente nasaien artera? Izan zan mutil-neskatillan arteko batzakuntzan edo olgantzetan? Zek zeroazan, bada, alango lekuetara yakinik zer igaro oi dan? Eta non nai zala, erakusten zeuntsen arpegi astuna ta bekoki iluna, eta alde egiten zenduan tentadorearen ondotik? Ala, barre egiten zeuntzan, ta algara gozoa? Bai, Jauna, barre egiten neban, baia esaten neuntsan geldi egoteko. Ederto (guapo). Zelan diñozu bada zeure borondatearen kontra izan zala? Gura ez dozuzan gauzetan, barreka egoten zara? Zure honrearen kontra zerbaist esango baleutsue, ez zenduke, ez, barrerik egingo ez algararik bere. Eta suge-ren bat zuri usigitera baletor, esango zeunkio makal makal; sugea, zagoz geldi? Guzurrak dira orreek; guzurrak, ta guzurrak bere guzur galantak. Badira, bai, obrazko pekatuan yausita bere konfesoari esan daroakenak,

eurak gura ezta, izan zala. O konfesino ederrak! Zer egin eutsun bada bes-teak? esku-oñak estu? Eta ori mendi bakar baten? Alan izan balitz bere, zerura deadar egin bear zenduan: dei egin ama Birjineari eta zeure Aingeru Guardakoari. Munduko bildur guztiak gaiti, ezpata billos bat bularraren aurrean iminita, il etzagiezan bildurrez bere, itxiko bazeuntso pekatuari gorputza, pekatu mortala egingo zeunke, bizitzea emon bear dalako, pekatu egin baño leenago. Erri barruan balitz pekatu indar egin gurea, deadar egin bear dozu, lagunak batu ta burua gordetako. Zer egingo zenduke bizitzea kendu gura baleutsue? Zelango deadar, garraxi, ta burua librau gurea? Bada maiteago dabenak gorputzeko bizitzea arimakoa baño, ez da Kristoren eskolakoa. Baia, ai! Erreguakgaiti, sari-eskintza ta utskerria batzuk gaitik, edo ezkontzako esperantzeagaitik egiten da pekatu, ta gero konfesetean esaten dabe, Jauna, nik gura ez neban neure gogoaren kontra izan zan. Guzurra ta abarra, ta konfesiño deungea. Zein pekatua guztiz eskutadu, ta ixildu, zein estalgarriren bategaz arindu ta edertu ta pekatu mortala izaiterik benialera ekarri, bardin legez da konfesiño deungea egiteko.

Baia atxakia guzti oneek utsaak dira; pekatu egiten badogu, guk gura dogulako egiten dogu, eta guk gura ezpagendu, ez senarra, ez emaztea, ez ugazaba, ez otseña, ez laguna, ez infernuko guztiak ez litzatekez asko izango guri pekatu erazoteko. A, balekie Kristiñauak ta ondo begiratuko baleude noen aurrean dagozan konfeseta-orduan, ta nori dirautsazan euren pekatuak, elitzatekez ebiliko atxakia atsean, ez leuskioe besteri egotziko euren pekatuen errua. Jgkoak bada ondo daki zuen biotzeko okeluen barri, aren begietatik ezin ezer ostenduko dozue: nai argiro esan, nai atxakiakaz edertu, ak bardin dakus guztia. Zer aurretuten dozue bada gora-beera..?

Exempl. Roncal. Dominica X post Pent. n. 9.



10. [KONFESIÑO OSOA]

(I, 143-156. or.)

Qui abscondit scelera sua non dirigitur,
qui autem confesus fuerit, et reliquerit,
misericordiam consequetur.
Prov. 28. v. 13.

Gaur daukagu neure kristiñauak, neure gogoko dan, eta askoren ari-meen onerako izan dan, eta oraindo bere, Ygkoak nai badau, izango dan sermoi gozo gozo bat. Banenkian nik gaurko arratsalde onetan izango zirezala, besteetan baxen lagun geiago, eta orregaiti berariz (beren berengi, apropos) gaurko gorde izan dot alango sermoi ederra. Eta, zeen ganekoa uste al dozue izango dala sermoi gozo ori? Izango da bada konfesetako askok daukeen buru-bagako lotsa larregiaren ganekoa, erakusten deusuedala ezta alango lotsa geiegirik bear munduko pekatuak eskergeenak, eta lotsagarrienak bere konfesoreari esateko.

Antxinarik nenkian nik eze, lar bere egia zala, konfesiñoaren ganekoa bere, san Gregorio andiak ziñoana eze, askok egin daroela pekatu egiteko okeluetatik, zokondoetatik, eta ostendereetatik ibili, eta gero egin izan dabeela ukatu. Baia azpaldi oneetako nire konfesiñoak artu bearrak argia baño bere argiago egin deust eze, uste dan baxen geiago direala kristiñauen artean, lotsaz pekatuak ostuta, konfesiñoan ezin esanik darabildeezanak; eta nire artean nago eze, ea geienak ete direanez. Onek erasoten deust, nire biotzeko min andiagaz bada bere, beste aldi baten san Bizente Ferrer-ek esan eroiana: Ai zeinbat direan konfesiñoako lotseagaitik galduten direan arimaak!

Onelango gauza negargarriak erdibituten deust biotza; eta kendu gurarik argal gaixo oneek, yausi aginean dagozan infernuko munaren ertz ertzetik, gogoak artu dodaz aleginak egiteko, ea galerazo al baneioe lotsa zori gogorreko ori. Ori egiteko esango deutseet alangoai, onetarako egin eginik datozan Yaungoikoaren berba oneek: «bere pekatuak ostu, eta gorde egiten dituzanak ezta gauzonik izango; baia artez autortu (esan) eta gero eurentarik alde egiten dabenak, orrek izango dau parkaziñoa». Ea bada pekatari lotsorrek, biotza zabaldu bear dozue, bada Jgkoa lagun dodala, nik arratsalde onetan bota eragingo deusuedaz ain luzaro galdurik, eta galdu bearrez, erabili izan zaituezan lotsa orreek. Eta orretarako

neure sermoi guztia izango da erakustea eztagoala errazoiaren apurrik bere pekatu guztiak, direanak direala, konfesoreari artez ez esateko. Ori alan egiteko erantzungo deutseet banaan banaan onelango lotsoor gaixokak geien ekarri oi dituezan atxakia yakinenai.

Ea bada gizona, emakumea, gaztea, edo zareana zareala, azpaldiko urteetan zeure pekatuak esan ezinik zabiltzazana, zeen lotseak atzeratuten zaituz zeure pekatu orreek ez konfesetako? Ze gogoak dira zeureak? Eztakutsu oker zoazala? Lotsa puska bat ez erotearren, betiko galdua izan gura dozu? Orren erraz galdu gura dozu betiko ta betiko zeure arimea, izanik zerurako egina? Esan egidazu, neure kristiñau maitea, aginduko baleu Españako Erregek gutariko bateri urkamendi baten bizitzea kenduteko egin izan dituzan gaistakeriak gaiti, eta urkamendi orren eskalleretara eldurik, errukiak yota esango baleutso Errege orrek: ea urlia, zeuk baizidazu zelango eriotza lotsagarria merezi izan dozun: baia orregaiti bere zeuk bear etzeunkean mesede andi bat egin gura deust. Zeuk zeure okerreria guztiak bapere itxi bagarik, zeurezean eta zeure buruen aurreti esan gura badeutsazuz elezako orma bateri, direanak parkatuko deusuedaz: izango zara nire adiskide. Baia esan gura ezpadozuz, yakin egizu eze bertantxe urkatua izango zareala. Opaera eder au Erregek egin ezker, tematuko balitxako, ez bada, eztituzala esan bear, eta alan balego muker ta muker bein bere esan gura bagarik, zer esango genduke onelangoa gaiti? Edo bururik eraginda dagoala; edo bai gitxienez ernegadurik eta bere buruagaz itxirik; ezin zenzundunek egin leikeala zorakeria andiagorik.

Bada kristiñaua; begira aldi bat egiozu zeure buruari. Beste onenbeste yazoten da zeugaz Jgkoaren artean, arako zeure pekatua konfesadu nai eztozunean. Azpaldiko urteetan pekatu mortalean bizi zara, eta orregaitik idunean (zamaan) daukazuz sokaak infernuko urkamendi lotsagarrian urkatua izateko. Arnasa baten pensutan zagoz betiko galdua izateko: eta Jgkoak parkatu (-ten ezteutsula) ezik yakina da zeure galdu bearra: elduko yatzu eriotzea, eta buruz amilduko zara infernuko ondarretara. Barriz Errege guztien Erregek, geure Jesus maiteak opa (opetzietan) deustu orain arteko pekatu guztien parkaziñoa, direanak osoro bapere (arean) itxi bagarik, bear dan damuagaz konfesoreari belarrian esaten badeutsazuz, edo, esan daigun, orma bateri, ze guztiok dakigun egia arteza da konfesoreak ormeak baxen ixil gorde bear dituzala konfesiñoan entzuniko pekatuak. Gauza erraz ori egin gura badozu, kenduko deusuedaz, gaiskin zitelak infernuko urkamendirako idunean (zamaan) imini deusuedaz soka orreek. Baita ezta emen geratuten (lotuten) eskintza eder au, eze azaz osterantzean (ganeti) egingo zaituz gloriako yaun andi, baita emongo deu-



tsu zeruan, betiko iraungo deutsun koroe edergarria. Eta alanbere, konfesadu gura eztozuz zeure pekatuak. Baliteke au baxen zorakeria andia-gorik?

1. Zer da gero atzeratuten zaituzana ez konfesetako? Zek zaukaz orren itsurik? Nori deutzazu bildur? Ai aita! esango dau bear bada batek edo batek, bildurtu nintzan konfesetako uste nebalako eze, bearko zala Erromara yoan edo Inkisiziñora, absolutioa izateko. Entzun dot edonor bere, ezin konfesoareak absolbidu leikeala, ezta bulda santua izanda bere, herejiazko pekatua, eta neretxan eze, nik neunkazan pekatuak, erejiazkoak zireala= O diabruaren asmu zitalak, arimaak konfesiño osoa egiterik atzeratuteko! Zer da gero zeuk erejiazko pekatutzat daukazun ori? Abereren (ganaduren) bategaz eginiko pekatu loa? Ezta, ez, ori erejiazko pekatua, eta edozein konfesoarek absolbiduko zaituz alango pekatuak damu zoli onagaz konfesetan badozu. Erejiazko pekatua dago yakinen gallera, eta temaz legez ukatutean, edo sinisterik emon nai ez izatean fedeko artikulua, edo elexako egia yakin bateri. Baia burura etortea onen ganeko duda moduko begitaziñoak, eta pensamentuak, ezta ori pekatu, damu emoten badau alango tentaziñoak etortek, eta noberen guraz eta yakinen ganera leku emoten ezpaiake. Oi zeinbat bider egon direan asko ta asko konfesadu ezinik onelango pensamentu gogaikarri pekatu ez tirean bere, leen esan doguzan loikeriak ez eze, (begitandurik) buruak emonagaz beste bagarik, erejiazko pekatua egin ebeela. Baia dana dala, eztago Erromara edo Inkisiziñora bearrik, erejiazko pekatu benetakoa yausi izan baziña bere: konfesoarek artuko dituz (bere) bideak, zeuk zeure burua agertu bagarik absolutziñoa izateko. Ai balegoz arima bekatuari gorroto artu izan deutseenak, eta onduteko gogoan dagozanak, eta, ze pozik emongo geunskioen absolutziñoa pekatu anditzar ikaragarriak izan arren!

2. Bigarren engañua izan doa: yauna, bildurtu nintzan konfesoarek norbaiteri esango eutsala, edo arik aurrera arpegi iluna egingo eustala, eta nenkusan lekuan buruak emongo eutsazala nire pekatuak= A da zorakeria! Konfesoarek, iñori esan? Ezta erreko balebe bere. Konfesoarek, iñori agertu? Ezta zeuri bere zeure baiezkogaz ezpada (ez izanik), eta ori bere esan bearren bat danean. Ederto baten dirautsu san Agustin-ek: «zeen bildur zara pekatuak ez esateko? Konfesiñoti dakidana gitxiago dakit oraindo, iñondi bere ez dakidana baño». Ygkoak galarazo deusku konfesiñoan entzuna esaten; baia ain estu eze, ezta bageunki pekatutxu txiki bakar bat esanagaz infernuko guztiak andik urtenda zerurako izango litekezala, ezin orregaitik bere esan giñaike dan txikien txikiena bere. Bagenki pekatu

txiki ori ez esanagaitik geu il egingo gindukeezala, edo mundu guztia erre, galdu eta ondatu egingo litekeala, ezin esan giñaike orregaitik! Baita barriz ez tirudi ezpada ze Yaungoikoak onen ganean aparteko ardurea daukala. Konfesoare izan direan askori burura egin yake, eta esan dituez milla gauza igaro: baia ezta eguño bere ikusi, ezta onelangoak bere, konfesiñoako gauzarik aitatu izan dabeela: eta iñosko alditan okerren batzuk ezer aitatu izan badeutse, aserratu egin yake zoro ta guzti. Gura dozue entzun geiago? Bada ara. Zeuek dakizue eta eztago ez dakianik konfesoaren artean bere euren modukoak izaten direala: eta batzuk batetik, besteak bestetik, argalak legez, euren utsak, eta errakuntzaak izaten dituezala. Baia, zeinbat konfesoare ikusi dozuez konfesiñoan entzuna zabalduten? Izan dira sazerdoteen artean eregeak bere, konfesiñoaren kontra asko esan, eta asko eskribidu izan dabeenak: baia ez tira onek bere ibili konfesiñoan entzuna esaten, eta ez bildurrez, ez eskrupuluz, ezpada ze Jaungoikoak aparteko kontuagaz olangoak esatea bururik kendu izan deutseelako. Beste ainbeste esan bear da bekoki ilunaren ganean: ezin konfesoarek iñori bekoki ilunik egin leio konfesiñoan entzunakgaiti. Eta dana dala, ezta gauza zeuen atxakia ori. Zer daukazue konfesoare ez ezagun baten oñetan etxun, eta ari zeuen pekatuak bota baño?

3. Ai, yauna! Esan daroe batzuk, eztau iñok bere entzun nireak baxen pekatu ezainagorik, Ai esanda baneunkaz! Eta zelan onerik aurrera egingo neunkean bizitza on on bat. Osterantzeko guztiak esango neunkez: baia bi edo iru daukadaz guztiz lotsagarri eta ezainak.= Aror diabru gaiskinak askori buruan zer sartuten deutsen, pekatuak konfesadu eztagiezan, alan gero sakrilejioz beterik beragana infernura eroateko. Azpaldi da dollor au onango dollorkerietan dabilela; baita urteak dira San Yoan Kristostomo-k igarri eutsala. «Ygkoak, diño santu andi onek, Ygkoak pekatuari lotsea ezarri eutsan, eta penitenziari esperantzea: baia gaiskin zitalak okerretara iminten dau guztia, eta pekatuari esperantzea emoten deutso, konfesiñoari barriz lotsea». Pekatu egiteko lotsarik ez, eta gero konfesetako ainbeste lotsa: arimea loituteko lotsarik arean (bapere) ez; eta garbituteko lotsaari andia: pekatari egit-orduan etzeunkan lotsaren apurrik; orain barriz santu, ta ona egiteko lotsaz bete beterik zagoz. E! Zetarako dira buru-bagako lotsa orreek? Zeuri bere esan lekikezu antxina Sokrates filosofoak gazte bateri esan eutsana. Egoan au andrakume galdu baten etserik lotsa arren urten ezinik, eta esa' eutsan filosofoak: «Ez ene seme, ez lotsa izan urteten; sartuteko lotsea izan beartzenduan».

Baia goazan atxakia onei ate guztiak itxiten (ra) ezteigun itxi ezta dan irrikurik txikiena bere. Pekatu ikaragarriak dira diñozu, eta eztaukat



esateko arpegirik. Zer egin dozu bada? Esan birao erneguzkoak Ygkoaren kontra? Madarikatu izan dozu bere izen santua? Artu deutzazu gorroto andi bat Yesukristori? Poztu egintzara Yudeguak il ebeelako? Il egin dozu zeure arerioa, edo bateatubagako seña zeure pekatua estaldutearren? Zer egin dozu bada? Erabili ostikopean ostia konsagraduak? Ostu eleaxko kalizaak? Saldu egin deutzazu demoniñoari arimea zeure firmearren bean? = Ez orrenbeste bere esango deustazu. Eta alan balitz bere, zer daukagu orregaz? Ikaratuko ete gintekez orregaiti? Baia gitxi goiti beeti (gora beeran) erraz da igarten zeuk daukazuna. Izango da aren baten, edo zeure buruagaz eginiko loikeriak edo ganaduagazko (abereagazko) pekatua, edo txikerretako (txikitako) neba-arreben arteko edo mutil-neskato arteko zantarkeriak, edo andi eginda iñogaz izan dozun aragiazkoa, edo beste alangoren bat. Eta dana dala, ezta izango leen konfesoreak entzun edo irakurri izan eztaben gauzarik.

Eta esan egidazue, zegaiti edo zetarako ikaratuko da konfesorea? Konfessore ori, ete da zerurik yatzi dan aingeruren bat? Ezta Adan-en semea? Ezta pekataria? Bai kristiñauak, konfesorea dana dala pekataria da, dan santuena bere, eta yakinik egon bear dau eze zeuk lotsaz darabiltzuzan pekatu orretan, eta askoz bere andiagotan yausi leitekeala bera; bada eztau batek egiten, beste edozeinek egin ezin leikean pekatuak; eta egiten ezpadau, Ygkoari eskerrak gorde izan dabelako; eta besterik uste izatea da zorakeria garbia eta soberbia uts utsa. Bada konfesorea gizon pekataria bada, «zek lotsatuten zaituz, dirautsu San Agustin-ek, zeen lotza zara, pekataria, konfesetako zeu lango gizon bategaz, zeulango pekatu bategaz?». Ona-emen onen ganeko yazoera eder bat.

Ebilela san Luis Beltran misiño-ginan, eldu yakan bein baten konfesetara gizon bat ikaraz izerdi labana gorputzeti eriola, egon bear ebalako bera legezko pekatari batek alango santu andiaren oiñetan. Laster igarri eutsan santuak ak gizonak eukan ikarea, eta asi yakon berba bigunakaz pekatuak itanduten. Esaten eutsanean pekatu lotsagarriakoren bat, erantzuten eutsan santuak arpegi amodiozko bategaz: ederto zoaz; ea, aurre-ra. Gizon gaixoak biotza zabaldurik, esaten eutsazan artez artez guztiak, eta esanago eta argiago san Luis-en arpegia, pozezko negar anpullu-gozok bere begietarik eriozala. Ito bear eban negarrez gizon orrek bere pekatuen damuz eta azkenean esan eutsan: aita, bada beste pekatu guztiak bigun entzun deustaz, entzun bear deust orain ementxe bertan buruak emon bear izan deustan susma txarra, edo peko okerra. Ikusi dodanean berorren biguntasuna, buruak emon deust eze, ezjala izango berori diñoen baxen santua: berorrek bere nos edo noskoan egin izango dituzala

nireak legezko pekatuaren batzuk. Ganekoan, zelan artuko ninduan onen bigun? zelan agiraka itoko eninduan?

Ai, ene seme biotzekoa! esan eutsan santuak gitxi gora beerako berba oneekaz. Ygkoari eskerrak, eztoz nik iños egin alango gauzarik. Mundua ezagutu baño leen dei egin eustan errelijiñora, eta gorde izan nau Yaunak pekatu zantarretarik. Baia, zer gura dozu? Zeruko Aingeruak, ni baño askoz ta askoz garbiagoak, poztu egiten dira Jesukristo-k diñoanez (di) pekatari bat onduten danean, zelan bada ni poztuko ez nas ikusi ezkerro zelango damu ederragaz egin dozun zeure konfesiño jeneral oso osoa? zelan batuko eztozaz zeure negar-anpullu (malko)-ak, zeure biotzerik atera deutzuzan Ygkoari berari eskeintzeko (eskituteko)? Arimako mediku egin izan banau Yesukristo-k, zelan poztuko enaz zeu osaturik ikusita? Non euki nei nik alango bezkari gozorik? Ai neure seme biotzekoa! Iraun eikezu orain artu dozuzan gogo santuetan; eze salbetan bazara zu ta ni, biok kantaduko deutzuzan Yungoikoari alabantza eta esker ederrak; zeuk itxaron deutzulako penitentzia egin artean, eta nik nire belaunetara biraldu (agindu) zaituzalako, Kristoren pasiñoako frutu gozoa zeure arimaan erantzteko (iraasteko).

Kristiñaua, zeure urte askotako pekatuak esateko ikaraz, eta bildurrez igarorik zagozana, zegaiti etzoaz konfessore arima-zale on bategana? Bota alde batera bildurrok: egin bet betiko agur bat pekatuari eta pekatuaren bide ezagun guztiak, eta esan direan direanak artez artez, eta argiro argiro konfessoreari. Etxatzu ikaratuko orregaiti, ezta Yudas bera baño okerrago izan bazara bere, aurrerantzean, biziera barri bat egiteko asmukaz ikusten bazaituz. Uste al dozu eze konfessore zeure pekatuak entzunda burruka abiaduko yatzula, edo errieltan egingo deutzula? Uste al dozu eze, zeure pekatuak esanagaz konfessoreari atsakaba (atsapada) andiren bat emongo deutzazula, eta zeure kontra txakur eginik paraduko (dala) yatzula? Ez, ez, kristiñau maitea, ezta alangorik izango; eta orain artean orretan egon izan bazara, ezta ekitu ondo zer egiteko paretan dan konfesiñoan sazerdotea. Ez, ezkara yarten iñoren pekatuak-gaiti ikaratuteko ezpabere Ygkoagaz gizonen artean bakeak egiteko. Konfesoreak gara arimeen arraiñtzallaak; eta zelan arrañetan dabilen bat, zeinbat arraiñ andiagor artu, ainbat eta pozago egiten dan, alantxe geu bere zeinbat eta pekatari andiagoa, baia ondo prestaduta, yatorkun, ainbat eta argiago, eta zabalago egiten yaku biotza. Alan bada, egon bazara urte osoetan diabruaren agindupean, egin izan badozuz egin al leitekezan pekatuak lotsagarrienak eta ikaragarrienak bere, ezta orregaitik ezer: esan guztiak batxu bere gorde bagarik; direanak direala, eztera izango munduan leenago ikusi izan



eztireanak; eta balira bere konfesoareak guztia konponduko dau. Ez orretarako lotsarik izan, bada, san Agustin-ek diñoana, Adan-en seme-alabee-na da pekatu egitea, eta kristiñauena pekatu urtetea.

4. Oraindo asta gitxiago dauko beste askoren atxakiak. Ara zelango zorakeriak atzeratuten dituzan asko, pekatuak bear dan legez esateko. «Neu, esan daroe euren artean, neu beti bategaz egin noa. Pekatu txikiak, besterik ezteutsat konfesadu, eta, orain guztiak esango deutsadaz? Zer esango leuke nigaiti? Beste bategana banoa, Jgkoak daki buruak ari nigaitik zer emongo deutan». Ai ze zuur dabilen diabrua arimaak galduteko! Nok usteko leuke onelango umekeriak gaiti dabilzazala asko konfesiño okerrak egiten? Baia, zelan izango da, baabiltz-eta? Baia, atan zabiltzan kristiñau argala, esan egidazu, uste dozu eztagigula konfesoareak, asko baño geiago dabilzazala konfesiñoan pekatuak esan ezinik? Ete da ori urrunerik (asagorik) etorririko geuk eztagigun gauza barriren bat? Ez al dakigu zu ta guztiok Adan-en seme-alabaak pekatuan sortuak gareala, eta zeuk daukazuna eta geiago egiteko iñoren bearrik eztagigula? Zetarako dira bada sen-bagako bildur orreek? Ara bada, nik ondo dakit, eta ondo-yakinak legez esan gura deutsut: esaten badeutsazu garbiro zeure konzien zian daukazun guztia, onerik aurrera orain artean baño obeto begiratuko deutsu zeure arimaren onerako, zegaitik eze usteko dau eze, bene benetan zerua gura dozula, bada oraingño bere lotsaz itxi zenduana, berberari orain humil umil guztia agertu deutsazu. Ez eban San Agustin-ek orrenbeste bildur erabili bere pekatu lotsagarriak liburu baten eskribidu, eta guztien eskuetara zabalduko, eta gaur dan egunean bere gura dogunak antxe irakurten dogu bere gazte zoratzen zelango neska-zalea izan zan, zeinbategaz ibili zan, zelan bateganik ixilkumetxu bat izan eban, eta osterantzeko bere okerreriak. O santu andia! zeu zara burubagako lotsoor oneen lotsagarria; bada oneek lotsa badira konfesoareari pekatuak belarrian ixil ixilik esaten, zeuk, zeure burua umildutearren, mundu guztiari iragarri deutsazuz zeure oker-egin guztiak. Eta, zer galdu eban san Agustin-ek ori eginagaz? Ezer (arean) ez: bada orregaz eta beste gauza on askogaz egin eban bere pekatu andien penitentzia; lotsaak yoantzirean, eta orain dago zeruan Jaungoikoa ikusten.

Baia daigun aurra gura badozu, ezer galduten dozula. Zein da oba, edo bategazko galdutea, edo askogazko? Baten aurrean ala askoren aurrean da errazago pekatuak esatea? Edo ixilik eukiko dabenari esatea, edo mundu guztiari esatea? Zoroak bere bakie lotsagarri gitxiago dala lagun ixil bateri esatea, askori esatea baño. Bada bitarik batek izan bearko dau. Orain bateri zeure borondatez agertu gura ezpadeutsazu zeure peka-

tua, gero bapere onik atera bagarik asko eta askoren aurrean esan bearko dozu: zeure esker gaistoan, eta damu gogorrean mundu guztiaren begietan agertu bearko dozu, eta guztiak yakin bearko dabe zelango gaistoa izantzarean. Barriz orain konfesetan badozu, iñok yakingo eztau, zeure lotsagarriako beintzat, esaten dan arteko lotsa apurra beingoan yoango yatzu, eta orregaz izango dozu pekatu orren parkaziñoa. Ea bada zeineri ondoen deritxazun.

Atzeratu eta gorde gura dozu? Bada ara zer dirautsun San Yoan Kristostomo-k. «Ez eutsan Yaungoikoak Dabid erregeari bakarrik esan, eta bai zeuri, eta zeu langoai onako ikaragarriko berba au: *zeuk ezkutuan egin izan dozuz gaistakeria orreek*, eta ostu gura izan dozuz: baia ez, eztozu zeureagaz urtengo. *Nik, nik aterako deutsudaz mundu guztiaren begietara, eguzki argitara urten bearko dabe guztiak*». Zeuk okeluetan (zokondoetan, ostenderetan) zeure kabutan (ezean) egin zenduan (ukiera) eskuka loa: eztozu konfesadu gura izan: baia nik zabalduko deutsut mundu guztiaren begietan, zeu basterretan, sabaletan, gela bakarretan ostenduten (ezkutetan) zinean zeure lagun txarragaz pekatu egiteko: eztozu konfesadu nai izan: bada nik agirian iminiko dodaz zeure loikeria guztiak munduaren aurrean... Zeuk gau utsez, iñok etzenkusala egin zenduan lapurreria; ostu zenduan iñoren artoa, garia, etc.: gauzea: eztozu konfesadu gura izan: baia nik aterako deutsut mundu guztiaren begietara. Zeuk zeure adiskideak baño ez ekizula artu zenduan zeuk dakizu zer: egin zenduzan alegin guztiak pekatutiko seña galduteko: ito (ireto) egin zenduan ume yaio-barria zeure pekatua agertu ez zedin: eztozu konfesadu nai izan: bada nik zabal zabal egingo deutsut mundu guztiaren aurrean. Mundu guztiak yakin bearko dau nor izan zarean, nogaz batzanduten (lagunduten) zinean, zer egiten zenduan; itxozu, itxozu, elduko da yudizioko eguna, eta direanak agertu bearko dabe mundu guztiaren begietan. Baita ganora-bagako lotsoorra, ain lotsa bazara orain konfesoare bateri, pekatari bateri belarrian ixi ixilik esaten, yakinda bere iñori ak ezin esan leikiola, zelango lotsea izango eztozu azkenengo egun itzal ikaragarri atan, agirian zabal zabal imini ditezanean zeure guraso, neba-arreba, seme-alaba, adiskide, auzo, eta erriko eta kanpoko guztien aurrean?

Onek entzun da baakit nik zer esaten dozun zeure artean. Nonbait diñozu, ilgo ez al naz konfesadu bagarik. Etorriko da geure errira misiño aldi barri bat; izango dot nos edo nos konfesoare ez ezagun bat, eta dere txat eze, ari erraz esango deutsedazala. Baia diabruaren asmuak dira orreek bere, eta ez txiker txikerrak. Ea ezpabere, nondik dakizu zeuk itxarongo deutsula Ygkoak arik-eta misiño barri bat etorri artean? Baaukazu



egun segururik mundu onetan? Bai barriz, Ygkoak zeuri bizitzea luzatuteko alazoko (alagalako) bideak dozuz konfesiño eta komuniño deungoak. Baia ondo, datorrela misaiño-aldi barri ori, edo konfessore ez ezagun ori, eta orduan, konfesaduko dozuz zeure pekatu guztiak batxu bere itxi bagarik? Eztatuz artuko ikara barri batek, zeinek ito arazoko deusun biotzean zeure pekatua? Ai, kristiñau eroa, diabrua itsututa zaukazana! Zeri adi (begira) zagoz? Ezin agertu dozula orain, diñozu, eta gero bai? Gero errazago izango ete da pekatu geiagogaz arimea kargadu ezker? Ara bada zer yazoko yatzun: konfesiño-komuniño okerrakaz gogortuko yatzu biotza, geiagotuko yatzu lotsea, diabruak indar, eta nagusitasun geiago artuko dau, beteko dozu zeure pekatuen neurria, ezteutsuz Ygkoak emongo lengo kisketadak, eta deiak, eta...? eta yoango zera Luzifer infernuko konfessorearen oiñetara konfesiño oso oso bat egitera; eta an, nire kontu, eztozu, ez, batxu bere itxiko (ostuko), eta gero ak emongo deustu betiko izango dozun penitentzia.

Bai kristiñaua, eztago emen erremediorik; edo galdu zori-gogorreko lotsa ori, edo artez artez infernura. Eztago onen bien arteko bitartekorik, eztago urten-biderik. Orain, dirautsu san Agustin-ek, orain erraz erraz dozu salbetea, konfesiño on bat eginda: baia au egin ezik (egiten eztozula) betiko galdua zara. Alper alperrik nekatuko dozu zeure burua urte guztian ur ta ogi barau egin ezinik: alperrik emongo deusazuz pobrei zeure ondasunak; alperrik egingo dozuz san Pedro Alkantarakoak baño bere penitentzia eta nekegarri andiakoak. Konfesetan ezpadozu pekatu gordea, oneek guztiok eginda bere, betiko infernu bat izango dozu. Orduan damuko dozu, orduan negar ta negar egingo dozu, baia ondo alperrik. Ea bada Kristiñaua, onetarik zein gura dozu? zein aututen dozu? zeinetara eskua luzatuten dozu? Opa deusazu zeure arimeari betiko zerua, ala betiko infernua? Oraindo bere, atzera zagoz? Eztaukazu ainbat lasterren konfesiño oso bat egiteko asmurik? Baietz deretxat diñozula zeure artean. Bada badaukazu arin(karra) laster konfessoreagana ez ebili gaurrik biarre-rako kontuakaz. Eta lotsea kenduteko nik emongo deusut bide on bat. Zoaz konfessore topadu al dozun onenagana, eta asi ta bertatik esango deusazu: Yauna, bada nik lotsa andia emoten deusten pekatu iños konfesadu bagakoak daukadaz. Lagundu bear deust berorre guztiak esaten. Au entzunda berak biotza zabalduko deustu berba bigunakaz. Eta gero asi zaitetz esaten lotsa geiago emoten deusuetatik, (ze ameneko) bada bear bada, geroago esateko itxiten badozu, yazo lekikezu beste askori yazo yakana, esan bagarik itxitea. Ona emen onen ganeko yazokuntza askotan pulpituatarik esan dana askoren onerako.

Egoan erri baten andra bat, urte osoetan bere pekatuak agertu ezinik, konfessore ez ezagun bateri gero esateko usteaz. Bitartean eroian bizitza larri-estua yanak bere onik egiten ez eutsala. !Ai, esanda banekaz! Ai baletor ona nik ez dazaudan, eta ni ez nazauan konfessore yakintsu bat! Ar-or bada non usterik gitxien ebanean elduten direan erri atara igaropidez san Franzisko-ko ordeako misionista bi. Argitu yakan orregaz biotza andra gaixoari, eta yoantzan biaramon goxean elexara itzaroteko erlijioso bi-aen arteko batari. Etorri zirean oneek meza emotera, eta bategana eldurik esan eutsan: aita, mesede egin begit konfesetea. Bai, pozik bere, erantzun eutsan, eta sartu zan konfesonarioan. Asi eban andreak konfesiñoa; bitartean egoan misionista laguna elexako baster baten oraziño egiten. Eta Ygkoak erakutsi eutsan zer yazoten zan andra gaixo orregaz, urrengo ikusgarri itzal onegaz: Ikusten eban misionista onek zelan zapo erreskada andi batek urtete'eban elexarik kanpora. Zirri batek emoten deutso beingoan: Jesus! diño, zer da au? Nondi nora datoz zapo zantar oneek? Boa, boa begira ea nondik etozan, eta ikusten dau konfesetan egoan andraren aotik urten dabeela zapo guztiak. Ikusten dau geiago: ikusten dau mortal (zapo) tzar ikaragarri bat dagoala andraren samaan (eztarrian) urten gurarik eta urten ezinik: Zetan lotuko (geldituko) ete da gauza au? Baia bere biotzeko damurik andienagaz ikusten dau zelan mortal tzar ori atzera guztia sartu zan, eta aren atzean elexarik kanpora urten eban zapo erreskada guztia. Konfesiñoa amaitu (azkendu) zan nos edo bein: meza emon misionista biak eta euren bidean yoazala esan eutsan lagunari zer ikusi eban. Laster biotzak emo'eutsen zer izan leitekean, eta aren arimea galdu etzidin bildurrez alkarrerri esan eutseen goazan atzera ea topau al baginai andra ori.

Batoz elexara: bai ordurako yoan yakan elexarik andrea. Goazan bere etsera. Boaz etsera; baia, ai! eta, ze ikaragarria dan Ygkoa bere gauzeetan! Ya ordurako andra orrek kontu emo'eutsan Ygkoari. Gogortu (arritu) zirean danak, eta gogortu bere egin bear ikusi ebeenagaz eta ikusten ebeenagaz. Yarri (parau) zirean andra gaixo aren arimea gaiti oraziño egiten, eta atan egozala (zinarduela) orra non aurrean paretan (iminten) yakan arima ori. Baia, zelan parau? Sua ta garra alde guztietatik eriola, eta suga tzar bildurgarri batek sustarragaz (eztenagaz) biotza apurtuten eutsala. Konorte guztia yoan yakan ori ikusita (orrenbeste ikusita) baia andreak berak biotz puska bat emon eutseen zirautseela: «Ygkoaren ministroak, animau zaitetze entzuteko nik esango deusuedana. Yakin egizue bada, zelan ni egon nazan urte askotan gauza dan konfesiño artezik egin bagarik, lotsaz atzeratuten izan dodazalako pekatu batzuk, eta euren



artean bat besteak baño lotsagarriago neritxona. Ygkoak bitarte orretan berein bider biotza yo deust, gogora dakardala zelan nagoan deungaro, eta konfesetako, eta konfesetako, eta konfesetako. Baia deabruak engañetan izan nau sinistu eraginik etorriko zala nos edo nos kanpoko konfeso-re ez ezagun bat, eta alango bateri esatea zala txito erraza. Gero ta gero bere Ygkoak ekarri zinduezan zeuek, atxakiarik izan ze nengiantzat. Asi nintzan konfesetan, esan nituzan batez ganeko guztiak: eta bera bere esateko abiau nintzan, baia ikara andi bat sarturik, itxi neban esan bagarik. Pekatu axek berak biotza apurtuten (zatituten) deust sugatzen onen irudian. Galdua naz betiko; ez nigaiti oraziñorik esan: predikadu egizue erri-rik erri nigaz zer igaro dan, besteen bildurgarrirako.

Orra, neure kristiñauak, zelango azken deungea izan daroen lotsaz pekatuak konfesadu bagarik darabildeezanak. Uste eban andra zori gais-toko orrek eze, gero guztiak konfesaduko zituzala, eta alan salbaduko zala: baia alangorik egin bagarik dago, eta egongo da betiko infernuko gar artean, erretan, eta kiskalduten, Ygkoa Ygko dan arte guztian arik urten bagarik. Begira bada, kristiñaua zeuri bere beste orrenbeste yazo ez dakizun, zeure zori-gogorra leen baño leen urrengo konfesa-aldian konfese-tan ezpadozuz! Bear bada urrengo konfesiñoaren begira dago Ygkoa, zeuri guztien kastigua emoteko. Bear bada gaurko arratsalde onetan entzun dozuzan Ygkoaren deiak izango dozuz Yaun orren atzerengo deiaak. Gaztea edo osasun onekoa zarealako, uste al dozu eze orain itxi arren gero go konfesaduko dozuzala? Eta geroago ori ezaletorkizu? Eztozu ikusten zelan asko ta asko gazteak eta osasun onekoak izan da bere, nos gitxien uste dabeen ilten direan, konfesetako leku bagarik? Baakizu gero zeu onenbesteen begira bazagoz? Baakizu astia izan arren erarik izango dozunez? Bakizu astia ta ere izan arren, egin gurako dozunez? Ez ezelanbere, eztakizu ezer, itsu itsuan bizi zara, zer etorriko yatzun eztakizula. Eta orregaiti bere, ezteutsezu itxiko geroko kontuai? Arren bada, kristiñaua, etzaitez ain biotz gogorrekoa zeure buruagaz izan: galdu egizu bein edo bein zeure lotsa galtzaigarri ori. Orain dozu astia; orain dozu ere zeure konzienzia pekatuz beteriko ori garbituteko, manea zaitetz bada, betiko atzerakuntza gogaikarri orreek ordu gaistoan botata. Ygkoa deiez yagotzu pekatuen parkaziñoa opaka.

Orretarako ezteutsu esaten mendi bakarretara. penitentzia-giñan yoa-teko: ez mundurik mundu galdurik ibilteko, ez penitentzia ikaragarriakaz zeure burua galduteko, ezta bere zeure pekatuak mundu bete lagunuen aurrean deadarrez esateko. Ezteutsu besterik eskatuten ezpada pekatu orreek, bear dan biotzeko damuari onagaz, ixilik gordeko deutsun, eta

zeuk naien dozun konfesoari belarrian esateko. Zeri begira (adi) zagoz olango ezer-ezkeria ez egiteko? Ez, ez; eztogu luzamen geiago bear. Orain, oraintxe emen emon bear deutsazu Yesukristo-ri ori leen bait leen egiteko berbea.

Entzun san Antonino Florenzia-koak dakarren yazoera bildurgarri au. Dama ondo yaio batek egin eban bere buruagaz eta bere bakarrian eskuagazko zantarkeria loi bear etzan bat. Eginda laster sartu yakon egin ebalako damu gogorra, zegaitik eze etzan bera beste asko legezkoa, bein, birritan, eta askotan eginda bere, euren bake onean bizi direanak. Txikitututen (galdu bear) eban negarrez bere burua. Ai ene! zirautsan konzienziak ixiltzaka; pekatu mortalean zagoz; ilten bazara kondenaduko zara. Zoaz konfeso-re bategana, eta agertu eikiozu egin dozuna, ezer estari bagarik: bada edo konfesau, edo kondenau. Diabruak esesten eutsan besteti; eta, zelan leen orretan ain garbia izanik, esango deutsazu konfeso-reari gauza ain ezaina? Zer esango deutsu? Itxi egiozu beste era obeago baterako. Alan bada konfesau eta komulgetan zan ezer aitatu bagarik, geroago ta larriago egitentzala.

Buruak emo'utsan eze, bere pekatuaren parkaziñoa izateko esateko bear bagarik, monya sartu bear ebal, eta alantxe egin eban. Ez egoan konbentu guztian bat bera baxen penitenteagorik ez oraziño zaleagorik. Baia sagitea biotzean atera bagarik eta beti ta beti min emot'eutsala. Ygkoak oraziñoeko egon aldietan emoten eutsazan argitasun andiak, eta dei gozoak. Ai, gaixoa, esaten eutsan bere biotz barruan, zetarako dozuz zeure penitentzia guztiak zeure pekatua konfesadu bagarik badaukazu? Alperrean zabiltz lotsaak botata esaten ezpadozu. Baia bildurrak lotuten eban ez agertuteko, eta aurrera eroazan penitentiakaz batera bere konfesiño komuniño okerrak. Alango baten egin eben konbentuko buru edo abadesa eta leen gatxa beeban bere zantarkeria konfesetan, orduan askoz bere gatxago egin yakan. Orrenbeste pekatugaz ibilian ibilian bete eban pekatuen neurria. Eldu yakon atzenengo gatxa orduan bere bere biotzak, edo bear bada bere Aingeruak, edo bitzuok estututen eben konfesetako ta konfesetako. Dei egin eutsan konfesoari, eta bildurrak erasota esan eutsan berba au: Yauna bada nik eskrupulu bat daukat. Baia zelan konfeso-reak eukan santatzat esan eutsan: ai! orreek diabruaren tentaziñoak dira eta etxaramon: bota biar dira eskrupuluak. Alan geiago esan bagarik komulgadu, oleaziño santua artu eta iltzan, konbentuko guztiak negarrez egozala alango abadesa santa bat (il yakeelako) galdu bear ebeelako.

Iltzan gau atan, egoan bakarrik koruan monya santa bat bere abadesaren arimea enkomendetan. Eta orra non lanparako argian ikusten



daben keriza baltz ikaragarri bat. Igaro zan dana buruti beatzetara; baia Yaungoikoaren graziak sendotuta itandu eutsan: zer bear dozu? Ai ene! erantzun eutsan etxura baltzak; neu naz zeuen abadesea, gaur il eta infernuan nagoana: ez nigaitik oraziñorik egin: Yaunaren yustiziak errazoe andiagaz kondenadu nau, sarri, bizi nintzanean abisadu eustalako konfesetako, gaztetxua nintzala, eta konbentuan sartu baño leen neure buruagaz egin neban zantarkeria. Alperrak izan dodaz nire penitentzia eta oraziño luzeak. Santa andi bat izan nintekean pekatua egin barritan konfesadu izan baneu, nik gero egin dodazan gauza on guztiakaz. Baia galdua nas, galdua betiko neure onrea neure arimea baño geiagoan euki nebalako. O ejenplu arrigarria, arriak bigunduteko asko dana! Pekatu bakar batek galarazo bearra ain beste penitentzia, ainbeste oraziño, eta ainbeste gauz'on!

11. [KONFESIÑO JENERALA]

(J, 39-45. or.)

Recogitabo tibi omnes annos meos
in amaritudine animae meae.

Isaia c.38.

Gogora ekarriko deusudaz neure bizi guztiko
urteak nire arimako damurik andienaz.

Gaurko arratsalde onetan, neure entzula biotzekoak, egin bear deusuet Konfesiño jeneralaren ganeko doktrinea Misiño denporan egin oi diranetarik onena eta mesedegarriena. Misiño Santuak egin oi dira pekatari gaixoak onduteko, bide gaistoetatik edo bildurrezkoetatik dabiltzazanak bide ziurrera eta artezera ekarteko, eta Kristiñau epelak Jgkoaren amodioan berotuteko. Baita onetarako batzuk egin bear dabe Konfesiño jenerala, eta beste batzuentzat ondo da Konfesiño ori egitea. Bai, bada Konfesiño jeneral ondo eginak zuzenduten dituz ordura arteko Konfesiño gaistoetako okerrak, ateraten dituz arimako kezak eta arantzak, kenduten dituz onerako epeltasunak eta nagiak, eta dakar gure arimeetara guztizko bake gozo bat.

Zer dala uste dozue gero Konfesiño jeneral o? Da bada leen banaz banaan egin zirean konfesiñoak ostera guztiak erabatera egitea eta barrieztetea, esaten yakazala aldebatara konfesoreari, leen konfesa aldi askotan konfesau eta esan zirean pekatuak, baita leen konfesaurik eztagozanak bere. Konfesiño jenerala ezta guztientzat bardin datorrena. Batzuentzat Konfesiño jenerala egitea da guztiz kaltegarria, beste batzuei Konfesiño jeneral ori egiteak mesede andia egiten deutse, beste batzuk berriz gura ta gur'ez egin bear dabe zerurako izango badira. Dakusgun orain nortzuentzat dan kaltegarria, nortzuentzat mesedegarria, eta nortzuentzat bear bearrezkoa.

I. Da kaltegarria Konfesiño jenerala benetako eskrupulosoentzat, edo arima bildurtiegientzat. Leen, euren aleginez, ondo eginik badauke, eta ori egin ezkeru bizimodu ona badaroe, onetariko asko larregi estutu oi dira: aztu oi yoakez zeintzuk konfesau zituezan: larrituten dira, eta barriro esan gura leukez; eta esan arren Konfesoreak lengoai bake bakean itxiteko, barriro eta barriro yoakez lengo gauzakaz burua austen. Ai ene! esan daroe euren artean, zetarako da Konfesoreak lengoai ez eragiteko agin-



dutea, ak nire biotzeko barri ezpadaki? Aren esana ta guzti infernura yoan bearco dot. Onelango zorakeriakaz galduten dabe Jgkoaren gauzetarako gogo guztia. Baia esan egidazu zareana zareala: zuk Konfesiño jenerala egin zenduanean, etzenduzan esan gogoan zeunkazan pekatu mortal guztiak? = Bai Jauna, baita geiago izan balira bere, direanak esango nituzan. = Eta arrezkero, eztozu alegina egin lengo ekandu txarretara biurtu ez eiteko? = Bai, Jauna. = Bada zagoz geldi, eta egizu itsu itsuan Konfeso- rearen esana. Osterantzean bein bere eztozu biotzean bake onik izango.

Baña kontu Kristiñauak, leen esan deusuet; eta barriro ta barriro esan bear deusuet nik berba egiten dodala benetako eskrupulosakgaiti: bada badira eskrupulosoa dirudienak eta benetan eskrupuloso ez tirea- nak bere. Onetarikoak egin izango dabe bear bada bein baño geiagotan Konfesiño jenerala; baia lotsaz itxi izango dabe pekaturen bat edo beste esan bagarik. Estututen dituz gero euren biotzak, eta beti dabiltz bildur- pean; eta alango larri-aldi batzuetan baioakez Konfesoari euren bildur- rak adierazotera eta iragartera; baia baioakez erdi berbakaz, bein bere ondo agertu bagarik kolko barruan gordeta darabilden pekatura. Onelan- goen bildurrak eztira eskrupuloak ez burubako bildurrak, ezpada Jgkoak biralduten deutseezan argialdiak ta bildurtasunak; eta eztabe bake onik izango arik eta euren pekatu lotsaz ixilduak osoz oso esan artean. Orre- gaiti Konfesoaren esanera egoteko zuzen esan bear yako biotzean dagoan guztia, bere itaunetara garbiro erantzuten yakala.

Da guztiz mesede andikoa Konfesiño jenerala Kristiñau asko ta askorentzat. Lelengo iños leenago egin eztabenentzat, baita neure ere- txian eskrupulosoentzat bere oneek leen egin ezpadabe, eta au izan leite- ke bildur guztietarik urteteko bidea, Konfesoare yakitun baten oñetara badoaz. Eztago iñor zuzen yakin leikeanik ume egunetako edo zortzi urteti amabostera arteko konfesiñoetan utsik egin eztabela. Zelan preste- tan da esamina eginaz? damua ta propositu artuanaz [sic] egun zoro aetan? Nor baketuko da bada denpora atako konfesiñoakaz?

II. Da bere txito mesedegarria ta ona ezkonduera doazanentzat, alan arimak garbi garbi eginda, emon deioezan Jgkoak, bear dituezan gra- zia ta laguntasunak, ezkontzeak dakazan obligaziñoai erantzuteko, nekeak pazienziatan eroateko ta lagunagaz bake ona egiteko. Ozta ozta izango da Frailerik ez Monyarik, edo habitua sartuteko [sic] edo profese- tako Konfesiño jenerala egin eztabenik leen eginda izan arren bere. Alan bada egin bear leuke ezkonduen direanak bere, bada askok uste ezpadau bere, ezkontzeak aginduten dituzan egin-bearrak eztira Erljiosenak [sic] baño laburrak. Baia, zer diñot nik? Zeinbateg eta zeinbateg ezkondu-

tera doazanen artean izango dabe Konfesiño jeneralaren premiña ta egin bear osoa euren gazte denporako zantarkeriakgaiti, eta bear bada ezkon- tzako berbea emon ezkeru egin izango dituezalako ezkonduen gauzak, gero alear erremediauko direalako atxakiagaz? Ai! Gitxi ta gitxi sartu oi dira garbiro ezkontzako Sakramentu santua artzera.

Da bere guztiz mesede andikoa ezkondu askoentzat bizi izan badira euren lagunak bake txarrean, bear bada matrimonioko gauzetan bear danean lagundu gura bagarik, edo euren seme-alabai bear dan konturik artu ezpadute, galarazoten ez deutseela dantzetara, fiestetara, bigiretara, eta neska-mutlen arteko batzarretara yoatea. Izango da mesedegarria Konfesiño jenerala auziak eta demanduak izan dituenentzat, euren ustez garbiro eta gauza okerrik egin bagarik ebili badira bere, bada auzitan ibili ta pekaturik ez egitea Santu andientzat baño ezta (andiak bere nekez egi- ten dabeen gauzea da), diño S. Franzisko Sales-ek. Izango da bere mese- degarria Jgkoaren bideetan, eta serbizioan leen baño beroago ibilteko gogoak artu dituezanentzat, Konfesiño jeneralagaz, lengo nagitasunak eta epeltasunak galduteko. Eta azkenean berba baten asko artuteko, ondo da Konfesiño jenerala egitea leen bere bizian egin eztabeenak, baita irurogei eta irurogeta amar urtekoak (urte egin dabeenak) badira bere, eta nire ustean eskrupulosoa bere, leenago egin ezpadabe; eta au izan leite bildur guztietati urteteko biderik onena, Konfesoare yakitun baten oñetara bado- az. Eztago iñor seguru yakin leikeanik bere ume egunetako edo zortzi urterik amabosterako konfesiñoetan utsik egin eztabela. Zelan prestau oi da egun zoro aetan esamina eginagaz? Zelango damua ta propositua eroan doa konfesiñoara? Nor bada baketuko da denpora atako konfesiño- akaz?

III. Entzun dozue noentzako dan kaltegarri Konfesiño jenerala, eta noentzako dan mesedegarri. Orain entzun bear dozue nortzuk egin bear dabeen gura ta gur'ez Konfesiño jenerala. Auxe da doktrina onek daukan gauzarik onena eta alan orain zuur egon beartzare, bada nonbait zuen arteko asko artuko dituz orain esango dodanak, eta nire eretxian askoren onerako. Zuek dakizue ondo Konfesiño on bat egiteko bost gauza bear direala: lelengo, esaminea; bigarren, damua; irugarren, propositua; lauga- rren, Konfesoari egin direan pekatu mortal guztiak esatea; eta bostka- rren, Konfesoare egin emon daben penitencia egitea. Bada onetariko baten edo baten uts egin dabeenak egin bear dabe Konfesiño jenerala. Dakus- guzan onek gauzok astiro astiro.

Lelengo lelengo egin bear dabe Konfesiño jenerala euren Konfe- siñoetarako bear dan esaminarik egin eztabeenak. Eta zeinbat onetariko



etorri yoakuz egunean egunean gure belaunetara? Zeinbat esaminaren apurrik bere egin eztabeenak? Zeinbat esaminea azaleti ta iraitzean baño egin eztabeenak? Zelango esaminea egin oi dabe urte guztian konfesau bagarik egon oi direan askok edo geienak? Bada, Kristiñauak, batek bere erruz, esamifnearen faltaz, eta aleginak ez eginagaitik pekatuak bear dan legez burura ekarteko, itxiten badau esan bagarik pekatu mortalen bat, egiten dau konfesiño deungea, eta pekatu mortal barri bat, eta konfesiño deunga ori zuzenduteko egin bear dau Konfesiño jenerala.

2.3. Baia Konfesiño gaisto geiago egiten dira benetako damua eroaten eztalako. Ona emen nos alde onetati izan oi dan gaiztoa Konfesiñoa. Batek, osterantzako pekatu mortal guztiai gorroto izan arren, bateri edo bateri ondo eresten badeutso, eta aren ganean damurik artuten ezpadau, Konfesiño okerra egiten dau, eztaukalako bear dan legezko damurik, eta alan eginiko Konfesiño guztiak barriztau bear dituz Konfesiño jeneral bat eginda. Bada asko dira Kristiñauen artean au egiten dabeenak. Nik orain esango deusuedaz onetariko batzuk.

Baita ain asko badira bere, niri deritxat eze bitara datozala guztiak, eta oneek dira pekatuak mesede artuten dabeenak, eta onduteko propositurik eztaukeenak. Lelengo bada Konfesiño jenerala egin bearra izaten dabe pekatuak mesede izan dabeenak, edo izango dabeela uste dabeenak, bada onetariko geienak damu bagarik konfesau doaz. Alan bada Konfesiño jenerala egin bear izaten dabe ezkontzako esperantzeagaz pekatu egin eben neskatillak, ezkontzako urte orreek luzaro iraun badabe. Baita onetariko askok ezkontzeak ondo urten badeutse, eztaroe ezkontzaurreko pekatuen damu andirik artu, bada askotan ikusten dogun gauzea da, onelango pekatuen ganean itanduten yakenean otz otzik erantzun daroe: egin genduan, baia arkal erremediau genduan. Erremediau arren pekatu egin pekatu, ori parkatuko bada damu ona ta andia bear da. Orregaiti bada onelangoak aleginak egin bear dituez damu ori artuteko eta Konfesiño jeneral on bat egiteko.

Konfesiño jenerala egin bear izaten dabe guraso askok, zeintzuk euren umeak ezkondu ditezan amurruagaz, aginduten dituez fiestetara, zelaietara, bigiretara, dantza nastuetara, eta alango mutil-neskatillen batzarreetara. Onelango gurasoak euren umeai pekatu egiteko bideak emoten deutseez eta alde orretati euren lepo ganean dituez gazteak egiten dituezan, eta egin leikezan pekatuak, zeintzuen ganean bear bada bere bizian eztabe damurik artu izango, entzun arren ori ezin egin leikeala. Eta ara geiago egin bearko dabe Konfesiño jenerala gurasoak, euren umeak urlriagaz edo urlinaigaz ezkontzea egitera etorri daitezentzat, edo

egin ezkeroko galdu ez daitentzat, itxi oi deutseenak semeari neskatillearen etsera yoaten, edo besteko mutilari eurenear sartuten: bada orrek iraun daben arteko Konfesiñoak eta bear bada arrezkerokoak, deungaak izango zirean.

Konfesiño jenerala egin bear dabe prest egoten izan direanak (edo prest dagozanak) irabazi bidebakoak egiteko; zelangoak direan arako merkatarari, dendera eta tratulari atera al daben guztia ateraten dabeenak, begiratu bagarik zer dan lege eroatea; edo tratu okerrak egin, neurrian edo pisuan labur emon, edo txarra onagaz ta bastua fiñagaz nastautu, iñoen lepoti aberaztuten direanak. Konfesiño jenerala egin bear dabe lapurrak; eta ez bakarrik lapurtotzar andiak bideetara urtetan dakienak, edo zaldiak, beiak, diru moltzo andiak ostu oi dituezanak, baita bere litxurrerietan dabiltzazanak emen artaburu batzuk ostu, an gari puska bat, bestean kabilta batzuk; edo bikuntzako lagunari orain abiko arrautzak, gero ollo bat eta alan. Egin bear dabe amarren-primizai bear dan baxen gitxiago emon oi deutseenak. Konfesiño jenerala egin bear dabe gauza ostuak biurtu al leikeezala biurtu bagarik daukeezanak, edo amarrenai atzeratua amarrentzalleai emon bagarik, edo zor egiazkoai bear dan legez erantzuten ezteutseenak. Konfesiño jenerala egin bear dabe testamentario eta herederu askok, dirua arima fielak baño maiteago dabeela bizi direanak, urte osoetan ilak itxi zituezan zorrak pagau bagarik eta mezaak atera bagarik beti luzatu ta luzatu arima gaixoen kaltean.

Onen ostean (ondoren) datoz propositu on bagarik konfesau direanak. Onduteko gogo bagarik eztago damu onik, eta pekatuak parketako asko danik, eta alan eginiko Konfesiñoa barriztetako Konfesiño jenerala egin bear da. Baña, nortzuk dira onduteko gogo bagarik konfesetan direanak? Guztiak konfesetara datozanean esan daroe eurak onduteko asma badabeela, baia ez guztiak ezeze ezta gitxiagok bere eztaroe asmu ori izaten. Ara nondi igarten yakeen. Orreek konfesau ezkeroko (aleginak egiten badituez onduteko) zeatz ta ardura onagaz egiten badituez konfesoarek orretarako emon deutseezan penitenziak eta aginduak, alde egiten bada-be lengo bide txarreerati, lengo lagun deungeerati, eta aleginak egiten badituez barriro ez yausteko propositu ona. Baia alan egin bearrean, yamonik egiten ezpadabe, badabiltz lengo bideerati, lengo lagun txarrakaz, eztauke benetako propositurik. Eta alan egin oi dabeenak bitara datoz. Lelengo propositurik izan eztaroe eta orregaiti Konfesiño jenerala egin bear izaten dabe, zetan edo atan pekatu mortala egiteko ekandua daukeanak edo leen izan dabeenak.



Alan Konfesiño jenerala egin bear dabe pitian pitian guzurragaz juramentu egiteko ekandua daukeenak. Jaiegun oso santuetan euren maña gaiztoz bear eragotzi luzeak egiteko ekandu txarra daukeenak. Konfesiño jenerala egin bear dabe gurasoi lotsa txarra artuten dakien umeak euren erremuxkadakaz, purrustadakaz, atzera erantzuteakaz, muxingakaz gurasoen biotzak beti minberaturik eta damuz beterik darabildezala. Konfesiño jenerala egin bear dabe gurasoak umeai edo umeen aurrean birao egiteko izkune dongea dabeenak; aginduten dituezanak zelaietara, hermita bazterretara, bigiretara, eta neska-mutilen arteko batzarreetera (fiestetara); eurakaz batera anditxu eginda eratzoten dituezanak; edo mutil-neskatxixuak alkarregaz nastean; doktrinea irakasten ezteutseenak; itxiten deutesenak ezkontzea egin ezkerro, edo egitera etorri daitentzat semeari neskatillearen etsera yoaten edo besteko mutilan eurenera etorten; edo gazte biak nondi-gura ebiltan.

Konfesiño jenerala egin bear dabe arkalen artean bake txarra egin dabeen ezkonduak, bear dan orduetan matrimonioko gauzetan lagundu gura bagarik; edo euren buruti arkalganik alde eginda bizi-alargun azpaldian egiten dabeenak. Egin bear dabe iñogaz gorrotoan azpaldi onetan bizi izan direanak, bestea begiz bere ikusi ezin dabeela; ordiak; luna, karea, ikatza, edo kalte egingo deutesen besteren bat yaten edo edaten izan dabeenak. Eta seigarrenekoen ganean, zer esango dot? Emen bai datorrela Konfesiño jenerala egin bear dabeenen erreskadea! Emen datoz bestegaz adiskidetasun deungea izan dabeenak; emen berba nasaiak edo ipuin loiak esaten dakiezanak; emen pensamentu loiak gogoan erabili eta euren artean erretan egon oi direanak; emen gazte dantza naastu-zaleak, batzaar, ta erronda zaleak; eta emen Jgkoak dakizanak, ezkonduen artekoak bere. Bai ezkonduen artekoak bere, eze, zeinbat onetarikok egin oi ditue umeak ez izateko zantarkeriak; eta gero konfesetan ez ditue pekatu ezpalira baño geiago; baita orretarako pekatu andiagoa egiten dabe ezkondueta ezpalegoz baño? Eta, ainbatek bestelango gauza txanak egin eta gero biotzean kezkea ta arantzea izan arren eztituez konfesetan? A Kristiñauak! noberen zagiko ardoagaz bere orditu leiteke, tabernakoagaz ez eze. Iñok gauzonen ganean bildurrik edo kezkarik badauko, itundu bedi konfesoreagaz; bada ez tira orreek leku onetarako. Konfesiño jenerala egin bear dabe prest egoten izan direanak (ut supr.).

Konfesiño jenerala egin bear dabe besteak gaiti deungaro esateko eta murmuretako izkune txarra daukeenak, besteai guzurak asmetan (erantetan) deutseezala, edo emen entzuna an esaten dabeenak zabal eztabilen gauzea izanik.

Oneek guztiok bada eta onelangoak (bada guztiak ezin izentadu leiz), onelango ekandu gaistoai yarraitu deutseen artean, eztabe Konfesiño onik egin, eta Konfesiño gaisto oneek zuzenduteko egin bear dabe Konfesiño jeneral bat ondo ondo pretauta. Bai ondo ondo pretauta, pekatuen bideak kenduta, ekandu deungak kentzen asita, eta bakotxari berea emonda. Ez etorri konfesetara pekatuak oñean dirauela, eta onduteko aleginik egin bagarik. Atan birao-gilleak, juramentu-gilleak, berba loiak esaten dakizuenak, Konfesiñora baño leen itxi zuen biraoak eta juramentuak eta berba loiak. Gurasoak, Konfesiñora baño leen galarazo zuen umeai fiestara, zelaira, bigirara eta alangoetara yoatea. Gazteak, zuek gogoak artu alango lekuetan oñik ez ifinteko eta gurasoi euren lotsa ona gordetako. Bizi-alargunak, ez etorri Konfesiñora arkalgana batzandu bagarik. Iñoen ondasunak dozuezanak, ez etorri bakotxari berea emon bagarik, (aleginean), eta lotsa bazare yaubeari berari emoten, aldean ekarri egizue konfesonariora, eta konfesoreak egingo dau zuen buruak agertu bagarik.

Entzunak entzunda bear bada esango dau batek edo batek: Jauna, bada kontu gogorra da beintzat ori. Nik esaten nituzan pekatu guztiak, ez neban bapere ezkutetan. Zetarako, bada ausi bearko dot burua, Konfesiño jenerala egin ezinik? = Alan galdu gura dituz diabruak asko, galazotzen deusela Konfesiño jenerala, aora daroen errraria baño bearrago dabeena. Zer da konfesau arren, pekatuen damurik ezpazeunkan? Utsa da, edo obeto esateko kaltegarria da damu bagarik egiten dan Konfesiñoa. = Bada, Jauna, damua bere baneritxon neroiala. Samurtuten yatan biotza; esaten neban enebala geiago pekatuak egingo. Egia da gero griña ta pasiño txarrak itsututen ninduala; baia ez nik, konfesetan nintzan orduan, alango asmurik neunkalako. = Baia, Kriatiñaua, egia da zeuk urte askoan pekatu mortala egiteko ekandua izan dozula, eta konfesauta denpora andi bagarik lengo pekatuan yausten zineala? Bada agiri da bear dan damurik izan eztozula. Balitz baten edo baten (alangoren baten / alan baten / bein edo baten) argaltasunez yaustea, orrek eztau galerazoten damua izatea; baia bai izkunez eta ekanduz egiten dan pekatu yarraituak eta alan olan-goak izan dozuzalako, egin bear dozu Konfesiño jenerala.

4. Baia zetan igarten dan geiago Konfesiño jeneralaren bearra da norberen guraz eta yakinen ganera konfesiñoan esan bearren bat esan bagarik itxiten danean. Emendi bada dator Konfesiño jenerala egin bear izatea pekatu mortalen bat edo bat edo beste esan bearren bat lotsaz edo bildurrez edo oker egin gurarik konfesau bagarik itxi dabeenak. Egin zenduan txikitxutan zantarkeriaren bat nebatxuagaz, arreatxuagaz, eskolako



edo auzoko lagunagaz, eta lotsaz edo bildurrez eztozu iños konfesau? Bada Konfesiño jenerala egin bear dozu. Baia leलगotan, eta gero bere amazazpi amazortzi urtera artean gogoak emon ezpeutsun ori pekatu izango zanik; eta gero edo sermoiren baten entzunda, edo libururen baten irakurrita, edo beste alde bateti konturatu bazinean, eta lotsaz edo bildurrez esan bagarik itxi bazenduan, amazazpi amazortzi urterik onako Konfesiño jenerala egin bear dozu, eta leenagokoa bere obeto izango da egitea, bada txikitan bere ain argiro argiro batek ezpadaki pekatu direala, beti alabere egin oi dira malizia moduren bategaz, billatuten direala orretarako leku ezkutua eta bakarrak.

Egin zenduan andi eginda ganaduren bategaz pekatu loiren bat eta, lotsaz etzenduan konfesau? Bada egin bear dozu Konfesiño jenerala. Zeu bere, neskatilla, yausi zinean seigarrenekoan; edo oso osoan egin ezagaiti (ezarren), ibili zinean zantarkeriak egiten; eta gero, lotsarren etzenduan konfesau, edo esan zenduan zan baño gitxiago edo ederrago? Bada Konfesiño jenerala egin bear dozu. Zuk, beste orrek, egin zenduan seigarreneko ori, nebeagaz, arrebeagaz, ezkonduagaz, boto kastidadekodunagaz; konfesau zenduan pekatura, baia lotsaz etzenduan esan zelango lagunagaz izan zan? Bada Konfesiño jenerala egin bear dozu.

Egin bear dabe Konfesiño jenerala Konfesoreak itandu ez eutselako pekaturen bat konfesau bagarik itxi dabeenak. Ara askogaz zer yazoten dan. Itanduten deutse Konfesoreak: egin dozu ain gauza? = Bai, Jauna. = Zeinbat denpora da egin zenduala? = Jauna, lau urte. = Eta konfesau dozu iños ori? = Ez, Jauna. = Eta, zegaitik ez? = Ezteuste, Jauna, itandu (eskatu) berorrek legez. = Zer da itandu ezagaiti? Nai itandu nai itandu ez, esan bear dira Konfesiñoan pekatu mortal guztiak, eta alan egin ezik ezta gauza dan Konfesiño onik egiten. Egin bear dabe Konfesiño jenerala pekatu bein lotsaz itxiak, aztuta itxi balituez legez konfesetan dituezanak. Au bere askok egin daroe. Itxi izango dituez lotsaz esan bagarik pekaturen batzuk, estututen dituz biotzak, eta gero ta gero bere batoz bada pekatu orreek esatera; baia orduan bere lotsatuten dira esaten zelan leen lotsaz itxi zituezan, eta esaten dabe aztuta izan zala. Oneek eztabe onegaz gauz onik egin, eta bear dan bidean sartuteko Konfesiño jenerala egin bear dabe. Egin bear dabe Konfesiño jenerala euren pekatuak ain modutan edertuten dituezanak, ezei [sic] konfesoreak benialtzat adietan (ulertuten) dituz pekatu mortalak zireanak.

Oneek entzunda, ezta kit bateri bateri biotza larritu ez ete yakon. Nik, esango dau bere artean, Konfesiño jenerala egin bear neuke, eta erraria (aoko ogia) bera baño bere bearrago dot. Baia, zelan nik egin nei Kon-

fesiño jeneral ori? Zelan nik arteztu nire pekatuen kontu nastauak? Ni txiki txikitarik asi nintzan pensamentu zikinai leku oso osoa emoten, berba loiak esaten ta entzuten; egin dodaz Jaungoikoak dakizan eskuka loiak, neure bakarrean, baita lagun gaistoen artean bere; ibili nas edozein naste-borrasteko batzarreetan, edozein nasaikeria egin arren ezer ez eustala; neure buruko ulleak baño pekatu geiago egin dot; konfesetan izan nas, baia esaten ez nituzan erdiak, ezta onago bere; esaten nituzan buruak emoten eustazanak, ta besteak gorde; esaminarik egiten ez neban, damurik bapere ez. Onelan izan da nire bizitzea. Zelan bada nik egingo dot Konfesiño jeneral ori? Zelan atera anbeste pekatuen kontua?

Kristiñau larritua, ondu gura zara? Itxi gura dozuz bein betiko orainarteko leku, olgantz, okasiño eta ekandu deungoak? Bada orreek badira zure gogoak, errazki zabalduko dozu zere biotz ori. Ez estutu; guztia errez errez egingo da. Billatu eikezu Konfesore yakintsu arima-zale bat; ari argiro esan zelangoa izan zarean, eta lagundu deizula Konfesiño on bat egiten, eta ikusiko dozu, ze ederto egiten dozun guztia.

Eta au obeto egin dagizuen esan bear deutsuet zuen aldeti zer egin bear dozuen. Yakin bear dozue bada eze, eztabela iñok Konfesiño txarrik egiten bururik ez izan arren. Eta alan atso-agura laurogei urtekoak bere, erraz egin leie Konfesiño jenerala, burua erdi konkorturik euki arren. Jgkoak ezteutso baktotxari eskatuten, bere aldeti al dabena baxen besterik. Ori egin ezker, pekaturen bat, edo pekaturen batzuk, edo pekatu asko, aztuta geldituten badira, ezta ardura: orreek besteakaz batera Jgkoak parkatuten dituz; eta gero Konfesiño jenerala (egin) ezker, gogora baletoz, eztago Konfesoreari urrengo konfesa-aldian esan baño. Egizue bada zuen aldeti dagoana pekatuak gogora ekarteko.

Eta esamina ori egiteko lelengo lelengo aterako dozue kontu ea batatz beste urte baktotxean zeinbat bider konfesau zareen. Gero mandamentuetati yoango zare. Bein edo beste baño egin ez tirean pekatuak laster dira burura ekarrita. Alan batek seigarrenekoan bere ezkongeiagaz baño bestegaz egin ezpadau, eta ori bere alango banaka batzuetako gitxitan, laster buruak emongo deutso orreri zeinbat bider izan direan guztiak. Tintago egin direanean ez tira ain erraz zuzenduten; eta ezin esan badira ain zuzen zuzen, esan zeinbat izango zirean gitxi goiti beeti. Ekanduzko pekatuetan oraindo gatxagoak dira kontu zeatzak, eta orregaitik besterik ezin dozuenok aterako dozue kontu zeinbat denporan iraun deutsuen gauza txarra egiteko izkuneak, eta batatz beste zeinbat bider izan zatekean egunean, astean, ilean, edo urtean.



Genero bateko pekatuak alde batera esango dozuez. Seigarrenekoan bost ezkondu-bakogaz ogei bider egin dabeenak eztau ibili bear: Jauna, bategaz egin neban bein, bestegaz iru, bestegaz sei. Esan begi beingoan: Jauna, ezkondubakoakaz ogei bider pekatu egin dot. Genero banatako pekatuak bakotxa berez esan bear dira. Alan ezkondubakoakaz egin direan pekatuak eztira nastu bear ezkonduakaz egin direanakaz; ezta aldeakaz egin direanak atzeakaz egin direanakaz. Bakotxa berez esan bear da: onenbeste ezkonduakaz, onenbeste ezkondubakoakaz, onenbeste aldeagaz, onenbeste boto kastidadeko-danagaz.

Itanduten baiake konfesetara datozanai ea damurik badauke Jgkoa ofendidu dabeelako, guztiak diño e baietz; baia asko baño geiago dira egiazko damu-bagarik konfesetan direanak. Ai! damututen yakanak zerbait egina, eztau geiago alangorik egin gura, eta aletin guztiak egiten dituz ostera ez egiteko. Damututen baiatzue iñori mesede egina, esan daroazue: Ai bada, yakin izan baneu...! Eztauko urrengoan nigana etorri baño; nik emongo deusatz: arin joan bearko dau neure aurreti. Alan bada pekatuen damua daukanak bere, eztau pekatuak egin gura, eta aletin egiten dituz ez egiteko. Baia, zeinbat eta zeinbat dira alango aletin egiten eztabee-nak? Zeinbategi dira urte osoetan pekatu mortala egiteko ekandu gais-toa aurrera daroela, konfesauta konfesauta bein bere onduten eztiareala (ondu bagarik)? Bada alan egin dabeenak eztabe damu onik izaten eta egin bear dabe Konfesiño jenerala. Egia au ezagutu dagizuen, mandamentuetati zientaduko deusatz onetariko ekandu txarretako batzuk, eta orregaz era batera yakingo dozue nortzuk egin bear dabeen Konfesiño jenerala damuaririk eta propositurik izan ez dabeelako. Alan bada Konfesiño jenerala egin bear dabe: pitian...

Ejempl. Dutari... Cardab. pag 29.

12. KONFESOREAK AGINDURIKO PENITENZIA EGIN EDO KUNPLIETEAREN GANEKO BERBA-ALDIA

(B, 108-112. or.)

1. Konfesiño on bat egiteko bear dan bostgarren gauzea da, Konfeso-reak aginduten daben penitenzia kunplidu ta egitea. Penitenziaren alde, edo parte oneri dei egiten yako pagua edo satisfaziñoa; beragaz kitututen eta pagetan yakolako Jaungoikoari, gizonak, pekatu egin ebanean bere ganean artu eban zorra. Au zelan dan ezagututeko, yakin bear dogu ze, pekatu mortal bakotxean dagozala gauza bi: bata da errua, edo kulpea, orbana, loa, kakaztasuna edo mantxea, zeinegaitik dagoan pekataria kondenaturik infernuko suetara. Bestea da, pekatu onegaitik pekatariak merezidu izan daben betiko neke eta sua. Konfesiño ondo eginak kentzen deutso pekatariari orban edo mantxa au, eta egiten dau Jaungoikoaren areriotik bere adiskide laztan; baia ezteutso beti parkatuten erru, edo kulpa onegaitik merezidu eban pena guztia; Egiten dabena da, ezteila izan neke au beti-betikoa infernuan, ezpabere denporaren batekoa. Pena onen zorra kitu bearko dau, edo mundu onetan bizi dan artean obra onak eginagaz, edo, ezpabere gero Purgatorioan. Irudi bat iminiko deusatz au obeto ulertu daizuen. Dauko Errege batek dirutza andi bat. Ostuten deusatzu Errege oneri ondasun onen zati andi bat, eta galtzean dozu dana yan-edan, yoko eta beste zeure geistokerietan. Artuten zaituz preso, eta kondenetan zaituz Erregek urkamendi baten bizitzea galduera lotsaaririk andienean. Bildurturik guztiori sententzia onegaz, damututen yatzu lapurretan egina, eta eskatuten deusatzu Erregeri arren parkatu deizula zeure erru, edo kulpea. Emoiten deusatzu berbea, etzareala ostera biurtoke beste ainbeste egitera, eta egingo dozula alegina, kendu deusatzun guztia pagetako. Errukiturik Errege, dirautsu: Ondo dago: nik parkatuten deusatzu erru edo kulpa guztia; etzara ilgo; etzara urkamendi baten ikusiko; neure adiskide izango zara. Baia ezin parkatu neikezu, kendu deustazun ondasuna. Eta alan emoiten deusatz sei, zortzi, edo amar urteko epea zor au kitutu ta pagetako. Baia kontu; ordurako pagetan ezpadeustazu azkenengo lauzirikoragiño, kartzela ilun ta guztizko gogor baten egon bearko



dozu, burdiñaz yosirik, goseak ilik, egarriz itoten, eta minik gogorrenean artean, eta eztozu andik urtengo, edo zor guztia pagadu, edo kendu dozun ondasunari datorkion pena guztia igaro artean, edo beste batek zugaitik zor guztia pagadu artean. Auxe berau yazoten da bada zugaz... Jaungoikoaren artean bere, konfesetan zareanean: parkatuten deutsu Jaunak pekatuaren erru edo kulpea, kenzen dau zure kontra infernurako emonik egoan sententzia: baia ezteutsu parkatuten pekatuari datorkion zorra, guzti guztia pagadu artean, edo mundu onetan obra onakaz, edo bestean Purgatorioko neke eta su artean.

2. Orain bada, konfesoreak emoniko penitentzia eginagaz, pagetan dozu zor au, edo gitxienez bere zati edo parteren bat, eta auxegaitik dei egiten yako pagua edo satisfaziñoa. Edozein-bere obra onagaz kitu egin ginaike zor au; baia alan-bere obeto edo geiago... konfeseoren aginduz eginagaz. Esaterako: errezaduagaz errosario bat; barau eginagaz, edo limosnea eginagaz pagetan dogu Jaungoikoari deutsagun zor au, edo bere zatiren bat; baia guztiz geiago pagaduko dogu errosario au errezetan badogu, baraua egiten badogu, edo limosnea emoiten badogu, konfesoreak penitentiatzat iminten deuskunean; bada Konfeseorearen aginduz egiten doguzanean egiteko oneek, Penitentiako Sakramentuaren zati eta parte dira, eta Sakramentuetan ifini ebana legez, J.K°.k bere merezimientuen ondasuntzia, orduan artuten dogu egiteko oneekaz grazia ugariagoa. Ain dira andiak pekatu eginagaz gure ganean artu genduzan zorrak, eta ain balio gitxikoak gure obrarik andienak ze, eskatuko baleusku Jaungoikoak gogorrean guztien pagua, ezin guk iñondik bere pagadu giñaikio guzti guztia oso osoan. J.K°.k bakarrik pagadu eutsan modu onetan bere Aitari, orduragiño egin zirean, eta gero munduak dirauan artean egingo direan pekatu guzti guztiak-gaitik; eta alan guk penitentiagaz pagetan badeutsagu Jaungoikoari deutsagun zorra da J.K°.ren merezimientuetatik artzean dogulako. Orregaitik eta humildade andiagoagaz, damuari benetakoagaz, eta onduteko gogo irrimeagoagaz konfesetan gareanean, eta zeinbat eta deboziño geiagogaz kunplietan dogun konfesoreak emoniko penitentzia, ainbat eta geiago arzen dogu J.K°.ren merezimientuetatik, eta ainbat eta zor geiago pagetan deutsagu Jaungoikoari.

3. Gauza bitarako iminten da penitentzia, diño Trentoko Batzarrak, bata leen eginiko pekatuak kastigadu edo pagetako, bestea osterara euretara bihurtutea galaazoteko; eta edozein-bere penitentiatan begiratu bear dira gauza bi oneek. Alan-bere batzuk besteen artean iminten dira lengo pekatuen kastigurako, eta beste batzuk euretara beste bein bihurtutea eragotzeko, guztiak guztirako badira bere. Oraingiño esan doguna, lenengo

moduko penitenzien ganean izan da; orain esango doguna bigarren moduko ganean da. Onei, barrero yausi ez eiteko direanai dei egiten yake osasungeiak edo medizinalak. Onetatik batzuk ain dira bear bearrekoak edo premiñakoak ze, ezin konfesoreak agindu bagarik itxi leiz eta ez konfesetan danak bere ez artu edo gorde. Kontu daigun: daukazu etsean neskatilla edo otsein bat, zeinegaz pekatu egiten dozun, nos gura, etxetik bota al dozula; bada ezin konfesoreak itxi leikezu etse-barruan eukiten, eta zuk bere ezin euki zinaike. Dakus konfesoreak, yokoan iminten zorean guztian, zagozala biraoka, yuramentu guzurtika, gura ta gura ez agindu bear deutsu itxiteko yokoa, eta zuk, bere egin bear dozu konfeseorearen esana (agindua). Dakus Konfesoreak eztozuzala pagadu gura zorrak euki arren bere zegaz; ezin leikezu agindu bagarik pagetako, eta zuk egin bear dozu bere esana. Dakus konfesoreak urlia ta urleziagaz batzainduten zorean baktxean daukazuezala alkarregaz berba, ukutute, edo beste loikeriak; bada Konfesoreak ezin itxi leikezu ifini bagarik penitentiatzat, etzaitzela alkarregaz batu. Beingoan guztia esatearren, yakinik edo ezaguturik konfesoreak zerbaist dala zuentzat pekatuan yausteko bide, arri laban, edo pelleburua, gura ta gurez, eta ezin bestez agindu bear deutsue itxiteko, eta itxi ezik, ezin absolbidu zinaikeez, ezin kurutzerik emon leikezue. Arpelik esango dozu: Jauna, emon begit beste edozein bere penitentzia, dan gogorrera; ze au ez agindutea izango litzateke, zu pelleburuan eta gal-bidean itxitea, zein eztan beste gauzarik, ezpabere zu pekatu barruan itxitea. Orregaitik bazeunko pekatua ez bihurtuteko borondate (osoa, ta) benetako, etzeunke bear konfeseorearen agindurik pelleburu orretatik urteiteko; zeuk zeurez urtengo zeunke.

4. Beste penitentzia modu batzuk dagoz zeintzuk ain bear bearrekoak ezpadira bere guztiz da ondo zeatz zeatz egitea, pekatariak, negargarriko pekatutik urten gura badau. Onelangoak iminten dira pekatuen ekandu zitela daukenai, euren pelleburua kenzeko, eta eurak euren burutik itxi edo aldatuteko eskurik eztaukela. Kontu legizue: mutil edo gizon gazte batek dauko ekandu zitela bere aragiagaz pekatu egiteko; deritxo konfeseoreari ze, mutil onen ekandu zitela kentzeako eztagoala iru barau astean egitea langorik: aginduten deutso, bada, penitentzia au, eta asirik barau egiten, dakus, ezin aurrera igaro leitekeala, edo gorputza argala daukalako, edo nekazalea izanik, bearrik ezin egin leikealako, edo beste gauzaren bategaitik. Onek eskatu leio Konfeseoreari aldatu deiola, eta konfesoreak emon leio, beste deritxon penitentzia bat; baia pekatariak ezin berez ta bere burutik aldatu leike penitentzia au. Penitentzia osagei, edo osasungarri oneek, Konfesoreak aginduten deutsuezana legez egin bear



dozuez, arean bere gitxitu edo aldatu bagarik; bada izanik zuen bizi-modua zuzenduteko, eta infernuko bide okerretik zeruko artezera aterateko, ardurarik andiena imini bear dozue, humildade eta deboziñorik beroenagaz konfessorearen agindua egiten, ze au egiten badozue, eztabe asko iraungo zuen ekandu zitalak.

5. Ementxe, neure enzula maiteak, emon gura deuntsuet konsellu osasuntsu, ta txitozko errez bat. Andia da benetan pekatu bakotxean geure ganean artzean dogun zorra, baia modu guztiz asko daukaguz zor au kitututeko. Ez bakarrik pagadu ginaioz Jaunari, Konfessoreak emoniko penitentiakaz, baita bere beste edozein bere egiteko onagaz, zelangoak direan oraziño, barau, limosna, Meza-enzute, errosario, kurutze-bide, Aita-gurea, Abe-maria, eta beste obra on guztiak. Ez bakarrik oneek arzen dituz Jaungoikoak, deuntsagun zorren pagu, baita bere bakotxak bere bizi-moduko egin-bearrak bete ta estaduko obligaziñoak egin edo kunplietako, iragoten dituzan neke, lan, izerdi, premiña, estura, eta naibage guztiak. Ementxe bai itxi euskuzala Jaungoikoak ondasun-tegi ta aberaztasungarri miragarriak, zegaz pagadu eta kitu zorrak! Baia, ze errezak? Zeure zeregin, zeure etxeko arduraak, zeure egin bearrak bapere bere itxi, edo aitzu bagarik, batu ziñaikez arimako ondasun aandiak zegaz kitu egin zor deuntsazuna. Zara eskondua? Egizu ezkondu bateri dagokion guztia, Jaungoikoak emon eutsun bizimodu orren eginbearrak, eta eginenak bete eta kunplietako gogo ta borondateagaz. Opa eikisozuz Jaunari, onetarako igaro bear direan nekeak; nai dala etseko ardurea eukiteko bear direanak, nai dala senar edo emazteagaz bakean bizi izaiteko, nai dala seme-alabak ondo azitek, nai dala eurentzako yan-edana, oña ta soña irabazteko, nai dala eurai bizimoduren bat emon edo irabazteko; aror non aurkituko dozun zegaz pagadu Jaunari zeure zorrak. Otseina zara? Obeidu eikiozu zeure nagusi ta ugazabari, Jaungoikoak berak aginduko baleutsuna legez; egikezu zeure bizi-moduari datorkiona, egin bear dozuzanak kunplietako gogoz; iskini eikiozuz Jaunari onetarako egiten dozun bear guztia, eta igaroten dozuzan nekeak; aror ondasuntegi ugari bat, zegaz kitu zeure pekatuen zorrak. Nekazalea zara? Arako soloan zagozanean eguzki berotan kiskilduten atxurra, laiea edo eskobaria eskuan dozula, alde guztietatik izerdia dariozula; igaro egizuz lan oneek, zeure obligaziñoak kunplietako bear direalako, opa ta iskindu eikiozuz Jaunari, eta ara non daukazun, zegaz kitu zeure pekatuen zorrak. Oneek gaitik diñodana, diñot beste edozeinbere bizi-modu, eta ofizioz gaitik.

6. Ain da andia Jaungoikoaren guganako amodio ta ontasuna ze, ez bakarrik artuten dituz gure pekatuen zorren ordez Konfessoreak emoniko

penitentiak, ez bakarrik gure borondatez eginiko obra onak, ez bakarrik bakotxak bere bizimoduan ikusiten dituzan lan neke eta bear orduak; baita bere berak pekatuen kastigu bialduten deuskuzan gatx eta nekeak, eta alan pazienziatan badaroaguz berak bere aserreagaz bialduten deuskuzan gatx, gexo, neke, min, gerra, ekatx, labore falta, gose, pobrez, ondasun galze; egiten deuskuezan lapurreta, ondasun edo diru-kenze, edo Jaunak biraldur al leikeguzan gatx guztiak eurakaz pagaduko deuntsaguz Jaungoikoari, deuntsaguzan zorrak. Au ondo begiratuko bagendu, ez litzatekez ikusiko ainbeste errielta, ainbeste aserre, ainbeste gorroto, ainbeste ezin-ikus, ez etseetan, ez errietan; bakotxak ezagutuko leuke, gatx eta neke oneetan dagoan ondasun ugaria, eta tristetu bearrean poztuko ginalitekez.

7. Baia, ai neure Kristiñauk, ze atsera gagozan, Jaungoikoari zor deuntsaguna pagetako! Ze astunak pekatuaren bidea itxirik, zerukoan sartzeako! Zeinbat eta zeinbat dakusguz, ez batera ta ez bestera zirkinik erazo ezin leioela? Etorriko da guraso bat konfesetan, akusaduko du birao asko ta ikaragarriak egin deutseezala seme-alaba, eta beste etsekoai. Itandu bekio oneri ea zer egin daben ekandu au kentzeako? Eta ikusiko da, eztabela arean bere egin. Esan bekio, egin daben Konfessoreak agindu eutsana? Eta ikusiko da ez ebalu egin. Agindu beutsan birao edo yuramentu egian batxean, lurrari mun egiola, edo Abe maria bat semeen aurrean errezzadu egiala, eztau ezerbere egin; eta itandurik zegaitik? eranzuten dau: lotsa izan nintzan, ainbesteren aurrean egiten. Dakus konfessoreak bestea, birao, añen eta aserre artean bizi bada, dala ardao etxera, edo yokora doialako; aginduten deutso alango lekuetara ez eltzeako; baia eztau yaramonik bere egiten, eta biurtuten da bere ekanduetara. Itandu bekio, zegaitik ausi daben konfessoreen agindua? eranzungo da, adiskideak eroan ninduen; enintzan yoan yokatuteko usteagaz; uste neban biraorik, ez añenik enebala ezarriko, baia gura ezean legez urten eusten. Dazau konfessoreak, bestea ordituten bada, aragizko pekatuan yausten bada, edo bere ekandu zitelak aurrera badaroaz, dala urterik urtera baxen konfesetan eztalako; aginduten deuso, bada, konfesadu deila ilabeterik ilabetera. Eztau kausiñorik egiten. Itandu bekio, zegaitik yagon eztaben agindu yakana? Eranzungo dau luzatu egin yat, beti nengoan konfesetako, etxatan gogoa falta; baia beti atseratuten yatan. Bide bagako atxakia oneekaz eztabe egin gura, edo eztabe kunplidu gura Penitencia, eta alan, euren ekandu zitalak gitxitu bearrean, geiagotuz doaz egunean baño egunean dira ordiago, egunean baño egunean loiago, egunean baño egunean biraorikariago.



8. Ikusirik gure Jaungoiko maiteak, ezabela artu gura gizonak euren pekatua kentzeako erremedio ta bide ain bigun, ain erreza, atera gura leukez daroien bide onetatik kastigu, neke eta azote gogorragakaz. Bialduten dau labore-urritasuna, biralduten dau gosea, pobrezea, eta billoxtasuna; biralduten dau gerrea, gatxa, eta peste, bialduten dituz nekea, atsakabea, naibagea eta lanak edo trabajuak, modu onetan eroan al daizan gogorrean, bigunean egin gura eztabeen penitenziara: baia azote eta kastigu oneek bere eztira asko, gizonitsuak pekatuaren lo sorrotik irartzartuteko. Egia da, gatx oneek estututen gaituezanean, esan oi dogula au Jaungoikoaren Kastigua da au geure pekatuak gaitik dator; baia ementxe geratuten da gure ezauari guztia. Eztogu ezer egin gura gatx onen sustraia, zein da pekatua kentzeako: eztegu arean, egin gura, Jaunaren aserrea bigunduteko; eztogu ezer egin gura Aita zerukoari eskuan daukan azote edo zigorra kentzeako, Zer diñot nik, gero? Geure pekatuen penitenzia egin bearrean, Jaunari perka eskatu bearrean, aurrera daroaguz geure pekatuak, egunean baño egunean dira andiagoak; barrien barri aserratuten dogu zeruko Aita, eta orregaitik gure gatxak eta nekeak gitxitu bearrean, beti doaz geiagotuaz. Baita, zegaitik? gu gatx oneekaz humildu bearrean, geiago ta geiago irritu ta aserratuten gara eurakaz. Eztakit zer egin daikean Jaungoikoak gugaz. Onean eta biguntasunagaz urrundu gura bagaituz pekatuetatik, ezteutsagu yaramonik egiten: konfessoreen bitartez aginduten deuskun erremedio osasungarririk eztogu artu gura, aurrera daroaguz geure gaistokeria eskergeak. Gogorrean artu gura bagaituz, guztia da negarra, zispurua, zotina, baia onduterik ez; eta alan ez onean, ez gatxean, ezin eroan al gaituz Jaungoikoak beragana. Ez gaitez, Kristiñauak, zoroak izan, pagadu daiogun Jaunari, zeatz zeatz zor deutsaguna, eta ardurarikan andienagaz: artu daiguzan konfessoreak aginduriko penitenziak, eztaiguzan artun eta gogortzat euki, ze balira bere gozotzat artu bear geunkez, yakinik, eurekaz irabazten dogela zeruko erreinua. Alan gerta deilla; arren bai.

13. [PENITENZIA]

(I, 33-37. or.)

Facite fructus dignos paenitentiae.
Luc.c.3.

Konfesiño on bat egiteko bear dan bostkarren gauza da Konfeso-reak aginduten daben penitenzia kunplidutea, ta egitea. Au egiteari esaten yako pagua, edo satisfaziñoa, beragaz kitututen yakolako Jgkoari, gizonak, pekatu egin ebanean bere ganean artu eban zorra. Bear-bearreko gauzea da konfessorea errazoez emoniko penitenzia artutea, eta konfesetan danak ezpaleuko penitenzia ori kunplietako (egiteko) gogorik ez leuke konfesiño onik egingo, ta pekatu mortala egingo leuke. Baia izan leiteke konfesiño ona ta baliotsua obraz penitenzia egin ez arren. Yazo leiteke Konfessoreari penitenzia emoitea aztutea. Onelangoan konfesetan danak gomutarazo bear deuto: baia yazo leiteke (gerta lekikio) bere oneri bere erru-bagarik aztutea. Baita gerta lekikio, Konfessoreak penitenzia emonda bere aiztutea. Alangoan ona da konfesiñoa, beste aldetik utsegiterik edo faltarik ezpada; alan bere laster kontuan yausten bada, atzera yoan bear dau Konfessoreagana, itanduten ea ze penitenzia egingo daben, ta ori egiteko erarik ezpada, urrango konfesetara doianean, agertu bear da zer yazo zan. Baia yazoko balitz iñoz ondo eztan penitenziarik emoitea, ezin iñok bere buruz larga lei kunplidu bagarik, eta egin bear dana da, edo konfessoreari berari esan, zelan ezin kunplidu leikean a penitenzia, aren lekuan beste bat emon dagion, edo beste konfessore yakitun ta birtutetsu bategana yoan, ta ari esan zer yazoten yakon. Noberak egin bear dau Konfessoreak emoniko penitenzia, eta ezta gauza besteren eskuz egitea, penitenzia ori zerbaist emoteko ezpada. Agindu eutsuen barau egiteko mez'enzuteko, errosarioa esateko? Bada zeuk zeurorrek egin bear dozu, eta ezta asko iñori egiteko agindutea. Agindu eutsuen ainbeste diru pobreai emoiteko, edo onenbeste meza aterateko? Bada asko izango da semeari, otseinari edo besteri dirua emonda ak ateraten badituz. Penitenzia guztia ezer egin bagarik largetan danean, pekatu mortala izaten da; baita guztia ez izanagaiti aren zati andiren bat egiten ezthanean. Pekatu mortala da bere, penitenzia kunplidutea geiegi luzatuten danean. Gauza bitarako iminten da penitenzia, diño Trentoko Konzilio Santuak: bata leen eginiko pekatuak kastigetako, eta pagetako, bestea ostera euretara biurtutea galarozoteko;



eta edozein bere penitentiata begiratu bear dira gauza bi oneek. Alan bere batzuk besteen artean ifinten dira lengo pekatuen kastigurako ta euren zorra ateretako; eta beste batzuk pekatuetara beste bein biurtu ez eiteko; guztiak guztirako badira bere. Dakusguzan penitentzia bitzuok bana banazean.

Lelengo moduko penitentzia da ifinten dana egin direan pekatuen kastigugarriako ta euren zorra pagetako (zorrari erantzuteko): aginduten danean legez mez'entzuteko, errosarioa esateko, altarak ikusteko, limosna egiteko, ta onelangoak. Oneek eginagaz pagetan deutzazu Jaunari zure pekatuen zorra, edo bai gitxienez zorraren zatiren bat. Guk geure buruz egiten doguzan obra (gauza) onakaz bere, limosnakaz, barauakaz, errezuakaz ta besteakaz, kitu egiten dogu pekatuen zor au, baia askozaz bere geiago Konfesoarearen aginduz egiten doguzanagaz: zegaitik eze oneek Penitentiako Sakramentuaren zati edo parte dira; eta Sakramentuetan imini ebana legez Jesukristok bere merezimentuen ondasuntegia, orregaiti alangoak eginda grazia ugariagoak artuten doguz. Eta yakin (ezagutu) dagizuen ze zor-modu dan penitentiagaz pagetan dana, yakin bear dozue ze, pekatu mortal baktotxean gauza bi dagozala: bata da guk daukagun (pekatariak daukan) errua, edo kulpea zeinegaz orbanduten ta loituten da arimea, eta zeinegaitik dagoan infernuko suetara kondenaturik. Bestea da erru onegaitik pekatariak merezidu izan daben betiko nekea ta sua. Konfesiño ondo eginak kentzen deutso pekatariari arimako orbana edo pekatuaren loa (loitasuna), eta egiten dau Jgkoaren arerio zanetik bere adiskide laztan: baia ezteutso beti parkatuten pekatu onegaitik merezidu eban pena guztia. Egiten dabena da, kenduten deutso infernura (yoan) bearra, eta egiten dau eztedila izan neke au beti-betikoa, ezpabere denporaren batekoa. Pena onen zorra kitu bearko dau, edo emen mundu onetan bizi dan artean obra onak eginagaz, edo ezpabere gero Purgatorioan ango su ta neke ikaragarriak gaz. Irudi bat iminiko deutzuet au obeto ulertu dagizuen.

Ostuten deutzazu Erregeri diru-pillo bat, ta dana ondatuten dozu yan-edanean, yokoan ta zorakerietan. Artuten zaituz preso, ta kondenetan zaituz Erregek urkamendi baten lotsaririk andianean bizitzea galdutera. Bildurturik guztiori alango sententzia ikaragarriagaz, negarretan urturik, eskatuten deutzazu, arren bada, parkatu deizula; ezteutzazula alangorik ostera egingo, ta kendua bere atzera biurtuteko aleginak egingo dozuzala. Errukiturik Errege, esaten deutso: Ondo, nik parketan deutzut zure okerkeria, ta egin deutzazun iraina ta injuria, nireak zirean ondasunai bear zan lotsarik erakutsi ezta. Etzara ilgo, etzaitue urkatuko; baia kendua guztia

atzera emon bear deutzazu, ta orretarako nik emoitzen deutzut amar urteko epea. Eta kontu amar urte onetan pagaduagaz; ze ezpabere kartzela gogor baten gerizpean egon bearko dozu arik eta edo zuk, edo bestek zure orde, dan-dana lauzirigiñokoa pagau artean. Beste onenbeste yazoten da zugaz Jaungoikoarean artean bere ondo konfesetan zareanean: parkatuten deutzazu Jaunak pekatuaren errua, kentzen dau z;ure kontra emonik egoan sententzia: baia ezteutsu parkatuten pekatuari datorkon zorra guzti-guztia pagau artean, edo mundu onetan obra onakgaz, edo bestean Purgatorioko neke eta su artean.

Bigarren moduko penitentzia da lengo pekatuaren barrero biurtu ez eiteko emoten dana, ta oneri dei egiten yako penitentzia *osasungeia*, edo *osungarria*, arimako osasunean irauteko dalako. Onetatik batzuk ain dira bear bearrak, ta ain premiñazkoak eze ezin Konfesoareak agindu bagarik itxi leiz, eta konfesetan danak bere gura ta gur'ez artu ta egin bear dituz. Kontu daigun daukazu etsean neskatilla bat, edo otsein bat zeinegaz pekatu egiten dozun, eta zein nox gura etsetik kanpora bota ziñaikean? Bada ezin Konfesoareak itxi leikezu neskatilla etxe-barruan eukiten, eta zuk bere ezin etxean euki ziñaike. Dakus Konfesoareak yokoan iminten zanean guztian zagozala biraoka, guzurrezko yuramentuka? Gura ta gur'ez agindu bear deutzazu itxiteko yoko, eta zuk bere egin bear dozu konfesoarearen esana. Dakus Konfesoareak ezteutzazula zorrari erantzun gura, euki arren bere zegaz? ezin itxi leikezu pagetan agindu bagarik, eta zuk egin bear dozu bere esana. Dakus konfesoareak urlia ta urleziagaz batzainduten zanean baktotxean daukazuezala alkarren artean berba nasaiak, eskukak, ta osterantzeko loikeriak? Bada Konfesoareak ezin itxi leikezu penitentiatzat ipini bagarik, etzaitzeala alkarregaz batu. Ta beingoan guztia esateko, yakinik Konfesoareak zerbaist dala zuentzako pekatuan yausteko bidea ta arri labana, ezin bestez agindu bear deutzazu ori itxiten, eta itxi ezik, ezin absolbidu ziñaikeze, ezin kurutzerik emon legikezue. Arpelik esango dozue: Jauna, emon begit beste edozein bere penitentzia, dan gogorrena bere; ze au ez agindutea izango litzateke zuek pelleburuan eta galbidean itxitea, zein eztan beste gauzarik ezpabere zuek pekatu barruan itxitea. Orregaitik bazeunke pekatuaren biurtu ez eiteko gogo benetakoa, etzeunke Konfesoarearen aginduren (Konfesoareak agindu) bearrak izango pelleburu orretarik urteiteko; zuek zuenez urtengo zeunke, iñoren esanen begira egon bagarik.

Baia, O kristiñau askoren itsutasuna! Artu gura eztituez askok Konfesorerik bigunenak (eskusau ezin leikeezan) penitentiak, edo gura ta ez emon bear dituezanak. Ara emen onetariko batzuk. Izango da gizon bat



ardaoan sarri igaroten dana, tabernaak Elexea baño gogo (begi) obeagaz ikusten daroazana. Dakus Konfesoreak aren pekatuen etorburua dagoala tabernan bera lango lagunakaz sartutean; an belututa doiala bideetan zabuka, albo alboka: ta errosario orde daroazala etxera birao erreskadak, deadarrak, añenak, eta emazte gaixoari ta ume tristeai bizitza gogaitkarri bat emoten (bizitzarik emoten ez) deusela, etxean bear dabena ardaotan emonda. Dirautso, bada, Konfesoreak: adiskidea, zuk, salbau (zerura) gura badozu, egin bear dozu Konfesiño jeneral bat, (ondo ondo egin) astiro astiro prestanta, ta nik aginduten deutsu oñik ez iminteko zorigo-gorreko taberna orretan, edateko ez beintzat, ta onez ostein, edan aldi bakotxean, gox baten edo arratsalde baten kuartillu bat ardaotik ez igaroteko (ez gora edateko), ta ori bere ez, orditu oi direan lagunakaz, ezta tabernan bertan bere. Eztau artu gura onelango penitentzia. Beste batek etxean dauko pekatu-laguna, edo beste etxeren baten dauko sartu-urten-txu bat ondo ondo eztirudiana. Esaten deutso Konfesoreak: bota etsetik kanpora lagun deunga ori, edo urten beste leku batera; ez zelanbere oñik sartu pekatu laguna dagoan lekuan. Ez dau artu-gura onelango penitentzia osasungarriarik. Egongo da besteren bat lagunagaz gorroto gogorrean, barbarik ta agur onik egin gura ezteutsala (areriotsat daukanari), alear auzo onak legez ikusi bagarik gaixo direanean bere. Dirautso Konfesoreak: zoaz, ta egizuz bakeak, kendu egizu zer-esana, umillau zakioz; zuk uste dozu ak ofendidu zaituzala, ak usteko dau zuk egin dozula, eta nik diñot ze batak eta besteak, biok daukazuela errua. Bada eztau artu gura penitentzia au. Konfessore on batek dakus konfesetara (bere oñetara) etorri yakon gazte bat, dala dantza ta fiesta-zalea: topetan dau alango lekue-tan bideetako yoan etorrietan igaro yakozala bere guraz ta bere erruz berba arin-nasaiak, esku-egozte loiak, laztangak, ta onelango zantarkeriak, igarten deutso alango bideetatik alde egin ezik, ezin iraungo dabela gogo ta propositu santuetan. Emoten deutso penitentiatsat, ez yoateko alango dantza nastau, nasai ta lotsabakoetara. Au da penitentzia osasungarri bear bearra, ta alan bere artu gura eztau. Oneek, bada, ta onelangoak eztabe gauza dan konfesiño onik egiten, artu ta egin gura eztituezalako penitentzia osasunagarriak, egin bearrak, ta preminazkoak direanak.

Beste penitentzia osasungarri batzuk dagoz zeintzuk ain bear-bearre-koak ezpadira bere, guztiz da ondo, orregaitik, zeatz zeatz ta kontuz egitea, pekatariak negargarritzko pekatutik urten gura badau. Onelangoak iminten yakez pekatu egiteko ekandu zitala daukeenai, ekandu ori galduteko, ta pekatutik barrero ez egiteko: eta eztago inoren eskuan norberen burutik penitentzia orreek itxitea, edo euren lekuan beste gauzaren bat egi-

tea. Daukazu birao egiteko ekandua, edo lanzean lanzean guzurraren ganean juramentu egitekoa, ta ori kenduteko aginduten deutsu Konfesoreak lurraren ganean miña arrastaka erabilteko, edo beragaz iru kurutzze luze egiteko, alangorik egiten dozun bakotxean. Arturik daukazu eskuka loa egiteko ekandu lotsagarria, ta galdu eragiteko aginduten deutsu Konfesoreak ori egiten dozun bakotxean aste baten edo egun baten ez piparik edo zigarrorik arteko, edo ez ardaorik edateko, edo besoak zabalik ta belau gorriak lurrean dozuzala onenbeste Aitagurea ta Abemaria esateko. Penitentzia osasungarri oneek, bada, Konfesoreak aginduten deutsuzan modu moduan egin bear dozuez, arean bere gitxitu ta aldatu bagarik; bada izanik oneek zuen bizi modua zuzenduteko, eta infernuko bide okerreri zeruko bide artezera aterateko, ardurarik andiena imini bear dozue humildaderik andienagaz, eta deboziñorik beroenagaz Konfessorearen agindua egiteko; eta au egiten badozue eztabee asko iraungo zuen ekandu zitalak. (Eta ez egizu usteaskok legez, eze onelango penitentiak urrengo konfesa-aldira artekoak baño eztiorea; ez, ezta ori egia; iraun bear dabee, zure ekandu zitalak dirauen artean; eta egiten ezpadozuz, Konfessoreari esan bear deusazu, zer agindu eutsuen, eta zelan kunplidu ez dozun.)

Baia, ai Kristiñauak, eta ze negargarria dan gauza onen ganean egunean ikusten dana! Eztira egin gura Konfesoreak aginduten dituezan penitentiak, ta orregaitik bere oñean dirae ekandu okerrak, beti sen baten, geroago okerrago ezpada. Etorriko da gazte bat konfesetara, ta itanduko deutso Konfesoreak: *zeinbat dempora da konfesadu zineala? Jauna, urte bete. Kunplidu zenduan penitentzia? Jauna, agindu eustan illabeterik illabetera konfesetako. Ta, zegaitik agindu eutsun ori? Jauna, nire buruagaz eskuka loa egiten nebalako. Eta, zegaitik, bada, etzara konfesadu? Jauna, beti nengon konfesetako, konfesetako; etxatan gogoa falta; baia biar yoango, etzi yoango, luzatu egin yat. Eta, alango eskukarik aurten egin dozu? Bai, Jauna. Baator guraso bat, ta akusetan da birao asko umeen aurrean egin dituzala. Esango deutso Konfesoreak: *ez eutsun agindu lengo Konfesoreak ezer egiteko olango biraorik egiten zenduan bakotxean? Bai, Jauna; esan eustan lurrari umeen aurrean mun egiteko, ta Abemaria bat esateko. Ta, egin dozu? Ez Jauna; lotsa nintzan ainbestean aurrean egiten. Etorriko da dendera saltzalle bat, zeinek puntuan puntuan guzurraren ganen juramentu egin oi daben. Lengo Konfesoreak zer agindu eutsun egiteko juramentu guzurragazkoa egiten zenduan bakotxean? Jauna, agindu eustan zortzi-laukoko bat urrengo pobreaki emoteko. Ta? emon deusazu? Lelengo atan bein edo birritan emon neuntsan; baia arrezkero ezteutsat emon. Baia, Kristiñauak, zer da au? Zelan galduko dozuez zuen ekandu gaistoak? Zelan osatuko zare**



zuen arimeetako gatx andietatik? Zer esango zeunke gaixo bategaitik egin gura ezpaleu medikuaren esanik, ez artu bere aginduten deutsan gauzarik? Eztala osatuko, il egingo dala. Bada Konfesoarea dozue arimeen mediku, ta alanbere eztozue egin gura ak aginduten deutsuen erremediorik, ta osagarririk. Eta gero, zer yazoko yatzue? Ebiliko zare zuen bizi guztian ekan-du txarren gaixoen azpian, ta azkenean elduko yatzue infernuko eriotza beti-betikoa.

O ze bestelan egin oi ebeen antxinako egunetan Kristiñauak! Orduan zan ikustea pekatariak Elexako ateetan urte osoetan lutuzko soñeko etenakaz, buruak autsez beteta eukeezala, ta Elexara yoazanai erreguten arren bada, Jgkoari eurakgaiti eskatu egiela, euren erruki izan zidin. Lo luur gogorraren ganean egiten ebeen. Zeinbat barau eder ur ta ogi utsezkoak! Dibersiñoen ta yolasen izenik bere etzekien zertzan. Alan-txe euki oi zituezan urte osoetan Elexara sartuten bere itxi bagarik, arik eta Obispo Jaunak ikusirik euren pekatuakaiti negar asko egin ebeela, sartuten itxiten eutseen: baia ez orduan bere meza guztian egoteko, ezpada sermoian ta mezako ofertorio giño. Gero arik urte batzuk garreanean meza guztian egoten itxiten yaken; baia ez komulgetan. Ta onelan egin oi zan penitentzia egun zorioneko aetan. Eta, zelango pekatuak gaiti? Zuek ain sarri, ta ain bildur bagarik egiten dozuezan pekatuakgaiti. Enzuzue, arren, zuen lotsagarriako onetariko batzuk. Yakinaren ganean guzurrezko juramenturik egiten ebanak berrogei eguneko ur ta ogizko baraua egin bear eban, ta onezaz ostean zazpi urteko penitentzia. Elexan Ofizio santuak artean barriketan egon zireanak amar egunean egin bear ebeen ur ta ogizko baraua. Gurasoari bidebako iraunik ta atsakabarik egiten eutsan umeak, egin bearko eban iru urteko penitentzia; ta zazpi urtekoa gurasoagana yoitera egiten ebanak. Seigarrengo pekatuak egiten ebeen neska-mutilak iru urteko penitentiak. Ezkonduak amar urtekoa: koñata zen bategaz edo senideren bategaz egin ebanak amabost urtekoa. Garizumako barauen bat austen ebanak, ogei eguneko ur ta ogi utseko baraua egin bearko eban, ta berrogei eguneko Quarta denporakoa ausi bazan. Amarrinak egin etzituzanak eukan ogei eguneko ur ta ogi utseko baraua. (Gauza astunera elduten zan lapurreteagaitik zazpi urteko penitentzia: ta beste ainbeste inori guzurrik erantetan eutsanak.) O urregorritzko egunak zeintzuetan on geiago ekarten eutsen pekatariak egiten ebeen penitentiagaz, pekatu eginagaz egin eutsen kaltea baño.

Gaurko egunean barriz? O gure lotsagarria! Etorriko da urte osoetan pekatuan begi bietagiño ondatuta (sarturik) bizi izan dan bat, edo adiskidetasun loian, edo eskuka zikinak egiten, edo bear bada onek baño

bere pekatu eskergeagoak egiten dituzala; ta aginduten baiako urte betean ilean bein konfesetako, ya deritxo penitentzia gogorregia dala, ta iru illabete garreko ezta yaramonik egiten. Baia Kristiñauak, gaurko pekatuak antxinako pekatuak baxen andiak dira, gaurko Jaungoikoa antxinako Jgkoa, ta gaurko fedea, lengo fedea. Eztakit nik zer izango dan gero, gauza dan penitentzia onik egiten eztogula. Baia eztot ondo esan, bakit nik, ta ondo dakidala, bakit bai zer izango dan: lengo bideetara biurtu ta azkenean infernua. Ikusiko dozuez Kristiñau bizitza deungea eroan dabeenak, goxean belu yaigi, oparo yan, galanto edan, egun guztian yokonan, edo barriketa alperretan: meza bat aringa entzun, ori bere yaiegunean, (astegunean bai, gura leuke) errosario arinago bat esan, eta beste gauza onik egiten ezabela. Zer egingo dau gero onen aragi mizkeak? Lengoetara biurtu. Ikusiko dozuez gazte asko, zeintzuk dantza nastatuetara yoanagaitik izan dituezan pekatu ez gitxi gitxi, euren esku ezarte; siñu lotsagarri, albokada (mokokada), zirri, pensamentu, berba laban, ta besteakgaz. Konfeso on batek eragotzi eutsen onei dantzan egitea, ta orreri larga deutse. Baia Jgkoaren serbizioan epel epelik bizi dira, gitxitan ta baratxi (meatz) konfesetan direala; euren errosario ta ganeko errezuak, baita yaiegunetako mezaak bere ganorabagarik ta zetan dagozan eztakiela entzunda egiten dituezala, ta beste moduko obra onik egiten eztaudeela. Gero, zer yazoten da? Lengoetara biurtutea.

Baia esango dau batek edo batek bere artean: Jauna, ze penitentzia modu egingo dogu guk? Lar bere penitentzia egiten dogu, guk daroagun bizitza gogorragaz. Baita Kristiñauak, ori da okerrera: bizitza gogorra eroatea, eta ez bizitza gogorrari penitentiatzat serbidu eragitea. Ezteutsuet nik aginduko, ez, penitentzia egiten basoetara ta mendi barruetara yoateko, ezta arri bat artuta bularra austeko, ezta azoteka zuen aragiak apurtuteko ta triminduteko: Ez alangorik. Aginduko deusuedana da pekatuak kendu, arimea garbi garbi erabili, zuen bizimoduko egin bearrari erantzun, egingo dozuezan errezuak ondo egin, ta zuen lanak, bearrak ta nekeak epetasunez ta pazienziatan eroan ta Jgkoari eskindutea. A-ror ze penitentzia egin erraza, egin gura ezkerro, eta penitentzia bere balio andikoa. Ara bada konfesiño on on bat egizue, eta kanpora pekatuak, kanpora biraoak, kanpora aserrakuntzak, kanpora juramentuak, seigarrengoak, ordikeriak, lapurretak ta besteak. Au egin bagarik ezta gauza egiten dan guztia, ez zuen gorputzak suetan Jgkoagaitik erreko bazenduez bere. Baita kendu bear dozuez pekatuak bidea emoten dabeen gauzak bere, zelangoak direan geienean dantza nastuak, erromeriak, tarbenak, bigirak, yoko luzeak, ta sarri egiten direanak. Gero goxean goxetixu yaigi ta Jgko-



ari gau atako mesedeak gaitik eskerrak emon, ta opa ta eskini egun atako bear ta zeregin guztiak, errezu batzuk egin (esan) Ama Birjineari, Aingeru Guardakoari, edo Santu-Santaren batzuei. Eguneti atxina bere nosik pein edo erloiak yot-orduan edo alangoetan Abemariatxu bat, edo beste oraziñoren bat esan. Al dozuela zuen meztaxua egunean egunean entzun; ezin badozue, gura dabenak etxean egin leike bere mez'entzute modua kontu eginik meza aurrean dagoala, ta orduko deboziñoak esanik. Ilean bein konfesetea Kristiñau on batentzat ezta neke andikoa. Gero bakotxak bere bizi moduko zereginak, ta egin bearrak egin begiz. Ezkondua zara? Egizu, bada, ezkondu bateri dagokon guztia, ta opa eikiozuz Jaunari onetarako igaro bear direan nekeak; nai dala etxeko ardurea eukiteko bear direanak, nai dala senarragaz edo emazteagaz bakean bizi izaiteko bear direanak; nai dala seme-alabak ondo aziteko, nai dala (edo) eurentzako oña ta soña ta yan-edana irabazteko bear direanak. Otseiña zara? edo gurasoakaz zagoz? Egizuz, bada, zeure gurasoen edo ugazaben esanak Jaungoikarenak balira legez, eta ondo ondo egizuz zeure kontua dagozan zereginak. Nekazalea zara? Bada arako soloan eguzki berotan zagozanean, atxurra, laiea, eskubarea eskuan dozula; alde guztietatik izardia dariozula igaro egizuz lan oneek Jgkoaren ondrarik andienerako. Nekeran batzuk iñoren eskutik, edo beste aldeti baiatortsuez, orreek bere Jgkoaren amodioz eroan. Berba baten Kristiñau onak izan zaiteze, eta aror penitentzia eder bat, penitentzia galant bat, eta balio andiko bat, zegaz kitutu zuen pekatuen zorra. Ez gaitazan, bada, zoroak izan, Kristiñauak; pagadu dagiogun Jgkoari zeatz zeatz, ta ardurarik andienagaz, zor deutsaguna; artu daiguzan onetarako Konfesoreak aginduriko penitenziak, eztaiguzan astuntzat ta gogortzat euki: egin daiguzan Jgkoagaitik gure bizi-moduak dakazan egin-bearrak, ta guk gure borondatez egiten doguzanak bere: alan aterako doguz gure buruak pekatuen zorren azpitik, ta irabaziko dogu Zeruko Erreinua. Alan gerta daiteala. Arren bai.

2. ATALA



1. LENENGO MANDAMENTUAREN GANEKO IKASBIDEA

(B, 13-15. or.)

Jaungoikoaren lenengo mandamentuak aginduten deusku, neure Kristiñauak, Jaungoikoa maite izaiteko gauza guztien ganean edo gauza guztiak baño geiago. Eta esan gura dau mundo onetako gauza guztiak, diruak, ondasunak, osasuna, honrea, eta bear bada bizitzea bera bere galdu bear doguzala Jaungoikoaren kontra pekatu egin baño leenago, eta au egingo dogu bere agindu edo mandamentu santuak ondo gordeagaz. Baia orrezaz osteranzean bere dago obligaziñoa Jaungoikoa maitetu eta ametako; eta alan Alexandro zazpigarrenak eragotzi eban esatea, eztaukala gizonak iños bere fede, esperanza ta karidadeko aktoak egiteko bearrik, edo pekatu egiten ez zala eguño bere bere artean esan ez arren sinistuten dituzala fedeko egiak, edo Jaungoikoagan daukela esperanza ta uste andia, eta Jaungoikoa, bera biotz guztiti maite ta laztan dabela. Baita yakin gura badozue nos dagoan Jaungoikoaren amodiozko aktoak egiteko obligaziñoa eta nos barrieztatu egin bear dan aren Majestadearen ondogurea, dirautsuet egin bear dogula lenengo ezauerea eukiten, edo errazoiaren usura elduta bertatik eta ar-or non gurasorik geienak egiten daben pekatu, euren seme-alabai ordurako doktrinea erakusten eusteusalako. Emoitent dabe atxakia esanik, aita, oraindio gazteak dira; gero azi ditezanean ikasiko dabe. A guraso zorigogorrekoak! gazteak dira zuen seme-alabak doktrinea ikasteko; eta ez tira, bear ez tirean gauza asko ikasteko. Zuek daukezue (daukazue) obligaziñoa zeuben seme-alabai adinera edo usorrazoera baño leen doktrinea erakusteko; bada ara eldu ezkerokoan dauke obligaziñoa, ta egin bear dituez esan doguzan fede, esperanza ta karidadeko aktoak. Barriz zelan egingo dituez ordurako doktrinea ikasi ezik?

Bigarrenago, egin bear dira eriotzako pelleburuan ikusten bagara; irugarrenago, Jaungoikoaren amodioaren kontrako tentaziñoaren batek estututen gaituzanean, eta beste modutan ezin goia-artu yakonean. Diñot Jaungoikoaren amodioaren kontrako tentaziñoaren batek estututen gaituzanean, bada orduan ezta obligetan fede, edo esperanzako aktoak, ezpada karidadearenak (karidadezkoak). Balitz tentaziñoa fedearen kontrakoa orduan egin bear da fedeko aktoa, eta bada esperanzearen kontrakoa egin bear da esperanzazkoa, eta alan ze'en kontra dan tentaziñoa aen kontra-

ko aktoak egin bear dira pekatu mortalen bean. Osterantzeko denporetan bere egin bear dira fede, esperanzako, eta karidadearen egiteko oneek; ze izentaurik edo erabagirik egon ez arren zeinbaterik zeinbatera egin bear direan, Elexa Ama Santeak dauko galarazorik esatea ez zala pekatu mortala bizi guztian bein baño ez egitea, baita bere esatea eztagoala obligaziñorik bost urterik bost urtera baño egiteko. Orregaitik bada gauzarik onen oneena da, ainbat sarrien egitea: ze eztozu orregaitio bere laarregirik egingo: bada eztago ordurik zeinetan artuten eztozuzan beraganik mesede asko eta andiak. Baia, zelan egingo dituez ezpadakie askok eta askok, eta geien geienak zer dan fede, esperanza ta karidadeko aktoak edo eginenak egitea? Ikasi bada zelan egin, artean barriz yakin egizue ze karidadeko aktoa dala *Neure J.K.° Jauna* esatea, egiten bada biotzetik; fedeko aktoa dala *Kredoa*, edo *Sinistuten dot*, bear dan moduan esatea, au da kargu eginik zer sinistuten dan eta zegaitik: esperanzako aktoa barriz, dala *Aita gurea* esatea, ez papagaioak legez, ezpabere gure biotza Jaungoikoagan iminirik, eta sinisturik bere grazia eta gure obrakaz edo (eginenakaz) egikerak onakaz batera emongo deuskula zeruko gloria.

Onez ostein mandamentu onek aginduten dausku Jaungoikoa baka-rrik adoretea arima eta gorputzagaz. Lelengo adoradu bear dogu arimeagaz geure Yaube eta egillea, au da humildu bear gara bere aurrean ezaguturik geure ezereza eta bere neurribako anditasuna, konfesetan dogula geure egille, geure ongille, geure salbagille, eta daukagun on guztien emogilletzat: sinistuten dogula adierazo deuskuzan egia ta misterio guztiak, eta iminirik daukagula beragan gure itxaromen eta uste guztiak. Adoradu bere bear dogu gorputzagaz, emoten doguzala kanpotik geure biotzeko ondo gura, ta amodioaren ezaugarri (igargarri) edo señaileak, eta au egiten dogu belauniko yarriten gareanean bere aurrean, oraziño eginagaz, mezea enzunagaz, elexan deboziño ez egonagaz, eta beste onelango gauzakaz.

Modu askotara egin leiteke pekatu mandamentu onen kontra. Lelengo egiten dabee pekatu arako euren gexoetan biderik ezta karden erremedioak egin edo artuten dituezanak, zelangoa dan batzuk egiten dabeena larua daukeanean: ebagi euren oña besteko intxaur azala ta laratzuan eskegi, sinisturik zelan doian sikatuaz, alantxe osatuko dala, eta au bereanez da pekatu mortala siniste osoa daukelako euren ezin arean egin leien gauzeetan. Bigarrenago egiten dabee pekatu mortala aaztuakgana doazanak, edo berbaren batzukaz osatu deioezan, edo zerbaist galdu badabe non dan, edo nok kendu daben esan daioen. Irugarrenago egiten dabee pekatu berbaren batzuen indarrez osatuten dabeenai dei egiten deutseenak; eta ezteutso berba oneek santuak izanagaitik; ze ikusten



danetida onelangoak geien geienetan, gizon eta andra galdu batzuk izan oi dira, ta sarri ta sarri enbustero ta guzurti garbi ta galantak, jentea engañetarren eta euren lepotik yan ta edatearren dabilitzanak. Laugarrengo egiten dabe pekatu mortala, ez yakiteak eskusetan ezpadituz, arako guraso eta iñudak ume txikiak... eta beste alango milla zorakeria iminten deutseenak, uste dabela aekaz libre geratuko direala begizkotik eta beste gatxeetatik. Aita, zer egingo dot bada? Umea gexorik daukat, ezteust lorik egiten bere isten; gau guztian negarra dario, argalduaz doa, eta eztaikit ala dan begizkoagaitik, ala dan sorginkeriagaitik, ala dan beste gauza deungaren bategaitik. Umea gexorik daukezula (daukazula), eta eztaikizula zegaitik dan? Bada yakin egizu ze gexo ori etorri lekikiola edo Jaungoikoak alan disponietan dabelako zure pekatuakaitik, edo yakinik zuk deungaro asiko dozula, beragana gaztetarik eroan gura dabelako, edo beste motibu guk ezin igarri doguzan asko gaitik; bai eta bere etorri leiteke umearen geixoa, eta geienetan alan izan doa guraso edo iñude askoren erruz, eta onetan eztau eskrupulurik iñok iminten, izanik askotan euren ume askoren erioztzean sustraia. Askok eta askok eztabee beste gauzarik egiten yan eta edan edozein gauza baño asetu artean, eta alan galduten dabee ugatza, edo iminten dabee umeak ezin artu leikean moduan, eta gero urteiten dabe esanez, eztaikit ume onek zer daukan, begizkoren bat egin deutse oneri. Zeuek, zeuek zaree geienetan ori alan egotearen errua daukezenak. Beste batzuk eukiten dituez umeak oraindokoarren iru edo lau illabete eztaukeenak euren erdian oien barruan, eta euren arnasa eta berotasun larregiagaz geixotuten dituez ume bigunaren erraiak eta odola, eta gero esaten dabe umeak ezteutsela lorik egiten itxiten, sorginen batzuk darabillea, eta onelango erokeriak. Beste batzuk geixotuten dituez umeak leku santu onetatik ezin esan leitekezan gauzagaitik; bada matrimoniñoko gauzaak bere dauke euren denporea, modua eta neurria, eta ez ezarri errua edo gaizkiñai, edo sorgiñai, edo ari edo besteari; zeuek zeuen matrimoniñoko gauzak dira askotan eta geienetan umeen geixoen sustraia. Beste gauza asko egoan zer esan onen ganean; baia itxi daiguzan loitu zedaiguzan ezpanok.

Bostgarrengo egiten dabe mandamentu santu onen kontra pekatu mortala Jaungoiko eta Santuen izena blasfemetan dabeenak. Ba'kit onen ganean ezyakinak eskusaduko dituzala batzuk pekatu mortaletik; baia ez geienak, alan emoiten dabeen exenplo txarragaitik, zein enzun izango dabeelako edo nos pekatu ikaragarri onen ezaintasuna. Baia orregaitarren bere sarri eta sarri enzun doaz yokoan, tabernan eta beste leku eta okasiño askotan berba batzuk ain deungaa ze, edozein Kristiñau geratu bear

litzateke arritu eta ikaraturik. Batzuk esaten dabe: diñodana gaur esan dan Ebanjelioa baxen ziertuagoa da. Beste batzuk au Ebanjelio legez da egia, edo Ebanjelioa berbera da. Beste batzuk ikusten direanean gatxen bategaz edo yazoten yakenean kalte edo galtzaiaren bat, esaten dabe: Niri Jaungoikoak ezteust gura: imposible da Jaungoikoak ni galdu gura enabela; eta beste onelango ezin entzun leitekezan burubako blasfemiak. Oneek guztiok, bada, egiten dabe geienetan pekatu mortala; eta baderitxe diñoen gauzea dala ain ziurra, zein Ebanjelioa, bera izango da bere blasfemia herejiazkoa, konfesiñoan berez ta aparte konfesau bearko dabeena.

Azkenean barriz egiten dabe mandamentu santu onen kontra pekatu Elexan erreberenzia ta lotsa bagarik, egokera deungan, berbaz edo barreka egoten direanak. Jaungoikoaren etxea dirausku J.K°.k, oraziño egiteko etxea dala, non daukan Jaungoikoak berak bere bizi lekua. Bageunko bear dogun fede bizia, zeru eginik ikusiko geunkez Elexaak diño S. Juan Krisostomo-k, eta oraindio bere andiagoo da alde batetik eta obeagoa Elexea Zerua baño; bada etzan egin Elexea Zeruagaitik, ezpada Zerua Elexeagaitik. Orretan bere neure Kristiñauak, zek egiten dau ain zori-oneko, eta ain andi Zerua? Jaungoikoa an egoteak. Bada neure Kristiñauak, auxe berau daukagu geure Elexetan: ementxe bertan dago benebenetan Jaungoikoa, eta egia guztiagaz ortxe altara orretan dago Aita Eternoa; ortxe dago J.K°. bere Seme bakarra, bere gorputz eta arimeagaz batera Zeruan bertan dagoana legetxe: ortxe dago Espiritu Santu Jauna Aita eta Semeagaz naste. Altara orren inguruan auspez etxunik humiltasun andi bategaz adoretan euren egille, yaube, eta Jauna: beingoan esateko, Zeru guztia dago gure Elexetan. Baia orregaitik bere ain andia da gizonen itsumendia ze, ezagutu ta konfesadu arren egia au, dagoz Elexan plazaan legetxe, batzuk etxunik, besteak lo..., onek barreka, aek berbetan: orain begiratuten dabe nor sartuten dan, gero zelango yaztekoak doian. Eta, zeinbat bidar urbedeinkatu onzietan iñon direan kunplimentu eta zorakerietan? Beste batzuk etorten dira Elexara egunen batzuetan ikusi eztaben personeari agur edo berba egiten; yarten dira alkarren ondoan, eta itanduten deutse alkarri zelaz dagozan etxeok, osasunik badauke, ze barri dagoan, urliagaz egon bada, eta modu onetan dagoz konbersaziñoan, plazaan bailegozana legetxe, eta ameneko altareari atsea emonik.

A fedebako Kristiñauak! Jaungoiko orren aurrean dagoz bildurrez ikara Zeruko Serafinak, eta zuek lotsabakotasun orregaz: Angeruak dagoz alabetan lurreragiño makurturik, eta zuek zagoze askotan banidade eta zorakeriaz buru eta gorputza yanzirik Jaungoiko baten aurrean, eta etxean alkarri siñuka, irri-barrez eta tabernan bazengozena legez. Eta orre-



gaitarren bere eztago onetan eskrupulurik, ezta konfesau bear danik bere. Baia, zer dinot eskrupulu? Noragiño eldu da askoren itxumendia? Zeinbat mutil eta neskatilla, gizon ta andra zoro elduten dira Elexara euren biotzeko su loa alkarrerri adierazoten euren zikinkeriakaz beteriko begikune eta siñuakaz? Zeinbat persona egoten dira Elexan murmuretan? Zeinbat persona? ...baia ezin esan neiz guztiak. Egin leio Jaun andi oneri desprezio andiagorik? Eta, ze kastigu mereziduko dabe onangoak, J.K°.k Jerusalem-go Elexan orduko sakrifizioetarako bear zirean gauzaak saltzean egozanak atara bazituzan narruzko azote bategaz? Bildur izan zaitze neure Kristiñauak zuek Elexan lotsabagarik, berbetan, iñogaitik deungaro esaten, burlazar ta barreka zagozen artean Sakramentu Santu orretan egon ze din eskribietan zeuen kondenaziñoko sententzia. Idigi daiguzan neure Kristiñauak edonos gure fedeko begiak, eta konsiderau daigun noen aurrean gagozan Elexan, eta auxe izango da asko humildanzia, lotsa ta deboziño bertan egoteko.

2. ITXAROMEN EDO ESPERANZEAREN GANEKO IKASBIDEA

(B. 16-19. or.)

Bigarren onoide edo birtute teologala da Itxaromen edo Esperanza, eta da Jaungoikoak gure ariman iminten daben doe, onoide edo birtute gure izaitze ganetiko bat, zeinek garoazan itxaruiten edo zeinek itxaron eragiten deuskun Jaungoikoagan emongo deuskula gloria bere erruki edo miserikordia gaitik, eta bere grazia ta laguntasunagaz egin daikeguzan egite onakgaitik. Diñogu itxaromen edo Esperanza dala doe gure izaitze ganetiko bat, eztagoalako naturalezan edo geugan birtute au, eta bear dan moduko Esperanza eukiko badogu, Jaungoikoak berak emon bear deuskulako; orregaitik eukiko badogu benetako Esperanza, Jaungoikoaganik etorri bear yaku; baia geurez ezkara duin esperanza au eukiteko. Iru gauza begiratu bear doguz itxaromen, edo Esperanza bear dan modukoa izango bada; zer itxaroten dogun, noganik itxaroten dogun eta zelan itxaroten dogun. Lelengo begiratu bear dogu zer itxaroten dogun, edo zer esperetan dogun. Itxaron bear doguna da, zeruan Jaungoikoa arpegiz arpegi ikustea. Auxe da itxaromen edo esperanza guztia; baia onetara elduteko, bear doguzana legez obra onak, oneek bere sartuten dira esperanza onetan, eta alan esperetan dogu Jaungoikoaganik, zerura elduteko bear dogun guztia, zelangoak direan bere grazia, eta laguntasuna, Sakramentuak, pekatuan bagagoz euren parkaziñoa, eurak parkatu ezkerro, atzera ez biurtu eiteko grazia, tentaziñoak eta ekandu deungoak goitu edo benzietao indarra, eta berba baten zerura elduteko bear dogun grazia. Baia ez gara geratu bear onetan, ze geuk bere, geure aldetik egin bear dogu alegina betiko bizitzara eltzeko; eta bitarteko oneekaz balietao, ze osterantzean ezta itxaromen edo esperanza benetakoa izango. Itxaron bere giñaikez Jaungoikoaganik gorputzeko onak, zelangoak direan, bizitzea, osasuna, yanari, edari eta yaztekoa, ondasunak eta bizitza au igaroiteko bear dituguzan beste gauza guztiak; baia izan bear da Jaunaren honra, eta geure arimeen onerako izango badira, ganekoan ezin itxaron ginaikez Jaungoikoaganik. Sarri itxaroten dogu emongo deuskula Jaunak osasuna, bizitzea, ondasunak, eta ganeko gauzaren bat, usterik gere arimeen onerako izango yakula; baia ezteuskuz Jaunak autortu, edo konzedietan, dakialako,



emongo baleuskuz gure kondenagarri izan litzatekezala; eta orduan guk beraganik itxaroten doguna ukatutea da bere errukitasun andiena.

Bigarren, itxaromen, edo Esperanza begiratu bear doguna da nogan itxaron edo esperetan dogun. Jaungoikoagan bakarrik ifini bear dogu geure uste guztia; bada ezin bestek emon leikeguz geure arimako onak, ezin iñok parkatu leikeguz gure pekatuak berak baño; ezin bestek imini leike grazia gure ariman berak baño, ezin iñok zerua emon leikegu berak baño. Gorputzeko onak beraganik datorkiguz, bada gizonen batek mesederen bat egiten badeusku, lelengo mesede onen iturri ta sustraia Jaungoikoa da, eta gizona ezta bere bitarteko bat baxen, eta alan, edozeinbere on edo mesede artzen dogunean, beti beti ezagutu bear dogu Jaungoikoaganik datorrela. Ifini bere ginaike geure ustea Ama Birjina eta Santuetan, eta eskatu eurai pekatuen parkaziñoa, ondo konfesetako grazia, Demoniñoagaz ondo peleetako indarra, gorputzeko osasuna, bizitzea igaroiteko bear doguna; baia eztozu sinistu bear eurak emongo deuskuezala geure eskariak, ezpada eurak gure bitarteko eginik erregutuko deutsela Jaungoikoari, eta Santuak Jaunaren adiskide ain maiteak izanik, emongo deuskula euren erreguz itxaron eta eskatuten doguna. Bardin munduko gauzeetan bere. Gizon batek beste bateri mesederen bat egiten badeutso, aberatz batek pobre bateri limosna egiten badeutso, da Jaungoikoak bere biotza ukutu edo yo deutsalako eta alan sinistu eta konfesadulle bere egin bear dogu daukaguzan eta euki al daiguzan on guztien emollea dala Jaungoikoa, datozala nondik datoza, eta orregaitik beragaz bakarrik imini bear dogu geure uste guztia.

Esperanza begiratu bear dogun irugarren gauzea da zelan esperetan dogun. Gure esperanza ziur ziur, edo ziertu ziertua izan bear da; bildur baga dudatzaka, uste bear dogu ezteuskula Jaungoikoak gloria eta ara elduteko bear dogun bere grazia eta laguntasuna ukatuko. Berak dauko esanik ezteuskula ukatuko bear dogun gauzarik; yo daiguzala ateak, eta idigiko yakuzala, eskatu daigula eta emongo yakula; eta ain da leiala ta prestua emoniko berbea ta baia yaoten ze, leenago uts egingo dabe zeru luurrak, bere esanak baño. Baia esperanzearen ziurtasuna, edo seguridadea ezta ain andia zein da fedearena; zegaitik ze fedea alde guztietatik da ziur edo ziertua, dagoalako sendatu edo fundaurik Jaungoikoaren esanean bakar bakarrik; eta orregaitik fedea diñoana alantxe da, alantxe izango da, eta ezin beste gauzarik izan leiteke. Esperanzearen ziurtasuna ezta onelangoa; ze eztago Jaungoikoaren iskini edo promesan bakarrik, bear bere dalako geure aldetik egitea alegina, artuko badogu itxaroten doguna; eta ziur edo seguru egon arren ezabela faltaduko Jaunaren aldetik, ezin

ziurtasun au euki giñaike, eztozula gure aldetik ukatuko. Orregaitik gure esperanza au beti dago nastadurik ziurtasunez, eta bildurrez. Alde bate-tik yakinik ze leiala dan Jaungoikoa bere esanetan, ze neurribakoa bere ontasuna, eta ze azkenbakoa bere erruki edo miserikordia, esperanza oso oso bat euki bear dogu beragan; baia ezaguturik bestetik gure aragiaren argaltasuna, gure ekandu zitelen indarra, Demoniñoaren asmuak, eta mundu onetako pelleburuak, ezin yakin giñaike, eranzun gurako badeutsagu Jaungoikoaren deiai, eta onexek euki bear gaituz bildurrez ikara. Uste oso eta bildur onen artean ibili bear gara, izango bada bear dan modukoa geure itxaromen edo esperanza, yausi ez gaitez an desesperaziñoan, edo esperanza larregian.

Onexek biok dira Esperanzearen kontrako pekatuak. Lenengoa desesperaziñoa, eta da uste izaitea ezin salbadu leitekeala edo nai ta nai ez, kondenadu bear dala; edo eztagoala beretzako erremediorik, ain direalako andi eta ikaragarriak bere pekatuak ze, ezin euretatik urten leiala, ezteusalako Jaungoikoak emon gurako euretatik urteiteko bear daben grazia; edo grazia onegaz bere ezin urtengo dabelako. Eta baderitxo, ain direala andiak bere pekatuak ze, eztaukala Jaungoikoak eurak parkatuteko bear dan erruki edo miserikordiarik, au herejia izango da. Pekatu honetan yausi oi dira arako pekatari itsutu, Jaungoikoaren bildur bagarik edozein tranpa, edozein engaño, eta edozein guzurregaz al daizen ondasunak irabazten dituezanak, aragiaren gustu zitalez mando zaldi legez aseten dabil-tzanak; al daien guztian ordituten direanak, eta beste edozein bere peka-tu ura legez edaten dituezanak. Ezarten dituez pekatuak pekatuen ganean, igoten deutsee oneek burugiño, makurtuten dituez euren pisuak lunegiño, bildurtuten dituz euren ezaintasunak, dagoz indar bagarik ain ikaragarri-zko karga yasoteko; eztauke podererik, datzazan lupatzatik yagiteko. Tris-tetuten yake biotza, ilunduten yake errazoa, etxuten dira yaso ezin daben karga eskergeagaz, eta yausten dira desesperaziñoan. Kontu bada, Kk., zeuen guraari zitalak lenengotik, eta ezagutu orduko ezi, eta kenduteagaz, bada itxiten badeutsezue indarra artzen, desesperaziñoa eroango zaituez. Gozo dira lelengoa, bigun sartzan dira biotzean, eta beti abietan oi dira norbait itxi eta Jaungoikoagana biurtuteko esperanzeagaz, baia azkenean desesperaziñoa eroan daroe...

Esperanzearen kontrako bigarren pekatua da esperanza larregia, edo presunziñoa. Modu askotan euki leiteke pekatu au. Lenengo: egiten dau pekatu uste dabenak, bere alegin, eta indarrakaz bakarrik, eta Jaungoiko-aren grazia eta laguntasun bagarik, eldu leitekeala zeruko gloriara edo sinistuten dabenak ezala bear graziarik obra onak egiteko. Bigarrego:



deritzanak, ain dala andia Jaungoikoaren errukitasuna ta miserordia; ain ugariak J.K°.k guretzako irabaziriko merezimentuak ze, eurak gaitik beste bagarik salbaduko dala obra onak egin ez arren; eta pekatuak parkatuteko asko dala J.K°.ren eriotzea eta pasinoa penitentzia eta damuen bearrik baga: oneek biok herejeak dira. Irugarren: uste dabenak eztireala ilgo konfesadu bagarik Ama Birjina, Sta. Barbara, edo beste Santuren bateri deutesen deboziñoagaitik, eta egunean egunean Aita-gure eta Abe-marien batzuk errezetan deutsezalako; uste zoro onegaz, nai daben moduan eta pekatuetan sarturik bizi direala. Laugarren: pekatuaren pelleburu, eta mugaldi edo okasiñoa itxi nai eztituzanak, sinisturik, euretan imini arren, eztala pekatuan yausiko. Ez leuke batek pentsamentu loi, orakada zikin, eta berba atsitueta yausi gura; baia ez leuke itxi nai erronomia, yolas, danza, eta berbaldi edo konbersaziño arin eta alegrea; eztau alderatu edo apartadu gura laztan daben mutil, gizon, neskatilla edo emakumeaganik, deritxalako eztala orregaitik pekatuan yausiko. Ez leuke besteak orditu gura; baia eztau itxi gura tabernea eta beste lagun, nortzukaz orditu oi dan. Ez leuke onek maldiziño, birao, ez añañorik ezarri gura; baia eztau itxi gura yokoa non botaten dituzan, usterik, ara yoan arren eztituzala botako.

Bostgarren: egiten dabe pekatu euren ekandu, eta oitura zitalaetik urten gura eztabenak, sinisturik, gero egingo dabeela, euren pekatuen penitentzia. Onelangoak luzatu oi dabee konfesetea, eta penitentzia egitea egunerik egunera, ilerik ilera, eta urterik urtera. Onelangoai itanduten baiakoe zegaitik ainbat lasterren urteiten eztaben euren pekatuetatik, bertatik agiriko da, euren bide bagako esperanza larregi edo presunziñoa. Oraindio gaztea nas eranzun daroe, denporeari emon bear yako berea; ezta orain txotxakerietan ibilteko denporea. Arako urteak aurrera doazanean izango da denporarik onena, penitentzia egiteko. Arte atan enas ilgo, osasun ona daukat, gorputz sendoa, eta indar andikoa, eta eztau Jaungoikoak gurako penitentzia egin bagarik eta konfesadu bagarik il naitean: andia da bere errukia eta eztau gura iñor galdu daitean. Oraindio bere geiago estutu gura badozuz eranzungo dabe, gauza andi bat esango balebe legez, zetako egin dau Jaungoikoak zerua, lastoz betetako ala? Zeinbat onelango esperanza zoro ete dagoz infernuetan! Seigarren: egiten dau pekatu, bein pekatu egin ezkerro, aurrera pekatu eginaz doiana, diñoala: bein pekatuan nagoan ezkerro bardin da pekatu bat konfesetea, zein asko; etzako Jaungoikoaren errukiari geiago kostetan pekatu asko parkatutea, zein bat. Ez eikezue esan, diño Espiritu Santuak, andia da Jaungoikoaren errukitasuna, ta berak eukiko dau nire pekatuaren errukia; eta uste one-

gaz etzaitze egon zeure pekatuetan, ze bertatik etorriko da bere erruki eta aserrea.

Zazpigarren: egiten dau pekatu gura leukianak Jaungoikoak mirari, edo milagroren bat egin daian, premiña edo nezesidade bagarik, eta berak ezer egin bagarik. Esaterako: dago gexorik eta esanik medikuak osasungei edo medizina onegaz, edo besteagaz osatuko dala, eztau gura egin medikuak dirautsana, nai leukeala Jaungoikoak mirari edo milagroren bategaz osatu dagian. Bardin da nai baleu batek Jaungoikoak emon deion yanari, yasteko, edo beste bear daben guztia beretzat, eta bere seme, eta alabeentzat berak ardurarik artu baga, bearrik egin baga, eta alperrik dagoala. Ara, Ka., egizu zeure aldetik alegina osasunagaitik, eta beste bear dozuna irabazteko, eta onegaz batera erregu egiozu Jaunari emon deizula osasuna, eta beste, bizitzea igaroiteko, bear dozuna, eta orduantxe izango da bear dan esperanza. Baia onetarako esperetan dozuna bide onekoa izan bear da; bestelan Jaunaganik itxarotea, pekatu izango da. Esaterako: daukazu auzi oker bat, zeinetan eztaukazun errazoerik, eta badaukazu bere, ezteutsazu yarraituten, zeureagaz urten eta besteari gastadu erazotarrren baxen; bada itxaroitea orduan Jaungoikoaganik auzi au irabaztea izango litzateke gauza deunga bat itxarotea Jaungoikoaganik, eta au ezin egin leiteke pekatu bagarik.

Esperanzako egintza, edo aktoak egin bear dira, fedekoak egin bear direanean. Lelengo: Kristiñaua errazoen usura eldu deitenean. Bigarren: desesperaziño edo esperanza larregiko tentaziñoaren batek estututen dabenean. Irugarren: Penitentiako Sakramentua artu bear danean; bada izanik Sakramentu au gure pekatuak parkatuteko, ezin onek euren parkaziñoa eskatu leio Jaunari, ezpadauko parkatuko deutesanen itxaromen edo esperanzarik. Laugarren: eriotzako orduan, bada izanik zerua, lenen itxaroten dogun gauzea, eztozu iños obeto sendatu bear, bertara elduteko esperanza, bertan sartzeko ain urrean gagozanean baño. Laugarren: oraziño egin bear dogunean, edo zerbait Jaunari eskatu bear deusagunean; bada eztau iñok eskatuten itxaroten ezpadau emongo yakala. Bostgarren: sarri gure bizian, Fedeko aktoak-gaitik esan dana legez.



3. ERASOGINTZA

(B, 19-20. or.)

Ain dago zabaldurik mundu guztitik esperanza ze, eztozu aurkituko Kristiñaurik, zerura elduteko uste edo esperanzarik eztaukanik. Betor pekaririk itsu eta galduena, eta pekatuak ura legez edaten dituzana. Bebil lapurreta, ordikeria, loikeria, eta gogora eldu al leitekezan pekatu guztietan sarturik dagoana [sic], eta bere arimea, eta Jaungoikoa gomuta bagea; itandu bekio daukan ala ez zeruan Jaungoikoa arpegiz arpegi ikusteko esperanzarik? Bertatik eranzungo dau baietz. Baia au badiño bere, deretxat (deritxat) onetatik geienak eztaukela benetako esperanzarik, ze euki ezkerokoan ez litzateke ain nagī, ain otz egongo zerura elduteko bear dan bearra egiteko, pazientzia andi bategaz igaro edo eroango lituke mundu onetako nekeak, eta ez leuke ain ardura andia eukiko munduko ondasunak batuteko. Egia au ezagutuko dogu, yakinagaz, zer egiten daben benetako esperanzeak, bera daukanagan, edo zelangoak direan bere egin-tza edo afektoak. Lenengo emoitē dau itxaroten daben gloriara elduteko bear dan guztia egiteko gogoa. Au irakazten deusku Santiago Apostoluak nekezale baten irudiagaz. Ze pozik daroazan onek, solo baten egiten dituzan berrak! Neguko otzak, udako beroak, goxetik yagi, egun guztian makurturik egon, laiea, atxurra, edo beste gauzaren bat eskuan dabela, izerdia dariola egotea! Zek eroan erazoten deutzaz lan, ta bear ain neketu oneek poz andi bategaz? Labore, gari, arto, edo beste bear dabena artzeko usteak, yakinik bearrik egin bagarik ezabela solo atan ezebere artuko. Auxe berau egiten dau benetako esperanza daukanak: poz pozik igaroten dituz zerura elduteko bear direan nekeak, yakinik, ez bakarrik bear dala Jaungoikoaren miserikordia, baita bere geure obra onak; eta egin ezik, ezin esan leike benetako esperanza daukala. Esan egidazu: balego nekazale bat alperrik bere etsean soloa atxurto bagarik, erein bagarik; eta esango baleu, esperetan dabela Jaungoikoagan gari, edo artoa ugari artzeia, sinistuko zeuskio, benetan daukala esperanza au? Ezetz deritxat. Bada beste onen beste da, zerura eltzeko Kristiñau askok daukan esperanza. Eztaudee ezer egin gura, eztabe obra onen azia erein gura, eztabe nekatu gura, eztabe euren aragia ezi gura; alperkeria, gurari zitel eta gogoa emoten deuten buruera guztietan sarturik egon nai dabe, eta alanbe-

re diñoē, itxaroten dabela gloriako frutu gozoa artzeia. Nok au sinistuko deutse?

Bigarren, esperanzeak egiten dabena da, sendatu biotza, mundu onetako gatxak pazienziagaz eroateko. Neke eta lan andien artetik irago bear dan, zerura eldu nai dabenak, diño San Paulo Apostoluak (...). Ezta-go beste biderik ara elduteko. Ain da gauza bearra, bide latz eta garratz au igaroitea, ze ezta iñor beste bidetik ibili, ezta J.K. bera bere. Orain bada, zelan esan ziñaike itxaroten dozula zerura eldutea, ibili gura ezpazara bide onetatik? Kontu egizu, uri eder zoragarri bat dagoala mendi guztiz eregi edo altu baten ganean, norako eztagoan bide bat bakarrik baño. Esango bazendu eztozula igaro gura bide atatik, sasi, arantza eta abarrez beterik dagoalako, eta onezaz ostean aldats andiak daukazalako, eta alanbere itxaroten dozula uri eder atan bizi izaitea, nok sinistuko leikezu? Ez iñor; edonok esango leuke zure esperanza ori ezala benetakoa. Ara bada, uri eder ori da zerua; bide garratz, eta arantzaz bete ori da mundu onetako gatx, neke lan atsakabe, eta nai-bageak. Gura badozu bada uri orretara eldu, nai badozu bertan bizi izan, pazienziāz igaro bear dozuz; bestelan ezin esan zinaike daukazula benetako esperanza bertara elduteko. Irugarren, benetako esperanzean egiten dabena da kendu mundu onetako ondasun, anditasun, eta beste gauza guztien ardura larregia. Norbaitek zerbait alkanzadu nai dabenean, kentzen dituz bera eukitera eltzeko galazoten deutsezan estropezu guztiak, eta ezta eurretan, edo euren arduraren geratuten; izanik bada ardura larregi au estropezu andi bat zerura eltzeko, balego benetako esperanza, ez litzateke ainbeste ardura, ainbeste alegin, ainbeste gurari eukiko mundu onetako gauzakgaitik. Ze ondo irakutzi ebeen santuak, benetako esperanza eukeena! Ez egunez, ez gabez egozan geldī; oraziñoa bateti, baraua bestetik, emetik mortifikaziñoa, andik pobrezea, guztia garbitasuna, guztia humiltasuna, eta guztia alegien bearra egitea; eta alanbere beti bildur santuz yosirik. Eta guk nagitasun, alperkeria eta munduko gauzeetan emonik denporea, deretxagu (deritxagu) artez artez goazala zerura. Kk., euki daigun esperanza oso osoa Jaungoikoagan, yakinik, andiak badira bere gure pekatuak, andiagoa dala bere erruki edo miserikordia, baia lagundu daigun esperanza au geure obra onakaz, igaro daiguzan pazientzia andi bategaz, datorkiguzan nekeak eta artuko dogu sari ugaria zeruan. Amen.



4. JAUNGOIKOAREN LEGEKO [BIGARREN] AGINDUAREN EDO YURAMENTUAREN GANEKO IKASBIDEA

(B, 25-28. or.)

Non assumes nomen Dni. Dei tui in vanum,
nec enim habebit insonem Dns. eum
qui assumpserit nomen Dni. Dei sui frustra.
Exod. 20. v.7.

1. Jaungoikoaren legeko bigarren mandamentuak aginduten deuskuna da Jaungoikoaren izen santua ez utsean artzea; edo bardin dana, yuramentu alperrekorik edo falsorik ez egitea. Yuramentua da esaten dan gauzearen egien ganean Jaungoikoa testigutzat ekarte. Modu askotan yuramentu egiten da: kurutzeari, justiziako zigor, txuzo edo beste ezaugarri edo señaleari mun eginagaz; Ebanjelio, kurutze, edo justiziako zigorrean eskua iminiagaz; esanagaz: *yuramentu egiten deusat Jaungoikoari, Trinidadeari, Jesukristori*, eta alan. Da bere yuramentu testigutzat ekarte arako kriaturak, zeintzuetan argiago, edo klaruago agiri dan Jaunaren ontasun eta anditasuna; esango balitz legez: *Ama Birjinea gaitik, zeruko Santuak gaitik, J.K.ren pasiñoa gaitik, zazpi Sakramentu, edo zerua gaitik*. Baia au esaten bada arako gauzak gaitik zeintzuetan eztan ainbeste ezagututen, edo eztan ain argi agiri Jaungoikoaren guganako ontasuna, ezta yuramentu izango; esango balitz legez: *eskuan daukadan oñagaitik; auxe emen daukadana legez*. Ezta yuramentu esatea: *ementxe naganana legez, Kristiñau nasana legez* (edo como soy Cristiano), *gizon prestu nasanez, neure konzienzian*, bada itzkune oneetan ezta Jaungoikoa testigutzat ekarten. Beste esakune modu bat, guttiz sarri euki oi da aoan: *ondo daki Jaungoikoak egia diñodana*, edo *guzurrik eziñodana*. *Jaungoikoaren aurrean nago*, eta *daki zer diñodan*, oneek dudazkoak dira. Esan gura badozu, ezin Jaungoikoaren yakituriaganik ezer eskutadu (ostendu) leitekeala, ezta yuramentu izango. Baia esan gura badozu, Jaungoikoa dakarzula, diñozun egiaren testigu, yuramentu izango da.

2. Iru gauza (aurkitu) bear dira Yuramentuan, ona eta bear dan leezkoa izaiteko. Egia, arteztasun edo justizia, eta premiña, eginbear edo

nezesidadea. Lenengo, egia; au da, ziur-ziur egon bear zara, diñozuna, diñozun moduan dala. Artuten deusue yuramentu ea Domeka goxean Pedro elexan egon bazan, ala ez; bada yuramentu egiteko an egon zala, ziur ziur egon bear zara an egoala itanduten deusuen denporan, bada dudan bazagoz begoan ala ez, pekatu mortala egingo dozu. Orregaitik yuramentu arzen danean, bakotxak esan bear dau gauzea berak dakian moduan; ziur dakiana, ziur; dudan dakiana, dudan; ikusia, ikusia legez, eta enzuna, enzuna legez, ezerbere gitxitu geiagotu (askotu) edo aldatu bagarik, bere gogoan, (memoria), edo ustean daukana legez; bada auxe da yuramentu egiagaz egitea. Esan gura dot yuramentuaren egia dago yuramentu egiten dabenak berak, bere memorian, edo ustean daukan moduan gauzea esatean, ez berez dana legez. Esaterako: itanduten deusue, begoan ala ez Juan urlia egunetan yazo zan errieltan; zuk uste dozu ez egoala an, baia benetan bertan aurkitu zan. Zuk yuramentu egiten dozu etzala an aurkitu. Yuramentu au egiagaz da, bada zuk diñozuna, deretxazun moduan da. Bestera. Eritzun zeuri Juan errieltan ikusi zenduala, baia benetan ez egoan an: artzen deutzue yuramentu an begoan; eta zuk gatxen bat etorri ze dakion, yuramentu egiten dozu ez egoala; guzurrezkoa da yuramentu au, eta pekatu mortal; ze egia bazan bere, an ez egoana, etzan au zure eritxia, eta ezta zuk diñozuna zuri deritxazunagaz bardin.

3. Ain da gauza bearra egia yuramentua ona eta pekatu bagea izaiteko ze, ezin iñondik bera bagarik egin leiteke, ezta dan gauzarik txikien, txikien ganean bada bere; eta alan txantxetan, burlaz (barrez), edo yola-sean bada bere, pekatu mortala izango da guzurragaz eginiko yuramentua. Eta alan ezta atxakia ona, guzurragaz yuramentu egiteko, etxakala iñori kalterik etorri, ze pekatu mortala izaiteko asko da guzurragaz izaitea. Jauna, zer egingo neban? Neure adiskide baten kontrakoa zan, eskatuten eusten yuramentua; mesede andiak deustaz eginik, berak eskatu eustan, arren enengiala salatu; eta banekian beste aldetik, nik guzurragaz yuramentu egiten ezpaneban, kalte guttiz ikaragarriak etorriko yakazala, eta bera ta bere etsea betiko galduko zala; bada sartuko ebeen presondegi edo kartzela baten, edo betiko presidio batera botako ebeen, salduko eusten eukan gutzia, bere emazte ta umeak geratuko zirean kaleen erdian. Au ikusiak errukitu ninduan, eta nekiana legez etxakola iñori kalterik etorten nire yuramentutik, orrexegaitik uste izan neban enebala pekatu egiten guzurrezko yuramentu agaz. Bai nai ez, neure K.ak. Bazenkie zuek guzurrezko yuramentu bat ez eginagaitik mundu gutzia galdu, erre eta amaitu edo akabauko leitekeala bere, ezin orregaitio bere yuramentu ori egin



zinaike. Bazenkie zuek guzurragaz eginiko yuramentu bategaz zerura yoango litzatekezala munduan dagozan, eta yaioko direan gizon guztiak, eta urtenik infernurik an dagozan gizon ta Demoniño guztiak, zerura betiko atseginetara igaroko litzatekezala, ezin orregaitik egin zinaike, eta pekatu mortal ikaragarri bat egingo zeunke; bada leenago da Jaungoikoaren honrea, eta bere izen santuari zor yakan itzal eta erreberenzia (lotsea), mundu, zeru, mundutar, zerutar guztien zoriona baño. Ba'kizue zer dan guzurragaz yuramentu egitea? Da Jaungoikoa guzurtizat eukitea, edo esatea Jaungoikoa guzurtia dala; zegaitize norbaist guzurren baten testigutzat dakargunean, guzurtizat daukagu, ze osterantxean, ez geunke ekarriko bere testigutzat. Ze lotsabakotasun andiagorik egin leio Jaungoiko egia bera danari?

4. Yuramentuak, ona izaiteko, bigarren (euki) bear daben gauzea da, arteztasun edo justizia, au da juramentuagaz zerbait aginduten bada; edo esaten bada au edo beste zerbait egingo dala, modu onetan aginduriko gauzea, ona izan bear da. Onen ganean zer yakin bear dan, gero esango dogu. Irugarrengo: yuramentuak (euki) bear dabena da premiña edo egin-bearra: baia au bagarik eginiko yuramentua, bakarrik izango da pekatu beniala, beste biakaz egiten bada, au da egiagaz eta justiziagaz bada. Alan-bere ardura andi bat euki bear dozue, yuramentu egiteko ekandurik edo kostunbrerik ez artzeko, eta artu badozue kentzeko. Espiritu Santuak dirausku: Ez egizue euki yuramentu pitian pitian egiteko oiturarik, ze guztiz dira andiak ekandu orretatik datozen pekatuak. Sarri yuramentu egiten dabena, ezta pekatu bagarik egongo. Yuramentu asko egiten dabena gizona pekatuz beteko da eta ezta bere etxean gatxa faltako. Egia au ikusi eta enzun oi dogu arako saldu erosietan edo tratuan dabilitzezan askotan. Beti dagoz yuramentu urtika. *Baneuko zerua*, esan oi dabe, *opa deustazun beste, edo geiago, ori kosta yatana legez. Eztaidala alderik egin, ori baño geiago opa ezpadeuste. Eneuke zerura joan gura, irabazirik geratuten baiat*. Onelango yuramentuak ezarteko oiturea, edo usadioa daukeenak geienean egiagaz ezarri arren, ezta erraz noxean bein (nos edo nosko) guzurragaz ez botatea, eta bein abietan badira guzurragaz ezarten, eta badakuse sinistuten deustela, eta irabazi ona ateraten dabela, bildur bagarik ezarten oi dituez: bada erraz da, irabazi andi batek arimako begiak itsututea, eta ez ikustea pekatu onen anditasuna.

5. Izan ezkeru yuramentu iru-gauza oneekaz, ez bakarrik ezta pekatu, baia dago egin-bearra, edo egiteko obligaziño estua Justiziako nagusi, edo agintariak eskatuten dabeenean; eta alan ezin eskutadu zinaitekez, ezin iges egin zinaike, zein artu daizuen; eta onelango gauzarik egiten

badozu, ta noribait kalte andiren bat badatorkio, zuk yuramentu ez egina gaitik, askok diño osotu edo errestituidu bearko deustazuzala, zuk yuramentu egin ez gura gaitik datorkiozan kalteak. Errazoe andiagagaz (obeagaz) osotu, edo biurtu bearko dituzuz zure guzurrezko yuramenturik datozenak. Pekatua mortal ikaragarri bat egingo dau, besteri guzurrezko yuramentua erazoten deustanak, edo erregututen deustanak, bere alde-dera edo fabore egin daiala yuramentu guzurrezko edo falsoa. Guztiz dago zabaldurik oitura bat. Prestadu deustazu noribaiti diru edo gauzaren bat, zor deustu zerbait, saldu deustazu epetan baitura zerbait; elduten da emona biurtu edo pagetako denporea, eskatuten deustazu prestadua, zorra, edo saldu deustazunen balioa; ukatuten deustu. Ea bada bertatik yuramentua egin daiala, biurtu badeustu ala ez; pagadu badeustu ala ez. Esan egidazu: badakizu guzurragaz yuramentu egingo dabena ala ez? Bada badakizu, edo baderitxazu guzurrezko yuramentu egingo dabela, ezin erazo zinaio. Eztiñot au nik, ezpabere S. Agustin-ek: Euki eizue dinotsuedana zeuen ariman irrima eskribidurik. Diño Santu andi onek: Iñori yuramentu erazoten deustanak yakinik guzurragaz egingo dabela, pekatu andiagoa egingo dau gizona ilgo baleu baño. Kontu bada, Kk., zein arima bi galdu daizuezan diru edo ondasun puska bat gaitik: bata zeuena, guzurragaz yuramentua erazoten deustazuelako, eta bestea yuramentu egiten dabena.

6. Lau modutakoa da yuramentua, (baieztua, edo) baiezkua, zematugina (zemakuntzazkoa) edo amenazazkoa, biraozkoa, eta aginduzkoa. Lenengoa da, yazo edo igaro dan gauzaren baten ganean alan dala edo eztala yuramentu egitea. Kontu daigun esaten badot: *yuramentu egiten deustat Jaungoikoari eztodala ezer ostu*. Auxe da orain artean azaldu edo explikatu dogun yuramentua. Bigarrena da norbait kalte edo gatzen bategaz zematu edo amenazetea yuramentuagaz (yuramentu egiten dogula). Egiten dau mutil batek gaistakeriren bat, eta dirautsa bere aitak yuramentu eginagaz, J.K°.ren kurutzeari mun egiten deustala: *auxe gaitik ezteubat parkatuko galantak emon bagarik*. Irugarrena da biraoagaz egiten klana: *enaiala emetik yagi diñodana egi ezpada*. Juramentu au izan leiteke igaroriko gauzaren baten ganean, eta orduan izan bear da leenago esan direan iru gauzak: izan leiteke etorteko dagoan gauzaren baten ganean eta orduan euki (izan) bear dau gero esango dogun leezkoa. Esaterako: *Enaiala biar gauera bizirik eldu, orduko pagetan ezpadeustat deustudan zorra*. Laugarrena da aginduzkoa, eta da iskini, prometidu edo berbea emoitea yuramentuagaz (pean) zerbait egingo dala. Iru yuramentu oneek, baten sartuten dira edo obeto esaterren zematuteagaz egiten dan yuramentua beti da aginduzkoa;



biraozkoa izan leiteke edo izango dan gauzearen ganean, eta orduan da baiezkkoa berbera; eta izan bear da bera leezkoa; edo izan leiteke etorteko dagoanen [sic] gauzaren baten ganean, eta azaldurik zer dan aginduzkoa, dago esanik, zer dan, eta zelango izan bear dan.

7. Yuramentu egiten danean zerbait aginduagaz, edo dala zematuz nai biraoagaz berbea emoiten danean, iru egia edo uste (gogo modu) euki leikez yuramentu onek. Bata da yuramentu egiteko benetako gogo edo intenziñoagaz egitea; bestea aginduz, zematutez, edo biraoz eginiko yuramentua bete edo kunplietako borondatea eukitea; eta irugarrena agindu edo esana egitea. Ara esangei bat. Zara gizon aberats bat, bazoaz zeure bidean baia diru bagarik. Urteiten deutsue lapurrak, eta ikusirik eztauka-zula arean, yuramentu erazoten deutsue iru egun barru bialduko deutsazuezala sei milla erreal, zematuten zaituezala eriotzeagaz, yuramentu au egiten ezpadeutsezu. Zuk eriotzearen bildurrez egiten dozu. Iru modutan egin zinaikez yuramentu au: lenengo benetako yuramentu egiteko gogo edo intenziño bagarik, edo aoz edo berbaz (utsakaz) bakarrik: modu onetako yuramentua pekatu mortala da. Bigarren go euki arren yuramentu egiteko gogoa, etzara lotu gura, eta alan eztaukazu sei milla errealak pagadu edo emoiteko gogo edo borondaterik. Yuramentu modu au bere pekatu mortala da. Irugarren go egiten dozu yuramentua benetan, edo egiteko intenziñoagaz, baita bere daukazu gogoa sei milla errealak iru egun barru eroateko, baia eztozu yaramonik egiten, edo irugarren eguna eldu arren, ezteutsezuz eroan edo biralduten. Yuramentu au egin zenduanean, etzendum pekatu egin; baia egingo dozu betetan ezpadozu yuramentuagaz emoniko berbea. Beraz (alan) lapur areri pekatu mortalen bean bialdu edo emon bearko deustadaz sei milla errealak: esango deustazu. Ez Kristiñauak. Onelango gauzarik yazoten baiatsu, zoaz zeure konfessoreagana, esan egiozu zer yazo yatsun, eta eskatu egiozu askatu zaizala yuramentuen bitartez artu zendum egin-bear edo obligaziñorik.

8. Itxi daiguzan gitxitan yazo oi direan yuramentu oneek, eta begiratu daiguzan, egunean egunean egin oi direanak. Zerbaist iñori aginduten deustazunean, edo berbaren bat emoiten deustazunean, bardin da kastiguren bategaz zematu edo amenazetan dozunean, bardin birao egiten dozunean, euki bear dozu gogoa agindu, zematu edo birao egiten dozun gauzea egiteko nai dala andia nai txikia, nai dala ona, nai dongea, bada ezpadaukazu gogorik edo borondaterik, pekatu mortala egingo dozu. Egiten dozu yuramentu pobretxu bateri lau ziri emongo deustazula; bada ezpadaukazu emoiteko gogorik, pekatu mortala egiten dozu gauza txikia bada bere. Dakutsu zeure semea gestakerian (okerkerian) dabilela eta

dirautsazu: *milla demoniñok eroan neiala (naiala) afaririk gaur emoten beubat*: au esan zenduanean bazeunkan afaririk ez emoiteko gogo edo intenzinorik, etzendum pekatu mortalezko yuramenturik egin: baia bazeunkan afaria emoteko edo ez kenzeko usterik, pekatu mortala egin zendum. Eskatuten deustu batek, esan daizula guzurtxu txiki bat, bildur dalako agiraken bat egin ezteioen, eta zuk gauza au estaldu daizun gurariagaz esaten deustu egin deiozula yuramentu guzur au esango dozula, eta zuk egiten deustazu yuramentu. Bada yuramentu au egin zeuntzanean, bazeunkan gogo edo intenziñoa guzurra esateko, pekatu beniala bakarrik egin zendum; baia ezpazeunkan guzurra esateko usterik, pekatu mortala egin zendum. Zure yuramentua bada pekatu mortalen bat egingo dozula, pekatu mortala egingo dozu, nai euki daizula, yuramentuagaz agindu dozuna egiteko gogoa, nai euki eztaizula. Badaukazu, egiten dozu pekatu mortal, bada eztauka yuramentu orrek bear leukean arteztasun edo justiziarik. Ezpadaukazu, egiten dozu pekatu mortal, zure yuramentu ori guzurrezko edo faltsoa dalako. Irudi bategaz au argituko dot. Esaten deustuz lagun batek berba astun batzuk; emoiten deustazu kerella bat; ezagututen dau arek deungaro egin dabena eta bialduten deustu adiskide baten bitartez parka eskatu eta bakeak egitera, eta zuk diñozu: *eztaidala Jaungikoak zerua emon orreri parkatuten badeutsat*: pekatu mortala egin zendum; ez parkatuteko intenziñoagaz bazan, ez eukalako bear zan arteztasun edo justizia, eta bazeunkan, etzalako egiagaz.

9. Yakinik ze gogo edo intenziño eta uste euki bear dan aginduzko yuramentuan; ikusi daigun, zelan bete edo kunplidu bear dan yuramentuagaz agindu dana, eta ze pekatu dan ez kunplietea. Agindu edo prometidun dozuna nagusi edo grabea bada, pekatu mortala izango da ez yagotea. Egiten dozu yuramentu ogei erreal (ogerleko bat) emongo deustazula pobre baten, emoten ezpadeustazuz pekatu mortal egingo dozu. Aginduriko gauzea txikia bada, pekatu mortala izango da ez emoitea. Yuramentua bada pekatu egingo dozula, eztozu eukiko yuramentu au zer zaindu; nai izan deila mortala, nai izan deila beniala. Egiten dozu yuramentu eztozula meza enzungo yaiegunen baten, eztozu gorde bear yuramentu au, eztozu pekatu barririk egingo meza enzunagaz, eta egingo dozu pekatu ez enzunagaz. Egiten dozu yuramentu guzur txiki bat esango dozula, eztozu pekatu egingo ez esanagaitik. Bardin da egiten badozu yuramentu eztozula egingo gauza onen bat...



5. BIRAOAREN GANEKO IKAS-BIDEA

(B, 33-35. or.)

Venenum aspidum sub labiis eorum.

Psal. 13.

1. Da biraoa Demoniñoari norbaistentzat dei egitea, edo eskatutea gatxen bat norberen buruari, edo iñori etorri dakiola: esaten danean legez: *milla Demoniñok eroan aiala, eriotza gogorak artu aiala; bizirik biurtu ez adila; lupu gogorak yo aiala; tripa-ala minak aroala; arren bada gorrongi gogorak nire begietatik kenduko al au*, eta onelango beste ainbat modu, ze eztago guztiak kontadu al daianik. Esaten dan gatxa andia bada, eta gogo edo deseorik badago yazo edo etorri dakion, pekatu mortala izango da. Atenziño zagoze, Kristiñauak, bada da guztiz bearra emoitera noian doktrinea, bada ain dago zabaldurik pekatu genero au ze, deritxat, Kristiñau guztiz asko doazala beragaitik Infernuetara. Sarri-askotan etorten oi zare konfetesara, eta esaten oi dozue: Aita, nik birao asko bota dodaz, baia ez tira biotzetik izan. Baia ezin beti sinistu legikezue. Gura dozue yakin biotzetik direanez ala ez? Ara emen bada ezaugarri alazokoa. Birao egiten deutzazun persona ori laztana badozu esaterako adiskide guztizkoren bat, senar edo emaztea, nori asko gura deutzazun, eta nogaz bakean bizi zanean; nosean bein eta gitxitan bada, eta su andi bagarik, señale (agiri) da eztiareala biotzetik izan. Baia birao egiten deutzazuenagaz aserraturik bazagoz, agiri da biotzetik dana. Kenduten deutzue falta andi bat egiten deutzun gauzaren bat, eta aserraturik orregaitik diñozu: *Arren, bada beso biak yausi (igartu) dakiozala*; ondo agiri da biotz txarra daukazula bere alde-rako, eta gur'ozula yazo dakion. Emoiten badeutzue auziren bat, eta erra-zoerik euki ez arren zure eretxian, irabazten badeutzue, eta sentimentuz beterik esaten dozue: *Jaungoikoak, niri egin deustana legez, pagadu dagiola; arren bada aterik ate ikusi dagidala; luzidu eztaiala; auts biurtu dakiola; gexo gogorrean gastadu dagiala*. Onek eta onelango biraoak geienetan dira pekatu mortala-

2. Baderitxazu eztaukazula orduan yazo din [sic] gogorik, esan egidazu: nos bota oi dozuz birao orreek? Egin deutzuen gatxa gomuta dozuenean; aen ganean berba egin deizuenean; baita onetarako zeruragi-no ponderetan (goratu) dozue egin deutzuen gatxaren anditasuna, guztiai adierazoten deutzue sentimentuaren (naibagearen) anditasuna ain modu-

tan, ze eztozu aurkituko dantzueenetatik bat, zeinek esan eztagian ezin ikusi dozula. Baia esango dozue: Aita, bertatik damututen yat. Ezteutso; bada ezarri zenduan orduan berean biotzetik bazan, egin zenduan pekatu, laster damutu arren. Esan egidazu ezpabere, yaurt-egingo bazeuntso bateri balasu bat, eskusadu zendukez eriotza atatik bertatik damutuak? Edo esan zeinke: eztoz nik eriotza a egin, ze bertatik damutu yat. Bada bardin da biraoan. Nai damutu, nai ez, ya dago ordurako pekatu mortala eginik. Beste batzuk eranzun daroe: Aita, aserreagaz izan da; baia berper-tatik igaroten yat. Egia da ordu berean eztaikit zer egingo neuskion, baia jira bira bat egin orduko, eztago ezer. Bai, Kristiñaua, aserreagaz bota dozuz, eztaikizu zer egingo zeuzkion, eta etzeunkan gogo edo intenziño deungarik? Ori nok sinistuko deutsu? Nik beintzat eztaikit iñok sinistu al deikezun. Aita, bertatik igaroten yat. Zer da orregaitik? Beindanik bein egin zan gatxa. Su emon eiozu aserreagaz polbora-barrika bateri, eta esan egizu gero bertatik igaro yatzula. Beste batzuk esan oi dabee: Aita, nik birao guztiz asko egin dodaz, ezin kontadu bere egin leiz; baia ezta daukadan ekandu txarra baño. Ekandua daukazu? Ainbat okerrago: bada andiangoak dira ekanduz egiten direan pekatuak. Eta, ze alegin egin dozue ekandu ori galtzeako? Arian bere ez: ze dakuzguna da eztiareala egin gura konfesoerak emoniko penitenziak, neke tangaren bat badauke; eta orregaitik galdu bearrean, aurrera doazala, eta geroago ta geiagora doazala.

3. Kalte andiak dakar biraoak: baia etxekoen aurrean egiten direanen kalteak, guztiz dira andiangoak. Onen artean alkarrerik egiten direan biraoak pekatu mortala izaiteko, ezta bear biotzetik izan ditezan; eta alan pekatu mortalak izan leitekez alango gogo txar bagarik. Semeak botaten bada-bee, pekatu mortala izango da, borondate deungarik euki ez arren: bada galduten deuto zor deutzan lotsea: eta alan aginduten eban Jaungoikoak atxinako legean, gurasoen kontra birao egiten eban semea ilteko. Senar-emazteak alkarrerik egiten deutzazanak, askok diñoie pekatu mortala direala arrabiagaz bada bere eta sarri badira, onekaz galduten deutse alkarre-ri zor deutseen lotsea, amateetan dabee amodio ta karidadea eta kentzen dabee etxeko bakea. Gurasoak seme-alabai egiten deutzazanak geien geie-netan pekatu mortalak izan oi dira biotzetik ez izanagaitik; bada pekatu-rako bidea emoiten deutse, eta erakuste txarra: eta bardin da eurai ezarri ez arren, euren aurrean egiten badira. Negargarrizkoak dira, Kristiñauak, biraoak dakazan gatxak. Geuk, geuk: Geuk enzuten oi doguz oraindio lurrean agiri eztiarean umetxuen biraoak. Arritu eta bildurrez ikaratutekoa da enzutea, oraindokoarren berbaz ondo eztaikien biraoak, eurenagaz urten ezin dabee: gura eztabeen gauzaren bat aginduten yakeenean,



lagunakaz aserratuten direanean, ez yake enzuten demoniñoa, Diabrua eta biraoa ezpada. Zergatik, gero? Zuei enzuten deutsuelako. Au esaten yatsuenean eranzun darozue, Zer egingo dot? Seme galdu batzuk daukadaz, eztabee nire esanik egin gura, lanzean lanzean lotsea galduten deuste, arrabiau erazoten deuste, eta orduantxe egiten deutset birao. Esan egidazue guraso zori gogorrekoak, edo obeto esatearren borrreru gogorrak, ezer egin dozue zuen birao orreekaz? Egiten dabee obeto esana? Dira kristiñau obeak? Itxi dituez geistokeriak? Ondu dira? Baia zer diñot nik ondu? zuen semeak geistoak badira, zuen biraoakaitik dira, eta oraindokoarren okerragoak izango dira. Eztozue gauz'onik egingo, ez zuek, ez zuen semeak. Zorigaistokoak izango zare mundu onetan eta bestean: bada Espiritu Santuak diño: gurasoen biraoak zimentuetaragiño etxe guztia iruliten ta galduten dabela. *Maledictio Matris eradicat fundamenta.*

Eneunskio bein bere azkenik emongo onen ganean yazo direan gertakuntza edo exenpluak esan gura banituz. S. Agustin-ek diño ze, ama batek amar semeri birao egin eutsela, esanik arren bada Kain-eri legez ikara gogorra sartuko balekie. Guztien ganean yausi zan biraoa, eta amarrak geratu zirean dardar ikara geldi ezin egonik. Amak au ikusita sentimenduaren sentimentuz bere burua urkatu eban. Eurak barriz lotzaarren, iñon egon ezinik ibili bear izan eben erririk erri; eta S. Agustin-ek dirausku berak onetariko bi ikusi zituzala. A gurasoak, gurasoak! Deritxat familia osoak, aasabak (aitobeak), gurasoak, semeak, llobak, eta onen semeak eta beste seme ta seme asko, bata besteen atsean doazala infernuetara biraoakaitik. Zuek emoitzen deutzazue aziera deunga au semeai, oneek artuten dabee ekandu deungea, irakasten deutse euren semeai, eta oneek besteai; eta modu onetan batak besteaganik heredetan dabee hazienda edo maiorazgua baillizana legez, baita orregaitik ikusten dira familia osoak zeintzuetan eztagoan biraoa, añena, agirakea, deadarra, eta aserrakuntzea baxen. Eztirudie, eztiñot kristiñauenak, ezta gizonen etxeak bere, ezpabere infernuko Demoniñoaren bizi-lekua. Ezta eurretan enzuten Jaungoikoaren izen santua, blasfemetako ez izanik: guztia da demoniñoa, Diabrua, Barrabasa, arraioa, añena ta biraoa. Danzuen guztiak eskandalizetan dira. Auzotegi guztia dago arriturik, eta bildurrez ikara gogorrean, euren semeak, eta ume giñokoak edonon dira ezagun, euren birao, esakune deunga ta geistokeriakaitik. Eta orregaitarren datoz konfesetan bake eta epetasun andi bategaz, pekaturik ezpaleukena legeztxe, eta akusetan dira: Jauna, birao batzuk bota (egin) dodaz, baia eztira biotzetik izan, eztot intenziño txarrik euki. Eta, emon dozun eskandalua? Semeen exenplu deungea? Kristiñauak! Kendu egizue ekandu deunga ori, galdu gura

ezpazare. Erremedio ta bide asko dagoz onetarako; baia nik bat bakarrik emongo deutsuet, baita bera da S. Juan Krisostomok ekandu onen kontra emoitzen dabena, eta diño Santu andi onek ze, au egin ezkerokoan, kenduko dozuela, eta berau bakarrik asko izango dala guztiz galduteko. Ba'kizue, gero, ze erremedio dan? Ara bada. Egiten badozue biraoren bat, diño Santu onek, ez egizue afaldu gau atan, eta zoaze oera ezerbere artu bagarik. Imini egizue auxe lege au zuen etxeetan, eta birao egiten dabena ez emon afaririk. Ba'kit gogor egingo yatsuena eta esango dozuena ezin lorik egin dozuela: baia obago da gau bat edo beste nekez igarositea, Infernuetan beti betiko erretan egotea baño.



6. JAIEGUNAK GORDETEAREN GANEKO IKAS-BIDEA

(B, 35-37. or.)

Memento ut diem sabatti sanctifices.
Exod. 20.v.8.

1. Jaungoikoaren legeko irugarren mandamentuak aginduten deusku yai-domeketan gordetea. Gauza bi bear dira onetarako: meza osoa enzun, eta bearrik ez egin. Larregi luzatuko nintzateke gauza bi oneek adi erazo gura baneutsuez; eta alan bakarrik berba egingo dot Mezearen ganean. Enzun bear da bada meza osoa; alanbere ezta pekatu mortala izango mezea puskatxu bat igaroitea. Noragiñotik enzun bear dan mezea pekatu mortala izaiteko, batzuk diño ebanjeliotik aurrera, beste batzuk epistolatik; eta orregaitik onen onena da aurretiaz etorri, eta ateetan berbaz egon бага asikeratik enzutea. Mezea bear dana legez enzuteko, bear da atenziñoa eta deboziñoa. Bear da intenziñoa: au da, euki bear dau mezea enzuteko gogoa, eta adi egon, eta yakin bear dau zetan doian Sazerdotea; eta orregaitik eztabe mezarik enzuten ordirik dagozanak, lo dagozanak, berbaz, edo batera ta bestera begira dagozanak: mezara datozeanak, eurak ondo-gura edo maite dabeen personea ikustearren, eta ak ikusi daiantzako. Euki bear da deboziñoa alan gorputzekoa, zelan arimakoa. Kanpotikoa da gorputzaren modu ona, au da, belaun-biko edo yaigirik egon bear da, aginduten dan aldietan, al izanik; eta ezin bada, al dan egokerarik oneenean. Barruko deboziñoa da gogoa edo pensamentua Jaungoikoagan edo Jaungoikoaren gauzeetan eukitea, edo mezeak berak esan gura dituzan gauzeetan: esaterako, Jaungoikoaren anditasun, ontasun, errukitasun, yakituria, edo J.K°. geure Jaunaren yaiokera, bizitza, pasiño ta eriotzan. Alan bada eztabee mezarik enzuten bankuetan luze luze etxunik, eta maien besoetan arrimadurik, plaza edo taberna baten legez, dagozanak. Jaungoikoaren seme bakar laztana Aita Betikoari ofrezietan dan (yakan) artean, arako etxeko zeregin, dibersino, (tratu, kontratu) saldu-erosi, artu-emon edo beste munduko gauzeetan euren (norberen) guraz dagozanak. Ezta arako korupe, edo ate ondoan, lekua egonik elexan, geratuten dirianak, andixe ikusteko nor sartu edo urte'iten dan, edo kanpoan iragoten dana ikusteko; luze egiten yakela mezako denporea tabernara, yokora,

zereginera edo erromeriara, dantzara ainbat lasterren yoateko, oin bata elexarik kanpora daukeela, mezea emon orduko, bertatik urte'iteko, Sakramentu edo altareari erreberenziarik egin bere bagarik. Baia onetari-ko pensamentuak baiatorkuz gure borondate bagarik, eta alegina egiten dogula kentzeako, eta Jaungoikoagan pensetako, orduan ezta geurea errua, eta mezea enzuten da.

2. Mezea galdu aginean, eta ez enzuteko pellebruan iminten danak, pekatu mortala egiten dau, gero meza enzun arren. Modu bitan galtzen oi dira geienean mezaak yai-egunean. Batzuk euren ibillera eta bajeetan, ez puska bat itxarotearren, edo ez meza enzuten geratutearren, urte'iten dabee erritik, bestean enzuteko usteagaz, eta geienetan ezda-baidan, eta dudeagaz mezarik eukiko ete dabenez. Onelangoak geienetan pekatu mortala egin daroe. Oba litzateke onelango eginenak eta ibilkunak astegunean egitea, ta yaieguna Jaungoikoari, eta arimeari emoitea, eta ibili edo beste lekutara yoan bear bada, meza lenengo enzutea. Beste batzuk dabilz arrastaka euren zereginetan, Mezarako ordu ordura artean, eta euren eginenak ez itxitearren, dagoz esaten, e! oraindokoarren ba'go denporea (astia), eta gero datoz arrastaka, arnasa artu ezinik, eta sarriaskotan uts egiten dabeela. Gero konfesetan datozanean dauke atxakia esanagaz: enenkian ze ordu zan, uste neban goxa zala. Baia atxakia oneek eztituz geienetan eskusetan, eta alan leenago sinistu leike pekatu mortala egin dabeela, bada beti dauke euren biotzean bildur bat mezea sartu ete dan. Barriz euren errubagarik, mezea besteetan baño leenago sartu dalako, edo beste gauzaren bategaitik belu badatoz, eztabee pekatu mortalik egingo; baia enzun bear dabe enparetan dan mezaren zatia (mezaren ganekoa).

3. Iru gauzagaitik itxi leike mezea. Lenengo ezin enzunagaitik, bigarrenge karidadeagaitik, eta irugarrenge ofizioagaitik. Lenengo bada eztabee pekatu egiten ez meza enzunagaz gexorik dagozanak, edo gexo ostean oraindio etxerik urteiteko eztagozanak; edadean sarturik dagozan atso-agurak, etxea urrun daukenean, edo eguraldi gogorak dagozanean; etxea yagoten norbaist geratu bear bada. Baia onetan begiratu bear da guztiak meza enzun daien, al daben goxetik edonor biralduagaz: zegaitik-ze otseinen bat itxiten badabee meza enzun bagarik etxean, al daiala, uga-zabak alan gura izan-ta, onen ganean yausiko da pekatua; ezta otsein edo ogitukoak pekatu egingo, ugazabak baño. Itxi leiteke mezea gatx edo kalte andiren bat bizitzan, honran edo ondasunetan etorriko bada enzutekik, edo orren bildur andia badago. Bigarrenge itxi leiteke karidadeagaitik, eta alan ezta pekatu meza enzun bagarik egotea gexo baten lagundutearren, ezpadago besterik nor egon, eta kalte etorriko baiako; itxi leiteke aserra-



kuntza andiren bat amatetarren, edo besteren baten etorri leikion gatxen bat gala'azotearren. Irugarrengo itxi lei mezea ofizioagaitik; eta alan egon leitekez meza enzun bagarik inñudaak, eta gurasoak ezpadauke sein txikarra nori itxi; arzainak ezpadauke besterik, nok yagon dagioezan abere edo animaliak; eta beste olango okasiñoetan. Onelangoetan egin bear dozue-na da, esan artez, eta dan moduan, daukazuendea Konfessoreari, Abade-Maisuari, edo beste ondo dakian baten; eta ez zeurok zeuen buruz erabagi, teologu andi batzuk bazine legetxe; bada ikusi oi dana da, geiago begiratu oi dala irabazi, interes eta gorputzaren ondo egoteari, Jaungoikoaren legerari baxen; eta eginik Konfessore, Abade-Maisu, edo dakianen batek esaten deusuen seguruz zagoze. Onez ganetik Kristiñauak bagara, ezkara kontentadu bear meza bat enzunagaz; yakin bear dogu yai-egunak imini zituzala Jaungoikoak bera alabetako eta geure arimeen onerako. Sei egunean bearra egingo dozu; baia zazpigarrena egun santua da, diño Jaungoikoak.

4. O ontasun neurribakoa! Bereak dira egun guztiak, eta gura izanik agindu eikegun guztiak gordetako; baia zazpitik ez eban bat baxen bereztat gorde, eta auxe bere gura izan eban gure arimaren onerako izan zidin. Eta ain da andia gizonaren gogortasuna ze, ezteutso Jaunari emon gura berea dana; eztau orduan bere arimearen onerako bearrik egin gura. Yai-egunetan arimea geien galtzean da. Uste dabee askok ze, meza bat arrastaka enzunagaz, egin dituezala yai-eguneko zer-egin guztiak; baita au egin ezketiño, gura dabeen moduan emoiten dabee ganeko eguna, edo tabernan, edo yokoan, edo alper-erian, edo fiesta edo tanbolinean; barriz one-tarikoetatik datoz pekatu ikaragarritzko eskergaak.. Dakusguna, Kristiñauak, da, yai-egunean egiten direala pekatu rik andienak. Aste guztian egongo zare zuen bearra baxen gomuta eztozuela, ezteutsue buruak bere emongo ez ardaorik, ez yokorik, ez aserririk ez beste pekatu rik. Ba'tor yai-eguna; bada orduantxe izango da taberne, orduantxe ordikeria, orduan aserrakuntzea, orduan yokoa, orduan etxeko aserrea; beingoan esango dot, orduantxe zabal zabal egiten yakee atea pekatu guztiai; eta esan lei eztala Jaunaren eguna, ezpabere Demoniñoaren eria. Beronexekaitik ziñoian S. Agustinek: onelangoetan yai-egunak emoiteko, uxala bat-pere ezpalego; uxala egun sentirik gaubera artean bearrean baziñardue; ze pekatu gitxiago egingo zeunke. Jaungoikoak berak atxinatik maldiziñoa botarik deutse, onaan yai-egunak gordetan dituezanai. Gorroto deutset, diño, zuen yaiai, ezin ikusi dodaz. Zetaako dira yai-egun oneek? Egun ilunak dira orreek niretzako, egun garratzak. Ba'kizue, gero, zer datorren onelangoetatik? Nekea, lana, gatxa, labore faltea eta beste esan-ezinezko

gatxak. Kristiñauak, sinistu egidazue: aspaldi onetan (urteokaz) dakusguzan gatxen sustrai ta etor-burua gure pekatuak dira, eta euren aurrengo yai-egunak ez ondo gordetea. Alantxe ziñoen atxinako legean Profeta ak; alantxe Elexako gurasoak, alantxe yakintsuak, eta alantxe Santuak. Eta alan gura badozue Jaungoikoaren bedeinkaziñoa zuen ganera etorri din, gorde yaiegunak; yoan Elexako ofizioetara, obra miserikordiazkoak egin, gexoak ikusi, al daizuen limosnea emon, deboziñoak esan, eta parkame-nak edo induljenziak irabaztearren egin. Egizue bada, onelangoak, diño Jaungoikoak Isaias-en aotik, eta ikusiko dozue zelan yausiko dan zuen ganean zeruko bedeinkaziño zabala. Biziko zare gorputz ta arimako atse-ginean, gero barriz artuko dozue yaia ondogordeen saria beti-betiko neure etxean. Amen.



7. [IRUGARREN MANDAMENTUA]

(J. 47-61. or.)

Memento ut diem Sabbati sanctifices

Jaungoikoaren legeko irugarren aginduak esaten deusku yaiak gordetako. (Zelan esaten eutsan Jaungoikoak israeltarrai). «Sei egunean bear egingo dozu, esaten eutsen antxina Jgkoak Israel-tarrai ta eurretan egingo dozuz zeure zer-eginak. Zazpigarren eguna da zeure Jgkoaren atsedena ta deskansu eguna; eztozu berean bearrik egingo ez zeuk, ez zeure semeak, ez zeure alabeak, ez zeure otsein mutil edo neskatilleak, ez zeure (animaliak) abereak ezta zeure etsean dagoan kanpokoak». Eta erri aetako berbaikunean atsedena esateko *Sabat* esaten zana legez, andik etorri zan egun ari *Zapatua* dei egitea. Baia Jesukristo geure Jauna ilen arterik bistu ezkeru, Apostolu santuak Jaunaren biztuera au guk Kristiñauok sarri gogoan erabilteko (erabili gengiantzat) agindu ebeen Zapatuaren lekuan Domekea gordetako, S. Agustin-ek diñoanez, imini eutsen domekearen eguna guk egun au gauz'onak egiten emon daiguntzat. Izan bere, nere kristiñauak, domekea da beste egunen artean egun andia: bada, San Leon Aita Santu zanak diñoana, domekaz egin dituz Jgkoak, egin dituzan gauzarik miragarrienak. Domekaz egin eban Jaunak mundu au: domekaz biztu zan Jesukristo; domekaz esan eutsen Apostolui Jesukristok bere lege santua mundu guztiti zabaldueteko, ta bautismu santua emoteko: domekaz emon eutsen Jaun onek Apostolui eurai pekatuak parkatuteko eskubidea, eta domekaz yatzi zan Apostoluen ganera Espiritu Santua.

Gauza bitarako agindu eban Jgkoak asteko egun bat gordetako: bata da sei eguneko bearragaz makaldu izango zirean gorputzak, zazpigarrenean arnasa puska bat, eta indar barriak artu legientzat; ta bigarrena da munduko zer-eginetan gogoa euki bagarik, Jgkoa bera astean bein ondretako. Bigarren gauza oneri begiraturik, Elexa Ama Santuak agindu dau yai-egunetan mez'entzuteko. Eta antxina Jaungoikoak Israel-tarrai zapatuaz ganeti beste yai batzuk bere agindu eutsezan legez, alantxe Apostolu Santuak, eta Elexeak bere domekeaz ostean agindurik deuskuez beste yai batzuk. Onetariko batzuk barriz dira domekak legez yai osoak, eta beste batzuk yai erdiak, yai arinak, edo eguzaroak (yaizaroak). Yai erdietan eztago mez'entzuteko baño beste obligaziñorik; baia domekak eta yai osoak gordetako gauza bi bear dira; au da eurretan bearrik ez egitea, eta

meza osoa entzutea. Onen bioen ganean bada, astirotxu berba egin bear deusuet.

Lelengo, bada, yai-domekak gordetako ezta bearrik egin bear. Iru modutako bearrak dagoz yai-domeketan eragotzita, eta dira gorputzagazko bearra, saldu-erosiak, ta tribunaletako zer-eginak. Dakusguzan bakotxa banaan iru bearrak. Lelengo lelengo bada dago galarazorik arako gorputzagazko bearra zeineri esan oi yakon serbitzarien bearra, otseiñak eta alo-gerekoak alango bearrak egin oi dituezalako. Onelango bearrik bada denpora luzerokorik egiten bada yai-domeketan, izango da pekatu mortala. Baia ezta erraz beingoan esaten zeinbat denporako bearra dan asko pekatu mortala izateko, bada onen ganean yakitunak batzuk bat diño eta beste batzuk beste bat. Badira euren artean pekatu mortala izateko bear luzeagoa eskatuten dabeenak, eta bai bear gitxiagori bere asko deritxenak. Baia alandere geienak diñoer loju biko bearra eta andik gorakoa pekatu mortala izango dala, andik beerakoa barriz pekatu beniala, egin bear esturen bat edo premiña andikoren bat eztagoanean eta alan esan bere egiten dau doktrinako kartilla barriak.

Alan luzaroko bearra izan ezkeru pekatu mortala izango da yai domeketan solo-bearrak egitea, nai atxurrean dala, nai laietan, nai mokilak (erpillak) austen, nai arta yorran, nai beste edozein bear moduan. Pekatu mortala izango da baso-bearrak egitea, egurra egitea, zugetzak edo landarak imintea, atetxak iñaustea, orbela batutea, karobiari edo ikaztobiari su emotea eta onelangoak. Kontu ikazkinak, Jgkoaren eskua basoetara bere elduten da, ta basoan egon arren ezin bearrik egin zinaike yaiegunean. Suagaz dagoan ikaztobiari bear dan kontua artu bai, ori ondo. Baia ez beste bear modurik egin; ez ikaztobiari surik yai egunean emon, ez adakirik egin, ez ezerbere. Eta besteen agindura bear egin bear badozue, ori lelengo ajustean atera bear dozue, eztozuela yaietan bearrik egingo, eta ori bagarik ez iñogaz bardindu. Pekatu mortala da argintzan, arotzian, errementaritzan, urregintzan, zapataritzan, eta olangoetan egitea. Pekatu mortala egiten dabee burdiakaz dabilzitanak baterik bestera eroaten laborea, ardaoa, lastoa, satza, eta beste edozein bere gauza. Pekatu mortala da yai-domeketan bogadea igarotea, edo errekan ikuzitea (yotea); txabonadurea egitea edo yotea; uruna eralgitea, orea egitea, labasuak egitea, ta ogia erretea. Pekatu mortala da goruetan egitea, edo kalzterdi-giñan, yosten, ikuruzkituten, edo arilduten egotea. Pekatu mortala egiten dabee zapatariak zapatuan, edo yai-eguneko aurrengo egunean gauerditik aurrera luzaro bearrean badagoz. Eta pekatu mortala egiten dabee yai egunean ilundu ezkeru edo gaueko bederatzietati aurrera dago-



zanak gurdiak (aparejetan edo) iminten, edo kargak egiten, biaramoneko gox-aldera euren bidea asteko. Domekea asten da zapatu-gauerdian, eta dirau ogeta lau orduan, urrengo gauerdian astelena asi artean; eta beste ainbeste da beste yai-egunakaz. Orain enzun daiguzan beargilleen atxakiak.

Aita, egia da ni yai-egun arratsaldeetan yosten egon nasala: baia es nau iñok ikusi. Neure aldeti atea itxita nire bakarrean egon nintzan yosten. Beintzat Jaungoikoak ikusi zinduzan? Ori ezin ukatu ziñai, kristiñaua bazara, eta pekatu egin dozu iñok bestek ez ikusi arren. Zure bakarrean eginagaz atera dozuna da, ezteutsazu iñori exenplu txarrik, ez pekatuak biderik emon; eta alde orretati ezta ainbeste pekatu zein da besteen aurrean egin bazendu; baia pekatu bai. *Aita premiña estua (nezesidadea) neunkan: biaramonean bear neban soñekoa (eropea) ifinketan (adobetari) egon nintzan.* Etzeunkan beste yaztekorik (erroparik) zer aldatu, aste barruan (erropa) ori adobetako? *Aita, astegunekoa zan.* Bada yai-egunekoa yanzi, astegunekoa adobetari zenduan artean. *Eztogu guk astegunean adobetako (ifinketako) astirik izaten.* Bakit nik, sarri ta sarri eukiko eztozuena, guztiz bere otseñak bazare. Ori alan bada eztiñot nik ezer; eta gero orren ganean berba egingo dot. Baia egia esan bear da: Ai! gogoti artuko bazendue topauko zeunke orrenbesteko terzioko astiunetxu bat astegunean bere. Kontu (bada) kristiñauak, Jgkoa ezta guzurragaz engañetan.

Aita esan daroa zapatarriak, dendariak eta orreek, nik egin bearra neban: berbea emon neutsan, ta ezin egin neinkean yai-egunean bear egin bagarik, eta orregaiti egon ginean ni ta kriaduak gox alderaño bearrean. Ta zegaiti artu zenduan bear ori? Zegaiti emon zeuntsan berbea, yakinik yai egunean bearrik egin ezik ezin egin ziñakiola? *Aita, bada, bezerua zan ta, berbea emon ezpaneutso, beste bategana yoango yatan (zan), ta galduko neban bezeru ori.* Ai, Kristiñaua! Alan egin, ta alan esan daroe gaurko eguneko kristiñau askok. Jgkoak berak dirausku bera gauza guztien ganeti maite izateko, eta itanduten baiake onelango kristiñau deungai: ea zer dan Jgkoa gauza guztien ganeti maite izatea, berlan erantzuten dabee dala: gurago izatea gauza guztiak galdu, bera ofendidu, ta pekatu egitea baño. Eta alanbere bezeru bat ez galdutearren, irabazi labor bat ez galdutearren, bere ofensan yai egunetan bear egin beariko dabee. Baia onduten ezpadira nos edo nos, ikusiko dabee zelango infernua irabazi izan dabeen onelango yai-domeketako bearragaz. *Ai, Aita! Ai daigun bear guztia egin da bere, guztiaren bearrean ebili oi gara gure ogia irabazteko.* Sinistuten deusuet nik ori, baita alan izan beariko dau, yai-domeketan bear egiten badozue, baita zuen buruak beti arrastaka bearpean badarabiltzuez bere, bada Jgkoak maldiziño onegaz zema-

tu zituzan bere Profeta santuen aotik Israel-tarrak, euren yai-egunetako bearrak gaiti. *Jauna, bada, obe da yai-egunean bearrean egon, murmuretan egon baño.* Bai Kristiñauak, yai egunetako bearra ezta murmuraziñoa. baxen deungea, baia bata ta bestea deunga dira, pekatu dira, ta egin bear ezti-reanak. Deungago da gizon bat iltea, amaseiko bat ostutea baño; baia ezin orregaiti ostu lei amaseiko ori, eta pekatu egiten dau ostuten dabena. Alan bada, ez iñogaiti deungarorik esan, ta ezta yai-egunean bearrik egin.

Bear egiten dabenean gaiti esan dana, esan bear da bere moduan besteai bear eragiten deutseenak gaiti: eta alan pekatu mortala egingo dabee gurasoak eta ugazabak euren umeai ta otseñai yai-egunetan luzaro bear egiten aginduten badeutsee. Eta seme-alabak, ta otseñak eztabee onetan gurasoen ta ugazaben esanik egin bear: bein da Jgkoa, zeinek aginduten dabean bearrik yai-domeketan ez egiteko: eta esan bear deutsee lotsa onean, ezti-reala aek egunak bear egitekoak, Jgkoak galarazorik daukalata. Baia alanbere bildur balira seme-alaba ta otseñ oneek, eurak bear ez eginagaiti, aserre andia biztuko (sortuko) dala, edo kalte andiren batzuk etorriko yakeezala, eztabee pekatuak egingo aginduten deutseen bearra eginga; baia otseñak beste modurik etxean ikusten ezpadabee, egin bear dabenean da, beste ugazaba Jgkoaren bildur obeko batzuk billatu, ta etse orretarik urten: edo ezpabere gurasoen etsera yoan (oso kalte andirik ezpaiatorke). Azkenez pekatu mortala egin dabee, besteai yai-domeketan luzaro bear egiteko burua (konseiua), aurrera bidea ta gantza emoten deutseenak, eta orretan alan olan iminten dabeezanak.

Ezin esan lei, nere kristiñauak, nogiño eldu dan gaurko egunean yai-domeketan bear egiteko amurru deungea. Gizonak bazaree yai-egunean egin beariko dozue abarkak yostea, yai-egunean arrate edo esi zabalik edo bigundurik dagoana itxitea, yai-egunean lastoa ta kabilak balkoiti kamarara edo sabaira eroatea; maia, aurkia, lenkea, askea, atea, oarkea, burdia edo azpirea manaturik badagoz, yai egunean imini (konpondu) beariko dira: yai-egunean azkoreari eta atxurrari kirtena ezarri beariko yako: yai-egunean gurdia biaramonerako (aparejau ta) imini beariko da: yai-egunean surtarako egurra txikitu ta zeatu beariko da: ta milla onetariko. Emakumeak bazaree yai-egunerako izan oi dozue alkondarea eta gonak garbiete; pañuelua azpildu ta zuritutea: eta, fiestarako, yolaserako ta dantzarako ezpada... Eztakit bada... Yai-egunerako zarrak adobetea (ifinketea). Yai-egunean arto zarankadea zuritu beariko da: yai-egunean erroatarako artoa garaundu beariko da: yai-egunean erri askotan izan doa errota osterea, eta yai-egunean Jgkoak dakizan beste asko. Bada oneek guztiok bearlanak dira, eta eurak egiten aldi (denpora) luzea emoten badozue, pekatu



mortala izango da premiña ta estukuntza andia izan ezik. Baita yazo leiteke batean denpora puska bat emon, bestean beste puska bat, kontu daigun barbarako: abarkak yosten iru ordu lauren, atea konponduten ordu erdi; esia zarratuten ordu bete: edo prakak adobetan (ifinketan) erloju bete, gona batzuk eta panizelu bat garbituten erloju erdi: artoa garaunduten erloju erdi; uruna eralgiten erloju erdi, eta lan puskaka puskaka denpora luzea bearrean emotea eta pekatu mortala egitea.

A bada, bazenkie ondo ze gorroto gogorra deutzan Jaungoikoak yai-egunetako bearrari! alperrik eze etzeunke yai-egunean bearrrik egingo. Entzuzue (bada) arren Eskritura Santuan irakurten dan onenganeko ejenplu ikaragarri bat. Bein baten Yudeguak topau ebeen yai-egunean gizon bat basoan egurrak batuten. Eroan ebeen gizon gaixo ori Moises-en, Aaron-en ta yentearen aurrera. Moises Santua gelditu (lotu) zan gizon agaz zer egin ez kiala. Sartu ebeen, bada, karzelan, ta itandu eutsan Moises-ek Jaunari, ea zer egin bearko zan agaz gizonagaz. Ta erantzun eutsan Jgkoak: il bear da gizon ori: atera egizu yente arteti kanpora, ta an guztiak arrika il dagiela. Alantxe egin zan: atera ebeen yente arteti leku bakarrera, eta an arrika il ebeen Jgkoak agindu eban modu-moduan, yai egunean bear egin ebalako. Onenbeste bada, gorroto eresten deuto Jgkoak yai-egunetako bearrari: eta aginduten ezpadau bere gaurko egunean alango bearrak gaiti iñor ilteko, etxake faltako orregaiti beste munduan (yai egunetako) alango beargillai, ori baño kastigu gogorragoa. (Etxakez falta alanbere onango bearginai...). Izan oi dituez orregaiti euren bearretarako atxakiak, eta atxakia onei erantzun bear deutset orain.

Aita, egia da [...]

Bigarren bear modua, yai-domekeetarako galarazorik dagoana da saldu-erosia ta artu-emonak, edo tratuak. Eta alan pekatu mortala egiten dabee merkatarriak, eta denderuak, alango egunetan saldu-erosietan bada-biltz. Onelango egunetan saldu lei yan gauzea: ogia, artoa, okelea, ardaoa, orioa, tabakorra. Saldu lei argi gauzea; kandelak, saiña, erretxinak: saldu lei egun atarako bear dana: baita eztiñot nik ezer kanpoko bateri nos edo noskoan barruko aldeti zerbait saldua gaiti; ezta erietan saldu oi direan ganadu edo besteak gaiti: ezta zapatari batek berak eginiko zapata batzuk saltzea gaiti, edo bardin dendari batek egin dituzan fraka batzuk, edo txapelen bat saltzeagaiti. Baia pekatu da kanako gauzea saltzea: pekatu pitxerak, txarroak, onziak eta beste lur ... gauzak saltzea; pekatu azkorak, atxurak, kodañiak, eta alangoak saltzea. Eta orretarako tranpea zabalik badauke pekatu geiago izango da: eta zabalik eukitea bera pekatu da ezertxu bere saldu ez arren. Onelango gauzaak galarazo bear dituez Abade-Maisu

jaunak, eta orretarako eskua emon ta lagundu bear deutse Justiziako yaun prestuak.

Aita, bada, yai-egunetako saltze ori gure errian sarturik dagoan gauzea da. Sarturik nai sarturik ez, Benedikto amalau-garrenak esanik ta erabagirik dauko usadio ori deungea dala, eta Obispo jaunak, eta Abade-Maisu jaunak usadio ori galduteko aleginak egin bear dituezala; eta esan oi dana usadio txarrari bernea ebagi. Beste aldeti barriz urte gitxiz onantzakoa da usadio ori eta oraindo erri gitxitan ikusten dana. Orra Bilbo ze uri andia dan, eta ezta an alango gauzarik ikusten. *Aita, bada, besteak bere ori egiten dabee.* Baita besteak Infernura badoaz, zuk bere besteen atzean yoan gurako dozu. Besteakgaz naste Infernura yoan arren, etzara bada, gitxiago erreko. *Baia nik saltzen ezpadeutset nigana datozañai, beste bategana yoango dira, ta ak salduko deutse.* An dabeela, Kristiñauak. Besteak gauzea salduagaz batera arimea Diabruari saldu gura badeutse, zuk bere saldu gura deutzazu? Ez legoke ondo esanik eguen-gurenean: aragi au guk yaten ezpadogu, arrak yango dabee; yan daigun bada. Ez legoke ondo esanik ulriari diruak bestek ostuko deutzaz; ostu daiodazan bada nik. *Jauna, bada, domeketan etorri doaz baserrietakoak.* Eta zegaiti datoz? Zuek salduten deutzazuelako. Alan gero eztakiez euren Elexarako bideak: eztoaz meza nagusitara (nagusi batera), eztabee Abadearen dotrinarik entzuten; eztira urtean bein baño konfesetan. Eztakizue ondo zelango kalteak egiten dozuezan yai-domeketan salduta. Nik dakusdana da aste barruan erriaren bat, edo merkaturen bat badago, an direala baserrietakoak, euren laborea edo euren ganadua artuta.

Aita, bada, nik yai-domeketan salduten ezpadot, zelan irabaziko dot nire ogia? Zer yan bere eztoz nik izango. Ori ezta egia. Balitz bere obeto litzateke pobretxu mundu onetan bizi ta zerurako aberastasanak irabaztea, eze ez emen aberats bizi ezkerro, Infernua ikusi bearra. Baia Jgkoa aberatsa da ta bauko, bai, zer emon franku; prestua da ta baki emoten bere legea gordetan dakienai ori ondo baiagoke zor badeutse. Ondo baiagoke diñot, ze askorentzat obe izango litzateke aberatsak ez izatea, euren galtzairako izango badabee. Bakizue barriz zer yazoko dan zuen yai-domeketako diruakaz? Antxina Jgkoak Mikeas Profetearen aoti Israel-tarrai esaten eutsena (c. 1. v. 7) *De mercede meretricis congregati sunt, et usque ad mercedem meretricis revertentur.* Deungaro irabazten dozuez zuen diruak, eta deungaro irabazien pagua eroango dabe. Nondik eztakizuela, ondatuko dira diru orreek. Eztira zuen lobetara, edo zuen birlobeetara elduko. Etxatzue faltako seme, edo suiñ yokolari, edo ordiren bat; edo alaba, edo erran ondaztalleren bat, direanak urtuko dituzana; edo auziren bat, suren bat, geixo-



ren bat, lapurren batzuk, edo beste alangoren bat, ospitalerako bideak zuei ta aei erakutsiko deutsuezana.

Iruugarren galarazorik dagoan bearra da Tribunaletako bearra. Eta alan Juezak, Eskribauak, Notarioak ezin leie, premiña edo estu aldiren batzuetan ezpada, ez juramenturik iñori artu, ez testigantzarik; ez sentenziarik emon; ez testamenturik egin; ez besterik, premiña edo estu aldiren batzuetan ezpada.

Ikusirik (erexi baten bear bestean) nos dan pekatu yai-domeketako bearra, dakusgun orain nos eztan pekatu bear ori. Ezta bada beti pekatu yai egunean bear egitea. Ez eban Jgkoak gizona yai-egunarentzako egin, eta bai yai-eguna gizonarentzako, ziñoian Jesukristo gure Jaunak. Onegaz ulertutera emoten deusku Jesus maiteak, berez yai domeketako bearra eragotzita egon arren, nos edo noskoan pekatu egin bagarik bear egin leitekeala. Pekatu egin bagarik bada, bear egin lelengo galduteko arriskuan dagoanean noberen, edo lagunaren bizitzea, osasuna, edo balio andiko gauzaren bat; laborea, ganadua, etsea, edo azientea. Alan noberen etsean, edo iñoenean suak artuten dabenean, onziren bat galdu gurarik dabilenean, euriak, arriak, txingorriak, edo alangoak, kanpoan dagozan frutuak galduko dituzanean, eta alangoetan edozeinek bear egin lei kalte orreek galarazoteko.

Alan ezta pekatu karobia, edo ikaztobia suagaz dagoanean, yai-domeketan bear egitea (begiratutea), ez karobia daukanari lagundutea. Baia gauza onen ganean askok tranpa andi bat egin daroe. Askok bada, egin daroena da, karobiari edo ikaztobiari su emoteko, kontuak ateraten ibili zelan domekea barruan artuko dabeen, edo yai bi edo iru erreskan badatoz, orreek zelan artuko dituezan, auzoak doarik lagundu dagioentzat, zerbait geiago irabazteko amurruagaz. Baia, Kristiñauak, Jgkoak begiak (zuurrak) argiak dituz, ezteutsagu ari atzik agin arteti sartuko. Balitz karobiari astelenean, martizenean, edo alan, su emoteko egotea; euria andiak ekarri, eta barikuragiño, edo alan, surik ezin emotea, ori ondo; baia berariz yai egun aurreko egunetan su emotea, yaia edo yaiak barruan artutearren, ori ezta Jgkoaren aurrean igaroko dan gauzea. Baia onango bearretarako estukuntzeak leku emoten badau (Baia onango estukuntzeetan estuak leku emoten badau, oba da Abade Maisuari lizenzia eskatutea, ta gero bere baiezkoagaz bear egin).

Modu berean mandazaiñak, eta itzaiñak yai egunak bidean artuten badituz aurrera yoan leitekez euren bidean, ta eztauke zetan galdu egunik yai-eguna gaiti. Baia kontu oneek bere yai-egunean bidea asiteagaz, edo yai-eguna barruan artuteko asmuakaz asiteagaz, edo yai-egunean mando-

ak edo burdia biaramonerako aparejauagaz. Modu berean errotak yai-egunean yo leie, ori egin ezik bear dan urunik izango ezpada, edo errota gitxi edo txangelak dagozalako, edo ur gitxi dagoalako; eta orretan bakoitxak begiratu bear dau bere errian zer dagoan ontzat legez arturik. Modu berean otseinak euren errota zarrak yai-egunean adobau leiez, ugazabak, ta ugazaba-andreak astegunetan egiteko astirik emoten ezpadeutse: baia ugazabak, ta ugazaba-andreak asti ori emon bear leuskioe. Bigarren, pekatu egin bagarik bear egin lei, Obispo jaunak edo esan dogun Abade Maisuak orretarako lizenzia ta ondo dalakoa emoten dabenean. Alan abustu denporan egin doa itzinean, gari-ebaten edo yoten; alan etseren baten guztiak, edo geienak gaixorik dagozanean, yoan oi doaz (yoakez) yai-egunean auzoak, (aen) solo-bearrak egitera (egiten). Iruugarren, errian Jgkoaren bildur onekoen artean usadio artua, yakina ta ontzat emona dagoanean yai-egunean bear egiteko (bildur onekoen artean yakina ta ontzat emona dagoanean yai-egunean bear egiteko usadioa), pekatu bagarik egin lei. Orregaiti pekatu bagarik egin leiz eguneango etxe-bearrak, etxea garbitu, autsak kendu, lapikoa egin, taloa edo auts-opila egin, ta erre ta onelangoak. Pekatu bagarik imini lekioz zaldiari bere aparejuak, iñok edonora zaldiz yoan bear badau. Pekatu bagarik egin lei ganadu (berarra) sarallea egun atarako bear dana, ez biaramonekoa. Baia orregaiti bere, ezalan-bere aurrengo egunean egin al badozue, ez egizue yaiegunerako itxi, ori ta olangoak egitea. Baita ezta pekatu, soñean imini bear dan yaztekoari botoi bat ezartea, edo galtzai edo galtzerdiai zuloren bat artutea, edo beste alango ezerezkeria bat egitea.

Yai-egunak gordetako bear dan bigarren gauzea da mez-entzutea: eta mez-entzun bear da ez yai osoetan bakarrik, baita bere yai-erdietan edo yai arinetan bere. Mezea bear dan legez entzuteko iru gauza bear izaten dira: lelengoa meza osoa; bigarrena atenziñoa, ta irugarrena deboziñoa. Entzuzuez bana-banazean irurok = Lelengo bada, meza osoa entzun bear da, mezearen asierati eta azkena giño. Baia meza osoa izateko, ezta gauza meza biren erdi bi erabatera entzutea, eta alantxe dauko erabagirik gure Alexa ama santuak, ta ez ori ez eze elizateke asko izango meza biren erdi bi bein banaan entzutea. Entzun bear da bada, Sazerdote batek emoten daben mezea, lelengoti asi ta guztia emon artekoa. Eta ori alan ez egitea izaten da pekatu: batzuetan mortala, eta beste batzuetan beniala, zelan dan egiten dan errakuntzea. Meza guztia noberen erruz (galduten) uts egiten bada, edo mezaren zati andiren bat, izango da pekatu mortala, nai zati ori andia dala denpora luzekoa dalako, nai andia dala zati nagusiren bat dalako.



Alan pekatu mortala izango da mezarik entzun bagarik gelditutea; pekatu mortala izango da mezarik erdia, edo lauren bat galdutea; pekatu mortala izango da mezako sagaran ez egotea, edo meza emoten dabenak geure Jauna artuten daben komuniñoa artean ez egotea. Pekatu mortala izango da meza osoa, edo mezaren zati andia erratuteko arriskuan noberen erruz bere burua imintea. Baia erratuten dan zatia txikana (txikerra) bada, pekatu beniala baño ezta izango. Eztago baia erabagirik yakitunen artean zeinbat bear dan erratu, pekatu mortala izateko: Batzuk diñoie epistolarik aurrera meza guztia entzuten bada, edo lenengo asikerarik komuniñoa artu arteko guztia, ezkala pekatu mortala izango. Beste batzuk ebanjeliora artean ezkala igaroten mezea. Nire konseiua, bada, da liburua aldututeko (biretako) denporara artean mezatara elduten ezpazaree beste meza bat enzuteko. Meza osoa ezin entzun dabenak, baia bai mezaren zatiren bat, entzun bear dau zati ori dana dala; baia guztiz bere sagarea bada, zati ori. Orain dakusgun nortzuk geien pekatu egin daroen meza ez enzunagaiti.

Lelengo bada pekatu mortala egiten dabee euren nagitasunaz (nagiaz), alperkeriaz, arduraezaz, edo yoan gura ezagaiti mezea uts egiten (galduten) dabeenak. Bigarren, pekatu mortala egiten dabee euren etseko eginetan sarturik, mezatara yoatea bear dan baño geiago luzatuten dabeenak. Askok esan daroe euren artean: e! oraindo astia dago, oraindo astia dago ta bein bere ezтира maneaututen. Gero arin arinka artuten dabee mantillea, kapea edo balenzianea, ta karradan doaz Eleixara; baia ara orduko edo mezea emon zan, edo beintzat igaro zan, ta askotan lotsa izaten dira sartuten besteak zer esango dabeenen bildurragaiti (zer esango dabeen eta). Irugarren, pekatu mortala egiten dabee mezea euren erruz galduten dabeenak bideetako yoan etorriak gaiti. Urteten dabee euren erriti Bilborako, etc. mez'entzun bagarik bertan gero entzungo dabeenen adiagaz, yakinik besteetan bere alan yoana gaiti mezea galdu dabeela ta gero ara orduko ya meza guztiak yoan zirean, ta meza bagarik geldituten dira. Gero barriz konfesonarioan esan daroe: Aita bada, uste neban elduko nintzala = Zetarako da ori esatea, badakizu zuk ezkala oraingoa modu orretako bidean yoanda mezea galdutea (galdu dozun aldia)? Pekatu mortala egin dozu. Geiago esango deusut: ori yakin ezkeru pekatu mortala egiten dozula, meza entzun bagarik alango bidea artuten dozun bakotxean gero zegaiti edo agaiti entzungo bazendu bere; zeure burua mezea uts egiteko arriskuan imini dozulako. Beste gauza bat litzateke zuk erriti beste erri orretarako urtengo bazendu, erraz enaz eldu ziñaitekezala (ziñaitekezan moduan), eta gero bidean zerbait yazon, edo zeuri edo lagu-

nari larriren bat edo estamanguko iluntasunen bat egin; edo eguraldi aserre bat ekarri, edo lapurren batzuk bidera urtenda, edo alan mezea erratuko bazendu: orduan elitzateke pekatu izango. Laugarren pekatu mortala egiten dabee ango edo emengo plazara edo errunera, (merkatura) edo eriarra zerbait saldutera yoanik, antxe dagozanak irabazteko amurruagaz orain yoango, gero yoango ta bein bere mezatara yoan bagarik, gero ta gero bere mezea (galduten) uts egiten dabeela.

Ezta baia beti pekatu mez'entzun bagarik lotutea. Leen bearragaiti esan doguna, ostera barriro mezea gaiti esan bear dogu noberen, edo bestearen kalte andi bagarik mezea enzun ezin danean, ezta pekatu mezea uts egitea. Kalte au izan leiteke arimakoa, bizitzakoa, osasunekoa, kreitukoa, edo ondasunetakoa, eta dana dala bein andia izan ezkeru, asko da mezea pekatu bagarik uts egiteko. Eta alan pekatu bagarik galdu leie lelengo gaxorik oean dagozanak, edo oean egon ez arren, gaixo naste, edo (erdi makal) osasunean txatxar ebilita, bildur direanak, Elexara yoateak kalte andia bere osasunean ekarriko deusela. Bigarren: besterik ez da, gaixo andiagaz oean dagoanari aitu bear deusena. Irugarrenean, ume txikia nori itxi eztaukenak, bakarrik itxiten bildur badira kalteren bat etorri ezta kion. Laugarrenean, seindun direan andrak gelditu leitekez etsean bide labanak direanean, bildur badira yausita, kaltea eurai edo umeai etorri leikiela. Bostgarrenean, neskatillaren bat edo alargurien bat bear eztan bide-ti (errakuntzaren bat izanda) sabel katigu bada, zabaldu eztedin bere pekatua, egon liteke etsean gorderik mez'entzun bagarik. Baia erri andietan, meza asko direan lekuetan, goxeko ilunabarrean entzun al balegi, iñok igerriko ezteusuan moduan, alan egin bearko dau. Seigarrenean, aserre dabiltzanak bakean iminteko, etseren edo basoren bateko sua amatetako, frutuai suak, axeak, urioleak egin leikioen kalteak galarazoteko, meza bagarik lotu bear bada, ezta pekatu alan egitea. Eta berba baten edozein-bere kalte andi galarazoteko bear danean, ezta pekatu mezarik ez entzutea. Baia onelango aldietan meza bagarik geldituten dirianak, etxean edo beste lekutan mezaren orde ez egin bear leukez (dituez) beste obra on batzuk, edo errosarioak esan, edo beste errezu batzuk egin edo beste gauza on batzuk, dino S. Antonino-k, modu orretan yai-eguna santututeko, ta Jaungoikoa bere egunean ondretako. Ikusirik nortzuk meza entzun bear daben dakusgun orain zelan entzun bear dan.

Eta meza ondo entzuteko bear dira leen esan deusuedazan gauza biak, atenziñoa ta deboziñoa. Atenziñoa izateko, euki bear da mez'entzuteko gogoa, eta adi egon, ta alean yakin bear da zetan doian Sazerdotea,



eta orregaiti estabee mezarik entzuten dagozanak ordirik edo lo, edo, berbaz (dagozanak) edo batera ta bestera, bazterretara ta atetara begira (dagozanak) ea nor datorren nor doian, nor non dagoan, zelango soñekoak daukazan, eta onelangoak. Eta ain gitxi entzungo dabee, mezara datozenak bertan adiskide txarra edo galaia ikustearren, edo beragaz egotearren. Nok sinistuko leuke, arpegiko begiakaz ikusiko ezpagendu, onenbesteragiño elduko litzatekeala Kristiñauen askoren lotsa-eza (lotsa deungea), zein da Elexea ta meza santua artuko leukeen euren zantarkerien estalgarri ta gerizgarrizat? Baia lar bere lar ikusten dan gauzea da ori. Gurasoak alabeari galarazoten badeutso urlia mutilagazko edo zaldunagazko berbetea ta egotea, edo gurasoen bildur bada alaba ori, arkal artuten dabee mutilak ta biok ordu baten mezatara yoateko, eta an daukez arkalegazko ixil-kontutxuak; edo orrenbesterako arpegirik edo biotzik ezpadaukee, arkaleri begiratu ta ezer-ezean legez arkaleri siñu ta kiñuak egin, irri barreak ta estul falsoak egin; edo beintzat arkal ikusita biotzak erretan euki daroez. O Jaingoikoaren ontasuna! Oneek bere etsean ikusita, ixilik dago alanbere. Baia berari elduko yako berba egiteko aldia, ta onduten ezpadira onelango lotsa galduko gazteak, euren ganean ikusiko dabee nos bait Jaunaren aserre gogorra. Onelangoak gitxienez pekatu mortal bi egiten dituez; bata mezarik entzuten eztabeelako; bigarrena pensamentu loiak eta besteak daukeezalako. Eztabee mezarik entzuten umeak (txikiak) gaz mezatara doazanak, eta meza denporan eurak gaz siñuka, mosuka, laztanka ta barreka dagozanak. Umeak lagungarri txarrak dira mez entzuteko. Bein doaz bategana, gero datoz atzera eurakgana, batzuetan besoan egon gura dabee, beste batzuetan indar egiten dabee besorik urteteko, baterik bestera ibilteko: orain barre, gero negar, geroago deadar ta txilio: eta emakume zoroak umeari adi, aoa zabalik, adurra dariela; ez eurak mez'entzun, ez besteai entzuten itxi. Ume txikiak, Elexara etorteko, besteri itxi bear yakoz, eta eztaukenak nori itxi, obeto egingo leukee mezatara ezpaletoz, leen esan dan legez.

Mezea ondo entzuteko bear dan beste gauzea da deboziñoa. Deboziño au modu bitakoa da: kanpotikoa edo gorputzekoa, eta arimakoa ta barrutikoa, ta bietara euki bear da deboziñoa. Gorputzagaz egon bear da modu onean, mezeak eskatuten daben lotsa ona guztiai erakusten deusagula. Orretarako modurik onena da ebanjelio bietara zutunik egotea ta ganeko guztira belauniko, eta alan dakar ekarri bere mezatako liburu, Misala esaten deusagunak (meza errezatuetarako misalak). Baia edonon bere gorputzak orrenbesterako lagunduten ezpadeutso, orduan egon liteke al daben ondoen, edo zati baten belauniko, ta bestean zutunik, edo

yarririk. Baia ezta ondo eginik gizoto tzarrak aurkietan ofertoriorik santusera artean eta Sazerdoteak gure Jauna artu ezkeru yesarririk egotea.

Barrutiko deboziñoa da gogoa Jgkoaren gauz onetan eukitea, buruan darabilgula, kontu daigun, Jesukristoren pasiño negargarria, edo bere yaietz gozoa, edo zeruko gloria zoragarriak, edo beste alango gauzonen bat. Liburuan dakienak liburuan egon litekez, ta ondoena da liburuan puskatxu baten egon eta beste puskatxu baten irakurri danaren ganean pensetea, eta alan aldizka aldizka mez-entzutea. Baita ondo da meza artean errezetan egotea edo errosarioa esaten, edo Jesukristo mundu onetan bizi izan zan ogeta ama iru urteen ondran ogeta ama iru Aita-gurea esaten, edo Santu artuai errezetan, edo alan orreek deboziñoz egiten badira: baia errezetan gagozala lasterrago gogoak beste gauza batera iges egiten deusku. Eta gura badozue yakin meza deboziñoz entzuteko modu errazago bat entzuzue orain liburuan eztakizuenok bere erraz erraz egin ziñaikeana.

Meza santua lau zatitan egingo dozue: lelengo zatia izango da lelengo asikeratik kredoa esan artekoa: bigarrena ofertoriorik sagarara giño-koa: irugarrena sagararik komuniño artekoa: eta laugarrena enpardua (arik eta guztia emon artekoa). Lelengo asikerarik eta kredoa esan artekoan egongo zare Jgkoa adoretan, opa deusazuezala orretarako zuen egikune on guztiak, Santu-Santa ta Aingeruenak, Ama Birjinearenak, eta Jesukristo geure Jaunarenak: baita bitarte orretan esan ziñaike kredoa, egin fedeko, esperanzako, ta karidadeko aktoak, edo beste oraziño batzuk esan, eta olangoak. Ofertorioti sagara giño ekarriko dozuez gogora zuen bizi guztian egin dozuezan pekatuak, ez banaan banaan, ezpabere guztiak erabatera ta pilolan legez: eta ezaguturik zeinbat bider ta zeinbat alderara (modutara) Jgkoa ofendidu izan dozuen, lotsatuko zaree ain esker deungakoak izan zareelako, ta damuz beterik Jgkoari berari biotz biotzerik guztien parka eskatuko deusazue. Sagararik eta mez-emollean gure Jauna artu artean gogora ekarri bear dozuez Jgkoaren eskuti zelangoo mesede ederrak artu dozuezan, zelan ezerbere ezetik egin zinduezan; zelan kristiñau errian sortu zinduezan, zelan bere odolagaz erosi zinduezan ta besteak eta guztiak gaiti esker andiak Jgkoari emon bear deusazue. Azkenengo zatia barriz emon bear dozue Jgkoari mesedeak eskatuten, alan arimarakoak zelan beste edozein modutakoa, beti onelangoen ganean esaten dozuela egin dedila Jgkoaren borondatea. Modu onetan zatika zatika da errazago gogoa Jgkoaren gauzetan erabiltea eta alan egin zinaie zuek beste modu obagorik ezpadakizue.



Baia, ai! eta zeinbat dagoz meza santuan deboziño bagarik etseko egingenak, lagunak kontuak, euren artu-emonak eta beste milla zorakeria gogoan dituezala! Zeinbat oraindo orreek baño gauza txarragoak gogoan dituezala! Onelangoak bada euren guraz alangoetan badagoz, aleginik egin bagarik orreek gauzok buruti botetako, eztabee gauza dan mezarik entzuten, eta alango mezeagaz yaiegunean geldituta, pekatu mortala eginen dabee. Baia aleginak egiten dituezanak alango erabaako pensamentu, mezararako ezteirean burutik, asmau orduko, botetako, meza ona entzuten dabee, mezarik zati baten edo mezarik geienean bere zetan dagozan eztekiela gogoaz bestera egon arren. Onelango pensamentu gogaikarriak ez etortea eztago geure eskuan, eta guk gura eztago bere etorri oi yozkuz. Jgkoak, bada, besterik aginduten ezteusku, ezpada geugan dagoana egiteko (egin daigula) orreek igerri ta laster buruti botetako. Baia orretarako ezta ondo askok egin daroen legez mezea asi artean elepean berbetan egotea. Zelan gero etorriko ez yakez orduko kontuak burura? Aurretiaz deboziñoa izateko bideak artu bear dira: mezea baño leen elepean sartu, ta ur bedeinkatua artu ezkerko, alango burutaziño alper utsai ta eroai lekuri ez emon, eta mezea sartu artean egon ziñaithekeze edo konzienziako esamina gintzaan (egiten) edo altarak bisitetan (egiten o ikusten) edo alangoetan.

Ai Kristiñauak bagenki ondo zer dan meza santua, ez yaiegunetan atenziñoz ta deboziñoz entzun ez eze, baita bere astegunetan bere beti ibiliko gintekez aleginak egiten nondi nora mezea ikusiko dogun. Zer deritxazue dala meza santua? Ezta mezea ez gizonen batek asmau daben oraziñoren bat, ezta Santu Santaren batek imini izan daben gauzaren bat, da bai Jesukristok berberak Jaungoiko ta gizon egiazkoak bere Elepeari emon deusgan gauza bat, ta guk zer dan ez esan ta ez ezagutu ezin geinkeana. Da Jaun onek bere azkenengo afarian egin zituzan miraririk andienak eta miragarrienak barrietetea. Da Jesukristoren eriotza balio andikoa Jaungoikoaren ondrarik andienerako, ta gure onerako odolik bota bagarik barriro egitea. Zelango deboziñoagaz egongo zineen, egon bazine. Apostoluen artean Jesukristok azkenengo afarian ogia bere eskuetan artu, bedeinkatu, konsagradu ta apostoluari emon eutsenean? Zelango biotzeko biguntasun ta samurtasunagaz egongo ezteineen Kalbario-ko mendian ikusi bazendue Jesukristo geure Jauna kurutze baten untze gogorakaz yosten, ta kurutzean eskegirik min-al gogor eta ikaragarrien artean ilten? Bada Kristiñauak, begiakaz ez dakusgu, baia Fedeak erakusten deusku meza santuan azkenengo afarian legetxe Jesukristo gere Jauna bene benetan iminten dala. Fedeak erakusten deusku Jesukristo gure Jauna barrien

barri opetziten yakola bere Aitari geure pekatuen parkaziñorako, ta gu guztioen onerako. Alan bada, nere kristiñauak, egizue alegina Elepeari paraje bizi zarenok egunean egunean zuen mezatxua atenziñoz ta deboziñoz ikusteko, eta Elepeari urrun ta asago zagozenok zuen etsean, edo zuen zer egin artean kontu egizue mez-entzuten zagozela ta orduan al dozuen ondoen esaiuzue meza arteko oraziñoak.

Eta ezteutsazue asko eretxi bear yaiegunean meza bakar bateri entzutea, ta azaz ganeti beste gauza on batzuk bear dozue zelangoak direan meza nagusitara zuen Elepeari yoatea, doktrina entzutea, errosarioa esatea, altarak egitea eta onelangoak.

Ara bada zelan egingo dozuen. Domeka baten Aita familiagaz batera meza nagusitara, eta Ama, bear bada seme-alabaren bateguz, edo otseinaguz, goxeko mezea entzunda, etsea yagoten gelditu daiteala. Urrango domekan Aita goxeko mezara, ta Ama seme-alabakaz meza nagusitara. Baia ez iñolaz bere etsean itxi seme alabarik edo otseinik bakarrik, bada alango orduak ordu asetuak izan oi dira laborea kamaratik ateretako, lagun txarragaz egoteko eta bear eztean egiteko; eta zuen seme-alabak edo otseinak onak izan arren ezteira orregaitik bakarrik itxi bear: gazteak dira (ta gazteak asko esan gura dau) eta ezteira errietan falta izaten gazteak orretan iminten dagiezanak. Arratsaldean Elepeari ingurukoak Elepeari, besperak badagoz entzutea, errosario esatera, krutze-bideak ibiltera. Ergoienetakoak, auzo batzuk batu ermitaren baten, urrean badago, edo ezpabere etseren baten, edo atarte baten; eta an errosarioa esan, gero liburu on baten irakurri; ta eztekiek, ardu erditxu leituden ikasten emon legie, neskatillak neskatilla dakien bateguz, eta mutilak mutilen bateguz. Alan egin dabe erri askotan, eta ogei urteakaz bere askok ikasi dabe: eta au ari-mearen on andirako izan doa. Gero gazteak, mutilak mutiletara, neskatillak neskatilletara, solaztu ta dibertidu zaitezte. Mutilak pelotan, boloka, edo beste yoko on baten; neskatillak bere edo karta yoko on baten, edo zuen artean dantzatan egin gura badozue, egizue, ondo, ondo-ondo izerditu artean. Iluntzean barriz guztiak etsera. Gizonak barriz zuek bere zetan atan dibertidu zaitezte, eta tabernara gura badozue, eta edanean igaroten ezpadozue, zoaze zuen kuartillutxua adiskideakaz ezarten; gau-erortean barriz zuek bere etxera; antxe erloju lauren terzioan doktrina puskatxubatu itandu; edonok etxean badaki liburu on baten irakurri ta gero afalduta bake bakean oira. Konfesetara bere domeka baten batzuk, bestean beste batzuk, bestean beste batzuk, alan zatituko zare. Auxe da domekak santututeteke modua.



Baia, ai, nere Kristiñauak! zer yazoten da gaurko egunean? Eztirudi gaurko egunean yai-domekak direala pekatu egiteko egunak baño. Yai-egunetan izan bearko dira ordikeriak, yai-egunetan errieltak ta aserreak, yai-egunetan yolasak, dantzak eta fiestak, eta eurentan berba zantarrak, eskuka loiak, saskelkeria guztiak. Ortxe etorriko N. Santuaren eguna, orixe arturik daukazue zuen patroï andi ta Jaungoikoaren aurrean zuen bitartekotzat. Bada orduan izango dira iñoz baño pekatu geiago ta andi-goak. Gero, zelan gura dozue Santu andi onek begiratu dagizuen? Zelan gura dozue Jgkoak mesedeak egin daizuezan? Ara zer zirautsen antxina Jaunak Israel-tarrai Isaias Profetearen aotik: «ezin ikusi dodaz zuen yaiegunak; gaistoak dira zuen batzarrak; guztizko gorroto gogor bat deutset zuen yaiai: ta guztiz gogaikarriak dira niretzat, ta asko ikusi eragiten deuste, eurak eroan ezinik». Gogaitkarriak dira, bai, Jaungoikoarentzako gere yai-egunak, eta asko erakusten deusagu egun aetako pekatuakaz. Baia bildur izan bear gara Jaunaren aserrea gure ganera, Judegen ganera legez, etorriko yakula. Etxakuz faltako labore faltea, gosetea, eguraldi ta azaro txarrak, gaixoak, gerrak, nekeak ta eriotza gaistoak. Baita au ezta deungeena, beste aldeko kontuak dira konturik okerrenak. Ai zeinbat dagozan infernuetan erretan yai-egunetako pekatuak gaiti!

Orregaitik neure biotz guztirik eskatuten deutset Justiziako Jaun prestuai, arren galdu dagiezala erriko fiestaak. Gauetako suak galduteko eztau Alkate Jaunak inoren bearrak. Besteak galduteko guztiak alkar artu, eta bein betiko galdu egizuez. Eta, ai! zuek al dozuela, galduten ezpadozuez, zuen ganera etorriko dira alango egunetan egiten direan pekatu ta nasaikeria guztiak; eta guztien kontu larria artuko deusue Jgoiko Juez gogorak. Eta siserua kexetan bada kalteak dituzalata, gizon aituen eskue-tan imini, eta aek igarri dagienak abonadu; eta urrengoan errematak egi-torduan, ori aurreti imini, erriak galduko dituzala fiestak. Gauza lotsagarria da beintzat, erriak siseruen agindupean egotea (egon bearra), eta lotsa apur bat bazeunke eztaikit nik orreri ondo eretxiko bazeunskioe. Baia diru apur bat geiago irabazi gureak guztia aztu eragiten dau, lotsea, Jaungoikoaren bildurra.

8. LAUGARREN MANDAMENTUAREN GANEKO IKAS-BIDEA

(B, 37 - 40. or.)

Filii tibi sunt? erudi illos... a pueritia illorum.
Eccl. cap.7 v.25.

1. Jaungoikoaren legeko laugarren mandamentuak aginduten deutse gurasoi euren semeen ardurea. Lau dira agindu santu onek gurasoi iminten deutsezan obligaziño ta egin bearrak. Mantenimentua, kastigua, ikas-bide edo doktrina, eta exenplu ona. Lenengo emon bear deutse bizi-tzea iragoiteko bear dabeena; zaindu bere bear dituez bizitza, osasuna, edo gorputzeko alderen bat galdu ze daien; eta alan egingo dabe pekatu mortala gurasoak euren erruz umeak ilten badira, esku, oiñ, begi edo gorputzeko beste parteren bat galtzen badabe; gexorik dagozanean alegina egiten ezpadabe osatuteko, emoten deutseezala osasun-gei edo medizina-k. Ez bakarrik dauke gurasoak obligaziño estua mantenietako euren bizian (bizi direan arte), baita bere emon bear deutse bizi-moduren bat geroko, irakasten deutseela ofizioaren bat, edo artuten dabeela beste moduren bat, euki daien gero zegaz ogia irabazi bizitza igarointeko bear dabeena. Emetik ezagutuko dabe, zelango pekatu andiak egiten dituezan arako gurasoak daukeena eta euki al daien guztia gastetan dabeenak auzi edo kerella deungakaz, ordikeria, yoko eta beste ekandu zitaletan, euren semeai bear leukeanik itxi bagarik, eta ofizio edo beargintzaren bat emoi-teko ardurarik artu bagarik. Zer egingo dabee gero seme oneek, arako gose direanean, zer yan eztaukela, eta zelan irabazi eztakiela? Ostu, kendu, engañadu, eta lapurretan, Nondik dator ainbeste Jaungoikoagarrengo [sic], edo eskeko erririk erri, ta erromeriarik erromeriarra ibiltea, eta askotan mutil eta neskatilla bear egin leikeanak? Emon baleutse gurasoak ofizioaren bat txikitxu zirean artean alperrik ibiltan itxi bagarik, edo topau izan baleutse ugazaben bat, edo zetan atan bear egiten irakatsi baleutse, ez litzatekez ikusiko ainbeste lapur mendi eta bide orreetan, ez litzatekez aurkituko ain galdurik, erri, uri eta Errepublikak, ezta ez litzatekez ikusiko ainbeste bagamundu eta alper. Ikusi daizuezanen zeuen lotsagarri eginik, orduantxe ezagutuko dozue zuen itzumendia ta errakuntzea.



2. Gurasoak dauken bigarren obligaziñoa da kastigua, edo (korrekziñoa) lotsea emoitea, au da kastigadu bear dituez berba loi edo deungaren batzuk esaten badituez, egikera edo obra txarrak egiten badituez, geistokeria, okerkeria, edo pekaturen batzuetan ibili gura dabeanean; eta alan egiten dabe pekatu mortala gurasoak itxiten badeutse umeai nai dabeen guztiagaz urteiten eurai deuten ondogura larregiagaitik. Au ezta, neure Kristiñauak, semeai ondo gura izaitea, ze Espiritu Santuak dinoandi, semea maite dabenak kastigetan dau (a.) eta kastigetan eztabenak agiri da ezteutsala ondo gura. (b.) Kastigu au umetxu direanetik asi bear da. Ai Aita, esango deust norbaistek, oraindio gazteak dira nire umeak, ezta kie zer egiten dabeen bere; edadeak ekarriko dituz; oraindokoarren bigunegiak dira kastigurako. A zorigogorreko gurasoak! diño S. Juan Krisostomo-k, gazteak dira zuen umeak kastigurako? Eztira bada gazteak Adanen pekatuan sortuak direala adi-erazoteko, euren biotzeko gorrotoa erakusteko, begirakune okerrak egiteko (zearretara begiratuteko), eskuetan daukena yaurtegitoko, lurraren kontra ostikoka egiteko, eta bear bada eskuak zuen kontra eregitoko; itxi egioezue kastigu bagarik azi dedin (ditezan), eta ikusiko dozue gero zelan ekandu zitel orreek indarra artu ezkeru, kendu ezingo dozuezan: arbola bat yaio barri edo gazte danean erraz da sustrai ta guzti ataraten; baia azi eta gogortuten bada, eztozue bere sustraiak aterako; ausiko dozue, baia antxe geratuko da sustrai edo erro bat baño ezpada bere. Alantxe da bada umeakaz bere (yazoten da): zeuen seme-alabatxuen ekandu deungak ikusten direanean bertatik kastigetan badira, erraz da sustrai bigunak kentzea; baia bein azi eta gogor-guten badira eztozue atarako; alperrik yoko dozue, alperrik bana-bana egingo dozue, ze eztozue atarako an dagoan sustraia: bada Espiritu Santuak diño ze, zaldi ezibakoak, gogorrrak urteiten dabena legez, alantxe gogorrrak urteiten dabela bere, kastigubako semeak (...). Itxi egioezue nai dabenagaz urteiten gazteak direalakoan, egioezue gura dituezan gustuak, erabili egizue atzen puntan ganean, ez egioezue ukatu nai daben gurairirik, palagadu egizue; eta gero ikusiko dozue zelan izango direan zeuben borraru (kruelak) gogorrrak. Itxi eioezue bere ibiltan danza ta fiestetatik, yoaten erromeria ta beste ibilte nastekoetara txikerrak direalata; eta gero ikusiko dozue... Baia zer diñot? Etorriko da egunen bat, zinetan ikusiko zaren Jaungoikoaren tribunalaren aurrean, eta non emon bearko dozuen zeuen seme-alabak, zuek ez kastiguagaitik, eta lizenzia (esku geiegi) emonagaitik egin dituezan pekatuen kontu.

3. Irugarren gurasoen obligaziñoa da doktrinea; au da, erakutzi bear deutse euren seme alabai doktrinea, eta Jaungoikoaren lege santua, eta au

ainbat umetxutatik; bada errazoera eldu, edo ezaukera apur bat euki daierenako egin bear dituez fede, esperanza ta karidadeko akto ta egitekoak, eta egiten ezpadituez ez yakinagaitik, gurasoena izango da erru guztia. Irakatsi bear deutsez ondo adierazorik *Abe-Maria*, *Aita-gurea*, eta beste oraziño Elexakoak, *Kredo*, amar mandamentuak, zazpi Sakramentu santuak, eta zeñatuten deboziño andi bategaz, ze kurutze santea da Demoniñoaren tentaziñoen kontra gordegarri, edo eskudorik sendoena, ta au guzti au irakatsi bear deutse berbetan asi ditezanetik, modu onetan euren biotzeetan azi dedin ainbat lasterren Jaungoikoaren ezauera ta bildur santua, Demoniñoak pekatuaren azia erein (daian) baño leenago. Baia zelan irakatsiko deutse guraso asko ta askok, eurak ezpadakie? Euretarik geienak ezpadakie zelan egin, edo zer dan fede, esperanza ta karidadezko aktoak egitea, ezpadakie zer esan gura daben *Santuen komuniñoak*, aragiaren biotzeak edo erresurreziñoak, sekulako bizitzeak eta beste onelango misterio edo gauza yakin bearrak? Zelan irakatziko deutse euren umetxuai? Ai, ze falta andia dagoan doktrinarena! Bada zeinbat seme alaba dagoz zazpi, zortzi eta amar urte ta geiagokoak enkarnaziño mesterioa ezta kienak eta zer esan gura dan, edo berean zer adietan emoiten dan ezta kienak; J.K°. nor dan ezta kienak; berak zeinbat persona dituzan ezta kienak; eta benturaz benturaz zeñatuten bere bear dana legez ezta kienak? Onelangoen gurasoai esaten baiake ea zetarako eztauken ardura geiago euren umeakaz, bertatik erantzuten dabe, oraindokoarren gazteak direala orreek ikasteko. O guraso galduak! o guraso zorigogorrekoak! Eztaukela diñozue zuen umeak doktrinea yakiteko edaderik? Eukiko dabe, bada, okerkeria, mukerkeria, gestakeria eta beste gauza deungeetarako; eztabe yakingo ondo *Aita gurea* ta *Abe Maria*, eta guztiz egongo dira aurretuak lotsabako eta loikeriazko berbaak esateko; dei egingo deutse diabruari ta demoniñoari eta ezituez yakingo Jesus eta Maria-ren izen gozoak; botako dituez ahenak, biraoak, ta maldiziñoak, baita eztabe yakingo zeinbat Jaungoiko dagozan, ez J.K°. nor dan, ezta zeinbat persona daukazan bere; kantaduko dituez kanta zoro gangar eta loiak, zeintzuk idigiten deutsezan begiak pekatuak, eta diñozue eztaukela denporarik doktrinea yakiteko? A guraso gogorrrak! Edo obeto esatearren borraru kruelak! Zer izango direala deritxazue biar edo etsi seme-alaba orreek? Zeuen dexionragarria (lotsagarria), zeuen biotzeko naibagea, eta zuen kondenagarria, diño Espiritu Santuak.

4. Laugarren obligaziñoa da exenplu ona: au da, ez bakarrik berbakaz, baita obra edo egikerakaz (egiteakaz) bere erakutsi bear deutse zeruko bidea, eta alan egingo dabe pekatu mortala euren umeen aurrean egi-



ten badabe pekatu erazo al leioen gauzaren bat; emetik ezagutuko dabe ze pekatu ikaragarriak egiten dituezan, arako gurasoak euren semeen aurrean berba loi eta arinak esaten dituezanak, eta matrimoniñoko gauzaak euren seme-alabak bere oian edo gela atan eukirik egiten dituezanak. A zeinbat deskuidu (utsegite) dagoan onetan! Ezarten dituez guraso batzuk eurekaz naste oe baten bost, sei eta zazpi urteko seme alabak; beste batzuk eura-kaz batera ez izan arren iminten dituez bost, sei eta zazpi urteko neba-arrebak oe baten nastaurik. A guraso gogorrek! A adugaistoko gurasoak! Eta ze ordu tristearen begira zagozen! Eztakizue zeuen seme alabak dagozala askotan zelata, eta zuek zer egiten dozuen begira, gero eurak bere alkarren artean, neba-arrebak izan arren alan egiteko? Norbaistek esango deust: Aita, ori alan da, baia familia andia daukat nik eta etxeak eztauko disposiziñorik (modurik) gela apartekoetan seme-alabak iminteko. A guraso gaisto! Etzara zu bakarrik ori esaten dozuna; ze asko ta asko datoz konfesonariora olango atxakia ta kexeagaz. Baia esan egidazu: Zegaitik zoaz, bada, olango etxe-bizitza estuetara, akomodauko ezpadozuz zeure seme alabak Jaungoikoak aginetan daben moduan? Edo, zegaitik erregututen ezteutsazue zeuen ugazaba, edo etxeen yaubeai, ol batzukaz baño ezpada bere egin daiola etxeari errepertiziñoren bat (gela bat edo beste)? Ai Aita! Ba'ki nire ugezabak zeinbat seme-alaba daukadazan, eta zeinbat gela daukazan bere, ni bizi nasan etxeak; baia yakin ta esan arren eztau lauzirik bere gastau gura. Sinistuten deusuet batzuei. Diñot batzuei, ze ba'kit nik ugezaba batzuk begiratuten dabela, eta geitu (egin) deutsezana gelak. Baia zuetariko askok familiarentzat eginiko gela onetan iminten dozuez, ordura artean beste lekutan eukiten izan dozuezan traste eta laboreak, geiago begiraturik zeuen ondasunai, familia bear dan moduan akomodeteari baño. Ba'kit beste ugazaba askok, errentea kobretan badabe ze, eztabeela begiraturiko euren etseetan egiten direan loikeria eta maldadeetara (okerkerietara), errepertiziñorik (gela modurik) etseak eztaukelako, iminirik atxakiatzat, eurak eztaukela obligaziñorik galarazoteko besteen pekatua. Baia yakin begie onelan pensetan dabeen ugazabak ze, ezin artu leiela euren errentadoreztat, etxeak daukan disposiziñoa baxen geiago bada errentadoreen familia. Eta alan erregututen deusuet neure biotz guztitik zuei ugezaba eta etxeak daukazueno arren begiratu dagizuela zelan dagozan zuen errentadoreen gela ta oiak; eta ezpadagoz familia bear dan moduan akomodetako deenziagaz, artu dagizuezala medioren batzuk, ol batzukaz baño ezpada bere gelatxuren batzuk geiagoe egiteko; bada lastimarik andienagaz ikusten dira etseen batzuetan bost,

sei eta zazpi urteko neba-arrebak oe, ta gela baten nastaurik, eta emetik ba'kigu larregi bere zer yazoten dan.

5. Onexen ganean bere egiten dabe pekatu arako guraso, tabernaan egun guztian egon ezkeru edo bai Onretatik ordirik etxera doazanak, euren ordikeria umeak dakusela: birao, maldiziño, demoniño eta añaenak eurak dantzuela botaten dituezanak, eta eurak dakiela tranpa, engaño, lapurkeria eta yokoetan dabiltzazanak. Engañaadurik dagoz gurasorik geienak, usterik, kunpliduten dabeela euren bear edo obligaziñoagaz, irakatsirik umeai doktrina puska bat garizuman txanteleen bildurragaitik, errosario bat arrastaka, erdi loo, eta deboziño bagarik eurakaz batera errezeauagaz; gauza deungaren bat egiten dabeenean deadar bat egin, edo zapladakoren bat emonagaz, baia exenplu txarra itxi bagarik. Esan egidazue, neure Kristiñauak, zer izango da semea, bere gurasoen aotik ezpadanzu ezpada demoniñoa, diabrua, añaeniñoa, biraoa, maldiziñoa, eta juramentua? Zer ikasiko dau ezpadanzu etxean Jaungoikoaren izen santua blasfemetea (ostikopean lurrean erabiltea) baño? Zelan urtengo eztau ordiak, ordirik badakus geienetan bere gurasoak? Zelan izango ezta alperra, lapurra, tranposoa, yokolaria, gatx guzti oneek badakusaz etxe barruan? Zer ikasiko dabe arako seme-alaba, eta ogitukoak, euren guraso ta ugazabak urterik urtera baño konfesetan ezpadira, eta orduan bere txantelen bildurragaitik, eta Jaungoikoaren gauzetarako beti atzera badagoz? Berba baten esango dot: zelangoak zuek, alangoak zuen semeak. Gero arako zartzarora eldu zaitezenean, eta atsakabez edo pesadunbrez bete zaitezenean, esaten oi dozue negarretan urturik, esker-deungakoak urten dabeela zuen umeak, eztiuezala ezagutu gura, eurak'aitik igaro dituezan nekeak, lanak, izerdi eta esturaak, eta azkenean zeuen kexa (garratzak ta) mingotzak akabaduteko esango dozu: Ai ze seme geisto, gogor ta esker-galdukoak emon deustazan Jaungoikoak! Baia au guzurrea da, ze Jaun andi onek gizon guztiak egin zituzan artezak ta onak: zuek, zuek, emonik eurai libertadea, gura dabeen dantza, fiesta ta leku ta basterretatik ibilteko, eta zeuen exenplu deungeagaz, zuek galdu dozuez. Ondo azi bazenduez etzirean izango zuen borrarer gogorrek. S. Paulo-k dirausku bakotzak ereiten dabena artuten dabela: eta zuek dakutsuena da, artoa ereiten dan soloan ezjala garirik artuten. Erein bazendue umeen biotzeko lurrean exenplu onaren azia, birtute ta santidadearen lora ederra eta frutu gozoa artuko zenduen; baia erein badozue egikera deunga eta pekatuaren exenplu deungea, zer itxaron zinaike esker-deungearen, eta gogortasunaren sasiak, arrak eta arantzak zuen biotza atsakabez betetako baño?

6. Lau bear edo obligaziño oneek beteko balituez (onei erantzungo baleutse) gurasoak, ez litzatekez ikusiko ainbeste pekatu mundu zabalean;



guztia izango litzateke bakea, guztia karidadea, guztia santidadea. Baia norbaistek esango deust: Ai Aita! sarri ta sarri yazo oi da seme ondo aziak txarrak urteitea. Ez eikedazu onelango gauzarik esan, dirautsu S. Juan Krisostomo-k. Gizona ezta berez gaistoa: deungaak bagara norberen guraz gara; borondateak ta gura izaiteak bakotxaren ekanduai ta artu zituzan kostunbreai yarraituten deutso; gurasoak barriz umeen borondateak ekandu ta egin leie gauza onetara ardura (gitxigaz) eukiagaz. Ondasunak eurentzat batuteko gaña ardura, iminiko bazendue ondo eurak azteko, dudatzaga izango litzatekez onak; baia euren gorputzak (nonbait) ondo iminteko neke ta lan andiak iragoten dozuezan artean daukazuez aitzurik euren arimaak. Eztago gurasoentzat solo, etxe, ez ondasun obeagorik umeen arimaak baño, eta alan eztabe ezetan bere ifini bear ardura andia-gorik, euretan dagoan graziako ondasuna yagotean baño, zein infernuko lapurrak ostu dagian. Ardura au eztaukeen gurasoak dira askozaz gogor-ragoak eta kruelagoak, eurak ilten dituezanak baxen. Eta alan yakin egizue ze pekatu andiagoa ta eskergeagoa egiten dozuela semeak deungaro azten dituezanen [sic], ezpata bategaz biotza erdibituko bazeuntse baño: bada orduan gorputza bakarrik ilgo zeunskioe, barriz azikera deungegaz gorputz ta arimea botaten dozuez betiko infernura.

7. Eta, ze kastigu merezidu dozue pekatu onegaitik? Heli Israelgo Sazerdote andiak, bere semeen pekatua kastigadu ez ebalako, galdu zituzan semeak, galdu eban bizitzea, galdu eban abedetasun edo Sazerdotetasuna; ta ez bakarrik beretzako, baita bere seme, lloba ta ondorengo guztientzako bere. Ez eukan auxe baño beste pekatuak, santu bat zan gane-koan, ze ardura guztizko bategaz egiten eban bere ofizioari etorkion guztia. Zegaitik deritxazue etorri yakazala ainbeste gatx Dabid Erregeari, bere semea bere kontra yaigitea, uritik kanpora oñez igesi urten bearra, ta ainbeste negar, zispuru eta gerrea? Bere seme Ammonek egin eban pekatua kastigadu ez ebalako. Baita, deritxazue kastigu bagarik itxiko dituzala Jaungoikoak zuen semeen azikeran egiten dozuezan pekatuak? Ezetz diño, neure Kristiñauak, S. Juan Krisostomo-k. Seme edo alabak ilten baiatzuez, ondasun eta aziendak galduten baiatzuez, gatxa eta gexoa badatorkizue, edo beste kalterik badakutsue, pekatu onen kastigu izan doa geienetan. Eta uxela mundu onetan izango balitz kastigu au; baia bildur nas zein infernura yausi zaitezcan betiko zeuen semealaba deungaro aziak batera. Azi egizue bada, neure Kristiñauak, zuen seme-alabok S. Paulo Apostoluak diñoana legez Jaungoikoaren bildur santu ta amodioan eta kastigadu egizue bear danean, ze Espiritu Santuak diñoandi, euren gorputzak nekatuagaz euren arimaak libraduko dozuez infernutik.

9. DOKTRINA DE LOS PADRES DE FAMILIA

(I, 63-71. or.)

Educate (lios vestros) in disciplina et correptione Domini.

Efes. 6. v. 5.

Asi egizuezu ceuon umeak Ygcoaren leguean eta lotsa onean.

Jaungoikoaren legeko laugarren aginduan sartuten da gurasoen umeak ganako ardurea. Egia da Yaunak onen ganeko (agindu onetan) berba argirik egin ez ebalako, baia yakitunak diño eze, ori izan zala ain yakinak direalako gurasoen egin-bearrak eze, buru txarreko abere mutuak, eta pistia zantarrak bere orreek ezagutu eta egin egiten dituez. Baia agindu onetan Jgoikoak ezer argiro aitatu ezpeeban bere, Eskritura santuko makina bat lekutan gurasoai umeen azieraren ganean berba egin deutse. Konta luzea izango liteke orain zeuei orrek guztiok banaan banaan esan bearra: gero aldian bat, aldian bat, ereak dakazan legez esango deusuedaz onetariko batzuk. Asko izango da bein esatea San Paulo-ren bitartez dirautsena: «azi egizuezu zeuen umeak Ygkoaren legean ta lotsa onean.

Iru direala diño S. Antonino Florenzia-koak gurasoak umeai zor deutseezan gauzaak, eta dira amodioa, euren ogia, eta azi-bide ona. Lelengo bada gurasoak laztan izan bear dituez euren umeak, eta pekatu au gurasorik geienak egin daroe: larregi askok gura ezpaleutsee: izaten dira orregaiti bere guraso banakaak, saiak legez, euren umeakaz, eurenak ezpaleutsez legez gogortuten direanak, eta onelangoak gaiti esan bear dot nos pekatu egiten dabeen. Pekatua egiten dabe bada gurasoak 1°. gura badabe euren umea il dakioen artutxu bizi direalako eta zer emon andirik eztaukeelako. 2°. Pekatua mortala egiten dabe ama seindunak, egiten badabe sabeleko seintxua galduteko (gastetako) izan leitekean gauzarik, zelangoak direan aserre andiak (gogorak) izatea, pisu andiak (astunak) buruganean artutea, baterik bestera saltu andiak (luzeak) egitea eta onelangoak. 3°. Eta oraindo pekatu ikaragarriagoa egin daroe neskatilla seindunak (izorak) euren pekatua agertau eztedin, aleginak egiten dituezanak seintxua galduteko edo ilteko. Iya bizirik dagoan seiña aleginakaz galdutea da pekatu ikaragarriko eskerga bat, zeinen kontra Elexa Ama Santuak deskomuniñoa eta beste kastigu bildurgarrikoak iminirik daukazan. 4°. Pekatua mortala egin daroe seintxu galdua edo gastaua bateatu bagarik,



yakinen ganera, artuta uretara botetan dabeenak, edo lurpean sartuten dabeenak.

Ai, kristiñau maiteak! negar egitekoa da onen ganean askotan baño geiagotan yazo oi dana. Entzuzue, arren, alango aldietan zer egin bear dan, bada au ez yakinagaiti Ygkoak daki zeinbat arima eder geldituten direan bere arpegi gozoa ikusi bagarik. Galdu dan seintxua bere formegaz badator, eta ustelik ezpadago, bateatu bear da, baita ilaren etxureagaz eta ezeri eragiten ezteutsala baletor bere. Azalaren (sakuto, mintzaren) barruan badator, orduan kontuz kontuz azaltxuari idigi (eten) bat egin bear yako edo artaziakaz, edo atzazalakaz, eta barruan dagoanari ura egiten yako, esanagaz batera (bizirik dagoala agiri baiako, ura egiten yakanean esan bear da): «nik bateatuten zaitudaz Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean». Eta kontu, Kristiñauak, lelengo berbakaz; *nik bateatuten zaitudaz* esan bear da, eta ez ainbagarik *Aitare*n etc. Eta bizirik dagoala agiri ezpadau, eta usteldurik ezpadago, esan bear da *bizirik bagaz nik bateatuten* etc. Baita orrenbestegaz gero aren arimatxua zerura yoango da ume ori ilik ezpegoan. Eta ez esan iru astekoa zala, amabost egunekoa zala: dana dala alantxek egin bear da, eze batek eztaki nosgarren denporan biztuten dan seintxua, eta alan eginagaz ezta ezer galduten, eta bear bada ez eginagaiti aren arimea bein betiko linbora galduten da.

5°. Pekatu egiten dabe gurasoak umeren bat eurak azi ezpadabe, ari besteai baxen lege gitxiago erakusten deutenak. 6. Pekatu egiten dabe gurasoak umea eurak gura ez ebenagaz ezkondu dalako, beragaz tratau gura eztabeenak, eta itxiten ezteutsenak euren sarten: edo umeagaz egin arren, suiñagaz, edo erranagaz egin gura eztabeenak. 7. Eta azkenean pekatu egin daroe gurasoak umeai larregi gura deutseelako guztia parkean deutseenak, eta gura dituezan mizkeria guztiak egiten deutseezanak, bada alan eginda umeak deungaak, eta lotsa galdukoak urten bearko dabe. Onelango gurasoak gaiti diño Jaungoikoak: «Zartea geldi daukan gurasoak gorroto deutso bere umeari».

II. Gurasoak umeai zor deutseen bigarren gauzea da euren ogia: esan gura da emon bear deutseela euren bizitzea igaroteko bear dabeen guztia, yan-edana, soña ta oña, bizilekua, etza-lekua: yagon bere bear dituez galdu eztagien bizitzea, osasuna, edo gorputzeko alderen bat. Onen ganean diño S. Paulo-k: Ezta umeena gurasoentzat ondasunak batutea, eta bai gurasoena umeentzat ori egitea. Eta 1°. Gauza onen kontra pekatu egiten dabe gurasoak arpel-onzi eginik bizi direanak, bapere (bear dan) bearrik egin gura eztabeela, euren buruentzat eta umeentzat ogia irabazteko. 2°. Pekatu egin daroe daukeena eta eztaukeena tabernan, yokoan,

yan-edanetan, auzitan eta zorakerietan ondatuten dabeenak, euren umeak gero ortozik, erdi billosik, arlote eginik, eta goseak ilik darabildezala. 3°. Pekatu mortala egin daroe arako guraso zeken esku-eutsiak emoten ezteutseenak umeai bear dan legez yanzteko, alzi eginik darabildezala, eta yan bere egingo ezpalebe gurako leukeela.

4°. Pekatu mortala egin daroe gurasoak euren umeai ukatuten badeutsee, edo luzatuten badeutsee emotea orren bearrean dagozala senipartea, lejitimea, dotea, edo yatorkeena umeak gurasoen gogoko eztagaz edo gurasoak gura ez ebenagaz ezkondu zirealako. 5. Pekatu mortala egin daroe gurasoak euren ardura-ezagaiti galduten badabe umeak begia, besoa, kaderea edo alangoren bat, edo euren erruz ume orrek geixotuten baiakez, edo geixorik dagozanean Medikuari edo o?izialeari dei egiten ezpadeutsee edo emoten ezpadeutseez osatuteko bear diren gauzaak, edo euren erruz, dan legez dala, ilten baiakeez. Kontuz ibili bear dabe bada bularreko umetxu txikiak eurakaz nastean eratzoten dituezan gurasoak, bada itoten badituez edo ilteko bidean paretan badira pekatu mortala egingo dabe. Orregaiti diño Erroma-ko doktriña liburuak eze, ez leukeela gurasoak eurakaz eratzo bear alango sein titikorik, eta iños egingo badabe imini bear leukee bitartean almoadaren bat, edo erropa moltsoren bat alangorik yazo ze dedin.

Ez bakarrik emon bear deutsee gurasoak umeai bizitzea igaroteko bear dabeena euren agindupean ta euren ardurara daukeezan artean eta umeak euren ogiaren yaube izan (eztirean) artean, baia emon bere bear deutsee geroko ogia irabazteko edo izateko moduren bat, edo zetan edo atan bear egiten irakatsiagaz, edo bide oneko ondasunak eurai itxiagaz edo alan. Onen ganan bere askok pekatu egin daroa. Batzuk euren diruak zelan etorri alan yan egiten dituez, geroko etorkizunai bapere begiratu bagarik, eta alan eurak irabazi al daben artean, edo errentaak dirueen artean emoten badeutsee bere umeai bear dabeena, edo bear bada (ame-neko) bear leitekean baño geiago, gero esku utsakaz ezer-ez ean itxiten dituez, ez ezkonduko, ez euren ogia irabazteko, ez ezetarako modurik bapere eztaukeela. Beste batzuk alango zorakeriarik egin ez arren eztabe ardurarik artuten euren umeai ofizioen bat, beargintzaren bat irakasteko, edo ogia irabazteko moduren bat emoteko. Beste guraso batzuk ardoari, alperrieriari, auziai emoten deutsee, eta umeentzat irabazi bearrean, etse guztia zorrez betetan dabe, eta bein baño geiagotan euren etsaguntza, solo ta bazter guztiak konkursoan saldu eta eskean aterik ate askoren arpegiak lotsatuten urten bear izaten dabe; eta dana dala, beti umeai kalte ekarten deutsee, bada ezteutsee emoten emon bear leuskioenik. Gero, zer



izango dira onelangoen umeak? Lapur andi batzuk. Ai! Itxiko ezpaleutse gurasoak umeai alperrik ebiltzen, irakatsiko baleutse ogia irabazten, edo itxiko baleutse geroko zegaz bizi, elitzatekez ain galdurik ikusiko uriak, erriak eta elelateak, elitzatekez ikusiko ainbeste arpel-andi, ainbeste lapur eta ainbeste galdu orko bideetan.

Ogian sarten da umeen ezkontzea Ygkoak bide orretara badakaz, eta onen ganean bere pekatu andiak izan oi dituez gurasoak. Pekatu da umeak ezkontzea euren biotzez kontra, edo euren gogoko eztanagaz. Guraso askok esan daroe semearen edo alabearen borondateari bapere begiratu bagarik: «urlia da gurera ona: ain lekutan sartuko dot neure semea edo alabea: gura ezpadau, nai dabenak lagundu dagiola bestegaz egiten». Edo diño: «gurean sartuko danak onenbeste dote bearko dau»: eta begiratu bagarik ezkondu bear dabenaren borondatera egiten edo desegiten dituez euren buruti ezkontzaak. Ori ezta ondo: gurasoai yator-kee seme-alabeen gogoaren barri artutea: eta eurak gura dabeen ezkontzea, biderik eztaarren burubaako ezkontzaren bat ezpada, eta ondo urtengo ezteutsan lagunagaz; lagundu bear deutse aleginean. Pekatu bere egin leie gurasoak umeak ezkontuteko, edo akomodetako ardurarik artuten ezpadabe. Guraso askori entzun yoake buru bagarik diñoela (esaten): «geure umeak adinekoak ta edadekoak dira: eta gura dabenean erremediako dira: zer emon andirik bere eztaukagu: eta gura dabeena egingo dabe. Alan gero izaten dira ainbeste nasaikeria eta ainbeste ezkontzako berba, pasiño zoroak eta berotasunitsuak erazoak, eta ondo sarri guzurragazkoak. Sarri egiten dira onelango ezkontzaak fiestetan, eta alkarregaz nasaikerietan eta zantarkerietan dabiltzazan aldietan. Amodio argalak erasoten dituz, eta gero sarri laster garbatu. Eta, nok dauko alangoen errua? Guraso ardura txarrekoak.

Orregaiti bada, gurasoak, ardura andia artu bear dozue seme-alabaak, geiegi luzatu bagarik, ezkontuteko; eta iños asmetan badeutsazue zeuen umeari berotxu dabilela, eta ezkondu gurarik, egizue ainbat lasterren ezkontutera: osterantzian buruko-mina etsean ugari sartuko yatzue. Baia zeuek, umeak, gurasoen buruti ibili zaiteze, eta al dozuela euren esana egizue, eze geienean obeto urten daroe onelango ezkontzaak zeuek zeuen buru zoroti egiten dozuezanak baño. Baia gogoa ezin berotu baia-tzue, gurasoak gura dabeenagaz ezkontuteko, argiro eta artez esan, zelan biotzak lagunduten ezteutsuen, eta ez or lotsa arren ezkondu, eta gero beti damuz beteta bizi, egun onik bein bere ikusi ezin dozuela. Baita kontuan egon zaiteze, guztiz bere neskatillaak; ezkontzako berbea naztetan bada labankeriakaz, eta zantarkerien asmua dakarren gauzakaz, agiri da

guzurragaz dabilela lagun o, eta berotasunitsuak erasoten deusala. Ez bada alangoai sinistu milla yuramentu egin arren.

III. Baia eztabe asko gurasoak, gorputzeko bizitza igaroteko bear dabeena umeai emonagaz: arimako bizitza da beinago, eta alan onen ganean ardura geiago (obe) artu bear dabe, eta ori egingo dabe azi-bide ona emonagaz. Auxe da bada laugarren mandamentuak gurasoai aginduten deutseen irugarren gauzea, umeai aziera ona emotea. Eztira gurasoak izan bear Santu-giñak legez zeintzuk egiten dituezan santuak kanpotik eta azal-ganeti ederrak eta politik egiten badituez eze, barrutikoagaiti ezteutse ardurarik. Gurasoak euren umeak azaleti baxen barruti obek egin bear dituez, esan gura dot umeen arimeagaz gorputzagaz baño ardura geiago bear dabeela eta ori egingo dabe (gorputzerako) ogiaz ganeti, (arimarako) aziera ona emoten badeutsee. Aziera ona emoteko iru gauza egin bear dituez gurasoak: 1. gauz'onak irakatsi, 2. gauza txarrak galarazo, eta 3. exenplu ona emon. Entzuzue iru gauzok bein banaan. 1° Gurasoak umeai gauz'onak irakatsi bear deutseez. Ygkoak antxina gurasoai zirautsen: «irakatsi egioezue umeai nire berbaak gogoan erabilten, etsean zagozanean, bidean zabilzenezan, oera zoazenezan, eta yagiten zareenezan». Au bear dan legez egiteko, umeak berbaz asten direaneti irakatsi bear deutseez gurasoak Jesus ta Maria-ren izen gozoak: irakatsi bear deutsee ondo ondo siñatuten, bada kurutze santua da Ygkoak geure arerioen kontra itxi euskun gordegarririk andiena. Irakatsi bear deutse Aita-gurea, Abe-maria, Kredoa, amar mandamentuak, bost Elexakoak, zazpi sakramentuak eta onelangoak. Eta orreek erakusteko eztira begira egon bear umeak adinera etorri artean, bada errazoera eldu, eta ezaguera apur bat daukeenean egin bear dituez fede, esperantza ta karidadeko aktoak, eta egiten ezpadituez zelan egin eztakielako, gurasoena izango da erru guztia. Baita bere zazpi urterik aurrera mezatara agindu bear dituez irakasten deutseela zelan moduz egon: eta konfesetara bere bai, geroko ikasi dagien(tzat). Eta zelan urteetan aurrera doazan, alan doktrinea bere obeto yakin bear dabe. Baia, egiten ete da alan? Oi ze negargarria dan onen ganean gure errietan ikusten dana! Zeinbat seme-alaba sei, zazpi, zortzi urtekoak, eta geiagokoak bere ikusten ez dira doktrinaren apurrik bere eztakienak?

Esaten baiake onelangoen gurasoei ea zegaiti ardura geiago eztaukeen umeai doktrinea erakusteko: beingoan erantzun daroe: «Ai, Aita! geure umeak gazteegiak dira oraindo orreek ikasteko. Bai, gazteegiak dira zeuen umeak orreek ikasteko. Eztira bada izango mukerrak eta erremuxkadak egiteko. Etxake entzungo Jesus ta Maria-ren izen gozorik eta pitian pitian entzun bearko yakez añenak eta arrenak, biraoak eta arraiok. Ezta-



kie Aita-gurea eta Abe-maria, eta batu bearko dituez baster guztietako ereziak, errondoak eta ipuiñak. Eztakie kurutze-santearen egiten, eta yakingo dituez milla soñu gangar, loi ta lotsagarri. Oraindio gazteegiak dira konfesetara biralduteko (botetako), eta agindu bearko dira iñoren solora, ortura basora, iñoren gauzea egitera (ostutera). Egongo dira bear bada pekatu mortalean, eta eztabe yakingo, eta ameneko (benturaz) entzun bere egin izango eztabe zeinbat gauza bear direan konfesiño on bat egiteko. Onelangoen gurasoak pekatu mortalean bizi dira. Bada yakin begie umeai doktrinea irakasten ezteutseen gurasoak pekatu mortala egiten dabeela.

2°. Azi-bide onak gurasoai eskatuten deuten bigarren gauzea da gauza txarrak umeai galarazotea. Bai, gurasoak, umeak lotsa onean azi bear dituez, Ygkoaren bildurtasuna erakusten deutseela. Esan bear deutseez Ygkoaren berba oneek: «Ene seme, pekatariak euren bide txarreeta- ra ekarri gura bazaituez, ez lagundu: etzaitz eurakaz batzandu, bada euren oñak arin dabiltz gauza okerrak egiteko: ez ondo eretxi deungeen bideari, ze orreek eztagoz ondo, deungaro egiten ezpadiñardue. Orretarako eragotzi bear deutsee pekatu dan guztia, baita bere pekatu egitera ekarri leikezana. Eragotzi bear deutsee pekatu mortalen bean biraoak egitea, berba loi arinak eta nasaiak esatea, lapurretak egitea, eta onelangoak. Eragotzi bear deutseez lagun deungaak, leku txarrak, gauetako ibileraak, eta bide pelleburuzkoak. Ori egiteko yakin bear dabe euren seme-alabaak zelango lagunakaz batzanduten direan, zelango etsetan sartuten direan, ze lekuetara yoan oi direan: zelango adiskideak daukeezan: eta bein yakin ezkerro lagun, leku edo adiskide orreek deungaak edo adinonak direala, ezteutsee itxi bear euretara elduten. Bildur badira lagun eta etse orreek alan-alangoak direala, orduan bere galarazo bear deutsee alango lagun artera eta etsetara yoaten, eta alan egin ezik pekatu mortala egiten dabe gurasoak.

Emeti dator pekatu mortala egitea guraso askok zeintzuk euren umeak ezkondu ditezan amurruagaz edo ainbagarik aginduten dituezan fiestetara, zelaietara, bigireetara, dantza nastuetara, eta alango neska-mutilen arteko batzaarretara. Eta oraindio pekatu mortal andiagoa egingo dabe gurasoak euren umeak urligaz edo urlinaiñagaz ezkontzea egitera etorri ditezentzat, edo egin ezkerro galdu ez daitentzat, itxiten deutenak semea- ri neskatillaren etsera yoaten, edo besteko mutilari eurenear sartuten. Baita izan oi dira onelangoen artean gurasoak, gazteak alkarregaz bakar- txurik itxiteko, eurak etseti kanpora, solora, atartera, basterretara urteten dakienak. Oneek bai gurasoak! Yakina da bada, gazteak bakarrik egonda,

eztireala errosarioak esaten egongo. Azkenean barriz, ezkontzeen ganean esan bear deusuet eze, gurasoak galarazo bear deutseezala umeai luzaroko egiten direan ezkontzaak, urtebetegarrenerako, lau urtegarrenerako eta onelangoak. Au gogotik artu bear dabe gurasoak, bada ori ez eginagaiti Ygkoak daki gazteak zelango pekatuak egiten dituezan bai gogoz, bai eskuz, bai aragiz, eta gero gurasoak Ygkoaren aurrean onelangoen ganean zer ikusi andiak izango dituez.

Eztira oneek bakarrik gurasoak umeai galarazo bear deutseezanak, pekatuak bideak kenduko badeutseez. Beste gauza bi bere badira ez esatea guraago neunkezana, pekatu asko eragozteko esan bear ezpalitz. Bata da gurasoak eztiuezala eurekaz nasta eratzo bear ume kaskondotxuak eta nagustotxuak. Batzuk batzuk ori egin daroe, orregaiti bere geldo egoten ezkiela. Iru-lau urterik gora euren oeti eta gelatik bere kanpora bota bear dituez umeak pekatuak bide andiak emon gura ezpadeutsoez, eta euren lepo ganean pekatu anditzar asko artu gura ezpadituez. Yauna, oraindio umeegiak dira alangoa zer dan yakiteko. Ezta ardura. Zeuek atan ikusi edo asmauagaz beste ainbeste egin leie eurak euren artean: eta orduan yakin ez arren zer egiten dabeen, artu leie ekandu zitara, eta gero zer dan yakitera datozanean, ezin galdurik bein arturiko bezu txarra aurrera eroan leikee. Yauna, lo-gogor egoten dira. Zeuek uste izan arren lo dagozala bear bada iratzarririk egongo dira, eta zeuek zer egiten dozuen adi egongo dira, eta bear bada eurak igarri bagarik infernuko su loian erretan. Sinistu egidazue guztizko kalte negargarriak etorri dira gurasoak umeen arkuntzan (parean) alan eginagaiti. Bigarren esan bear deusuedana da deungaro egin dala oe baten erabatera seme-alabaak eratzotea, txikinak eta gazteak izan arren; edo euren oitxuak bata besteen parean imintea. Kristiñauak, andiak dira geure arerio dollorraren asmuak, eta pekatu asko sortu dira alango gauzeetati. Orregaiti etse batek, ondo ibilteko, iru gela bear dituz, bata senar-emasteentzat, bestea mutilentzat, eta irugarrena neskatillentzat, eta alan ezala, milla zantarkeria ta zikinke- ria yazo bearko dira. Eta alan nik biotz-biotzen eskatuten deutset uga- zabai eta etseiaubeai, arren bada begiratu dagiela errentadoreen oiak eta gelaak zelan dagozan, eta ezpadagoz kristiñautasunak aginduten daben legez, egin dagiela eurekan dana, ol batzukaz, edo esto batzukaz baño ezpada bere, bear dan legez iminteko. Eta ori egin ezik, nik artez dirau- tset, euren lepo ganean izango dituez errentadoreak eta errentadoreen ogitukoak alango ardura ezagaiti egin dagiezan pekatuak. Eta ezpegide esan onelangoak, eurak eztaukeela iñoren pekatua zetan galarazo: bada yakinik egon bear dira eze, ezin errentadoretzat artu leikeela, etsearen



barruak, garbiro iminteko, aginduten dabena baiño lagun geiago daukanik. Baia ugazabaak egiten ezpadabe, egizue zeuek errentadoreok, eta Ygkoak zor badau orren duiña ta geiago emongo deutsue. Zuen ume gai-xoen arimeen onak ori ta geiago aginduten deutsue.

Esanak guztiak, bada, galarazo bear deutseez umeai gurasoak, bear dan bidean aziko badituez. Baia, o guraso askoren negargarrizko itsumen gogorra! Ezin esan bere egin lei noragiño elduten dan geure arteko guraso askoren nasaikeria, eta ardura eza lotsagarria. Itxi bear izaten deutsee edozein batzaar nastuetara ibiltzen, edozein mutil buru-arinegaz, edo edozein neska gangar zorapillogaz lagunduten, gaubaz berandu artean bere etserik kanpora egoten, orregaitik bapere bildurrik ez errenkurarik artuten eztabeela. Eta iñok arpegirik artuten badeutse, edo ezer esaten badeutse, burukominik izan ze dagien, epetasun andian erantzun daroe: «E! eztago ardurarik. Guztiz da ona ene semea; ene alabeari ezin iñok ukutu leio, zarata bakoa da bera. Ez, ez: eztago eurakaz bildurrik. Gauza orreek gaztetasunak eskatuten dituzanak dira. Gaztetasunari (gaztezarolari) berea emon bear yako. Geu bere alantxek ginean». Gero gura ezтана yazo dakie-nean edo neskaren bat bete: semeak burubaako ezkontzaren bat egiten dabenean: alabearen okeluetako nasaikeriak guztien begietara agertuten direanean; orduan dira negarrak, zizpuruak, zotinak, ulle-tirakaak. «Ez neunkean nik sinistuko neure semeak, neure alabeak, ori egingo eustanik. Nok esango eban au egingo ebalá? Nok usteko eban alangoak urten bear-ko ebalá?». Nok? A guraso zoroa! A senbaako gurasoa! Nok esango ez eban zeure umeagaz zer igaroko zan ikusirik nogaz ebilen, nora yoian, non sartuten zan, ta zelango bide makurrak erabiltzazan? Edozeinek igarriko eutsan ikusita zeuk emoten zeuntsan laza ta esku-eskune larregia gura eban bideetati ibilteko nai gaubaz zala, nai egunez zala ezin onean yo leikeala zeure umeak. Zeure buruaren erru imini bear dozu orain daukazu-naibaakoa.

Alan bada gurasoak ardura andi bat imini bear dozue, zeuen umeai Ygkoak dirautsuen legez ondo erakusteko, eta pekatuak eta pekatu-bideak (galarazoteko) kenduteko, eta ondo esanean ezin badozue, gogorrean ta garratzean egin bear deutzazue. Ori ondo egiteko Ygkoak berak dirautsue zer egin bear dozu. Entzun bere berba ederrak: «Loren yau eta palagau eikezu zeure umea, eta berak bildurpean erabiliko zaituz: ibili zaitetz beragaz (parlantzuan), txantxakerietan eta txutxuputxuetan, eta berak nekeak ugari erakutsiko deutzuz. Ez beragaz barre andirik erabili, gero damutu ze dakizun. Emoiozu zeure semeari lotsea; zarteagaz yo arren etxatzu ilgo. Gurasoak, ez egiozue umeai aserratu eragin, ez sumina artuteko biderik

emon». Onek eta onelangoak dirautsuez Ygkoak berak. Alan bada umeak ondo aziteko egin bear dozuena da lotsea ta itzala beti emon bear deutzazue. Eta lotsa au eta ondo erakuste au ainbat umetxutati asi bear da diño Ygkoak berak: *dum infans est*, umekondoa danean; ezpabere bear bada, gogortu ezkeru, geiago egingo deutzue, eta buruko-ala andiak ikusi bearko dozuez.

Au esaten yakenean, guraso askok erantzun daroe: Ai bada! oraindo gazteak dira orretarako geure umeak; aek eztakie gaixoak zer egiten dabeen bere asko; geldi geldi edadeak ekarriko dituz. A guraso gogorrek, edo obeto esateko zeuen umeen borraru gogorrek! Ez tira bada gazteak zeuen umeak biotzeko sumina erakusteko, begiraunak, adikuneak, erremuxkadak, eta mukerrak egiteko. Itxi egiozue gogortuten, eta gero ikusiko dozue zelan ezi ezingo dozuezan. Umetxuakaz yazo oi da aretx-landarakaz yazo oi dana. Aretx-landaratxuak eme barri direanean, laster dira sustrai ta guzti atereak; baia bein gogortu eta andi egin ezkeru, eta sustrai luzeak eta erro zabalak egin ezkeru, eztozuez guztiz aterako: bertan geldituko da erro bat baiño ezpada bere. Alantxe da umeakaz bere: lenengo mañatxu txarrak burua agertuten dabenean, gitxi bear izaten da maña orreek galarazoteko; eta bear bada zapladako bat, agiraka bat, berba bigun bat, bekoki ilun bat asko izaten da orretako. Baia bein ekandu gaistoak sustraiak eta erroak basterretara zabaldu ezkeru, ezteutsazue bezu txarra galarazorik. Alper alperrik yoko dozuez, alper alperrik bana bana egingo dozuez: antxe geldituko da erro bat baxen ezpada bere, zeinek gox edo berandu atera bearko dabean burua, arako zeuen umeak zeuen bildur ezti-reanean. Orregaiti kontu, gurasoak: zeuen umeai mañatxu gaistoak lelen-go lelen-go barritarik galerazo: agertauta lasterrean burua ebagi: ez itxi temea(gaz) kabiduten (urteten): ezi egizue euren okerrune guztiak indarra artu baiño leen, ezpabere Ygkoak diñoana: zaldi ezibaakoak gogorrek urtetan dabean legez, alantxek kastigu bagako umeak gogorrek eta lotsa galdukoak urtetan dabe.

3°. Onek alan dira, eta alan egin bear dira: baia eztabe gurasoak orregaz ezer egingo eurak onak ezpadira. Indar geiago dauko begietati sartuten danak, belarrietati datorrenak baiño. Arpel arpelik esango deuto gurasoak umeari, «au egik, bestea ez egik egin»; umeak beste gauzarik egiten gurasoa ikusten badau, dakusana egin bearko dau, ez gurasoari entzun deutzana. Orregaiti zirautsan Leta-ri San Jeronimo-k: «ezpegizue ikusi zeuen alabeak ez zeuri ta ez aitari, berak eginda pekatu izango leukean gauzarik». Eta auxe da aziera onak gurasoai eskatuten deuten irugarren gauzea, exenplu ona emotea. Eta onen kontra pekatu egiten dabe guraso-



ak umeen aurrean egiten dabeenean pekatu dan gauzea, edo pekatuak bidea ta oña emon leikioena. Alan pekatu mortala egingo dabe 1°. tabernan edo ondretan izan ezkeru umeen aurrean ordirik paretan direan gurasoak. 2°. Pekatut mortala egingo dabe umeai edo umeen aurrean birao egiten daben gurasoak. 3°. Pekatut mortala egingo dabe gurasoak umeen aurrean arkalegaz aserratuta, bata besteari berba astunak eta lotsa txarrekoak esaten badeutseez, irauna garratzak emoten badeutseez, edo gogor eta lege eztan legez alkar artuten badabe. 4°. Pekatut mortala egingo dabe umeen aurrean esaten dabeenak, eurak ezteutsela alango billauari parkatuko, kerella bat ekarri bear deutsalara, gastarazoko deutsalara, bengauko yakala, edo zelan alan iragarten deutesenak besteari deutesen gorrotoa. 5°. Pekatut mortala egingo dabe umeen aurrean esaten dituezanak zelebrequeriak, berba loiak, ipuin zikinak, errondo edo erezi deungoak, edo etseko bearretarako alangoak esaten dakiezanak dakardeezanak. 6°. Pekatut mortala egiten dabe umeen aurrean ateraten dituezanak euren gaztezaroko ibilera zoroak, adiskidetasun loiak, panparreriak eta erakeriak. 7°. Eta ara bere pekatu geiago egingo dabe guraso orreek, umeak dakiela, edo ikusi, entzun edo igerri leikeela, inogaz adiskidetasun txarrik, zantarkeriarik, edo gauza okerrik badarabilde. 8°. Pekatut mortala egingo dabe, egiten badituez umeak dakiezala lapurretaak, saldu-erosi okerrak, eta engañuak. 9°. Pekatut mortala egingo dabe, umeen aurrean esaten badituez inoren kleituko gauza astunak, oraindo ixilik dagozanak. Eta berba baten leen esana: pekatu egingo dabe gurasoak, egiten badabe, edo esaten badabe umeai oker-bidea emon, edo pekatu eragin leioen gauzaren bat.

Ai, neure entzula onak! Ze zorionekoak izango litzatekezan etseak, erriak, uriak, probinziak eta erreinuak, baita mundu guztia bere gurasoak ondo ondo egingo balituez Ygkoak laugarren agindu santu onetan esaten deuteszanak. Guztia izango litzateke ontasuna, guztia santutasuna, guztia bake gozoa: baia alan egiten eztabeelako guztia doa galdurik. Imini bediz legerik eta kastigurik gogorrenak gaiztoen kontra: bebil justizia aleginak eta ezin-eginak egiten erriti kanpora ekandu txarrak eta zer esan gaistoak uxatu ta erbestetuteko: deadar begie predikadoreak indar ta gogor izkune deungeen kontra: alperrik dabilz guztiak, eta euren eginalak eta indarrak guztiak utsean yo bearko dabe, gurasoak euren umeak ondo aziten ezpadituez. Sinistu egidazue mundu onetako okerreria eta pekatu guztiak gurasoen aziera deungan dauke euren sustraia. Ume ondo aziak onak dira, eta guraso guztiak eurenak lotsa onean aziko balituez, aror mundu guztia ondurik. Ori egitea eztago geure eskuan, baia zuenean dago Igoikoak emon deuteszean umeak ondo aztea: ori egizue eta ori gitxiago eukiko

dau munduak deungatasunik. Baia esango dau bearbada batek edo batek bere artean, yazo leitekeala, eta yazo bere askotan egiten dala, gurasoak euren umeak ondo azi eta ume oneek gaistoak urtetea. Bai, egia da yazo leiteke alango nosbaiteko baten; edo lagunen batek ume ori galduten dabelako, edo beste alango bategaiti. Baia geienean eztoa alan izaten, ezpada ze ume ondo aziak onak izaten dira, eta ume deungaro aziak deungoak. Ygkoak berak dirausku; baita egia Ygkoaren esana legez, pekatarien semeak okerrak izaten direala eta lapurren lagunak eta guraso onen semeak barriz euren modu modukoxeak, eta umeetan dala agiri nor nor dan. Ez, diño San Yuan Krisostomo-k, eztauke gurasoak atxakia onik euren umeak ondo aziten ezpadituez, eta onak egiten ezpadituez. Gizonak ezkara geurakauten ta geurez deungoak, eta alangoak bagara da geuk gura dogulako. Gurasoak umeak eurakaz daukez aziteko ume txikar direanetik, eta beti dagoz euren ganean; eta alan erraz erraz egin leikez onak izatera. Baia, zegaiti ezituez alan egiten? Euren ardura guztia dalako eskuartekoa eta ondasunak aurreratutea eta azturik daukeelako umeen arimen osasuna, baita euren buruena bere. Zer? Abererik uzuenak eta mistoenak, otsoak, artzak, katamotzak, eztira ardureagaz eta moduagaz mantsotuten, eztaoz eskura eta gura doguna egitera? Etxakez milla arrigarrizko gauza erakusten? eta umeai gatzik eztaikienai ezin ondo irakatsi leikioe? Bai gurasoak gura balebe, eta orretarako alegiñak egingo balituez. Baia guraso askok, diño Santu berak, mandoagaz eta astoagaz ta baste-rragaz ardura geiago daukee euren seme-alabakaz baño. Eta ori baño ezpalitz oraindo gatxerdi litzateke. Baia guraso askok eta askok, (okerragana) umeakaz ardura artu bearrean, eurak deungoak izaten irakasten deutsee. Ozta ozta idigi izango dituz ume gaixoak begiak, belarriak eta beste sensunak, eta orra non eztakusana, non eztaantzun, non asmetan eztaben deungea izateko oña emongo deutesan gauzea baño. Eztau oraindo berbaz yakingo umeak, eta negarrez asten bada arrebeak, otseñak buruak emon deutesanen bat egin gura ezteutsalako, ama asiko yako palagetan (lorenyetan), eta arrebeari edo otseinari yoten dabelako siñua egingo (egiten) deutso, eta esango deutesaz min emoteko moduko berbaak, eta onegaz irakatsiko deutso umeari zelan andi egin dedinean, inok ezer egiten badeutso, berak bere eskuz bengaiara artuko daben. Yanziko deutse umeari soñeko polit bat, eta milla zorakeriaz, eta labankeriaz puztuko dabe, burua axez beteko deutse, sinistu eragiten deutesela, besteen begietan ederto dirudiala; eta orregaz irakasten deutse yanzki eder zalea izaten. Yoango da sein-zaina (ume-yagolea) tanbolin otsa dan tokira, eta bera besoan daukala abiauko da besoai eragiten, eta umea dantzaren erabilten,



eta alantxe erakusten yako umeari yantzan ibilten zalea izaten. Eil! esango dozue, orreek, zer dira? Ezerezkeria batzuk baño eztira. Bai, baia ezerezkeria zan Santa Monika-k umetan ardao tanga tanga (tindi) bat ao bete bere etzana edatea, eta agaz-guztiagaz bere dirausku bere seme S. Agustín yakintsuak eze, orretarik etorri zala bere ama, ardaoari ondo erestera, eta beartzan baxen geiago edatera, eta gitxik egin ebalá ordi konkor bat izateko bideak artu etzituzanean. Orregaiti bada etxako umeari emon bear deungea izateko dan biderik txikiena bere.

Baia, ai! guraso askok euren umeai emoten deutseez ez onelango bide txikiak ez eze, baita andiagoak bere, eta ez ume txikitán bakarrik, baita bardingotan eta gaztetan nagustotxu eginda bere. Etseren batzuetan eztantzue ezpada biraoa, añena, demoniñoa, yuramentua, berba loia, zelebrekeria, eta iñoren deungaroak esatea. Eztakusde euren gurasoakgan deboziñoaren izpirik, eztakusde ezpada eztabeela errosario bat esaten, eztireala urterik urtera baño konfesetan eta orduan bere txartelaren bildurrez; yaiegun santuetan meza bat entzunda, ganeko enparadua emoten dabeela saldu-erosietan, tabernan; alango egunetan yoan bearko dala errubera, N-ra, gauzea (sagarrak) saltzera, errota-osterara, bazterretara. Eztakusde baneria, apaindutea, eder ibiltea baño besterik. Guraso askok poz-pozik eta ezpanetati adurra dariela kontetan detseez umeai euren gazte-zoroko panparrerriak, erakeriak, ibil-bide deunga negar eragin bear leuskioenak. Gero, zer gura dozue izan ditezan ume orreek? Zer? Kristiñau deungaak, biraogilleak, gurasoakganako gogorak eta esan txarrekoak, edaleak, seigarrenekoan ez garbiak, ao txarrekoak, lapurrak. Baia ai, ta ai! ze zorigaiztokoak direan onelango umeen gurasoak! Izango dabe, bai, buruko-mina, baita ez txikana mundu onetan, eta okerrago dana, ikusi bearko dituez bestean neke ikaragarritzko betikoak. Alangorik gerta ez dakizuen, esango deusuet nik orain zelan azi bear dozuezan zeuen umeak. Entzuzue bada kontuz.

Lelengo lelengo zeuek onak izan beartzare; zeuen etsetik kanpora biraoak, maldiziñoak, yuramentuak; etseti kanpora aserreak, errieltak, baita kirrimorroak eta ezdabaida txikiak bere. Zeuek senar-emazteak alkaneri lotsea ondo ondo gorde bear deusazue; eta alan egin ezik ezteutsue umeak bere gordeko. Zeuek Elexarako bideak yakin bear dozue sarritxu konfesetako eta komulgetako, yaiegunetan errosariora, beluko mezara (meza nagusitara), abade-maisuaren sermoira etorteko. Errosario santua gaubean gaubean etsekoakaz esan bear dozue oera baño leen, eta obeto afaria yan baño leen, bada afaldu ezkerio lo-agoa (gurea) bere urrean izan oi da. Berba baten, zeuek onak izan beartzare. Auxe da aurrengo aurren-

go bear dana eta bera bagarik eztozue umeakaz bapere gauz'onik egingo. Berbaz asi ditezanerik irakatsiko deusazue Jesus eta Manaren izen gozokak eta deboziñoaz eta astiro ta ondo siñatuten, eta geldi geldi Abe-maria, Aita-gurea eta euren dotrinatxua. Ordutixek asi beartzare umeai Ygkoaren bide ona erakusten, eta agertuten dituezan mañatxuak galarazoten. Lotsea beti emon, gitxitan yo, temea kabietan bein bere iños ez itxi, beluniko imini, beari mun eragin, gela baten zarratuta euki, parka eskatu eragin, dira zeuek, umeak bear eztanen bat egiten dabeenean, geien erabili bear dozuén zarrea, eta emon bear deusazuezan kastiguak. Barriz ondo egiten dabeenean ez gauzatxu bat emoten badeusazue egin-sari, edo (aginduten) eskeintzen eta opetan badeusazue egin dagientzat, (onez) onean onean ekarriko dozue ederto baten zeuen esana egitera. Baia iños yoten badozue alan bear izanda, gero negarrez dagozanean, ez palagau, ezpabere guztia galduko dozue: Itxi bakean, eurak aspertuko dira; eurak ixilduko dira. Eta txarriak artuta yan gura ezik asten direanean, etxaramon, goseak ekarriko dituz. Zazpi urterik gora ekarriko dozue Elexara mez'entzutera, eta konfesetara, eta sarritxu konfesau eragin. Eztozue erabili bear soñean apainduegi: apaindugureak askori alde askotara pekatu eragin deutso. Baia bere modutxuan erabili bear dozue, ganekoan eurak ondo eztan bideren bateti egin bearko dabe. Andi egin ezkerio eragotzi bear deusazue naasteko batzaarrak, fiestak, yolasak, batzaako dantzak, bigirak, gaubelak, errondak, eta osterantzeko mutil-neskatillen arteko batzakuntzarak, bada onek dira lotsea kenduteko eta itzalak botateko, eta loikeriak ta zantarkeriak ikasteko alagalako leku onak. Yaiegun santu osoetan zeuek ekarri egizue beluko mezarara, eta ez itxi gazterik etsea yagoten, eze alango aldietan izan oi dira sabaiko (kamarako) lapurreretak eta okerrago direan gauzak. Onelan gurasoak, umeen ganean, eta beti ardura andi bategaz zagozela, yo andi bagarik ondo aziko dozue, zeuen esanen bean eukiko dozue, eta Ygkoak diñoana, emongo deusue gero atsedon ederra, eta biotzeko atsegintasun gozoa.



10. [BOSTKARREN AGINDUA]

(I, 72-79. or.)

Non occides.
Eztozu iñor ilgo.
Exodi. c. 20.

Geure Ygko laztanak yagon ezkerro laugarren aginduan gurasoak ganako lotsa ona, galarazoten deusku bostkarrenean besteai gatz egitea. Orretarako esaten deusku: (yagon gura dau bostkarrengoan guztien bizitzea, osasuna, eta ondo egona; eta orretarako dirausku:) eztozu iñor ilgo. Berba oneekaz bada esan gura deusku ez iñori bere gatzik egiteko (ezta geure buruari bere) ez geure egiteakaz, ez berbeagaz, ez ezetara bere. Eta alan agindu onetan ez bakarrik eragozten yaku iñor iltea, baita bere iñori osasunean, gorputzean, eta ariman kalte egitea. Alan geure burua edo besteren bat iltea, banatutea, odol tutea, beso bat edo azurren bat auste, benenoa edo gatxgarriren bat emotea, edo artutea, eta gaixotutea, oneek guztiok eta onelangoak eragotzita dagoz bost-karren mandamentuan. Eta ez bakarrik galarazoten yaku olango gauzaak geuk gere eskuz egitea; baita bere besteren baten eragitea. Eta orregaitik batek iñor il ez arren edo ez banatu arren, besteren baten ori egiteko, (edo iñor banatuteko) agindutea, lagundutea, atan imintea edo bidea emotea, orretarako benenoa, botikakoa, edo trexuren bat emotea, eta oneek, galarazota dagoz bostkarreneko agindu andi onetan.

Oneek alan yakinda ikusi daigun orain nortzuk geien onen ganean pekatu egin daroen. Eta bear dan argi-bideaz berba egiteko, lelengo esango deusuet nortzuk egiten dabeen pekatu euren buruari kalte ekarten deutseelako (ekarriagaz): bigarrengo nortzuk (egin oi dabeen) besteai kalte eginagaz; eta irugarrengo barriz nortzuk (pekatu egiten dabeen) deungaroak esanagaiti.

Eta euren buruai kalte egiteagaiti pekatu egin daroe 1°. Baliau oi direanak Ygkoak emoniko gorputzeko sendotasunagaz eta gogortasunagaz gorputza makalduteko, osasunagaz osasuna galduteko, gorputzeko indarrakaz gorputza argalduteko eta manketako. Gizon ta mutil indartsu ta gogor askogaz geure errietan ikusten dana da, axe batzuk buruan sartuta dabiltzazala euren indarrakaz arroturik, eta Ygkoak pekatu egiteko emon izan baleutseezan legez lagunak desafietan, temak ta posturak egi-

ten, ezin dituezan kargaak eregiten (erantetan, yasoten) ta eroaten. Yatun ta edatun askok posturaak egiten dituez onenbeste edo ainbeste yan edo edan egingo dabeela, edo nok geiago yan ta edan. Onelangoetati gero askok osasuna galduten dabee, eta betiko erasoren bategaz geldituten dira. Bada pekatu egiten dabe alangoetan dabiltzazanak.

2° Egiten dabe pekatu mortala osterantzean, alango postura eta panparrerria bagarik larregi yaten dabeenak, yaklinik larrak gatz egin oi deusela. 3° Egiten dabe pekatu mortala yan oi dabeenak karea, ikatza, lurra, autsa, edo beste onelangoren bat; bada ori alan eginda erkindurik, maskarturik eta osasuna moteldurik gelditu oi dira. Eta berba baten, bein yakin ezkerro yanariren batek gatz egiten deusala, edatekoren batek gaxorik iminten dabela, (pipea edo zigarroa —tabako orria— artuteak kalte egiten deusala), larregi yan-edanak galduten dabela, onelangoren bat orregaitik bere egiten dabenak pekatu egingo dau.

4° Pekatua mortala egiten dabe euren borondatez eta yakinen ganera orditu egiten direanak. Askok eta askok uste dabe eze, eda'ala edan arren, burua nastauta euren buruen yaube ez tireala parau arren, ez tala katua artutea; eta barrukoa aurean ikusten ez padabe, ez tabe pekatutzat bere artuten. Baia ez, ezta ori egia, eta bein burua nastau eta sensuna galdutera ezkerro ya pekatua eginda dago, ezer errebesadu ez arren: baita barriz yazo leiteke larregi edan bagarik bere barrukoa atera (bota) bearra, edo batek gorputz-aldi txarra daukalako, edo oñak bustirik dituzalako edo beste alangoren bategaiti. Nos bada, esango deustazue, nos igarriko deustagu geure buruari orditu izan gareala? Nik esango deusuet; entzun. Arako biaramonean gogoratu ezin dozuenean edan ezkerro zer esan, edo zer egin zenduen, besteetan bake onekoak izanik, ardaoaren beroagaz etse guztia beera ekarri bear dozuenean: biraoak eta yuramentuak egiteko izkunerik ez izanik, edanak eragiten deusuezan birao-yuramentuakaz guztiak darda ganean erabili bear dozuezan: etsera zatozanean albo alboka oñak alborantza egiten deusuela, biderik zabalenak estu ta bedar dozuezala, emen labratau, an yausi; emeko ormea yo, ango sasipean etxun; urrengo goxean non loitu zinean asko eztakizuela: oneek bada eta onenlagoak yazoten yatzuezanean agiri da katutu egin zineela, eta pekatu mortal andia egin zenduela.

Baia ezpegie ordiak uste eze, katututen direanean baxen besteetan eztabeela (edan-aldunak uste eze, katututen danean baxen besteetan ez tala) pekatu egiten. Bai, katua artutera eldu bagarik (ainbagaan) bere pekatu egin lei, eta askok egin daroe orretarako bidean yarten direalako, edo besteri bide txar ori emoten deuselako. Ara emen nos alde onetati



pekatu egin doian geien. Lenengo ardangelara doazanak yakinda bere ara ezkeru geienetan larregi edan bearko dabeela. Bigarrengo, dabiltzazanak asmu billa ea nondi nora izango dabeen ondo edateko erea, aldian sabelari ase-aldi bat emoteko. Irugarrengo doazanak yokora, fiestara, ilelara, konbitera, eta alangoetara al daien ardao guztia edaterren. Laugarrengo ordiakaz batzanduten direanak yakinik olango lagunakaz batu ezkeru orditu oi direala. Bost-karrengo inori orditu eragiten deutsenak edo ixilik gordeta daukan gauzaren bat agertu eragiteko (erasateko, edo edan baakoan egingo ez leukeena eragiteko), edo ainbagarik burubaako tema gogaikarriakaz. Ardaoa salduteko daukeenak bere pekatu egiten dabe emoten badeutse beragaz ordituko direala dakienai edo itxiten badeutse berandu artean tabernan yokoan ta edaten egoten.

Ordikeria da beste pekatu askoren artean pekatu andia ta ikaragarria; beste askoren sustraia, beste pekatu askok baño gizona geiago itsututen dabena, eta beste asko baño (askoren aldean) kenduten gatxago (gatx) dana. Ygkoak berak dirausku ze ordiak eztabeela zerurik ikusiko: ordikerian dagoala seigarreneko loikeria, ta zantarkeriak. Ordikeriati etorri oi dira biraoak, aserreak, gorrotoak, auzi-ondagarriak, lapurreriak, eta beste asko. Ardao larregiak emon daroa seigarreneko zantarkerietako gantza, eta ordiak eta edanduak esan ta egin daroez, euren buru argian dagozala esan ta egingo ez leukeezan nasaikeriak, ta loikeriatzar andiak. Nekez ikusiko dozue bere burua orditatz daukan ordirik. Nekezago oraindo ondu izan danik.

Ain da gatx ordi bat salbetea eze, diño S. Juan Krisostomo-k ezin ezetara (inondi) bere izan leitekeala. Ordi bat ezin ezek bere atera leike artuta daukan ekandu lotsagarriti (Ordi bateri ezin ezek bere galdu eragingo deutso (eragin leio) artuta daukan ekandu lotsagarria), diño Santu andi onek. Imini bekioz bere begien aurrean Jaungoiko onak beragaitik egin izan dituzan mirari andiak; alper izango da. Esan bekioz Jaun onek beragaitik ikusi zituzan neke, atsakaba, zauri eta eriotza gogorak; alperrik izango da. Gogora ekarri bekioz aren eskuti artu izan dituzan mesede, eta ondasun guztizkoak, berak onentzat prestauta daukazan gloria, ta atsegintasun ederrak, eta deungeentzat daukazan betiko su, neke, ta ala ezin gogorrakoak; ezteutso ezeri bere yaramongo; eta nago eze, bere arpegiko begiakaz ikusiko balituz infernuko su itzaltsu ta ikaragarri orreek bere, elitekeala orregaitik (orregaitarren) onduko, eta tragu bat ardaogaitik antxe suen erdian sartuko leukeala bere burua. Eztago diño Santu andi onek ordi bat zeruko bidean sartuko daben gauzarik.

Zeuek dakutsue egunean bein zelan zarrago eta gozoago egiten yakeen ardaoa aurrerago eta zaleago (egiten dira); indar gitxiago eta edan gura geiago. Emetik ernetan yake arimako itsutasuna, eta onduteko gatxatasuna. (Itsutasunagaz) eztabe ezagututen euren pekatua, eta eztao konfesau (ordiak) artu dabeen moskorrik (artu izan dituezan katuetati ezta amarrenik bere); eta askotan bapere ez dabeen moskorrik, edo bai beintzat ondo gitxiturik eta ederragaz aurrera (ederkaturik). Itandu bekio ordirik galantenari ea inos katutu izan bada, eta beingoan (belan) esango (erantzungo) dau: «ez Jauna. Ara, nosikpein baten edan ondotxu, txoromorotu, eta besteetan baxen (puskatxu bat) apurtxu bat argiako parau bai, baia, katurik ez bein bere. Ezin inok esango dau ni katuegiz ikusi nabe-la». Ondu gura eztabeelako ibili doaz itsu oneek konfessore nasaien (arinen) edo euren barri ez dakienen billa. Neure entzula onak, zerura gura badozue, bildur andi bat artu bear deutzazue ordituteari, bada bein (oiturra) ekandu txar au ikasi ezkeru, ezin aztu izaten da, eta betiko arimea infernuan galdu bearra ekarri oi dau. Ordikeriaren ganean beste enparaduen ganean baxen apur bat luzeago egon naz; baia geiago ta geiago egingo baneu bere ondo eginik legoke, eta guztia ez litzateke asko izango, ze eztago eskuen artean darabilgun bostkarren agindu onetan ekandu lotsagarri onek baño arimeari kalte geiago ekarten deutsanik. Goazan beste gauza batera.

Orain artean berba egin deutsuet euren buruai larregi emonda kalte egiten deutseenak gaitik, orain azkenean egingo deutsuet bear dana euren buruai ez emonagaiti kalte ekarten deutseenen ganean. Pekatu mortala egiten dabe eukirik zegaz bizi, zekentasunez, eskueutsiz, eta lauziri ez kasteteagaitik osasunaren kaltean euren buruai gosea emon, edo soñari ta oñari bear leukeena ez emonda, kalte andia egiten deutseenak. Eta, zeinbat kristiñau bizi dira geure artean bai gizonak ta bai emakumeak gau ta egun, eta esan lei yai ta aste, negu ta uda, nai euri, nai aterri, nai ekatx, beti arrastaka, beti amurraturik, euren buruak narras (tresna eginik) darabil-tzazala zerbait aurreratuteagaiti. Eta orretarako etsean euki zegaz ondo igaro? Zeinbat andra seindun, ta askotan osasun motelagaz, auzoetakoai zer esana emoten deutseela, euri ta aterri lanean eten bearrez, etsean daukeela zegaz ondo bizi, zerbait geiago eukitearren? Zeinbat kristiñau, laborea salduteko (zeruak emonda) etsean daukeenak, eta arto puskatxu bat ozta gorrian sabelari emoten deutsenak, eta gose gogorak igaroten dituezanak (ez kasteteagaitik)? Zeinbat gaixo dirua ta eukia ostikopean (bear bada galduten) daukenak, eta kodizaren kodiziaz erriel bat gitxituteko errukiagaitik ilten dira euren buruai bear leukeena emon ez eutseela



ko (ez emonda)? Oneek guztiok bada, eta euren modukoak pekatu mortala egiten dabe.

II. Noberen buruari gatz egiten deutseenen ganean zelan alan egin ezkeru, igaro gaitez orain besteai kalte edo gatz egiten deutseenetara, eta iragarri daigun nortzuk egin daroien euren egite txarrakaz, eta nortzuk deungaroak esanagaz. 1° Egiten dabe bada pekatu mortala euren guraz besteren bat il, ebagi, edo irrimo yo egiten dabeenak, dala arriagaz, dala makilleagaz, dala ukabillagaz, dala ostikoagaz, dala beste edozein bere gauzagaz. Baita onelangoak pekatu egin ez eze, baita bere andik datorkiezan kalte eta kastau bear guztiak bere oso osoan emon ta pagau bear deutseez. Berbarako: makilleagaz artuta, eio eio egin zenduan gizon ezkondu bat, bere bear eginagaz emaztea ta umeak mantenduten zituza-na (bere bear eginaren begira eukazana): bada zeuk osotu, eta emon bear deutzaz osatuteko bear dituzan diruak, eta oian dagoan artean galdu bear dituzan alogerak, eta irabaziak; 2° Egiten dabe pekatu mortala armaak artuta bideetara, ta etseetara lapurrerian doazanak; bada onelangoak aldean darabilde beti, edo bestea ilteko, edo eurak ilak izateko pelleburua. 3° Armea artuta (esan dan legez) izan ez arren bere pekatu egin leie bostkarren mandamentuaren kontra, iñoren ortura, solora, etsera ixil ostuka ortuariak, artoak, gariak, frutak eta; edo lapurreria egiten doazanak edo bidera inori urteten deutseenak: zegaitik eze sarri onelangoak izan daroe bertan ilak izateko bidea: guztiz bere gaurko egunean lapurrak askotu (geitu) eta lotsabaakotu, eta gizon-ilteari itzala ta bildurra galdu yakan ezkeru.

4° Pekatu mortalean bizi oi dira makillakariak, eta okasiño-tzuak (zaleak) alkar banatuteko, eta ez bein alkar ilteko bidean paretan (yarten) direalako. Eta bake-tzarreko oneek pekatu askoren yaube izan doaz, bada sarri ta askotan erabili oi dabe biotzean egiten daben baño gatz geiagi egin gurea, egin-ez aren damu gogorra, luzaroko gorrotoa ta ikusi-ezina, emon daroe besteak bere beste orrenbeste egiteko bidea, eta imini oi dituez errietan zer-esan (berbaleku) andiak. Ezin esan bere egin lei ze kaltegarriak direan errietan onelango makillakari okasiñotsu bake gaitzokoa. Bakea gura dabeenak eztakie euren aurrean ez zer esan ez zelan berba egin. Bear bada bapere eztan berba baten oratuta, bertan ernetan dabe ezdabaidea, errieltea, aserrea. O zeinbat pekatu egin ta eragin daroezan onelangoak! Etsea zorrez beteta, emaztea, ta umeak billosik ta goseak ilten daukeezala, dabilz alango gizon bake deungakoak gelditu bere bagarik erririk erri, probarik proba, tabernarik taberna, ta okasiñorik okasiño,

alde guztietan atsakabea, zer-esana (berbalekua), eskandalua, eta gonotoa, besterik itxiten eztabeela.

5° Egiten dabe pekatu mortala amaak eta iñudaak edo seinzañiak ardura andi bat iminten ezpadabe eurakaz eratzoten dituezan umetxuak ez itoteko (irototeko) edo ez ilteko. Onen ganean diño Erroma-ko doktrina liburuak eze, ez leukeela gurasoak eta besteak eurakaz eratzto bear alango ume titikorik, eta iños egingo badabe, imini bear leukee bitartean almodaren bat, edo erropa moltsoren bat alango gauza txarrak yazo ze dedin. 6° Egiten dabe pekatu mortala euren umeak lege eztan legez, eta gogortasun larregigaz kastigetan dituezanak, arako euren umeakaz aseraturik, suaren suagaz itsuturik, zer egiten dabeen bere eztakiela, edonon yoten dituezanen, nai buruan, nai betondoan, nai sabel edo estameta ganean, nai saietz-aldeetan, eta edozein gauzagaz, ukabilagaz, ostikoagaz, makilleagaz, bartzunagaz, edo eskuan lelengo emon daioen edozein trexugaz: gero umeak baltzunez, tontorrez ta zauriz galdurik egun osoetan bear bada oean egon bearko dabeen moduan. Kastigadu begiez bear danean gurasoak euren umeak, yo begiez, ezi begiez, baia ez arako aserre arren zer egiten dabeen bere ez dakienean, ezpada euren epetasun onean; eta ez biotzeko arrabioa aseteanen, ezpabere umeak onduteanen.

7° Egingo dabe pekatu mortala emakume seindunak, egiten badabe sabeleko seintxua galduteko (gastetako) izan leitekean gauzarik, zelangoak direan aserre gogorak izatea, pisu astunak buru ganean artutea, batarik bestera (dagoz) arri labanaren ganean saltu luzeak egitea, eta onelangoak. Eta oraindo pekatu ikaragarriagoa egin daroe emakume orreek euren pekatua agertu eztedin aleginak egiten dituezanen seintxua galduteko edo ilteko. Iya bizirik dagoan seiña aleginakaz galdutea da pekatu ikaragarriko eskerga bat, zeinen kontra Eleixa ama santuak deskomuniñoa, eta beste kastigu bildurgarriko asko iminirik daukan. Eta ez bakarrik egingo dau pekatu au egin dagian neskatiak (emakumeak) baita bere orretan iminten dabeenak, edo ori egiten zelan alan lagunduten deutsenak, botikakoa aginduten deuten mediku-ofizialeak, edatekoa egiten daben botikarioak, eta beste edozeinbere aldetik sein-galtze orretan eskua sartzen dabeen guztiak.

Jauna, au yazo izan yakana etse on bateko alabea da, eta errian zabalduten bada, galdurik lotuko (geldituko) da, ezin ezkondu leiteke seiñaren aitagaz: bestek au yakinik eztau beragaz egin gurako: bera ondra (kleitu) bagarik, gurasoak, etsekoak, eta senidetasun guztia damu andiagaz, eta erri guztian zer-esan andiak (ebiliko dira). Bai gura badau. Orreek kontuok leenago atera bear zirean: baia okeluetan (ostenderetan, zokon-



doetan) eta basterretan zer gura egin, zelan gura ibili, gerokoari bildurrik artu bagarik, eta gero seña oratu yakeenean: ai ene ondrea! ezin ezkonduko naz... eta oker egin estalduteko ta lotsaritan ez ibiltarren errurik eztaukan sein gaixoari bitiztea galarazo gura? Ori ezta lege, ez Yaungoikoak aginduten (erakusten) dabena. Mendietako pistiarik uzuenak bere eztabe orrenbeste egiten euren sabeleko umeakaz.

Ezta balitz neskatilla ori errege andi baten alabea, eta baleki bere sabelean daukan seintxua ez galduteagaiti erreinu guztia gerra gogorretan erre ta ondatuko litekeala; edo seiñ ori galduagaz bake, zorion, eta ondasun ederrak erreinu guztian zabalduko litekezala, ezin orregaitik bere egin lei alango gauzarik, eta egingo baleu, pekatu ikaragarritzko eskerga bat egingo leuke. O sein-galtzallaak, sein-galtzallaak! bazenkie ondo zer egiten dozeun seña galduten dozuenean nonbaiste bere etzenduee alango gogorkeriarik egiteko biotzik izango. Eztakit nik zelan gau bakar baten bere lo gozoa egin zinaikoen, arima gaixo baten, bapere errurik eztaukan anima bateri Jgkoa ikustea betiko galerazo deutzazuen ezketiño. Ai! Zeuen kontra bengantzea Jgkoari eskatuko deutso arima gaixo orrek, eta bildur izan beartzare Jgkoak entzun egingo dituzala zeuen arimak gaña kosta izan yakazan arima orreen deadarrak, eta mundu onetan eta bestean zer ikusi andiak izango dozuezala.

Pekatu mortala egiten dabe seindun dan andrea edo neskatillea gogor artu eta agiraka, ta bear bada yoka, galantak emoten oker darabildeenak. Bildur izan bitez bada arako senar gogorrek emazte nai seindun, nai seindun ez, deadarka ta otsak emoten darabildeezanak. Lege guztiak seiñ-egiteko dagoan emakumeari lotsaz ta errukiz begiratuten deutse, eta arik eta seiñ egin artean etxake kastigurik emoten deungaak (okerrak) eta gaistoak izan arren. Eta, senarrak erabili bearko dau bada emazte katigua ostikoka, ta kolpeka bildur geiago bagarik? Eztakit nik nongo legeak erakusten deuten onelango nabarbentasunak.

Pekatu mortala egin daroe seintxu galdua (gastaua) yकिन ganera bateatu bagarik artuta uretara bota, edo lurpean sartu egiten dabeenak. Ai kristiñau maiteak! negar egitekoa da onen ganean askotan baño geiagotan yazo oi dana. Enzuzue arren zeuen onerako eta seintxu gaixoen onerako alango aldietan zer egin bear dan, bada au ez yakinagaiti Jgkoak daki zeinbat arima eder galduten direan bere arpegi gozoa ikusi bagarik. Galdu dan seintxua bere formeagaz badator, eta ustelik ezpadago, bateatu bear da, baita ilaren etxureagaz eta ezeri eragiten ezteutsala baletor bere. Sakutuaren (azalaren) barruan badator sakutotxuari eten bat egin bear yako edo artaziakaz, edo atzazalakaz edo alan, eta barruan dagoanari ura egi-

ten yaka. Bizirik dagoala agiri badau ura egiten yakanean esan bear da: «nik bateatuten zaitudaz Aitearen, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean». Eta kontu, kristiñauak, lenengo asierako berbakaz; «nik bateatuten zaitudaz», esan bear da, eta ez ainbagarik, «Aitearen», etc. eta bizirik dagoala agiri ezpadau, eta usteldurik ezpadago, esan bear da: «bizirik bazagoz nik bateatuten», etc. Baita orrenbestegaz gero aren arimatxua zerura yoango da, ume ori ilik ezpegoan. Eta ez esan iru astekoa zala, amabost egunekoa zala: dana dala alantxek egin bear da, eze batek ezta nosgarren denporan biztuten dan seintxua, eta alan eginagaz ezta ezer galduten, eta bear bada ez eginagaiti aren arimea bein betiko linbora galduten da.

Azkenez pekatu mortalean bizi oi dira bear dana yakin bagarik errietan paretan diren mediku-ofizialeak, edo leen iños beekien bere, liburuai autsa kendu ezagaiti aztuten itxi izan dabeenak. Gero itu-mustuan aginduten dabe sangria bateti, purgea besteti, osatuten bada osatuten dalako, ilten bada ilten dalako; eta Jaungoikoak daki zelango kalteak egiten dituzan askoren osasunetan, eta okerrago dana, askoren bizitzan bere.

III. Eldu gara ibilian ibilian egin bearrera irugarren agindu deutsuedanaren ganean, eta orain esango deutsuet nortzuk egin daroen geien pekatu mandamentu onen kontra, besteren baten deungaroak esanda. Egiten dabe bada 1° besteren baten su minagaz esaten deutsanak *ordia*, *lapurra*, *andratia*, *neskazalea*, *txarria*, *zantarra* edo onelangoren bat besteak ori entzunda biotzean min andia artuko badau. Onelango gauzetan begiratu bear non ta zer esaten yakon, bada baten esanda bear bada ezer ezta, edo ezerezkeria bat dana, beste baten esanda gauza astuna ta zakona izan leiteke. Esatea, kontu daigun neska gogo-arin, (zorapillo), lotsa-galduko nogaz gura dabilen baten *zantarra*, *urdea*, *Elexa ostetiko emaztea*, ezta pekatu andirik izango eta etxako orregaiti gorrituko arpegia; baia esaten badeutsazu neskatilla garbi baten edo andra bere lotsa onean bizi danari, pekatu andia izango dozu. Esaten badeutsazu asko lotsatuten danari, *sasikumea*, edo *borta*, pekatu mortala egingo dozu; baia esaten badeutsazu bapere ez deutsanari (biotzera igaroko etxakanari), edo entzunda barre egingo dabenari, ezta orduan ezer.

2° Pekatu mortalean bizi oi dira arako gizon-emakume sutsu, aserrekor, bake txarrekoak, aldea-uri, auzotegi guztia, eta bear bada erria, goikoaz bera darabildeenak: orain aserratuten dira bategaz, gero beste bategaz: erdi-berba bat entzutea, eurai adikune (begirakune) bat egitea edo bear bada eurai buruak emotea, edo zerbait egin deutseela begiundutea (egin deutseelakoa artutea), asko izaten da aora datorkiezan (iñon



direan) deungaro guztiak esateko. Eztau iñok eurakaz barbarik egin gura, guztiak dabiltz (dabilkez) eurak ganik iñesi, guztiak deutsee bildur. Onelangoak ezin absolbidu leiz euren ekandu zitala galduteko aleginak egiten eztituezan artean. 3° Pekatu mortalean bizi oi dira arako senar-emazteak, alkar ondo artu-ezta, beti txakur-katuak legez aserre ta bake txarrean bizi direanak, etse guztia ta etsekoak darda ganean darabildeezala euren betiko deadar ta agirakakaz, eta euren birao eskerga itzalakaz. Onelangoak gero esan daroe: esteutsagu bada ezer esango lagunari bear ezтана egiten dabenean? Ezteutsegu agiraka egingo seme-alabai, otseinai (ogitukoai) eta mendekoai gauzea oker egiten dabenean? Eta, orretarako bear dozue ainbeste astrapala? Ori berba andi bagarik eta arrantza andi bagarik bere egin leiteke, bear dan legez egin ezkeru. Eta dakuskuna da, guraso agirakariak ume lotsabaakoagoak ateretan dituezala, eta ugazaba deadarkariai, oñon ta oñon (marmar) baño egoten eztakienai otseinak lasterrago lotsea galduten deutseela.

Askok eta askok imini oi dabe atxakiatzat, arminak eta erraiestuak direala, eta barruak itxaroten ezteutsela. eta berbatxu bat entzun orduko ain modutan suak artuten dituzala eze, zer diñoen bere eztaoen yakin. Baia ori da Jgkoari pekatuen errua egozte (ezartea), bada da esatea legez alan egiten badabe dala Jgkoak jenio errea ta estua emo'utselako. Barriz Jgkoak berak dirausku eze, berak gizona arteza eta zuzena egin ebala, eta gizona bera gero sartu doiala milla okerrunetan. Egia artez esan bear yatzue. Zeuk, zeuk daukazu errua, zeure ekandu zitalari indarra emon zeuntsalako, arako lenengo burua agertu ebanean, ezi ta azpiratu ezta. Ea ezpabere esan egidazu, zer egin dozu zeuk zeure jenio larri ta irritu ori galduteko, edo zerbait bigundu ta eskura ekarteko? Ezerbere ez. Arako ikusi zenduan odola berotuten yatzula, egin zenduan alegina su geiago artu baño leen amatetako? Alde egiten izan dozu aserratuteko bide ta pellebruetati? Zeure kontra zerbait esan izan dabeela asmau edo susmatu dozunean, egiten izan dozu ez yakitearren? Norbaitek deungaroren bat esan izan deuntsanean, egiten izan dozutzazu [sic] zeure buruari indar ixilik egoteko edo besteari bigun erantzuteko? Bai zera. Okerreko guztia bai egin izan dozula.

Yakin izan badozu norbaitek zeure kontra ezer esan izan dabela, bertan bera itxi bearrean, ibili izan zara yakin ezinik esan daben txikien txikien giñoko guztia, eta laster gogoak emon eta zeuk sinistu bere egin izan dozu zegaitik izan dan, eta zeentzako egin izan daben. Zeure kontrako berbaren bat iñori entzun badeutsazu, edo baderitxazu zeure kontra besteak diñardueta, arik alde egin bearrean, belarriak zur zur egiten dozue ea

entzun al baziñai aek zer esaten dabeen. Iñok deungaroren bat edo berba astunen bat esaten badeutsu, aztu bearrean, beti zagoz a gogoan ta aoan dozula; guztiai esan gura zeunskioe, eta guztiak imini gura zendukez zeu zagozan legez aren kontra aserre (zeu zagozan aren kontrako aserrean). Eta alan, zelan izango eztozu jenio enea ta irritua? Zelan biotzak sua artuko ezteutsu zu zeu su emoten bazagokoz? Ez, Kristiñauak, ezta atxakia ona jenio irrituena; norberen buruari indar egin, eta ezi, ta azpiratu bear da jenioa.

«Yauna, esan daroe beste askok, bera asi yatan deungaroak esaten: niri ezer esan ezpaleust ni ixilik egongo nintzan. Zegaitik ak esan bear eustazan ainbeste pikardia ta lotsa-galduko berba?». —Onetati, besteak deungaro egin dabelako, zeuk bere egin bear dozu: besteak pekatu egin ebalako, zeuk bere egin bear dozu: eta bestea infernura doialako, zeuk bere atzean yarraitu bear deuntsazu. Eta, zer atera izan dozu orregaz? Ezerbere; gauzea deungago imini, irritu, aserratu, eta bein baño entzungo etzenduana askotan entzun bear. Eta bear bada atarik atara kerellea, demandua, auzia ta gorrotoa. Orra zer dakarren axeak eroango eban berba baten oratuteak, eta yaramaiteak.

Baia oraingo bere andiagoo, eta lotsagarriagoo da beste batzuen itsumendia. Askok eta askok ez bakarrik eztabe artuten egin izan daben pekatuen damutasunik, ez bakarrik eztira lotsatuten aoak emoten izan eutseezan deungaro guztiak lagunari esan izan eutselako, ezpada ze euren buruak edertu ta alabadu (goratu egin) oi dituez ori egin ebeelako, gauzarik ederrena egin izan balebe legez; eta deungeen dana, urte osoetan iraun oi dabe euren buruen alabantza (iraun oi deutse euren buruen goratasun, alarde) orreek. «Ai zelangoak entzun bear izan dituzan», esan daroe kristiñauen izena baño eztaukeen kristiñau oneek: «zelangoak esan deuntsadazan: iños entzun bear badituz, entzun dituz beintzat oraingoan. Bela baltz bat baño baltzago egin dot». —Orretan kristiñaua ezteutsazu zeure buruari alabantza txarra emoten. Pekatu mortal ikaragarriko bat egin izan dozu, eta kristiñau batek bada alabau bearko dau bere burua pekatu mortala egin izan dabelako? Benetako kristiñaua bazina lotsatu, mututu eta arpegia yausi yausi eginik geratuko (lotuko) ziñatekez (olango gauza txarra egin izan dozulako) ikusirik zeinbat pekatu egin zenduzan besteari bere txatxarkeriak eta oker eginak bere mosuan esanda (emonda). Alan egiten dabeneak ez bakarrik pekatu egin eben euren asarre unean lagunari deungaroak esan eutseezanean, baita bere euren buruak alabetan dituezan guztian, eta alan egiteko gogoan dirauen artean ezin krutzerik



emon leioe (absolbidu leiz), ze eztauke pekatu eginaren damurik, ezta barriro ez egiteko gogorik.

Pekatu mortala egiten dabe arako ezkonduak euren etsea ta etseko guztiak darda ganean darabildezanak euren deadarrakaz, agirakakaz, astrapaladakaz; txirimiri (txiki-miki) bategaiti, ezer eztan gauzeagaiti (ezen ganean) paretan (iminten) dira dariela aoti bitza, begietati sua, eta alde guztietati garra. Etxake enzuten besterik ezpada berbarik astunenak, garratzenak, eta lotsabakoenak, senarrak emaztearen kontra, emazteak senarraren kontra, gurasoak eta umeak alkarren kontra. Etsea da infernu egin egin bat, auzoko guztiak dagoz ikaraturik ango egunean eguneango aserreakaz, errieltakaz, tirlluakaz ta desgarrioakaz.

11. BOSTGARREN MANDAMENTUAREN GANEKO IKASBIDEA

(B, 40-43. or.)

1. Jaungoikoaren legeko bostgarren mandamentuak dirausku, ne. Kristiñauak, ez iñor ilteko. Baia berba oneetan ez bakarrik galaazoten deusku iñor iltea, bai eta iñori gatx egitea ez berba, ez obra, ta ez gogoz bere. Lelengo aginduten deusku ez gatxik egiteko egikeraz (egitez) edo obrakaz; eta alan egiten dau pekatu mortala norbait ilten dabenak, zauri edo eparen bat besteri egiten deutsanak, ostikada, arrikada, makillada edo beste golpe andiren bat emoiten deutsanak; eta ez bakarrik egiten dau pekatu, baita biurtu ta errestituidu bearko dituz eriotzea edo zauri atatik datozen kalteak, nai dala osatuteko egin direanak, nai dala bearrik ezin eginetik datorkozanak. Kontu daigun, iñori zauriren bat egiten badeutsazu pagau bearko deutsazu zauri ori osatuteko egin dituzan gastuak, eta egon bada egun batzuetan bearrik egin ezinik, osotu bearko deutsazu irabaziko ebana. Egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra izor (andi), edo seindun dan emakumeak seiña galduteko pelleburuan iminten bada, edo zerbaist artu edo egiten badau seiña galduteko honrea galdu ez eiteagaitik. A zeinbat onelango yazoten ete dan munduan! Dabiltzaz ezin esan leitekezan loikeria ta maldadeetan, eta gero iñok yakin ze dagien, edo estalduteko euren maldadea artu, eta egiten dituez Jaungoikoak dakiezanak seiña galduteko. Baia yakin bear dabe onelangoak ze, Abel errubakoen odolak Kain bere anaiaren kontra deadar egiten ebana legez, alan egingo dabela bere euren sein galduenak, eta ez bakarrik bere kontra, baita bere berari au itundu edo konsellu emon deutsanak, botika edo edariren bat emoiten deutsanak, eta lagunduten deutsanak; bada da pekatu guztiz ikaragarria, eta ezin egin leitekeana, neskatillearen edo besteren baten honrea galduko bada bere.

2. Bigarren: mandamentu onek aginduten deuskuna da ez iñori gatxik egitea berbaakaz, edo esanagaz; eta alan egiten dabe pekatu iñori esaten deutsezanak berba astun, garratzak, edo injuriazkoak; esango beleutsana legez: *ordia*, *lapurra*, *sorgina*, edo beste onango berbaren batzuk. Ezteutso egia izana gaitik; bada alanbere lotsatuten bada, edo honrea galduten bada, izango da pekatu; eta ixilik beegoan, edo iñok ezpekian modu orretan esaten yakon gauzea, parka eskatu ez eze, baita biurtu ta osotu



bear yako modu orretan kendu yakan honrea. Askok ta askok ez bakarrik eztauke onetan eskrupulurik, baita bere alabatu oi dira orren ganean eta alazoko gauzaren bat egingo baleudena legez esaten dabe: nik beintzat ezteutsat parkatu; iños enzun badau, oraingo aldian enzun dituz. Bai izan bere, gauza andi bat egin dozue. Esan egidazue ezpabere, zer atera dozue lotsabako gauza orreek, eta aora datorkizuezan guztiak esanagaz? Zuen buruai egin deutzazue kalterik andiena. Ai Aita, esango deustazue, bera asi zan, ixilik egon balitz eneuntsan nik ezer esango. Zetarako, bada, niri esan bear eustazan esan eustazanak? Ezta gauza, dana dala honraren kontrako gauzarik esan bazeuntsan egin zenduan pekatu, baita daukazu obligaziño estu estua biurtuteko bere honrea.

3. Egiten dabe mandamentu onen kontra pekatu iñori birao egiten deutsenak. Da biraoa gauza deungaren bat edonori bere etorri dakion eskatutea: esango balitz legez: *tripa-ala gogorrek yo aiala; korrenzia gogorrek eroan aiala; arren bada, milla demoniñok eroango al aude; ilik geratuko al as*; eta beste onango berbaak. Eskatuten dan gatxa andia bada, eta gura bada etorri ta yazo dakion, izango da pekatu mortala. Baia edonok bere esango deust: Aita, eztira biotzetik izan. Baia ezin au beti sinistu leikezue. Esan egidazue ezpabere, nos bota daroazue birao orreek? Geienetan gatxen bat egin deustuenean: azaren batzuk kendu badeutsuez esan oi dozue arren bada beso biak igartu dakiozala. Frutaren bat kendu badeutsue diñozue: *beragaz ito deila*; idia edo beia sartzen bada ortuan edo soloan, *lupu gogorrek yo daiala*; dirua edo beste gauzaren bat kendu badeizue, *milla demoniñok kendu daiala; atserengoak egin daizala*. Eta zeinbat andiagoa dan egin yatsuen gatxa, ainbat eta gogorragoa da egin oi dozuen biraoa, eta arrabia andiagozkoa. Orregaitik izaten da geienetan birao au biotzetikoa, bada dator kaltea emoten daben sentimenturik. Ez, Aita, esango dozue, bertati igaroten yat, eta damututen yat; ezteutso orregaitik, ya dago pekatua eginik, gogo edo biotzetik bazan, ze onetarako mementotxu bat da asko. Esan egidazue, arrabio bategaz yaurt egingo bazeuntse norbaisteri tiro bat, eta bertan ilgo bazendue, esan zinaie eztozuela zuek il bertatik irago yatsuelako? Ez, bada ordurako ya dago kaltea eginik. Beste batzuk eranzuten dabe: Aita, daukedan ekandua baxen ezta. Ainbat okerrago, ze izanik borondateagaz, deungagoa da kostunbrez, edo ekanduz egiten dan pekatua, eta ekandu ori galdu zinai gura bazendu.

4. Irugarrengo: mandamentu santu onek aginduten dabena da ez besteri gatxik egitea, guraari, edo deseoz: eta alan egiten dau pekatu mortala iñori eriotzea, gatx edo kalte andiren bat gura deutsanak, gorputzean, osasunean, ondasunetan edo arimaan. Egiten dau pekatu poztu egiten

danak besteri yazoten yakazan gatxakaz, edo tristetuten danak besteri datorkiozan ondasun, honra, fortuna, edo beste onen batzukaz. Bardin da pekatu gatx egiteko gogoa eukitea. Egiten dau pekatu edonori gorroto deutsanak; baia, zeinbat atxakia euki oi da gorroto onen ganean? Batzuk aserratu arren iñogaz, esan daroe ordu atan berean eztaikiela zer egingo eutsan; baia jira egin orduko bertatik igaroten yakela. Baia orreek gorroto euki beutsen besteri, egin ebeen pekatu bertatik igaro bazan bere, leen esan dodana legez. Askok ta askok ezteutse berbarik egin gura gatx egin deutsenai: bidean aurkietan badira alenduten dira, eztabe ikusi gura bere, eta orregaitarren diño, ezteutsela gorrotorik, bada ezteutsela gatxik gura. Eztakit, ne. Kristiñauak, au zelan izan leitekean, ze ikusten dana da, gizon edo anra [sic] orregaitik berba egiten bada bertatik erakusten dozue zuen biotzeko aserrea: ondo berba egiten badare beragaitik ezin sufridu dozue; deungaro berba egiten bada poz andi bat artuten dozue, zanzuezan guztiak ezagututen dabe aserre zareana beragaz; auzotegi guztiak, eta ameneko erri guztiak daki arerio zareana, dagoz eskandalizadurik, eta zeuek bakarrik diñozue eztaukazuela gorrotorik. Kontu engañadu ze zaitezen, ze ezta asko beste aldetik mandamentu au gordetako gauza deungarik ez gura izaitea; bada emon bear dira bere biotzeko edo barruko amodioaren ezaugarri ta igargarriak, eta beste gauzarik esatea galarazo eban Inozenzio amaikagarren Erromako Aita Santuak. Zelan bada emongo dozue biotzeko amodioaren señaile edo igargarriak beragaz berba egin gura ezpadozue, eta beraganik bidean edo kalean alde egiten badozue? Beste batzuk esaten oi dabe: Ezteutsat gorrotorik, baia ezta gura aurrean imini dakidan, ze iminten baiat eztaikit zer egingo dodan, bada bera ikusiak berak aserratuten nau. Baia esakera modu onek adietan emoiten dau, biotza gorrotoan iziorik daukazula. Yazo leiteke, ne. Ka.k, zuen errubagarrik sentimenturen bat eukitea, arako gatx egin deustuena ikusten dozuenean, baia orduan egin bear dozuena da, alegina egin aserre ori amatetako, eginagaz beraganako karidade edo amodiozko aktoren bat, edo eskatuagaz Jaungoikoari kendu dagizula aserre edo gorrotoa. Osteranzean, nok sinistuko deutsue eztaukazuela (eztaukazuela) gorrotorik?

5. Amadu edo maite izan bear doguz arerioak, andi eta gogorrenak izan arren bere, eta alan osterantxakoakaz egin bear dogun guztia, egin bear dogu aekaz bere, ametan doguzala: eta ezta asko amodio kanpotikoa bakarrik, ezta barru edo biotzekoa bakarrik bere, ezpada bitzuoek erabartera bear dira (bietakoa). Lelengo izan bear da barrukoa, au da, parkatu bear deutzazue egin deuskuzan gatx guztiak; ez gara poztu bear yazoten yakan gatxagaz, ez gara nekatu bear datorkiozan on eta fortuneagaz, eta



guztien ganean gura izan bear deutsalgu betiko gloria. Izan bear da bere amodio au kanpotikoa, au da, emon bear deutsalgu barrutik deutsalgu amodioaren igargarri, ta ezaugarriak; eta alan gose bada, emon bear deutsalgu yaten, egarri bada edaten; gure bear bada, lagundu bear deutsalgu; ezteutsalgu ukatu bear berbea, eta gure egite ta gauza guztietan adierazo bear dogu maite dogula ta ondo gura deutsalgu. Etxaku galarazoten mandamentu onetan eztaigula eskatu gurea dana, eta alan eskatu leiteke zor deuskuenen pagua, ondasun edo haziendaren biurkerea, eta bestelan ezin bada Justiziarren aurretik bere; baia auzia emoiten bada, izan bear da intenziño, gogo ta biotz deunga bagarik; eta auzirik badago, kontu neure Kristiñauak, gorrotoa biotzean sartu ze dedin, ze guztiz da erraz au yazotea edo obeto esateko guztiz da gatx gorrotobagarik auzitan (egitea) ibiltea. Orregaitik J.K°. geure Jaunak ez eban gura Kristiñauen artean auzirik izan zedin; eta alan zirautsen Apostolui, ta Apostoluetan guztioi: Etzaitze auzitan ibili, eta alan iñok matrallan yoten bazaituz, imini eiozu beste matralla; iñok auziren bat ifinten badeutsu eta zeure txupea kendu gura badeutsu, emon eiozu kapea bere; norbaistek eroan gura bazaituz milla pausu, zoaz beragaz milla ta bi bere. Eta berba oneetan dirasku gure Salbagilleak, S. Juan Krisostomo-k diñoanez, obe dogula diruak, ondasunak, honrea, eta erropak galdu, auzitan ibili baxen. Baia, ze urrun dagozan asko ta asko gaurko egunean J.K°.k emoniko itundute edo konsellutik! Tabernan, konbersaziñoan, yokoan, edo aiuntamentuan esan edo urteiten daben berba bategaitik, berpertatik auzia ta kerellea. Esan arren onelangoak axeak daroian gauzea dala, bertan bera istea dala ondoen, guztia geratuko dala aizturik, eztau enzun gura izaiten. Honrea galdu deust, esan daroe; *guzurtia*, *ordia*, *lapurra*, edo *pikaro* bat nasala esan deust; ezteutsat parkatuko daukadana galduta bere. Neuk irakatsiko deusat zelan berba egin bear daben eta bertatik kerellea. Sartuten dira emetik prokuradorea, andik aguazila, emetik eskribauba, andik letradua, eta geratuten dira arimea galdurik, askogaz arerio, etxe eta soloko bearrak atseraturik, eta bolsea utsik. Eta, zer atara dozu, edo zer aurretü dozu? Ezer ez; ez daukazu leen baño honra geiago, leen zineana zara, eta geienetan onango auzi eta kerellak konpondu bear izaiten dira, zeure kontuak lepoan dozuzala. Yaramonik egin ezpazendu, ixil ixilik egon bazina ez eutsuen atarako pruebetan enzun direan milla gauzatxu, bada guzurak izan arren, askok uste dabe egiak direala; azkenean (gero bere) ezagututen dira diñodazan egia oneek; baia belu, erremediorik eztaukenean. Orregaitik lenagotik begiratu bear dira gorputz eta arimako kalte oneek. Auxe berau yazo oi da zor edo artuenen baten ganean auzitan ibiltan danean, bada guztiak balio

daben baño milla bider geiago gastetan sarritan asten dira, euren temea-gaz urteitarren.

6. Neure Kristiñauak, bide oneko, eta gauza andien ganean danean auzia, ardura andi bat euki bear da gorroto eta aserrakuntzarik izan eztedin; baia dakuskuna da leen adiskiderik andienak izan arren, auzia asi ezkerro bertatik aldendu, edo apartetan direala; ezin alkar ikusi dabe, bata besteen kontra dagoz amorroturik, ataraten dituez dakiezan tatxarik ezkutuenak, eta beti dagoz bata besteen kontra. Orregaitik zirautsen S. Paulo Apostoluak Korinto-tarrai, oba ebeela injuria eta gatxak irago, auzitan asi baño. Eta auxe berau dirautsuet nik bere zuei, oba dozuela edozein berba astun enzun, eta edozein neke eta gatx igaro, auzitan asi baño. Eta bear bearrekoa bada auzia, imini lelengo Jaungoikoaren eskuetan, eskatu berari konbeni yatsuena, eta euki kontu andi bat zeuen biotzagaz, gorrotorik euki ze daizuen. Erbestetu edo desterradu dagizala Jaungoikoak mundu guztitik auziak eta kerellak, eta emon deigula bere bakea. Amen.



12. ORDIKERIAREN GANEKO IKAS BIDEA

(B, 43-46, 75-76. or.)

Esanik Espiritu Santuak ardao dala fede edo sinistea gizonai itxi erazoten deusana, berba egin gura neunke ardao larregi edateko ekan-duaren ganean, bera dalako kristinautzea, eta gizona izaitea bere gizonai kenduten deusena: bada egunean egunean dakusgunetik, ordi batek obeto dirudi abere mutu edo animalia bat gizona baño. Ba'kit probetxu gitxi aterako dodana erakutsi alde edo doktrina onegaz; ze egunean bein dakusgu ekandu galtzaigarri onetan yausi direanetatik guztiz gutxi emendetan eta onduten direala, eta zeinbat eta zarrago ordiago ta ardao zaleago izaiten direala. Baia bai nai (dana dala): onangoak dagoz kondena-ziñoko bide ta pelleburu guztizko ikaragarrian, ta orregaitik berba egin bi'ot, Jaungoikoaren aurrean atxakiarik euki ze daien. Da bada ordikeria ardao larregi edatea, sensuna galdu giñokoan. Askok ta askok uste dabe ze, orditutea dala ardao estamangutik botetea, edo errebez egitea; eta alan burua galdu arren, non dagozan yakin-ez arren, zer esan edo zer egiten daben gomuta ez izan arren, barruan daukeena botetan ezpadabe, uste dabe ze, ezta orditutea, eta ezabela bere pekatu-rik egiten. Baia ez, neure Kristiñauak, uts egiten dozue onetan; erraturik zagoze; ze sensuna galduten bada, da pekatu mortala, ezer botaten ezpada bere; baita erraz yazo leikio baten botatea tragu bat ardao bakarrik edanda bere; edo estamangua otzik dagoalako, edo beste gauzarenATEGAITIK NORBEREN ERRUBA-GARIK, eta pekatu-rik egin bagarik. Norbaitek itanduko deust: Aita, nos edo zetan igarriko deusagu orditu gareana, edo pekatu mortala egin doguna? Ara bada. Lelengo, biaramonean gomuta eztozunean zer egin eta zer esan zenduan edan ezker = bigarren, besteetan baketsua izanik, etxe guztia, eta etxeok errebolbietan dozuzanean = irugarren, maldizino, birao, edo blasfemiak botaten dozuzanean olango ekandu edo usadorik euki bagarik = laugarren, etxera nondik zabilzan ezta kizula, zoazanean, biderik zabalenak bedar-estuak dozuzala: emeko ormea yo, ango munean yausi, sasi onetan etxun, eta ango lupatzen sartu, urrenge egunean ezta kizula ez non yausi, ez non loitu dozuzan soñekoak. Onelango gauzaren bat yazoten yatzuenean bada, ezagun da ordirik zengozena, eta pekatu mortala egin zenduana; baita zure seme, alaba, emazte, edo otseinen

batzuk ikusi bazenduzan alan, ainbat okerrago, ze alde onetatik egin zenduan beste pekatu mortal bat emon dozun eskandalu ta exenplu txarragaitik.

Eta yazo yatsu onelango gauzarik iños? Ez, aita, iños bere. Aror bada Demoniñoaren itsumendia. Baita obeto ezagututeko zelan Demoniñoak itsututa gogortuten dituzan gizon ordiak, esan egidazue: ikusi dozue edonos gizon edo andraren bat ordirik (andra ordiren bat)? Jesus, Aita, erantzungo deustazue, ikusi iños? Larregi bere bakusgus: uxela ezpalegoz, ze daukena eta eztaukena gastetan dabe ardaotan, galtzean dituez euren buru eta arimak, eta eskandalizetan dituez dakuzezan guztiak, eta askotan euren emazte eta semealabatxuak dauke infernu bizi bat etxean. Bada ori zuek badiñozue; baia yakin bear dozue eze, konfesonariora ezta torrela ordia dala diñoanik. Itandu bekio ordirik andienari ea ardaok gatzik egin deustan, edo sensuna galdu deustan, edo besteetan legez gauzaak ez egiteko ardaok iños imini dabenez, eta bertatik eranzungo dau: ez, aita, ara, edan ondotoxu, eta txoromorotu ta alegretxu ifini bai, baia ordirik ez iños bere. Baia oneek geienetan, eztauke errazoerik, eta euren konfesiñoak izaiten dira geienetan utsak eta deungak, batetik eztaukeelako euren pekatuen egiazko damurik, ta benetako garbairik, beste aldetik barriz eztaukeelako egiazko gogo ta propositurik ekanduari itxiteko, bada ezagututen eztaudena legez euren gatxa, alan eztabe iminten bere gatx onetarik urteiteko borondaterik. Mundu guztiak dakusaz ordirik, etse barrukoak ta aldeak dagoz lotsaturik arpegia dariela; yente guztia dago deungaro esaten; entzuten yakez eurai ganorabako berbaak, kanta zoroak, errietak, euren artean iñogaz balegozan legez berbetan, eta oñen ganean egon ezin direala albo alboka bagarik, adietan emoiten dabe ardaoz bete bete eginik dagozala, eta orregaitarren diño konfesetan datozeanean, Aita, txoromorotxu, ta alegretxu bai, baia ordirik ez. A ze konfesiñoak! A ardaok itsuturiko gizonak!

Onelangoak obeto aditu dagien bada, esango dot nortzuk egiten daben pekatu leen esan dodazanez ganetik. Egiten dabe bada pekatu mortala lelengo okasiñoa dauken guztian ardaoz asetuteko gogo (edo biotza) ifinirik daukeenak = Bigarrenge egiten dabe pekatu ordituteko pelleburuan iminten direanak, zelangoak direan tabernara doazanak, yakinik doazan guztian edo geienetan ordituten direala, ezin itxi deustelako ardaoari okasiñoa euki ezker. = Irugarrenge al daian guztia edaten dabenak okasiñoa dauken guztian. = Laugarrenge yokoan yarten direanak, yakinik yoketan daben bakotxean edo bai beintzat sarri larregi edaten dabeela. = Bostgarrenge, ordiakaz batzainduten direanak yakinen ganean



eurekaz batuten direan guztietan edo bai geienetan ordituten dituezala, edo ordi egiten dituezala. = Seigarrengo, larregi norbaiteri eda-arazoten deutenak porfiagaz ekin-ta ekinda, yakinik orditu aginean dagoana, aserratuten direala edonok euren eskutik artu gura eztabenean. = Zazpigarrengo, nori edo nori edan eragiten deutesanean konbeni yakan baño geiago zerbaist esan daian, edo gauza ixilikoren bat argitu daian, edo fiantzaren baterako baiezkioa ateratearren, edo beste gauzaren bat egin dagian zein sensunagaz edo edanbaarik egingo ez eban. = Azkenean barriz egiten dabe pekatu tabernerak ardaoa emoitzen badeutse, ordituten direana dakienai, edo orditu aginean dagozanai; bai-eta bere gauzez berandu artean yokoan, edo ardaoz ase ase egiten badaukez euren etxean yakinik lenagotik euren barria. Ez begie esan ardao saltzalleak ezin osterantxean saldu edo irabazi leiela, ezta bere osteranzean ezin pagadu leiela euren errentea, ze tabernea artu edo errematau ebenean yakin bear ebeen au ezin zala, eta alan orditu aginean, edo ordirik egonik eskatuten badabe ardao geiago, ezin emon leie konzienziaren bean, eta pekatu mortala egiten dabe emoitzen dabeen bakotxean, baldin ez emonagaitik ezpadatorkie gatx andiren bat. Orduan bada onelango ardao saltzallaak egin bear dabeena da, modu onean, edo au edo bestea esanagaz ezin atara badituz etxetik, emon justiziarri kontu, eta Juezak euki daijala zepoan urez asetan, ainbeste egarrigaz badagoz; bada atan kenduko litzatekez mundutik ordi asko; atan aziko litzatekez seme-alabak obeto, alan egongo litzateke etxeetan bake geiago, eta alan ofendiduko litzateke Jaungoikoa gitxiago.

Bear bada norbaistek esango deust, Aita, egia da ni tabernara yoaten nasala, baia neure bizian enas ordituteko usteagaz eldu. Sinistuten deustut ora eta itanduko baneutsu orduan nora zoiazan, deritxat eranzungo zeuskidala: Aita, tabernara noa neure kuartillutxua erarten, gero geldi geldika ilunzerako etxera yoateko. Baia, zer yazo oi da? Topetan dozu adiskide bat, ateraten dozu kuartillu bat, konbidetan dozu beragaz. Eta besteak zu baño gitxiago ez izaitearren ateretan dau beste kuartillu bat; batuten dira beste lagun batzuk, azten zaree konbersaziñoan edo yokoan dibertidutearren; ardaoa doa ardaoa dator edaten dozu, eta gero zer egiten dozun eztakizula arinduten yatzu burua, asten zara ganorabako berbaak esaten, aserratuten zara agaz edo besteagaz edozein gauzagaitik, eta ilundu yatsu etxera yoateko; urteiten dozu gaubeko ainbeste orduetan tabernatik, etxerako biderik zabalenak estu ta bedar dozuzala; emen estropezau, an yausi, orain batera eta gero bestera, nondik zoazan bere ameneko ondo eztakizula; elduten zara etxera, eta aror infernu bizia, emaztea oera yoan bada edo berbatxu bat esaten badeutsu, asten zara deadarrez, eta esaten

Demoniñoa, Diabrua, eta arraioa, baita bere benturaz golpeka zeure emazte eta familiak errua baleutzuna legez, eta biaramonean burua astun eta gorputza nag, bearrerako adin bagarik.

Auxe da, neure Kristiñauak, egunean egunean dakusguna, guztiz bere yaiegunetan, entieru eta onrak edo ileteak dagozanean, edaten dabe mezeen balioa baxen asko geiago, dagoz arratzalde guztian edan-da edan, eta gero bidean topetan badabe tabernaren bat eztira batzuk edo batzuk sartu bagarik geratuko: atarako daude euren kuartillua bapere bere bearrik izan bagarik; tragu baterik doaz bestera, edaten dabe uste eben baño geiago, berotuten dira, eta ardaoa barrizua dana legez, esaten dabe edozein gauza, aserratuten da bestea bere kontra zerbaist esan dabelako, eta berbarik berba ezarten deutsez askotan eskuak alkarrerri, eta lauziri balio eztaben gauzeagaitik ateraten da kerella bat; sartuten dira emetik eskribauak, batetik letraduak, bestetik prokuradoreak, andik testiguak, emetik justizia, askenean barriz kendeutse [sic] daukana, eta geratuten da, esan doiana legez alkondara utsean, zer yan eztaukala, zegaz mantenidu, eta akomoda bere bere semeak. Auxe da onelango ordiai yazo oi yakena, Espiritu santuak berak dinoandi. Ezpabere, esan egidazue, nori datorkioz gatxak, nekeak, aserreak, lanak, aiariak, zauriak eta pobrezea? nori ardao-zaleari, eta edaleari ezpada? Non egiten dira bidebagako tratuak, eta burubako fiantzak geien geienean ardao artean ez izanik? Zegaitik dagoz ainbeste familia galdurik, eta ainbeste etxe zorrez beterik? Geienetan ardoagaitik. Eztot zuek baxen beste testigurik gura. Zeinbat etsaguntza ikusten diraz saldurik eta zorrez beterik? Zeinbat etsagun eta euren familia euren etseti kanpora burubako fianza onelangoak gaitik? Yakin gura badogu, non, zelan, eta ze modutan sartu zirean fianza oneetan, ikusiko dogu geienak egin zireala ardao-etxeetan, eta ardao artean. Orrako gizon galdu zeintzuk ezin inondik aurkitu al ebeen euren tratu okerren fiadorerik, konbidadu eben etsagun ori tragu bat edaten. Emon eutsen ondotxu edaten, eta arako berorik egoanean, erreku, palagu, eta berba laztanakaz, sartu eragin eutsen fianza galgarrietan orretan; eta orain dakutsue bere etsealde bagarik, zer yan, ez zer yanzi eztaukala, alziz beterik, erdi billoxik, eta bearbada aterik ate, ogi kotsur bat yango badau. Zeuek sarri ta sarri ikusi izango dozue beste onen-beste. Emetik ezagutuko dozue ze egia andia dan Espiritu Santuak diñoana: Nekezale ordia ezta inos aberats izango. Eta, zeinbat arimako gatx, eta pekatu eskerga eztira ernetan ordikeriatik? Zegaitik yazoten dira ainbeste etxeetan errieltak, kimerak, biraoak, eta añeniñoak? Geietan ardaoagaitik. Ardao larregitik datoz berba loiak, eskuka zikinak geienetan, bada S. Paulo Apostoluak diñoanez, ardaon



dago luxuria, ta dexonestidadea; ardaotik datoz lapurretak, yuramentu guzurrezkoak, eta ezin esan leitezana beste ainbeste gatz: ze ardaora egin danak gastau ezkeru esku artean daukana edozein gauza egingo dau zegaz edan eukitearren nai ostu ta bear bada bideetara urtenda bere, nai edozein testiganza emon, edo guzurraren ganeko yuramentu egin, ondo sarri gure damuan enzun ta ikusi oi doguna legez. Andiak dira zelan-bere ordikeriak dakarzan kalte eta gatzak; baia andiagoak dira parebaga emakumeenak dakarzanak gizonenak baño. Emakume ordia, aserre andia da, diño Jaungoikoak berak, lotsaari andia da senarrentzat, eta senide guztientzat; ezin estaldu lei bere ezaintasuna, edonon agiriko da, ze itsusi dan. Leenago galduko dau etsea emazte ordiak, gizon ordiak baño. Errezago yako emazteari, senar ordiaganik etxeko gauzaak ostendutea, senarri emazteaganik baxen. Emazte ordi batek salduko dau etsean dan guztia, senarrik yakin orduko, bere yaztekoak, umeenak, senarrenak [sic], izara, samau, urdai, zezin, eta aora eroan bear dabena giñokoa, ardaoa erostearen, eta orditutearren, eta ezpadauko beste gauzarik zegaz erosi ardaoa bere gorputza emongo dau, ardaoz aseterren. Zeinbat bider ikusi izango ete dozue au yazoten?

Baia eztira emen geratuten ardaoarean gatzak, ze geien geien bildur-tu bear gaituzana da, ordien salbaziñoaren pelleburuak. Ain da gatz ardaora emonik dagoana salbetea ze, ezin dala urrean, diño S. Juan Kri-sostomo-k, ordi bat ezek bere mobidu ezin leikealako. Alperrik dira olan-goentzako sermoiak, arpelik agirakak, arpelik zemakuntzaak, eta arpelik konfesoreak eta predikadoreak bere onerako egin al leien guztia. Imini bekioz begien aurrean Jaungoikoak beragaitik egin dituzan gauzaak; bere eskuetatik artu dituzan mesedeak; bere maitelariantzako zeruan pretauta daukazan ondasunak, eta kabu ta neurribako atsegin ta olgurak; idigi bekioz bere begietan infernuko pena, su ta tormentu guztiak; bada eztau ezek bere ikaratuko; ezta dana ta daitekean guztia asko izango ardaoari itxi eragiteko; eta guragoko dau antxe Demonioen erdian, eta su ikaragarrizko aetan sartuta egon ardaoarean ekandu larregiari itxi baño; berba baten esateko etxako ezegaz bere, ezegaz bere bere ekandu deungea kendo, ezta bera salbetako modurik aurkituko bere, ze zuek dakutsue onelangoai zeinbat zarrago ainbat gozoago egiten yakela ardaoa, eta beste pensamenturik eztaukela ardaoa ta edatea baño. Baita, zelan geratuten dira onelangoak askenean, eta oraindiko gazteak izanik? Kokoturik, sensun bagarik, indar bagarik, podere bagarik, edo animalia batzuk legez, edo klaruago esatarren, zubil bat dirudiela, ez konfesetako, ez Jaungoikoari erre-gotuteko, ezta aren Majestadearen gomutarik eukiteko bere. Euren gogo

eta guraari guztia, eta euren amesa bere, ezta besterik, ezpabere nondik nora ardaoa edango dabeen. Eta alantxe il bere egin doaz geienean, batzuk akzidente bategaz konfesadu bere egin bagarik, eta beste sakramentu bagarik; beste batzuk konfesetan direala, baia zelan? ganora bagarik, zer egiten dabeen yakin bagarik, eta erdi kokoturik. Orregaitik diño Espiritu Santuak ordien izenean: azotadu ninduen, eta eneban yakin, eta eneban beste gauzarik pensetan ta esaten neure artean, ezpada, nos edango dot? Eta alan esan bear deusuet Espiritu Santu berberaren izenean ta bere berbakaz: ez egiozue ardaoari begiratu basuan argi egiten dabenean, ez eikezue esan: ai! ze kolore ederra daukan; ze gozo eta bigun igaroko da zure samatik, baia ibili ta ibili sugeak legez yango deusue zure barrua, eta suge-tzarrak legez beteko zaituz pozoiz ta benenez. Eta zuek, ordi konkorrok, ordi zorigogorrekoak, edan egizue, ase ase egin zaitez. Edan egizue bada ordi zorigogorrekoak, ase ase egin zaitez ardaoz, eta bein bere ekandu deunga orri itxi gura ezpadeutsazue, zoaze Demonio guztiakaz. Sarri ta sarri esan yatsue pulpitutik, eta konfesonarioetati zelango pekatuak egiten dozuezan, baita zelangoak eragiten dozuezan zeuen emazte eta seme-alaben artean ardao larregira ekanduagaz; sarri ta sarri imini yatzueez begien aurrean zelango eskandaluak emoiten dozuezan etxean familiaren artean, auzotegian, eta erri guztian, zuen ordikeriakaz, eta zelan zagozen kondenziñoko bidean akzidente batek baleutsue, akto kontriziñoko bat ezin egin zinaielako; baia orregaitik bere ezteutsazue eguño ekandu deungeari itxi gura. Edan bada, orditu zaitez, bete zaitez ardaoz samagiño, eta zoaze infernuko Demonio guztiakaz, zeuen gustua alan dalako. Ikusi dozue, Kristiñauak, zeinbat, eta ze ikaragarrizko gatzak dakarzan ordikeriak, alan gorputzean, zein da arimaan; ala gorputzeko ondasunetan, zein da arimakoetan. Etzaitez bada miraritu ez admiradu Konfesore eta Predikadoreak badagoz beti beti alegin guztia egiten, zuek yausi ze zaitezan ekandu onetan, eta yausi bazaree, andik ateretako. Dakuse erri guztietatik zabalduarik pekatu au, etse, kale eta bideetan aurkituten dituez ordiak; batzuk oñen ganean egon ezin direala; beste batzuk berba ero, gangar eta ganora bakoak esaten dituezala, baita ameneko ameneko, loi eta zikiñak bere; onek eztaukela bageria iñogaz, aek euren emazte, seme, eta etseko guztiak darabildezala aldean, ta uxaturik. Auxe gaitik prediketari dabe ainbeste bider ordien kontra. Zer deutse geiago bere kontra edo bestee pekatuen kontra egitea? Zer emoiten Yake onegaitik? Zer irabazten dabe? Areak bere ez. Eta alan-bere beti zagoze esaten: onek Predikadoreok beti beti dagoz ordien kontra; ezpalego legez beste pekatuak zeri egin. Eztaukenean zer esan, edo akabetan yakenean



sermoia, ekin ordiai eta taberneari: beti dauke eginik sermoia. Ez, Kristiñauak, ezta au zegaitik ain sarri prediketetan dan ekandu onen kontra. Zuei deutsuen amodio, eta ongureak, zuen errukiak au erasoten deutse. Gura dozue onen ganean berbarik egin eztaien Predikadoreak? Kendu egizue ekandu zitel ori, eta eztozue enzungo ordien kontra sermoirik; barriz zuek aurrera ordikeria, eta ez predikadu bere kontra, ezin au izan leiteke.

Beste gatz guztiz andi bat ikusten da ordietan. Eztira agertuten konfesetara urtean bein baño. Eltzean da aste-santua: zelango esturak? Zelango izerdiak, zelango larriak? Eztira konfesetan yoango lelengo egunetan, ezpada azkenengoetan. Eta orduan zelán elduten dira? Urkamendi batera bililloaz [sic] legetxe. Begiratuten dabe ze konfessore dagozan, an ete dagoan bere ezaunen bat, modu onetan bera engañadu al daian, eta agindu ze dagion tabernara yoan ez eiteko. Ezta yoango igaz edo leenago konfesadu ebagana, modu onetan dabil, zer egin eztaiala. Aror zegaitik direan ain ezaun ordiak aste santuan. Konfessoreak aginduten badeutso eldu bere ez egiteko tabernara, berak zabalduen dau emon yakan penitencia. A ze gogorra dan, diño urlia konfessorea, enauko urrengoan artua. Esaizu gizon itsua: Zer gura zeunke egin daizun konfessoreak badakus konfessoreak tabernara yoatea bardin bardin dala zuretzat, zein da orditutea? Orditutea bardin dala zein zure etse eta auzoak eskandalizetean? Emon deutse Konfessoreari diru pilloren bat, zuri agindu deizun, tabernara ez yoateko? Emetik aterako dozue kontu zelangoak izango direan ordien Konfesiñoak. Alantxe daroe aurrera euren ekandu zitela; beragaz elduko dira eriotzako ordura, eta Jaungoikoak yakin zelangoa izango dan, orduan egin daien konfesiñoa, egiten badabe. Idigi egizuez bada nosbaist zeuen begiak, infernuetara yausi gura ezpadozue. Alan izan daiteala. Amen.

13. LOIKERIAREN GANEKO IKAS-BIDEA

(B. 46-50. or.)

1. S. Paulo Apostoluak diño ze, deungaak Jaungoikoaren erreinua gozaduko eztabela, ez aragizko pekatuak egiten dituezanak nai libreak izan nai ezkonduak; ezta beste loikeria lotsagarrizkoetan dabilitzezanak bere. Pekatu auxe da geien gortuten dabena Kristiñaua, ez enzuteko Jaunaren deia; eztau bestek ainbeste itsututen, eta alan itsumendi onegaz doaz infernuetara Kristiñau asko baño geiago. Orregaitik gura neunke onen ganean berba egin. Bakit nik eztana erraz bear dan legez azaldutea, ta argian imintea pelleburuz betea dana. Aingeru baten garbitasuna bear neunke ez loituteko nagoan leku santu au, eta alan pozik itxiko neunskio ezer esan bagarik. Baia yakinik beste aldetik Demonioak, arrañak sare bategaz legetxe, artuten dituzala Kristiñauak pekatu onexegaz, eneunke itxi gura zer edo zer esan bagarik; uste dodala Jaungoikoak iminiko dituzala bear direan berbaak, garbiro adietan emoiteko pekatu loi, atsitu ta infernuko kiratsez beteriko au. Enas geratuko pekatu andi andi ta yakintan; ze onangoak guztiak ezagututen dituez; ezpabere arako askok ta askok ainzakozat artuten eztituezanetan, zelangoak direan pensamentu loiak, berba zikinak, ebilera pelleburuzkoak, lagun deungaak eta alan.

2. Lelengo bada egiten dabe pekatu mortala pensamentuz, gauza loiak euren guraz gogoan darabiltzenak. Gauza loa buruak emoitea ezta pekatu, ze au eztago geugan, edo gure eskuan. Pekatua, bada, dago pensamentu loa igarrita bertatik kentzeako alegina ez egitean, edo norberen guraz gogoan erabiltean. Esaterako: egin zenduan nosbaist aragizko pekatu bat; etorten yatsu burura orduan euki zenduan gustu zitela; bada pensamentu au asmau orduko kentzera egiten badozu, eztago pekatuak; baia kendu bearrean, aurrera bazoaz, gustu artuten dozula, edo gauza aren ganean pensetan bazagoz zeure guraz, ya pekatu mortala egin dozu; baita arpel izango da pekatu egiteko gogorik ez eukitea, ze atan egotea bera uts utsik asko da pekatu izaiteko. Ara emen irudi eder bat, diñodana ulertuteko. Bazagoze subete baten lau edo bost lagun berotuten, ta alangoren baten, beingoan yagiten da bat ta diño: ene! emen zer edo zer erretan da; erre usaña data. Zu ta besteak bere beingoan zutunduten zaree, eta begiratu bere bai ea noena dan erretan dan yaztekoa, baita zorionean zegaitik etzan zeurea izango. Zuk orduan berpertatik amatetan badozu, edo ama-



tetako alegina egiten badozu, ezin lei iñok zure erru imini erre dana; baia amatau bearrean bazagoz mamoo eginik erretan danari adi, arik aurre zurea da erretan danaren errua. Bada beste onen beste yazoten da pensamentu ta tentaziño loilagaz bere. Buruak emoten deutsu bear eztan gauzea, edo Diabruak putz emonda, biztuten da zure biotzean akordu loia-
ren sua: oraindokoanen ezta pekatu; au ezta, zure yaztekoan yausten dan txingana baxen; oraindio ezteutsazu leku emon, eta S. Agustinek diñoandi, eztago pekatu noberen borondatea bagarik, eta igarrita bertatik botatera egiten badozu edo biotza Jaungoikoagana ezegiagaz, edo Ama Birjinearen laguntasuna ta grazia eskatuagaz, edo beste onango gauzaren bat eginagaz, garbi izango dozu zure burua. Baia bein asmau ezkerro zer dan gauzea, atantxe bazagoz apurtxu baten baño ezpada bere, egin bagarik alegina zeuganik uxatu, ta kentzeako, ya egin dozu pekatu mortala, eta zeinbat eta geiago zagozan atan atsera ta aurra [sic], ainbat andiagoo izango da egiten dozun bekatua.

3. Baia esango deustazu: Aita, apurtxu baten baño ezta izan; ze geroenezadu neuntsan Ama Birjineari, eta egin neban kendutera. Bai nai, neure Kristiñauak; apur apur bat da asko onen ganean pekatu mortala egiteko. Ondo da gero bere alegina egitea pensamentu loa kenduteko; baia bein danik bein egin zenduan pekatua zeure guraz egon bazinean pensetan gauza loian, memento baten baxen ezpazan bere. Aita, eneunkan gauza txarrik egiteko asmurik. Etzaitze engaño, Kristiñauak. Pensamentu loa pekatu mortala izaiteko, ezta egin gura bear buruan dagoan gauzea. Adituko dozue zerbait irudi onexegaz: Zoaz denda batera, non dagozan gauza guztiz ederrak; ifinten zara eurai begira ezer erosteko gogo bagarik; baia gustetan yatsu ikustea, eta zagoz guztiz pozik eurai adi. Itanduko baleutsue zer egiten dozun, eranzungo zeunke, begiai gustu emon. Onenbeste, bada, da pensamentu loilagaz yazoten dana: ezta egin gura gauzea, baia gustu emoitzen yako norberen buruari gogoan erabiliagaz, eta auxe uts utsik, ta bera bakarrik da pekatu mortala. Beste pekatu egiteko modua, baita lengoa baxen deungo da aragizko pekatua egin gura danean, zer edo zergaitik egiten ezpada bere. Kontu egizue ikusten dozuela erromeria baten neskatiilla edo gizon gazte eder bat. Bera ikusiagaz sartzean yaztue pekatu egin gurea; baia edo galdurik geratuteko bildurrak, edo lotsa zareelako berba egiten, edo beste alango gauzaren batek galarazoten deutsue gauza zantarra egiten. Bada auxe gurari edo gogo txar au bera berez ta beste bagarik da pekatu mortala, ze J.K.k diñoanez, iminten dituzanak begiak andreagan pekatu egiteko asmuagaz, ya egin

eban pekatu bere biotzean. Baia pekatu egingo leukealako buruak emoitzen, noberen erruz ezteanean, eta laster botetara eginik, ezta pekatu.

4. Baia kontu, Kristiñauak, diñodanagaz; noberen erru bagarik izan bear dau, ze osterantxean pekatu mortala izango da. Askok eta askok esan daroe eztebeela pekatu egin gura; baia eztituez itxi gura urlia edo urleziazko berba aldiak, amurruturik dagoz beragaz egoteko al daien guztian, berbaz dagozanean sentietan dabe euren biotzean infernuko su edo berotasun zorigogorreko bat, zeinek erretan dituzan azurretaragiño, eta orregaitik bere eztaude alangoetatik urrun egin gura; baita esaten yakenean alde egiteko onango ondabideetatik, bertatik eranzun daroe: Aita, eztozu iños gauza deungarik egin. Zer da kanpotik egin ez arren, zuen biotza infernu bat eginik badago? Askok uste dabe ze, eztagoala aragizko pekatu-
turik, obrazkoa ez izanik; baia yakin bear dabe ze, egin gurea, ta gogoan gauza loa erabiltea, egiteko asmurik izan ezagaitik, bardin pekatu mortala direala.

5. Berbaz bere egiten dabe pekatu mortala arako berba loi eta zikinak esaten dituzanak, bearrean dagozanean, alkarren artean berbetan, ta bigiretan yazo oi dana legez. Solo baten badagoz, askok eztakie berba loiak eta arinak baño esaten; eta bear bada, deungeen dana agura buru zuriak. Onek gazteen berba deungaak galaazo bearrean, eurak aurrengo izan oi dira, yente guztien begiak idigiten dituezala. Esango deuste benturaz onelangoak: Aita, txantxetan esan oi duguz, Zer deuto? berba loiak badira pekatu mortala da. Zer dakizu zuk berba loi orrek zer egingo daben bestearen biotzean? Bear bada leku emongo deuto zure berbea dala medio datorkion pensamentu loiar; baita esku artu lei aurreranzean pekatu andiangoetan yausi-eiteko. Txantxan diñozu dala. Bai orretan ze, txantxa ona da. Infernura bazoaze, bardin bardin izango da nai benetan, nai txantxetan yoa. Aita, eztaukaguz pekatutzat orrelango berbaak. Ainbat okerrago: bada agiri da zuen biotza ta aoa dagozana ekandu orregaz atsiturik. Baia, zelan esan ziñaike eztaukazuezala pekatutzat? Esan egidazue, olango konbersaziño loian zagozela elduten bada Sazerdote, Abade, Ugazaba, guraso edo beste errespetozko personaren bat, etzare bertatik ixilduten? Eta berbaikune orretan dagoan batek ikusten badau esandani-
ko personaren bat, ezta bertatik esaten: Ixi, urlia dator-ta? Eta onelango personaren batek enzuten badituz zuen berbaak, etzare lotsatuten? Egia da, Bai, Jauna, esango deustazue. Bada deungetzat ezpadaukazue, zetako ixilduten zare? Zetako lotsatuten zare? Gauza ona balitz diñozuen ori, etzinatekez ixilduko; ezpaleuke berba orreek gauza deungarik etzinatekez lotsatuko; eta alan ezin sinistu leikezue eztaukazuezala pekatutzat.



6. Egiten dabe pekatu mortala arako neguko gaubeetan kontu loi eta ipuin ez garbiak kontetan dituezanak, guztiz bere bada euren umeen aurrean, edo eurak dantzuela, pintetan daudeela gauza deungea al daien ondoen, obato aitu, ta ulertu daien esan gura dabeena. Aita, barre egiteko, eta denporea emoiteko baxen eztoguz esaten kontu edo ipuin orreek. Ondo: eta, non da zuek artuten dozuen gustu zitala, eta besteak egiten dabeen algarea, arako gauzarik loiena kontetan dan orduan? Denporea ez euskun emon Jaungoikoak modu orretan igarointeko. Zerbait kontadu gura badozue, eztira falta santuen bizitzak, edo beste kontu garbiren batzuk. Doktrinea irakurten, edo itanduten bazengoze bardin bardin igaroko zeunke denporea. Pekatu mortala egiten dabee arako kanta loiak maliziaz kantetan dituezanak, mutil gazte zoroak, eta neska gangar buru arinak kantetan dituezana legez, guztiz bere basterretan baturik danzan egiten dabeenean, kanta loien soñuan, guztiak edo geienak barre egiten dabeela gauza loiena kantetan danean. Aita, eztaukat nik orrelango berbeetan intenziñoe deungarik: esan esan baxen ezta izaiten Kristiñauak, asko daki Demoniñoak, eta alan asko ta askotan, berak ezin dabena, logretan dau berba oneek esateko ekandua daukanen bitartez. Asten da Demoniñoa norbaist tentetan pekatu loirako; baia ezin dau berez goitu edo benzidu, aurkituten dau ekandu zitel au daukan personea, batzainduten da, bada, beste batzukaz; esaten dau batek berba arin edo barre eragiteko bat, eranzuten dau besteak beste bat, asten dira guztiak barreka; aurrera doa infernuko berbaikunea, eta aurrerago eta loiago ta gozoago. Lelengoan lotsa apur bat beegoan; baia ikusirik guztiak dagozala modu batekoak, besteak baño gitxiago ez izaitarren, eurakaz bat egiten da; eta aror non Demoniñoak zure bitartez alkanzadu daben, berak ezin ebana. Pekatu mortala egiten dabe mutil eta neskatillak, arako alkarregaz batzaindu ezker, esaten dituezanean amudiozko berbaak, eta siñu zitai batzuk alkarri egiten dituezanean. Eta ez bakarrik pekatu mortala egiten dabe esaten dituezanak, baita bere guztuz enzuten dagozanak, alde egiten ezpadira leku atatik. Eta oraindion bere pekatu andiagoo egingo dabe ugazaba, guraso, eta besteen ganean eskua daukeenak, galarazo, eta ixilduten ezpadituez onango miñ infernukoak. Onexek dira berbeagaz egiten direan pekatu mortalak.

7. Guztiz asko dira beste modutako pekatuak, ta pekatu bide ta pelleburuak. Pekatu mortala egiten dabe arako mutil eta neskatillak alkarregaz adiskidetasuna artu ezker, alkar bagarik egon ezin direanak, batak besteagaz gura dabeen lizenzia artuten dabeela; alkarregaz fiestetara, alkarregaz meriendetara, alkarregaz berba-aldi luzeetan, eta al badagie leku esku-

tuetan, eta bakarrean. Jauna, eztogu gauza deungarik egiten. Eztakit, neure Kristiñauak, engañadurik eztagozen. Mutil gazte bat neskatilla bategaz berbaz denpora luzean egon, yan ondo, edan obeto, eta, ez euki pensamentu deungarik, ez egin mobimenturik, ez euki ilanezarik? Mirari andia da ori. Jauna, adiskideak gara, eta asko gura deusagu alkarri. Uxela adiskideak ezpazine, pelleburu gitxiago eukiko zeunke. Aikarri esan deusazue asko gura deusazuela, ezin alkar bagarik egon zaree, ezin alkarreganik alde egin dozue, alkarregaz zagozenean asmetan dozue zuen erraietan infernuko su ikaragarritzko bat, zeinek kiskildu ta erretan zaituzan, eta, diñozu eztozuela gauza deungarik egiten? A kristiñauak, au Demoniñoaren itsumendi latsa da, ta bere tentaziño aserrea. Zabilte, zabilte orretan; batu zaitze alkarregaz, eta denporeak esango dau zetan yoko dabeen zuen adiskidetasun orreek. Pekatu mortala egiten dabe arako mutil zoroak, bidean dabiltezanean, topetan dituezan andra, edo neskatillai siñu, orakada, eta beste onelango gauzaak egiten deutsezanak, eskandalizetan dituezala begira dagozan guztiak. Pekatu mortala egiten dabe (kontu onegaz) arako erromerietara yoateko, alkar billatuten direan mutil, eta neskatillak, alkarregaz ibili, alkarregaz meriendau, bata besteagaz biuruteko etxera; eta gaubaz, libreago ibiltearren, emen bota, an oratu, orain yo, gero ukutu, eta geroago ta laztanago. Eneunke, Kristiñauak, larregi idigi gura askoren begiak; baia arriturik, mututurik, eta bildurrez ikara gogorrean geratuteko da, begiratutea zelan daukan aragiaren pekatuak gaurko egunean mundua. Eztau itxiten ez zarririk, ez gazterik, ez humerik, ez agurarik, ez mutilik, ez neskatillarik, ez ezkondurik, ez liberik.

8. Auxe da Demoniñoak mundu guztitik zabaldu daben sarea. Pekatu au da infernuko ateak zabal zabal egin dituzana, eta infernua Kristiñauz bete dabena; eta alan deritxat sartu al bagintekoz oraintxe infernuan, baita iminirik erdi erdian itanduko bageunskioe bertan dagozanai, ea zegaitik dagozan an, geienak eranzungo leuskegela, aragizko pekatuak gaitik. Ta orregaitarren bere, ze ardura artuten da pekatu onen bideetatik iñesi egiteko, ta okasiñoa kentzeako? A! zuek zabilte galbide ta okasiño oneen atsean, danzarik danza, ta erromeriarik erromeria; guztia da apaindutea ondo zuen buruak, ta ameneko ostuagaz; guztia da adiskidetasuna, kanta loiak, eta munduan direan zorakeriak, eta orregaitik bere su andi onen erdian erre bagarik egon gura dozue. Enzun bada zer diñoian S. Jeronimo andiak bere burua gaitik: Nago ermu itsaltu baten sarturik, nire yatekoa ezta besterik ogi utsa ta ura baxen (besterik); lur gogorra da nire oia, eztaukat nire gorputzean azur ta azal utsa baxen (besterik); beti nago gerra bizian neure aragiagaz, barauak, azoteak, oraziñoak, negarrak, zis-



puruak, gosea ta egarria dira neure betiko lagunak, onexekaz egiten dot alegiña gorputz makal au azpiratu ta agindupean eukiteko; eguño atseginik, poz-aldirik, ez olgurarik emoiten ezteutsadala, eta alanbere, beti dagokat aragi zitel au muker ta bere zitelkeriak egiten. Ezin sekula bere aitzu dodaz Erroman beñolan ikusi nituzan Damaak, eta onexekaz egiten deust gerra ikaragarrizko bat, pesamentu loi eta zikiñez betetan nabela. Baita zuek gura dozuen libertadeagaz ibilita, eztaukezue pensamentu loirik? Danzetan ibili, berba bigunak euki, berba-aldi luzeak, kiñuak, orakadak, eta garbi egon gura dozue pensamentuetan? Eztakit nok sinistu lekezuen; nik ez beintzat. Obetoago sinistuko neunke amuko zati bat errebagarik dagoala laba izio baten erdian, zuek infernuko su orregaz kiskildu bagarik baño. Jauna, bada ze erremedio garbi izaiteko? Ara S. Pablo Apk. emoiten deuskuna: iges egizue aragizko pekatuen bide guztietatik. Iges dantza, yolas, ta emakumeen berba-aldietatik. Bardin diño S. Agustín-ek, gura bo'zu ondo urten aragiak egiten deuskuzan burrukeetatik, iñesa artu bear dozu. Ara emen beste bat aragizko pekatuan yausi ez eiteko; onetarako kilia ta zale-iskia zeugan asmetan dozunean, gogora ekarri eikezuz iru berbatxu oneek: *Orain, Gero, Iños*. Orain il neinteko; Gero yatzi infernura; Iños andik urten ez. Baita emen aginetako min bat gau labur baten oztaz eroan al badot zelan eroango dot su bizian neure gorputz guztia erretan beti betiko? Ai Kristiñauak! odolez negar egitekoa da itsumendi arrigarri au. Egunean egunean ikusten dira eskandaluak, egunean egunean ikusten dira orakada loiak; eta konfesonariora bagoaz mundu guztia dagusku [sic] Demoniñoaren sare onetan yausirik; eta orregaitik bere eztau iñok gura galbideetatik ta pelleburuetatik iges egin. Eztaude sinistu gura yana, edana, danzea, erromeria, gauez berandu etortea, eta berba bigun eta labanak pelleburuak direala. Barre ta burlazar egiten deustse au dirautsenai. Eta orregaitik ez nas bildur esateko au Demoniñoaren itsumendia dala, eta beragaz daroazala infernuetara Kristiñau guztiz asko, non nos-edo-nos idigiko dituezan, belu bada bere, euren begiak, eta orduan ezagutuko dabe, baia probetxu бага, orain sinistu gura eztabeena. Orregaitik diño Jakintsu batek, idizkoak saltuka ta dantzan doazana legez kannizeriara [sic] edo beste illekura, baia bizitzea galtzeako, alantxe Kristiñau guztiz asko doazala danzan, ta saltuka infernuetara danza ta erromerietatik.

14. LOIKERIARIK ZUEN ARTEAN ENTZUN BERE EZPEDI

(I, 81-95. or.)

Omnis inmunditia nec nominetur in vobis.
Ephes. c.5. v.3.

Jaungoikoaren legeko seigarren mandamentuak dirausku, iñoren senarragaz edo andreagaz obrazko (aragizko) pekatuak ez egiteko; eta bederatzigarrenak, ez alangorik egin gura izateko. Baia berba oneetan ez bakarrik galarazoten deusku Jaungoikoak berba utsak eurak diñoena, baita loikeriako gauza guztiak bere, nai pensamentuz eginak direala, nai berbaz eginak, nai deseoz ta gurari (gogo) utsez eginak. Gauza onen ganean izango da arratsalde onetako doktrina. Bakit nik, eta edozeinek alan esango dau, guztiz dala gatx, bear dan legez egitea. Aingeru baten garbitasun guztia bearko litzateke, gauza ain loiaren ganean garbiro berba egiteko, eta bere yakituria guztia yakiteko zer esan bearko dan batzuei kontuan yausi (igarri) eragiteko eurak egiten dituezan, eta pekatutzat artuten ezituezan gauzak, pekatu direala, ta pekatu bere pekatu ikaragarriak; beste batzuei barriz eztakiena ez erakusteko, eta ez yakitea bere oba dana yakin ez dagien; eta orregaiti pozik itxiko neuskio ezer esan bagarik. Baia auxe da, mundua geien galdurik daukana; eztau bestek ainbeste gortuten Kristiñaua, ez entzuteko Jaungoikoaren deiak; eztau bestek ainbeste itsututen, Jaungoikoaren legeari ez begiratuteko: eta alan pekatu onegaz artuten dituz Demoniñoak Kristiñauak, arrañak sare bategaz artu oi direana legez. Orregaiti ezin itxi neio ezer esan bagarik; ta, San Agustinek ziñoena, nik bildur-bagarik esango dot, zuek lotsa-bagarik egiten dozuena. Uste dot, barriz, Jaungoikoak iminiko deustazala bear direan berbak, garbiro garbiro, bere ondrrarik andienerako, adietan emoteko pekatu loi, atsi-tu, ta infernuko kiratsez beteriko au.

Eta enas lotuko azaldu eta iragarri ezinik arako pekatu andi andi ezagunak, bada oneek guztiak aintzakotzat ezagututen dituez; eta bakarrik esango deustuet onelangoen ganean, konfesiñoan agertu bear dala zelango moduko lagunagaz egin dan; izan bazan ezkonduagaz edo libreagaz (ainbakoagaz); izan bazan aldeagaz, eta ze aldetasun eukan (zeinbatkarren alde zan); izan bazan boto-kastidadekoa eukanagaz; izan bazan ganaduren



bategaz edo patariren edo giberriren bategaz; izan bazan enbrak enbretara egina, edo gizasemeak gizasemeetara egina; baita bere esan bear da norberen buruagaz egin bazirean eskuka loiren batzuk eta zer yazo zan... Oneek guztiok, bada, alde batera itxita, goazan berba egiten arako beste pekatuen ganean, zeintzuk askok eta askok aintzakotzat bere artuten ez-titzezan, eta oneek dira pensamentu (gogo) loiak, berba zantarrak, ebillera pelleburuzkoak, lagun deungak, eta alangoak.

Lelengo lelengo bada, datoz gogoagaz egiten diran pekatuak. Gogoagaz modu bitan egin lei pekatu; edo gauza loiren bat, norberen guraz, gogoan erabiliagaz; edo gauza loa egiteko gogo artuagaz. Egiten dabe bada pekatu, ta pekatu mortala, gauza loa euren borondatez gogoan darabilidenak, gauza ori egiteko asmurik euki ez arren. Gauza loa buruak emotea ezta pekatu, bada au eztago geugan, ez geure eskuan. Pekatua, bada, dago, pensamentu loa bein igerrri azkero, pensamentu ori kentzeako aleginak ez egitean, ta norberen guraz gogoan erabiltean. Kontu egizu: buruak emoten deutsu zer izango ete dan seigarreneko pekatua, zelan egiten dan, ze gustu zikina artuten dan. Bada zuk orduan, pensamentu au asmau orduko, kentzeara egiten badozu, eztago pekatuak, baia kendu bearrean, aurrera bazoaz, aleginak egin-bagarik botetako, eta pensamentua beste gauza batera yokatuteko, pekatu mortala egin dozu.

Deungagoa da oraindo gogoagaz egiten dan bigarren pekatua, eta da aragizko pekatua egiteko gogo artutea, edo beste loikeriaren bat egingurea, zer edo zer gaiti egiten ezpada bere. Kontu daigun: ezkongei bat dago bere ezkongei lagunagaz; alan egonagaz, (oi dana) berotuten yako biotza, ta sartuten yako pekatu egiteko gogo: baia edo orretarako era onik eztagoalako, edo gurasoen bildurrez, edo uste dabelako edo uste dauelako besteak lagundu gurako eztauela (ezteutsala txitik), edo beste alangoren bategaiti; ezta berbatxu bat bere orren ganean ateraten, ezteutsu siñu bat bere egiten. Bada auxe —gogo txar au—, uts-utsik eta beste-bagarik, da asko pekatu mortala izateko, eta alan egin bere egin dau; ze Jesukristo geure Jaunak diño, begiz deungaro yoten dabenak emakumea, eta begiratuten deutsanak pekatu egiteko asmuagaz, ya bere biotzean egin eban pekatu. Baia buruak emotea pekatu egingo leukealakoa ezta pekatu, norberen erruz eztanean, laster bururik botetako alegina egiten bada.

Baia kontu, Kristiñauak, orain esan dodanagaz; norberen errubagarik izan bear da, bada ganean pekatu mortala egingo da. Askok eta askok esan daroe eurak eztabeela pekatuak egin gura; baia eztituez itxi gura urliagazko ta urleziagazko berba-aldi luzeak, amurraturik dagoz beragaz egoteko al daien guztian, alkarregaz dagozanean asmetan dabe

euren biotzean su zorigaistoko bat, zeinek azurretaragiño erre bear dituzan; eta orregaiti bere eztaudee alangoetarik urrun egin gura; baita esaten baiake alango onda-bideetatik alde egiteko, bertati erantzun daroe: *Aita, eztago guk inos gauza deungarik egin*. Zer da kanpoti egin ez arren, zuen biotza infernu bat eginik badago? Oneek biok bada dira gogoagaz pekatu egiteko dagozan modu biak; gauza loa norberen guraz gogoan erabilten danean, eta gauza loiren bat egin gura danean; eta ezta egia askok uste dauena, seigarrenekoan obrazko (aragizko) pekatua baño besterik eztagoala.

Ikusi ezkerro zelanbait zelan gogoagaz seigarrenko mandamentu santuaren kontra pekatu egin leitekean, dakusgun orain nortzuk geien egin daroien gogoagazko pekatu ori. Lelengo, bada, pekatu mortala egin daroe gazte askok, zeintzuk ezkonduen kontuak burura ekarrita, esaten daudeen euren artean: *bada ni ezkonduarik banengo, au egingo neuke, bestea egingo neuke, eta ezkonduarik banengoko* iski orregaz, edo ezkonduen gauzak egin gurako leukeez, edo bai beintzat ezkonduen gauzak (gauza orreek) gogoan erabili. Bigarren, pekatu mortala egiten dabe gauza loa gogoan artuta, euren artean esaten dabeenak: *pekatu ezpaltiz bada, au egingo neuke, ori egingo neuke*. Irugarren, pekatu mortala egin daroe leen iñogaz adiskidetasun txarra izan ezkerro, itxi bear izan badeutse bere adiskidetasun orreri, edo Konfesoarek eragotzi deuselako, edo gurasoak, abade maisu jaunak, edo bestek galarazo deuselako, alanbere beti darabildez buruan ta biotzean lengo kontuak, beti dabiliz nondi nora ikusiko direan (arkal ikusiko daben), alkarri goranziaz biraldu, alkarren kartaak irakurri, edo batak besteari pañueluren bat edo beste gauzaren bat erregaladu badeutso, axe eskuetan artuta, beti ari begira ta begira. Laugarren, pekatu mortala egin daroe ezteguetara yoanik, edo yoan ez arren, entzunik nor edo nor ezkondu dala, ezkon(du) barrien gauza ez garbiak euren guraz gogoan darabiltzezanak.

Bostkarren, pekatu mortala egin daroe gura leukeenak lotan etorriko balitxakeez seigarrenko ames loiak, kontu eginik lotakoa ta amesetakoa ezta pekatu. Lotako ames loiak ezta pekatu, norberak orreek etorteko oñik emoten ezpadau, eta iratzartuta berbertati burutik kendutera egiten badau; baia gura izatea alangoak etorri dakiozan, pekatu da, ta pekatu andia. Seigarren, pekatu mortala egin daroe alargunak, lengo ezkontza arteko gauza ez ain garbiak burura ekarrita, atan atan badagoz. Alargundu ezkerro ezta alango gauzarik buruan erabili bear; eta baletoz, gazteak legez, buruti bota bear dituez. Zazpigarren, pekatu mortala egin daroe gazteak, bein ezkontzako berbea emon ezkerro, ezkondu ezkeroko



kontu ez garbi garbiak euren guraz gogoan darabiltzezanak, eta au geinean yazoten yake alkarregaz dagozanean ezkongei biak, edo alkarganik alde egin ezkerro, gustiz bere arkalegazko egote (aldi) ori luzetxua izan bada, eta bakartxurik egon badira. Zortzigarren, pekatu mortala egin daroe neska-mutilak alkarregaz naste dagozanean barre-zantzoka, zirrika, bultzaka, igozka, kilika, berba zantar nasaiak esaka, eta olangoetan, bada orduan euren gogoa eztoa geldu egon; eta ez alan dabiltezanena bakarrik, baita bere alango lekuetara euren borondatez yoan ta alan deungaro dabiltezanenai gustuz begira dagozanena. Onelango pensamentu loiak bada, bertan buruti aleginez kentzean ezpadira, pekatu mortal andiak dira, eta alde eragiten deuskue Jaungoikoaganik: *perverse cogitationes separant a Deo*.

Baia esango deustazue: eta, alango pensamentu loiak burura yator-kuzan baxotxean pekatu egiten al dogu? Ez, Kristiñauak, ez, ezpabere alango pensamentu eta gogoetai arrera (abegi) ona egin ta leku emoten deustazuenean. Leen esan deustuedana legez, pensamentu loiak burura ez etortea eztago geure eskuan, eta guk gura eztogula bere etorri oi yakuz malpekadu, sarri askotan bere. Orduan, bada, igarri orduko egiten bado-guz aleginak pensamentu loi orreek burutik albait lasterren botetako, eztago pekatuak, eta kontrara, ori eginda, Jaungoikoaren begietan irabazten dogu merezimentu guztizko bat. Baia kendu bearrean, ezpadozue kenduteko aleginik egiten, eta aurrera bazoaze pensamentu loi orreekaz, puska puska baten baño ezpada bere, pekatu mortala egin dozue. Ara emen au ulertuteko irudi alazoko bat.

Bazagoze neguko arrastegi baten sut-ondoan lau edo bost lagun berotuten, eta alangoren baten yagiten da bat dagoan lekuti, eta diño: emen erre-usaña da, soñekoren bat erretan da. Zutunduten zare guztiok, eta asten zare begiratuten ea noena dan erretan dan yaztekoa: baita orra non zorionean, zegaiti zurea izango etzan erretan zan ori. Zuk orduan berpertati amatetan badozu, edo sua amatetako alegina egiten badozu, ezin iñok zeure erru imini lei artean erre dana; baia sua amatau bearrean bazagoz aoa zabalik, erretan danari adi, zurea da arik aurrera erretan danaren errua. Baia kontu egizu ain modutan exetu yakala zure yaztekoari ze, alegin guztiak eginda bere ezin amatadu dozun: bada ezta orduan bere zurea erretan danaren errua, amatetako aleginak egin dozuzalako. Beste onenbeste bada yazoten da pensamentu eta tentaziño (burutaziño) loiakaz. Buruak emoten deustu bear eztan gauzea, eta Diabruak putz emonda, biztuten da zeure biotzean akordu loiarene sua: oraindo au ezta pekatu; au ezta zure yaztekoan yausten dan txingarra baxen: oraindo ezteutsazu lekuri emon, eta S. Agustinek diñoana, eztago pekatuak

noberen borondatea bagarik; eta zuk orduan igarri ta bertati botetan badozu, edo botetako aleginak egiten badozuz, edo biotza Jaungoikoagana eregiagaz, edo Maria Santisimeari bere laguntasuna ta eskua eskatuegaz, edo beste onango gauzaren bat eginagaz, garbi izango dozu zeure burua, pensamentu loa kendu ezin izan arren bere. Baia bein kontuan yausi ezkerro zelango pensamentu loa, edo burutaziño txarra gogora etorri yatzun, atantxe bazagoz apur apur baten baño ezpada bere, alegina egin bagarik zeuganik uxatuteko ta kentzeako, ya egin dozu pekatu mortala; eta zeinbat eta geiago zagozan atan atan [sic] atzera ta aurrera, ainbat andiagoa izango da egingo dozun pekatua.

Baia bear bada batek edo batek esango deust: *Aita, tanga tanga baten baño etzan izan gauza loi ori gogoan erabiltea: ze gero beingan errezadu neutsan Ama Birjineari, eta egin neban buruti kendutera*. (Bai nai, neure Kristiñauak:) tanga tanga bat da asko onen ganean pekatu mortala egiteko. Ondo da gero bere alegina egitea, pensamentu loa gogoti botateko, eta pensamentua beste gauza batera yokatuteko; baia bein danik bein egin zenduan pekatu, zeure guraz egon bazinean gauza loian pensetan, memento bakar baten baño ezpazan bere. *Aita*, esan daroe beste batzuk, *eneunkan nik gauza txarrak egiteko asmurik*. Ezteusto orregaiti, Kristiñauak. Pensamentu loa pekatu mortala izateko, ezta bear buruan dagoan gauza loa edo pekatua egiteko gogorik, ez asmurik. Ulertuko dozue zertxubait irudi onegaz. Bazoaz zeu denda batera non dagozan gauza guztiz eder politak; urregorritzko ta zurizko gauza ederto eginak, arri baliotsuak, sedazko ta urrezko yaztekoak, ta beste onelango asko; ifinten zara eurai begira bapere erosteko gogo bagarik. Itanduko baleutsu merkatariak, ea zer egiten dozun, erantzungo zeunskio: emen nago begiai gustu emoten. Onenbeste bada da pensamentu loiagaz yazoten dana; ezta obrax (aragiz) egin gura pekatua: baia gustu emoten yako memoriari, gauza loa gogoan erabiliagaz; eta auxe uts-utsik eta bera bakarrik da asko pekatu mortala izateko.

Baia gauz'onen ganean modu bitako personak izan doaz, batzuk estuegiak, eta besteak nasaiegiak. Badira persona batzuk Jaungoikoaren bildur andikoak, sarri ta ondo konfesetako ta komulgetako aleginak egiten dituezanak, euren soñekoetan, berbaikunean, ibilkunean, eta egikunean modu ona erakusten dabeenak: alde egiten dabeenak dantzeetati, fies-tetati, batzarretati, eta pekatu bide guztietati; goixean goixean Jaungoikoari egun atako gauza ta eginen guztiak opetziten deutsezanak, eta eguneti atxina bere Jaungoikoa gogoan sarri darabildeenak. Onetariko geienai askotan etorri yoakez onelango pensamentu loi gogaitkarriak, eta euren arteko batzuk larregi estutu oi dira, eta alango asmau orduko, dabilte



buru guztia austen ea lekuri emon badeutse edo ezpadeutse; eta deungaro egiten dabe, bada zeinbat eta estutuago, ainbat eta geiago etorriko yakez pensamentu ta gogoeta gogaitkarri orreek. Ez Kristiñauak, Jaungoikoaren bildurpean bizi zareenok eztaiteze larritu alango pensamentuak buruak emon arren. Egin bear dozuena da, pensamentu loi orreek asmau orduko, biotza Jaungoikoagana egin, eta gogo beste gauza batera yokatu, ta ez ibili atzera ta aurrera leku emon badeutsazue edo ezpadeutsazue. Buru guztia galduko dozue, eta eztozue gauza garbirik aterako. Ezpada-kizue ziur leku emon deutzazuela, ez yaramonik egin, ezta konfesetako esaminea egiten dozuenean bere: bada-ezpadan esaten yako konfesoerari zelan pensamentu orreek etorri yatzuezan, ta ezta-kizuela leku emon badeutsazue, eta alan egin ezkeitio, geldi geldi eurak yoango dira.

Badira beste persona batzuk gauz onen ganean nasaiegiak eta askatuegiak direanak. Oneek meatz konfesetan dira, ta bear bada gararik gara, edo konfesetan badira izan doa damu bagarik eta munduaren begietan ondo erestearren. Eurak dabiltz dantzarik dantza, fiestarik fiesta, zelairik zelai, ta neska-mutilen arterik neska-mutilen arte. Ezteutse ardurarik berba nasaitxuak, eta nasaitoak bere esan arren: mozuak, zirriak, eskuak edozein lekutara eroateak, eta orreek ez-tira ezer. Eta alanbere ezteritxe daukeela bein-bere pensamentu loirik, eta konfesonarioan eguño bere etxake entzuten orren ganean berbatxu bat bere ateraten dabeela. Orain-dio ori baño geiago yazoten da. Etorriko da konfesetan, obrazko pekatu bat, edo pekatu asko egin dauen bat, edo animalia-aren bategaz deungaro ebili dana, edo bere bakarrean zantarkeria asko egin dituzana. Eta itanduten baiako, ea pensamentu loiai iños leku emon badeutse, beingoan erantzuten dau ezetz. Baia au, neure Kristiñauak, ezin izan leitekean gauzea da. Sut-ondoan egon ta ez berotu, edo surtan bertan egon ta ez erre, belu yazoko direan gauzaak dira orreek. Onelango personak, bada, pensamentu loiz bete beterik ibili doaz, eta geienean, edo bear bada beti leku emoten deutse alango gogoraziño zantarrak, eta bein baño geiagotan onelangoentzat amesetako pensamentuak bere pekatu izan doaz, eurak iratzar-tuta egozala, emon ebeelako pensamentu amesetako orreek etorteko oña. Orregaiti, bada, oneek guztiok esamina kontuzko bat egin bear daue gauza onen ganean. Goazan orain berbeetara.

Berbeagaz bere pekatu egin lei mandamentu santu onen kontra, eta egin bere askok egin daroa. Lelengo bada pekatu mortala egiten daudee iñor seigarreneko pekatuak tentetan daudeenak. Bigarren, pekatu mortala egin daroe gauza txarra egiteko gogo izan ez arren ta txantxan legez, eta barre egiteko izan arren esaten dituezanak berba loi tentagarriak, ta

iñor pekatu egitera ekarteko modukoak. O, eta zeinbat onetariko entzun oi direan yolasetan, yolas-osteko batzakuntzetan, bigiretan, ta alangoetan! Irugarren, pekatu mortala egin daroe berba amodiozko laban ta estalduak iñori esaten deutsezanak, zeintzuk berez loiak ez izan arren, adierazoten dabe biotzeko sua, eta eztagoala garbi dauken intenziñoa. Alan pekatu mortala izango da esatea mutil batek neskatillari *biotza, ederra*, eta onelango labankeriak, amodio loa erakusteko direanean. Laugarren, pekatu mortala egin daroe berba loi guztiz zantar, ezain, eta klaru klaruak esaten dituezanak, iñor pekatuak tentetako berbak izan ez arren; soloetan, beargintzetan (bearlekuetan), bigiretan eta beste alango batzarretan askotan baño geiagotan entzun oi direana legez. Modu onetan pekatu mortala da barre eragitearren izen loiak esatea. Pekatua mortala da norberen burua seigarreneko gauzeen ganean alabetea, esanik, loikeria au edo beste egin dabela, eta ara okerrago esaten badau, urliaz edo urleziagaz egin ebala; bada orduan dira pekatu mortal bi, bata seigarren mandamentuaren kontrakoa, eta bestea murmuraziñoa zortzigarrenenekoaren kontrakoa; eta dauko obligaziño estua, besteari kendu deutsan kreitua bihurtuko. Kontu, neskatillak; Diabrua zur dabil zuei pekatuan yausi eragiteko, eta gero eztau lorik egiten, zuen pekatua agertuteko.

Pekatu mortala egiten dabe ezkondu askok, ixilik euki bear leukezanak besteen aurrean esaten badituez, guztiz bere gazteen aurrean bada. Pekatua mortala egiten dabe arako neguko gauetan kontu loiak, eta ipuin ez garbiak kontetan dituezanak; guztiz bere euren umeen aurrean danean, edo euren umeak dantzuela; pintetan daudeela gauza deungea al daien ondoen, obeto ulertu dagien, zer esan gura daben. Pekatua mortala egin daroe kanta loiak yakinen ganean kantetan dituezanak, egin oi daroena legez mutil gazte zoroak, eta neska gangar buru-arinak, guztiz bere zelaie-tan, zokondoetan eta bazterretan batzandurik, dantzan egiten dabeenean, guztiak barre ta algara egiten dabeela gauzarik zikinena, klaru ezpada bere, adietan emoten danean. Oneek guztiok bada, pekatu mortala egiten dabe, eta askoren aurrean danean ez pekatu bat bakarrik, ezpabere ainbeste pekatu zeinbat direan aurrean dagozan lagunak.

Ai Kristiñauak, onenbeste zabaldu da gaurko egunean geure errietan berba loiak esateko izkune txarra ze, nago eze Kristiandade guztian erriz erri, ta yentez yente, ez-tala iñon bere euskal-errietan baxen berba loi gei-ago esaten. Nai batu dedila yentea (ditezala lagunak) solora, basora, karo-bira, ira-ebatera, gari-ebatera edo yotera, orbela-batzaitera, arta zurietara, linoa apaindutera (linagintzara), txakolinak egitera, nai beste beargintzeta-ria (bearlekuetara), gaubelai eurak bere parkatu bagarik, antxe urten bear-



ko dabe berba loi, zantar, ta infernuko kiratsez bete-beteak. Ezkonduak ezkonbakoai (ainbakoai) atera bearko deutseez onelango loikeriak; muti-lak neskai esan bearko deutseez milla zantarkeria; neskak algaraz, barre-zantzoka entzun ezeze, baita urtentxuak badira neska orreek, eurak beste ainbeste esateko eztaudee iñoren bearrrik izango: eta atso-agurak eurak, kadereari ozta eragiten deutesnak bere, eztira alangoak esan bagarik izango; eta bear bada oneek aurrerengo izango dira gazteen begiak idigiten. Eta, zer esango dot ezteguetan yazoten dana gaiti? An bai naste-borras-tea! An bai berba loiak, ta lotsagarriak! Gizon yakitun batek, asko ikusi, ta asko entzun ebanak, esan oi eroian: bera pozik egongo litzatekeala, ezteguetara doazan bakotxa-ganik Diabruak ogeina pekatu mortal baño aterako ezpaltuz. Eta egun atako berba loiak asko ezpalira legez, biaramonean, ta biaramonean, ta biaramon askotan, esan bearko deutseez ezkon-du-barriai loikeria ulertutera emoteko berba zantarrak; emazte barria lelengo seindun agertuten danean bere bai, ta eztaikit nik nos ez.

O zeinbat arima dagozan infernuetan erretan olango berba loiak esanagaiti! Zeinbat dagozan onelango loikeriak gustuz entzun ta barre eginagaiti! Onelango berba zantarrak galduten dituez askoren ekandu onak eta biziera santuak, bada S. Basiliok diñoana, berba loiai lotsea ta bildurra galdutea da geldi geldi gauza loa bera egiteko bideak artutea. Demonioak eragiten deutse loikeriak esaten dituezan miñai, diño S. Buenaventurak; eta berba loa bat bada bere askoren arimak ilten dituz, esaten dau S. Bernardok. Kontu bada Kristiñauak, onelango berbakaz; ez bein bere loikeriarik esan, ta ez entzun gura bere; eta besteak esaten abietan badira, ixildu eragin alango infernuko miñak; eta ori ezin badozue, alde egin olango lekuetati; ezpabere zuen biotzetan biztuko da loikeriako su ikaragarrizko bat, pekatu asko eragingo deusuen. Eta zuek, gurasoak, ez itxi zuen seme-alabai alango ezteguetara, yolasetara, bigireetara ta leen aitatu dodazan besteetara yoaten; eta bakarrik yoan leitekez Jaungoikoaren bildurreko lagunak baño izango eztierean ezteguen batera edo beargintzaren (bearlekuren) batera; eta ori bere al dan gitxien, bada lagun onen artean bat izai leiteke adin-ona, eta bat da asko, lagun asko galduteko; eta beste aldeti barriz ezta lagun esan bearrrik izaten gogoak gauza txarren bat emoteko. Zuen etxeko bearrak barriz, zerbait estututa bere, egizuez etxeko familiagaz, eta kanpoko lagunik ekarriko badozue, begira nor ekarten dozuen, ez ekarri Jaungoikoaren bildurrekoak baño; alango berba zantarrak esaten eztakiezanak. Osterantzean zuek, gurasoak, alango leku txarretara yoaten umeai itxiten badeutsazue, edo etxeko bearrretarako lagun txarrik badakazue, zuen umeak pekatu andiak egingo dituez ber-

beagaz, ta gogoagaz, ta pekatu orreek guztiok zuen lepo-ganera etorriko dira, ta Jaungoikoak gero estu artuko zaituez.

Esan dodan beste bildur izatekoak dira berba loiak, baia alan da guzti bere etxakez falta izaten atxakiak berba-loi-esaleai. Onelango atxakiai bada erantzun bear deutset orain. *Aita*, esan daroe batzuk, *txantxetan esan oi doguz (geuk) berba orreek, besteai barre eragitearren*. Besteai barre eragitearren, diñozu esaten dozuzala berba loiak. Eta, zu lango kristiñau batek bada esan bear leusket olango gauzarik? Barre eragin Jaungoikoaren ofensako berbakaz, eta bear bada besteen arimetan kalte andiak egingo dituezanakaz? A Jaungoiko laztana non da zuri zor deusugun lotsa ona ta amodioa, zeure lepoti, bada, barre egin bear badogu? Besteai barre eragin? Bai, diño S. Juan Krisostomo-k, Diabruak barre gozoa egiten dabe berba loiak esaten direan lekuan, baia, Aingeru Santuak negar minak, eta ondo minak, egiten dituezala! Eta egin bere bear ikusirik Jaungoiko andia ezetarako ez ikuski batzuk oñ azpian darabildela. Besteai barre eragin? Baita zer dakizu zuk zer egingo daben besteen biotzean zure berba loi orreek? Bear bada leku emongo deutso zeure berba loi ori dala medio datorkioezan pensamentu loiai, ta oña artuko dabe aurrerantzean pekatu andiangoetan yausteko. *Aita*, esango dabe besteren batzuk, *denporea emoteko baxen eztaoaguz guk esaten berba, ipuin, eta kanta orreek*. Ondo: eta, non da zuek artuten dozuen atsegintasun eta gustu loa, eta besteak egiten dabeen algarea, arako gauzarik loiena esaten dan orduan? Denporea ez euskun Jaungoikoak emon modu orretan igaroteko, ezpada bera serbietako, eta geroko zerua irabazteko. Denporea emon gura badozue eztira falta berba garbiak, santuen bizitzak, ta ipuin ez loiak. Doktrinea irakurten, edo itanduten bazengoze bardin bardin yoango lekikezue denporea, eta bitartean barriz zeru andia irabaziko zenduke.

Jauna, esan daroe askok, *eztaukaguz guk pekatutzat orrelango berbaak*. Ainbat okerrago: bada agiri da atsiturik dagozala izkune orregaz zuen biotzak, eta aoak. Gela atsitu baten norbait sartu-barri danean, beingoan suurrak emoten deutse ango atsa, eta bertan ezin egonik egon doa; baia bein atara egin ezker ezta atsitudun asmetan. Alantxe da berba zantarrak bere. Lenengeran orrelako berba loi bat esan edo entzun orduko ikaratuten da bat; baia bein atara egin ezker ezta ezer sentietan; eta orregaiti diñozue eztaukazueza pekatutzat onelango berbaak. Baia zelan esan ziñaike eztaukazueza orreek pekatutzat? Esan egidazue olango berba-kune loian diñarduzela badator Sazerdote, Abade, Guraso, Ugazaba edo beste lotsa-andiko personaren bat, etzare beingoan ixilik geldituten? Eta zueotariko batek ikusten badau onango personaren bat etorten, ta besteak



aurrera badoaz euren berbaikunean, ezta bertati esaten: ixi, urlia dator emen-da? Eta onelango personaren batek entzuten badituz zuen berba nasai orreek, etzare lotsatuta geratuten? = Bai, Jauna, egia da. = Bada deungetzat ezpadaukazuez, zetarako ixilduten zare? Zetarako lotsatuten zare? Gauza ona balitz diñozen ori, etzinatekeze ixilduko; ezpaleuke berba orreek gauza deungarik etzinatekeze lotsatuko, eta alan ezin sinistu lekikezue eztaukazuezala pekatutzat.

Aita, esango dau beste norbaitek, *nik eztaukat onango berbetan asmu txarrik, esan baño besterik ezta izaten*. Kristiñauak, esan deutsuet leen bere, eztaala asmu txarrik bear berba loia pekatu mortala izateko, bein berba loi anditzarra bada edo iñori pekatu eragingo deusana, edo eragiteko modukoa. Baia gorroto geiago artu dagioezuen alango berba zantarrari, esango deusuet orain Diabruak sarri ta sarri onelango izkune txarra daukeenak artu oi dituzala bere mandataritzat, eta bear bada berak berez galduko etzitukezanak alangoen bitartez galdu daroazala. Ara zer yazoten dan. Elduten da persona garbi loikeriaren barri eztakienean bat, edo loikeriari gorroto deusana, alango berba loiak esateko (esaten) ekandu deungea daukenen artera. Asten dira besteak, oi dabena legez, berbeetan: batek esaten dau berba arin barre eragiteko bat, erantzuten dau besteak beste bat; asten dira guztiak barreka ta algaraz: aurrera doa infernuko berbaikunea eta aurrerago eta loiago eta gozoago. Lenengeran bestea lotsatuten da, baia ikusirik guztiak dagozala modu batekoak, besteak baxen gitxiago ez izatearren, egiten da eurakaz bat, eta asten da berba loiak esaten. Eta aror non Diabruak galdu dauen arima triste au, zein galduteko, alango mandataririk izan ezik, bear bada etzan asko izango Diabru ori.

Irugarren, mandamentu onek galarazoten dabena da gauza loiak egitea. Ai, Kristiñauak zeinbat loikeria egiten ete dira munduti atxina, eta zeinbat atxakia billatuten eta topetan ete dira gero, loikeria oneek estalduteko edo edertuteko! Gei onen ganean bada da pekatu mortala gauzaren bat egitea, zeinek bereanez daukan gogo berotutea, obrazko (aragizko) pekatua egiteko, edo zeinek orretarako bideak ekarri leikezan, gero alango pekatu egiteko ezpalitz bere, edo egiteko asmurik artuko ezpalitz bere. Alan pekatu mortala izan doa mutil-neskatillak, edo gizonak ta andraak alkarreri laztan egitea, edo mosu emotea. Baliteke ama batek azpaldian kanpoti ibili yakon semeai gogo txar bagarik laztan egitea, edo mosu emotea, eta bardin arrebeak urruneti etorri yakon nebeari, eta pekatu egiteko ez izatea, orduan bere obato izango balitz bere alangorik ez egitea. Eztot bada nik alango mosu eta laztangak gaiti berba egiten, ezpabere osterantzeko frakadunak enbra gauzeari emon oi daroakoezanak gaiti, eta

onek gaiti diñot pekatu mortalak izan doazala. Pekatu mortala da mutil-neskatillak alkarreri, edo mutilak mutilai edo neskatillak euren artean bear ezta lekuetan deungaro ukututea, edo alkarreri siñu zitai tentagarri ta pekatua adierazoteko modukoa egitea, edo neska-mutilak alkarregaz oraka, egozka, zirrika txarto ebitela.

Onetariko asko egiten dituezalako pekatu mortal andiak egiten dituez arako mutil eta neskatillak, alkarregaz adiskidetasuna artu ezker, alkar bagarik egon ezin direanak, bata besteagaz gura dabean lizenzia artuten dabeela, alkarregaz fiestetara, alkarregaz meriendetara, alkarregaz berba-aldi luzeetan, eta al badabe okeluetan, eta bakarrean. *Jauna, eztoz gik gauza deungarik egiten*. Ori ezta egia: Ori esaten dozue uste dozuelako seigarrenekoan obrazkoa (aragizkoa) baño beste pekatu egiteko. Baia non dira leen esan dodazan mosuak, laztanak, tirakak, ta besteak? *Jauna, adiskideak gara, eta asko gura deusagi bata besteari*. Ainbat okerrago. Adiskideak ezpazine pelleburu gitxiago eukiko zeunke. Arkaleri esan deusazue asko gura deusazuela, ezin arkal bagarik egon zare, ezin arkalganik aldendu zare, arkalegaz zagozenez barriz asmetan dozue zuen erraietan infernuko su ikarragarritzko bat, zeinnek kiskaldu ta erre bear zaituezan, eta, diñozue eztozuela gauza deungarik egiten? A Kristiñauak, ori Diabruaren itsumendi latza da, eta bere tentaziñoa. Zabilte, zabilte orretan, batu zaiteze alkarregaz, eta denporeak esango dau, zetan yoko dabean zuen adiskidetasun orrek. Leen esanetariko pekatu mortal andiak egiten dituez arako erromerietara yoateko arkal billatuten direan mutil eta nekatillak, arkalegaz ibilli, arkalegaz meriendau, bata besteagaz biurtuteko etxera, eta gaubaz libreago ibiltarren, emen bota, an oratu, orain yo, gero ukutu, eta geroago eta laztanago.

Pekatu mortal asko egin oi dira plazeetako dantza nastuetan, yolasetan, bigiretan, liño-apainduteetan (liña-gintzeetan), artoak-zurituteetan, eta beste onelango batzakuntzeetan, nai gauaz direala, nai egunez direala: bada berba laban ta loiez ganera izan oi dira eskukak, mosuak, laztanak, eta osterantzeko zantarkeria asko. Pekatu mortal asko ta asko egiten dira gauaz San Diandolinetan, Andra Marietan, edo Erriko Santuen egunetan gauaz egin oi direan suetan; bada gauak egunak baño era ta gogo obeak emoten dituz zantarkerietan ibilteko. Eta orregaiti Alkate Jaunak, edo Fiel Jaunak eragotzi bear dituez onelango suak; osterantzean euren lepo-ganera etorriko dira orduan egiten direan pekatu asko ta eskergeak. Eta au ez egiteko eztauke atxakia onik, bada euren eskuan dauke egin gura izan ezker. Pekatu mortal asko egiten dira yolas ta dantza osteko batzarretan, bada orduan dantzan bertan baño bere loikeria ta nasaikeria andiangoak



egiten dira. Pekatu mortal asko egiten dira dantzeetarik, yolaserik, fiestarik etzerako bideetan, guztiz-bere iluntzean badira, edo gautu ezkeror, orduan egin doazan zirri, orakada, bultza, ta beste olangoak gaiti. Pekatu mortal asko egiten dituez neska-mutil askok arkalen altzoan yezarten direanean, bitartean miña ta eskua geldituz eztagozala.

Onelango aldietan, bada, eta beste asko ta askotan egin oi dira pekatu guztizko eskergeak, baita bideak artu oi dira aurrerantzean andiangoak egiteko. Alan-da guzti eztaudee sinistu gura izaten ez gazteak, ez gurasoak. Baia gurasoak eztauke onetan atxakia onik, bada eurak ibiliak badira alango dantza batzakuntza ta bide nastuetati eurak dakie ondo zer yazo oi dan alango lekuetan, ta barriz ibili ezpazirean sinistu bear dabe euren ta umeen onerako esaten yakena, ta itundu konfessore edo arima-zale bategaz, edo beste gizon yakitun Jaungoikoaren bildurrekoakaz. Gazteak bere eztabe sinistu gura izaten arik-eta euren buruak galdurik ikusi artean; eta alan edo eztabe alangorik konfesetan edo iñosko alditan konfesoareak itanduta badiño egin dabeela, ain epel esaten dabe ze, laster dabe agiri eztaukeela damurik, ezta apurrik bere. Neskatilla askok barriz eztabe konfesau gura izaten eurak errurik izan dabeenik, ezta obrazkoan yausi ezkerro bere, eta guztia izaten dira atxakia ta atxakia: Jauna, ni bakean nengotan; ez neutsan nik orretarako biderik emon; ez neban nik alango gauzarik gura; esaten neutsan bakean egoteko. Erdu ona; ta, zelango bidez yazo yatzuz zeuri gauza orreek? Yoan zinean zeu okasiñoa egoan lekura edo yente nasaien artera? Izan zan mutil-neskatillen arteko batzakuntzan edo olgantzetan? Zek zeroazan bada, alango lekuetara yakinik zer igaro oi dan? Eta non nai zala, erakusten zeuntsen aurpegi aserrea, eta bekoki iluna, eta alde egiten zenduan tentadorearen ondoti? Ala, barre egiten zeuntsan eta algara gozoa? Bai, Jauna, barre egiten neban; baia esaten neutsan geldituz egoteko. Guapo. Zelan diñozu bada zeure borondatearen kontra izan zala? Gura eztozun gauzaren bat egiten deusuenan barre egin daroazu? Zeure ondorearen kontra zerbait entzungo bazendu alperrik eze etzeunke, ez, barrerik egingo ez algararik bere. Eta sugaren bat usigitera ballilloatzu? esango zeunskio makal makal: sugea, zagoz geldituz? A Kristiñauak! eztozue guzurakaz Jaungoikoa engañauko.

Begiakaz ta belarriakaz bere pekatu egin lei seigarreneko mandamentuaren kontra, miñagaz ta eskuakaz ez eze. Eta alan pekatu mortala egin daroe begira dagozanak ikusten zelan besteak egiten dituezan alango loikeria ta zantarkeria andiak. Pekatu mortala egin daroe zelataka besteai zorotziten dabiltzanak, belarriak zuhur dituezala, ea asmau al balegie besteak zelan deungaro dabiltzazan. Ai zelango kontu estua ta larria emon

bearko deuten Jaungoikoari gurasoak, euren ume anditxuak, sei, zazpi urterik gorakoak eurakaz naste eratzoten dituezanak, edo mutil-neskato anditxuak alkarregaz naste eratzoten dituezanak edo oia euren oiaren parean iminten deutseenak, edo bai euren gela-barruan. Pekatu mortala egin daroe gustuz, barreka, algaraz entzuten dituezanak berba loiak, ipuin loiak, errondo loiak, kanta loiak, eta seigarreneko bidea emon leioen beste edozein bere zantarkeria. *Aita, nik entzun dodaz berba loiak, baia nik ezteutset yaramonik egin; belarri bateti sartu ta besteti urten egiten deuste niri olango berbaak.* Eta esan egidazu; lagun aen artera ziñoazanean, bazenian zuk alango berba zantarrak esateko izkunea eukeena? *Ori bai, Jauna, baia ez naz ni euren artera yoan olango berbaak entzutearren, ezpabere denporea emotearren ta dibertietarren.* Eta, zer egiten zenduan bertan zengozanean? Barrerik egiten zenduan, olango berbaak entzunda? erakusten zenduan arpegi argirik? Bai, Jauna, bada; besteak bere egite'eeben ta, niri bere barreak urteiten eustan. Bada yakinik olango berba zikinak esan oi zituezala, pekatu mortala egin zenduan; bada imini zenduan zeure burua pekatu egiteko arrisguan: eta deungeen dana, zeure barreagaz adierazo zenduan ondo eresten zeuntsela alango berba. Eta ez orduan ez eze, baita edozein denporatan barrea gorde bear da alango berbak entzunda, ustezuste-bagarik (edo gogoaz bestera) entzuten badira bere, beste esaten dabenari oñik ez emoteko urrengoan alangoak esan dagizantzat (esateko). Eta neskatilla garbiak aurpegiko gorritasunean erakutsi bear leukee alango berbak lotsatu egiten dabeela.

Orain esango deusuedaz besteai seigarrenekoan pekatu bidea ez emoteko, eta zuek bere ez artuteko egin bear eztozuezan gauza batzuk. Eztabe uger egin bear mutil aziak, eta gizonak bideen parean, yentea yoanda etorri ibiliko dan lekuan, edo kale, plaza ta kai aldean, lagun askok ikusi leikeezan moduan: eta Justiziako Jaun prestuak galarazo bear dabe ori egitea, eta obeto litzateke ume-bardingoai bere galarazotea, geroko ikasi dagientzat; eta beste aldeti barriz modu askotako yenteak dagoz munduan. Eztago ondo eginik batariak, ganaduak, ta orrei begira egotea umeak artuten dabiltzanean, eta orren bearrik eztagoanean, beste alde batera begiratu bear da, eta ondoen ondoen leku atati alde egitea; zegaitik-eze gure gogoak eztaki geldituz egoten. Deungaro egiten daue emakumeak erreketan eta ibaietan bogadea ikuzten, edo txabonadura yoten dagozanean, beak ondo ondo estalduta ezpadaukeez: edo iñok ikusi leikeezan lekuetan bernak garbituten iminten badira. Deungaro egiten dabe paparra edo besoak agirian dituezala badabiltz, edo bularrak atera ta andituz ezinik; edo gona estuegi edo laburregiakaz, edo umeari ugatza emote-



ko pañluagaz kontuz bularra estalduten ezpadabe. Deungaro egiten dabe neskatillak gizon yanziten badira, mutilak orraztuten badituez, edo mutilagaz naste gurdi baten, edo zaldi baten-ganean badabiltz. Eta oneek edo onelangoak eginagaiti edonori pekatu egiteko, pensamentuagaz baño ezpada bere, oñik emoten badeutse pekatu mortala egingo dabe.

Ezkonduen arteko pekatuen ganean bere, asko legoke zer esanik: baia oneek konfesoeragaz itundu daitezala. Nik bakarrik esango dot, zerbait egiten badabe umeak izatea galarazo eikeana, pekatu ikaragarria egingo daueela, ta ezin ezelanbere egin leikeela ez ume sabelekoa edo bularreroa euki arren, ez ume larregirik ez izatearren ez ezegaiti. Beste modutako gauzak gaiti bere ezkondu asko pekatu mortalaren azpian bizi oi dira: egiten dituez pekatu mortala izango direalakoaren bildurragaz, ta gero lotsa dira konfesetan, eta gero dabiltz pekatu mortala eztiareala, bai direala, konfesiño deunga asko egiten, bear bada pekatu mortala eztiarean gauzak gaiti. Lotsak bada alde batera botata, onelangorik daukeenak zuzen ta garbiro konfesadu begie guztia. Ai, Kristiñauak! Seigarreneko pekatu au da mundua galdurik daukan pekatua. Arriturik, mututurik, eta bildurrez ikara ikara egiteko da ikustea zelan daukan gaurko egunean pekatu onek mundua; ezteutso iñori bere parkatuten, ez zarrari ez gazteari, ez ezkonduari, ez ezkondu-bakoari, ez gisakumeari ez emakumeari, eta ume bardingotxugiñokoak dagoz pekatu onetan sarturik. Bideetan, kaleetan, zelaietan, eta plaza agiri giñokoetan entzuten dira berba loiak, zantarkeria eskergak; ikusten dira eskuka zikiñak, orakadak, bultzadak, zirriak, begirakune loiak, eta arren bada Elexa santuak eurak alangorik entzun ta ikusiko ezpaleudee. Okeluetan barriz, zer yazoten da? Jaungoikoak dakiana.

Pekatu auxe da beste pekatu askoren sustraia, ta etorburua. Zegaiti egiten dituz ainbeste lapurreta arako mutilak, arako neskatilleak, arako ezkonduak? Adiskide loiarri erregalu egiteko. Zetati datoz ainbeste gorroto, ainbeste ezin-ikus, ainbeste auzi bidebako etxe galantai bea yo eragin deutseenak? Seigarreneko pekatuti. Zek eragin dituz ainbeste ta ainbeste eriotza? Seigarreneko pekatuak. Zek galdu eragin dau ezkondu askoren arteko bake ona? Seigarreneko pekatuak. Zek egin dituz ainbeste hereje? Zek galarazo deutse ainbesteri Jaungoikoak agertu dituzan fede santuko egiai sinistea emotea? Seigarreneko pekatuak. Kendu egizue geure errietati seigarreneko pekatua, ta agur, yoan zirean herejia guztiak. Baia, zer yazo doa? Yausten dira seigarreneko pekatuan: lelengo egin barritan damututen yake, konfesetan dira, ta Jaungoikoari parka eskatuten deutse. Baia seigarreneko pekatua zeinbat eginago, ainbat zalegarriago, eta egiten errazago, eta orregaiti yausten da bigarrenez, irugarrenez, ta laugarrenez.

Orduan bere konfesetan da, baia ez lengo damuagaz; esaten dau eztabela beste bein egingo baia ez len baxen gogo eginagaz, eta orregaiti leen baño errazago, eta leen baño sarriago yausten da. Eta gerora gerora, egin ta egin, artuten dau egiteko ekandua, eta ekandua bere ekandu gogorra. Eta ekandu oneri arpegi ez emonagaz yatorko pekatu egin bearra. Alantxe dirausku S. Agustin andiak, berari yazo yakala. Orduan deritxo pekatariari ezin onduko dala, eta dakiana legez, ondu ezik, gero beste aldean deungaro yoango yakala, gurako leuke beste munduko konturik ezpalego. Orretarako sinistu eragin gura deutse euren buruai batzuk infernurik eztagoala, edo il ezkerro txakurrak legez gareala, eta esan bere asko egin daro ez olangoak; beste batzuk sinistu gura leuke seigarreneko eztagoala pekatu; beste batzuk Jaungoikorik eztagoala, eta beste onetariko asko. (Baia kontu Kristiñauak, onetarikorik entzun badozue, Inkisiziñoari parte emon bear deutzazue, nori zer entzun deutzazuen). Oneek guztiok egiten dituez ea ixildu al balegiez euren biotzeko deadarrak, eta agirakak, eta geldi-arazo al balegiez bere biotzketak, eta usigiak. Baia ondo arpelik; bada biotza beti biotz, beti deadarrez, beti usigiten, ta biotzketan. Beti esaten deutse biotz onek; bai zu bazabiltz, bazabiltz; orain ondo zure gogora bizi zara; baia, gero? Gero, zer izango da zugaz?

Eta mundua pekatuz bete badau seigarreneko pekatu onek, infernua Kristiñauz bete beterik dauko, ain modutan eze, Ligorio beneragarriak, altara ganetan laster ikusi bear dogunak, diño ze, seigarreneko pekatuagaiti edo seigarreneko pekatuagaz infernura doazala ara doazan guztiak. Eta deritxat eze infernura yatzi al bagintekoz, eta antxe erdi erdian yarririk itanduko bageunkie banaan banaan bertan dagozan guztiai ea zegaitik infernura yausi zirean erreskan erreskan esango leuskeguela seigarreneko pekatuagaiti. Eta orregaiti bere zer egiten dogu alango pekatuetati alde egiteko? = Zer egiten dogun alde egiteko? Zer egiten eztozu seigarreneko pekatuan begi bietagiño geure buruak ondatuteko? Guztia da dantzea, guztia yolasa, guztia fiestea: bigirak, errondak, berba loiak, zirriak, siñuak, adiskidetasunak, ta Jangoikoak dakizanak. Kristiñauak nos edo nos kontuan yausi gaitazan: ezagutu daigun seigarreneko dala guri pekatuan yausi eragiteko munduan dagoan arririk labanena, eta egin daiguzan beraganik urrun egiteko aleginak.



15. SEIGARREN MANDAMENTUAREN GANEKO IKASBIDEA LENGOA BAXEN LUZEAGOA

(B, 51-56. or.)

1. Neure Kristiñauak, arimarik geienak kondenetan direalako seigarren, Jaungoikoaren legeko mandamentu edo aginduan uts egiten dabeelako gura neunke onen ganean berba egin. Ba'kit ezтана erraz bear dan legez azaldu ta expliketari, eta pelleburuz beteа dana: baki angeruen garbitasuna bear dana ez loituteko leku santu au, eta orregaitik, itxiko neuskio pozik bapere esan bagarik. Baia beste aldetik yakinik arraina sare bategaz legetxe artuten dituzana pekatu onegaz Diabruak Kristiñauen arimaak, eneunke zer edo zer esan bagarik itxi gura: barriz uste dot Jaungoikoak iminiko dituzala nire espantan bear direan berbaak, garbi garbi adietan emoiteko pekatu loi, atsitu ta infernuko kiratsez beteriko au.

2. Seigarren mandamentu onen kontra egin leite pekatu, neure Kristiñauak, gogoagaz, berbeagaz, eta egiteagaz. Lelengo egin leiteke pekatu gogoagaz (ez gauza loa gogora etortea pekatu dalako, ze etorri arren bateri gogora pensamentu edo gauzarik loien loiena, eta zikinenik zikinea bere, leku emon ezik, edo egiteko guraririk euki ezik, eztago pekatu bapere bere). Eta alan gauza pensamentuzkoetan, edo gogozkoetan modu bitara pekatu egin leiteke. Lelengo egiten da norberak gauza loa egiteko guraria, eta atarako deseoa artzean dabenean gero egin ez arren bere. Ara irudin ta xenplutxu bat obeto aditu daizuen. Ikusten dituz mutil batek ormaz sarraturiko hortu baten madari umaoak ara begiratu dabelako. Aek ikustea berez ezta pekatu. Baia onek aek ikusita diño bere artean: A ze ederrak direan aek madariak! A, bada, igon al banegi ormatik atxina aek artuteko! Eta bere biotzean dauko ostuko leuskiozalakoa yabeari erea baleuko: baita itxiten badituz artu bagarik da edo ormea altuegia dalako, edo edonok ikusi ze daien bildurrez. Onek bada, leku emon deutso ustuteko gureari, ta beragaz bakarrik pekatu egin dau eguño ostu ez arren. Bada beste onen beste yazoten da pensamentu, ta tentaziño loiakaz bere: datorkioz bateri pensamentu loi ta ezainak au enzun dabelako, ain gauza irakurri dabelako, edo edonor billosik, edo modu txarrean uste bagean ikusi dabelako: au oraindiokoarren ezta pekatu, ze S. Agustinek beste yakitunakaz naste diñoandi, eztago pekatu, norberen boron-

datea bagarik. Baia etorri ta asmadu ezkeru pensamentu loa, borondateak erakutsi badau, begi itxi idigi baten baño ezpada bere, erakutsi badau (dinot) barruan gauza aren guraria, eta emon badau konsentimentu osoa gogora etorri yakon gauzea egingo leukeala erea baleuko, ara non egin daberen pekatu mortala, eguño egin ez arren, konsentidu ta gura izan daberen gauzea. Esan pekatu mortala, baita ondo, ze seigarren mandamentuko gauzeetan eztago gauza txikerrik, bein borondate osoagaz gura izanik, eta zeinbat bider artuten daberen batek onango gauzeen guraaria, edo a gauzea bera dan aldetik egiteko gogoa, ainbat izango dira pekatu mortalak, baldin borondate lelengo gura izan eban gauzatik atseratu edo otzitu bagarik egon ezpada: eta alan onek kontu atara bear dau zeinbat bider leku emon ta konsentidu daberen, eta esan bear dau bere izan bada pensamentua eskonduagaz, eskonbagakoagaz, edo boto kastidatekoa eginik daukanaz, edo aideren bategaz, eta ze aidetasunean.

3. Beste modua, gogora datozen gauza loietan pekatu egitekoa da, tentaziñoa edo gauza zikina gogora etorri ezkeru, badago norbera gutzuz, ta berak gura izanda, pensetan gogora etorri yakon gauza atan apur apur baten baño ezpadabere, eta alangorik egiteko asmurik, ez gogorik edo guraririk euki ez arren bere. Ara emen irudi eder bat obeto ulertu daizuen. Dagoz zeugaz naste lau edo bost lagun subete baten berotuten: eta batek diño: ene, zerbait erretan dago emen, errean usaiña da, eta yagiten zaree guztiok, begiratuten ea zuen erroparen bat bada erretan dagoana. Begiratuten dozu zupere, eta dakutsu zure erropea dala erretan dagoana. Zuk bertatik amatetan badozu, edo zeure aldetik egiten badozu alegin guztia amatetako, ezta zurea errua artean erre yatzenena, baia arik aurre, amatadu bearrean bazagoz berari adi, eta ikusten zelan erretan dan, edo bai nagi amatetako, ya ordutixek zeurea da errearen errua. Bada bardin da tentaziñoetan, eta pensamentu loietan bere; tentaziñoa da Demonioak zeure biotzean iminten daberen txingar bat: zuk au tentaziño au, pensamentu loi au, edo infernuko txingar au igarri orduko botaten badozu, amatetan badozu, edo egiten badozu alegina kendu ta botetako zeure biotz eta gogotik, edo Jaungoikoari biotza eregirik, edo nekegarriren bat arturik, edo eriotzako ordu tristea, edo infernuko penaa gogora ekarri, ordura artean tentaziñoak edo pensamentu txarrak zeure biotzean zerbait erre badau, ezta zure errua. Baia ezagutu eta igarri ezkeru etorri yatzula tentaziñoa edo gauza bear ezтана gogora, bazagoz berari begira, eta gustu eta atsegiñen bat atan artuten, ara non dan errua zeurea, eta non egiten dozun pekatu mortala apur apur baten baño ezpazagoz bere, ta egiteko gogorik euki ez arren bere. Eta aror nondik ezagutu eta yakingo



dozuen nos dagoan pekatu, eta nos eztagoan; bada pekatu mortala seigarren mandamentuaren kontrako gauzeetan egiteko, asko da norbera, bere guraz badago pensetan gauza atan apur, edo tangatxu baten baño ezpada bere.

4. Orregaitik egiten dabe pekatu mortala, lelengo arako gizon eta mutil, andra ta neskatillai, edo oneek aei, edo ederrrik dagozalako, edo ederrak direalako, edo danzan dabiltzezala begira edo adi egonik, euren barruan atsegin edo gusturen bat artuten dabeenak apur apur bat, edo begiak itxi idigi artean baño ez izan arren. Bigarren egiten dabe pekatu mortala arako eskonbagarik egonik euren biotzean atsegin edo gustu artuten dabeenak, apur apur baten baño ezpada bere, esanik euren barruan: a bada, urlriagaz edo urleziagaz ezkontuta banengo auxe edo auxe gustu au eukiko neuke. Irugarren egiten dabe pekatu mortala arako personak zeintzuei edo justiziak, edo gurasoak, edo konfesoareak alderatu eragin deutseen beste personearen etxe edo (laguntzatik) laguntasunetik, baia euren biotza oraindio besteagan imini eta yosirik daukeenak, eta euren biotzean gustuz agan pensetan dagozanak apur apur batekoa baño ezpada bere. Laugarren egiten dabe pekatu mortala arako esteguetara (edo eskontzetara) yaten, edaten eta danzetan doazanak euren barruan gustu edo atsegin arturik, egun atan ezkondu direanen artean gaubez igaroko danen gomuteagaz. Bostgarren egiten dabe pekatu mortala arako personak euren honrea ez galduterren obraz yausi ezteitez an ondo begiraturik, barreka, kantaka, zantzoka eta berbetan euren artean erretan dagozanak edo gustu eta atsegin artuten dabeenak gauza ezain eta loietan, apur apur baten baño ezpada bere, izanik oneek arako sagar kanpotik gorri ta zindo egonik, barruan eta biotzean ustel ta gauza eztiorenen leezkoak. Seigarren egiten dabe pekatu mortala arako persona, eskonduteko berbea emon ezkeru, euren barruan, apur apur baten baño ezpada bere, gustu eta atsegin artuten dabeenak, ezkondu ezkeru egingo dituezan gauzeetan. Zazpigarren egiten dabe pekatu mortala arako alargunak, ezkontuta egozanean egiten zituezan gauzaak gomutaurik, eurretan gustu ta atsegin artuten dabeenak apur apur baten baño ezpada bere. Zortzigarren egiten dabe pekatu mortala arako senar eta emazte bata besteaganik aparte egonik gustu eta atsegin artuten dabeenak apur apur baten baño ezpada bere bere lagunagaz dagoalakoaren gomutan. Bederatzigarren egiten dabe pekatu mortala arako eskonduak, matrimoniñoak egiteko esku emoten deutsen gauzan, bere lagunagaz egonik, euren biotz eta barruan gustu eta atsegin artuten dabeenak apur apur baten baño ezpada bere, beste eurak gura leukeen personeagaz balegoza-

na legez. Amarrango egiten dabe pekatu mortala arako seme-alaba, otsein eta beste askok euren guraso, ugazaba, edo ezkonduen oera zelata egonik, euren artean gustu eta guraari loiz dagozanak, apur apur baten baxen izan ezpada bere. Amaikagarren egiten dabe pekatu mortala arako personak, gauza loiak irakurten, ikusten, eta enzuten dagozanak bere artean gustu ta atsegin artutearren apur apur baten baño ezpada bere. Amabigarren egiten dabe pekatu mortala... baia, nora noa? Ezin izentadu leiz nortzuk, eta zeinbatek egiten dabeen euren biotz, pensamentu eta barruan onen ganean pekatu mortala: baia esango dodana da asko igarteko zeinbat arima daroiazan Demonioñoak bide onetatik. Pensamentuetatik igaro gaitez an berbeetara.

5. Egiten da, bada, pekatu mortala seigarren mandamentuaren kontra berba loiakaz bere. Eta auxe bere da sarri ta sarri yazo oi dana eta beragaitik yaramonik egiten eztabeena, eta konfesetako bere gomutetan eztioreana. Solo baten badagoz, eztaiek askok berba loi eta arinak baxen esaten, eta bear bada, deungeena dana, atso-agura buru urdinak bere. Oneek gazteen berba gangarrak galarazo bearrean, eurak izan doaz aurrengo yente gazteen begiak idigiteko. Ameneko esango deuste, Aita, txantxetan eta barre era iterren esaten doguz. Bai nai, berba loa bada, pekatu mortala da. Zer dakizu zuk zer egiten daben berba orreek besteen biotzean? Bear bada pensamentu loiar leku emon eragingo deutzazu, eta bai galdu bere bere arimea. Bigarren egiten dabe pekatu mortala arako neguko gauetan etxeetan goruaren atxakiagaz batzaindurik ipuin loi alegreak kontetan dituezanak, guztiz bere ume eta gazteen aurrean edo eurak dantzuela, pintaurik gauzea al daien ondoen obeto aditu daien esan gura debeena. Aita esango deustazue, denporea iraotearren baño eztozuz esaten. Obeto egingo zeunkee bakotzak zuen etxeetan bearrean egon, orretarako batu baño: eta eztaikit zelan itxi leioen gurasoak euren seme-alabai gauetan olango batzaarrak egiten; ze ondo yakin beie, onango lekuetan yazo oi dana. Baia yakin gura ezpadabe, edo aitzuena egiten badabe, nik gomutarazoko deutset. Ara bada. Onango bigira ta batzaarreetan batzainduten dira auzotegiko mutil ta neskatilla ero gangar guztiak; eta ez bakarrik ezteutse iñori euren deungaro esanakaz ta murmuraziñoak azurrik osorik isten, baita bere an esaten dira askotan enzun bere ezin leizan gauzaak; an askotan mozuka, an zirika, eta andik gabeko ainbeste orduetan etxerako urteiten dabeenean zantzoka, edo obeto esateko irrirtzaka mandoak legez, eta beste esan ezin leizan gauzaak askotan. Eta au guztiau, noen ganera yausiko ete da? Gurasoenera, yakinen ganean biralduten dituezalako umeak alango lekuetara. Gurasoak egin bear dabeena da



euren seme-alabak etxean euki. Baia esango deuste oneek: Aita, pozik eukiko neukez etxean, baia laster loak artuten dituz, eta eztabe gorurik erdirik bere egiten zein lagunen artean: alkarren artean olgetan dira, eta alan dagoz zuur; loak artu bagarik. A zorigogorreko gurasoa! A guraso gogor ta kruela! Emen agiri da geiago gura dozula aek egin al leian bearra, aen arimea baño: emen agiri da geiago gura deutzazula ak betetan daben ardatz ariari, bere arimako garbitasunari baxen; ze alan ezpalitz, ezeuskio itxiko batuten ainbat ero eta gangarren artean, ta ameneko zure seme edo alabea gangarrena izanik, zuri sensuna daukala irudiarren. Baia ondo, izan daiteala sensun-onekoa, ta batu dadila sensun-onekoakaz, eztakizu benturaz okasiñoak galdu leiala beste asko egin dituzana legez? Gaur danzu ipuin edo berba loi bat besteen artean; biar artuten dau adis-kidetasun geiago ara batuten dan, edo bertako mutilagaz: esaten deutso au edo beste berba arina eta Diabruak, lo eztagoana legez, iminten dau euren biotzean guraari loien txingarra. Eta emetik, zer? Enas asartuten, neure Kristiñauak, esaten olangoen artean zer yazo oi dan: baia elduko da juizioko eguna, guztia agertuko dabena.

6. Irugarrenge egiten dabe pekatu mortala arako kanta loiak, arinak eta maliziaz beteak kantetan dituezanak, mutil eta neskatilla zoroak egin oi dabeena legez erromeria, yolas edo fiestetatik gau utsez datozanean. Laugarrenge egiten dabe pekatu mortala arako mutil eta neskatillak, alkarregaz batu ezker esaten dituezanean amodiozko berbaak, baita siñuak alkarri egin amodioaren ezaugarritzat. Bostgarrenge egiten dabe pekatu mortala arako mutil eta neskatillak gauzez edo fiestarik doazanean, edo errondan dabiltezanean zantzo egiten dabeenak zantso au bada besteari dei egiteko, edo besteen biotzean guraari zitalen txindarra biztuteko. Seigarrenge egiten dabe pekatu mortala arako guraso euren seme-alabaren aurrean berba arinak, ezainak, eta matrimoniñoako gauzaak (edo senar emazteen artekoak) esaten dituezanean, zeintzuekaz idigiten dituezan euren begiak gauza deungarako. Eta beingoan esan ta erabatera asko sartzaiteko, berba loi, zikin, arin eta amodiozkoak esaten direan baxotxean, zeintzuekaz emoten dan adietan gauza deungaren guraria, eta bai dantzuenai bere beste ainbeste gura izaiteko bidea, edo bai beintzat gogoan onango loikeriak euren guraz erabiltekoa, da pekatu mortala; baita askoren aurrean esaten badira izango dira aurrean dagozanak lainbeste pekatu.

7. Seigarren mandamentuaren kontra egiten da pekatu eginagaz edo obraz bere, eta au izan leiteke sei modutakoa. Lelengoa da egiten danean aragizko pekatu ezkonduako leen yazoagaz, edo donzellatasuna leenik galdurik daukanagaz. Bigarrenge da egiten danean donzella garbi ordu-

ra artean iñogaz zer ikusi, edo eguño pekatu egin eztabenagaz: eta au da pekatu geiago eta konfesiñoan esan bear dana. Irugarrenge da inori gura ta gurez ta indarka pekatu eragiten yakanean, berak alegin guztia egiten dabela ez egiteko: eta alango orduan pekatu ikaragarritzko bi egiten dira, konfesiñoan esan bearrak. Baia onetarako besteak bene-benetan ta zindo zindo gura izan bear eztau, eta ezta gauza askok daukeen gura ezta-beenen eskia; ze indarririk egin bagarik badator atara, ezta pekatu mortal bat baxen izan, beste alde batetik geiago ezpadira (izanezik), eta auxe da geienetakoa. Enbra asko etorri doaz, guztiz bere neskatilla gauzea, esaten eurak gura ez ebeela iños alango gauzarik egin, esan eutsela geldirik egoteko, egin ebalan alegin guztia beraganik libretako eta beste onelango ganorabako atxakiagaz: baia ez yake sinistu bear; guztia izan doa guzurra ta abarra. Esan egidazue ezpabere zuek, burua garbitu gura dozuenok; batzainduten zaree gustuz alango personakaz? Bazabiltze eurakaz konbersaziñoetan, fiestetan, erromerietan, dantzetan, bideetan, baita askotan gau utsez? Bada nok sinistuko deusue zeuen borondatearen kontra izan zala? Berba loi edo arinen bat esaten deusuean asten bazare barreka, ukututen deusuean iges egiten ezpadozue, nok sinistuko deusue zuek gura etzenduela? Etorriko balixakezue mutil bat eskopeta edo ezpata bategaz bizitzea kentzean, etzinatekez asiko deadarrez, lagunak batuta libradu zagiezen, edo etzeunke gitxienez yente artera egingo? Bada yatorzunean beste personea ukututen, mozu emoiten edo beste olango gauza loien baterako, ze egiten dozue? Nora egiten dozue iñesi? Ze alegin egiten dozue lagunak batutearren libretako emon-gura deusuen arimako eriotzatik? Ezer bere ez: geien geienez egin zenduana da, esan motel motel, ta erdi esanean geldi egoteko, alangorik ez egiteko, baia zuek gura egitea, ta itxi egiten. Bene-benetan gura izan ezpazendue, ez ebeen egingo eta alan guzurra diñozue esatean zuen borondatearen kontra, eta zuek gura etzenduela izan zala.

8. Laugarrenge da egiten dabenean ezkonduako batek ezkonduagaz eta emen dagoz pekatu mortal bi, zegaitik ze ezkonduaren lagunari injuria andia egiten yakon. Baia bitzuek ezkonduak badira, iru pekatu mortal ikaragarritzkoak izango dira, batak eta besteak alkarren lagunari egiten deusuen bidebakoagaitik bi, ta kastidade edo garbitasunaren kontrako irugarrena. Bostgarrena da aide edo senideren bategaz egiten dana, eta au bere konfesiñoan esan bear da, bada senideagazkoa da berez pekatu, gordetan ez yakolako aideari zor yakan lotsea, eta zeinbat eta urkoagoa dan aidea ainbat eta andiagoa izango da beragaz egiten dan pekatua. Aيداتاسuna ainbat bideti etorri leiteke: etorri leiteke odoletik, eta au lau-



garren belaunegiño elduten da: zelangoa dan guraso, neba-arreba, osaba, iseko, eta lenguzeñen artekoa: etorri leiteke ezkontzatik edo deionenatik; au da ezkondurik dagoana, edo ezkonduko deionak bota dituzana egiten da bere lagun senar emaztearen, edo senar emaztegeiaren aideen alde: eta au bere da laugarren belaunegiño: eta oneri esaten deitsagu koñatezea: eldu leiteke aidetasuna aragizko pekatu osorik eta ezkontzako berbari [sic], eta au bigarren belaunagiño baño ezta eltzean: esan gura da seindun egiteko moduko pekatu egiten dabena, eta ezkontzako berbea emoitzen dabena egiten direala besteen guraso eta anaia ta aizteen alde. Azkenean, barriz, eldu leiteke aidetasuna bateoko edo konfirmaziñoeko sakramentuetatik, bada bateatuten edo konfirmetan dabena, eta aita-amabitxi edo besoetakoak egiten dira umearen eta bere gurasoen alde, eta onerixe esan daroakegu aidetasun arimakoa edo espirituala. Onetarikoen batzuen artean, bada, egiten danean aragizko pekatu, izan oi dira gitxien gitxienez pekatu mortal bi, ta orregaitik zeatz zeatz esan bear yako gauza bakotxa konfesoari. Seigarrengoa da boto kastidadekoa daukanak, edo Jaungoikoari promes eginik deitsenak guztiz garbi izaiteko berba, gogo ta egikunetan, edo onangorik euki-ez arren, daukanagaz egiten dabenean. Promes au dauke Fraile, Monja ta Abadeak, Elexa ama santearen lizenziat edo aginduz eginda, baita beste askok bere norberen deboziño; eta esan bear yako konfesoari ea lengoetarikoak bazirean, ze orduan zan pekatu askoz ikaragarriagoa, ala bigarrenetarikoa, bada orduan bere izan doa sakrilejio txitozko andia. Da bere sakrilejioa Elexaan, hermitan, edo beste alango leku santuan egiten danean, edo komuniñoa (edo beste sakramenturen bat) artuta ordu laurenarango. Eztot ezer esan gura, arako lotsabakotzar, gizonak direalako aiztuta abere zantarrakaz alango lotsagarriko gauzeetan dabiltezanak gaitik, ez arako euren buruakaz Jaungoikoak dakiezanak egiten dituezanak gaitik; biotzeko arrak bere usigiakaz esango deutse zelango arrigarriko pekatuak egiten dituezan.

9. Ara emen neure Kristiñauak seigarren mandamentuaren kontra eginagaz ta obraz egin leitekezan gauza nagusienak. Baia bagoz beste asko bere geienak edo pekatutzat eztaukezanak, edo euki arren bere eurai itxi gura ezteutsenak, eta konfesetan eztituezanak. Orregaitik bada, Jaungoikoaren aurrean atxakiarik euki ze daien, eta konfesetako eta olangoai itxiteko obligaziñoa daukela yakin daien, baita mandamentu au osoro adie-tan emoitearren, esango dot nortzuk egiten dabeen pekatu lengoez gantiti. Lelengo bada diñot egiten dabeela pekatu mortala norberen edo bes-teen bular, arpegi, aragi edo lotsarrietan eskua guztuz eta bear izan bagarik darabileenak, edo erabilten itxiten dabeenak (deutsenak), yaztekoen

ganetik bada bere, edo apur baten baño ezpada bere. Bigarrenko egiten dabe pekatu mortala geien geienetan arako neba-arreba gazteak, sentzainak eta mutil eta neskatilla gazteak, eta malizian zerbait sarturik dagoz-anak alkarregaz bear ez tirean gauzeetan dabiltezanen. Eta, zeinbat one-lango yazoten da umeen artean? Eta zeinbat nagusi eta zar ete dagoz umetan egin zituezan loikeriak oraindokoarren bear direana legez konfe-sau eztituezanak, eta euren penitentzia bear dana oraindio egin eztabee-nak? Irugarrenko egiten dabe pekatu mortala arako mutil eta gizon alka-rregaz, edo besteren bategaz gustuz mozu edo laztanka dabiltezanak eta mozua edo laztana atarako emoitzen itxiten deitsenak. Laugarrenko egiten dabe pekatu mortala arako mutil eta gizon, andra eta neskatillakaz, emen bota an zirri; orain yo, gero oratu dabiltezanak faltrikeretakoa atarateko atxakiagaz, izanik euren gogo gustu edo guraari loa: baita bere egiten dabe andra edo neskatillak alan ibilten itxiten deitsenak. Bostga-rrenko egiten dabe pekatu mortala arako mutil eta gizon andra edo neskatillai gustuz ta gurari loiagaz, oña edo eskua estutu edo sakatuten deu-tsenak, eta au egiten itxiten deutseenak. Seigarrenko egiten dabe pekatu mortala abere edo animaliai atan dagozanean gustuz adi dagozanak, edo eurai guraari edo gogo loiagaz oratu eta ukututen deutseenak. Zazpiga-rrenko egiten dabe pekatu mortala... Baia, nora ete noa onenbestegaz? Eneunke izan bere larregi idigi gura askoren begiak, baia arritu, mututu ta bildurrez ikara gogorrean geratu leiteke begiraturik zelan daukan aragizko pekatu loiak mundu zabala galdurik, bada eztau isten ez zarririk ez gaz-terik, ez umerik ez agurarik, ez mutilik ez neskatillarik ez ezkondurik pekatu onek kakaztu ta loitu bagarik. Auxe da Demoniñoak mundu guz-titik zabaldu daben sarea; pekatu auxe da infernuko ateak zabal zabal egin ta infernu guztia kristiñauz bete dabena: bada deritxat ze sartuko bagin-tez oraintxe bertan, eta erdi erdian iminirik itanduko bageunskioe an dagozanoi: zegatik zagoze or? geien geienak esango leuskiguela aragizko pekatuagaitik. A zori-gogorreko pekatua, eta ze zabaldurik, zagozan mundu atxina! A adugaistoko pekatua eta zelan daukazuzan itsu eginik Kristiñaurik geienak! bada izanik entero erraza zugan yaustea bideune txarreetatik alde egin ezik, eztaude ezetanbere ardura gitxiago iminten onetariko galbide ta pelleburuak itxitean baño.



16. LAPURKERIA EDO OSTETIAREN GANEKO IKASBIDIA

(B, 81-83. or.)

Non furtum facies

1. Jaungoikuaren legeko zazpigarren mandamentubak aginduten deuskuna da iñori ez ezer ostu edo kendutia. Agindu onetan ez bakarrik aginduten da ez iñoena kendutia ezeze, baita bere ez iñori kalterik egitia ondasun edo bere gauzeetan ez iñoena eukitia bere borondatiaren kontra, ez iñor engañetia saldu-erosi, edo tratu-kontratuetan, eta zorra pagetia. Oneetati edozein bere ez gordetia pekatu mortala da berez; baña onetarako kenduten dan gauzia, edo egiten dan kaltiak andijak izan biar dau, bada txikija bada bakarrik izango da pekatu arma edo beniala. Zeinbatera eldu biar dan kenduten dan gauzia edo egiten dan kaltia pekatu mortala izaiteko, ezta erraz izentetia (ebastia) ta señaletia; baña gitxi bat gora bera lau errial izan oi da. Baña jakin biar dozube ze batentzat gauza txikija dana, beste batentzat andija edo (kontu daigun) grabia izan leitekiala: esaterako errial bat gizon aberats batentzat gauza txikija da; orregaitik ori oneri ostutia pekatu beniala da; baña errialtxu au pobretxu batentzat gauza andija izan leiteke, eta au berari ostutia pekatu mortala: jostorraz (jostun-orratz) bat gauza txikija da, baia kenduten bajako dendari, edo joskilla (jostun) bati, eta onek besterik ez eukitarren galduko baleu alogera, kalte andija etorri lekijo, eta pekatu mortala egingo leuke kenduten deusanak jost-orratzau. Au jakinik bada, lenengo egiten da pekatu mandamentu onen kontra proximuari zerbaist ostuten deusanak, nai dala diruba, nai dala erropia, nai dala garija, nai dala artua, nai dala ogia, nai dala beste edozein bere gauza. Modu bitan au egin leiteke, edo beinguan gauza andiren bat kendubagaz, edo puskaka, puskaka, gaur lauziri, bijar lau marai eta etsi zortzi marai. Modu onetan ostuten dabenak, lenengo gauza txikija ostu ebanian beeban intenziñoia lapurkeri onekaz gauza andira elduteko, ordubantxe egin eban pekatu mortala; baña onelango borondaterik ezpeukan egingo dau pekatu mortala ostute-puskaoneek elduten dirianian gauza andija egitera.

2. Baia pekatu mortala izan dedin modu onetako ostutia geijago izan biar da, beinguan kenduten dana baño: esaterako lau errial bada asko

beinguan ostuten dana pekatu mortala izaiteko, zortzi errealera eldu biar dau puskaka ostuten dana. Modu onetan pekatu egiten dabee arako Kriada edo Otseinak, plazara duazanian gaur lau ziri, bijar lau marai, etsi zortzi marai kenduten dabeenak, eurak gura ditubezan gulerijak erosi eta jateko, edo onan batuten dabeen dirubagaz zerbait erosteko. Zeinbat onelango ete dagoz! Ikusten dabee euren lagunak darabiltzala zapata politik, pañubelu ederrak, mantilla eta gona finak, zinta edo gauza ederrakaz apaindurik; eta euren enbidijaz beterik ez leuke eurak baño gitxijago izan gura, ez jake onetarako elduten soldatia, eztauke nok emon daijoen, eta orregaitik artuten ditubez milla modu pekatuzko apaindurik ibilteko. Baña zer jazoten jake? Uste dabeanian guztijak alabetan eta ponderetan daubela, euren soñeko erropa ederrak gaitik guztijak abijetan dira muretan: «Nundik ete dauko onek ain majarik ibilteko, zapata bat kosta jaka ainbeste, mantillia eztau egin ainbestegaz, gonia eztau erosi izango ainbeste dirugaz, soldatia etxako elduten ainbesterako, etxe orretan sartu zanian ez eukan orrelangorik, darabilen guzti guztija barri barrija da, eta azkenez urteiten dau ostu egin izango dabela, deungagorik esaten ezpada. Kristiñaubak, eztozube esaten zeurok beste onenbeste bestiak gaiti? Bada bestiak bere auxe esango dabe zubek gaitik: «Aita, guztiz da gitxi emoten deuskuben soldatia, etxat zapatatarako bere elduten; eta berak merezidu daben baño bere biar askoz geijago eragiten deuste, eta ni naguan etxian eztago besteetan daguan agilandorik bere, eta alan kendu dodan guztijagaz bere ezta elduten egin dodan biarra pagetara. Esan egidazube, ajustadu zinien soldatan? Bai, aita, eta pagetan deuste soldatia. Bada ezteutsube geijago zor, eta au baño geijago artutia pekatu da Aita-Santu Inozenzijo amaika-garrenak diñuana legez.

3. Agilanduak, edo sartu urtenak, eta beste onelango irabazijak borondatezkuak dira, eta eztago obligaziñoerik emoteko. Baderitzazube gitxi dala soldatia, egin ajuste barri bat, edo topadu beste ugazaba bat. Baña, zegaitik elduten etxatsube soldatia? Amabi errealeko zapatia asko dozubela ogei errialekoa gura dozubelako, eta au bere politena laster urrututeko: ogeta amar erreleko mantillia asko dozubela irurogei edo geijago-koa gura dozubelako; modu onetan ezin asko izan soldatia. «Aita ikusi ditubez ugazabak nire erropak, eta ezteutse ezer esan, eta eurak bere gura dabee ondo janzi naitian. Esan egidazube, itanduko baleutsube ugazabak nundik daukezubezan esango zeunkijoe, euren lepoti egin dozubezala, etxeko gauzaak ostubagaz? Guzurren bat asmaduko zeunkee, eta esango zeunskijoe norbaitek erregaladu deusubezala, edo aideren batek emon deusubezala, edo gurasuak egin deusubezala. Eta bazenkije ugazabak



ontzat daroiela kendutia gitxika gitxika, etzeunkee eukiko bildurrik, ezta lotsarik egija esateko». Egiten dabe pekatu kriadu kriadak ugazaben lizenzia edo borondate baga emoten dabeenak orain ogija, gero aragija, gaur urdaija, bijar bakallaua (makallaua), batzubetan errofia, beste batzubetan garija edo artua, bada ezta eurena modu onetan emoten dabeena. «Jauna, etxeke zer-eginetan lagunduten deust, mandatuak egiten deustaz, eta edozein ordutan dei egiten deustadania dago prest. Esan egidazube, zer egin orreetan nok dei egin deustoa ugazabak, ala zeurok? Zeuroen obligaziño-kuak zirian biar orreek edo etzirian? Ezpazirian zure obligaziño-kuak, eta ugazabak dei egin beutsan, edo agindu beutsan ekarten, berak pagaduko deustoa, edo esango dau zer emongo jakon. Baña zeuria bazan obligaziñoia, eta zeuk dei egin bazeuntsan biar gitxijago zeuk egitarren, alperrik egotarren, edo zeure lagunakaz pasietara juatarren, zeuk zeureti pagadu biar deustazu; bada ezta arrazoia ugazabak gauza bat birritan pagadu dagian, bata zuri soldatia emonagaz, bestia zuk kenduten deustazunagaz».

4. Gitxika kendubagaz pekatu mortala egiten dabee ardaia, orijua, bakallaua, ogija eta beste onelango gauzaak salduten ditubezanak, ondo neurtu eta pisetan ezpadabee. Eta ez esan, esaten daruena; au egiten ezpada ezin ondo urten leitiala tratuban, eta au eginagaz bere ozta ozta atere-tan dozuela zeuroena; ez esan etxiaren errentak karu dagozala, eta zeuroi bere neurri falta asko etorten jatzubela. Eranzune edo errespuesta oneekaz uste daabee askok eta askok ez-tala pekatu lan-zian puskatxu bat neurri-jan edo pisuban kendutia. Baña au Demoniñuaren asmuba da, eta berak ifini daben zazia. Zer adierazo gura dozube diñozubenian, ezin bes-telan tratuban ondo urten ziñaikeela? Esan gura dozube kendu dozubena baño gejjago galdu dozubela? bada tratu orretan sartu baño lenago begi-ratu bear zenduben, zer egiten zenduben. Bestiak deungaro egin dabe zu engañetian, egija da; baña beraak deungaro egin dabeelakuan zeuk bere deungaro egingo dozu? Denda edo etxe errentia karu badago eztau zuga-na erosten datorrenak artu gura bere ganian pagetako obligaziñoerik. Baña gejjan adierazo gura dana esaten danian ez-tala tratuban ondo urtei-ten izaten da eztozubela irapazten gura dozuben lainbeste. «Begiratu egi-zube zer jazoten dan, eta ezautuko dozube. Eskonduten da gizon gazte bat neskatilla bategaz, eta eukiteko zegaz bizi ifinten dabee dendatxu bat. Lenenguan tratura eginik eztagozana legez bildur andi bategaz dabilz pisu eta neurrian bakotxari beria emoteko. Baña laster aberastuteko deseoa sartuten badira, abijetan dira emen piska bat kenzen, an gitxijago emoten; agiraka egiten deutse benturaz konzijen-zijak, baña esanagaz euren bijo-tzian, orko puska bat gaiti ezta ardura, bestiak bere alan egiten dabee,

aurrera duaz. Ateretan dabee irabazi on bat, pozturik onegaz artuten dabee denda andijago bat, etxe obago bat; eta errentia andijagua dana legez uste dabee irabazijak bere andijaguak izan biar dabeela. Sartuten dira tratuban, eta orra nun, atzo kriadu kriadak zirienak gaur aberasturik dagozan; alan zer jan ez eukeenak gaur ondasunez beterik. Oneen onda-sunen eta irabazijen Juez eztot izan gura, baña dakidana da, bein sartu ezkerro laster aberastuteko deseoa, guztiz dala gatx, ez edozein modu-tan ondasunak batutia, oker nai artez».

5. Egiten dabee pekatu zorrak pagetan ez-titubezanak, eta pagetako aleginik egiten ez-tabeenak. Jauna, bazaudaz zorrak, baña txikijak baño ez-tira: zapatarijari zapata batzuk, denda pañuelu bat, dendarijari jake bat, eta onelango txutxerija batzuk. Baña eztozube pensetan kalte andijak egi-ten deustazubezala beargin edo ofizialai: zuek zor deustazubena legez zorko deutse benturaz zuek lango askok; elduten jako denporea ofiziale koitadubari zubentzat atera daben generua pagetako, estututen da; eska-tuten deustube artubena, eta zer eranzuten deustazube? Erdu beste ordu baten; beste onen beste eranzuten deustoa bestiak eta orra nun dagan premiña andijan. Bada zer egingo deustat, Aita, ezpadaukat zegaz paga-du? Eztaukazube zegaz? Eukiko zeunkee ez ain apaindurik janzijagaz, eta ez eginagaz zeurok dakizubezan beste gastu zoro asko. Ori bai dala, Jauna, baña zer esango dabee jazten nazan moduban jasten ezpanas? Nik beste itauna edo pregunta bat egingo deustubet. Zer deritxazube diñuela jazten zareen moduban jasten zareelako? Zeurok besteak gaitik esan oi dozubena. Nundik ete dauko onek ain majarik ibilteko? Eta eranzuten dau bestiak iñori ezpagadubagaz erraz da apaindurik ibiltia. Zapatarijak diño, zapata politak daruaz, baña nik artuko neunke eurakgaiti zor deus-tana: dendarijak eranzuten dau, arro arorrik dua mantilla eta goniagaz, baña neure lepoti, pagadu biar izan deustadaz merkatarijari, eta eztago jakin baño nos pagaduko dituzan alogerak. Denderubak diño: a ze alajia ori bakotxari beria pagetako, soñian daruazan pañuelu, kalzerdi, eta zin-tak oraindijo pagadu bagarik daukaz, eta eztago jakin baño nos pagaduko dituzan. Orra zer diñoen zuben ederto janzirik ibiltia gaiti; eta ez leuke esango ori, gitxijagaz kontentadurik zorrak pagaduko bazendubez.

6. Pekatua egiten dabee arako etxeke seme-alabai, Kriadu Kriadai edo Otseinai erosten deutseenak, edo salzen eruaten ditubezanak, etxian oneek osturiko arto, gari, bakallao edo erropak, eta ezta inporta esatia, ez-tala izan eurentzat gauza onen balijua, edo eurai bijurtu eutsela; bada ondo dakije onelango gauzaak gurazuai eta ugazabai ostubak diriala eta ezin eurenak izan leitekez. Modu onetan semealaba edo otseinak batek



zerbaist dakarrenian egin biar dana da kontu emon ugazaba edo gurasuai; bada bestelan euki ezker onelango seme edo otseinak nok estaldu eta nok saldu ostuba etxe guztija ondatu leikee, eurak lapur batzuk urtengo dabee, eta beste pekatu ikaragarrijetan jauzi; bada modu onetan ostuten dana ezta izaten mezaak aterateko, edo pobriai emoteko, ezpada milla pikardija egiteko eta alan estalgille onei artuko deutse Jesukristok seme ta otseinak egiten ditubezan pekatu guztijen kontu; zegaitik, ezpaleukee oneek nok estaldu, nok saldu, eta nok ezarri ostu ditubezan gauzeen diruba, ez leuke ostuko, ez leukez egingo egiten ditubezan pekatubak diru onegaz. Jakin ezker noena dan artu dan gauzia, edo nori egin jakon kaltia jaubiari berari bijurtu biar jako; eta orduban ezta asko arimiagaitik mezaak atetia, edo limosna egitia, edo konposiziñoko buldia erostia: bada au bakarrik egin leiteke ezin jakin leitekenian nor da gauza ostubaren jautia. Askok eta askok uste dabeee aurkitu, edo topetan dabeen gauzia eurena dabeela; baña orduban egin biar dana da alegina egin jakiteko noena dan, bijurtu oso osorik, billazaririk, ez beste gauzarik kendu baga; eta agiri ezpada jauberik, esan bere Konfesoriarri eta berak esango deutso zer egin biar daben.

17. SALDU-EROSIEN GANEKO ERAKUZ-ALDIA

(B, 71-75. or.)

1. Jaungoikoaren legeko zazpigarren mandamentuak galaazoten dituzan gauzeetarik bat da proximia edo laguna engañetea saldu-erosian. Ainbeste dira iñoena kentzeako dagozan moduak eta tratuak ze, eztago guztiak argitan imini leikeanik. Eta alan berba egingo dot ezauenen ganean, edo geien egiten direanen ganean, yakin dagizuen nortzuk egiten dabeen pekatu. Lenengo egiten dabe pekatu salzen dabeeena nasteetan dabeeanak beste gauzaren bategaz: zelangoak direan tabernari ardaoari ura ezarten deutesnak: errotari, eta ogigiña edo panaderak, urun edo ogiari karea, saia, edo beste gauzarik ezarten deutesnak; eta nasteetan dabeen gauzea bada osasunean gatx egin leikeana, beste pekatu mortal bat egingo daudee. Egiten dabe pekatu ikaskinak, edo ikatzen yaubeak, ikatzari ezarten badeutse iduri, lur, edo beste gauzaren bat, eta ikatz ontzat saltzen dabeanak; eta beingoan esaterren, edozeinbere naste egiten dabeeanak, eta alango naste-bakoen prezioan saltzen dabeeanak pekatu mortala egingo dabee. Bigarren ego egiten dau pekatu, neurri edo pisuan zerbaist gitxitu edo kentzen dabeanak. Modu onetan egiten dabe pekatu, ardao, ogi, aragi, edo beste onelango gauzaren bat saltzen dabeeanak, pisuan puska bat gitxiago emoitzen badabe. Bardin oiala, zintea, edo beste gauzaren bat salduten dabeeanak, ondo neurrituten ezpadabe. Egiten dabe pekatu ikazginak, edo ikatzen yaubeak bear dan moduan betetan ezpadituez sakuak. Egiten dabe pekatu kana pisu eta neurri txikerragoak daukeezanak agindurik dagozanak baño, edo bear direanak baño. Berba baten; erotzen dabeanari bear leukean baxen gitxiago emoitzen deutesnak, dan moduan dala, pekatu mortala egiten dau.

2. Irugarren ego egiten dau pekatu gauza txarra ontzat salduten dabeanak, erosten dabeanak yakin bagarik, eta onaren prezioan. Eta alan egiten dau pekatu oial, mieza, galtzerdi, zinta, edo beste gauza mareadu, sitzak yan, edo usteldua, ezagututen eztakianari saltzean deutesnak ona bailitzan legez, edo onen balioan. Egiten dabe pekatu gari kokoak yana, arto berotu edo galdua, aragi ustela, edo erdi usteldua ontzat salzen dabeanak. Egiten dabe pekatu idi, bei, txal, zekor, idizko, zaldi, mando, ari edo beste abere tatxa edo faltaren bat daukana, alangorik ezpaleukena legez saldu-



ten dabeenak. Ara Kristiñauak, onango saldu erosirik egiten danean azaldu ta esan bear dira saltzean dan gauzeak daukazan utsune, edo faltaak, eta ainbat obeto ixilak badira, ze osterantxean bestea engañetea da. Enzun daiguzan orain onelangoen atxakiak. Jauna, (esaten dabe ondo pisau, edo neurtuten eztabeenak edo pisu eta neurri txikiagoak daukeezanak) Jauna, au egin ezik, ezin ondo urten giñaike tratuan, eta alan bere ozta ozta ateraten dogu kostadu yakuna: guztia dago gora eta karu. Geu bere sarri eta sarri engañetan gaituez. Neurrian, barriz, eta pisuan utsune edo falta andiak euki daroaguz: puska bat gitxiago emon arren, ba'roe emoitene deuskuen lainbeste, bada eskatuten badeutsagu balio dabena, larregi deritxoe, eta eztabe erosi gura; eta alan gitxiago emonagaz, edo puskatxu bat kenduagaz, daroe balio dabena. Atxakia onekez uste dabe askok ta askok edozein bere naste egin leiela, eta zerbaist kendu leiela neurri eta pisuan. Baia ezta au Demoniñoaren asmua baxen. Esaidazue ezpabere, Zer esan gura dozue diñozuenean ezin bestelan ondo urten ziñaiela? Esan gura dozue, aragi, ardao, edo abazeria errematau dozuela, eta onango nasterik eginezik, edo zertxubaist gitxiago emon ezik, irabazi bearrean galdu egiten dozuela? Onetan sartu baño leen, begiratu bear zenduan, zer egiten zenduan, eta uts egin badozu, ezteutsu errurik zuri gauzea erosten doianak. Jauna, nik erremata egin ezker, igon dau asko ardao, orio, makallao, eta aragiak: orduan baño geiago balio ezpaleu, eneunke egingo onango gauzarik. Orretan sartzen ziñianean, yakin bear zenduen au yazo lekikezuela. Merkatu balira gauza oneek, eta ikusirik zuen irabazi andia beeratu gura izan baleutsubee, imini zan lengo prezio-tik, zer esango zenduen? Tratua tratu, eranzungo zenduen, eta alan ezin beeratu leiteke. Bada auxe berau eranzungo deutsue zuen gauzea erostera doazanak. Daukazun tratu ori zeure borondatez artu badozu, itxi egiozu galzen badozu eta artu egizu beste bizi-modu bat. Zeuek dakutsue ze buru bakoa dan atxakia au, eta ezin egin leitekeala ez nasteerik, ez pisu ez neurri txikerrago emoitierik.

3. Ikusirik nok egiten daben pekatu saldu-erosian ikusi daigun nok egiten daben beste artu-emon eta tratuetan. Egiten dau bada pekatu gauzea salduten dabenak balio daben baño geiagoan, epean emoitene dabela-ko. Onetarako yakin bear da iru balio, edo prezio modu daukezala gauzaak. Bata goren gorena: bestea beeren beerena, eta irugarrena onen bioen erdikoa. Esaterako; idi bustar batek balio dau geien geien eun-da berrogeta amar dukat, auxe da goren gorena: balio dituz gitxien gitxien eun da berrogei, auxe da beerena: eta onen bien artean dagoana da erdikoa. Orain bada, idi bustarra epean emon edo saltzean dozulako badaro-

azuz berrogeta amar dukat baño geiago pekatu mortala egingo dozu. Bardin dirua eskuan emoitene dozulako, erosten badozu eun-da berrogei baño gitxiagoan pekatu mortala egingo dozu; baita biurtu bear ko dozu geiago eroan dozuna, edo gitxiago emon dozuna. Egiten dabe pekatu, gauzeak balio daben baxen geiago eskatuten dabeenak gogoa daukeela saltzeako gauzea al daien goren. Esaterako: dakizu gauzeak balio eztabena ogei baxen, eta zuk eskatuten dozu berrogei. Eta, zetarako? Ogeta amarrean salduteko. Ez, Jauna, orretarako, ezpabere balio dabenean geratuteko: zegaitik ze erosten dabeenak beti gura dabe beeratu prezioa al daien guztia, eta orregaitik geiago eskatuten dot. Nok ori sinistuko deutsu? Esaizu, arako zure gauzea premiñaz bear izan daben batek, balio daben baño geiagoan eroan deutsunean, edo eztaialako prezioa geiagoan saldu deutsazunean, atsera emon deutsazu larregi eroan deutsazuna? Eztakit nik azartuko zarean baiezesaten. Ikusten dana da, bakotxak salduten dabela al daian goren, milla guzur esaten direala onetarako.

4. Ementxe, neure Kristiñauak, gauza bat esan gura deutsuet. Beti gagoz enzuten, Jauna, guzur batzuk esan dodaz saldu-erosian; baia ez tira izan gauza grabeen ganean. Ze guzur modu izan dira bada? Jauna, esatea, ori baño geiago opa izan deuste; orretan emon gura izan baneu, guztia neukan saldurik; ori baxen geiago neuri kosta yatan; prezio orretan pozik nik erosiko neunke. Baita, txikiak direala, diñozu, guzur orreek? Zuk guzur orreekaz salduten badozu gauzea balio daben baño geiagoan, pekatu mortala egingo dozu; eta salzen ezpadozu bere bildur izan ziñatekez pekatu mortala egin izango dozula. Ara zegaitik. Mandamentu onetan ez bakarrik galarazoten yaku iñoena kentzea, baita bere iñoena gura izaitea. Zeuk guzur orreek diñozuz erosten doiana engañetako; eta alan au badiñozu berak sinisturik, balio daben baño geiagoan erosi daizun, gura dozu besteen gauzea. Jauna, guzur oneek ezpadiño-guz, ezin ezer saldu giñaike. Ze zorakeria! Sinistuten deutsu erosten datorrenak, ala ez? Sinistuten badeutsu, eta karu eretxirik, erosten ezpadau, eztozu guzurragaz ezer aurreratuten. Erogen badeutsu balio daben baño gorago, engañetan dozu, eta au ezin ziñaike. Sinistuten ezpadeutsu, guzur tizat zaukaz, eta auxe da aurreratuten dozuna, zeu guzur tizat eukitea. Esan eikezu beti egia, eskatu eikezu ondo dana, eta ikusiko dozu, zelan guztiak yoango direan zugana.

5. Egiten dau pekatu, prestetan dabenak diru, gari, arto, edo beste gauzaren bat, iminten badeutso prestetan deutsanari, emoitene deutsanen ganetik, zerbait geiago biurtuteko obligaziñoa. Esaterako, bear dituz zure adiskide edo auzo batek eun bat dukat esku artean: eskatuten deutsuz



zeuri, eta zeuk ezteutsazuz emon gura, berbea emon ezik biurtuko deutzazula eun-da iru. Eskatuten deutsuz beste batek anega bi edo iru gari edo arto; eta emoiten deutsazuz anegako zelemiña bat geiago atsera emoiteko obligaziñoagaz. Au lukrua, eta usuria da, eta pekatu mortala. Zerbaist prestetan danean ez bakarrik eroan leike prestetan daben diru, arto gari edo beste gauzarik baño geiago; baia ezin ifini bere leio beste obligaziñoerik. Esaterako: zure adiskide batek bear dituz eun dukat bear-ordu edo estukuntza baterik urteiteko: eskatuten deutsuz eta dirautsazu: *gura badozuz eun dukatak prestadu deizudazan, ezteustazuz eun dukatak baxen biurtuko; baia saldu bearko deustazuz zeure arto eta gariak, beste bateri emongo zeuzkiozana legez; bota bearko deustazuz olara zeure ikatzak, etorri bearko zatxataz alogerean.* Modu oneetako obligaziñoak lukrua edo usuria dira eta pekatu mortala. Jauna, beste batek emongo leuskiona, emongo deusat, eta eztau ezer galduko bere arto, gari, ikatz ez alogeretan. Ezteuto: ezin ezer kendu leikio, ezta bere gauzakaz gura dabena egiteko eskueskuna bere. Ain modutan, ain estu au yagon bear da ze, ezin ezer eskatu leike, prestetan dana uts utsik eta bakar bakarrik baño.

6. Jauna, nik diru orregaz geiago irabazi neukean, merkatari edo trantuan dabilen baten emon baneuntso, euneko sei emongo eustazan. Irabazi ziñaikeanagaitik ezin ezer eroan ziñaike; bada onetara begiratuko balitz, nok esan lei... zer irabazi leitekean? Baita errazoa au emon leike bere dirua geldi geldi daukanak bere. Beste gauzarik litzateke diru ori tratu on edo artez baten imintera baziñoaz, eta besteari mesede egitearren, eta bere erreguz itxiten badozu irabaziko zenduana; edo prestetearren kalteren bat etorriko balitxatzu, eta berari esanagaz, osotu gura baleutsu; bada orduan emongo baleutsu, nai dala irabaztera zoazana, nai dala datorkizun kaltea, au eztaor prestetatik, edo ezta prestetan dozumen saria. Bada, Jauna, ezin ezer eroan al baleiteke presteteagaitik, eztau iñok prestadu gurako, eta alan guztiak, edo bai geienak daroe zerbaist presteteagaitik. Badaki ori. Baia zegaitik ezta aurkituko prestadu gurako dabenik? Karidaderik ezta-goalako, edo otzitu dalako. Baia ara zer diñoian J.K.k.: prestadu egizue emoiten dozuen baño geiagoren uste bagarik. Geiago eroate au lukreria edo usuria da, eta dago eragotzi edo galaazorik. Eskritura Sagraduak, Ebanjelioak, eta beste lege guztiak kondenetan dabe. Ori geienak egiten dabe, diñozu. Larregik. Uxala eroango ezpaleu, prestetan dan baño geiagorik. Ara, Kr.k, berez txar, deunga, ta pekatu dana, ezin ondu leiteke mundu guztiak egin arren bere. Ezpabere esan egidazu; egin ziñaike lapurretan, askok ta askok egiten dabeelako? Edo esanik zuri, zegaitik lapurretan egiten dozun, deritxazu atxakia ona izango litzatekeala eranzutea:

beste askok bere lapurretan egiten dabe? Bada beste onenbeste eranzuten dozu diñozunean, askok daroe presteteagaitik, nik zegaitik eroango ezto?

7. Egiten dabe pekatu, garia, artoa edo beste bearreko gauzaak errosirik, batuten direan denporetan eskutetan ta ostenduten dituezanak modu onetan karutu dedin laborea, gero eurak gura dabeen bestean salzeko. Onelangoak madarikatuak izango dira erri ta urietan diño Espiritu Santuak. Egiten dabe pekatu mortal arako gizon gogor eta kruek, zeintzuk yakinik eurak baxen eztaukeela bear bearreko gauzea, euren borondatera ifinten dabe prezioa. Modu bitan yazo leiteke gogorkeria au. Esaterako: daki gizon aberats batek gordetan badira erri bateko amarrenak gura ta gur'ez laborea guztiz urri ebiliko dala. Bada, zer egiten dau? erosten dituz al daizan gari ta arto guztiak, errematetan dituz amarrenak, eta gordetan dituz guztiak, aurkitu zedin errian bere arto ta gariak baño; eta modu onetan iminten dau gura daben balioa edo prezioa. Onek pekatu mortala egiten dau. Beste modu baten au egin leiteke. Eztauke gauzea edo generoa sei edo zortzik baxen: oneek guztiok alkar artuten dabe eta diño; geuk baño bestek eztauko onango gauzarik; bada eztozu salduko onen beste baño merkeago. Kontu egizue: daukez, sei, zortzi edo amar gizonen artean merindade bateko amarren guztiak, eta ikusirik urrituaz doazala arto, gari, labore ta frutu guztiak, arkal arturik konponduten dira, eztabeela gari, edo arto anegea onenbestean baño gitxiagoan salduko: au pekatu mortala da. Bardin da euren artean konponduten badira, urlia denporara artean eztozu salduko, urriturik laborea guztiz gora igon daian. Bildurtu, eta larritu beitez onelangoak enzunik Jaungoikoak berak egiten deuten biraoa Amos Profeta-igarlari santuaren aotik. Zuek zatituten dozuez pobreak, eta goseak ilik daukazuez nekez ta premiñaz bizi direanak, diñozuela: nos igaroko da ila ta salduko doguz merzeriak? nos elduko da denporea utxa eta troxak idigitoko? Orduan txikertuko dogu neurri ta pisua, eta goratuko dogu prezioa. Ondoko giñokoa salduko dogu gura dogun bestean. Ara bada, neuk yuramentu egiten deutsuet eztozala eguño aztuko zeuen gogorkeria au eta uriolak legez etorriko direala gatx guztiak zuen genero.

8. Kristiñauak, nor bildurtuko ezta Jaungoikoaren aotik zemakuntza au enzunda? Orregaitik begira zein engañadu zaiezan irabazi-gureak. Onango saldu-erosi, ta artu-emonetan sartu baxen leenago; ondo ondo itandu edo konsellau zaitze zeuen konfessore edo gizon yakitu bategaz, zuek zuen burutik erabagi bagarik, teologu andi batzuk bazina legez. Ai, neure Kristiñauak; irabazi andi bat begien aurrean iminten bada, guztiz da errez itsututea, eta traturik okerreana, on eta arteztat eukitea. S. Paulo



Apostoluak esaten eutsan bere diszipulu Timoteo-ri: aberaztu gura direa-nak yausi oi dira tentaziño andietan, Diabruen lakioan, eta guraari txar, oker ta galgarrietan. Zekenkeria, miskenkeria eta ondasunen guraari larregia, da gatx guztien sustraia; bere atsean ibili direan askok fedea galdu dabe, ta yausi dira min-ala eta gatx andietan. Egin begi bakotxak bearra, yanzi, yan, eta bear dabena irabazteko ez bakarrik beretzako, baita bere seme, etxeko, edo bere ardurara daukazanentzako; egin begi alegina, itxiteko seme-alabai zegaz bizi: au gauza ona da, Jaungoikoak agindua, esan eutsanean Adane-ri, eta beragan bere seme guztioi: zeure arpegiko izardiagaz yango dozu ogia; baia ezpedi au izan ardura larregiaz, eta ondasun pillo andiak batuteko guraariagaz, ezazienda zabalak iminteko (uste ureagaz) amurruagaz; ze sartzen baiatzue zuen biotzean ondasunen zaletasun larregia, zeuen arimea bere salduko dozue eurak batzaindutearren; eta saldu-erosi ta artu-emon okerrerik okerrenak, ontzat eukiko dozuez. Egi-zue alegina kentzeako zeuen biotzetik gurari larregi au; billatu egizue aurrengo, Jaungoikoaren erreinua, eta berak emongo deuntsue gorputzera-ko bear dozuen guztia: berak dauko berba au emonik, baita lenago galduko dira zeru lur ta euretan dagoan guztia, bere esana baxen. Bera da guztioen aita; baia, zelango aita? Munduko aita guztiak eztituez ain laztan euren semerik maiteenak, zein da berak gu. Bear badoguz ondasunak, berak emongo deuskuz; eta emoiten ezpadeuskuz izango da ondo ez yakulako. Ekarri daiguzan, bada, beragana geure gogo ta uste guztiak, eta onexegaz bakarrik biziko gara mundu onetan poz pozik Jaungoikoak emoiten deuskunagaz, eta artuko doguz bestean neurribako ondasunak. Alan gerta deilla. Amen

18. YOKOAREN-GANEKO IKASBIDEA

(B. 56-59. or.)

1. Yokoa ezta beste gauzarik, neure Kristiñauak, ezpabere kontratu, edo artu-emon bat, zeinetan iminten daben yokolariak bere diru edo gau-zea galduteko arrisguan, beste yokolarien dirua berea egiteko usteagaz. Yokoa bereanez ezta pekatu, baia edonos izan leiteke, ta bear bada mortala bere, baita pekatu askoren sustraia ta etorburea. Yokoak pekatu ez izaiteko asko bear dituz, baia bearrenak dira: lelengo, yokoan emoiten dan denporea izan ezteila bakotxak bere (estaduko edo) bizimoduko egin bearrak ondo egiteko, edo yakin bear dituzanak ikasteko bear leukeana, baka-rrik artuten dala yokoa nosik bein zerbaist dibertidutearren gero gogo geiagogaz bearretan sartuteko (bearretara biurtuteko). Eta alan pekatu egin daroe arako Konfessore, Letradu, Mediku, Barberu edo Zirujau, eta beste onango askok euren ofizioko gauzaak ondo yakiteko obligazino estu estua daukela eurai datorkioezan gauzaak ondo ikasteko, bear dabeen, denporea, yokoan emoiten dabeenak. Beronexegaitik egiten dabe bere pekatu arako Juez, Guraso, Ugezaba eta iñoen ardurea daukeenak, eurak ondo yagoteko, eurak nondi nora, ta zelan dabiltezan yakiteko, eurai ondo begiratuteko, eta eurai doktrinea ondo frakasteko ondo ta ondo bear leukeen denporea yokoan igaroten dabeenak. Bigarreno, yokoa pekatu ez izaiteko bear da yokoagaz iñori bere eskandalurik ez emon, ez pekatu egiteko erarik edo biderik. Eta orregaitik pekatu egiten dabe arako guraso, eta ugazaba (bai eta beste askok bere) euren yoko larregiaz eta astegunetan bere onetan egonagaz, euren seme-alabai, ogitu-koai, edo beste edozeineri exenplu txarra, eta erakuste deungea emoiten deutsenak. Zegaitik ze, zer urtengo dabe onelangoen seme-alaba ta ogi-tukoak eurak lango arpel-onzi ta yokolari galdu batzuk (baxen) ezpada? A zeinbat onelango, yente asko galduteko direanak, ikusten direan nai aste-gun, nai yaiegunetan ortik antxina, etxerik etxe, ta okelurik okelu; denda-rik denda ta basterrik baster yokoan ordu osoetan; ori, barriz, eskupulu bapere bagarik, eta begiratu bagarik emoiten dabeen exenplu txarrari, eta iminten dabeen zer esanari.

2. Irugarreno, yokoa pekatu ez izaiteko eztau izan bear pekatoren baterako bidea ta okasiñoa. Onen faltaz pekatu egiten dabe arako yakinik leenago bere yokoan iminten direan bakotxean, edo bai geienetan birao,



añen, blasfemia, edo berba loi ta bear eztireanetan yausten direala, edo yokoa galtzean dabeenean aserratuten direala, orregaitik bere barrien barri yokoan asten direanak, bada iminten dira leen legez aserratuteko, añen ta birao egiteko pelleburu ta okasiñoan. Laugarrenge, yokoak pekatu ez izaiteko izan bear ez dau Elexa santako, edo Erreinuko legeak eragotzita daukeen yoko generoren bat: onen kontra egiten dabe arako noberen abilidadebako, ta etorri-bear utseko, edo, legeaak diñoena legez, fortunazko yokoetara egiten dabeenak. Esaterako dirautsazu besteari: urlia yokatu daigun bateko urrera erlegin bat, edo beste onango zuen aldetik zereginik eztaukeenak, kartaak ondo suertetea ta etortea baxen: ara emen non egin dozun pekatu, bada onetariko yokoak galarazota daukez ez bakarrik konzilio edo Elexako batzarraak, Inozenzio aita santu irugarrenak, eta beste Elexako lege askok, baita bere Españiako atxinako ta gaurko eguneko legeak; eta ontsuengo Errege Dn. Karlos irugarrenak birriteko aldiz, eta barriro bere seme Dn. Karlos laugarrenak eragotzi dituez ezarririk guztizko kastigu andia onango yokolarien kontra; baita iragarri ta deklarau dabe eztituezala eurenak egiten modu onetan irabaziriko diruak eta biurtu edo errestituidu bear dituezala.

3. Bostgarrenge, yokoa pekatu ez izaiteko gorde bear dira iminirik dagozan edo iminten direan legeak edo kondiziñoak; eta egin bear ezta tranpa ez engañurik. Onen kontra doaz eta egiten dabe pekatu arako karta ezaunakaz yokatuten dabeenak, edo karta geiagogaz, edo ixilik kartaren bat gorde edo artuagaz, bear dan baño tantu geiago eroaten dabeenak, besteari tantuak ixilik kentzean deutsezanak, eta onangoak, eta ez bakarrik egiten dabe oneek pekatu, baita bere dauke obligazino estua olan irabazia atsera biurtuteko. Seigarrenge, ezta yokatu bear legea permitietan dabeenetan ganera; eta alan kartetan ezin iños yokatu lei errealliaz gora, eta arik aurreko irabazi guztia atsera emon bear da, leen esan doguzan legeak alan aginduten dabee-ta. Eta zeinbat onetariko ikusten ete da munduan? Zeinbat ikusten eztira bola lekuetan, eta etxe ta okeluetan yokatuten, eta trabesean iminten permitidurik dagoan baño geiago, begiratu bagarik euren arimai emoten dituezan eskandaluai, iminten dituezan zer-esanai, eta Juezak egin bear leukeena legez, ezarri al leioezan multai, eta emon al leioezan kastiguai. Aita, esango deust edonok, ezteutsat nik orregaz iñori kalterik egiten, bada galduten badot, neurea galduten dot. Nok esan deustsuzala iñori kalterik egiten? Ez al da kaltea, baita guztietara zabalduten dan kaltea olango yoko eragotziakaz, eta permitidurik dagoan baxen geiago yokatuagaz emoitzen dozun eskandalua, besteai bere orretarako emoitzen deustsuzan bidea, Errege ta beste Juezen agindu ta legea

gitxitan eukitea, eta zure etsekoai emoitzen deustsuzan ernegu-aldia? Orrez ganean, nok engañau eta itsutu zaitu esateko zeurea dozula galduten dozuna? Esan egidazu, or yokoan eta trabesean iminten dozuzan lau, zortzi, amar, ogei edo beste erreallak bear dozuz edo ez: bear badozuz zeure familia mantenietako, eurai ofiziorren bat emoitete, akomodetako, bear dan dezentziagaz erabilteko, zeure zorrak pagetako, zeure etxean yausi ze dedin obraren bat, edo zereginen bat egiteko, deungaro eroanik daukezuna biurtu, edo zor dozuna kitututeko, edo bear badozuz yokoa iminten dozuzan diruak beste onango gauzaren baterako, orduan eztira zeureak, aenak baxen, edo gura bozu zureak dozuz, baño iñori zor yakazanak, ta iñoenak izan bear direanak: besteak dauke diru orren zuzena, ta deretxoa, eta alan zara lapur bat besteena izan bear leukean diruagaz yokoa zabiltzalako. Bear ezpadozuz yokoko diruak lengo gauzetarako orduan bere ezin alan imini zinaiz, eta eztago zure eskuan edozein gauzatan emoitete, ze bauke noenak izan. Noenak, bada, Aita? Noenak? Pobreenak ta purgatorioko arima errukigarrienak. Zer diño, Aita, neuk neure izerdiagaz irabaziriko dirua edo gurasoak itxi deustezan ondasunak pobreenak izan bear dabeela? Bai leen esan dodana legez zeuk zeuretzat, zeure familia-rentzat, edo zorrak pagetako bear ez izanik: ze Jesukristo berak ta ez bestek, diño Ebanjelio Santuan zeuk bear dozunez ganetikoa pobrei eta bear dabeenai emoitete. Uste zenduan, bada, ontzat eroango eutsula Jaungoikoak gauza guztien yaubeak gastetea diruak yoko eta banidadeetan egonik pobretxu asko zer yan eztaukeela, ta gexori dagozanean oe bat non etxun eta salda puska bat zegaz egin eztaukeela? Erraturik eta itsuturik bizi zara bada alan uste izan badozu.

4. Zazpigarrenge, yokoa pekatu ez izaiteko, bakotxari bere eskuan itxi bear yoko nai yokatu nai ez; eta alan pekatu egin daroe arako gura ta gura-ez besteari yokatu eragiten deustsenak errege larregiaz edo zemaiaiaz yokoa iminten dituezanak, eta beste engañetarren eztakielakoena egonik lelengeran galduten dabeenak bigarren yokoa asko geiago irabaztearren. Eta oneek ez bakarrik egiten dabe pekatu, baita bere atsera biurtu bear dabe pekatu mortalen bean irabazi dabeen guztia. Zortzigarrenge, yokoa ifinten dan diruak bereak izan bear dau, edo bai beintzat berak gastetako eskueskunea euki, esan gura dot, edo a dirua ezteiteala iñoena izan, edo diru atan ezteiala iñok euki deretxorik ez zer agindurik. Eta alan onen kontra egiten dabee pekatu arako seme-alaba gurasoen borondatearen kontra gurasoai arturiko diruagaz yokatuten dabeenak, yokora besteren bateri ostuagaz doozanak, edo dirua baleukeena legez dirubagarrik yartzen direanak, eta oneek pekatuaz osteian atsera emon bear dabe irabazi



guztia. Bardin badakizu zeuk besteak daukan dirua ostua dala, edo uga-zaba edo gurasoena dala, edo etxe-familia mantenietako bear dabena, pekatu egingo dozu agaz yokoan iminten bazara, ta ezin artu ziñaio, zeuk irabaziarren bere; baita, yokatu-torduan ezpazenkian besteen dirua iñoena zala, etzenduan pekaturik egin, baia irabazia biurtu bear deutzazu yau-beari, ez lagun yokolariari, baia oneek badauko iñondi zegaz pagau emon bear deutsu galdu ebana.

5. Aror, neure Kristiñauak, yokoak pekatu ez izaiteko bear dituzan lagungarri yakinenak, eta euretatik atera zinaie nos dan, ta nos eztan pekatu. Baia, yokatuten da lagungarri ta leta guzti oneekaz? Gordetan dira Jaungoikoaren legea, eta Elexako ta Erreinuko lege eta aginduak, egiten diran yoko guztietan? A ze gitxi! Eta oraindiokoarren negargarriagoa dana, ze gitxi esaten dituezan konfesiñoan yokoko eskandaluak, tranpaak, biraoak, pekaturako bideak, ta deungaro irabaziak! Dakusguz etse asko ondaturik yokoagaitik; dakusguz, begiratu bagarik familia, zor eta pobreai, yokatuten dabeela edozein diru; trabesean iminten dituezala lau, zortzi, amar, eta ogei errealgiño, baita askotan geiago bere bai: dakusgu egiten dala yoko eragotzietara; yokatuten dala permitidurik dagoanen ganetik. Guztiok dakizue yokoan botetan direala biraoak, esaten direala berba garratz eta astunak, egiten direala yuramentu guzurrezkoak: guztiok dakizue yokotik datozala geienetan errieltaak, areriotasunak, ezin ikusiak, lapurretak, ordikeriak, eta beste ezin esan leizan gauza deunga asko. Baia, nor akusetan da gauza onen ganean? Nok begiratu egiten deutso yokoari pekatu askoren sustraigarriari legez? Nok artuten dau yokoa bear leitekeana legez, Jaungoikoa serbietako? Nok egin daroa bear litzatekean eskupulua yokoan galduten dan diru ta denporearen ganean? Nok atsera emoiten dituz yoko larregiaz, edo eragotzirik dagoanagaz, edo tranpakaz eroan dituzan diruak? A, neure Kristiñauak, ze zori-onekoa izango nitzatekean adietan emon al baneizue yokotik datozan kalteak, egiten direan pekatuak, eta yatorkuzan zorigogorrek, au yakinik itxi dagioezuen ekandu gaisto orreri. Baia ez egizue uste izan nik onegaz esan gura dodala guztiz yokoari isteko; ez eguño yokatuteko: ez eztirautsuet nik orrenbeste; ze egia esateko, gurago neunke yaiegun arratsaldeetan Errosario santua esan ezkerro, Besperak amaitu ezkerro, ta beste, Yaiegunari datorkiozan gauzaak egin ezkerro, gura neunke, diñot ostera bere, danza fiesta eta ibilera deungai itxirik mutilak mutilakaz, gizonak gizonakaz, andrak euren artean dibertidutearren *Abe-Maria* bat edo beste, edo lauzirilaumarai yokatuko bazendue: bada yokoa bear dan moduan aldian bein arturik izan leiteke Jaungoikoa serbietako, arnasa apur bat artuta gero lengo bearretara ta

norberen zereginetara indar eta enda geiagogaz biurtuteko. Nik esan gura dodana da alde egin daizuela Jaungoikoaren ofensea dagoan yoko egiten direanetik, eta begiratu daizuela zelangoak izan direan orain artean zuen yokoak, ze ameneko eukiko dozue eurakgaitik zer emon Jaungoikoari kontu estua, baita bere euki zinai zer egin errestituziñooren bat, eta iñooren gauzea atsera emon bearra: Eta alan itandu konfesore yakitun arima-zale danari zer egin bear dozuen yokoko irabazien ganean.



19. MURMURAZIÑO EDO IÑOGAITIK DEUNGARO ESATEAREN GANEKO IKAS-BIDEA

(B, 59-62. or.)

1. Eztago murmuraziñoa baño sarriago egiten dan pekaturik. Kristiñau asko ikusiko dira beste gauza guztietan pekaturik eztaukenak, mandamentu guztiak gordetan dituezanak, eta ardura andi bat daukeenak pekaturako bide ta pelleburuetatik iñesi egiteko; baia guztiz dira gitxi murmuraziñoan yausten eztreanak. Orregaitik diño Espiritu Santuak: nor ete da esanagaz pekaturik egin eztabena? Eta Santiago Apostoluaren aotik diño miña gordetan daben gizona santu bat da, ze onek bere gorputzeko alde guztiak zuzen erabiliko dituz. Alegina egin daizuen bada pekatu one-tarik alde egiteko adietan emongo deusuet zer dan murmuraziñoa. Da bada iñogaitik deungaro berba egitea berak ezantzula, edo gauza deungaren bat bere atzetik esatea. Esatea legez lapurra dala, urliaz pekatu egin dabela ta alangoak. Esaten dan gauzea astuna ta andia bada, pekatu mortala izango da; txikia, ta ezerezkeria bat baño ezta, beste batzuentzat astuna izan leitekeala. Mutil gazte bategaitik esatea guzurtia dala, ezta gauza andirik; baia esango balitz beste-onenbeste Obispo edo beste onango errespetogarriko personaren bategaitik gauza nagusia izango litzateke. Modu askotara deungaro esan leite bestegaitik, baia direanak zortzitan sartu leitekez. Lelengo guzurragaz gatxen bat esaten danean, edo ezta gauzea iñori eregiten yakanean. Bigarren go egia esan arren, zerbait geiagotu ta andituagaz. Irugarren go zabaldurik eztagoan gauzea iñori esanagaz. Laugarren go egiten daben gauzea leku txarrera boteagaz. Bostgarren go besteak egin daben gauza ona ukatuten danean. Seigarren go, beste persona batek alabetan dabenean, alan dala esan bearrean maleziaz ixilik dagoanean. Eta zortzigarren go iñoren gauza ona esan bearrean ixilik ixilik eta gorderik daukanean. Edozein bere modutan besteri bere izen ona ta fama galdu edo gitxituten badeutsazue osotu ta lengora biurtu bear deusazue.

2. Baia, Aita, esan daroe askok, nik iñori guzurrik erantadu ezteusat, besteai enzuna baño esan eztot. Bai nai neure Kristiñauak: ixilik egoan gauzea, edo publiku etzana besteai esanda zabaldu bazenduan, edo zabalduteko esku emon bazenduan galdu zeuntzan fama eta biurtu bear deu-

tsazu, Bakizu barriz, au zelan egingo dozun? Bada burura ekarri egizu, ea nori, eta noen aurrean esan zenduan deungaroa, eta eurentzen aurrean esaizu edo guzurra zala alan bazan, edo etzenkiala orduan ondo zer esaten zenduan, errazoerik etzeunkala urliazgaitik esan zenduan gauza atan; edo beste al daizun ondoen. Baia Aita, nik ezpaneban eregi, eneban neure burutik atera, enzun egin baneban. Ezteutso; ze zuri enzun eutsuenak ezpekien eta beste aldetik zabaldurik ezpegoan, zeurea da, besteari bere izenean yatorkan kaltearen errua. Eta bardin beste aldi baten publiku izan arren, zuk esan orduko aitzurik beegoan, pekatu egin zenduan eta biurtu bear deusazu fama galdua. Baia, Aita, egia zan, neuk ikusi neban. Bai nai; egia bada bere noberak dauko eskubidea edo deretxoa ez zuk ta ez iñok bere (kreitua) fama galdu ez dagion, egin daben gauza deungea zabaldurik eztagoan artean. Eta alan ori esanagaz pekatu egin zenduan, eta ezin parkatu leikezu (pekatu ori kreitua) fama osotu, biurtu ta aleginez lengo senean iminteko gogorik euki ezik.

3. Beste modu bat euki oi dabe askok deungaro esateko esan gurazik, edo esan gura eztabenena eginik; baita da sarri askotan ikusi doiana. Ara zelan. Dagoz lau edo bost iñogaitik deungaro esaten, baita urteiten dau beste batek: Zer! (orrek mirariz betetan zaituez?) Orrek ikaratuten zaituez? Esango banituz, bada, nik dakidazan gauza batzuk; Baia gagozan ixilik, ze orretarako obeak dira: Eztaigun murmuradu. Besteak yakin gureagaz itanduten deutse ea zertzuk direan (bada) ain ixilik euki gura dituzan gauzaak. Berak, barriz, erantzuten dau: Ara, esango banituz arri-turik geratuko zinatekeze, etzeunke sinistuko bere (egingo); etzaituedaz eskandalizadu gura: itxi daiogun (bak-bakean) ixi isilik, eztaigun murmuradu. Auxe bai dala karidadea! auxe bai besteari ondo egin gurea, edo kalterik arean bere ez egin gurea! Auxe bai. (obeto esango dot) auxe bai dala infernuko susterra! Ezteutsazu azur osorik itxi, eta eztozula murmurau gura? Esaizu esango dozuna, ze kalte gitxiago egingo zeunskio dakizun guztia esanagaz berba erdi orrekaz baño; bada bear bada besteak diñoena baxen gitxiago izango da, eta ixilik egote-barritsu orregaz sinistu eragiten deutsezu danzuenai ikaragarritzko pekatuak egin dituzala. Onelangoak geienetan pekatu mortala egin daroe. Beste batzuetan yazo oi da egotea batzuk edonogaitik ondo esaten: urlia kristiñau on bat da, debozino andikoa; ezta taberna zalea bere, beti daki egia esaten, eta beste onik asko dauko orrek. Elduten da beste bat, eta asten da irribarretxuka, ta buruari eragiten, erruki bailitzan legez engañadurik dagozalako, izanik alabetan dabena gizon galdu ta deunga bat. Onegaz egiten deusan kaltea andia bada, egiten dau pekatu mortala, eta txikia bada, pekatu beniala. Beste



batzuk ain dira miñ deungakoak eze, eztago eurentzat gauza onik, besteen egitada ta obrarik onenen ganean (beti) dauke zer esan. Astegunean, Meza enzuten badaude, oba leuke etxeko ardurea euki, diño; errezetan badaude, simple bat da; danzara edo plazara ezpadoa, ez gastetearren egiten dau; tabernara, yokora ta bideune txarretara elzean ezpada zekena ta eskuetsia dalako; berba egiten badau, betiko barritsu bat da; egiten ezpadau, barriz, motz-illuna; baita miraririk andienak egiten ikusiko balebe bere, esango leuke sorginkeriak direala eta diabrukeriak. Onelangoak Fariseoak leezkoak dira, zeintzuk J.K.º geure Jaunak egiten zituzan gauzarik santuenetan, eta miraririk andienetan eukiko eben zer-edo-zer zer-esan. Baia Jaungoikoak berak diño, zorigaistoak direala onari deunuea dirautselako.

4. Deungaro esatea geienetan asi oi da ondo esanagaz, eta auxe da askok egiten deuten sartzaierea, ta aurreko berbea Urli! gizon on bat da, ezta lenengoan tabernan ikusiko; gizon arteza da, eztau iñor engañauko; (gizon) prestua da, mesede bat edozeineri egingo deutso; baia... Urlezial sarri konfesadu ta komulgadu doa, beti dago errezetan, al daizan mezaak entzuten dituz, eneunke besterik adiskidetzat gura; zintzoa da; baia... Zorigogorreko baia! Infernuko benenez beteriko baia! Asierako alabanza egin ezkitiño uste dabe (ze) ezkala ezer edozein gauza esatea, baita baderitxe bein iñogaitik ondo berba egin ezkeru, baukela deungaro egiteko eskueskunea: eta alan zorigaistoko baia-zen [sic] osteian asten dira esaten dakiena, ta eztakiena. Ezer ikusi badeutse antxe zabalduko dabe; ezer enzun badabe antxe aterako dabe; ezta itxiko ezta buruak emon deutseen juzgu txarra ez sumea bere: azkenean, barriz, sinistu eragiteko esan dabeena, ezer-ezean legez esan daroe: ara, ezteust niri gatxik egin, eztaukat ezer beragaz, eta alan ezteusat nik gorrotorik; nigaitik izan bedi gura dabena langoa, eztoat ezer (orretan): baia ezin egia esan bagarik itxi neike: eztakit nik zetako direan ainbeste errosario, ainbeste konfesiño ta komuniño: oba leuke bere etxeko ardurea euki, ta itxi, egiten dituzan tratuak. Santua, santua: nai dabena egin ezkeru edozein da santua; eztot nik alan go santidaderik gura. Modu onetan ezteutse saietzik osorik itxiten. Baki-zu, barriz, zer egin dozun orduan? Palanka bat lurrean sartu gura dozunean egiten dozuna. Zuloren bat lurrean egin gura dozunean, palanka bat artuta, gora eregiten dozu. Baia zetarako? Ez an goian itxiteko ezpabere lurraren barruan sartuteko, eta zeinbat eta geiago sartu gura dozun, ainbat eta antza geiagogaz gora egiten dozu. Bada onenbeste egiten dozu deungaro esate orregaz, murmuraziño modu orregaz. Eregiten dozu ondo esanagaz, ez bertan, goian isteko, ezpada lurpean ondatuteko eta zeinbat eta gauza deunga geiago esan gura dozuzan ainbat eta geiago ala-

betan dozu. Ez, Aita, olango gauza astunik, simplezaren batzuk esan dira, etxako gatxik etorri. Eta, deritxazu ori sinistu lekikezula beti? Ai Kristiñauak, bein deungaro esaka abiau ezkeru ezta erraz gauzarik andienak esan bagarik itxitea. Batak esaten dau gauza bat, besteak beste bat, eta, miña berotu ezkeru, ezta ezetara begiratuten. Simpleza bat diñozu? zer da urlia neskatilla emeko edo ango mutilagaz dabilela? Bestea seindun dago-ala? Arako gizona lapurra dala, arako emekumea anra galdu bat dala? Bada olangoak izan doaz murmuraziño, ta deungaro esate geienak. Baita oneek kreituko gauzaak ez al dira? Ezpadira eztakit nik zer izan lietekean. Eta esan egidazue edonos enzun dozuenean iñok zugaitik esan dabela, zuk bestea gaitik esan dozun gauzea, zelan artu dozu barri au? Ze aserrak orduan! Uste izan dozu ze kreitua galdu deusuela, eta daukala biurtuteko obligaziñoa estua, eta au egin ezik ezin salbau leitekeala: eztaukala konzienziarik. Eta ara non daukazuzan zuk neurri bi; batagaz neurtuten dozuz zuk besteak gaiti diñozuna, eta orduan da gauza txikerra: bestea-gaz, barriz, zugaitik dinoena, eta izan arren gauza bera, urteiten deuszu guztiz andi ta onrakoak. Neurtu egizuz neurri bategaz eta ikusiko dozu bardinak direala.

5. Ezteusat egin gatx andirik, esango dozu ameneko, ze persona baten bakarrik esan deusat. Ai Kristiñaua, alantxe zabalduten da. Persona batek zuri esan eutsun, zuk besteari, besteak bere badauko bere satisfaziño bat, esango deutso eta gitxien uste danean, urtengo dau kalearen erdira. Tella batek artuten dau euria, eta guztiz ixilik emoiten deutso urrango tellari, eta alantxe doa aurrera tellarik tella, eta gitxien uste danean yausten da kalearen erdira, guztien begietara. Aita, esan neutsan ixilik eukiteko. Ai Kristiñaua, zuk ixilik euki ezin izan dozu, eta gura dozu besteak euki daizun? Gura dozu ganeko guztiak yakin dagien adiskideari dirautsazun gauza ori, ala ez. Gura ezpadozu zetako da esatea? Eta gura badozu yakin dagien, zetarako dirautsazu iñori esan ze dagiola? Ondo ondoen da ixilik eukitea; eta alan diño Espiritu Santuak: enzun badozu berba deungaren bat bestearen kontra, ixilik euki eikezu zure barruan, bada ezteutsu orregaitik errebenta-arazoko. Azkenean barriz eranzuten dabe murmurariak eztaukela gurari edo gogo txarrik, ezteutsela gatxik gura. Baia esan egidazue, Ze gogo deusazue bada, murmuretan dozue-nea? Zetako deungaro esaten dozue? Ete da ondogura deutsezuelako, edo onen bat etorri dagion? Eztakit, Kristiñauak, ontzat eroango zeun-kean: dakuskuna da, zuek gaitik beste ainbeste esaten danean eztozuela (uste) izaten borondate onik deusuenik, bada orregaitik ezteutsue iñok sinistuko zuei bere eztaukezuela borondate txarrik. Baia, borondate tx-



rrik euki ez arren bere pekatu egingo dozue, eta pekatu au izango da zelan dan diñozuen gauzea, mortala gauza nagusi edo kreitukoa bada; barriz beniala txikia bada eta dana dala biurtu bearko deutzazuez datorkiozan kalteak, baita andiak badira ezingo dozue ain bagarik zerura yoan.

6. Murmurazioa, Kris.k, edo datoz inbidiati edo bestearen gorrototik ze eztoгу gura izaiten gure adiskideagaitik ez bakarrik deungaro esan, ezta deungaro esaten dan lekuan egon gura bere, eta orregaitik zeinbat eta aserreago dagoan norbait lagunagaz, ainbat eta gozoago yako murmurazioa, eta guztiz atsegin andi bat artuten dau enzuten dabenean besteak bere arerioaren kontra dagozala, eta alan su geiago artuten dau, eta gurako leuke aurrera doazan. Baia ondo begiraturik onelango murmurarialiak ikusiko leuke euren buruai egiten deutsela kalterik andiena, bada euren arerioai famaazauririk egiten badeutse andiangoak ta kruelagoak dira euren arimetan egiten dituezan zauriak: eta guztiz da andia euren ganean yausten dan Jaungoikoaren aserrea, eta alan diño J.K.°k: ez egizue iñor juzgadu, ta ez zare juzgaduak izango. Esan egidazue, Kristiñauak, zetan dago zuen zorientasun guztia? Azkenengo Judizioan ondo urteitean; ezta alan? bai, ze, an sententzia ona emoiten baiatzue, betiko zorionekoak izango zare zeruan; baia emoten baiatsue kondenaziñoko sententzia, galdu zinen bein betiko. Orain bada, guztiz yatsue erraz orduan sententzia on bat eukitea. Bakizue, gero, zelan? Bada ara, J.K.°k berberak dirautsue; Zeuen lagunak neurtuten dozuezan neurriagaz, neurtuko zaituezala zeuek bere orduan. Zeuen lagunakgaitik bigun eta errukiz artuko zaituez zeuek bere Jaungoikoak: barriz gogor ta erruki bagarik (pensadu ta) juzgaduko zaituez Jaun onek, arako zeuen bizi guztiko kontua artuteko dei egin daizunean. Kris.k, ez gaitezaz zoroak izan; begiratu daigun ze pelleburu ikaragarrian iminten garean iñogaitik deungaro esaten dogunean, baita auxe bakarrik izango da asko geure miñak iñoen kontra ez zorrozteuteko: au eginagaz gizonak eurak amadu edo maitetuko gaituez, Jaungoikoak begiratu deusku bere seme maiteak legez, biotz bigun ta errukiorragaz egongo da bere lekuan legez bakea, poza, ta grazia.

20. [ZORTZI-GARRENA EDO MURMURAZIÑOIA]

(J, 97-104. or.)

Custodite ergo vos a murmuratione quae nihil prodest,
et a detractione parcite linguae quoniam
sermo obscurus in vacuum non ibit.
Sap. cap.I. vers.11.

Eztago munduan besteak gaiti deungaro esatea baño zabalago dabilen pekatuak. Ederto baten diño onen ganean S. Paulinok: «Gitxi ta gitxi dira (diño san Paulino-k) ekandu gaisto au artuta eztaukeenak; eta nekez aurkituko dozu bere bizitzea ain modutan zuzenduten dabenean zein da besteen bizitzai eragin bearko ezteutsan; eta onenbestean yarraituten deutse gizonai besteak gaiti txarto esateko lera gaisto onek eze, beste ganeko pekatuetati alde egin dabenean bere onetan atzenengo lakioan legez nastitu eta katigatu (eta yausi) bearko dira». Baia Yangoikoak berak onen ganean kontuan iminten gaituz eta dirausku: «begira murmurereagaz, eze ezta ezetarako bere ona, eta ez iñogaitik deungaro esan, bada atzetik eta aopean esaten dan berbea bere ezta kastigu bagarik izango. Alde egin dagizuen bada zeuek pekatu onetarik, nik esango deusuet orain murmuraziñoaren ganeko doktrina.

Da murmuraziñoa iñogaiti deungaro esatea berak eztantzula, edo iñoren atzeta gauza deungaren bat esatea; esaten danean legez bata yuramentu okerra egin dabela, bestea ordia dala, besteak lapurretan egin dabela, neskatillea seindun dabilela eta alangoak. Esaten dan gatxagaz besteari kleituan biziro ukututen baiako, izango da pekatu mortal astuna; baia kalte gitxi egiten baiako, pekatu txikia baño ezta izango. Baia ori igarteko, etxako berbeari bakarrik begiratu bear; eze batentzat esanda, berba txikia dana, besteentzat bear bada berba andia izango da. Soka lodi baten emoten yakan moropilla (gorapilla, tornua) laster da askatuta; baia emiozue sedaari mee bateri moropil estu bat, eta, ea zelan askatuten dozuen? Alan-txe da bada deungaro esanagaz bere, nogaiti eta zer esaten dan. Esatea mutil koxkor bategaiti, edo gizon barritsu barbullo bategaiti guzur utsa dala, alde guztietati guzurra dariola, ezta gauza andirik; baia beste orrenbeste esango balitz Obispo Yaunagaiti, edo beste alango lotsa ta geriz andiko bategaiti gauza astuna eta zakona izango litzateke.



Alde askotara pekatu egin leiteke deungaro esanagaz; baia guztiak, edo bai geienak datoz orain nik, San Tomas-eri artuta, esango deutsueda-netara. Lelengo besteren bategaiti berak egin eztaben gatxen bat esaten danean, edo guzurra asmetan yakanean. Onen ganean pekatu egin daroe mutil askok, zeintzuk ezkontzako berbea emonda, damutu baiake, euren buruak garbitutearren, neskatilleari milla guzur asmetan deutsezan: beste-gaz adiskide izana dala, yzoa dala, eta onelangoak. 2° Pekatu egin daroe neskatilla ez gitxik zeintzuk eurak dakienaganik seindun sortu ezkerro, gauzea daukanari, edo senartzat gura leukeenari errua ezarten dakien. 3° Egin daroe kerella eta kontrakerellak ekarten dituezanak; edo auzitan dabiltzazanak, eurenagaz urtetearren auzi-lagunari egin ez ebana, esan ez ebana ezarten deutsenak; baita bere euren alde, bear bada tragu bat ardaogaiti; guzuraren ganean yuramentu okerra egiten dabeenak. 4° Egiten dabe norbategaz aserratuta umea edo senarra gaixotu baiake, edo kalteren bat etorri (baiake), bestea sorgin egiten dabeenak. 5° Pekatu egiten dabe etsaguntzaren baten euren buruak sartuteko asmuagaz, ugazabagana doazanak milla guzurregaz lengo errentadorearen kontra. 6° Pekatu egiten dabe bere neskatillaren bat gaixoki eta moteltxu ikusten dabeelako beingoan asten direanak, ak nonbaiste bere seindun izan bear dabela. Bost onetariko bada eregiten (esantetan, irakoriten) dira errietan, baita ondo arin, eta ardura andi bagarik.

Bigarrenengo: pekatu egiten da egia izan arren esaten dan gauzea, geiagotuten eta andituten bada. Ikusi dozuz bein neska-mutil bi alkarregaz modu txar andi bagarik berbeetan; eta beste bagarik atatik asten zara zeu zabalduen, orreek adiskideak direala, neskatilla ori (bero dabilela) itzalak botata dituzala, orreek nonbaitean (aurkiz) ezkontuteko izaratxua bearko dabela eta olangoak. Bada pekatu egin izan dozu. Ikusi zenduan bein gizonen bat edan zamar, epel eta txoromorotxu, eta geiago bagarik esaten dozu a gizona ordi konkorr bat, eta edatun galdu bat dala. Bada pekatu egin izan dozu. Izan izango dau batek seigarrenekoan argalkeriaren bat, eta diñozu zeuk, ori neska-zalea, edo mutil-zalea dala. Bada pekatu egin izango dozu.

Irugarrenengo, pekatu mortala egiten dabe ixilik dagoan gauzea ezta-kianari edo ezta-kienai esaten deutseenak. Otsein batek ostu izango dau zerbait etsean, eta ugazaba andreak ez bakarrik etse guztia beera ekarri bearko dau; eta etserik kanpora bota bearko dau, baita bere guztiai iragarri bearko deutse zegaiti dan ta zegaiti eztan. Bada pekatu egiten dau ugazaba andra orrek. Ukatuten deutsu iñok zorra edo emon zeuntzan gauzea: baia berak eta biok baxen ezta-kizue. Bada pekatu izango dozu bes-

teai esaten bazabiltz. Izan izango dau mutilen batek errakuntzaren bat neskaren bategaz: baia, oi dan legez, ixilean eta biok baño ezta-kia. Bada mutil orrek esaten badau agaz zer izan daben, pekatu mortala egingo dau.

Eta ez (egizue) uste eze or batek edo bik, edo alango banaka batzuk yakin ezkerro, edo baten edo besteri aopean eta ixilik entzun ezkerro, iya zabal dabilela gauza ori. Ez beintzat, eztago alango legerik, lagunaren kleitua aotan erabilteko. Ea ezpabere, gurako zendukee zeuek bear eztanen bat eginda, bik edo iruk dakielako, orreek zabalduko baleutsue? Bada orretati atera bear dozue, zeuek besteakaz zer egin bear dozuen. Nos pekatu eztan ixilik dagoan gauzea bear danari esatea gero entzungo dozue. Ixilik dagoan gauzeagaiti esan dodana, esan bear deutsuet guztiak yakin arren, aztuta legez dagoanagaiti; zeuek esanda, barriztetan badozue, pekatu egingo dozuela. Alan pekatu egin daroe, iñor ezkontuteko dagoanean, dakiezan aren gatx eta oker guztiak, aztuta lo legez dagozanak, barriztetan eta palonbretan dituezanak.

Laugarrenengo: Pekatu egiten dabe, batek esan daben edo egin daben gauz'ona, edo ez deungea, deunga egiten dabeenak. Badira munduan asko ta asko ain miiñ zitalekoak eze, eurentzat eztago ez lagun onik, ez gauza artezik. Ezteutse iñori bere parkatuko ez gizonan ez mutilan, ez andreak ez neskatilleari; ez abadeari ez fraileari; ez iñori. Eztago eurentzat ondo eginik dagoan gauzarik. Ikusten badabe iñor astegunetan mez'entzuten, (esaten dabe) oba leuke(ala) etseari ardura ohea artuko baleutso. Erreztan sarri badiñardu, simple bat da. Limosna-gin ona bada, bere burua santu egitearren ta ontzat euki dagien egiten dau. Tabernati, yokoti eta bide gaistoetati alde egiten badau, zekentasunak eta eskueutsiak eragiten deutso. Yolaser, erromeriara, dantzara ezpadoa, simple ta zoro egiten dabe. Eta nago eze, balekuse oneek bat edo bat mirariak egiten, esango leukeela sorgina dala, gaiskiñak dituzala. Onelangoak Fariseoak legezkoak dira, zeintzuk Jesu Kristo geure Yaunak egiten zituzan gauzarik santuenetan eta egikunerik andienetan bere, beti izan bearko ebeen zer-edo-zer zer esan. Baia euren zori-gaistokoak onari deungea esaten deuselako.

Onenez ganeti pekatu mortala egiten dabe iñoren ona ukatu egiten dabeenak, iñok besteren ona esaten diñarduanean ontzat emon bearrean, gaistoz entzuterik eta sinisterik emoten ez deutsenak, edo besteren ona esan bear ta, otz-otzik eta erdi-esanean baxen esaten eztabeenak eta olangoak. Baita bere pekatu mortala egin lei siñuakaz, begi-kiñuakaz, barregaz, irri-barregaz, destañakaz eta onelangoakaz, adietan (ulertuten) emoten bada besteren pekatua, edo ukatu egiten bada besteak egin izan daben gauz'ona. Onek dira deungaro esateko dagozan modu argiak eta agiriak;



baia? zeinbat beste modu eztagoz estalduak eta edertuak besteai orpoak yateko? Zeinbat apaingarri ta estalgarri asmetan eztira norberen buruari sinistu eragiteko bere deungaro esatea pekatu ezta? Diabruak onelango edergarriakaz galdu ze zagiezan orain iragarri bear deusuedaz onetariko batzuk.

Batzuk, bada, berba egiten dabe iñogaiti pekatu andia eztan gauzearen ganean, baia zearretara legez adietan emoten dabe pekatu andia dana bere; orregaiti bere orren ganean argiro egin eztabeelako uste dabe eze, eztabeela alango berba-ikuneagaz pekatu andirik egiten. Ara emen askotan baño geiagotan entzun oi dana. Batzanduten dira andrakume bi edo iru eta birautso bata besteari: «eztozu ikusi urlia neskatillea? Eguno! ni ikaraturik gelditu nas, ikusirik zelan dabilen ain ederrik eta apaindurik. Eztakit nik nondi nora daukan orrek orrenbesterako: bere gurasoak guk bazauguz, aek eztauke zer emon andirik, eurak artuko leukee baleukee: soldata uts bat orrenbesterako ezta. Bada, nondi irabazten dau orrek alan ibilteko? Nik eztakit. Gu beintzat bear ta bear (arrastaka guztiak) eginda bere, ezkara ez orrenbesterako ez eze ezta gitxiagorako bere». Onetan lotuten da (geldituten da) euren berba-ikuntza guztia, eta geiagorik esan eztabeelako uste dabe eze, eztabeela kleituko (murmuraziño) gauza andirik (erabili) esan, eta konfesiñoan itanduten yakeenean ea kleituko deungaro andirik esan badabe; beingoan erantzun oi dabe: «ez Jauna; or yanzen ganeko guztiak dakien gauza bat esan dot; baia ez iñori oratuko yakan kleituzkorik». Baia gauzeari ondo begiratuten baiako ezta ori egia.

Ea ezpabere, zer esan gura dau gurasoak zer emon andirik eztaukeela; soldatea orrenbesterako ezta; eztakizuela nondik daukan alan ibilteko? Esan gura dau edo adiskideren bat daukala gauzea emoteko, eta ez adiskide on ona, edo ostu egiten dabela: edo seigarrenekoti edo zazpigarrenekoti egiten dabela. Eta ori kleituzkoa ezpada, eztakit nik zer izan leitekian. Egia da batzuetan neskatillaak eurak olangoak esateko bide andiak (larregi) emoten dituezala, soñari bear leukeen baño geiagi emonda; baia alde onetati laburtuten ezpada pekatua, gauzea bera berez kleituzkoa da, eta pekatu mortala izango da orreek alan esatea. Eta dana dala beti da oker egina besteai atzea yaten eбилtea. Berak egiten badau, berak Yaungoikoari kontu emon bearkeo deutso; zeuei ezteutsue ezer, eta an dabela bere oker eginagaz.

Beste batzuk deungaro esan daroe deungarorik argiro esan bagarik, eta esan gura eztabeelakoa eginik. Ara zelan: Egongo dira lau edo bost iñogaiti txarto esaten, eta urtengo dau besteren batek: «zer? ori baño ezta-kizue? Bestelako! ori ezta gauza. Esango banituz, bada, nik dakidazan

batzuk... Baia gagozan ixilik, orretarako obeak dirata: eztaigun murmura-du». Besteak yakin gureagaz itanduten deutse, ea zertzuk direan ain gorderik euki gura dituzanak. Berak barriz erantzuten dau: «Ara, esango banituz gogorturik eta ikaraturik geldituko ziñatekeze; etzeunkeez sinistu bere egingo; etzaituedaz ezkandalizadu gura; eztaigun murmuradu». Bai orretan, eztozu murmuradu gura; eta bestearen okerren bat argiro esan ta agertau eztozulako usteko dozu eze, pekatu andirik egin eztozula; baita orretarako pekatu geiagi egin dozu erdi berba ernari orregaz, dakizuna esanda baño: bada bear bada besteak diñoena baxen gitxiago izango da guztia, eta ixilik egote barritsu orregaz sinistu eragiten deutsezu dantzue-nai ikaragarritzko pekatu eskergeren batzuk dakizuzala.

Beste batzuetan yazo oi da egotea lau edo bost norbait alabetan. Elduten da beste bat, eta abietan da irribarreka buruari eragiten, erruki baleutse legez atan (engañadurik) dagozalako, eta dirautse: «ori alabetan zagoze? Eztaukazue beintzat zer egin txarra. Bazenkie bada, nik legez, nor dan bera, etzeunke orretan denporea galduko». Ementxe itxiten dabe guztia bertan bera, edo geien geien bere erdiz erdizko berba apurren bat baño esaten eztabe. Baia berba oneekaz galdu eragiten badeutsee alabetan egozanai besteagaiti eukeen uste ona eta sinistu eragiten badeutsee deungea dala, pekatu mortala egin dau.

Deungaro esatea askotan asi oi da ondo esanagaz, eta auxe da askok egiten deuten sartzaierrea, eta aurreko berbea. Eta bein alabantzea egin ezkeroko uste dabe eze, ezta ezer edozein gauza esanagaiti. Alan ateraten dabe dakien eta eztaorien guztia. Ezer ikusi badeutse, ondreako izan arren, eta bestek yakin ez arren, antxe argitara urten bearkeo dau. Ezer entzun badabe antxe zabaldu bearkeo deutse. Ezta onelango batek esan bagarik itxiko ezta bere buru txarrak emon deusuan susma deungea, edo peko gaiztoa bere, eta besterik ezin dabenean, bestearen gauza ona leku txarrera ezarri (deungera yo) bearkeo dau, eta esango dau, ak baakiala zegaiti dabilen, ak baakiala zegaiti egiten daben; eta ezta urregorria argi egiten daben guztia.

Alan entzungo deusazue onelango baten esaten: «Urlia! ai! ze gizon ona dan! Eztozue, ez, ori tabernatan ta yokoan ain laster ikusiko. Ezteutsu orrek egunik itxiko mez'entzun bagarik: ezta luzaro egongo konfesau ta komulgau bagarik. Gizon zintzoa ta prestua da: adiskide baten mesede bat egiteko eztau orrek iñoren bearrik. Eneuke nik gura bera baxen adiskide obarik». Eta onen osteian esan bearkeo dau, zorrai erantzuten ezta-kiala, umeakaz ardura gitxi daukala, nondi-gura ta nogaz gura ibiltzen itxiten deusela, saldu-erosietan al daben guztia eroatearren ezer ezteutsala,



iñok ezer egiten badeutso kerella bat ekarri bagarik izango ez tala, eta one-lan irabiotu bearko dituz onzi bete gauza.

Onelangoak, diño Fr Luis beneragarri Granadakoak, direala sangria egin, eta odola ateraten dabeen ofizialeak langoak (legezkoak). Ofizialeak gaixoari odola aterateko, lelengo besoa ondo igotzi, labandu eta leundu egiten deutso, eta gero erruki bagarik (trast) zart, zana urratu eta odola atera. Alan egiten dabe oneek bere, lenengo ondo esanagaz igotzi ta labandu, eta gero deungaroagaz ebagi ta manatu. Eta azkenean ofizialeak egin daben zuloari legez, eurak bere esan daben deungaroari euren txaplatatxua ezarri bearko deutse. «Ara, esango dabe, niri eguño bere gatzik egin ezteust onek; eztaukat nik beragaz ezer (arean), nigaitik izan bedi gura daben legezkoa; ez yoat niri orretan ezer: baia nik ezin itxi nei egia esan bagarik. Eztakit nik zer egiteko direan ainbeste konfesiño ta komuniño, ainbeste errezu: oba leuke etseari ardura obea artu, daukazan tratu moduak itxi, eta puska bat umillago izan, gura daben guztiagaz urteteko temak artu bagarik. Santua, santua... Neu bere santua izango nas, gura dodan guztia egiten itxiten badeuste. Eztot nik olango santutasunik gura...». Aror zetan geratu dan lenengo alabantza guztia. Baia, ail zeinbat pekatu ikaragarri artu daroen onelangoak euren lepo ganean! Ezteutse garbietan euren pekatua, ez aurrengo ondo esanak, ez azkeneko txaplatadeak.

Baago deungaro esateko beste modu polit bat bere, eta da norberen burua Jaungoikoaren amodioan erre ererik erakutsita, edo bestearen errukiz bete beterik dagoalako eginda, eta onetan yausten dira asko beste aldeti onak direanak, eta sarri konfesetan direanak bere. «Au bai mundua! esango dau batek. Eztakit ni zetan yo bearko dogun. Ezin iñogaz bere fiau lei. Josus! nik entzun dodana... Nekez sinistu bere egin lei... baia urlia mesedeak ain lekutako neskatillea beterik ei darabil. Eguño! Alango gizonak ori egin bearra! Ori orreek egiten badabe, zer egingo dabe gero besteak?». Eta alan esan bearko dituz bataren adiskidetasun loa, bestearen izorra, bestearen seiñ-galdua, edo iñora botea, bestearen edana, bestearen lapurretea, bestearen aserrakuntzea, eta beti orreek egiten direalako biotzean min artuko baleu legez; eta usteko dau eze, orreek alan esanagaiti ezabela pekatuak. O Diabruaren itsumendi negargarria! Onelan atrape-tan dituz gaizkin zital onek, arrañak, karnadeagaz estalduta dagoan amua-gaz, artu oi direan legez, osterantzean galduko ez leukezan arima asko.

Azkenetako itxi dot besteak baño oraindo txarrago eta kaltegarriago dan deungaro esatea, eta au da enbusteria. Errietan izan oi dira txismeru enbustere-enbustera bake galtzailleak. Oneek batzuetan egiagaz, beste batzuetan guzurragaz, batzuetan ikusi edo entzun dabeenagaz, besteetan

azalak emon deutsenagaz, batari ondo-gura baleutso legez, bestea kon-tuan imini gura baleu legez, besteari konseju on bat emon gura baleutso legez, esaten deutseez adiskideen, auzoen eta senideen artean nok zer esan daben, ta zer egin daben, alkarren kontrako berbaak. Batari esaten deutse [sic]: «Zeugaiti urliak au ta au esan eban». Besteari: «Zeure lepoti, bai, urlezia olgau zala! Berein barre gozo egin zituzan aurtemin zeure gau-zakaz!». Beste bateri esango deutse: «Zeure senarra (edo emaztea) ulin aiñagaz egontzan atso». Beste batzuetan esango dau: «ona daukazu urlia... Oraindo ez ei deutsu atan itxiko... Jesus! Aren miña!... Neu lotsatuta egon nintzan ak zeu gaitik esan zituzanak entzunda. Beintzat gauza [sic] arima gaistoaren yaubea da bera. Nik alangoari auxe ta auxe egingo neuskio...

Onelango esanakaz iminten dituez bata besteen kontra, eta sartuten dabe etseetan gerra bizia. O zeinbat senar-emazte leen euren bake onean bizi zireanak imini oi dira alkarren gorrotoan, eta txakur-katuak legez arkal ezin eroanik otseñ zitai bategaiti, edo beste miñ-gaistodun bategai-ti! O zeinbat ezkontza eder galduten dira, Jgoikoz egingo zireanak! O zeinbat auzo leen adiskide zireanak gelditu oi dira arkal ezin ikusirik, eta arkalen gorroto gogorrean! Ez arren entzuterik emon onelango miñ-gaisto-labanai, zeuen bake onean bizi gura badozue: bada Jgoikoak berak diñoan legez onelangoak errietati garbituten badira ezta aserririk ez errietarik izango. Ez egin burubagarik askok egin daroena, urdai zatia, bata ta bestea emon: ez neure Kristiñauak: ezpabere baster guztietako errendo, erezi, ipuin ta guzurrakaz etorriko yatsuez zeuen kalte txarrean.

Onek dira iñogaiti deungaro esateko dagozan modurik yakinenak, eta eurakaz besteari kleitua gauza astunean galarazoten baiako pekatu mortal ikaragarrizkoa egiten da, eta atzera biurtu bear yako, eta aleginean lengo senean imini bear yako kleitu galdua, eta ori egin ezin parkatu lei pekatu ori, eta bitartean egiten direan konfesiño-komuniñoak okerrak dira, eta pekatu mortal eskergaak. Baia, zelan atzera biurtuko da kleitu galdu ori? Nok ori egiten dau? Ai! ori gatx baño gatxago da, eta munduan nekez ikusten dana. Bakutsue ze gatx dan pitxar bateko ura, bein lurrera utzitu ezkeru, atzera pitxarrera artutea? Bada oraindo gatxago baño ezta iñori galdu eragin yakan kleitua lengo oñean imintea. Eta alanbere Elexa-ko guraso eta teologuak dirauskue ao betean eze, iñondi al bada gura ta gur'ez egin bear dala, pekatua parkatu eta zeruko bidean sartuteko. Eta orregaitarrik baño ezpalitz bere, beti bildurpean ibili bear gintekez iñogaiti deungaro esateko.

Alanbere Jgoikoaren grazia lagun dogula, ezta ezingo dan gauzea iñori galdu yakan kleitua atzera emotea, eta orregaiti orain nik esango



deutsuet, ori zelan egingo dozuen. Guzurra bazan besteagaiti esan zenduena, esan bear dozue artez ta garbiro guzurra zala: eta alan siñistu gura ezpadeutsue, yuramentu egin ziñaikee sinistu eragiteko. Egia bazan baia zabaldurik ez egoana, orduan guzurrik esan bagarik esango dozue, etzen-duela ondo esan, etzenkiela ondo zer esaten zenduen, bear etzana esan zenduela, errazoerik etzeunkeela esan zenduen gauza atan, eta alangorik sinistu eztagiela. Beste modu eder bat dago ori egiteko, eta da orain ondo esatea leen deungaro esan zenduenagaiti, eta esan zenduenen aurrean, eta zeuen esana yakin dabenean aurrean. Baia ezelan bere ezin bada galdu zan kleitu ona atzera biurtu, edo aztu bazan gauza ori, eta gaurko egunean ilik legez badago, edo besteak beste aldeti bere kleitua irabazi beeban, eta alangoetan eztago olango kleitua biurtu bearrik. Konfessore yakintsu eta ondo aituten yakan batek esango deutsue nos, non eta zelan egin bearko dozuen guztia berari zuzen ta garbiro esan ezkeru.

Yakin bear dozue baia, ezjala beti pekatu iñoren deungaro egina agertutea. Batzuetan agertu bearra izaten da, eta beste batzuetan ondo da agertutea. Ofizialeak askotan epaia egin bear izaten deutso zaldar itsuari, eta zabaldu bear izaten dau osatu gura daben zauri erdi usteldua. Iru gauzatarako esan lei pekatu bagarik besteak egin izan daben gauza txarra; edo norberak zer egin bear daben yakiteko, edo ez dakianari kalterik etorri ze dakion; edo gauza okerra egin dabenean onerako. Alan zeuei iñok egiten badeutsue, edo egin gura badeutsue kalteren bat, edo ondo eztanen bat zein galarazo gurako zendukeen, itundu ziñaithekeze gauzea ondo aituten yakan bategaz, yakiteko zer egin bearko dozuen, orretarako agertu ta iragarri bearko badozue bere nor dan alango bear eztan okerra egiten deutsuena.

Alan ezta pekatu izango gurasoi esatea, eragotzi dagioentzat, umeen okerreriak, ibilkune txarrak eta adiskidetasun ez onak: ezta pekatu ugazabai esatea otseñen lapurretak, eta maña gaistoak: ezta pekatu izango Alkate Yaunari edo Fiel Yaunari esatea gabeetako gizonen batzaar deungaak, edo gazteen sartu-urten alan-olangoak: ezta pekatu izango Abade-maisu Yaunai esatea etseetako zer-esanak ta pekatu-bideak: ezta pekatu izango otseñ gitxi yakinai esatea lagunen edo ugazabeen ekandu gaistoak, eta emoten dakiezan deungerako bideak. Ezta bere pekatu (izango) iñok itanduten dabenean iñogaiti, edo ezkonduetako dala, edo otseña artuteko dala, edo beste alango gauza baterako, orretarako bear dana esatea, bestearen pekatua agertu bearko bada bere.

Onelango aldietan bada, eta alangoetan ezta pekatu iñoren deungaroak, yakinak eta ziurak izan ezkeru, esatea, galarazo leikezanari edo yoa-

kanari bakarrik, gorrotoz eta bengau gureaz ezpada, eta bai gauzaak ondo ikusi gura zintzoz. Alan da guzti alango orduetan ezta esan bear bear-bearra dana baño geiago, eta azaz gora kleitu astuneko gauza andirik esaten bada, pekatu mortala izango da. Itanduten deutsu ezkondu gura daben batek ea ain lekutako neskatillea ona bada, modu onekoa, egillea, eta bearingina (lagungin ona). Zeuk dakizu ak gaixoak errakuntzatxo bat izan ebal; baia gauza ori ixilik dago, eta zeuk eta alango besteren batek baxen ezta ki. Bada pekatu egingo zenduke olango erezia besteari iragarriko bazeuntso. Iñoren pekatua edo gauza deungea errian zabaldurik badago, eta guztien artean badabil, edo laster beste alderen bateti zabaldu bearko bada, ezta pekatu mortala izango erri atan orren ganean berba egitea; baia izan leiteke beste erriren baten zabaldutea edo zabalduteko bidea emotea.

Oneek alan dira; baia askok eztabe esan bear andirik bear izaten besteen kleitua bal bal zabal erabilteko eta edozeinegaiti bildur bagarik edozein gauza esateko, eta okerrago dana onelangoak gero ori zuzen konfisetako ardura andirik artu eztaero. Eta edonok nosbaiteko baten alangorik autortuten badau, izan bearko da milla edergarri zanzirik, eta atxagia alde guztietati dariola. Baia onelango atxakiakaz ezituezen euren buruak Jgoikoaren aurrean zurietan, ez. Ikusi dagizuen bada gauza eztierea ekanri oi dituezan atxakiak, orain nik banaan banaan alango atxakiai erantzungo deutset. «Yauna, esan daroe askok, nik iñogaiti deungaro esan dot; baia ezteutsat nik neure aragiari kendu; besteari entzuna, edo nik ikusia baño esan ezto». Bai gura badau, neure Kristiñaua; ixilik beegoan gauza ori, eta zeuk etzekien aurrean palonbrau bazenduan, pekatu egin zenduan; bada zeuk, eta ak, eta edozeinek dauko eskubidea iñok galarazo eztagion bere kleitu ona, egiaren ganean bere.

«Yauna, esan oi dabe beste batzuk, egia da nik deungaro esan dodana; baia ez alango gauza astunik: ezerezkeria batzuk baño izan eztira. Ez, ene deungaro esanak ezteutso iñori giarrean ukutu». Baia, deritxazue ori beti sinistu lekikezuela? Ai, Kristiñauak! Bein deungaro esaten abiau ezkeru, berbeak berbea dakar; batak bat esaten dau, besteak beste bat, eta miiña berotu ezkeru etxako ezeri bere begiratuten. Zer esan gura dau ezipabere, bateko neskatillea seindun dala, bestekoa urlia mutilegaz adiskide dala; emeko gizonak edo emakumeak lapurretan egin dabela, edo bear eztanagaz dabilela: angoak yuramentu okerra guzurragaz egin dabela? Eztira onek kleituzko gauza astunak? Niri deritxat eze giarrera bere elduten direala. Bada onelangoak izan oi dira geien, errietan izan doazan deungaro esateak. Eta esan egidazue, iños entzun dozuenan norbaitek (bestek) zeuek-gaiti orrenbeste esan dabela, zelan artu oi dozue barri ori?



Ai ze biotzketea, ze min zolia artu daroazuen biotzean! Ze su minak, ze aserreak artuten zaituzean! Esan daroazue arimarik eztaukala, kleitu guztia galarazo deutsuela, zeuen garbitasuna bear dozuela, eta emoten ezpa-deutsue infernu gogorra ikusi bearko dabela. Eta aror non daukazuezan pisu bi; batagaz pisetan dozue zeuek besteak gaiti esan dozuena, eta beti urteten deutsue gauza arina, eta besteagaz pisetan dozue zeuek gaiti besteak esan dabena, eta gauza bera izan arren, urteten deutsue gauza astuna eta pisutsua. Pisatu egizuez biak pisu baten, eta ikusiko dozue bat direala.

Beste batzuk esan daroe: «astuntxuak, bai, izan dira nik esan dodazan gauzaak, baia zabal ebiltzazanak; guztiak ekiezanak». Leen bere entzun dozue ezala asko gauza bat zabal (azal) ebilteko bost edo seik edo geiagok yakitea, erririk geienak ezpadaki. Baia eztago nok au askori buruan sartu dagioen, eta bein lagun artean edo bear bada lagun arte bagarik (edo ain bagarik) entzun ezkeru, non gura ardura bagarik esaten dabe. Baia ezta alan, eta pekatu mortala egiten dau iñoren deungaroa erririk geienak eztakiana, eztakianari esaten deutsanak, gauza ori zabaldueteko bidea emoten dabelako. Ai! onen ganean ardura eta bildur puskatxu bat artuko balitz, ez litekez ain laster zabalduko errietan iñoren etenak, ta errakuntzaak.

«Yauna, bada, deritxat eze, neure esaneti etxakala kleituan kalte andirik etorriko; bateri baxen nik esan ezteutsat, eta ari bere barruan eta ondo ixilik». Bada, Kristiñauak, alantxek zabaldu doaz gauzaak. Zeuri besteren batek ixilik esango eutsun: zeuk beste bateri ixilik esan deutzazu, ak bere izango dau bere kutunen bat nori ixilik esan, eta gitxien uste danean urtengo dau kalearen erdira errondo ta erezi txar orrek. Tellakaz euriari diñautsanean yazo oi dana: tella batek ixilik artuten dau zeruti euri tanteea, ixilik emoten deutso urrengo telleari, ak besteari, besteak besteari, eta alan eskurik esku legez elduten da ertzean dagoan tellaragiño, eta gitxien uste danean aror non yausten dan taska taska ots andiagaz itoxura kalearen erdira guztien begien aurrera. «Baia esan neutsan ixilik eukiteko». Zeuk ezin ixilik euki izan dozu, eta gura dozu besteak euki dagizun. A da zorakeria! Gauza ori gorderik egon dedin gura badozu, egizu Jgoikoak dirautsuna: «iñoren deungaroa entzun badozu, zeure barruan ito egizu; ezteutsu orregaiti istand'arazoko, ez».

Deungaro esaleen eta murmuratzalleen ganean zerbait esan ezkeru esan daiguzan berba bi iñogaiti deungaro esaten dagozanai gogoz eta pozik entzutea emoten deutseenak gaiti. Alkarren antzekoak dira deungaro esalea, eta deungaro esalearen entzula gozoa; eta batak legez besteak

bere pekatu egiten dau. Eztakit nik, ziñoan S. Bernardo-k, eztakit nik nok daukan erru geiago, ala deungaro esaten diñarduanak, ala ari entzuten dagoanak. Batak eta besteak diabrua aldean dauke, esaten diñarduanak miñean, entzuten dagoanak belarrian. Ezpalego nok entzun, ez legoke nok esan. Iñok eztaroa salduten bere zaldia edo bere idia, iñok erosiko ezteutsala dakian lekura. Ederto erantzun eutsan batek zirautsanari, beragaiti urliak iñon direan deungaroak esan zituzala: «Ez, bada, zeuk entzuterik emon ezpazeuntso». Beragaiti ez bakarrik eztozue iñogaiti deungarorik esan bear; baia ezta bere lagundu eta batzandu bear etzare deungaro esateko ekandu txarra daukeenakaz.

Onelango aldietan bada, iñor zeuen aurrean deungaro esaten abietan danean, pekatu gura ezpadozue, egin bear dozuena da, besteren ganean agintaritasuna badaukazue gurasoak, ugazabak, maisuak, edo alangoak zareelako, ixildu eragin bear deutzazue. Agintaritasunik ezpadaukazue; baia biotzak lagunduten badeutsue, askotan ondo izango da deungaro-esalea lotsatutea; eta orretarako alazokoak (alagalakoak) dira beste askoren artean S. Bernardoren berbaak: «zeuk esaten dozuzan besteren faltak eta deungaroak alan badira ezpadira, geuk eztakigu: baia zeu deungaro-esale-murmuradorea zareala artez dakusgu». Eta esaten badeutsue murmuradorea: «baakiala berak iñoren falta aek non ezarten dituzan; edo, arren iñori ez esateko: konfesiñoan legez esaten deutzazue»; erantzun egioezue S. Juan Krisostomo-ren berbakaz: ea zoroa ala gaistoa dan, berak obeto euki bear leukean eta euki ezin daben iñoren faltea, zuek ixilik eukiko dozuela uste izateko.

Baia onenbesterako biotzik ezpadaukazue orduan egin bear dozuena da alde egin leku atarik, edo beinik bein arpegia ilundu, bekokia moztu, biotzean min artu alangoak esaten direalako, eta ixilik egon. Au edozeinek egin lei, eta guztizkoa da deungaro esaleai ixildu eragiteko. Jgoikoak berak dirausku: «iparrak euriak eta lañoak garbituten dituz, eta arpegi ilunak ixildu eragiten deutse miñ deungaro esalaai». Baago beste modu politpat bere deungaro esateak galarazoteko, edo ebateko; eta da terzia artuta, berbeari beste gauza batera yo eragitea. Konturako, besteak iñogaiti deungaro esaten dagozanean, zeuek aren osabea, izekoa, edo ari dautsanen bat aita-tutea, eta orregaz berbetea berakauten legez gauza atara ekarte.

Ai Kristiñauak! Gogoan artuko bagendu ze gorrotogarria dan besteak gaiti deungaro esatea, ezkenduke alangorik bein bere ez esan ta ez entzun bere gurako. Jgoikoak berak dirausku gorrotogarriak direala beretzat, baita iguingarriak gizonentzat deungaro-esaleak. Bai, gorrotogarriak dira Jgoikoarentzat deungaro-esaleak, bada deungaro esanakaz egiten



dabe pekatu ikaragarritzko bat parkatuko eztana arik eta besteari galarazo deutesen kleitu ona alean lengo senean ta oñean imini dagioen artean. Eta deungaro-esate orregaz galarazoten badeutsaz eskuartekoak, ondasunak, ezkontzea edo beste zorionen batzuk, askotan yazo oi dan legez, pekatu bat ez eze, orduan asko bere izango dira. Dira gorrotagarriak Jgoikoarentzat deungaro-esalaak, bada sarri ta sarri Jgoikoari eskua artuten dautse, Jgoikoak beretzat gorde eban yuzgetea eta biotzeko barrunak igertea, eurak euren aurreti egiten dabe.

Dira iguingarriak eta gorrotagarriak gizonentzat, direalako zitai batzuk zeintzuen miñ gaistoetarik eztagoan iñorbere seguru eta gorderik: ez ezkongeak ez ezkonduak, ez Yustiziako jaun prestuak ez Errege yauna, ez Sazerdoteak ez Obispo yaunak ez Aita Santua ta ez iñor. Guztiak gaiti izango dabe zer esan, guztiai ebagi bearko deutse kleitu ona, galerazo bearko deutsez beste on asko. Eta, zer deritxazue dakazala alan deungaro esatera? Euren biotzeko zitalkeriak. Zitalkeriak bai, bada geienean deungaro esaten dabe iñogaiti edo gorroto deuteselako ta ezin ikusi dabeelako, edo besteren onak erre egiten dituzalako. Auxe da deungaro esateak daukan sustrai prestua; eta mundu zabala arakatuten ibili bagarik ikusi ziñaikez besteari ondo gura deutesanak eta aren onagaz (poza) artuten dabenak eztabela beragaiti deungaro esaten, eta entzuteak bere onik egiten ezteutsala. Geure buruak gaiti eztaoagu deungaro esaten, eta entzunak bere su emoten deusku. Eta, zegaiti? Geure buruari ondo gura deutesagulako. Gurasoak ez oi dabe euren umeak gaiti deungaro esaten, entzun bere gura izaten eztabe, eta ume orreen oker egin guztiak gorde ezkutadu, (ostendu) eta lurpean zakatu gura leukeez. Orregaiti ez nas aspertuko zeuei bein esanagaz lenengo asikeran esan dautesuedazan Jgoikoaren berbaak, eta barrien barri esango deutesuedaz. «Begira murmureteagaz, eze ezetarako bere ezta ona, eta ez iñogaitik deungaro esan, bada atzeti eta aopean esaten dan berbea bere ezta kastigu bagarik izango». Eta azkenean esango deutesuet.

3. ATALA



1. [ARERIOAI PARKATUTEAREN GANEKOA]

(I, 105-111. or.)

Ego autem dico vobis diligite inimicos,
benefacite his qui oderunt vos.
Math. 5, v. 44.

Nik dirautsuet: Maite izan egizuez arerioak, eta mesede egioezue deungaro gura deusuenai.

Eldu zan bein baten Jesukristogana Fariseo bat, eta itandu eutsan: «Maisua, zein da Jgkoaren legeko mandamentu andia?». Eta erantzun eutsan J.K°.k: «maite izango dozu zeure Jgko Jauna zeure biotz guztiti, zeure alegin guztiagaz, eta zeure gogo guztiagaz. Auxe da guztien arteko agindurik andiena, eta lelengo leलगokoa. Bigarrena barriz da onen irudikoa: maite izango dozu zeure laguna zeure burua legetxe». Eta iñok esan ze legian, antxina Yudeguak egin ebeen legez, lagunaren izenean eztatzala arerioak, eta geuri gatx egiten deuskuenak, esan eban beste bein Yaun onek: «nik dirautsuet maite izateko zuen arerioak, eta ondo egiteko gatx egiten deusuenai, eta oraziño egiteko zeuen kontra dabiltzazanak-gaiti, eta zeuei guzurren batzuk eregiten deusuezanak-gaiti». Arerioai, bada, ondo gura izatea da Jgkoak agindurik deuskun gauzea.

Askok uste izan dabe, San Jeronimo-k diñoanez, arerioai, eta kalte egiten deuskuenai ezin ondo gura izan lekikiela; eta asko dala alangoai gatxik ez opa izatea. Baia Santuak berak diño, onelangoak yakin bear leukeela, Jgkoak ezabela aginduten ezin dan gauzarik; eta bai gauza alde guztietati onak, eta tatxa-bakoak (atxakia-bakoak). J.K°.k berak maite (laztan) izan zituzan bere arerioak. Dabidek maite izan eban Saul, bera il gurarik ebili yakana; baita Absalon bere seme gaistoa bere, berari Errege izatea kendu gura izan eutsana. Jose-k maite zituzan bera erbestera saldu ebeen anaiak. S. Esteban-ek eta S. Paulo-k maite izan zituzan euren kontra ebiltzazanak (ebilzanak), eta S. Juan Krisostomo-k, S. Gregorio Nazianzeno-k, S. Anbrosio-k, eta beste askok mesede andiak egin eutseezan, eurai gatx egin eutsenai. Egia esan bear da, gatx izaten da alan egitea; baia, zer? Jgkoak gauza gatxak ezin agindu al (bere) leikeguz?, eta berak bein agindu ezkerro, egin bear ez al doguz?

Bein, bada, arerioak maite izan bear doguzan ezkerro, eta gorrotorik artu bear ezteutsagun ezkerro, dakusgun orain zer aginduten yakun onen ganean. (Eta J.K°.k leen aitatu deusuedazan berbeetan gauza bi dirauskuz: *diligite inimicos vestros*: maite izan egizuez zuen arerio gaiskillak, *benefacite his qui oderunt vos*, eta mesede egioezue zuei gorroto deusuenai. Onen bitzuoan ganean bein banatan egingo deusuet).

I. Lelengo bada dirausku J.K°.k, arerioai eta gatx egiten deuskuenai ondo gura izateko. Onetan gauza bi aginduten yakuz, bata da gorrotorik eurak gana ez izateko, eta bestea amodioa edo ondo-gurea izateko. 1. Gorrotoa da besteren bat ikusi ezina, edo gatxen bat iñori opa izatea. Ezta gorrotoa, iñok egin deuskuzan gatxak gaiti, edo esan deuskuzan deungaro eta berba laburrak gaiti biotzean min artutea. Geure biotza minbera da, eta ezin geuk galarazo giñaike min ori; baia egin bear doguna da, min eta damu ori Jgkoari eske eta aleginak egin bake onean eroateko. Ezta bere gorrotoa buruak ekarte alango laburtasuna, ta bidebakoa egin deuskunari au ta bestea egin bear lekikiola, alango burutasunai arpeki emoten baiake, eta burutik (bururik) kendutera egiten bada. Baia kendu bearren atan atan bazagoz, leku zabala emoten deusuzula bengetako asmaziñoai, alangorik egiteko gogorik artu ez arren, agiri da zure biotzean gorrotoaren sagitea sarturik daukazula. Eta ara bere okerrago badiñarduzu aren kontra deungaro esaka: ba'akizula zuk alangoari zer egin bear litxakion; alan ta alan egin bear lekikiola, kerella bat ekarri bear litxakiola, astin-aldi bat emon bear litxakiola eta onelangoak.

Jauna, esan daroe askok Konfesonarioan, nik ezteusat gatxik opa, baia bera dakusdan orduko odol guztiak irakiten deust. = Eta zuk orduan, zer egiten dozu? Egiten dozu aleginik ori geldi geldi galduteko, eta gatx egin deusun orreri ondo gura izateko? Eskatuten deusazu beragaiti Jgkoari zeure biotz-barruan? Alan bada, eztaukazu pekatuak. Baia kontu alan eginagaz; bada erraz izaten da alango orduetan gorrotoari ondo esatea, eta biotzean ostatu emotea. = Jauna, diño besteren batek, nik urliari nigan dagoan on guztia egin gura neuskio; beragaiti Jgkoari erregututen deusat; topetan dodanean agurra egiten deusat; baia eztaikit nik neure biotzean zer daukadan, deretxat eze eztozala oneek biotzeti egiten. = Biotzak aginduko ezipaleutsuz, etzendukeez zuk orreek egingo, eta atan ez bildurrik izan orregaiti.

(Ezegaitik bere ezin iñori gorrotorik artu lekikio, eta pekatu mortala da lagunari gorroto izatea dana dalagaiti.) (Oztasuna izatea edo kurrukea artutea pekatu beniala izaten da kentzera egiten eztanean, baia ezta mortala izaten, ori eztalako gorroto-antza, edo gorroto ziska baño (bes-



terik). Zuek askotan biok bat egiten dozuez; baia eztira bat, bada gorrotoa izateko biotz txarra eta barru gaistoa izan bear yako). 2. Baia ezta asko J.K°.k aginduten deuskuna egiteko besteai gorrotoa ez artutea; azaz ganeiti maite izan bear doguz biotz biotzerik, eta ondo gura izan bear deutsegu, baita gatx egiten deuskuenai eta deungaro gura deuskuenai bere». Eta yakin gurako dozue nos maite izan bear dozuezan gatx egiten deusuenak, eta nos zeuen biotzean esan bear dozuen ondo-gura deutsezuela. Eta orain nik esango deusuet.

Lelengo bada, ari kalteren batzuk egiteko edo zeuen kalteen bengaia artuteko tentaziño aserrerren bat, edo amurru gogorren bat daukazue zeuen biotzean asmetan dozuenean. Bigarren, tentaziño andiren bat daukazue nean ez beragaz tratetako kristiñautasunak aginduten daben moduan, eta besteakaz egin oi dozuen legez. Irugarren, ain modutan artu deusue nean biotza besteak eginiko laburtasunak edo gatxak, zein da zeuen buruai itxita, eta ernegaturik edo itxiteko ta ernegetako bidean zagozen, edo besteai zer-esana (berba lekua) emoten deusazuen. Onelango aldietan eta beste alangoetan, biotza Jgkoagana eregi bear dozue, eta gogo gogotik eskatu bear deusazue bere eskua ta bere grazia, zeuei gatx egin deusuenak edo deungaro gura deusuenak bera gaiti maite izateko.

Arerioai zor yakan amodio onen kontra pekatu egiten dabe ln. gatx egin deutseenai kanpo ederra egin bai, baia barruan gorroto deutseenak, eta euren kontra txakur amurratuak legez dagozanak. 2n. Justiziaren edo konfessorearen bildurrez, edo besteren batzuk bitarteko sartu direalako, azaleti adiskide egiten direanak, baia barruan beti arantzea; eta bear bada onelangoak etsera etorrita esan daroe: billau dollorra; itxok bada, ze, nik erakutsiko deubat zer egin deustan. 3n. Pekatu mortala egin daroe zelataka dabiltzazanak kalte egin deusena zoroztuten [sic], ea ikusi al baleioee zer edo zer, gero galarazoteko aek gura daben ofiziorren bat. 4n. Pekatu mortala egin daroe askotan ofizio edo beargintza batekoak, zeintzuk ikusten dabeelako bestea euren buruak baño zerbait obetotxu, beti dabiltzaren kontra deungaro esaten, eta tatxetan (atxakietan) aren gauzak, moduak, buru ona, eskolak, eta besteak. Au urri ikusi oi da merkatarien artean, eskribau, mediku, ofiziale ta beste askoren artean, eta ara geiago erriko eskribau ofiziale izateko, edo beste alangoren baten atzean bada-biltzazanan artean.

6n. Pekatu mortala egin daroe iñok kalteren bat egin deusenean, edo berba astunen bat edo kleitukoren bat esan deusenean, justiziara bagarik konpondu gura eztabeenak, ez bakeak egin, besteak alan gura izan arren. Onelangoak esan daroe: eurak eztoazala justiziara bengetako gogoa

gaiti, ezpada justizia egin bear dalako eta gaistoak kastigau bear direalako; baia geienean euren biotzeko gorroto zitalak daroaz oneek juezen aurre-ra. Esan egidazu ezpabere, zeuk besteari kalteren bat edo gatxen bat egin bazeuntso, eta gero konpondu gurarik, besteak esango baleu ezetz, eztabela gura, justiziara bear dabela, esango zenduke justiziaren amodioz dabilela? Ez beintzat. Esango zendukeana da zeuri bengau gurarik dabilela. Bada beste orrenbeste egiten dozu zeuk bere. Ai, diño S. Juan Kri-sostomo-k, zeuk uste dozu eze ori eginda biotza zabal zabalik geldituko yatzula: Diabruari bai zabalduten yakala biotza zeu onetan ikusirik.

Baia, Jauna, ezteutsagu geure kleituari begiratuko? Geuk bere geure garbitasuna bear dogu. = Ondo, begiratu eikiozu zeure kleituari ordu onean. Baia zer deritxazu, Juezetara yoan da, zeure burua zurituten dozula? Bai beintzat. Kerellea besteari emoten deusazu: papeletan ezarten da ak zeuri zer esan eutsun. Besteak bere berbea yan gurako eztau; eutsi gurako deutso bein esan dabenari, eta orretarako on egin gurako deustu alan zareala. Askoren belarrietara zabalduten da leen gitxik ekiena; eta askori, nok galarazoko deutso asko esatea? Obeto begiratuten yako kleituari lurpean guztia zakatuta, eze ez kerellea aterata. Bertan bera itxiten danean gauzea, laster aztuten da, papelean dabilenak luzaro dirau; gero ta gero bere papelean datz, eta papelean askok ikusiko dau.

Onek guztiok, bada, esan arren eurak ezteutsela besteari gorroto-rik, eta kanpoti arpegi argia eta txera andia (abegi ona) egin arren, eztituez benetan maite; bada (Jgkoak aginduten deuskun amodioa ezta azaletiko amodio utsa, ezpada biotz biotzetikoa, Elexa ama Santuak erakusten deuskun legez. (Inocen. XI prop. 10 et 11.) Amodio au modu bitara izan leiteke. Bata da guztiak erabatera eta pilloan legez maite direanean, esango baleu legez batek bere biotzean: nik gizon guztiak maite dodaz Jgkoa gaiti. Beste modua da bat edo bat berez, eta besteakganik aparte maite danean, esango balitz legez: *nik urlia maite dot Jgkoagaiti*).

II. Baia biotzean dagoan amodioa kanpoti bere agertu bear da, besteai lagunduten deutsegula, eta ondo egiten deutsegula geure bearrean dagozanean. Eta orregaiti esan eban J.K°.k: *Benefacite his qui oderunt vos*: mesede egioezue zuei gorroto deusuenai. Onen kontra pekatu egiten dabe lenengo, ikusirik, eurak gatxa egin deusena, premiña andiren baten, lagundu ta sokorridu gura ezteutsanak. San Agustin-ek diño: «kartzelan dago zorrak gaiti zeure anaiea; goseak ilten dago, edo beste premiña gogorren baten? Bada zegaz badozu, emendatu bear dozu. Baia esango dozu: eta nik, neure diru ederra emon bearko dot, besteak premiñarik eta estu-aldirik ikusi ze dagian? = Ori badirautsu zeure biotzak, eztaukazu



Jgkoaren amodiorik: etzara Jgkoaren seme. Zelan bada daukazu kristiñautzat zeure burua?».

Pekatu mortala egiten dabe gurasoak euren umeai ukatuten badeutse edo luzatuten badeutse emotea, orren bearrean dagozala, senipartea, lejitimea, dotea edo yatorkeena; euren gogoko etzanagaz edo gura ez ebeenagaz ezkondu zirealako. Baita egia esateko, geienez gurasoak eurak izan oi dabe alango ezkontzen errua, umeak itzal onean azi eztituezalako, itxi bagarik fiestetati, zelaietati, bigireetati, eta alangoetati ibilten, eta galarazo bagarik non gura sartuten, nogaz gura batzanduten. Pekatu mortala egiten dabe dabiltzazanak beti erea daben guztian bestearen kontra deungaro esaka, beti usigiten (aginka) legez, aganako daukeen borondate txarra erakusten dabeela. Pekatu mortala egiten dabe azpiti dabiltzazanak galarazoten besteak gura daben errentea, ofizioa, agintaritzea, beste bagarik ezpada besteak gaxen bat egin deusalako. Onelan prest dagozanak besteari kalte egiteko nai esanagaz dala, nai eginagaz dala, nai beste modutan, ezteutse ondo gura besteari.

Pekatu mortala egiten dabee azkenean, iñok zerbait egin deuselako, beragaz tratetan eztabeenak, alangoen artean tratau oi dan moduan. Ai zeinbat konfesiño oker egin oi direan alde onetati! Lelengo, bada, pekatu mortalean bizi oi dira ezkondu asko, zeintzuk, edo bata besteentzako ezti-realako, edo euren borondateaz kontra ezkondu zirealako, beti dabilta katu-txakurrak legez aserreka, alkarren gauzak ezin baketan eroan dituezala. (Pekatu mortala egiten dabe ezkonduak aserratu direalako, edo bear bada kirrimorrotu baño beste bagarik, (ze onetarikoak bere izan doaz) gogortuten yakeezanak lagunari, laketu gura bagarik lagunak matrimonioa serbidu gura dabenean). Pekatu mortala egiten dabe ezkondu orreek euren buruti alkarganik alde egin eta bizi-alargun egiten badabe, eta alan bizi direan artean eztagoz ez konfesetako, ez gure Jauna artuteko.

Pekatu mortala egiten dau iñogaz zerbait izan dabelako, bestea konbidetan ezpadabenak yaten, edaten, eztegura, funziñora, edo beste lekuren batera, zeintzuetara alango modukoak konbidau doazan, eta a bera bere berak konbidauko eban alango aserririk edo irrimirri-aldirik beragaz izan ezpaleu. Baita pekatu mortala egingo dau besteagaz zerbait izan dabelako yoan gura eztabenak besteenera baskariten, estegura edo funziñora, besteak esanda bere. Eztago obligaziñorik iñor konbidetako, ez iñoren konbitera baietz esateko; baia ez konbidetea edo ez yoatea aserratu dalako, edo besteak zerbait egin deusalako, da esatea legez gorroto deusalako, eta bengau gura yakola. Eta beingoan guztia esateko, iñok gaxen bat, edo nai-bakoren bat egin ezkerro, edo berba astunen bat esan

ezkerro, edo kleitua galarazo ezkerro, tratau gura ezpadozu beragaz, errian besteak tratau oi dabeen moduan, da esatea legez agaz gorrotoan bizi zareala.

Bardin pekatu mortala egin daroe aide askok, auziren bat izan bada-be, edo euren artean berbaren bat edo aserreren bat, arkalegaz, aideen artean egin oi dan legez, tratau gura ezik dabiltzazanak. Guztiz dira asko aideen artean alangoak gaiti pekatu mortalean bizi direanak. = Jauna, esan daroe, agurra eta berbea egiten deusat bideren baten topetan badot. = Eta, nok esan deustu orrenbestegaz asko dozula pekatu ez egiteko zure etsea iños idigiten ezpadeutsazu, eta zeu bere aenean eguño sartuten ezpazara? = Bikuntzan bizi direanen artean bere, edo urrengo auzoen artean, ezta asko bidean edo kalean arkal ikusten direanean agur egitea, edo berba egitea: bada alangoak arkalen bake onean bizi direanean ori baño geiago egin daroe, eta alan ori ta ez besterik eginagaz arkalen gorrotoa erakusten dabe, eta zer-esana iminten dabe.

Azkenean pekatu mortala izan doa arerioari, edo gax egin deusuenari agurrik ez egitea; berba egiten deusuean ez erantzutea, edo burru-fada (burrume) bat egitea, errezetan astea agurrik edo berbarik ez egitea-gaitik; berak dakusala bidea auste beragaz ez topetako; berari irri ta barre egitea; zuenera datorrenean parka eskatutera, yakinik berak zuek etsean zagozela, kanpoti zareela esatea. Eta, zeinbat onelango egin oi dira mundu zabaleti atxina, eta, ze bildur gitxi artu yoaken onelango pekatu anditzarrai! Eta, zer esango dot arako guraso edo senarrak gaiti, zeintzuk iñogaz zerbait izan dabeelako eragozten deutseen umeai edo emazteari besteenean sartuten? Oneek pekatu mortala egin daroe, eta ez bat ez eze, baita asko ta asko, bada zer esana iminten dabe errian.

Orain itanduko deustazue ea guraso bat egon al baledi umeari berbarik egin bagarik, edo etsean sartuten itxi bagarik deungaro ta gurasoen gogoaz kontra ezkondu dalako. Onetara esango deusuet: umea ezkondu bazan bere ideakoagaz, eta odolari kalterik egiten ezteutsanagaz, eta gurasoari bere ezkontzearen barri emon beutsan, eztauko alangoan ez gurasoak ez senideak eskubiderik etseko sartzaierea galarazoteko, ez berbea ukatuteko, ez bere eztegura orregaiti ez yoateko, bada umeak ez eban orretan gauza txarrik egin. Umeak egin badau biderik eztakarren ezkontzaren bat, odolari etxatorkanagaz, eta orregaz gurasoai bide-bako andia emon badeutse; orduan gurasoak, ondo dakien esanera, egon leitekez ilabetean, edo ilabian umea etsean artu bagarik, edo berbarik bere egin bagarik, orregaz berari iragarteko egin daben buruerea, ta zantarkeria (txarkeria), eta beste umeai bildurgarritzat izan dakioen.



Baia egon guraso asko egon oi direan legez lau bost urtean, edo geiagoan umeagaz tratau gura bagarik, etsera etorten itxi bagarik, edo umeagaz tratau arren, suñagaz edo erranagaz egin gura bagarik, ori pekatu da, egin ezin leitekean gauzea da. Zer da au, gurasoak? Orren gogorak izan bearko dau zuen gorrotoak, zein da geiago iraungo deutsuen umeen alde-rako atzeen alderakoak baño? Zeuen odolari eztautsan atzeagaz bildur zare agur eta berba egin bagarik egoten; eta umeagaz, suñagaz, edo erranagaz alan egoteko, eztago bapere bildurrik? Ori ezta lege, ez Jgkoak aginduten dabena: eta olan zagozen bitartean etzagoze konfesetako, eta ain gitxi zeruan sartuteko. = Jauna, desondrau gaituz ume orrek ezkontza orregaz. = Ori askotan ezta egia izaten, ezta besterik izaten gurasoen andi usteak eta putzak baño. Baia alan balitz bere, asko da orren kastigurako ilabeteko edo ilabiko atzerea. Alan egonagaz, garbituko al dozu dexondra ori? Ezkontza orrek eztauko atzera biderik, eta alan egon, nai egon ez, beti izango dozu umea ume, suiña suiñ, errana erran, eta guztiak zure odoleko, edo zure odolari dautsenak.

(Ainbestera elduten da batzuetan askoren biotzaren zitelkeria eze, gorroto artuten deutse, erru bagarik eurai kalte egiten deutsenai, edo kalte egingo deutseela deritzenai, eta alde onetati bere askok pekatu egin daroa. Ara emen onetariko batzuk. Pekatu egin daroe umeak, gura leukeenak euren gurasoak ilda balegoz, euren gauzaak, aziendak ta ondasunak eurentzat izateko. Pekatu egin daroe gura leukeenak gurasoa Jgkoak garbituko baleu, edo txotxaturik (gitxiendurik) ta ume eginik dagoalako, edo oatirik dagoalako, edo gaixoagaz diru pillo andia yoateko bideak dakazalako, edo beste alangoren bategaiti. Pekatu mortala izango da gurasoak nai izatea Jgkoak umea eroango baleu, arlotetxu bizi direalako, edo zegaz emendatu, ta azi askotzarik eztaukeelako. Pekatu izango da ezkonduak nai izatea laguna ilda baleuko, bere burua libre ikustearren.)

III. Iñori gatxen bat egin deutsanak, kleitua galarazo deutsanak, berba astunak esan deutzazanak, eta alangoak parka eskatu bear deutse; baia besteak bere artu bear dau biotz onagaz, ta errai zabalakaz; eta alan egingo ezpaleu, pekatu egingo leuke. Eta gauza onen ganean pekatu egingo dau, bestea orretara datorrenean, etsean sartuten bere itxi gura ezteutsanak, edo esker gaistoan botetan dabenak, edo gizon onen batzuk bitarteko iminten deutzazanean, entzun bere gura eztabenak. Errua daukanak parka eskatu bear dau, lege dan legez; baia a ezpaletor, eta aurrera bere gorrotoan iraungo badau, zeuk aurreratu bear zatxakoz bakeak egitera, non-da guztiz gatx egiten ez yatzun, edo kalte andiren bat orregaiti izango eztozun. Karidadeak erakusten deusku besteen arimeen osasuna billa-

tu bear dogula, nekeren bategaz izango bada bere, eta gauza yakina da, a gorrotoan bizi dan artean, zerurako ondo eztagoala. Eta beste aldeti zeuk bere eztozu biotzeko baketasunik ez gozorik izango barriz arik eta bakeak egin artean.

Baia, zeinbat atxakia iminten eztituez au ez egiteko gorrotoan, bizi direan guztiak? Mendiak eta aldats-gora andiak aurreti iminten yakeez ori egiteko esaten yakeen bakotxean. Aita, diño batek, nik ezteusat ari gatxik opa. Jgoikoak egin dagiola niretzat gura dodan on guztia: baia a bere etsean, eta ni neurean. = Eta Jgoikoak zeuri pekatu egiten dozunean beste ainbeste egingo baleutsu, eta botaro bazinduz bein betiko bere etseti, zeruti, ondo zengokez zeu? Ori ezta J.K. °k diñoana egitea. Diño Jaunak bestea ondo gura izateko geure buruari gura deutzagun modu moduan. Eta alperrik eze zuk zuretzat gurako etzenduke besteren batek zuri beste ainbeste egitea. Zeuk ari ondo gura izateko, egin bear dozu beragaz, aren moduko besteakgaz egin oi dozun guzti guztia; agur egin, berba egin, mesede egin orren bearra dabenean, konbidau bear bada, eta alangoak. =

Ai Aita! Baleki berorrek nor dan bera ez leuket alangorik esango. Zital dollor bat da guztia: eztauko ak zati onik; agaz ezin iñor bake onik egin lei. = Zital dollorago izan zara bada zu Jgkoagaz, zeuk egin dozun ainbeste pekatugaz, eta alan da guzti gura dozu Jgoikoak parkatu deizun. Eta, nosik onakoa dau orrek alangoa izatea? Zeugaz aserratu zanetik onakoa nonbait. Leen bere ak orain daukan jenio egin egin izango eban, eta leen bakean bizi zineen. Baia guztiok daukagu geure zitalkeriatxua, eta zitalkeriatxu oneri ezer ukatu gura ezteutsagu. Egin bear dozu bada alegina zeure buruari zerbait ukatuta beragaz bakeak egiteko. = Aita: nik agaz tratetan badot, bat eskatu, bestea eskatu, etse guztia ondatuko deust. Eta ak bein gauzea eroan ezker, eztaki atzera biderik. = Bada ez emon. Ezti-rautsut nik ari emoteko zeuk zeure etsean bear dozuna. Premiñan dagoana emendatu bear izaten da; baia osterantzean etxako», emon bear atzera ekarten eztaikianari, etserako bear dana. Baia ezta orregaiti aserre bizi bear, agurra egin bagarik, berba egin bagarik, eta besteai egiten yakena egin bagarik. =

Eta, Aita, niri egin deustana kastigu-bagarik geldituko da? = Ez, ezta geldituko, deungarorik egin badeutsu. Edo berak bere buruari kastigua emon bearko deutso, edo ezpabere Jgoikoak orren kastigua erakutsiko deutso. Baia zeuri ez yagotzu kastigu ori emotea, bada Jgkoak esanik dauko: «nire kontura bengai: nik emongo deutset bear dabena. = Eta itxiko deustat gura daben guztiagaz urteten? = Orren ganean bago zeresan. Kendu gura baleutsu zeurea dan etsea, soloa, basterra, basoa, orre-



tarako eskubide bagarik; orduan bestelan galarazo ezin badozu, auzia emon ziñaio, edo berak emonari yarraitu. Kendu gura baleutsu asko balio eztaben gauzaren bat, eta kontuak ondo atarata, auzitan abiau ezkeru, aren alegiña ta geiago gastau bearko badozu, ezta auzitan asi bear. Al badozu gizon baten eskuetan imini, eta aren esanera egon; eta ori ezin bada, galdu egizu zeure gauza ori. Berba astunen bat esan badeutsue, ase-rrenen bat izan badozu, bide-bakoren bat egin badeutsue eta alangoetan, ito egizu zeure barruan guztia; eta etzaitz yoan Eskribauetara: Auziak eztakar gauz'onik: Diruak gitxitu, lanak atzeratu, nagikeria ikasi, ospitale-rako edo konkursurako bideak artu; burua alatu, bakea galdu, orreek dira auzien irabaziak eta ondasunak. Eta ezta ori okerrena: arimako kalteak dira orreek baño deungagoak. Ozta ozta ikusiko da pekatu-bako auzirik. Auzitan ibili, eta bear eztanik ez egin, ori Santuak bere nekez egiten dabeen gauzea da, diño San Franzisko Salesek.

Asiko dozu bide oneko auziren bat; baia gerora gerora sartuko yatzu auzi ori irabazteko alango amurru gogorra ze, edozein gauza egingo zendu-ke auzi ori irabastearren, bear eztana bere bai; eta San Joan Krisostomo-k diñoan legez, pozago egongo zara pekatu eginda auzi ori irabazten badozu, eze ez, pekatu egin bagarik auzia galdu badozu. Orregaiti J.K°. geure Jaunak ez ginduzan auzizaleak gura, eta erakutsi euskun atal bat galduta bere, edo naibakoak, eta laburtasunak ixilik eroan da bere, ez auzirik artuteko. Ara emen bere berba ederrak: «Iñok eskoako matrallan yoten bazaituz, imini egiozu beste matrallea bere. Eta auzia emon gura deutsunari, eta auziagaz soñeko tunikea kendu, emoiozu kapea bere. Eta iñok bazaroz milla pausuen bidean, zoaz zu beragaz beste bir-milla pausu bere». Eta, zeinbat etse eder saldu eztira euren yaubeak auzitan ibilita zorrez ondatu zirealako? Itxi egiozue, arren, auzitan ibiltari; eta esku artean darabiltzuezan auziak, gizon on baten eskuetan imini, eta aren esaneti ebagi. Osterantzean etseak, diruak, bakea, arimea eta guztiak galduko dozuez. =

Aita, berak dauko erru guztia; ni bakean nengoan; nik ez neutsan gatxik egiten. = Au entzun daroagu egunean egunean; baia geienean ezta egia. Batak eta besteak errua izan daroe; batak asi zalako, ta oña emon ebalako; eta besteak parkatu ez eutsalako, eta bateri besteATEGAZ, edo beste bigaz erantzun eutsalako. Eta alan ezpalitz bere, gogora ekarri egizu zelan egin dozun zeuk Jgkoagaz, eta zeinbat bider ari bear eztana egin deutsazun, ak zeuri gauza txarrik egin bagarik; eta agaz guztiagaz Jaunak parkatu deizun gura dozula.

Orain biar ta etsi dira Komuniño jeneraleko egunak, eta gure Yauna artuteko guztiok bakeak egin bear dozuez. Eta alan alkarren gorrotoan bizi izan zarenenok ez etorri bakeak egin bagarik. Toledoko amaikagarren Konzilioak agindurik dauko Komuniño santura ez etorteko gorrotoan bizi direanak. Orretarako gaur sermoirik urten da laster, ezer izan dozuenok alkarrerri parkaziñoa eskatuko deutsazue. Jgkoak berak dirausku, besterenATEGAZ zerbait izan badozu, ezpedi eguzkia sartu beragaz bakeak egin bagarik. Eta parka eskatutea biotz biotzetik izan bear da, bakotxak nor beren buruari errua egozten deutsala. Eta ez lengo kontuai eragin: ez asi zeuk au egin zeustan, bestea egin zeustan; alan egiteko oba da bapere ez egitea, bada ori ezta besterik ezpada lengoa barriztetea, eta biotzeko zauria gordinago egitea. Kontu bada orregaz. Ara bada, auxe da parka eskatuteko modua. Urliak, bakit nik bear eztana egin neutsuna; baia damuturik nago, eta Jgkoagaiti parkatu egidazu. Besteak erantzungo deutso: nik orretan izan neban zeuk baño erru geiago, eta zeuk parkatu bear deustazu, eta onik aurrera adiskideak legez biziko gara, eta onenbestegaz itxi bertan bera.



2. [ARTU DIREAN GOGO ONETAN IRAUTEKO BIDEEN GANEKOA]

(J, 113-119. or.)

Poenitentibus... dedit (Deus) viam justitiæ,
et confirmavit deficientes sustinere...
minue offendicula... et cognosce justitias et judicia Dei,
et sta in sorte propositionis et orationis altissimi Dei.
Eccli. c. 17. v. 20, 22, et 24.

Ze pozik egon doian atxurlaria, izerdi galantak bota, eguzki onak artu soloak erabilteko, eta gero batuteko denporan dakusaz bere artoak edo gariak galbegi eginik! Ze pozik egon doian itxasoti ibili dana, bide andiak egin, neke ederrak ikusi eta azkanean ondasunez beterik bere errian leorra artuten dabenean! Aztu egiten yakez ordura arteko nekeak. Alantxe yazoten yaku geuri bere gaurko egun onetan. Amabost egun da misiaño santu au asi genduala. Zuek ikusi dozue zelan buruak nekatu bear izan doguzan bai pulpitan, bai konfesonarioan. Zuek bere, zuen nekeak artu izan dozuez sermoiak entzuteko eta zuen konfesiñoak egiteko. Baia dakusgunean zeinbat arima eder, Diabruaren atzamarretarik aterata, Ygkoagana etorri direan, biotza pozen pozez urtuten yaku, eta ontzat emoten doguz geure neke guztiak, eta orain arteko buruko-minak. Bai, N.ko erri noblea, egunokaz, ondo agiri izan da zeugan Yaungoikoaren errukitasuna, ta grazia! Ondo esku-betezan zabaldu dituz Yaunak zure ganera bere argiak, bere samurtasunak, bere laguntzak! Deritxat eze asko ta asko gaur amabost ilda Infernurako zireanak, gaurko egun onetan ilgo balira, Zerurako izango litzatekezala. Beragaiti esan bear dogu geure biotzeko poz andi bategaz, auxe dala Ygkoak eginiko eguna, eta berean poztu egin bear gareala.

Baia, zetarako izango da Zerurako bidea artutea, bide erditi atzera egiten bada? Bilbo-rako bidea milla bider batek artu arren, bide erditik atzera egiten badau, eztau eguño Bilbo ikusiko. Zeinbat ete dago gaurko egunean Infernuko gar artean erretan eta kiskalduten, aldikada baten edo bear bada luzaro onak izan zireanak? Saul, Yoas, eta Yudas aldi baten onak izan zirean; baia euren kalte gogorrean itxi eutsen bide onari, euren buruakaz Infernuan yo ebeen. Eta onetarikoz bete beterik dagoz liburuak. Arpel arpelik egin izango dozuez zuen konfesiño jeneralak, arpel

arpelik itxi izango deutsezue zati baterako orain arteko pekatuak; barrio euretara biurtuten bazare, eztozue Zerurik ikusiko; Infernua izango da zuen betiko etsea. Onen bildurrak biotza ilun ilun egiten deust, bada bakit nik errietan zer yazoten dan Misiñoa yoan ezkerro. Bai, bakit, eta zuen onerako orain zuei iragarri bear deusuet.

Ezteritxat, neure entzula onak, ekarri leitekeala irudi obagorik adie-tan emoteko Misiñoakaz errietan yazoten dana, zein da Yosuren aldi-an Yordan eritxon ibaiko urakaz yazo zana. Yosue Santuak aginduta sartu zirean Sazerdoteak Yordan-eko ibaian, utxa santua lepo ganean ebeela. Bertati goiti beera etozan urak, utxa santuari lotsea ta itzala artu izan baleutse legez lotu zirean geldi geldi, aurrera biderik egin bagarik; beste urak barriz beerantza yoazala egintzan ibaiaren erdi erditi bide leor ederra Israel-tar guztiak oñik busti bagarik igaroteko. Baia, zeinbat deritxazue iraun ebalda bide leor orrek, eta urak geldi egote orrek? Utxa santua ibaiaren erdian egontzan bitartean ta ez geiago. Ak andi urten orduko urak lengo bidea artu ebeen, eta agurr, yoantzan ibai erdiko bide leor ori.

Ara emen Misiño santuakaz yazo oi danaren irudi egin egina, nik biotzean minik artu bagarik zuei ezin adierazoko deusuedana. Batoz Misionistak erri batera, asten dituez sermoiak, eta orra non pekatuak ebat-ten yakezan lengo bideak. Guztiak datoz euren arimak garbitu gurarik Konfessoreen oñetara; itxiten yake adiskidetasun txarra; galdu gura dira lengo ekandu dongak, gazteak artuten dituez gogo eder batzuk geiago ez yoateko dantza nastuetara, yolasera, bigirara, eta batzar gaistoetara; biur-tu oi dira iñoen gauzak: orduan ezin bada, artuten dira asmu ederrak ale-ginak egiteko; sartzen da etseetan bakea; kentzen dira gorrotoak, eta, guz-tia berba baten esateko, erriak beste bat dirudi. Baia, zeinbat deritxazue dirauela aldatze onek, on izate onek? Misiño santuak errian dirauan artean, edo ez asko geiago. Arik denpora gitxi garrenean, entzun daroagu batzaako dantzak, eta naasteko batzarrak leen legez egiten direala, lengo bideak artu oi dituez, leengo adiskidetasunak, zantarkeriak, biraoak, gorrotoak, ordikeriak, auziak, lapurreriak eta okerreria guztiak.

Eztiñot nik au guztiak gaiti, ezta onago bere; bakit nik banaka batzuk, eta askok uste dabeen baño geiagok iraun oi dabeena urteetan eta urteetan, baita euren bizi guztian bere, eta onei begiraturik ontzat emon-go gendukez geure buruko-alak, eta izerdiak, besteakaz ezer aterako ezpa-gendu bere, baia geienak lengo bide deungeetara biurtuten dira; eta bear bada leen baxen amurru andiagagaz. Zetan dago gero au neure Kris-tiñauak? Nondi datoz onelango kalteak errietara? Leen negar egin alango gauzaak egin (egiña) direalako; leen esan eztiuezala eguño bere egingo,



eta bariro egin bear? Ez al dira biotzetik izan emon dituezan berbaak? Euren negarrak izan ete dira guzurrezko negarrak? Ez, neure Kristiñauak, ezteust niri biotzak alangorik emoten, eta uste dot eze, euren negarrak zindoak izan direala, eta euren berbak bere biotzerik emonak. Zetan bada deritxazue dagoala kalte ori?

Nik esango deusuet orain zetan dagoan geien. Batzuk biurtuten dira lengo bizi-modu txarrera, eztituezalako artuten asi dabeen onean irauteko bear direan neurriak. Besteak galduten dira besteren batek pekatuako bidea emoten deuselako. Oneek biok dira erriak galduten dituezanak. Nik, kristiñauak, gura neunke (baita ondo biotzerik gura dodala), zuei alangorik yazo ezta kizuen, eta orretarako esango deusuet doktrinatzat zer egin bear dozuen artu dozuen bizi-modu onean irauteko, eta gero Sermoian ulertuten emongo deusuet ze pekatu ikaragarria dan besteai pekatuako bidea emotea. Ara emen arratsalde onetan entzun bear deustazuena. Entzuzue bada orain irauteko egin bear dozuena.

1. Lelengo leleno, bada, alde egin bear dozue pekatuen bide ta okasiñoetatik. Auxe egitea gogo gogoti artu bear dozue, bada au eginda biderik erdia eginik daukazue; eta au egin ezik, galdutzat emoten dot nik zuen arimako osasuna. Begien aurrean euki bear zendukee; ezto ondo esan, biotz biotzean sartuta euki bear zendukee pekatuak urten dozuenok, gaixo andi baterik urten dozuela, eta argalik eta erkin eginik zagozela, eta edozein bere ezerezkeriak lengo gatxagaz iminiko zaituezala. Ez egizue au bein bere aztu: argalik zagoze, erkinik zagoze, makarrik zagoze, indarririk eztaukazue, eta edozein bere gauzak yausi eragingo deusue; eta orregaiti ardura guztizko bat izan bear dozue pekatuak bideetati alde egiteko.

Alan zuk mutil gazte, zuk neskatilla, entzun deuskuzu bein baño geiagotan, dantzan ibilteak nai dala plaza agirian, nai dala zelaietan, edo okeluetan ta zokondoetan, ekarri oi dituzala esku-estutute laztanak, labankeriak, berba loiak, eta gero etserako bideetan, eta geroago gogo ta pensamentu loiak, zantarkeriak, berotasunak, edo bear bada orreek baño bere okerragoak? Bada ez oñik imini dantza tokian, ezta dantzan egiten ikusteko bere. Bakutsu zeuk bigiretara yoanagaiti, edo karobira, olara, txakolinak egiten direan tokira, gorularietara, ezpatarietara, gaubelara yoanagaiti, ibili oi direala bultzaka, egozka, amilketan, zirrika, kilika ta zantarkerietan? Ez yoan alangoetara. Bakutsu zeuk beste orrek urliagaz berba egin dozunean izan dozuezala mosuak, laztangak, eskuak bear eztan lekuetati erabilteak eta zantarkeriak? Ez agaz egon; alde egin beraganik.

Zeuri, otseña, etsekoren batek emoten deustu deungerako bidea? Urten etse orretarik. Otseña dozu zeure tentagarri? Kanporako bidea

emon. Bakizu zeuk, gizona, tabernara edo ondretara ezkerro, orditu oi zareala? Betiko agurra egin tabernari eta ondrai. Bakizu beste orrek, urliagaz edo ulizeñagaz batzandu ezkerro izango dozuzala yuramentuak, biraok ta araoak? Ez orreekaz batu. Bakizu emakumea auzoko andregaz batu ezkerro besteen bizitzai eragin bearko deusazuela, eta kleituko gauzak, ixilik dagozanak bere antxe urten bearko dabeela? Bada itxi agazko berbaiteari. Eta, berba baten esateko, bein yakin ezkerro ain gauza edo orren gauza dala zuentzako gatxerako bidea, eta pekatuak arrilabana, itxi bear deusazue gauza orreri. Ain bagarik etzare onduko, eta utsean yoko dabe zuen gogorik beroenak eta zolienak bere. Ezteutsat nik au neure aragia... kenduten, Ygkoak esanik deusku, baita egia Ygkoak esana legez, pelleburua maite dabena berean galduko dala, bide labana gura dabena berean yausiko dala. Esaten deusue geiago: zuei pekatuak bidea emoten deusuen badozue eskoako begia, eskua edo kaderea bera baxen bearrago, orregaiti bere zuekanik kenduteko.

Ondo ekian au antxinako basamortuko agura santuak. Entzuzue au zuen onerako. Yoan yakon bein baten mutil gazte bat Padar agura zar baten konseitxu batzuk emoirozala. Baietz bada, (erantzun eutsan agurak) paperean imini leizala berak esango eutsazanak, geroko bere aztu ze lekiozan: *Lelengo konseiu*, esan eutsan agura onak, *pekatuen bide dongeetatik alde eigizu*. *Bigarren konseiu*, *pekatuen bide dongeetatik alde eigizu*. *Irugarren konseiu*, *pekatuen bide dongeetarik alde eigizu*. *Aitaxe*, esan eutsan gazteak, irugarrenez gauza bera entzun ebanean, *ori gauz'ori bein ez eze birritan bere iminirik daukat*. Orduan agurak, agura asko yakitunak legez erantzun eutsan: *Ezta ardura, ene seme; imini eigizu irugarrenez bere, ze ain da ona, eta ain sustrai andikoa konseiu au eze, ez tira gauza nik emon neinkezuzan ganekoak; baia berau gogo gogoti gorde ezkerro, Zerurako biderik geiena eginda daukazu*. Bada esana esan: pekatuen bide txarretarik urrun egin bear dozue, artu dozuen bizitzan onean iraun gura badozue. Ez esan, zoro askok esan daroena; yoango gara, baia ezto gogot dantzarik egingo, ez kara zantarkerietan ibiliko; ez kara ordituko; egongo nas besteagaz, baia ezteutsat itxiko gauza txarrik egiten. Orreek utsak dira; eta bide orreek galdu ezik gura ta gur'ez yausiko zare. Eta orretan bazagoze kontu egizue zuen konfesiñoakaz bapere gauz'onik egin eztozuela.

2. Bizitza onean irauteko bigarren egin bear dozuena da sarri ta ondo konfesau (ta) komulgetako, eta biotzeko berorik al dozuen andienagaz. Esan deusuet sarri ta ondo konfesetako. Bada, zetarako izango da sarri konfesetea ondo egingo ezpada? Zetarako izango da amabostean bein konfesetea, lotsaz itxitako pekatuen bat beti kolko barruan erabiliko



bada? Zetarako izango da zortzian bein egitea zorrak pagetako aleginik egiten ezpada, edo iñoena bere yaubeari bihurtuten ezpaiako? Deungaro egiteko oba litzateke bein bere ez egitea. Esan deutsuet bere al dozuen biotzke berotasunik andienagaz konfesetako, egiten zareela pekatuen damu ta gorroto andiagaz, eta ez ostera pekatuak egiteko gogoagaz. Asko dira kristiñauen artean konfesauta arik lasterrean pekatu mortalean yausten direanak; ostera bere konfesau, ostera bere pekatu egin eta alan dabil-tzazanak. Baia onelangoak bildur izan bear dira eztiarela gauza euren kon-fesiñoak, eta pekatuaren damurik bapere artuten eztabeela, eurak baietz uste izan arren.

(Eta pekatuak txikiak eta benialak izan arren, orreek bere kalte andiak dakardez, guztiz bere ekanduz legez, eta gauzeari zaletasuna artu-ta egiten badira, eta orregaiti onek bere albitenez galarazotera egin bear dozue, eta orregaz bere pekatu mortaletarik urrunago ibiliko zare). Eta prestaera obeakaz konfesetako gauza bi artu bear zendukeez gogoan kon-fesetan zareen bakotxean. Bata da bear bada orduko konfesiñoa izango dala zuen atzenengo konfesiñoa. Batek edo batek alan izan bear-ko dau, eta, nok esan deutsue ordukoa izango ez-tala? Ai! Sinistu bear ezteutsazue ez gaztetasunari, ez osasun onari. Ez gazteai, ez osasun onekoai ezteutse beldurrik arean artuten eriotzeak. Bigarren gauzea da, konfessorearen belaunetan zagozenez, uste izan bear dozuela Yesukristo-ren belaunetan zagozela. Ai! Ta alan balitz, zelan bigunduko litxakezuen biotza, zuen pekatuak esaten dozuezan orduan! Bada alantxe bigunduteko aleginik egin bear dozue konfesetan zareen guztian.

Konfesiño ondo egina da, diño San Agustin-ek, pekatuak galarazo-teko, eta pekatuakaz galdu zirean birtute onak barrero atzera artuteko; da Diaburuari iminten yakan debeku ta eragozgarri andia, eta Infernuaren bil-durgarri itzala. Emeti agiri da guztizkoa dala pekatuak galarazoteko sarri egiten dan Konfesiño ona. Baita itanduko deustazue ea zeinbaterik zein-batera egingo zareen. Eta nik dirautsuet batzuk zortzi egunerik bein egi-teko, beste batzuk amabostean amabostean, eta ezta izan bear zuen artean garaurik bere ilean bein egingo ez-tanik. Ez esan zuek orretarako zer-egin andiak daukazuezala. Eztago ilean bein ez egiteko zer-eginik, ez gauza dan atxakiarik. Zeuen zer-egin andi orreen artean, topetan eztozue astia, eta astiune galantak bere lo egiteko, yateko, ibilteko (paseetako), eta bear bada arpelik egoteko bere? Baita orreek orretarako ilean bein baxen geia-gotan egiten direanak dira. Eta arimea garbituteko, eta bere osasunari begiratuteko, eztozue ilean beingo astirik topauko?

Ez esan bere, buru bagarik askok esan daroen legez, ea ain sarri zer konfesauko dozuen. Eztago munduan zer konfesau eztabenik. Egunean zazpi bider yausten direala santuak, dirausku ondo dakian Ygkoak berak; eta zuek ain santu izan bagarik, zortzian bein edo ilean bein eztaukazue zer konfesaurik. *E! Orreek pekatu txikiak dira*, esango dozue. Yaungoiko-ari alan gura dakiola; baia eztaikit, eztaikit... Zer konfesau eztaukeela diño-enen artean konzienziako nasaikeria, eta ardura eza puskatxu bat bere izan leiteke. Baia ondo: alan baderitxazue txikinak baño izan ezti-tzala pekatu orreek; baia buruan epai txiki bat daukazuenean ainbat lasterren osatuteko aleginik egiten dozue; ezta alan? Bada arimako epaiak buru-koak baño gitxiago ez-tira. Eta, non da arimako epai txiker orreek osatu-teko konfesiñoa lango gauzarik? Konfessoreen ganean barriz esango deu-tsuet guztiai lotsa ona agertuteko, baia zuentzako albit onena artuteko. Iñok galarazoten badeutsue fiestara, yolasera eta alangoetara yoaten, zuek usteko dozue estuegia dala konfessore ori; baita niri deritxat eze bera legezkorik ez-tala. Nire eretxian konfessore nasaien atzean dabil-tzazan-ak eztauke pekatuen damurik, ezta apurrik bere.

Komuniño santua bere sarri ta bear dan legez artutea da bide ona onean irauteko. Komuniño santuan artuten dogu bene-benetan geure Yauna, zeru-lurraren egillea, ondasun guztien iturria. Eta bera bularrean daukagula, zelango mesede ederrak egingo ezteuskuz Yaun onek? San Agustin-ek eta S. Joan Krisostomo-k diño eze, ume txikia yanda azi ta gogortuten dan legez, alantxe geure Yauna artuta indartuten eta aziten dala geure arimea graziaren eta gloriaren merezimentuakaz. Eta San Bizente Ferrer-ek dirausku: gei-ago irabazten dala komuniño ondo egini-ko bategaz, aste guztian ur ta ogi baru eginagaz baño. Au alan izanik eztaikit nik zelango lotsea daukeen askok urte guztian konfesau bagarik eta komulgau bagarik egoteko. Zerurako bidea, Yesukristo-k diñoaneti, bide estua ta bedarra da, eta eztau ak nasairik ondo artuten: bide luzea da eta aldatsgorea, eta indarrak bear doguz bide ori egiteko. Komuniñoaren ganean ezti-rautsuet nik zeinbaterik zeinbatera artuko dozuen; orretan konfessorearen esanera egon bear dozue. Baia zuen eskuan daukazue nos-gura eta non-gura egitea beste komuniño modu bat zeineri komuniño espiritualaren izena emoten yakan, eta ezta besterik ezpada komulgetako guraria biztutea, eta geure Yauna artuteko daukagun gurari eder bat Yau-nari berari agertutea.

3. Bide onean irauteko egin bear dozuen irugarren gauzea da, egu-nean egunean liburu on baten irakurtea, eta zati baten gauz'onen bat gogoan dozuela egotea. Gauz'on ori gogoan izateari oraziño mentala esa-



ten yako; baia nik eztot aotan artu gura izan berba o, zuek ez ikaratutearren; bada esaten baiatzue oraziño mentala eukiteko, berbertati erantzun daroazue, ori eztala zuen buruetarako, eskola gitxien yaube zareela zuek ori egiteko; eta beste aldeti barriz zuen ogia irabaziko badozue, lanean (bearrean) egin bear dozuela, eta oraziño mentalean egoteko lekurik eztaukazuela. Baia, Kristiñauak, eztago iñor munduan, gauz'onen bat gogoan dabela egongo ezin danik. Santokristo bat dakutsuenean, etxatorzue gogora Yaun onek gugaiti zelangotza gogorra ikusi eban? Iñor errian ilik topetan badabe, ezteutsue gogoak emoten eztaukagula ordu segururik, eta gitxien uste dogunean geu bere ilgo gareala? Bada ori da ta ez besterik oraziño mentala eukitea: olangoren bat gogoan artu eta orretan egotea. Eta au eztabe galerazoten zereginak, lanak, eta arazuak, bada eurak egiten direan artean bere ori egin lei.

San Joan Klimako-k diño ze, berak topau ebala Sinai-ko mendian fraile eskola gitxiko bat, baia Yaungoikoaren amodioan aurrera ebilena, eta beti gogoan gauz'onen bat ebala egon bear ko ebana. Ez eban onek liburu andirik eskuetan artu, bere eginen guztia zan, eskaratzekoa (subetekoa) egitea; baia antxe, lapiko artean, eukan bere oraziño mentala, antxe suaren aurrean urtuten yakan bere biotza, eta begi bietati zara zara eriozan negar anpulu gozoak. Itandu eutsan San Yoanek berak ea zelan ainbeste zer-eginen artean beti beti oraziño egiten egoten zan, eta besteak erantzun eutsan: nik lapikoa egiten dodanean kontu egiten dot eztdala gizonontzat egiten Yaungoikoarentzat baño. Aurrean daukadan suak gogora dakart Infernuko sua, eta alan nago beti gauz'onen bat gogoan dodala.

Zek galarazoten deutsue, berbarako, atxurrean egiten dozuen artean gogoan artutea, beintzat Yaungoikoak geuri mesede ederrak egiten deuskuzala, lurrari alango frutu eta labore gozoak emon eragin...; edo zuei lurra emoteko bere alan atxurtuko dabeela; edo azia usteldu ta ernetan dan legez, alan geure gorputzak bere lurpean usteldu ezkeru biztuko direala Yudizioko egunean? Zek galarazoten deutsue edozein bearretan zagozela burura ekartea Yesukristoren yaiotzea, edo pasiñoa ta eriotzea, edo Infernuko pena gogorrak, edo Zeruko gloria gozoak? Zeuen gogo txarrak. Zeinbat obago izango litzateke alangoak gogora ekarrita, orreen ganean berba egitea, eze ez besteen bizitzai eragiten egotea, edo barre eragiteko atxakiagaz zelebrequeriak eta zantarkeriak esaten egotea, eta arimea alan galdutea?

Yaungoikoak berak dirausku beti beti oraziño egiten egoteko, bein bere, utsik eta itxi-aldirik egin bagarik. Bekian Yaunak eginenak eta lanak

izango genduzala; baia baki bere orreek eragotzen eztabeela oraziño egitea. Azaz ganeti, zek galarazoten deutsue goxean oetik yagiten zareenean edo gauean oera baño leen gauz'onen bat buruan artu ta miñari eragin bagarik geldi geldi egotea? Ordu laurentxu gitxienez egoteko deboziñoa artu bear dozue; eta besterik ezpadakizue, edo buruak besterik emoten ezpadeutsue, esaiozue biotzagaz Yaungoikoari: asto batzuk zareela, ezta-kizuela berari zelan berba egin; ezta-kizuela bere kontra egiten baño besterik; berak irakatsi bear deutsuela oraziñoa eukiten, berak lagundu bear deutsuela onak izaten eta onelangoak.

4. Artu dozuezan gogo onetan irauteko laugarren egin bear dozuen gauzea da, ardura guztizko andi bat artu bear dozue pekatu txikiak edo benialak ez egiteko. Ai bazenkie ondo onek zeinbat balio daben! Pekatu txikirik ez egiteko kontuan dabilenak, orrek eztau, ez, egingo pekatu andirik; baia ardura ori artuten eztabena, gox edo berandu ori ezta pekatu mortal bagarik izango. Yaungoikoaren esana da gauza txikiak bildurrik artuten ezteutsana, geldi geldi bera andietan yausiko dala. Baita barriz errazago da pekatuai, txikiak direan artean, arpegi egitea, eze ez gero, andi eginda, pekatu mortalak azpian artu gaituzanean. Eztatutsue askotan txatar bateti askotan etse galantak erretara datozala? Eta txatar ori lelengoa amatau balitz etse orreek etzirean erreko. Baita orduan guztiz zan erraz txatar ori amatetea; baia gero suak indarrak artu ezkeru, erriko gizonak eta ibai bateko urak eztira asko izaten sua amatetako.

Alantxe da bada pekatuakaz bere. Nondi uste dozue asi direala lapurtotzar andiak? Lauziri, laumarai ostuteti; sagar bat, arrautza bat, arta bitxin (mitxer) bat, edo kabilla bat kenduteti. Nondi asi zan galduten arako gaurko egunean seigarrenekoan begi bietagiño ondatuta bizi dan gazte ori? Lelengueran etzan izan labankeriartxu bat epelik entzutea baxen, gero gogoz eta barrez entzuten zituzan berba arinak ta zelebrequeriak; geroago berba nasai loiak bere bai; geroago abiau zan besteai erantzuten eta berak bere besteainbeste esaten; geroago izan eban ukiera arintxu bat, eskua bear eztan tokietati erabilte bat; eta gerora gerora obrazkoan (aragizkoan) bere yausi zan. Lelengoa egin ezkeru errazagoa izaten da bigarrena, errazagoa oraindo irugarrena eta laugarrena; eta azkenean (gurenean) onenbestean itzalak bota dituz, eta galdu deutse bildurra obrazko (aragizko) orrei eze, ur otza legez parra parra edaten dituz.

Auxe da pekatari andi guztiak eroan izan dabeen bidea: pekatu mortaltzarren oña beti izan da pekatu txikiren bat. Birao andien oña birao txikerra, guzur andien oña guzur txikerra, murmuraziño andiena murmuraziño txikerra, gurasoai lotsa txarra artuteena murruxkada (burrufada) bat,



gorroto andiena kurruea, eta ordi galanteena tragutxu bat geiago ezar-tea, eta alan besteetan. Ai zeinbat ete dagoz Infernuetan pekatu benialakaiti! Ez pekatu benial utsak asko direalako bat Infernura botateko, ezpa-bere pekatu benialetarik bidea artuta, pekatu mortalak bere egitera etorri zirealako. Yudasegaiti dirauskue yakitun andi askok lelen go asieran txitozko santu andi bat izan zala eta milagro andiak egin zituzala. Baia ara gerora zetara yo eban. Eta, bakizue zein izan zan bere galdu bearraren sustrai guztia? Yudas-ek eukan lagunen arteko diruen kontua; atarik atara asi zan ziri miri zerbait bere aldera atzeratuten, eta lapurreta txikiak egi-ten; otzitu zan Yesukristo ta Apostoluak ganako amodioan; deungaro bere esan eban Madalenea-gaiti, eta azkenez ibili ta ibili Yesukristo Yaungoiko ta gizon egiazkoa saldu eta bere burua urkatu eban. Orregaiti bada bildur ikaragarri bat artu bear deusezue pekatu txikiak, eta aleginak egin bear dozuez orreek galarazoteko.

Bai, sinistu egidazue, errietan ainbeste pekatu egiten badira, dala pekatu benial txikiak bildurrik artuten etxakeelako. Konfesetan zatozenezan igarten yatzue zeuen bildur-eza. E! esan daroazue, *biraoak egin dodaz nik, baia ene biraoak ez tira izan inori oratuko; murruxkada (burrufada) batzuk gurasoak egin deutesadaz, baia ezteutset, alan, lotsa andirik galdu; guzurrak esan dodaz, baia, e! ez inoren kaltekorik; inogaiti deungaro esan izan dot, baia, e! ene murmuraziioak ezteute inori kleituan ukutu.* Onelangoak esan oi dozuez epel epelik ezer ezpalira legez. Sarritan entzuten yatzue, *A bestelako! Origaiti eztoa inor Infernura; Ei, eroa! Ori ur bedeinkatuagaz kenduten dan gauzea dozu;* eta onetariko beste asko adietan emoten dabeenak zeuk pekatu txikiak lotsarik bapere artuten ezteutsazuela. Baia emendi, zer dator gero? Pekatu andiak bere lotsea galdutea eta bildur bagarik egitea. Bada neure Kristiñauak, irau gura badozue artu dozuen bizitza onean, bildur andi bat artu bear deusezue pekatu txikiak eta ardura andi bategaz ebili beartzare orreek ez egiteko. Eta alan egin ezik, galdutzat emon egizue zeuen buruak.

Onek lau gauzok dira guztizko bide onak bizi-modu onean irauteko, eta pekatuak ez egiteko, eta ondo ondo yagoten badozue deritxat eze zuen buruak pekatu egiterik gordeko dozuezala. Baia inosko alditan zeuen argaltasunez pekatu mortalen baten yausten bazare, egin bear dozue ainbat lasterren konfesetara, eta zeuen arimak garbitutera. Geixotuten bazare, bertati dakazue medikua edo ofizialea geixoak indarririk artu baño leen. Umetxuren bat ibaira yausten baiatzue leen-bait-leen atera gura dozue bertan ito ze dedin. Eta zuen arimak ikusirik pekatuaren geixoarean azpian, eta infernuko oxinean ondatu aginean, etzare ansiatuko ta

estutuko leen baxen leen zeuen arima orrei begiratuteko? Ai! Kristiñauak: pekatu mortalean luzaro dagoanak agiri dau pekatuari bildur askotzarik ezteutsala eta orrek laster ostera bere pekatu egingo dabela. Pekatu mortal bat ezta luzero bakarrik egongo beste pekatu bateri atea idigi bagarik, bada San Gregorio Aita Santu zanak diñoan legez, penitentiako uragaz laster garbituten eztan pekatuak bere pisuagaz dakar gizona beste bat egitera. Onek biok pisu geiago daukeen legez errazago dakarde irugarrena, eta zeinbat eginago eta ainbat egiten errazago.

Beste aldeti barriz, bakizue zeuek, Kristiñauak, zeen begira zagozen? Nok esan deutesue nos artean biziko zareen, eta nos ilgo zareen? Ez egizue zuen buruak palagau (lorenyeu): leen esan deutesue, eta barrero esan bear deutesue ez begiratuteko gaztetasunari, bada gazte asko ilten dira; ezta osasun onari bere, eze osasun oneko asko ta asko ilten dituez lapurrak, suak, urak, ames dongak, yanak, eta beste milla gauzak. Eta, alangorik yazoko balitxazue? Baukazue Infernura yoateko biotzik? Ori badozue, eztago munduan zuek baxen biotz geiagokorik. Alan uste eban, eta ondo, Karlos Enperadore izen onetako bostkarrenak. Bein baten bere Kapital-soldaduakaz egoala, itandu eutsen onei ea nor eritxen mundu onetan zala biotzik geien eukana. Batek bat esaten eutsan, besteak beste bat, baktokak eritxon moduan. Baia berak zeruko yakituria bategaz esan eutsen gizonik asartuena eta biotz geien eukana zala, pekatu mortalean egon eta barre ta lo gozo egiten eban.

Azkanean barriz esan bear deutesue Ama Birjineagaz deboziño andi bat artu daizuela. Maria Santisimeari asko gura deusanak ondo agiri dau Zerurako dala, diño Alano-k. San Buenaventura-k diño Birjineari dago-kala: O Birjina gozoa! Birjina zorionekoa! Galdu bearrak direan legez zeuganik alde egiten dabeenak, alantxe ezin galdu leitekez, zeugana datozanak, eta zeuk errukiz begiratuta mantupean artuten dozuzanak. Baia, ez egizue uste or zirri-morro abemaria zarraparra batzuk esanda, edo beste alangoren batzuk eginda guztia eginik daukazuela Ama Birjinearen deboto izateko. Ez, errezuakaz batera bizitza ona bere bear da, eta Yaungoikoak aginduten daben moduko: onek lagunduten ezteutsala ganeko guztiak gitxi balioko dau. Ama Birjineari oraziño batzuk esan, eta beste aldeti bere Semea pekatuakaz il, deritxazue ondo eretxiko deusala Birjineak orreri? Ez beintzat, Ama Birjina Maria ezta adiskide azal-ganetikoen zale. Orregaiti bada bizitza ona aurreti, eta gero Ama Birjineaganako biotz beroa, orixe da benetako deboziñoa izatea.

(Au ondo egiteko ondo litzateke agaz batera artuko bazeuntse San Yosepe-ri bere deboziño andia. Santu au izan zan mundu onetan Maria



Santissimearen lagun maitea, Yaungoikoaren Semearen Aita ordekoa, eta irurok zeruan bere arkal ondo artuten dabe. Eta alan San Yosepe-k ezetan eskua sartuten badau, gauza orrek ondo urten bearco dau. Eta santu andi oneri gauza askotarako eskua emon deutso Yaungoikoak yakitun askok dirauskueneti. Emon deutso eskua yadiesteko ta alkantzetako bera-ri dei egiten deutesentzat grazia gorputzean ta ariman seigarrenekoeta-rik garbi izateko. 2° Pekatuetarik urteteko. 3° Ama Birjineagaz deboziñoa izateko. 4° Eriotza on bat egiteko. 5° Osasun galdua atzera artuteko. 6° Seme-alabak izatea alkantzetako. 8° Eta Demonio gaistoak bere guztizko bildur andi bat deutse bere izenari. Orregaiti da guztiz ederra Santu andi onen deboziñoa, eta gauza orretarako artu ziñaike egunean egunean zazpi aita-gurea ta abe-maria esatea.)

3. ESKONDUEN EGIN BEARREN GANEKO IKAS-BIDEA

(B, 63-70. or.)

Honorable connubium in omnibus,
et torus immaculatus.
Hebreor. 13.v.4.

1. Andia da Matrimoniñoko Sakramentua, diño S. Paulo Apostoluak, eta ezkontzako bizi-modua alde guztietatik ondragarria, ta guztiz garbia. Izan-bere, nai emetik begiratu, nai bestetik, edozein bere aldetik agertuko yaku enteroko beneragarri ta errespeto andikoa. Bere egillea ezta besterik Jaungoikoa bera baxen; bera barriztu ebana J.K°, bera egin zan denporea, mundua beste zarra, ta beragaz baterakoa da. Barriz berak emon dituzan frutuai begiratu gura badeutsagu, a, ze santu eskondu pillo ikusiko dogun! Nok uzentau leiz, Adan-etik ona asita, gaurko egunera (artean) Elexa Ama santeak izan dituzan ezkonduen arteko Santu-Santaak? Asko izango da Ama Birjinea eta San Josepe gloriosoa euren artean datozala (esatea). Da bada ezkonzea Sakramentu santu bat J.K°. geure Jaunak egin ebana ezkonduai grazia emoiteko, zeinegaz bakean bizi ditezan, eta umeak zeru-rako azi dagiezan. Iru gauza egiten dituz Ezkontzako Sakramentuak: Bata da gizonari grazia emoitea emazteagaz bakean, ta ondo bizi iraiteko, eta bardin andeari senarragaz ondo biziteko, eta bitzuoai alkar maite iraiteko, J.K°.k Elexea, eta Jaungoikoak arimea maite dabeena legez (santea). Bigarren gauzea Matrimoniñoko Sakramentuak egiten dabena da grazia emoi-tea umeak aziteko Jaungoikoaren bildur santuan. Irugarrena da imintea senar-emazteen artean ain moduko batzakuntza, ta lakio (lokarri) edo moropil ain estu emona ze, ezin desegin edo arkatulei eriotzeagaz ez izanik; zelan ezin arkatu leian J.K°.ren eta Elexa santearen arteko batzakun-tzea.

2. Izanik ain andia Sakramentu Santu au, bera artuteko eroan bear dira prestaera onak. Guztien aurrengo ezkontuteko berbea emonik dago-zanak ezin bizi leitekez etse baten; baita ez au bakarrik, ze ezta arkal ikusi bere egin bear ez tira bakarrean. Onen ganean gurasoak dauke obligaziño estua baño bere estuagoa, ebateko eta kentzeako (umeai) edozein bere tratu edo adiskidetasun euren ezkongieagaz artu ta euki leiena, bein ezkontzako berbea emon ezkeroran. Guztiz ardura andia enkargetan deu-



tset onetan, ze txikitan yazoko da nobio ta nobia ezkongeien arteko tratu, pekatu mortal askoren pelleburu bako: orregaitik (gauzarik) onen onenan da, bein ezkontzako berbea emonik, ainbat lasterren, al daiela, ezkondu eragitea. Ezkondu aurreko denporan ondo litzateke ezkondugeiak emongo balira oraindo besteetan baño geiago Jaungoikoaren gauzeetara, eta eskatutera bere serbizioko ezkontza on on bat egiteko argia ta eskua. Onetarik ameneko etorri lekikie euren betiko salbazinoa; orregaitik gauza ain pisu andikoan ondo da (eta alan enkargetan deusuet guztiai) aurrebideagaz denporea arturik, prestau ta disponidu deitezela konfesiño santuagaz, onetarako ezkonduko direan aurreko egunai itxadon bagarik, eta oinbat [sic] gitxiago egun berari edo bospereari; bada orduan geienean izan doa azalerik eginiko konfesiño otz-epel bat. Konbeni da bere ba konfesoreari esatea estadia artuteko dauken gogo, bada, yakintsua izanik, berak esango deutse zer egin bear dabeen, eta aurrerantzeko euren ganean artzean dituezan egin-bear ta obligaziñoak. Baia zetan bear daben ardurea euki bere ezkonduko direanak da Matrimoniñoako Sakramentu au intenzino eta gogo onagaz artutean: au gogo au izango da artutea bizi-modu bat, non errezagot izango yaken Jaungoikoa serbidu ta euren ari-maak salbeta: zelangoa dan askoentzat eskontzea; baita uxela oneri begiraturik guraso askok ainbat lasterren edade nagusiagoaren begira egon bagarik akomoduko balituez euren umeak. O, eta zeinbat pekatu galarezoko leuskioezan! Esan dodanen ganera Ezkontzako Sakramentua artuteko motibu yakinena ta nagusiena da umeak eukitea; ez eurretan ondasunen, eta ondra edo tituluen oñordekoak itxiteko gogo utsagaz, ezpabere sortutekoagaz J.K^o.ri eta Elexa santeari seme barriak, au da aziteko aurrekoak edo umeak, zeiniekaz geiagotu daitezcan mundu onetan egiazko Fedearen gordetzaileak, eta guero alabdua izan din zeruan Jaunaren izen santua. Auxe izan zan Tobias santuaren ezkondu zaneke motibua, eta alan zirautsan Jaungoikoari: Jauna, zuk dakizu zelan enaben ekarri Sara emaztetzat artutera (ekarri ebana) aragiari gustu emoitiko gogoak, eta bai bakarrik aurreko batzuk euki gureak, zeintzuetan zeure izen santua ezagutua, ta bedeinkatua izan din beti betiko. Baita beronexegaitik egin eban Jaungoikoak munduaren asikerarik Ezkontzea. Emetik agiri da zelango ikaragarritzko pekatua egiten dauden galaazoten dabeenak umeak eukitea onetarako erremedioak arturik, edo beste modutan.

3. Beste motibu bat Ezkontzako Sakramentua artuteko da, Adan guztioen gurasoaren pekatuari yarraitu deusana. Jaungoikoak egin eban lelengo gizona bere antzera ta irudira, eta borondate artezagaz, eta ez eban asmetan beragan geuk daukagan pekatutako zaletasun ta kilia: baia

pekatu eginda bertatik sensunen alderako gogo ta inklinaziñoak asi yakazan yaikiten, eta errazoiaren kontra egiten geuk gere kaltean gegan barruntetan ta igarten doguna legez. Alan bada, ezagaturik bere argaltasuna, eztabenak sufridu ta eroan gura ain gerra andia, artu leike Ezkontza santuko erremedioa. Oneek dira motibu edo errazoiak, zeintzuetarik artu lei, eta artu bear dau bat, edo bai guztiak, Matrimonio santua artu gura dabeenak Jaungoikoaren borondatea egiteko, zelan egin bear dabeen santuen ta kristiñauen umeak direanak. Baia, o gauza negargarria! Zeinbat eltzean ete dira Sakramentu au artzean abere mutu, edo animalia itsu eta loiak legetxe, euren gurari edo deseo zitel ta aragiaren gustu lotsagarritz asetearren! Oneek guero bere eukiko dabeen suertea, laster da esan. Onelangoen ganean Demoniño gogorak artu daroa eskueskunea ta poderioa. Ikaratuten zaituez entzunak? Eztiñot, bada, nik: S. Rafael Arkanjelu gloriosoak esan eutsan Tobias-eri berba onexekaz. Arako zaldi edo mando sensun-bakoak legetxe ezkondu direanak, euren gurari edo deseo zikinetan ibilterren, emoitin deutse Demoniñoari euren ganeko eskueskunea. Onelangoakaz gura daben guztia egin daroa Demoniño gaizkiñak. Au berau adietan emoitin deusku Tobias santuaren historia edo bizitzeak. Zazpi gizon gazte ezkondu zirean Sara eritxon Baguelen alabeagaz, eta ezkondu zirean gau berean, banaan banaan ilten zituzan bakotxa Demoniñoak. Zegaitik, guero? Gogo loiak aragiaren gustu gureak eroan zituzalako (ezkontzara) eskonduten. Ederra zan, eta edertasun (oneri) begiratu eutsen bakarrik, ez eukeen besterik gogoan aragiaren gustu zitelaxen, eta orregaitixe il zituzan ezkunduta [sic] gau atan berean Asmodeo deritxon Demoniñotzarrak. Alan S. Rafael Arkanjelu gloriosoak kenduteko Tobias-eri, agaz neskatilleagaz zortzigarren ezkondu eukan beldur latsa, emon eutsen konsellu auxe, beste batzuen artean. Artuko dozu zeuk neskatilla au zure emaztetzat Jaungoikoaren bildurragaz, ez gustu zitelagaitik, ezpabere semeak eukitearren, alkanzadu daizun eurretan Abraham-en (-eri aginduriko) bedeinkaziñoa. Alaintxe egin eban Tobiasek, eta alan ez bakarrik ez eutsan gatzik egin Demoniñoak, baita bere merezidu (izan) eban igaro'itea zorion andiko bizitza luze bat ezkontza atan.

4. Jaungoikoak, bada, ezkonduko deia bein emon deusun ezker, eldu zaitetz Jaunak aginduten daben gogo tan intenziñoagaz: ondasunak eta aragiaren gurariak baño leenago billatu bear dozu Jaungoikoaren lege santua gorde eragingo deusun bizimodua. Egia da, esan dodazan errazoe edo motibuak gaitik ezkondu danak, gura izan leikela bide batez beste arako doiak bere, zeintzuekaz inklinetan eta zaletuten dituez gizonak euren laguna izango dana artu edo eskojietako; zelangoak direan ordekoa



edo herederua itxigurea, ondasunak, edertasuna, familiaren edo odolaren garbitasuna, ekanduetan alkarren antzekoak izaita: oneek eta olango errazioak ezin esan leiz deungeak direala, ze ez tira ezetan Matrimoniño-ko santidadea eragotziten dabeenak. Baia zein euretan errakuntzarik ez itsumendurik egon daitean, gurasoai yatorke guztizko ardura andi bat eukitea. Beti beti Eskritura Santan aginetan yake au ardura au gurasoai, eta alan diño Jaungoikoak berak: Yakituriako Liburua deritxon liburuan: «emon eikiozu zure alabea gizon zuurrari, eta egin dozu beratan gauza andi bat». Beronegaitik, eta ezkontzak egin ditezan Jaungoikoaren borondateagaz batera, yakin bear dozue zelan Karlos irugarrenak (Errege) bere zedula edo ordena erkalagaz agindu eban ez bakarrik eleiela emon ezkontzako berbarik ogeta bost urte eztaukeen seme-alabaak euren gurasoen baiezkoa'bagarik, baita bere alagorik egin ta, aitarean baiezkoa euki bagarik ezkonduterakoan emoiten deutse gurasoai eskueskunea alango atenziño bako umeai kenduteko yatorkeen herenzia. Bere seme Karlos laugarrenak zertxubait laburtu eban edadea alabeen alderako, baita andra alar-gunen semeen alderako bere. Baia dana dala beti egiten dabe pekatu mortala gurasoen baiezkoa euki bagarik nai ezkondutean, nai ezkontzako berba emotean.

5. Bein oneek esan ezkerro Ezkontzarako prestaeren ganean, orain esan bear deusuet Trentoko Konzilio Santuak Kristiñau guztiai dirautsena. Yakin egizue ezkondutorduan eztozuela artzean gizonak iminiriko gauzaren bat; onerik errez yakingo dozue Jaungoikoaren grazian eldu bear dala Matrimoniño santua artuten, eta pekatu mortalean dagoala ezkonzetan danak, ezkondurik geratuten bada bere, guztizko ikaragarriko pekatu mortal bat egiten dau, eta Sakramentuari modu onetan artutean egiten yakan injuriaren kastiguan errazoe andiagaz bildur izan bear dau zein bere ezkontzea atsakabez betea, eta zorigaistokoa izan din. Garbi egizuez, bada zeuen (konzienziak) arimaak leenagorik konfesiño santuan, leen esan deusuedan moduan, eta alan uste zinaie, Eskontzako sakramentu onek ez bakarrik geiagotuko deusuela grazia, ganeko sakramentuak legetxe, baita bere emongo deutzueta grazia ta berezko esku ta laguntasuna arinduteko ezkonduen bizi-moduak daukazan zeregin ta nekeak, eta betetako, eta ondo ondo egiteko zuen ganean artuten dozuezan egin-bearrak, ta obligaziñoak.

6. Onen ganean esan bear deusuet ze, dana legez Ezkontzako Sakramentua senar emazteen arteko tornu guztiz estu emona, alantxe direala bere estuak ta andiak euren ganean iminten dituzan eginbearrak. Baita guztien aurrengo alkar maitetu bear dira, ze osterantxean ezin eroan leike

bear dan legez ain karga pisutsua ta uztarri gogorra. Adietan emo'iteko S. Paulo Apostoluak zelan maite izango daben Senarrak bere emazte, diño ze izan bear dabela J.K°.k bere Alexa santea legetxe, baita oraindiokoarren biño, guri urragotik yagokun beste gauza bat bere, eta au da: ondo gura bear deusela, norberak bere gorputzari legetxe. Eta eztago zegaitik miratu; bada, munduko lelengo andrea Eba, gu guztioen ama egin zan Adan lelengo senarraganik eta bere biotze ondoko saietz baterik, yakin daien senar guztiak biotz biotzetik gura izan bear deutseela euren andreari. Emetik, barriz, agiri da senarrak mandamentu onegaitik amadu, ta lotsea gorde bear deusala emazteari ez bakarrik bere biotz barruan, baita bere ganeko egikunetan, eta obeidu bere bear deutso Ezkontzeak gizona emaztearen zordun egiten daben gauzeetan. Alan pekatu egingo dau sentimentu andiko errazoeirik esaten badeutso, golpe andirik emoten badeutso: baia jeniño gaistokoa bada, soberbia ta suster, ta izpi txarrekoa, gangarra beeratuteko ondo litzateke nosik beintxuan azurrik ausiko ezteutsan ziortxu bategaz lepoa neurtuko baleutso eta astinduko baleu. Zegaitik uste dozue egin daudeela gura daudeena andra askok, ezpada eztaukeelako ezetako animu edo biotzik euren gizonak? Alango aztin-alditxu modu oneko batek emongo deutso bizitzea: baia esan bear deusuet senar guztiai eztaiea alangorik egin Konfessoreagaz konsellau bagarik eta esperantzaz andia ez dagoanean ondo urtengo dabela bide onek. Azaz ganetik egiten dau pekatu emazteagaz batera bizi gura ezpadau, edo beraganik apartetan bada errazoe on bagarik; ezpadau emon gura emaztearen eta familiaren dezenziarako bear dana; eta are geiago pekatu egingo dau emoiten badau zeloak artuteko motiburik (oñik) edo sospetxako ta izen deungaro etxeren baten sarri sartuagaz, edo beste neskatilla edo andraren bategaz sarri trataduagaz: au da, gauzea errazoe onean begiraturik uste leikenean eztaia Jaungoikoak aginetan daben moduko tratua; baia enkargetan deutset biotz guztitik gauza onen ganean ezkondu guztiak ze, eukirik errazoe guztiz andiak, eta euren begiakaz eguneko argia legetxe ikusi ezik, eztaioela lekuri emon onango ikaragarriko pasiñoari; bada guztiz dira asko ezkonduen artekoak lehenago Aingeru batzuk legez bake onean bizi zireanak; gero barriz, zeloak direala medio, Diabruak infernu bizi bizian imini dituz, eta da pekatu eskergea errazoa edo motibu arinak gaitik lagunaren pekatua sinistutea. Azkenengo, pekatu egiten dabe euren etseko bizimodua eta eskuartekoa galduteko peliburuan iminten dabeenak, yokoetara, burubako fientzatarra, ta onango tratu deungeetara emonagaitik.



7. Esan ezkeru oneek senarren egin-bearrok, igaroko gara emazteak egin bear dituezanetara. Eurakgaitik diño S. Paulo Apk. zelan Elexa san-tea dagoan J.K°.ren agindupean, alantxe andraak bere egon bear dabe senarraren esanetara edozein bere gauzatan. Au da, egin bear dituez senarren esanak, ez eurak gura dituezan gauzetan, ez nos eurak gura, ezpabere beti, eta gauza guztietan, ez izanik Jaungoikoaren legearen kontrakoak (kontrakoetan). Yakin begie, bada, Señora andra guztiak, senarra dabeela buru, ta etseko nagusi, Jaungoikoak berak Eba lenengo andreari esan eutsana legez, eta eurai bere bai ezkondutorduan Abade-Maisuak Jaungoikoaren berbakaz. Alan pekatu egiten dau andreak eztagoanean senarraren agindura etseko gobernuko gauzeetan, eta senarrari yaramonik egin bagarik, berak agindu gura badau etxean. Etxeko agintearitxeagaz edo gobernuagaz yagi gura daben andrea, berauxe gaitik doa senarraren kontra, Espiritu Santuak diñoandi; eta emazteak aginduten deusnan gizona, beragaitik lotsatuko dabe arririoak, ta burlatzar egongo yakaz, diño Espiritu Santuak berak». Pekatu egiten dau andreak, senarrak aginduten badeutso urligaz edo urleziagaz ez tratetako, edo urlia etsetan ez sartzaiteko, eta egiten ezpadau senarrak onetarako erroze justua eukirik, eta ezpadauko bere, pekatu egingo dau badaki, edo baderitxo ez eginagaz etseko bakea galduko dala. Pekatu egiten dau bere senarraren borondatearen kontra zenbaisteko inportanziako gauzarik gastetan badau. Egia da, bere estaduko Andrai yatorkeena gastetako senarrak baiezkoa edo lizenzia agirian, eta ao betean emon ez arren, uste leikeala auxe dala bere borondate, eta beste aldetik senarrak etserako bear dan dezentziarako ezpadau emon gura, ixilik artu leiala atarako emazteak, baia zein norberen burua iñok engañau dagian, andra-gauzeari sarri askotan yazo daroakena legez, guztiz bere yaziteko gauzeetan, eztabe egin bear arik-eta Konfesore yakintsu bategaz konsellau artean.

8. Azkanean barriz, etse baten bear dana da arkal sufrietea, ta pazienziatan ta bakean eroatea: bada bakotxak gura izaitea norberen gogora guztia etorri dakion, da ezin dan gauzea eskatutea. Jauna esango dau batek: Gogaitarazoten deuste eta ernegarazoten, eztaudelako nire esanik egin gura. Bada yakin egizu eztabela iños abisuak eta agirakeak gitxiago egiten, kolereagaz eta pazienza falteagaz egiten danean baño, eta alan agiraka egin edo kastigadu bear dozunean itxadon eikezu aserrea, ta sua yoan astegiño; sosedadurik arimea eta epetasun onean zagozala obato urtengo dau edozein bere abisuk, eta obeto egingo dituez esanak. Azez ostian bere zerbaist sufridu bear deusazue emazteai, ze S. Pedro diñoanez, zuek baño argalagoak dira ta ez ainbesterakoak; baita gizagaixoak miña dau

yausten, edo uts egiten errazagoa. Guztia egingo dau amodio karidadezkoa, zein euki bear deusnan arkaleri senar-emazteak. Amodio karidadezkoa diñot: baia kontu zein amodioa eldu daitean ainbestera ze, berari guztu emoitearren itxi daizuen Jaungoikoaren lege santua. Kontu, diñot ostera bere, zein amodio loi batek egin daian pekatu izan deilla oetarán senar-emazteari galarazorik eztagoan gauzean. O, eta zeinbat senar-emazte eroan dituz infernura uste izaiteak ardura bagarik edozein gauza euren artean egin leikeala! Neure ordeko Fr. Gil santuaren aurrean alabetan eban bere burua gizon ezkondu batek, esanik bera zala kasto eta garbia, ez eutsalako bere emazteari galdu Matrimoninoan eutsan fielta. Esan eutsan orduan S. Gilek: Eta, eztaukizu etsean norberak daukan ardaoagaz, berea izana rren bere, orditu leitekeala? O, eta zeinbat esan eutsan berba (gitxi) labur oneekaz! O ze ondo izango litzateke ulertuko baleude au ezkondu guztiak! Yakin negie, bada, gorde bear dabeela euren estaduari ta ezkontzako bizi-moduari yatorkan kastidatea. Baia, zer diñot, ezkonduai kastidatea? Bai zelan-bere kristiñauak. Gagokazan konturako dagoz kastidate bi. Bata da ezkonduak eztiereanak gorde bear dabeena, baita onek eragozten dau seigarren mandamentuak legetxe, edozein bere aragiaren gustu nai dala pensamentuz, nai gogoz, nai berbaz, nai eginez. Beste kastidatea bat dago eztabena orrenbeste eragozten, eta au da ezkonduak euren artean gorde bear dabeena. Kastidate onek ezteutse galarazoten ezkonduai umeak eukiteko egin bear dana; baia bai osterantxeko gauza guztiak, eta egiten badabe gustu artu, ta seña galaazoteko moduko gauzarik, egingo dabe pekatu mortal ikaragarritzko eskergekoa eta oraindokoarren ezkon-bakoak egingo leukean baño eskergeagoa; edo obeto esateko, ezkonduak pekatu mortal bi egin baleukez, ezkonduak egingo dituez lau ikaragarritzkoak. Barriz, egiten dabeen osterantxeko gauzea, ezpada seiña eukitea eragotzi leikena, izango da pekatu mortal guztiz loi loi, eta ezain ezaina danean; ganekoan, barriz, beniala; baia benialen artean andia.

9. S. Franzisko Sales-ko gloriosoak diño ze, egia andi bat dala, Sta. Katarina Sena-koak ikusi zituzala arima asko tormentu eskergen artean, Ezkontzako santidatea loitu ta kakaztu ebealako, alkarren artean egin zituezanakaz: eta au yazo da, santeak diñoandi, eztaukeelako pekatu oneen ardurarik, bera egiten daudeenean, eta alan dagoz luzaro beratan Italiako erri baten agertu yakan, il ezkeru, ama bat bere alabeari. Kanpotik emoitien eban exenplu ona bizi zan artean ama onek; baia orregaitik esan eutsan alabeari: Kondenauta nago zure aitagaz naste egin nituzan pekatu mortal batzuk-gaitik, zeintzuez enituzan lotsea gaitik eguño bere konfesau.



Izan deila, bada, ezkonduen arteko amodioa amodio garbi bat, J.K.^o k Elexa santeari deitsena langoa; amodio kasto bat, zeinegaz estuturik arima bi, bizi guztia umeak zerurako azten emoten daudeela, alkanzauko dabe eurekaz batera bertako betiko gloria. Esan dodanez ganera ondo da ezkondu guztiak gorde daien garbitasuna yai-egun andietan eta barau egunetan, ze alantxe konselletan dabe Doktore Santuak, eta Elexako erregela edo legeak: baita bere komuniño santua artuko dabenez iru egunez lehenago, enkargetan dabena legez Erromako Doktrina liburuak; ez pekatu mortalen beian, baia bai Sakramentu altarakoa erreberenzia (andiagogaz) geiagogaz artuteko.

4. SAN MATIASEN EGUNERAKO SERMOIA

(B, 191-196. or.)

Ezkontzako Sakramentu Santura eldu bear dan
gogo eta prestaereen ganeko Sermoea

1. Eztau gizonak ezetan bere, bizi-modua, edo estadiau autu, ta eskojietean baño begiratu bear, bada onetantxe doa bere betiko zerua edo infernua. Azertetan badau konbenidu yakona, mundu onetan biziko da bake andi bategaz biotzeko poz andiagaz; eukiko dau arimako atsegina, batuko dituz birtute eta graziaren ondasunak, eta elduko da azkenez beste munduan zeruko erreinua artutera. Barriz uts egiten badau, eukiko dau mundu onetan naibagea, atsekabea penea, eta bestean beti betiko infernu bat. Zeinbat ete dagoz orain infernuetan Sazerdote edo Mezako izan zirealako, zeintzuk egongo zirean zeruetan eskondu balira? Zeinbat eskondu kondenadu ete dira salbaduko zireanak Abade egin balira? Zeinbat Fraile, zeinbat Monja erretan ete dagoz beti betiko, egongo zireanak Jaungoikoaren arpegia ikusten munduan geratu balira? Zeinbat anra eskonduarren galdu dira betiko eurentzat etzan gizonagaz egin zirealako? Zeinbat senar dagoz gaurko egunean infernuko garren artean, zeintzuk beste emazte bat artu baleudee izango zirean zorioneko? Orregaitik bada estadiau artutean uts egiten bada guztia uts egiten da, eta doa galdurik. Bada ze erremedio azertetako? Zer egin bearko da uts ez egiteko? Yarrantu Apostoluak emoitzen deuskuen ikasbide edo doktrinea S. Matias-en aukera edo elezkinoan, dirausku S. Juan Krisostomo-k. J.K.^o k zerura igon ezkerro, esan eutsen S. Pedro-k autu edo eskojidu bear zala norbaist Apostolutzat, bete zedin Judas madarikatuak utsik itxi eban lekua. Baia etzirean azartu iñori estadiau onetarako dei egiten, diño S. Juan Krisostomok berak: ekien Jaunaren eskuetan dagozana gizonen suerteak ta goraberak, eta orregaitik billatu ebeen bere borondatea. Imini zirean oraziño egiten, eta erregutu eutsen modu onetan, diño S. Lukas-ek: Zuk, Jauna, daukazuz bakarrik guztien biotzak; adietan emon egizu bada nor autu edo eskojietan dozun oneetatik zure Apostolutzat. Eskabide humiltasunez beteriko onegaz ekarri ebeen, Jauna adierazotera nor gura eban Apostolutzat, eta ezagutu ebeen S. Matias zala suertetsua. Auxe berau egin bear dabe gura-



soak euren seme-alabakaz. Eskatu Jaunari eroan dagizala euren seme-alabaak bere Majestadearen borondateko bidetik. Barriz, zer yazoten da? Geienetan gurasoak errepartetan dituez estaduak semeen artean ogi zati bat egiten dana legez. Etseari datorkio kapellania bat, eta urlia seme aregaz Abade egingo dogu; nagusiak eroango dau etsagunzea, edo haziendea, eta ar-or oneek ondo akomodaurik; besteari ofizio auxe emongo deusagu, eta guztiak ondo geratuko dira. Au pensadu ezkerro Abade izango dana ifinten da gramatika ikasten. Ez yako bada oneri itanduko, Mezako izan gura daben ala ez, ezta begiratuko bokaziñorik daukanez, Jaungoikoak dei egiten deusanez. Kapellania dago? bada izan bedi Abade. Beste oneri emongo deusagu haziendea eta ezkonduko da yakiteko aleginik egin bagarik, bizi-modu edo estadu au ondo baiako ala ez. Eta, zelango gatxak datorkio munduari onetatik? Eztot nik zer esanik; yakinegiak dira munduan deungaro arturiko estadurik eme ta yaiorean eskandaluak, eta zer-esateak.

2. Orregaitik bada pekatu mortala egingo dabe gurasoak semeai artu erazoten badeutse eurak gura eztabeela estadia. Kontu daigun; ezin Abade egin leie semea berak gura eztabela; eta ezta eskondu bere, bere borondate bagarik; bada egia izan arren semeak gurasoen agindura egon bear dabeela, estaduaren ganean borondate osoa ta librea dauke, eurentzat oneena deritxoena (al izan ezkerro) artuteko, eta alan ezin estutu leiz ordenduteko, edo eskonduteko. Ai, Aita, esango dabee, bear bada, seme auxe ordenduko balitz ondo giñatekez betiko, ze etse guztia ondo geratuko litzateke. Eta esan egidazu: gura dozu infenuetara bota zeure erraie-tako semea, eta zeuk bere yarraitu berari? Bada auxe da arako biderik artezena. Zegaiti ze Jaungoikoaren borondatea billatuten eztanean edo semeen estadian munduko ondasunak edo konbenienziak ta ondo-egoteak baño begiratuten eztireanean bildur izan ziñatekez eztireala sartuten Jaunak gura daben bidetik, eta bide au uts egin ezkerro lenengoan, ezin gero atsera biurtu leiteke, edo gura ta gur'ez ibili bear da bide okerretik, edo Jaunak señaladu eztabenetik. Egia da, Jaungoikoak uts au emendatu ta zuzendu leikeana, baia Jaun onek beronek dirauskuna da, zori-galdukoak direala berari itandu bagarik, itundu edo konselletan direanak euren gustua; bada onek ezarriko dituez pekatuak pekatuen ganean, diño Isaias-ek. Eta, uste dozu mundu onetan bere aurreratuko dala zure ondasun, zure etse edo familia? Sarri ikusten dana da galdurik geratutea egiten direan gastuakaz edo gazterik ilten direalako, edo deungaa urtenik daukeen errentea baxen geiago bear dabeelako, edo daukeena besteri emoitent deuseelako geratuten direala gastuakaz, eta probetxu bagarik. Auxe

da Jaungoikoak Ajeo Igarla edo Profetearen aotik zematurik daukan kastigua. Diño bada: asko erein dozue, baia gitxi artuko dozue, ze modu orretan batu gura izaitea da boltsa urratuan edo zulodunean diruak botea. Ondasun andien yaube egingo zineala uste zenduan; barriz gitxitu yatzuz. Batzaindu dozuz, baia neuk guztiak galduko deusudaz. Baita, zegaitik eritxazu au yazo yatzula? itanduten dau Jaungoikoak berak. Bada berak eranzuten dau: Nire etxearen, zein dan Elexa santea, ardurarik eztaukazulako, eta bakotxak bere etxea azi gura dabelako, nire etxearen, zein dan Elexea, yaramonik egin bagarik.

3. Baia enas onetan geiago luzatu gura, eta izanik geienak Ezkontza-ko estadu santua artuten dabeenak, onexen ganean berba egingo dot arraztegi onetan. Barriz enas geratuko aituten emoten ondo yagotzuen ala ez, ezpabere autortu edo konzedidu gura deusuet, estadu onetara deituten deusuela Jaungoikoak, eta ezkonduetea ondo yatzuela salbetako; orregaitik bere ezta au asko seguru egoteko, eta alan begiratu bear dozue, nogaz ezkonduen zureen, zelango prestakuntza ta disposiziñoagaz elduen zureen sakramentu santu au artutera, eta zelango intenzinoa, ta gogoa daroazuen. Auxe izango da gaur predikaduko deusuedana. Gauza guztiz bearra ain gurasoentzat, zein ezkonduko direnentzat, ze bear bada onetan doa guztien salbaziñoa. Birjina ederra, Jaungoiko guztiz altsuaren Ama garbia, emon egidazu bear dan indarra ta espiritua adierazoteko neure enzulai zelan eldu bear direan zure semeak Elexa santan ifini eban sakramentu onetara. Garbitu egidazuz neure ezpanak urten eztagidan neure aotik bear eztan barbarik, eta enzun eztagidan eskandalizadu al neikean gauzarik. Egizu nire errazoe guztiak izan ditezan arimeen onerako. Seguru gagoz Zeruko Erregiña, alan izango dana, zu gure bitarteko izaiten bazara; eskatuten deusugu, dirautsugula Aingeruagaz batera: Abe Maria.

4. Yakin begie Matrimoniño edo Ezkontzaa santua artutera doazan Kristiñauak, diño Trento-ko batzar edo Konzilioaren ikasbide edo Katezismoak, yakin begie ze eztabeela artzen gizonak ifiniriko gauzaren bat, ezpada Jaungoikoa dala [sic] eta J.K°.k bere Elexan itxiriko sakramentu santu bat. S. Paulo Apk. deiegiten deutso ezkontzeari Sakramentu andia, misterio beneragarria, eta alan eroan bear dabe intenziño arteza eta gogo garbia. Yakin gurako dozue ze gogo eroan bear dan Ezkontzara? Bada izan bear da semeak eukiteko, Elexa santea azi dedin mundu onetan, eta guero, onekaz bete dedin zerua. Auxe zan Aingeru S. Rafael-ek Tobias-eri esan eutsana: Artuko dozu emaztetzat Sara Ragel-en alabea, barriz eztozu gustu zitelen guraariz Ezkontza au egingo, ezpabere semeak euki-



teko alkanzadu dagizun zeure semeetan Abraham-en bedeinkaziñoa. Auxe berau diño elexako Yakintzu eta Guraso edo Aita Santuak. Barriz itandu deiegun ezkontuten direanai, ze gogo daroien Sakramentu onetara. Eta geienak eztabe yakingo zer eranzun, eta badauke [sic] bere geienak artuko dabe Sakramentu au edo ezkongea aberatsa dalako, edo abere edo animalia sensunbageak legez euren gurari zitalak asetako. Onexek biok izan doaz ezkontzarik geienetan, guztietan ez esatearren, begiratuten direan gauzaak, eta eukiten direan gogoak; eta bioetatik yaioten dira ainbat gatx, ainbat eskandalu ta zer-esan ze, eztago ponderau leikeanik, diño S. Juan Krisostomo-k. Batzuk ezkonetan dira ezkongea aberatza dalako eta onetan sarri gurasoak pekatu egin daroe. Yakin ezkerero ezkongea aberatsa dana ezta itanduten ez begiratuten zelangoa dan, ze bizi-modu daukan; ezta yakin gura ze kristiñau dan, ez ekandu deungarik badauko. Ezta begiratuten ze bizitza(n) egingo daben besteagaz, ez ona dan, beragaz Jaungoikoaren legea gordetako, eta bakean bizi izaiteko. Dote ona dauko, aberatsa da, diru gitxigaz akomodauko dogu alabea? Askok da, ezta geiagobear.

5. Eta zeinbat pekatu egiten dira Nobio edo Nobia izatera eldu orduko? Ara Kristiñauak, lotsa izango nintzateke onen ganean prediketean, leku santu onetan egunean egunean yazo oi danak erakutsiko ezpaleu ze egia dan. Orregaitik guztiz da bearra onen ganean berba egitea, bada deritxat ze, Kristiñau guztiz asko daroazala Demonioak augaitik, eta alan esango dot zer yazoten dan al dodan garbitasun guztiagaz. Ikusten dau neskatiñaren batek, mutilen batek ondo begiratuten deusana, eta ameneko ameneko begiz yoten dau. Daki berari ezatorikona bera baño aberatsago dalako, edo bere gurasoak gurako eztabelako. Zelango asmuak artuten dituz bada bere guraariagaz urteiteko? Artuten dau beragaz adiskidetasuna, eta bein artu ezkerero beti dabil begira nondik nora beragaz egongo dan. Konbidetan dau merienden batera, ostuten dabela onetarako al daiana etsean. Erromeriarik bada, araxe doa antxe beragaz egotearren; eta obeto eretxi deion apainduten da al daien ondoen; aintxe alkarregaz yan da edaten dabe, eta dagoz berba-aldi luzeetan. Baita, nox datoz etxera? Gauez, edo bai gitxienez iluntzean libreago ibiltarren. Egunerik egunera su andiagoa artuten dau euren amodio loiak; egunerik egunera doa galduaz bildurra. Nok esan leikez orduan egiten direan pekatuak? Ze loikeriak! Ze guraari deungoak! Ze berba zikinak! Eta biziko dira denpora luzean osorik? Nok esango dau amuko edo liñu (kirru) sikua denpora luzean erre bagarik egon leitekeala sut-ondoan? Elduten dira gero bere azkenera, emoitent deuto bere gorputzearen ganeko eskabidea, ezkon-

tzako berbea kentzeko, eta agertuten da erri guztien begietara egin dabeen pekatua.

6. Eta, zer egin daude denpora guzti onetan neskatiñan onen gurasoak? Eurak erantzungo dabe eztabeela ezer yakin; ezteutsela euren alabeen gauza deungarik ikusi. Egia dala nosbait gizon gazte agaz ikusi egin dabeena, baia ezteutseela eguño gauza deungarik buruak emon. Barriz, zelan au erantzun zinakee? Erri guztian esaten zan zuen alabeari asko gura eutsala mutil arek; guztiak ekusezan beti beti alkarregaz; eta, zuek bakarrik etzenkien? Zeinbat bider yoan da gau utsez zuen etxera? Zeinbat bider yoan da gizon gaztea eske zuenera, erromeriar lagunduteko, eta emon deusazue baimena edo lizenzia batera ibilteko gaua ilundu ezkerore bere? Ori bai, erantzungo dozue, bagenkian ondo gura eutsana, baia ez euskun gogoak emoitent beste gauza deungarik. Nok sinistuko deusue? Errezago sinistuko dau edozeinek beste gauzarik; eta egia esan gura badozue, ara emen zuen gogo guztia. Bazenkien zuek gizon gazte a ezkongei ona zana zeuen alabearentzat, baia bildur zineen bere gurasoak gurako ez ebeela, ezkontza obeak eukiko zituzalako, eta orregaitik ez yakin egin zendu, edo bista luzea, ya modu onetan alkarregaz ezkondu al daitezat; eta alan zeuen ixilik alkarregaz egonagaz, zeuen ez yaramonagaz idigi deusazue bideak ainbat pekatu loiri. Ara bada guraso zorigogorrekoak, zeuen alabeak egin dituzan pekatu guztien kontu zeatz eta estua emon bearke deusazue J.K.^ori judizioan, ez bakarrik pekatu oneena, baita bere errian emoten dan zeresanena, dabiltzatan deungaro esanena, edo murmuraziñoena, gizon gaztearen gurasoak artu dabeen atsakabe edo naibagena, familietan yagiten direan aserrakuntzeena eta,... eta... esan bere ezin egin leike zeinbat pekatu artu dozuen zuen lepoan. Baia guztia iruntziten dabe gurasoak ura legez, alabea ondo ifintearren. Eta onetara, zer yazoten da? Ondrea, kreitua kendu deuto, seindun dago, ezkondu bear dau beragaz. Urteiten dabee eurenagaz neskatiña eta gurasoak, eta artez edo oker ezkontuten dira. Ea bada: eldu zara gura izan dozunera, ya daukazu ainbeste gura izan dozun senarra. Baita, deritxazu bake onean gozaduko dozula senar ori, eta bere haziñdea ta ondasunak? Deritxazu, zorieko izango zareala? Obeto sinistuko neuke eztozula egun onik eukiko, eta mundu onetan infernu txiker bat eukiko dozula, eta andi ta osoa bestean. Zegaitik, gero? Ara.

7. Lenengo pekatuakaz idigiten danean bidea zerbaist alkanzetako ezator Jaungoikoagandik, eta Jaungoikoaganik ezatorren on, ondasun eta gustuak ezin iraun leike; bada Dabid Erregeak dinoandi arpelik dabiltz etxegintzak Jaunak egiten ezpadau, ze yausiko da. Gitxien uste dozunean



bapere bagarik ikusiko zara, bada Jaungoikoak berak diñoana legez deungaro eta pekatuakaz irabazten danak, eztau eukiko Jaunaren bendiziñorik; eta zeruko bendiziñorik eztaukan gauzeak, eztau iraungo. Emetixek dator bigarren gatxa. Ikusirik gizonak zelango bear, premiña, eta ameneko nezesidade, eta pobrezan dagoan idigiten dituz begiak, ezagututen dau zugaz ezkontutea ze deungaro egin eban eta beste etorkion emazte bat artu baleu bear ebana etsean eukiko ebana, baia zeuk engañadu zenduala zure modu ta libertadeagaz; eta ikusirik eztagoala erremediorik, ezin zukanik apartadu leitekeala, asten da tristetuten, amatetan da arako amodio zoroaren garra, eta abietan da sartzen bere biotzean zukanako gorrotoa, daukazulako bere bear, nezesidade ta pobrezearen erru guztia. Zer irudingo dau onik aurrera etse onek infernu bat baxen? Egiten dozun guztiak enfadetan dau, diñozun guztiak aserratuten dau, ezin ikusi zaituz bere begien aurrean; guztia da agirakea, errieltea, biraoa, maldiziñoa, añena, makillea, eskua, ostikoa ezpalitz. Ez eukiak, edo bearrak estututen badau emoitén deustu arpegian etzenduala ezer ekarri etxera, zuk engañadu zenduala, zu baxen obagoak eukazala nogaz ezkondu; uxala eguño ez ikusi ez ezagutu ezpazenduz. Berba baten txakur katuak legetxe zagoze beti, ezin alkar ikusirik, ezin alkar sufridurik, alkarren arnaseak bere aserratuten zaituezala. Etzagoz konfesetako, etzagoz meza bat bere entzuteko, etzagoz errosario bat bere errezetako. Eta, zer izango dira matrimoniño onetako semeak? Zer? Gizon eta andra galdu batzuk, Kristiñau deunga batzuk. Zegaitik? Emoten deutzazuen erakuste ta aziera deungeagaitik. Zer gura dozue urten (ikasi) daien umeak, ezpadantzue Demoniñoa, Diabrua, maldiziñoa eta biraoa baxen? Eta ezpadakuse aserrea, gorrotoa, eta infernua bera dirudian etsea baxen? Orregaitik eztago deungaro eginiko ezkontzeak baño infernura geiago daroian gauzarik. Daroaz ezkonduak, onen gurasoak sarri ta sarri, onen semeak, semeen semeak, eta bear bada belaun askotako jeneraziño osoak. Eta orregaitik bere eztau iñok konfesadu gura berak errua daukanik. Egunean egunean dantzugu senarrai esaten: Ai Aita! Jaungoikoak emon eustan emazte bat, ezin bera-gaz bakerik egin leike: ain da temosea, ain da berbalaria ta min luzekoa, ain arrabioseza ze neure arimea galdu erazoten deust. Emazteak barriz diño: Jaungoikoak emoniko senar bat baukat, zeinegaz ezin bizitzarik egin lei; beti beti dago nire kontra, ezin ikusi nau, berbatxu bat egiten bot aserratuten da, ezin gusturik ezetan-bere emon deustat. Biak diño bada guzurra, Adan-ek legez. Jaungoikoari ezarten deutse errua senar edo emazte a emon deustelako. A zorigaistoko ezkonduak! Jaungoikoak ez eustun emon senar edo emazte ori; zeuk artu zenduan Jaunari eskatu

bagarik, eta bere borondatea itandu bagarik. Berari eskatu bazeuntso, eta sartu bazina bide artezetik matrimoniño santuan, etzineen orain aurkituko infernuko bide garratz onetan.

8. Beste errazoe bat dago zegaitik ezin alkar ikusi dozuen, eta amodio bagarik bizi zareen, eta eztozue benturaz iños yaramonik egin izango. Sakramentu guztiak emoten daudee berezko grazia, edo esan daigun partikularra, edo apartekoa. Matrimoniño santuak emoten daben grazia da bakean arkalegaz bizi izaiteko; onetarako azi edo geituten dau arkalganako amodio, edo ondogurea. Baia onetarako ezkontuten dana grazian egon bear da; osterantzean pekatu mortalean badago, grazia artu bearrean pekatu mortal barri bat egingo dau. Eta, ze estadutan ezkondu zinean? Ez zenbiltzan egun aetan loikeria ikaragarrietan? Konfesadu nintzan ezkontuteko, erantzungo deustazu bear bada. Ondo: eta kendu zenduzan guraari deungaak, euki zenduan damu benetakoa, eta propositu sendo eta firmea? Ezta errez, bat gustu ziteletan sarturik dagoanean aen damua eukitea, eta gitxiago propositu edo gogoa eukitea geiago biurtu ez eiteko estadu atara. Orregaitik gatx da, orduan konfesiño egiazkoa egitea; errezago sinistu leike deungaro konfesadu zineala, eta pekatuz beterik sartu zineala estadu ta bizi modu banian. Ze miraari bada bizitza deungea (errotea) igaroitea, ezin alkar ikustea, eta gustu bagarik iragotea Sakramentu santuaren grazia bago? Eta, ze erremedio? konfesiño on bat egin, parka eskatu Jaungoikoari, eta pazienza euki, neke onek zeuen pekatuen orde Jaungoikoari eskindu ta ofrezietako.

9. Beste batzuk elduten dira sakramentu onetara abere edo animalia itsu eta loiak legez, euren guraari zitai eta aragiaren gustu lotsagarritz asetanen, eta onen suertea ez oi da lenengoena baño ohea izan! Bakizue zegaitik, gero? Onen ganean Demoniñoak eskueskunea daukalako. Ikaratuten zaituez au entzunak? Eztiñot bada nik neure buruz, S. Rafael Aingeruak esan eutsan Tobias-eri. Arako zaldi edo mando sensun bakoak legez ezkontuten direanak, euren guraari loietan ibiltarren, emoitén deutse Demoniñoari euren ganean eskuikunea. Onelangoakaz gura dabena egiten dau Demoniñoak. Zazpi gizon gazte ezkondu zirean Sara Ragel-en alabeagaz, eta ezkondu zirean gauetan il zituzan Demoniñoak. Zegaitik? Intenziño, gogo loiak eroan zituzalako ezkontzara. Edena zan, edertasun oneri begiratu eutsen bakarrik, ez euken beste gogorik aragiaren gustu ziteletan sarturik egotea baxen eta orregaitik il egin zituzan Asmodeo eritxon Demoniñoak, A Kristiñauak! Zeinbat onelango ezkontza egiten dira? Zelan gura dabe Jaungoikoak bedeinkatu dagizan? A! Errezago sinistuko neuke aserraturik sakramentu onetara dakarren prestaera oker



ta loiagaz ezteutsela emongo karidade ta alkarganako amodiorik eta biziko direala bake bagarik, aserrakuntza andietan, eta alear ezin ikusirik. Bakizue, gero, zegaitik? Irudi bategaz adietan emongo deutsuet. Sarri yazoten da gizonen bat yanariren baten zale izaitea; dauko okasiñoren bat, eta yaten dau ase giñokoa. Larregi yate onek palagetan dau, eta andik aurrera, ezin ikusi bere egin dau a yanari a. Erraz ezagututen da zer esan gura dodan.

10. Bada Jaungoikoak dei egiten badeutsu estadu onetara, eldu zaitetz Sakramentu onetara, Jaungoikoak aginduten daben gogoagaz. Ondasunak eta aragiaren gustuak baxen leenago billatu eikezu Jaungoikoaren legea gordetan lagunduko deutsuna. Erregutu egiozu berari emon deizula zeure arimearen onerako konbeni yatzun senar edo emaztea; bada berak bakarrik au emon leike. Espiritu Santuak diño gurasoak emon leikezala ondasunak eta onrea; barriz Jaungoikoak bakarrik emazte ona. Au egiten badozue, zeuen semeak santuak izango dira, diño S. Paulo Apk., zeuek santuak izango zare, santua zuen etsea; mundu onetan eukiko dozue bakezko bizitzea, lurrean eukiko dozue zerua, eta zeruan aurkituko zaree zeuen seme-alabakaz Jaungoikoa alabadu eta bedeinketan beti betiko glorian azken bagarik. Amen.